Caja Laboral Popular Coop. de Crédito eta haren mendeko sozietateak

Auditoretza-txostena
Urteko kontu bateratuak, 2023ko abenduaren 31koak
Kudeaketa Txosten bateratua

Txosten honen bertsio hau jatorrizkoaren itzulpen librea da, gaztelaniaz egina. Ahalik eta arreta handiena jarri da itzulpena jatorrizkoaren irudikapen zehatza izan dadin. Hala ere, informazioaren interpretazioari, ikuspuntuei edo iritziei dagokionez, txostenaren jatorrizko hizkuntzako bertsioa lehentasuna izango du.

Urteko kontu bateratuei buruzko auditoretza-txostena, auditore independente batek egina

Caja Laboral Popular Coop. de Créditoko bazkideentzat:

Urteko kontu bateratuei buruzko txostena

Iritzia

Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren (Entitate Nagusia) eta haren mendeko sozietateen (Taldea) urteko kontu bateratuak auditatu ditugu; hauek hartzen dituzte barne: 2023ko abenduaren 31ko balantzea eta egun horretan amaitutako ekitaldiari dagozkion galdu-irabazien kontua, kontabilizatutako sarrera eta gastuen egoera-orria, ondare garbiaren aldaketa guztien egoera-orria, diru-fluxuen egoera-orria eta txostena, guztiak ere bateratuak.

Gure ustez, Taldeak 2023ko abenduaren 31n dituen ondarearen eta egoera finantzarioaren eta egun horretan bukatutako ekitaldiko emaitza eta diru-fluxu bateratuen irudi fidela erakusten dute honekin batera doazen urteko kontu bateratuek, alderdi nabarmen guztietan. Horiek guztiek bete egiten dituzte Europar Batasunak emandako Finantza Informazioko Nazioarteko Arauak (FINA-EB) eta Espainian aplikatzekoak diren finantza-informazioko arau-esparruko gainerako xedapenak.

Iritziaren oinarria

Gure auditoretza Espainian kontu-auditoretzako jarduera arautzeko indarrean dagoen araudiari jarraikiz egin dugu. Arau horien arabera dagozkigun erantzukizunak aurrerago deskribatu ditugu gure txostenean, *Auditorearen erantzukizunak urteko kontu bateratuen auditoretzari dagokionez* atalean.

Taldetik independenteak gara, eta, beraz, bete egiten ditugu Espainian urteko kontu bateratuen gure auditoretzari aplikatzekoak diren etika-eskakizunak, independentziarenak barne, kontu-auditoretzako jarduera erregulatzen duen araudiak eskatutakoaren arabera. Ildo horretan, ez dugu eskaini kontu-auditoretzako zerbitzuaz bestelako zerbitzurik eta ez da gertatu, araudi erregulatzaile horretan ezarritakoaren arabera, beharrezko independentzia hori kolokan jar zezakeen egoerarik edo gorabeherarik.

Gure ustez, auditoretzarekin lortu dugun ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du iritzia emateko.

Auditoretzaren funtsezko gaiak

Auditoretzaren funtsezko gaiak dira, gure judizio profesionalaren arabera, aldi honetako urteko kontu bateratuei buruz egin dugun auditoretzan adierazgarrienak izan direnak. Gai horiek guztiak osotasunean aztertu ditugu gure urteko kontu bateratuen auditoretzan, eta osotasunean eman dugu, halaber, horiei buruzko iritzia; hau da, ez dugu gai horietako bakoitzari buruzko iritzi bereizirik adierazi.

Madrilgo merkataritza- erregistroa, 87.250-1 orria, 75 folioa, 8.054 liburua, 3. sekzioa
ROACen inskribatua, S0242 zenbakiarekin. IFZ: B-79 031290

Auditoretzaren funtsezko gaiak	Auditoretzan nola aztertu diren
Kreditu-zorroko finantza-aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak	
Kreditu-zorroaren narriaduragatiko balio-zuzenketak zehaztea zereginik konplexu eta garrantzitsuenetako bat izan da, honekin batera doazen urteko kontu bateratuak prestatzean. Hori dela eta, auditoretzaren funtsezko gaitzat hartu da. Kreditu-arriskuagatiko narriaduraren ebaluazioak judizio-osagai handia du narriaduragatiko galerak zehazteko, elementu hauek aintzat hartuz: • Kreditu-zorroak kreditu-arriskuko profilaren arabera sailkatzea. • Zaintza bereziko edo narriatutako aktiboak identifikatu eta sailkatzea. • Horniduretan eragina duten hipotesiak erabiltzea, eta kreditudunei emandako finantzaketaren zenbateko berreskuragarrien kalkuluak egitea, narriadura banan-banan kalkulatuta, eskuragarri dagoen azken informazioaren arabera. • Emandako kreditu-eragiketei lotutako benetako bermeen balio bihurgarria. Testuinguru horretan, Taldeak darabiltzan ereduek aukera ematen diote kreditu-arriskuagatiko hornidura kolektiboak eta arriskuetarako estimatutako hornidurak banan-banan kalkulatzeko, betiere, banku-sektorean duen esperientzian eta eskura duen informazioan oinarrituta eta etorkizuneko egoerari buruz egindako aurreikuspenak kontuan hartuta. Ikusi honekin batera doazen urteko kontu bateratuen txosteneko 13., 15. eta 25. oharrak.	Kreditu-zorroaren narriadura kalkulatzeko, barne-kontroleko esparru orokorra aztertu, ebaluatu eta egiaztatu dugu, batik bat, eta xehetasun-probak egin ditugu horniduretan (kolektibo zein banakakoetan). Barne-kontroleko sistemari dagokionez, prozedura hauek gauzatu ditugu, besteak beste: • Aplikatutako kalkulu-metodologiak ulertzea. • Taldeko gobernu-organoek onartutako politika eta prozedurak arau-eskakizun aplikagarrietara egokitzen diren ebaluatzea. • Hornidura-kalkuluaren euskarri diren informazio-sistemen segurtasun-inguruneari dagozkion alderdi nagusiak egiaztatzea. • Zaintza berezikotzat edo narriatutzat jo litezkeen arriskuak identifikatzeko Taldeak egindako jarraipen-alerten eta -arriskuen aldian behingo ebaluazioa egiaztatzea. • Kontabilitate-sailkapenaren jarraipenerako eta narriaduraren erregistrorako kreditudunen espedienteak aldian behin berrikusteko prozesua (aplikatzen den kasuetan) ongi gauzatzen dela ebaluatzea. Horrez gain, xehetasun-proba hauek egin ditugu: • Hornidurak kalkulatzeko datu-baseen egiaztapen selektiboak, ezaugarri nagusiak euskarri gisa erabilitako dokumentazioarekin alderatuz. • Kreditu-arriskuagatiko hornidura kolektiboen kalkulua berregikaritzea.

Auditoretzaren funtsezko gaiak	Auditoretzan nola aztertu diren
	• Egindako kalkuluak egokiak ote diren ebaluatzea, hornidurak azterketa indibidualizatuaren arabera kalkulatzeko. • Hainbat espediente hautatu eta aztertzea, ongi sailkatuta eta erregistratuta ote dauden ebaluatzeko eta, dagokionean, kasuan kasuko narriadura zehazteko. Azaldutako proba horietan ez da arrazoizko tarte batetik kanpoko desberdintasunik antzeman.

Auziengatiko eta beste kontingentzia batzuengatiko hornidurak

Taldeak hornidurak ditu eratuta, bere ohiko jardueraren ondorioz sor litezkeen prozedura administratiboak, judizialak edo beste edozein motatakoak estaltzeko.

Oro har, prozedura horiek konplexuak direnez eta denbora luzean garatzen direnez, oso zaila izaten da bai prozedura horien emaitza aurreikusia zehaztea eta bai horien eragin ekonomikoa ebaluatzea, eta zalantza ugari sortzen dira amaierari eta, dagokionean, behin betiko zenbatekoari buruz. Hori dela eta, Entitate Nagusiaren administratzaile eta zuzendariek hornidura bat erregistratzen dute kontzeptu horiengatik, Taldearen aurka jarritako auzi eta erreklamazioen tipologiei buruz eskuragarri dagoen informazioa kontuan hartuta.

Horren ondorioz, auziengatiko horniduren kalkulua da estimazio-osagairik handiena dutenetariko bat, erantsitako urteko kontu bateratuetan izan dezakeen inpaktuari dagokionez. Hori dela eta, auditoretzaren funtsezko gaitzat hartu da.

Ikusi honekin batera doazen urteko kontu bateratuen txosteneko 36. oharra.

Irekitako auzi eta prozesuak eta hornidurak erregistratzeko prozesua identifikatu eta ebaluatzeko Taldeak ezarrita duen prozesua ulertzeko, gure prozedurak honako hauetan zentratu ditugu:

- Erreklamazio eta auziak kalifikatzeko politika ulertzea eta hornidura esleitzea, dagokionean.
- Indarrean dauden demanda, erreklamazio eta auzien tipologia nagusiak aztertzea, baita horiei lotutako kontabilitate-hornidurak ere.
- Taldeak erabilitako metodologia eta hipotesia ebaluatzea, aplikatzekoa den kontabilitate-esparruarekin bat datozela egiaztatzeko.
- Hautatutako hainbat demanda eta erreklamazio aztertzea, hornidurak kalkulatzeko kasuak tipologiaren arabera ongi elkartu direla egiaztatuz.
- Mantendu beharreko hornidurak erabakitzeko datu historikoak erabili direla egiaztatzea.
- Taldearekin diharduten abokatu eta aholkularien berrespen-gutunak lortzea, erreklamazio edo auzietatik espero duten emaitzaren ebaluazioa kontrastatzeko, informazio osoa jasotzeko, hornidurak behar bezala erregistratu direla egiaztatzeko eta bete gabe geratutako pasiboak identifikatzeko.

Auditoretzaren funtsezko gaiak	Auditoretzan nola aztertu diren
	• Ikuskatzeko irekitako aldi guztietarako zerga-betebeharrak betetzearen harira gerta litezkeenak ebaluatzea. Azaldutako proba horietan ez da arrazoizko tarte batetik kanpoko desberdintasunik antzeman.

Aseguru-kontratuengatiko pasiboen balorazioa

Taldeak bizitza-aseguruen jardueran dihardu eta arriskuko bizitza-aseguruak, aurrezteko bizitza-aseguruak eta unit linked alorreko aseguruak merkaturatzen ditu. Horrez gain, bizitzakoak ez diren aseguruak merkaturatzen ditu, batik bat auto-aseguruak, erantzukizun zibilekoak eta arrisku anitzekoak, etxekoak batez ere.

Taldeak aseguru-kontratu horiei lotutako pasiboak erregistratu ditu, FINA 17 «Aseguru Kontratuak» arauaren printzipioei jarraikiz —2023ko urtarrilaren 1az geroztik, FINA 4 araua ordezkatzen du arau horrek—; kontabilitate-arau berri horren efektu-data 2022ko urtarrilaren 1a izan da. Obligazio horiek balantze bateratuan jasotzen dira, «Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako pasiboak» epigrafean.

Epigrafe horretan, aseguru-kontratuak erregistratu ditu Taldeak, aplikatzekoa den araudian ezarritako hiru neurketa-ereduen arabera; hauek dira: eredu orokorra (*Building Block Approach* – BBA), primak esleitzeko ikuspegia (*Premium Allocation Aproach* – PAA) eta tarifa aldakorraren ikuspegia (*Variable Fee Approach* – VFA). Aplikatu beharreko eredua aseguru-kontratuen ezaugarrien arabera zehazten da.

Hain zuzen ere, BBA eta VFA neurketa-ereduek zuzendaritzaren judizio- eta zenbatespen-osagaiak jasotzen dituzte, FINA 17rako trantsizio-datan duten balioa zehazteko, hala nola etorkizuneko zerbitzuen egungo balioa (*Present Value of Future Cash Flows* – PVFC), arrisku ez-finantzarioaren doikuntzaren zehaztapena (*Risk Adjustment* – RA) eta kontratu-zerbitzuaren marjina (*Contractual Service Margin* – CSM).

Bizitza-aseguruen eta bizitzakoak ez direnen kontratuengatiko pasiboak kalkulatu eta erregistratzeko prozesua ulertu dugu; barne hartu ditu alor horri lotutako barne-kontrolaren eta informazio-sistema nagusien kontrolen diseinua eta eraginkortasuna ebaluatzea.

Gainerako estaldurari dagokionez, aseguru-kontratuengatiko pasiboei buruz ditugun prozedurek —aditu aktuarialek eta informazio-sistemetako adituek hartu dute parte haietan—, alderdi hauek dituzte oinarri:

- Ekitaldiaren amaieran pasibo horiek kalkulatzeko motorretan erabilitako datuen osotasuna eta zehaztasuna egiaztatzea.
- Etorkizuneko fluxuen egungo balioa (PVFCa) egiaztatzea, baita zenbait kontu-unitatetan hautatutako produktuen lagin baterako aplikatutako hipotesiak ere, eta produktu horiek ekitaldian izandako aldaketa aztertzea.
- Hautatutako produktuen lagin baterako hasieran erregistratutako kontratu-zerbitzuaren marjina (CSMa) egiaztatzea.
- CSMaren aldaketa eta amortizazioa aztertzea, hautatutako zenbait kontu-unitatetako produktuen lagin baterako zehaztutako estaldura-unitatearen arabera.
- Erabilitako deskontu-tasak eta «*locked-in rate*» tasarekiko duten aldakuntza egiaztatzea, hautatutako produktuen lagin baterako.

Auditoretzaren funtsezko gaiak	Auditoretzan nola aztertu diren
Bestalde, gertatutako ezbeharrengatiko pasiboen kasuan, BBA eta PAA neurketa-ereduetan, Taldeak kontabilitate-erregistroa egin du iraganeko zerbitzuen etorkizuneko itxarondako fluxuen egungo balio gisa (*Present Value of the Estimated Future Cash Flows* – PVFCF), honela kalkulatuta: etorkizuneko fluxuen egungo balioa gehi arrisku ez-finantzarioagatiko doikuntza. Aseguru-kontratuengatiko pasiboen balioa zehaztean, zenbatespen aktuarialak garrantzi handia izan du. Kalkulu-metodologia konplexuak eta zuzendaritzak zehaztutako hipotesiak ere hartu dira kontuan, hala nola interes-tasa, gastu-hipotesiak eta biometrikak, itxarondako ezbeharren ratioak eta estaldura-unitateen definizioa, bai eta, besteak beste, FINA 17 araurako trantsizio-metodoa ere. Hori dela eta, auditoretzaren funtsezko gaitzat hartu dugu aseguru-kontratuengatiko pasiboen balorazioa. Ikusi honekin batera doazen urteko kontu bateratuen memoriako 13. eta 29. oharrak.	Gertatutako ezbeharrengatiko pasiboetarako ditugun prozedurei dagokienez, alderdi hauek hartu dira ardatz: • Ekitaldiaren amaieran pasibo horiek kalkulatzeko motorretan erabilitako datuen osotasuna eta zehaztasuna egiaztatzea. • Pasiboak gertatutako ezbeharretarako nahikoak diren aztertzea. Azaldutako proba horietan ez da arrazoizko tarte batetik kanpoko desberdintasunik antzeman.

Bestelako informazioa: Kudeaketa Txosten bateratua

Bestelako informazioari buruzko atalean, 2023ko ekitaldiko Kudeaketa Txostena soilik jaso da. Entitate Nagusiaren administratzaileen erantzukizuna da hori formulatzea, eta ez da urteko kontu bateratuetan sartu.

Urteko kontu bateratuei buruz eman dugun auditoretza-iritziak ez du eraginik Kudeaketa Txosten bateratuan. Hauxe da Kudeaketa Txostenean dugun erantzukizuna, kontu-auditoretza arautzen duen araudiak galdatzen duenari jarraikiz:

a) Informazio ez-finantzarioaren egoera-orri bateratua araudi aplikagarrian aurreikusitako moduan eman dela egiaztatzea, eta, bestela, horren berri ematea.

b) Kudeaketa Txosten bateratuan jasotako informazioa urteko kontu bateratuekin bat datorren ebaluatu eta horren berri ematea. Horretarako, kontu bateratu horien auditoretzaren bidez lortutako Taldearen gaineko ezagutza hartzen da kontuan. Halaber, Kudeaketa Txosten bateratuaren zati horren edukia eta aurkezpena araudi aplikagarriarekin bat datorren ebaluatu eta horren berri eman behar da. Egin dugun lanean oinarrituta akats materialen bat dagoela ondorioztatzen badugu, behartuta gaude horren berri ematera.

Aurreko paragrafoan deskribatutakoaren arabera egindako lanean oinarrituta, egiaztatu dugu a) idatz-zatian aipatutako informazioa indarreko araudiak aurreikusitako moduan eman dela eta Kudeaketa Txostenean dagoen gainerako informazioa bat datorrela 2023ko ekitaldiko urteko kontuekin. Orobat, urteko kontuen edukia eta aurkezpena bat datoz ezarri beharreko araudiarekin..

Administratzaileen eta Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordearen erantzukizuna urteko kontu bateratuei dagokienez

Honekin batera doazen urteko kontu bateratuak formulatzea Entitate Nagusiaren administratzaileen ardura da, eta Taldearen ondare, finantza-egoera eta emaitza bateratuen irudi fidela islatu behar dute, Espainian Taldeari aplikatzekoak diren finantza-informaziorako arauak betez eta urteko kontu bateratuak iruzur edo erroreen ondoriozko akats materialik gabe prestatzeko nahitaezkotzat jotzen duten barne-kontrolari jarraikiz.

Urteko kontu bateratuak prestatzean, Entitate Nagusiaren administratzaileek beren gain hartu behar dute Taldeak jarduneko enpresa gisa jarraitzeko duen ahalmena baloratzea, kasuan-kasuan jarduneko enpresarekin zerikusia duten gaien berri emanez eta jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz, betiere administratzaileek Taldea likidatzeko eta jarduna bertan behera utzteko asmorik ez badute edota beste aukera errealistarik ez badago.

Entitate Nagusiaren Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordea arduratuko da urteko kontu bateratuak egin eta aurkezteko prozesua gainbegiratzeaz.

Auditorearen erantzukizunak urteko kontu bateratuen auditoretzari dagokionez

Hauek dira gure helburuak: arrazoizko segurtasun batekin esan ahal izatea urteko kontu bateratuek, oro har, ez dutela iruzur edo erroreen ondoriozko akats materialik, eta gure iritzia biltzen duen auditoretza-txostena egitea.

Arrazoizko segurtasunak segurtasun-maila handia ziurtatzen du, baina ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-auditoretzaren jarduerari buruzko araudia betez egindako auditoretzek akats material guzti-guztiak detektatuko dituztenik beti. Iruzur edo erroreen eraginez gerta daitezke akatsak, eta materialtzat jotzen dira, baldin eta, banaka edo multzoka, arrazoizkoa bada aurreikustea eragina izango dutela urteko kontu bateratuetan oinarrituta erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan.

Espainian auditoretza-jarduera erregulatzeko indarrean dagoen araudia bete behar duen auditoretza den heinean, gure judizio profesionala ematen dugu, eta gure jarrera eszeptizismo profesionalean oinarritzen da auditoretza osoan. Horrez gain:

- Iruzur edo erroreen eraginez urteko kontu bateratuetan akats materialak izateko arriskuak identifikatzen eta baloratzen ditugu, arrisku horiei erantzuteko auditoretza-prozedurak diseinatu eta aplikatzen ditugu eta gure iritzia oinarritzeko moduko auditoretza-ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu. Iruzurraren ondorioz akats material bat ez detektatzeko arriskua handiagoa da errorearen ondorioz gertatutako akats materialen kasuan baino, iruzurrak kolusioa, faltsutzea, nahitako ez-egiteak, nahitako adierazpen okerrak edo barne-kontrola saihestea ekar ditzakeelako berekin.

- Auditoretzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren berri jasotzen dugu, zirkunstantzien arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzeko, ez Taldearen barne-kontrolaren eraginkortasunaren gaineko iritzia emateko.

- Erabilitako kontabilitate-politikak egokiak diren eta kontabilitate-estimazioak eta Entitate Nagusiaren administratzaileek emandako informazioa arrazoizkoak diren baloratzen dugu.

- Entitate Nagusiaren administratzaileek jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duten erabakitzen dugu, eta, lortutako auditoria-ebidentzian oinarrituta, ondorioztatzen dugu gertaeretan edo baldintzetan ba ote dagoen ziurgabetasun materialik, Taldeak jarduneko enpresa izaten jarraitzeko duen gaitasunaren inguruan zalantza nabarmenak sortzeko modukorik. Ziurgabetasun materiala dagoela ondorioztatuz gero, urteko kontu bateratuetan emandako informazioari buruz ohartarazi behar dugu gure auditoretza-txostenean. Eta, informazio hori okerrekoa bada, iritzi aldatua eman behar dugu. Auditoretza-txostenaren egunera arte lortutako auditoretza-ebidentzian oinarritzen dira gure ondorioak. Alabaina, litekeena da etorkizuneko gertaera edo baldintzen ondorioz Taldeak jarduneko enpresa izateari uztea.

- Urteko kontu bateratuen (eta informazioaren) aurkezpen globala, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, baita urteko kontu bateratuek azpiko transakzio eta azpiko egitate guztien irudi fidela erakusten duten ere.

- Taldearen barruko enpresa-jarduera edo entitateen finantza-informazioari buruzko ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu, urteko kontu bateratuen gaineko iritzia emateko. Taldearen auditoretza zuzendu, gainbegiratu eta egiteko ardura dugu. Gure auditoretza-iritziaren erantzule bakarrak gara.

Entitate Nagusiaren Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordearekin harremanetan egoten gara, besteak beste, auditoretza noiz egingo den eta zer irismen izango duen jakiteko, auditoretzan azaldutako kontu nagusiak aztertzeko eta auditoretzan aurkitutako barne-kontroleko edozein urritasun nabarmenen berri emateko.

Halaber, adierazpen bat helarazten diogu Entitate Nagusiaren Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordeari, ziurtatzeko bete ditugula aplikatzekoak diren etika-eskakizunak (independentziari buruzkoak barne) eta harekin harremanetan jarri garela gure independentziarentzat mehatxagarri izan daitezkeen gaien eta, zegokionean, kasuan kasuko babesen berri emateko.

Entitate Nagusiaren Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordeari jakinarazi dizkiogun gaien artean, aldi honetako urteko kontu bateratuen auditoretzan guretzat adierazgarrienak zein izan diren erabakitzen dugu, eta horiexek izaten dira auditoretzaren funtsezkoak gaiak.

Gai horiek gure auditoretza-txostenean deskribatzen ditugu, non eta lege- edo arau-xedapenek gaia jendaurrean ezagutzera ematea debekatzen ez duten.

Beste lege- eta arau-errekerimendu batzuei buruzko txostena

Entitate Nagusiaren Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordearentzako txosten gehigarria

Txosten honetan emandako iritzia bat dator 2024ko martxoaren 15ean Entitate Nagusiaren Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordearentzat egin dugun txosten gehigarrian adierazitakoarekin.

Kontratazioaren aldia

2023ko apirilaren 22an egindako Batzar Nagusian, Taldeko auditore izendatu gintuen urtebeterako, hain zuzen ere 2023ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldirako.

Aldez aurretik, Batzar Nagusiak 3 urterako izendatu gintuen, eta, 2001eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiaz geroztik, etengabe aritu gara kontu-auditoretzako lanetan.

Emandako zerbitzuak

Kontu-auditoretzaz gain Taldeari eman dizkiogun zerbitzuak erantsitako urteko kontu bateratuen txostenaren 11. oharrean xehatu dira.

PricewaterhouseCoopers Auditores SL (S0242)

Guillermo Cavia González (20552)

2024ko martxoaren 15a

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

GALDU-IRABAZIEN KONTU BATERATUA, 2023KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

AKTIBOA	Oharra	2023	2022 (*)
Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko bestelako gordailuak (**)	**22**	**1.417.707**	**1.350.398**
Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak	**23**	**8.038**	**9.542**
Deribatuak		2.647	2.683
Ondare-tresnak		2.621	576
Zorra adierazten duten baloreak		2.770	6.283
Pro-memoria: saltzeko edo pignoratzeko eskubidearekin mailegatutakoak edo berme gisa emandakoak		-	-
Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak	**26**	**12.391**	**42.670**
Ondare-tresnak		10.378	40.829
Zorra adierazten duten baloreak		2.013	1.841
Pro-memoria: saltzeko edo pignoratzeko eskubidearekin mailegatutakoak edo berme gisa emandakoak		-	-
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	**24**	**996.268**	**822.701**
Ondare-tresnak		162.657	137.499
Zorra adierazten duten baloreak		833.611	685.202
Pro-memoria: saltzeko edo pignoratzeko eskubidearekin mailegatutakoak edo berme gisa emandakoak		-	-
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan	**25**	**23.381.618**	**24.691.168**
Zorra adierazten duten baloreak		7.947.509	9.065.591
Maileguak eta aurrerakinak		15.434.109	15.625.577
Pro-memoria: saltzeko edo pignoratzeko eskubidearekin mailegatutakoak edo berme gisa emandakoak		*870.142*	*748.170*
Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea	**27**	**57.411**	**78.994**
Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak	**28**	**381**	**385**
Elkartuak		381	385
Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako aktiboak	**29**	**25.011**	**23.433**
Aktibo ukigarriak	**30**	**393.005**	**357.863**
Ibilgetu materiala		340.009	304.261
Erabilera propiokoa		326.033	290.733
Errentamendu operatiboan lagatakoa		13.976	13.528
Higiezinetako inbertsioak		52.996	53.602
Horietatik: errentamendu operatiboan lagatakoa		*42.259*	*42.418*
Pro-memoria: finantza-errentamenduan eskuratutakoa		-	-
Aktibo ukiezinak	**31**	**33.559**	**33.425**
Merkataritzako funtsa		33.425	33.425
Bestelako aktibo ukiezinak		134	-
Zergengatiko aktiboak	**32**	**165.956**	**214.683**
Zerga korronteengatiko aktiboak		727	783
Zerga geroratuengatiko aktiboak		165.229	213.900
Bestelako aktiboak	**33**	**74.351**	**63.613**
Pentsioei lotutako aseguru-kontratuak		-	-
Izakinak		35.148	28.073
Bestelako gainerako aktiboak		39.203	35.540
Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak	**34**	**23.795**	**53.482**
AKTIBOA GUZTIRA		**26.589.491**	**27.742.357**

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu (2.3 oharra).
(**) Ikusi xehetasuna diru-fluxuen egoera-orri bateratuan.

1etik 69ra bitarteko oharrek eta I.etik III.era bitarteko eranskinek 2023ko abenduaren 31ko balantze bateratua osatzen dute.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

GALDU-IRABAZIEN KONTU BATERATUA, 2023KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

PASIBOA	Oharra	2023	2022 (*)
Negoziatzeko dauden finantza-pasiboak	**23**	**2.177**	**3.684**
Deribatuak		2.177	3.684
Finantza-pasiboak kostu amortizatuan	**35**	**23.034.073**	**24.470.692**
Gordailuak		22.748.782	24.168.613
Banku zentralak		184.265	981.817
Kreditu-erakundeak		1.552	3.961
Bezeroak		22.562.965	23.182.835
Zorra adierazten duten balore jaulkiak		-	30.292
Bestelako finantza-pasiboak		285.291	271.787
Pro-memoria: mendeko pasiboak		-	-
Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea	**27**	**434.648**	**347.465**
Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako pasiboak	**29**	**475.544**	**505.746**
Hornidurak	**36**	**153.795**	**142.485**
Pentsioak eta enplegu ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak		17.785	18.251
Langileen epe luzeko bestelako ordainsariak		-	-
Ordaintzeko dauden zergen prozesu-gaiak eta auziak		-	-
Emandako konpromisoak eta bermeak		14.392	17.524
Gainerako hornidurak		121.618	106.710
Zergengatiko pasiboak	**32**	**112.577**	**106.507**
Zerga korronteengatiko pasiboak		9.249	8.139
Zerga geroratuengatiko pasiboak		103.328	98.368
Bestelako pasiboak	**33**	**82.488**	**79.320**
Horietatik: Gizarte Ekintzako Funtsa		*15.109*	*14.886*
Saltzeko daudenen artean sailkatu diren elementu-multzo besterengarrietako pasiboak		**-**	**-**
PASIBOA GUZTIRA		**24.295.302**	**25.655.899**

ONDARE GARBIA	Oharra	2023	2022 (*)
Funts propioak	**37**	**2.126.236**	**1.977.592**
Kapitala		818.761	797.870
Ordaindutako kapitala		818.761	797.870
Pro-memoria: kapital galdatu gabea		-	-
Metatutako irabaziak		-	-
Errebalorizazio-erreserbak		-	-
Bestelako erreserbak		1.101.895	1.047.691
Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioetan metatutako erreserbak edo galerak		37	2
Bestelakoak		1.101.858	1.047.689
(–) Akzio propioak		(2.864)	(2.507)
Entitate Nagusiko jabeei egozteko moduko emaitza		208.444	134.538
(–) Konturako dibidenduak		-	-
Bestelako emaitza global metatu bat	**38**	**167.837**	**108.866**
Emaitzetan birsailkatuko ez diren elementuak		29.493	28.671
Emaitzetan birsailka daitezkeen elementuak		138.344	80.195
Interes minoritarioak (nagusi ez diren partaidetzak)		**116**	**-**
Bestelako emaitza global metatu bat		-	-
Bestelako elementuak		116	-
ONDARE GARBIA GUZTIRA		**2.294.189**	**2.086.458**
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		**26.589.491**	**27.742.357**
Pro-memoria: balantzetik kanpoko esposizioak			
Emandako finantza-bermeak	**41**	**159.686**	**215.305**
Emandako maileguen konpromisoak	**42**	**1.180.033**	**1.069.497**
Emandako bestelako konpromisoak	**42**	**442.426**	**396.560**

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu (2.3 oharra).

1etik 69ra bitarteko oharrek eta I.etik III.era bitarteko eranskinek 2023ko abenduaren 31ko balantze bateratua osatzen dute.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

GALDU-IRABAZIEN KONTU BATERATUA, 2023KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

	Oharra	2023	2022 (*)
Interesen sarrerak	**43**	**692.655**	**301.595**
(Interesen gastuak)	**44**	**133.779**	**20.830**
INTERESEN MARJINA		**558.876**	**280.765**
Dibidenduen sarrerak	**45**	**3.661**	**4.138**
Partaidetzaren metodoaz baloratutako erakundeen emaitzak	**46**	**10**	**50**
Komisioen sarrerak	**47**	**141.921**	**134.602**
(Komisioen gastuak)	**48**	**10.732**	**10.378**
Arrazoizko balioan baloratu ez diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktibo eta -pasiboei kontuetan baja emateagatiko irabazi edo (–) galera garbiak	**49**	**(118.356)**	**3.399**
Negoziatzeko dauden finantza-aktiboen eta -pasiboen irabazi edo (–) galera garbiak	**50**	**(1)**	**(5.329)**
Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboen irabazi edo (–) galera garbiak	**49**	**3.735**	**(4.525)**
Arrazoizko balioan izendatu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktibo eta -pasiboen irabazi edo (–) galera garbiak	**51**	**-**	**-**
Estaldura-kontabilitatearen irabazi edo (–) galera garbiak	**52**	**20**	**(1.336)**
Kanbio-diferentzia [irabazi edo (–) galera] garbiak	**53**	**329**	**200**
Ustiapeneko bestelako sarrerak	**54**	**15.042**	**21.882**
(Ustiapeneko bestelako gastuak)	**55**	**60.774**	**59.730**
Horietatik: gizarte-ekintzako funtsetarako nahitaezko zuzkidurak		*14.297*	*11.449*
Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako aktiboen sarrerak	**56**	**204.199**	**186.977**
(Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako pasiboen gastuak)	**56**	**152.800**	**138.561**
MARJINA GORDINA		**585.130**	**412.154**
(Administrazio-gastuak)	**57**	**249.945**	**220.934**
(Pertsonal-gastuak)		144.977	129.142
(Bestelako administrazio-gastuak)		104.968	91.792
(Amortizazioa)	**58**	**25.671**	**23.446**
(Hornidurak edo (–) horniduren itzulera)	**59**	**36.720**	**14.387**
Arrazoizko balioan baloratu ez diren, emaitzetan aldaketak eragiten dituzten eta aldaketaren ondorioz galera edo (–) irabazi garbiak dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea	**60**	**29.011**	**(7.060)**
(Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan)		(1.321)	4.224
(Finantza-aktiboak kostu amortizatuan)		30.332	(11.284)
(Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea)	**61**	**-**	**-**
(Aktibo ez-finantzarioen balioa narriatzea edo (–) narriadura itzultzea)	**62**	**2.368**	**1.095**
(Aktibo ukigarriak)		1.237	17
(Bestelakoak)		1.131	1.078
Aktibo ez finantzarioei kontuan baja emateagatiko irabazi edo (–) galera garbiak	**63**	**5.563**	**13.737**
Saltzeko daudenen artean sailkatu diren eta jarduera etentzat har ez daitezkeen aktibo ez-korronteetatik eta elementu-multzo besterengarrietatik datozen irabaziak edo (–) galerak	**64**	**(3.999)**	**(20.073)**
JARDUERA ETENGABEETATIK DATOZEN ZERGA AURREKO IRABAZIAK EDO (–) GALERAK		**242.979**	**153.016**
(Jarduera etengabeen emaitzen gaineko zergen gastuak edo (–) sarrerak)	**39**	**34.538**	**18.478**
JARDUERA ETENGABEETATIK DATOZEN ZERGA ONDORENGO IRABAZIAK EDO (–) GALERAK		**208.441**	**134.538**
Jarduera etenetatik datozen zerga ondorengo irabaziak edo (–) galerak		**-**	**-**
EKITALDIKO EMAITZA		**208.441**	**134.538**
Interes minoritarioei (nagusi ez diren partaidetzei) egozteko modukoa		**(3)**	**-**
Entitate Nagusiko jabeei egozteko modukoa	**37**	**208.444**	**134.538**

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu (2.3 oharra).

1etik 69ra bitarteko oharrek eta I.etik III.era bitarteko eranskinek 2023ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratua osatzen dute.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

KONTABILIZATUTAKO SARRERA ETA GASTUEN EGOERA-ORRI BATERATUA, 2023KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

	Oharra	2023	2022 (*)
EKITALDIKO EMAITZA		**208.441**	**134.538**
BESTELAKO EMAITZA GLOBAL BAT		**58.971**	**538.782**
Emaitzetan birsailkatuko ez diren elementuak		**823**	**(915)**
Arrazoizko balioan baloratu diren eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten ondare-tresnen arrazoizko balioaren aldaketak	**38**	1.113	(1.268)
Irabazien gaineko zerga, birsailkatuko ez diren elementuena		(290)	353
Emaitzetan birsailka daitezkeen elementuak		**58.148**	**539.697**
Atzerriko negozioetako inbertsio garbien estaldura (zati efektiboarena)		**-**	**-**
Dibisa-bihurketa		**-**	**-**
Diru-fluxuen estaldura (zati efektiboarena)	**38**	**(17.986)**	**820.874**
Ondare garbian kontabilizatutako balio-irabaziak edo (–) -galerak		(17.986)	820.874
Emaitzetara transferitua		-	-
Bestelako birsailkapenak		-	-
Estaldura-tresnak (izendatu gabeko elementuak)		**-**	**-**
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten zor-tresnak arrazoizko balioan		**98.097**	**(71.295)**
Ondare garbian kontabilizatutako balio-irabaziak edo (–) -galerak		26.588	(72.120)
Emaitzetara transferitua		71.509	825
Bestelako birsailkapenak		-	-
Saltzeko dauden aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak		**-**	**-**
Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioetako kontabilizatutako bestelako sarrera eta gastuetan parte hartzea		**-**	**-**
Irabazien gaineko zerga, irabazietan edo (–) galeretan birsailka daitezkeen elementuena	**39**	**(21.963)**	**(209.882)**
EKITALDIKO GUZTIZKO EMAITZA GLOBALA		**267.412**	**673.320**
Interes minoritarioei (nagusi ez diren partaidetzei) egozteko modukoa		**(3)**	**-**
Entitate Nagusiko jabeei egozteko modukoa		**267.415**	**673.320**

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu (2.3 oharra).

1etik 69ra bitarteko oharrek eta I.etik III.era bitarteko eranskinek 2023ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko sarrera eta gastu kontabilizatuen egoera-orri bateratua osatzen dute.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN EGOERA-ORRI BATERATUA, 2023KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

2023ko abenduaren 31n

Ondare garbiaren aldaketen iturriak	Kapitala	Bestelako erreserbak	(–) Akzio propioak	Entitate Nagusiko jabeei egozteko moduko emaitza	(–) Konturako dibidenduak	Bestelako emaitza global metatu bat	Interes minoritarioak	Guztira
2023ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa	**797.870**	**1.072.721**	**(2.507)**	**139.060**	**-**	**77.405**	**-**	**2.084.549**
Akatsen zuzenketaren eraginak	-	-	-	-	-	-	-	-
Kontabilitate-politiketako aldaketen eraginak (3. oharra)	-	(25.030)	-	(4.522)	-	31.461	-	1.909
2023ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa (*)	**797.870**	**1.047.691**	**(2.507)**	**134.538**	**-**	**108.866**	**-**	**2.086.458**
Ekitaldiko guztizko emaitza globala	**-**	**-**	**-**	**208.444**	**-**	**58.971**	**(3)**	**267.412**
Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak	**20.891**	**54.204**	**(357)**	**(134.538)**	**-**	**-**	**119**	**(59.681)**
Akzio arrunten jaulkipena	29.630	126	-	-	-	-	-	29.756
Lehentasunezko akzioen jaulkipena	-	-	-	-	-	-	-	-
Bestelako ondare-tresnen jaulkipena	-	-	-	-	-	-	-	-
Jaulkitako bestelako ondare-tresnak erabiltzea edo mugaeguneratzea	-	-	-	-	-	-	-	-
Zorra ondare garbi bihurtzea								
Kapital-murrizketa	(8.739)	-	-	-	-	-	-	(8.739)
Dibidenduak (edo bazkideei egindako ordainketak)	-	-	-	-	(36.064)	-	-	(36.064)
Akzio propioak erostea	-	-	(357)	-	-	-	-	(357)
Akzio propioak saltzea edo ezereztea	-	-	-	-	-	-	-	-
Ondare garbiko finantza-tresnak pasiboan birsailkatzea	-	-	-	-	-	-	-	-
Pasiboko finantza-tresnak ondare garbian birsailkatzea	-	-	-	-	-	-	-	-
Ondare garbiko osagaien arteko transferentziak	-	52.678	-	(88.742)	36.064	-	-	-
Negozio-konbinazioengatiko ondare garbiaren gehikuntza edo (–) murrizketa	-	-	-	-	-	-	-	-
Akzioetan oinarritutako ordainketak	-	-	-	-	-	-	-	-
Ondare garbiaren bestelako gehikuntza edo (–) murrizketak	-	1.400	-	(45.796)	-	-	119	(44.277)
Horietatik: obra eta funts sozialetarako hautazko zuzkidura	-	-	-	-	-	-	-	-
2023ko abenduaren 31ko itxierako saldoa	**818.761**	**1.101.895**	**(2.864)**	**208.444**	**-**	**167.837**	**116**	**2.294.189**

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu (2.3 oharra).

1etik 69ra bitarteko oharrek eta I.etik III.era bitarteko eranskinek 2023ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko ondare garbiaren aldaketen egoera-orri bateratua osatzen dute.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN EGOERA-ORRI BATERATUA, 2023KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

2022ko abenduaren 31n (*)

Ondare garbiaren aldaketen iturriak	Kapitala	Bestelako erreserbak	(–) Akzio propioak	Entitate Nagusiko jabeei egozteko moduko emaitza	(–) Konturako dibidenduak	Bestelako emaitza global metatu bat	Interes minoritarioak	Guztira
2022ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa	**786.383**	**1.030.165**	**(2.297)**	**101.433**	**-**	**(429.916)**	**-**	**1.485.768**
Akatsen zuzenketaren eraginak	-	-	-	-	-	-	-	-
Kontabilitate-politiketako aldaketen eraginak (3. oharra)	-	(25.030)	-	-	-	-	-	(25.030)
2022ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa (*)	**786.383**	**1.005.135**	**(2.297)**	**101.433**	**-**	**(429.916)**	**-**	**1.460.738**
Ekitaldiko guztizko emaitza globala	-	-	-	**134.538**	-	**507.321**	-	**673.320**
Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak	**11.487**	**42.556**	**(210)**	**(101.433)**	**-**	**-**	**-**	**(47.600)**
Akzio arrunten jaulkipena	18.962	90	-	-	-			19.052
Lehentasunezko akzioen jaulkipena	-	-	-	-	-	-	-	-
Bestelako ondare-tresnen jaulkipena	-	-	-	-	-	-	-	-
Jaulkitako bestelako ondare-tresnak erabiltzea edo mugaeguneratzea	-	-	-	-	-	-	-	-
Zorra ondare garbi bihurtzea	-	-	-	-	-	-	-	-
Kapital-murrizketa	(7.475)	-	-	-	-	-	-	(7.475)
Dibidenduak (edo bazkideei egindako ordainketak)	-	-	-	-	(31.640)	-	-	(31.640)
Akzio propioak erostea	-	-	(210)	-	-	-	-	(210)
Akzio propioak saltzea edo ezereztea	-	-	-	-	-	-	-	-
Ondare garbiko finantza-tresnak pasiboan birsailkatzea	-	-	-	-	-	-	-	-
Pasiboko finantza-tresnak ondare garbian birsailkatzea	-	-	-	-	-	-	-	-
Ondare garbiko osagaien arteko transferentziak	-	40.401		(72.041)	31.640	-	-	-
Negozio-konbinazioengatiko ondare garbiaren gehikuntza edo (–) murrizketa	-	-	-	-	-	-	-	-
Akzioetan oinarritutako ordainketak	-	-	-	-	-	-	-	-
Ondare garbiaren bestelako gehikuntza edo (–) murrizketak	-	2.065		(29.392)	-	-	-	(27.327)
Horietatik: obra eta funts sozialetarako hautazko zuzkidura	-	-	-	-	-	-	-	-
2022ko abenduaren 31ko itxierako saldoa (*)	**797.870**	**1.072.721**	**(2.507)**	**139.060**	**-**	**108.866**	**-**	**2.086.458**

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu (2.3 oharra).

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

DIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRI BATERATUA, 2023KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

	Oharra	2023	2022 (*)
A) USTIAPEN-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK		**159.443**	**(1.598.910)**
Ekitaldiko emaitza		**208.441**	**134.538**
Ustiapen-jardueretako diru-fluxuak lortzeko doikuntzak		**98.692**	**93.431**
Amortizazioa	**58**	25.671	23.446
Bestelako doikuntzak (a)		73.021	69.985
Ustiapen-aktiboen gehikuntza/murrizketa garbia		**1.362.115**	**(1.171.805)**
Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak		1.504	7.308
Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak		30.279	7.478
Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan		-	-
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan		(73.131)	(216.349)
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan		1.324.939	(978.729)
Ustiapeneko bestelako aktiboak		78.524	8.487
Ustiapen-pasiboen gehikuntza/murrizketa garbia		**(1.509.254)**	**(654.602)**
Negoziatzeko dauden finantza-pasiboak		(1.507)	2.953
Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-pasiboak arrazoizko balioan		-	-
Finantza-pasiboak kostu amortizatuan		(1.436.617)	(1.144.480)
Ustiapeneko bestelako pasiboak		(71.130)	486.925
Irabazien gaineko zergengatiko kobrantzak/ordainketak		**(551)**	**(472)**
B) INBERTSIO-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK		**(30.933)**	**(295)**
Ordainketak		**(62.463)**	**(51.923)**
Aktibo ukigarriak	**30**	(62.329)	(51.923)
Aktibo ukiezinak		(134)	-
Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak		-	-
Mendeko erakundeak eta bestelako negozio-unitateak	**28**	-	-
Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta pasiboak		-	-
Inbertsio-jarduerekin zerikusia duten bestelako ordainketak		-	-
Kobrantzak		**31.530**	**51.628**
Aktibo ukigarriak (b)	**30**	8.750	20.196
Aktibo ukiezinak		-	-
Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak	**28**	-	-
Mendeko erakundeak eta bestelako negozio-unitateak	**28**	-	-
Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta pasiboak		22.780	31.432
Inbertsio-jarduerekin zerikusia duten bestelako kobrantzak		-	-
C) FINANTZAKETA-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK		**(61.201)**	**(49.665)**
Ordainketak		**(90.957)**	**(68.717)**
Dibidenduak	**37**	(36.064)	(31.640)
Mendeko pasiboak		-	-
Ondare propioko tresnak amortizatzea	**37**	(54.536)	(36.867)
Ondare propioko tresnak eskuratzea	**37**	(357)	(210)
Finantzaketa-jarduerekin zerikusia duten bestelako ordainketak	**4**	-	-
Kobrantzak		**29.756**	**19.052**
Mendeko pasiboak		-	-
Ondare propioko tresnen jaulkipena	**37**	29.756	19.052
Ondare propioko tresnak besterentzea		-	-
Finantzaketa-jarduerekin zerikusia duten bestelako kobrantzak		-	-
D) KANBIO-TASEN ALDAKETEN ERAGINA		**-**	**-**
E) ESKUDIRUAREN ETA BALIOKIDEEN GEHIKUNTZA/MURRIZKETA GARBIA (A+B+C+D)		**67.309**	**(1.648.870)**
F) ESKUDIRUA ETA BALIOKIDEAK EPEALDIAREN HASIERAN		**1.350.398**	**2.999.268**
G) ESKUDIRUA ETA BALIOKIDEAK EPEALDIAREN BUKAERAN		**1.417.707**	**1.350.398**
PRO-MEMORIA			
ESKUDIRUAREN ETA BALIOKIDEEN OSAGAIAK EPEALDIAREN BUKAERAN	**22**		
Horretatik: taldeko erakundeek dituztenak baina taldeak erabili ezin dituenak			
Eskudirua		94.534	94.062
Eskudiruaren pareko saldoak banku zentraletan		1.261.130	1.226.861
Bestelako finantza-aktiboak		62.043	29.475
Ken: ageriko banku-zorpeko itzulgarriak		-	-

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu (2.3 oharra).

(a) Batez ere funtsetarako zuzkidurak sartzen dira: narriaduragatiko zuzenketen ondoriozkoak eta eskudiru-irteerarik ekarri ez duten hornikuntzen ondoriozkoak.

(b) Salmentan sortutako irabazia edo galera dago zenbateko horietan sartuta.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

URTEKO KONTUEN TXOSTENA, 2023KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

1. Entitatearen izaera

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito (aurrerantzean Entitate Nagusia, LABORAL Kutxa edo Caja Laborala), helbide soziala Arrasaten (Gipuzkoan) duen eta 2012ko azaroaren 2an eratu zen kreditu-kooperatiba da. Caja Laboral Popular Coop. de Créditok eta Ipar Kutxa Rural S. Coop. de Créditok bat eginez sortu zuten. Kooperatiba-izaera du Entitate Nagusi horrek.

Espainiako Bankuak gainbegiratzen du.

Entitate Nagusiaren kapitalak ez du burtsan kotizatzen.

1.1 Caja Laboralaren eta Ipar Kutxaren arteko bat-egitea

2012ko urtean, Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren eta Ipar Kutxa Rural, S. Coop. de Créditoren gobernu-organoen erabakiz, bi erakundeek bat egin eta Kreditu Kooperatiba Berria sortu zuten. Caja Laboral Popular Coop. de Crédito du izena eta estatutu sozialetan zehaztuta dauden helburua, helbidea, kapitala eta gainerako ezaugarriak ditu. Kreditu Kooperatiben 1989ko maiatzaren 26ko 13/1989 Legeak eta legezko gainerako xedapen aplikagarriek arautzen dute.

Bat-egite horren eraginez, bat egindako kreditu-kooperatiba biak desegin eta iraungi egin ziren, likidazio-aldirik ireki gabe. Kreditu Kooperatiba Berria 2012ko azaroaren 2an erregistratu zen Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan, eta data hori ezarri zen bat egindako entitateen eragiketak kontabilitateari begira Kreditu Kooperatiba Berriaren eragiketatzat hartzeko lehen eguntzat.

1.2 Estatutuak

Entitate Nagusiko estatutu sozialen arabera, haren jarduera ez dago inolako lurralde-eremutara mugatuta, eta bazkideen eta hirugarrenen finantza-beharrak kreditu-erakundeen berezko jardueren bidez asetzea du helburu. Xede horrekin, gainerako kreditu-erakundeek egin ditzaketen mota guztietako eragiketa aktibo, pasibo eta zerbitzuzkoak egin ahal izango ditu, bere helburu kooperatiboak sustatzeko eta ondoen betetzeko balio dutenak barne. Arreta berezia eskainiko die bere bazkideen finantza-beharrei, eta hirugarrenekiko eragiketa aktiboetarako legezko mugak errespetatuko ditu.

Kreditu-kooperatibei besteak beste hauek agintzen dizkie beren lege-araudiak:

a) Espainiako Bankuan aktibo likidoen gutxieneko ehuneko bat gordailututa izatea, gutxieneko erreserben koefizientea estaltzeko.

b) Gordailuak Bermatzeko Funtsera hainbateko bat bideratzea, gordailugileek euren gordailuen zenbateko jakin bat berreskuratu ahal izateko.

c) Ekitaldi bakoitzeko soberakin garbia Heziketako eta Sustapeneko Funtsera eta erreserbak zuzkitzera bideratzea.

d) Baliabide propioen gutxieneko bat gordetzea, egindako inbertsioen eta onartutako arriskuen arabera.

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito eta mendeko sozietateak

Caja Laboral Popular Taldeak eta haren partaidetzapeko erakundeek osatzen duten Partaidetzapeko Erakundeen Taldeko —aurrerantzean Taldea edo LABORAL Kutxa Taldea— Entitate Nagusia da Caja Laborala. Ondorioz, Entitate Nagusia behartuta dago, bere urteko kontu indibidualez gain —horiei ere nahitaezko auditoretza egiten zaie—, Taldearen urteko kontu bateratuak egitera. Kontuok barne hartzen dituzte, dagokionean, mendeko erakundeetako eta erakunde taldeaniztunetako partaidetzak eta erakunde elkartuetako inbertsioak. Taldeko erakundeek jarduera-esparru ugari ukitzen dituzte.

2023ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiaren guztizko aktiboek, ondare garbiak eta emaitza garbiak Taldearen kontzeptu bereko kopuruen % 97,98, % 97,27 eta % 89,34 osatzen dute, hurrenez hurren (% 97,98, % 98,54 eta % 103,40, hurrenez hurren, 2022ko abenduaren 31n).

Ondoren, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan Entitate Nagusiak zituen balantze indibiduala, galdu-irabazien kontu indibiduala, kontabilizatutako sarrera eta gastuen egoera-orri indibiduala, ondare garbiaren aldaketen egoera-orri indibiduala eta diru-fluxuen egoera-orri indibiduala aurkeztuko ditugu. Horiek guztiak Entitate Nagusiaren urteko kontu indibidualak egiteko erabili behar diren kontabilitate-printzipio eta -arau eta balorazio-irizpide berberak aplikatuz egin dira.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

URTEKO KONTUEN TXOSTENA, 2023KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

a) Balantze indibiduala, 2023ko abenduaren 31koa:

AKTIBOA	**2023**	**2022 (*)**
Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko bestelako gordailuak	1.398.014	1.339.567
Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak	8.038	8.966
Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak	9.994	4.171
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	525.353	365.111
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan	23.312.907	24.617.599
Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea	57.411	78.994
Mendekoetako, baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak	160.786	140.653
Aktibo ukigarriak	371.116	335.339
Aktibo ukiezinak	-	-
Zergengatiko aktiboak	151.573	196.482
Bestelako aktiboak	34.334	40.357
Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak	23.525	55.902
Aktiboa guztira	26.053.051	27.183.141

PASIBOA ETA ONDARE GARBIA	**2023**	**2022 (*)**
Negoziatzeko dauden finantza-pasiboak	2.177	3.684
Finantza-pasiboak kostu amortizatuan	23.067.854	24.477.098
Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea	434.648	347.465
Hornidurak	147.632	134.634
Zergengatiko pasiboak	90.790	88.870
Ageriko kapital itzulgarria	-	-
Bestelako pasiboak	78.442	75.417
Pasiboa guztira	23.821.543	25.127.168
Funts propioak:	2.079.353	1.953.489
Kapitala	818.761	797.870
Bestelako erreserbak	1.074.378	1.016.513
Ekitaldiko emaitza	186.214	139.106
(Konturako dibidenduak)	-	-
Bestelako emaitza global metatu bat	152.155	102.484
Ondare garbia guztira	2.231.508	2.055.973
Ondare garbia eta pasiboa guztira	26.053.051	27.183.141

PRO-MEMORIA		
Emandako finantza-bermeak	161.317	217.346
Emandako maileguen konpromisoak	1.177.723	1.069.497
Emandako bestelako konpromisoak	449.377	405.154

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu.

b) Galdu-irabazien kontu indibiduala, 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa:

	2023	2022 (*)
Interesen sarrerak	681.100	291.147
(Interesen gastuak)	133.758	21.028
Interesen marjina	547.342	270.119
Dibidenduen sarrerak	9.813	18.223
Komisioen sarrerak	125.295	127.993
(Komisioen gastuak)	10.428	10.290
Arrazoizko balioan baloratu ez diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktibo eta -pasiboei kontuetan baja emateagatiko irabazi edo (–) galera garbiak	(110.043)	3.692
Negoziatzeko dauden finantza-aktiboen eta -pasiboen irabazi edo (–) galera garbiak	(1)	(5.346)
Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboen irabazi edo (–) galera garbiak	807	(551)
Estaldura-kontabilitatearen irabazi edo (–) galera garbiak	20	(1.336)
Kanbio-diferentzia [irabazi edo (–) galera] garbiak	329	200
Ustiapeneko bestelako sarrerak	40.998	52.658
(Ustiapeneko bestelako gastuak)	60.624	59.728
Marjina gordina	543.508	395.634
(Administrazio-gastuak)	231.040	201.854
(Amortizazioa)	25.421	23.190
(Hornidurak edo (–) horniduren itzulera)	38.520	10.534
(Arrazoizko balioan baloratu ez diren, emaitzetan aldaketak eragiten dituzten eta aldaketaren ondorioz galera edo (–) irabazi garbiak dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea)	30.160	(11.283)
(Mendekoetako, baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea)	(2.145)	(5.855)
(Aktibo ez-finantzarioen balioa narriatzea edo (–) narriadura itzultzea)	1.031	-
Aktibo ez finantzarioei eta partaidetzei kontuan baja emateagatiko irabazi edo (–) galera garbiak	448	1.104
Saltzeko daudenen artean sailkatu diren eta jarduera etentzat har ez daitezkeen aktibo ez-korronteetatik eta elementu-multzo besterengarrietatik datozen irabaziak edo (–) galerak	(7.767)	(23.400)
Jarduera etengabeetatik datozen zerga aurreko irabaziak edo (–) galerak	212.162	154.898
(Jarduera etengabeen emaitzen gaineko zergen gastuak edo (–) sarrerak)	25.948	15.792
Jarduera etengabeetatik datozen zerga ondorengo irabaziak edo (–) galerak	186.214	139.106
Jarduera etenetatik datozen zerga ondorengo irabaziak edo (–) galerak	-	-
Ekitaldiko emaitza	**186.214**	**139.106**

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu.

c) Kontabilizatutako sarrera eta gastuen egoera-orri indibiduala, 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa:

	2023	2022 (*)
EKITALDIKO EMAITZA	**186.214**	**139.106**
BESTELAKO EMAITZA GLOBAL BAT	**49.671**	**545.708**
Emaitzetan birsailkatuko ez diren elementuak	**414**	**(879)**
Arrazoizko balioan baloratu diren eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten ondare-tresnen arrazoizko balioaren aldaketak	575	(1.221)
Irabazien gaineko zerga, birsailkatuko ez diren elementuena	(161)	342
Emaitzetan birsailka daitezkeen elementuak	**49.257**	**546.587**
Diru-fluxuen estaldurak (zati eraginkorra)	**(17.986)**	**820.874**
Ondare garbian kontabilizatutako balio-irabaziak edo (–) -galerak	(17.986)	820.874
Emaitzetara transferitua	-	-
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten zor-tresnak arrazoizko balioan	**86.398**	**(61.725)**
Ondare garbian kontabilizatutako balio-irabaziak edo (–) -galerak	21.460	(58.035)
Emaitzetara transferitua	64.938	(3.690)
Bestelako birsailkapenak		
Irabazien gaineko zerga, irabazietan edo (–) galeretan birsailka daitezkeen elementuena	**(19.155)**	**(212.562)**
EKITALDIKO GUZTIZKO EMAITZA GLOBALA	**235.885**	**684.814**

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu.

d) Ondare garbiaren aldaketen egoera-orri indibiduala, 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa:

2023ko ekitaldiko aldakuntza

	Funts propioak	Bestelako emaitza global metatu bat	Ondare garbia guztira
2023ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa	**1.953.489**	**102.484**	**2.055.973**
Akatsen zuzenketaren eraginak	-	-	-
Kontabilitate-politiketako aldaketen eraginak	-	-	-
2023ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa	**1.953.489**	**102.484**	**2.055.973**
Ekitaldiko guztizko emaitza globala	**186.214**	**49.671**	**235.885**
Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak			
- Akzio arrunten jaulkipena	29.756	-	29.756
- Kapital-murrizketa	(8.739)	-	(8.739)
- Dibidenduak (edo bazkideei egindako ordainketak)	(36.064)	-	(36.064)
- Ondare garbiko osagaien arteko transferentziak	-	-	-
- Ondare garbiaren bestelako gehikuntza edo (–) murrizketak	(45.303)	-	(45.303)
Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak guztira	**(60.350)**	**-**	**(60.350)**
2023ko abenduaren 31ko itxierako saldoa	**2.079.353**	**152.155**	**2.231.508**

2022ko ekitaldiko aldakuntza (*)

	Funts propioak	Bestelako emaitza global metatu bat	Ondare garbia guztira
2022ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa	**1.862.541**	**(443.224)**	**1.419.317**
Akatsen zuzenketaren eraginak	-	-	-
Kontabilitate-politiketako aldaketen eraginak	-	-	-
2022ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa	**1.862.541**	**(443.224)**	**1.419.317**
Ekitaldiko guztizko emaitza globala	**139.106**	**545.708**	**684.814**
Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak			
- Akzio arrunten jaulkipena	19.052	-	19.052
- Kapital-murrizketa	(7.475)	-	(7.475)
- Dibidenduak (edo bazkideei egindako ordainketak)	(31.640)	-	(31.640)
- Ondare garbiko osagaien arteko transferentziak	-	-	-
- Ondare garbiaren bestelako gehikuntza edo (–) murrizketak	(28.095)	-	(28.095)
Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak guztira	**(48.158)**	**-**	**(48.158)**
2022ko abenduaren 31ko itxierako saldoa	**1.953.489**	**102.484**	**2.055.973**

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu.

e) Diru-fluxuen egoera-orri indibiduala, 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa:

	2023	2022 (*)
Ustiapen-jardueretako diru-fluxuak:	**174.452**	**(1.588.289)**
Ekitaldiko emaitza	186.214	139.106
Ustiapen-jardueretako diru-fluxuak lortzeko doikuntzak	104.200	98.022
Ustiapen-aktiboen gehikuntza/murrizketa garbia	1.335.387	(1.213.437)
Ustiapen-pasiboen gehikuntza/murrizketa garbia	(1.450.798)	(611.508)
Mozkinen gaineko zergen kobrantzak/(ordainketak)	(551)	(472)
Inbertsio-jardueretako diru-fluxuak:	**(55.161)**	**(1.041)**
Ordainketak	(98.946)	(83.139)
Kobrantzak	43.785	82.098
Finantzaketa-jardueretako diru-fluxuak	**(60.844)**	**(49.454)**
Kanbio-tasen aldaketen eragina	**-**	**-**
Eskudiruaren eta baliokideen gehikuntza/murrizketa garbia	**58.447**	**(1.638.784)**
Eskudirua eta baliokideak ekitaldiaren hasieran	**1.339.567**	**2.978.351**
Eskudirua eta baliokideak ekitaldiaren bukaeran	**1.398.014**	**1.339.567**

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu.

2. Urteko kontu bateratuak aurkezteko oinarriak

2.1 Irudi fidela

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko uztailaren 19ko 1606/2002 EB Erregelamenduarekin bat, sozietate bat Europar Batasuneko estatu kideen zuzenbidearen pean arautzen bada eta beraren balore-tituluak estatu kideren bateko merkatu arautuan kotizatzen badira, Finantza Informazioko Nazioarteko Arauen —aurrerantzean, FINA— eta Europar Batasunak onartutako Finantza Informazioko Nazioarteko Arauen —aurrerantzean, FINA-EB— arabera aurkeztu behar dituzte, 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldi guztietako urteko kontu bateratuak. Hain zuzen ere, Espainiako kreditu-erakundeen kontabilitate-araubidea araudi horretara egokitzeko asmoz argitaratu zuen Espainiako Bankuak 2004ko abenduaren 22ko 4/2004 Zirkularra, finantza-informazio publiko eta isilpekoari buruzko arauei eta finantzetako egoera-orrien ereduei buruzkoa, gerora, 2018ko urtarrilaren 1ean, indargabetuta gelditu zena, Espainiako Bankuaren 2017ko azaroaren 27ko 4/2017 Zirkularra indarrean jarri zenean.

2022ko ekitaldian indarrean sartu zen Espainiako Bankuaren 2022ko abenduaren 22ko 6/2021 Zirkularra, 2017ko azaroaren 27ko 4/2017 Zirkularra, kreditu-entitateentzakoa, finantza-informazio publiko eta erreserbatuari eta finantza-egoerei buruzkoa, eta 2019ko azaroaren 26ko 4/2019 Zirkularra, kredituko finantza-establezimenduentzakoa, finantza-informazio publiko eta erreserbatuaren arauei eta finantza-egoeren ereduei buruzkoa, indargabetu zituena.

Taldearen urteko kontu bateratu hauek aurkezteko, Europar Batasunak 2018ko abenduaren 31n onartutako Finantza Informazioko Nazioarteko Arauek —aurrerantzean, FINA-EB— ezarritakoa hartu da oinarritzat. Bestalde, Espainiako Bankuaren 2017ko azaroaren 27ko 4/2017 Zirkularra, Espainiako Bankuaren 2004ko abenduaren 22ko 4/2004 Zirkularra ordezkatzen duena, eta ondorengo aldaketak hartu dira aintzat. Zirkular horren bidez, Europar Batasunak onartutako Finantza Informazioko Nazioarteko Arauak (FINA) garatu egin dira eta Espainiako kreditu-erakundeen sektorera egokitu.

Txosten honetan KNA eta FINA laburdurak erabili dira Kontabilitateko Nazioarteko Arauei eta Finantza Informazioko Nazioarteko Arauei buruz hitz egiteko, eta FINAIB eta SIC laburdurak Finantza Informazioko Nazioarteko Arauak Interpretatzeko Batzordearen eta aurretiko Interpretazio Batzordearen interpretazioei buruz hitz egiteko, hurrenez hurren. Horiek guztiak Europar Batasunak onartu ditu, eta urteko kontu bateratu hauek egiteko erabili dira.

Urteko kontu bateratuak egitean, beraietan eragin nabarmena duten kontabilitate-printzipio eta -arau guztiak eta nahitaez ezarri beharreko balorazio-irizpideak erabili ditugu. Horiek horrela, 2023ko abenduaren 31n Taldearen ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela ez ezik, egun horretan amaitutako urteko ekitaldian Taldean gertatu diren eragiketen, ondare garbiaren aldaketen eta diru-fluxuen emaitza bateratuen irudi fidela ere ematen dute.

Txostenaren 13. oharrean laburtu ditugu Taldearen 2023ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak egiteko erabilitako kontabilitate-printzipio eta -araurik eta balorazio-irizpiderik nabarmenenak.

Urteko kontu bateratuak egiteko, Entitatearen eta Taldeko gainerako entitateen kontabilitate-erregistroak hartu dira aintzat. Dena den, gerta liteke Taldearen 2023ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak egiteko aplikatu diren kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balorazio-irizpideak bat ez etortzea Taldeko zenbait erakundek erabilitakoekin. Hori dela eta, kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balorazio-irizpideak homogeneizatzeko eta Entitateak aplikatutako FINA-EB arauetara egokitzeko beharrezko doikuntza eta birsailkapenak egin ditugu baterakuntza-prozesuan.

Urteko kontu bateratu hauetan jaso den informazioa Taldeko Entitate Nagusiko kontseilarien erantzukizuna da.

Taldearen 2023ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak Kontseilu Errektorearen 2024ko martxoaren 1eko bileran formulatu dituzte Entitate Nagusiko kontseilariek. Orain, Batzar Nagusiaren onespenaren zain daude, eta espero da aldaketa nabarmenik egin gabe onetsiko dituela.

Urteko kontu bateratuok, kontrakorik esaten ez bada, mila eurokotan aurkeztu dira.

2.2 Bateratzeko printzipioak

Taldearen definizioa Europar Batasunak erabakitako Finantza Informazioko Nazioarteko Arauetan (FINAetan) ezarritakoaren arabera egin da. Partaidetzapeko erakundeak dira mendeko erakunde, baterako negozio eta elkartu guztiak.

2.2.1) Mendeko erakundeak

Taldearen kontrolpean dauden erakundeak jotzen dira mendeko erakundetzat. Egoera hori gertatzen da Taldeak partaidetzapekoan duen inplikaziotik datozen etekin aldakorrak jasotzeko eskubidea badu eta partaidetzapekoaren gainean duen boterearen bidez etekin horietan eragiteko gaitasuna badu.

Kontrola dagoela onartzeko, bat etorri behar dute hauek:

- Botereak. Inbertitzaileak partaidetzapeko baten gaineko boterea duela esango dugu, baldin eta indarrean baditu jarduera garrantzitsuak, hau da, partaidetzapekoaren etekinetan nabarmen eragiten dutenak, zuzentzeko gaitasuna ematen dioten eskubideak.

- Etekinek. Inbertitzaileak partaidetzapekoan duen inplikazioagatik etekin aldakorrak jasotzeko eskubidea duela esango dugu, baldin eta inplikazio horregatik lortzen dituen etekinak aldatu egin badaitezke partaidetzapekoaren bilakaera ekonomikoaren arabera. Inbertitzailearen mozkinak positiboak soilik, negatiboak soilik edo aldi berean positiboak eta negatiboak izan daitezke.

- Boterearen eta etekinen arteko erlazioak. Inbertitzaileak partaidetzapekoa kontrolatzen duela esango dugu, baldin eta, partaidetzapekoaren gainean boterea izateaz gain, eskubidea badu partaidetzapekoan duen inplikazioagatik etekin aldakorrak jasotzeko eta partaidetzapekoan duen inplikazioagatiko etekinetan eragiteko erabil badezake botere hori.

Bestalde, kontrolik dagoen ala ez ebaluatzeko prozesuan eragin dezakeen edozein gertaera edo inguruabar kontuan hartzen du Taldeak, bai eta erreferentziazko araudiaren aplikazio-gidaliburuetan deskribatutako analisiak ere (adibidez, Taldeak boto-eskubideen % 50etik gorako zuzeneko edo zeharkako partaidetza duen, ebaluatzen ari den entitatean).

Mendeko erakundeetako partaidetzei buruzko 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko informazio garrantzitsua I. eranskinean jaso da.

Mendeko erakundeen urteko kontuak Entitatearenekin bateratzeko, integrazio globalaren metodoa erabiltzen da. Ondorioz, bateratutako erakundeen artean metodo honen bidez egindako transakzioetako saldo nabarmen guztiak kendu egin dira bateratze-prozesutik. Bestalde, hirugarrenen partaidetza honela aurkezten da hauetan:

- Taldearen ondare garbia, balantze bateratuko ondare garbiko «Interes minoritarioak (nagusi ez diren partaidetzak)» atalean.

- Ekitaldiko emaitza bateratuan, galdu-irabazien kontu bateratuko «Ekitaldiko emaitza - Interes minoritarioei (nagusi ez diren partaidetzei) egozteko modukoa» atalean.

Taldeak ekitaldian eskuratutako mendeko erakundeen emaitzak bateratzeko, eskurapen-egunetik ekitaldi-itxierara bitarteko epealdiko datuak bakarrik jasotzen dira. Bestalde, Taldeak ekitaldian besterendu dituen mendeko erakundeek sortutako emaitzak bateratzeko, ekitaldiaren hasieratik besterentze-egunera bitarteko epealdiko datuak bakarrik jasotzen dira.

Kendu egin dira konpainien arteko eragiketak, saldoak eta Taldeko erakundeen arteko transakzioetako sarrera-gastuak. Kendu egin dira, halaber, talde barruan egindako eta aktibo moduan kontabilizatutako transakzioen galdu-irabaziak ere. Mendeko erakundeen kontabilitate-politikak aldatu egin dira, Taldeak erabiltzen dituen politikekiko uniformetasuna bermatzeko beharrezkoa izan denean.

2022ko abenduaren 31n, mendeko erakundeez gain, Entitate Nagusiak IM Caja Laboral 1 ATF eta IM Caja Laboral 2 ATF titulizazio-funtsak ere sartu ditu. Hipoteka-maileguak titulizatu eta gero titulizazio-bonuak jaulkitzeko sortu dira erakunde horiek. 2023ko ekitaldian, IM Caja Laboral 1 ATF eta IM Caja Laboral 2 ATF titulizazio-funtsen likidazio aurreratua erabaki du Entitate Nagusiak (ikusi 2.2.6 oharra).

Negozio-konbinazioak kontabilizatzeko, eskurapen-metodoa aplikatzen du Taldeak. Mendeko erakunde bat erosteagatik transferitzen den kontraprestazioa honako hauei dagokie: transferitutako aktiboen arrazoizko balioari, erositako erakundearen aurreko jabeekin egindako pasiboei eta Taldeak jaulkitako ondareko partaidetzei. Transferitutako kontraprestazioan, kontraprestazio kontingenteko akordio batek eragindako edozein aktiboren edo pasiboren arrazoizko balioa sartzen da. Eskuratutako aktibo identifikagarriak eta negozio-konbinazio batean onartutako pasiboak eta pasibo kontingenteak, hasiera batean, arrazoizko balioan baloratzen dira, eskurapen-datan. Negozio-konbinazio bakoitzean, Taldeak arrazoizko balioaren arabera edo eskuratutako erakundearen aktibo garbien zenbateko kontabilizatuetan nagusi ez den partaidetzaren zati proportzionalaren arabera kontabiliza dezake eskuratutako erakundean nagusi ez den edozein partaidetza.

Eskurapenarekin zerikusia duten kostuak dagokien ekitaldiko gastu moduan kontabilizatzen dira.

Negozioen konbinazioa etapaka egiten bada, eskuratuaren ondare garbiko (aurretik eskuratzaileak zueneko) partaidetzaren eskurapen-datako arrazoizko balioa eskurapen-datako arrazoizko balioan baloratzen da berriro, ekitaldiko emaitzaren bidez.

Taldeak transferitu beharreko edozein kontraprestazio kontingente arrazoizko balioan kontabilizatzen da, eskurapen-datan. Aktibotzat edo pasibotzat hartzen den kontraprestazio kontingenteari ondoren arrazoizko balioan gertatzen zaizkion aldaketak, FINA 9 arauaren arabera, emaitzetan kontabilizatzen dira, edo ondare garbiaren aldaketatzat jo. Ondare garbi moduan sailkatzen den kontraprestazio kontingentea ez da berriro baloratzen, eta haren ondorengo likidazioa ondare garbian kontabilizatzen da.

Merkataritzako funtsa honela baloratzen da, hasiera batean: transferitutako kontraprestazioaren soberakin gisa eta nagusi ez den partaidetzak eskuratutako aktibo identifikagarrien eta onartutako pasiboen arabera duen arrazoizko balio gisa. Kontraprestazio hori erositako mendeko erakundearen aktibo garbien arrazoizko balioa baino txikiagoa bada, aldea emaitza bateratuetan kontabilizatzen da.

Taldeko aseguru-entitateak hainbat erakundek gainbegiratzen eta arautzen dituzte. Jurisdikzio bakoitzean indarrean dauden legeek eragina izan dezakete funtsak eskudirutan, dibidenduetan, maileguetan edo aurrerakinetan transferitzeko erakunde horiek duten gaitasunean, eta kapitalari eta ikuskaritza-jarduerari lotutako gutxieneko baldintzak betetzeko premiak ere bai.

2.2.2) Mendeko erakundeen jabetzako partaidetza-aldaketak, kontrol-aldaketarik gabekoak

Nagusi ez diren partaidetzekin egindako transakzioak, kontrolaren galera eragiten ez badute, ondareko transakziotzat kontabilizatzen dira, hau da, jabeekin egindako transakziotzat. Ordaindutako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren eta mendekoaren aktibo garbien liburuetako zenbatekoan eskuratutako ehunekoaren arteko aldea ondare garbian erregistratzen da. Nagusi ez diren partaidetzak besterentzeagatiko irabaziak edo galerak ere ondare garbian kontabilizatzen dira.

2.2.3) Mendeko erakundeak besterentzea

Taldeak kontrola izateari uzten dionean, Entitatean atxikitako edozein partaidetza arrazoizko balioan baloratzen da berriro, kontrola galtzen den datan, eta aldaketa emaitzetan kontabilizatzen da, liburuetako zenbatekoan. Arrazoizko balioa hauxe da: liburuetako hasierako zenbatekoa, aintzat hartzen dena elkartutakotzat, baterako negoziotzat edo finantza-aktibotzat gordetako partaidetza gerora kontabilizatzeko. Gainera, Taldeak aktibo edo pasiboak zuzenean saldu balitu bezala kontabilizatzen da erakunde horren inguruan aurretiaz ondare garbiko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafean kontabilizatzen den edozein zenbateko. Horrek esan nahiko du, agian, aurrez ondare garbian kontabilizatutako zenbatekoak emaitza-kontu bateratuan birsailkatuko direla.

2.2.4) Baterako negozioak - Erakunde taldeaniztunak

Baterako negozioak kontratu bidezko akordioak dira, eta, horien bitartez, bi erakundek edo gehiagok (partaide deritzenak) jarduera ekonomiko bati ekiten diote, elkarrekin kontrolatzeko. Hau da, kontratu horren pean, entitate edo jarduera ekonomiko baten finantzen eta ustiapenaren politikak zuzentzeko boterea partekatzen dute partaideek, egiten diren eragiketetatik mozkinak ateratzeko. Kontrola partekatzen duten partaide guztiek ados egon behar dute, eta aktibo garbien gaineko eskubideak dituzte, jarduera garrantzitsuen gaineko erabakiak hartu ahal izateko.

Baterako negoziotzat hartzen dira, halaber, mendekoak ez izan arren elkarren artean loturarik ez duten erakunde bik edo gehiagok kontrolatzen dituzten erakundeetako partaidetzak ere.

Bateratzeko prozesuan, partaidetzaren prozedura erabili dugu Baterako negozioen – Erakunde taldeaniztunen urteko kontuetarako, kontabilitate-arautegian ezarritakoari jarraikiz.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n ez zegoen partaidetzarik erakunde taldeaniztunetan.

2.2.5) Erakunde elkartuak

Erakunde elkartuak partaidetzapeko sozietateak dira, eta Taldeak horietan eragin nabarmena izateko ahalmena du. Eragin horren erakusle dugu, baina ez bakarra, zuzenean edo zeharka, beste partaidetzapeko sozietate baten edo hainbaten bidez, partaidetzapeko sozietateko boto-eskubideen % 20ko edo gehiagoko partaidetza izatea.

Baterakuntza-prozesuan, partaidetzaren metodoa aplikatu da erakunde elkartuetan ere, KNA 28 arauan zehaztuta dagoen moduan. Hortaz, erakunde elkartuetako partaidetzak baloratzeko, Taldeak haren kapitalean duen partaidetzaren zatia hartzen da, baina jasotako dibidenduak eta beste ondare-ezabapen batzuk kontuan hartu ondoren. Erakunde elkartuekin egindako transakzioen emaitzak Taldearen partaidetzaren proportzioaren arabera kentzen dira. Erakunde elkartu batek galerak izaten baditu eta horren ondorioz kontabilitate-ondarea negatiboa bada, Taldearen balantze bateratuan balio nuluarekin agertuko da, baldin eta Taldeak hari estaldura finantzarioa emateko betebeharra ez badu.

Erakunde elkartuetako partaidetzei buruzko 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko informazio garrantzitsua I. eranskinean jaso da.

Gerta liteke Taldearen 2023ko eta 2022ko ekitaldietako urteko kontu bateratuak egiteko aplikatu diren kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balorazio-irizpideak bat ez etortzea Taldeko zenbait erakunde mendeko, taldeaniztun eta elkartuk erabilitakoekin. Hori dela eta, baterakuntza-prozesuan beharrezko doikuntza eta birsailkapenak egin dira, kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balorazio-irizpideak homogeneizatzeko.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, Taldeko entitate batek ere ez zuen kapitalaren edo boto-eskubideen % 5eko edo gehiagoko partaidetza, Espainiako edo nazioarteko beste kreditu-erakunderen batean.

Orobat, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, Espainiako edo atzerriko kreditu-erakunde batek ere edo Espainiako edo atzerriko kreditu-erakunderen bat barne hartzen duen talde batek ere —Balore Merkatuari buruzko Legearen 4. artikuluan jasota dagoenaren arabera— ez zuen kapitalaren edo boto-eskubideen % 5eko edo gehiagoko partaidetza, Taldeko kreditu-erakunde batean.

2.2.6) Erakunde egituratuak

Taldeak erakunde batzuetan parte hartzen duenean edo erakundeak eratzen dituenean arriskua transmititzeko edo bestelako helbururen baterako, adibidez bezeroei inbertsio jakin batzuetara iristea ahalbidetzeko, arauetan ezarritakoa aintzat hartuta eta aurrez deskribatutakoari jarraikiz, kontrolik dagoen erabakitzen da, eta, beraz, bateratu behar diren ala ez. Zehazki, aintzat hartzen da ia Taldeak komisio arrakastatsuak sortzen dituen eta azpiko aktiboen kudeatzaileak baliogabetzeko aukerarik dagoen. Erakunde horien artean daude «Aktiboak titulizatzeko funtsak». Horiek bateratu egiten dira, aurreko analisiaren arabera Taldeak kontrolatu egin dituela erabakitzen denean.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, erakunde egituratu bateratuei finantza-sostengua emateko kontratu bidezko akordioak bat datoz titulizazioen merkatuan erabilera arruntekoak diren laguntza-mekanismoekin, eta ez dago kontratu bidez ezarritakoaz bestelako finantza-sostengu nabarmenik. Urteko kontu bateratuen 25. oharrean, entitate egituratu bateratuei lotutako saldoen berri ematen da.

Taldeak kudeatutako borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek eta inbertsio- eta pentsio-funtsek ez dituzte betetzen erakunde egituratutzat jotzeko arautegi-eskakizunak, eta gainerako mendeko erakundeen irizpide berberekin aztertzen dira. Esan beharra dago, kasurik gehienetan pertsonalitate juridikorik gabeko txikizkako funtsak izaten direla, eta, horien gainean, kudeatutako ondarearen jabetza ematen dieten unitate alikuotak eskuratzen dituzte inbertitzaileek.

Erakunde eta funts horiek autosufizienteak dira euren jardueretan; hau da, ez daude aparteko finantza-sostengurik gabe beren jarduerak aurrera eramatea eragotz diezaiekeen kapital-egitura baten mende. Galdu-irabazien kontu bateratuko «Komisioen sarrerak» epigrafean (47. oharra) daude erregistratuta Taldeak ekitaldian erakunde eta funts horiei emandako zerbitzuengatik (funtsean, ondareak kudeatzeko zerbitzuengatik eta zorroak gordailutzeagatik) sortutako komisioak, hirugarren batzuen zorroak gordailutzeagatik sortutako komisioekin batera.

2.2.7) Bateratze-perimetroko aldakuntzak

<u>Bateratze-perimetroko aldakuntzak</u>

2023ko otsailaren 15ean, Lagun Klik SL Sociedad Unipersonal sozietatea eratu da, eta Caja Laboral Popular Coop. de Créditok bertan parte hartzen du, zeharka, Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU sozietatearen bitartez, horren % 100en titularra baita. Sozietate horren helburua da bitartekari jardutea, zerbitzuen bilaketan, partikularren eta profesionalen artean produktuak saltzen eta zerbitzuak bilatzea eta ematea erraztuko duten aplikazio informatikoak garatu eta ustiatzen. Partaidetza gauzatzeko, 303.000 euroko ordainketa egin da Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU sozietatean.

Halaber, 2023ko maiatzaren 22an, egoitza soziala Luxenburgon duen Partners Group LAMIAK SCA, SICAV-RAIF sozietatea eratu da. Inbertsio-funts alternatibo bat da, eta Caja Laboral Popular Coop. de Créditok % 99ko partaidetza eskuratu du, 11.881 mila euroko ekarpena eginda.

2.3 Informazioaren alderagarritasuna

2023ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion kontabilitate-informazioa Europar Batasunaren Finantza Informazioko Nazioarteko Arauetako irizpideei jarraikiz jaso da, eta 2022koaren parean jarri da, alderatu ahal izateko. 2022ko ekitaldiko informazioa 2023koarekin alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu da, eta ez da 2023ko ekitaldiko Taldearen urteko kontu bateratuetan sartu.

FINA 17 araua indarrean sartzearen ondorioz, Taldeak berriro adierazi ditu 2022ko ekitaldiari dagozkion egoera-orrietako zifrak, araudi horretara egokitzeko. Hori dela eta, 2022ko egoera-orrietako zenbait epigrafe —urteko kontu bateratu hauetan alderatzeko xedearekin argitaratu direnak— ez datoz bat Entitate Nagusiaren Kontseilu Errektoreak formulatutako 2022ko urteko kontu bateratuetan jasota daudenekin. Aldeak urteko kontu bateratu hauetako 3. oharrean azaldu dira.

FINA 17 araua 2022ko urtarrilaren 1ean —trantsizio-data— sartu zen indarrean, eta 25 milioi euroko eragin negatiboa izan du ondare garbi bateratuan; zenbateko hori bestelako erreserben partidari dagokio. Era berean, araudi berria 2023ko urtarrilaren 1ean ezartzeak 1,9 milioi euroko eragin positiboa izan du ondare garbian: 25 milioi euro negatibo erreserbei dagozkie, 31,4 milioi positibo bestelako emaitza global metatu bati eta 4,5 milioi negatibo berriro adierazitako 2022ko ekitaldiko emaitza bateratuari.

2.4 Transakzioen urtarokotasuna

Taldearen jarduerak direla eta, transakzioak ez dira ziklikoak edo urtaroaren araberakoak. Horregatik, ez da banakapen berezirik sartu 2023ko ekitaldiko urteko kontu bateratuen txostenean.

3. Aldaketak eta akatsak kontabilitate-irizpide eta -estimazioetan

a) Ziurgabetasuna baloratu eta estimatzearen alderdi kritikoak

Urteko kontu bateratu hauetan jaso den informazioa Entitate Nagusiko kontseilarien erantzukizuna da. Urteko kontu bateratu hauetan zenbait aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromiso baloratzeko dagokionean erabili diren estimazioak Entitate Nagusiko eta partaidetzapeko erakundeetako goi-zuzendaritzak egin ditu, eta kontseilariek berretsi dituzte. Honako hauek hartu dira kontuan estimazio horietan:

- Zenbait finantza-aktiboren narriaduragatiko galerak (13.h oharra).
- Aktibo ukigarriko eta aktibo ukiezineko elementuei aplikatutako balioa eta balio-bizitza (2, 13.q eta 13.r oharrak).
- Kotizatu gabeko zenbait finantza-aktiboren arrazoizko balioa (13.e oharra).
- Horniduretan eta pasibo kontingenteetan espero den kostua eta bilakaera (13.u oharra)
- Aseguruengatiko pasiboak kalkulatzeko erabilitako hipotesiak (13.t oharra).
- Aurretiko erretirorako planengatiko pasiboak eta konpromisoak kalkulatzeko erabilitako hipotesiak (13.o oharra).
- Kreditu fiskal aktibatuen berreskuragarritasunaren ebaluazioa (13.p oharra).
- Baterakuntzako merkataritzako funtsaren narriaduraren ebaluazioa (13.aa oharra).
- Sozietateen gaineko zergaren estimazioa (39. oharra).

Dagokien partidei buruz 2023ko abenduaren 31n zegoen informaziorik onenaren arabera egin dira zenbatespenak, kontuan harturik egungo testuinguru ekonomiko eta geopolitikoa eta etorkizunean izan dezakeen bilakaera. Bizi dugun inflazio handia da gertaerarik nabarmengarriena, horri aurre egiteko interes-tasak nabarmen ari baitira igotzen, Amerikako eta Europako ekonomietan batez ere. Agian aldatu egin beharko dira, hurrengo ekitaldietan, ekitaldi-amaierarako egindako zenbatespenak —edozein zentzutan—, etorkizunean jazo litezkeen gertakariak direla medio. Edozein modutan ere, aldaketa hori prospektiboa izango da, eta estimazio-aldaketaren eraginak dagokion galdu-irabazien kontu bateratuan kontabilizatuko dira.

b) Kontabilitate-irizpideen aldaketak

Transakzio edo jazoera jakin bat arautzen duen kontabilitate-arauren bat aldatzen denean edo Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreak, behar bezala justifikatutako arrazoiak tarteko, kontabilitate-irizpideak aldatzea erabakitzen duenean, aldaketok atzeraeraginez aplikatzen dira, baldin eta:

- Ezinezkoa bada lehenagoko ekitaldi batean alderatzeko emandako informazioaren gainean kontabilitate-irizpidea aldatzeak ekitaldi bakoitzean izango dituen eraginak zehaztea, kontabilitate-irizpide berria ezartzen da, hori egin daitekeen ekitaldirik zaharrenaren hasieran. Ezinezkoa bada aurreko ekitaldi guztiei kontabilitate-irizpide berria aplikatzeagatik uneko ekitaldian metatuko den eragina zehaztea; kasu horretan, aukera dagoen datarik urrunekoenetik aurrera aplikatuko da irizpide berria.

- Noiztik aplikatu behar den zehazten badu irizpidea aldatu edo finkatzen duen kontabilitate-xedapen edo -arauak.

Taldeari aplikagarri zaion kontabilitate-araudian hainbat aldaketa izan dira 2023ko ekitaldian, aurreko ekitaldian aplikatuarekin alderatuta. Ondoren, aldaketarik nabarmenenen berri emango dugu:

i) EBren arau, aldaketa eta interpretazioak, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan lehen aldiz ezartzekoak (ekitaldia abenduaren 31n ixten duten enpresetan).

Urteko kontu bateratu hauek formulatzeko egunean, IASB eta IFRS Interpretations Comittee erakundeek jarraian azalduko ditugun arau, aldaketa eta interpretazioak argitaratu zituzten, baina Taldeak ez ditu aldez aurretik ezarri.

- FINA 17 «Aseguru-kontratuak».

  Askotariko kontabilitate-jarduerak baimentzen zituen FINA 4 «Aseguru-kontratuak» araua ordezkatu du FINA 17ak. Arau berriak kontabilitatea aldatzen du, eskatu ahalako partaidetza-osagaidun aseguru-kontratuak eta inbertsio-kontratuak jaulkitzen dituzten entitate guztientzat. 2020ko ekainean, IASBk araua aldatu zuen, eta zuzenketa eta argibide espezifikoak egin zituen arau berria errazago ezartzeko. Dena den, ez zituen arauaren funtsezko printzipioak aldatu.

  Arau hori 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ekitaldietan aplikatzekoa da, baina lehenago aplikatzeko aukera ere badago, baldin eta, FINA 9 «Finantza-tresnak» araua FINA 17 arauaren hasierako aplikazio-datan edo egun horren aurretik aplikatzen bada.

- FINA 17 (aldaketa) «FINA 17 eta FINA 9 arauen hasierako aplikazioa – Alderatzeko informazioa».

  IASBk FINA 17aren zuzenketa bat argitaratu du; horren bidez, irismen mugatuko aldaketak egin dira FINA 17 «Aseguru-kontratuak» arauaren trantsizio-aginduetan, eta ez dio eragiten FINA 17aren beste errekerimendu bati ere. FINA 17 eta FINA 9 «Finantza-tresnak» arauek trantsizio-agindu desberdinak dituzte. Aseguru-entitate batzuen kasuan, alde horiek kontabilitate-asimetria puntualak eragin ditzakete finantza-aktiboen eta aseguru-kontratuengatiko pasiboen artean, FINA 17 eta FINA 9 arauak lehen aldiz aplikatzen dituztenean finantzetako egoera-orrietan aurkezten duten informazio konparatiboan. Aseguru-entitateei asimetria horiek saihesten lagunduko die aldaketa horrek, eta, beraz, inbertitzaileentzako informazio konparatiboaren erabilgarritasuna hobetuko du.

  Aldaketa hori 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren urteko ekitaldietan aplikatuko da.

- KNA 1 (aldaketa) «Kontabilitate-politiken xehakapena».

  Kontabilitate-politikei buruzko xehakapenak hobetzeko aldatu da KNA 1 araua, informazio baliagarriagoa eman diezaieten inbertitzaileei eta egoera-orri finantzarioen beste erabiltzaile nagusi batzuei. Aldaketa horiek 2023ko urtarrilaren 1ean gauzatu dira.

- KNA 8 (aldaketa) «Kontabilitate-estimazioen definizioa».

  Kontabilitate-zenbatespenen aldaketak eta kontabilitate-politikarenak bereizten laguntzeko aldatu dute KNA 8 araua. Aldaketa horiek 2023ko urtarrilaren 1ean gauzatu dira.

- KNA 12 (aldaketa) «Eragiketa bakarretik sortutako aktibo eta pasiboen zerga geroratua».

  KNA 12aren mendeko egoera jakin batzuetan, enpresek ez dute zerga geroraturik kontabilizatu behar aktiboak edo pasiboak lehen aldiz kontabilizatzen dituztenean («hasierako kontabilizazio-salbuespena»). Lehen, nolabaiteko ziurgabetasuna zegoen salbuespena zenbait transakziotan aplikatzen ote zen, hala nola errentamenduetan eta desegiteko obligazioetan. Transakzio horietarako, aktibo bat zein pasibo bat kontabilizatzen dira hasierako kontabilizazio-unean. Aldaketaren arabera, salbuespena ez da aplikatzekoa eta, beraz, nahitaezkoa da haien gainean zerga geroratuak kontabilizatzea.

  2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan aplikatuko da araua, baina badago lehenago aplikatzeko aukera ere.

- KNA 12 (aldaketa) «Nazioarteko zerga-erreforma: Bigarren Zutabeko ereduzko arauak»:

  2021eko urrian, munduko BPGd-aren % 90etik gora hartzen duten 130 herrialdek baino gehiagok multinazionalentzako gutxieneko zergen araubidea («Bigarren Zutabea») ezartzea erabaki zuten. 2021eko abenduan, korporazioen nazioarteko zerga-ordainketa berritzeko Bigarren Zutabearen ereduzko arauak argitaratu zituen Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundeak (ELGAk). Araudiaren eraginpean dauden enpresa multinazional handiek beren GloBE (*Global Anti-Base* Erosion) zerga-tasa efektiboa kalkulatu behar dute jarduten duten jurisdikzio bakoitzean. Enpresa horiek behartuta daude aparteko zerga bat ordaintzera: jurisdikzio bakoitzeko GloBE zerga-tasaren eta % 15eko gutxieneko tasaren arteko aldea.

  2023ko maiatzean, IASBk KNA 12aren irismen mugatuko aldaketak eman zituen. Horrela, aldi baterako salbuespen bat ahalbidetzen da, ELGAk argitaratutako Bigarren Zutabearen ereduzko arauak ezartzen dituen zerga-lege batetik (onartuta edo funtsean onartuta dagoen batetik) sortzen diren zerga geroratuak kontabilizatzeko eta xehatzeko eskakizunean.

  Zuzenketek xehakapen-eskakizun hauek ezartzen dizkiete eraginpeko enpresei:

  - Bigarren Zutabetik sortutako irabazien gaineko zergarekin lotuta dauden zerga geroratuengatiko aktiboei eta pasiboei buruzko informazioa kontabilizatzeko eta xehatzeko betebeharraren aldi baterako salbuespena aplikatu izana.

  - Haien gaur egungo zerga-gastua (baldin badago), Bigarren Zutabetik sortutako irabazien gaineko zergari dagokiona.

  - Legeria onartu (edo funtsean onartu) eta indarrean jarri bitarteko aldian, ezagutzen duten edo zentzuz zenbatetsi duten informazioa banakatu beharko dute erakundeek, finantzetako egoera-orrien erabiltzaileentzat lagungarri izan dadin Bigarren Zutabetik sortutako irabazien gaineko zergaren aurrean erakundeak duen esposizioa ulertzeko.

Alde batetik, KNA 12aren aldaketa berehala (eta atzeraeraginez) aplikatu behar da, KNA 8aren —«Kontabilitate-politikak, kontabilitate-estimazioetako aldaketak eta akatsak»— arabera, bai eta aipatutako aldi baterako salbuespena gauzatu izana banakatzeko eskakizuna ere, garrantzitsua bada. Bestalde, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren urtealdietan nahitaezkoak dira egungo zerga-gastuarekin eta Bigarren Zutabeko irabazien gaineko zergaren aurreko esposizioarekin (ezaguna den edo zenbatetsita dagoen esposizioarekin) lotuta dauden banakatzeak. Nolanahi ere, bitarteko finantzetako egoera-orrietan informazio hori banakatzea ez da nahitaezkoa 2023ko abenduaren 31n edo aurretik bukatutako tarteko aldietan.

ii) Oraindik indarrean jarri ez diren eta aldez aurretik ezar daitezkeen arauak, aldaketak eta interpretazioak

Jarraian, oraindik indarrean sartu ez diren baina aurrez erabil daitezkeen arau, aldaketa eta interpretazioen laburpen bat xehatu da:

- FINA 16 (aldaketa) «Errentamenduengatiko pasiboa errentan emateko salmenta batean»

  FINA 16 arauan ezarrita dago errentan emateko salmenta bat nola kontabilizatu behar den transakzioa gauzatzen den datan. Alabaina, ez zuen zehazten data horretatik aurrera nola erregistratu transakzioa. Aldaketa horrek, hain zuzen, errentan emateko salmentak transakzioaren datatik aurrera nola kontabilizatu azaltzen du.

  Aldaketa 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da, baina aldez aurretik ezartzea ere onartzen da.

- FINA 1 (aldaketa) «Pasiboak korronte edo ez-korronte moduan sailkatzea» eta KNA 1 (aldaketa) «Pasibo ez-korronteak baldintzekin»:

  Europar Batasunak aldi berean onartutako aldaketa horiek argitzen dutenez, pasiboak korronte edo ez-korronte gisa sailkatzen dira, informatzen den ekitaldiaren amaieran dauden eskubideak zein diren. Entitatearen aurreikuspenek edo ekitaldi-amaieraren ondorengo gertaerek —esate baterako, uko-egite bat edo akordioaren ez-betetze bat jasotzea— ez diote eragiten sailkapenari. Pasibo baten «likidazioaz» ari dela KNA 1ak zer esan nahi duen ere argitzen du aldaketak.

  Horrez gain, aldaketaren helburua da emandako informazioa hobetzea, pasibo baten ordainketa geroratzeko eskubidea zenbait baldintza (*covenant*) betetzearen mende dagoenean, informatzen den ekitaldiaren ondorengo hamabi hilabeteen barruan.

  Aldaketa hori 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan aplikatuko da, bai eta atzeraeraginez ere, KNA 8aren —«Kontabilitate-politikak, kontabilitate-estimazioetako aldaketak eta akatsak»— arabera. Aldez aurretik ere aplika daitezke.

Izena	Araua	Data hauetan hasitako ekitaldietan aplikatzekoak
Errentamenduengatiko pasiboa geroagoko errentamendua duen salmenta batean	FINA 16a	2024-01-01
Pasiboak korronte edo ez-korronte moduan edo Pasibo ez-korronteak baldintzekin moduan sailkatzea	FINA 1a eta KNA 1a	2024-01-01

iii) Aurrez har ez daitezkeen edo Europar Batasunak hartu ez dituen arauak, interpretazioak eta aldaketak

Urteko kontu bateratu hauek formulatzeko egunean, IASB erakundeak eta FINAen Interpretazio Batzordeak jarraian azalduko ditugun arau, aldaketa eta interpretazioak argitaratuak zituzten, baina Europar Batasunak ez ditu oraindik bere egin.

- FINA 10 (aldaketa) eta KNA 28 (aldaketa) «Inbertitzailearen eta beraren elkartuen edo baterako negozioen artean aktiboak saldu edo ekartzea»

  Inbertitzailearen eta beraren elkartuen eta baterako negozioen artean aktiboak saldu eta ekartzearen kontabilitate-tratamendua argitzen dute aldaketa horiek. Erakunde elkartuei edo baterako negozioei saldutako edo ekarritako aktibo ez-monetarioak negozio diren ala ez, horren araberakoa izango da tratamendua. Aktibo ez-monetarioak negozio badira, irabazi edo galera osoa kontabilizatuko du inbertitzaileak. Aktiboak ez badatoz bat negozioaren definizioarekin, beste inbertitzaile batzuen interesen arabera kontabilizatu behar ditu inbertitzaileak irabaziak edo galerak. Inbertitzaileak beraren elkartuari edo baterako negozioari aktiboak saldu edo ekartzen dizkionean soilik ezarriko dira aldaketok.

  Jatorrian, FINA 10 eta KNA 28 arauei egindako aldaketa horiek 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldietarako izango zuten indarra, eta aurrera begira aplikatuko ziren. Dena delarik ere, horien indarraldia atzeratzeko erabakia hartu zuen IASBk, 2015eko urtearen amaieran, baina ez zuen data zehatza finkatu. Zergatik hartu zuen erabaki hori? Berrikuspen zabalagoa ari delako prestatzen, halako eragiketen kontabilitatea eta erakunde elkartuen eta baterako negozioen beste alderdi batzuk erraztu ahal izateko.

- KNA 7 (aldaketa) eta FINA 7 (aldaketa) «Hornitzaileak finantzatzeko akordioak (confirminga)»:

  IASBk KNA 7a eta FINA 7a aldatu ditu, hornitzaileak finantzatzeko akordioei (confirmingei) buruzko banakapenak hobetzeko, bai eta pasiboen, diru-fluxuen eta enpresaren likidezia-arriskuarekiko esposizioaren gainean izan ditzaketen eraginak hobetzeko ere. Zuzenketarekin inbertitzaileen kezkak uxatu nahi dira, uste baitute enpresa batzuetako hornitzaileak finantzatzeko akordioak ez direla nahikoa agerikoak.

  Aldaketa hori 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan aplikatuko da. Aurretik ere aplika daiteke, baina aldaketa Europar Batasunak onartu zain dago.

- KNA 21 (aldaketa) «Trukagarritasunik eza»:

  IASBk KNA 21a aldatu du eta eskakizun berriak gehitu ditu. Horiekin erakundeei lagundu nahi zaie, dibisa bat beste dibisa batekin trukagarria den jakin dezaten eta trukagarria ez denean erabili beharreko eskurako kanbio-tasa erabaki dezaten. Dibisa bat ezin denean beste batekin trukatu, balorazio-data jakin batean duen eskurako kanbio-tasa zenbatetsi behar da, data horretan agindutako merkatuko partaideen arteko truke-transakzio baten tasa zehazteko, nagusi diren baldintza ekonomikoak kontuan hartuta.

Erakunde batek eskakizun berriak lehen aldiz aplikatzen dituenean, ezingo du informazio konparatiboa berradierazi. Aitzitik, ukitutako zenbatekoak aldaketaren hasierako aplikazio-datan zenbatetsitako eskurako kanbio-tasetara bihurtu beharko dira, erreserben konturako doikuntza batekin.

Aldaketa hori 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren urteko ekitaldietan aplikatuko da. Aurretik ere aplika daiteke, baina aldaketa Europar Batasunak onartu zain dago.

Izena	Araua	IASB indarrean sartzea
Inbertitzailearen eta beraren elkartuen edo baterako negozioen artean aktiboak saldu edo ekartzea (2014ko iraileko aldaketa)	FINA 10a eta KNA 28a	(1)
Hornitzaileak finantzatzeko akordioak (confirminga)	KNA 7a eta FINA 7a	2024-01-01
Trukagarritasunik eza	KNA 21a	2025-01-01

(1) Jatorrian, FINA 10 eta KNA 28 arauei egindako aldaketa horiek 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldietarako izango zuten indarra. Dena delarik ere, horien indarraldia atzeratzeko erabakia hartu zuen IASBk, 2015eko urtearen amaieran, baina ez zuen data zehatza finkatu. Zergatik hartu zuen erabaki hori? Berrikuspen zabalagoa ari delako prestatzen, halako eragiketen kontabilitatea eta erakunde elkartuen eta baterako negozioen beste alderdi batzuk erraztu ahal izateko.

Aseguru-kontratuen FINA 17 arauak Taldearen urteko kontu bateratuetan duen eraginari dagokionez, jarraian zehazten dira horren inguruko azterketa eta ebaluazioa.

Aurretik aipatutako gainerako arau berriak 2023an indarrean sartu izanak ez du eragin handirik izan Taldearen urteko kontu bateratuetan.

17 zenbakiko Finantza Informazioko Nazioarteko Arauaren (FINA 17aren) «Aseguru-kontratuak» lehen aplikazioa

2017ko maiatzean, IASBk Aseguru-kontratuen FINA 17 araua eman zuen. Aseguru-kontratuak kontabilizatzeko, neurtzeko, aurkezteko eta horiei buruzko informazioa emateko printzipioak ezartzen ditu, eta FINA 4 araua ordeztu zuen. Arau berri horrek aldaketa txiki batzuk izan ditu eman zenetik 2020ko ekainera arte, behin betiko osaera zehaztu zen arte.

FINA 17 araua 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan aplikatuko da, eta aldaketa nabarmenak ekarriko ditu aurreko araudiarekin alderatuta. Entitateen arteko homogeneotasuna eta konparagarritasuna areagotzea da arauaren helburu nagusia.

Seguros Lagun Aro Vida SA eta Seguros Lagun Aro SA dira, batez ere, araudi horrek eragindako Taldeko sozietateak.

2023ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak arau berriaren arabera aurkeztu dira; beraz, 2022ko ekitaldiko datuak berriro eman dira, konparatzeko helburuarekin, eta lehen aldiz aplikatzean sortzen diren balorazio-aldeak ondare garbi bateratuan erregistratu dira. Ondarean izaniko inpaktuak kalkulatzeko, alderatu egin dira bi arauen (FINA 4aren eta FINA 17aren) arabera baloratutako aseguru- eta berraseguru-kontratuen aktiboak eta pasiboak, eta FINA 17ak proposatutako arrazoizko balioaren metodoa aplikatuko da.

Araudi berriak aldaketa mamitsuak dakartza kontabilitate-prozesuetan eta aseguru-konpainien sistemetan. Taldeak ezarpen-proiektu bat landu du azken urteetan, aldaketa horiei estaldura emateko eta prozesu berriaren kontrola ziurtatzeko.

Ezarpena 2019an hasi zen, eta hauek egin ziren: FINA 4 arauari egindako berrikuntzen eraginak aztertu, irizpide metodologikoak zehaztu, modelizazio aktuariala garatu eta arau-esparru berrirako beharrezkoak diren datuak prestatu eta egokitu. Era berean, kontabilitate-

plan berria egin da, aseguru-kontratuei buruzko finantza-informazioa baloratzeko eta xehatzeko behar berriak jasotzen dituena. Kontabilitate-prozesu osoaren gaineko kontrola bermatzeko asmoz, gobernu-esparru sendo bat formulatu da FINA 17aren kalkulu-prozesuari eta Taldeari jakinarazteari dagokienez.

2022an, Taldeak trantsizioaren inpaktu kuantitatiboak baloratu zituen, eta 2022ko informazio konparatiboa osatu, urteko kontu hauetan aurkezteko.

Jarraian, FINA 17ak ekarritako berrikuntza nagusiak zehazten dira:

- Aseguru-kontratuak zer diren zehazten du FINA 17ak, eta entitateek kontratuak sailkatzeko printzipioak ezartzen ditu. Halaber, aseguru-kontratuen barruan zerbitzu-osagaiak edo inbertsio-osagaiak egon daitezkeela azaltzen du, eta zerbitzu-osagaiak FINA 15 arauaren arabera bereizi eta baloratu behar direla eta inbertsio-osagaiei FINA 9a aplikatuko zaiela.

  Taldeak beharrezko analisiak egin ditu eta ondorioztatu du aseguru-negozioko kontratu guztiek betetzen dituztela aseguru-kontratutzat hartzeko baldintzak; era berean, ez du bereizi zerbitzu- edo inbertsio-osagairik. Beraz, aseguru-kontratu guztiak FINA 17aren arabera baloratzen dira.

- FINA 17ak hiru kategoria ezartzen ditu aseguru-kontratuak sailkatzeko: batera kudeatzen diren antzeko arriskuen portfolioak edo zorroak, kohorteak eta kostubidezkotasun-maila. Kontratuak maila horien arabera multzokatzen dira, kalkulu-unitate minimoetan *(units of account*). Kontabilitate-erregistroa gutxieneko maila horretan egiten da.

  Taldeak araudiaren arabera taldekatu ditu kontratuak, eta eskatutako mailan egiten du kontabilitate-erregistroa.

Trantsizio-datan, Taldeak ez du kostu bidezko aseguru-kontraturik.

- FINA 17ak aseguru-kontratuak baloratzeko hiru metodo sartzen ditu: Metodo Orokorra edo Building Block Approach (BBA), Metodo Sinplifikatua edo Premium Allocation Approach (PAA) eta Komisio Aldakorraren Metodoa edo Variable Fee Approach (VFA). Metodo Orokorra lehenetsiko da, Metodo Sinplifikatua edo Komisio Aldakorraren Metodoa aplikatzeko baldintza jakin batzuk betetzen direnean izan ezik.

  Metodo Orokorrak (BBA) bloke hauek sartzen ditu balorazioan, eta aldaketa garrantzitsuak ekarri ditu FINA 4 arauaren balorazioarekin alderaturik:

  - Etorkizuneko diru-fluxu guztien zenbatespenik onena (Best Estimate), kontratuaren mugen barruan, diruaren denbora-balioa eta etorkizuneko diru-fluxuei lotutako finantza-arriskua islatzen dituen deskontu-tasara eguneratua.

Arauak bi metodologia ditu deskontu-tasa bideratzeko, *bottom-up* eta *top-down* izenekoak. Taldeak *bottom-up* ikuspegia erabiltzea erabaki du, arrisku libreko kurba oinarritzat hartuta, zeinari pasiboen likidezia-falta adierazten duen *spread* bat gehitzen baitzaio.

- Arrisku Doikuntzak (RA) etorkizuneko kutxa-fluxuen zenbatekoaren eta ordainketa-unearen ziurgabetasuna islatzen du, arrisku ez-finantzarioek sortua. Arauak ez du kalkulu-metodo jakin bat zehazten; izan ere, kontuan hartu beharreko printzipio batzuk ezartzen ditu.

  Taldeak Value at Risk (VaR) ikuspegia aplikatzea erabaki du. Ikuspegi horren bidez, RAren zenbatekoa lortzen da, aseguru-kontratuen bidez pasiboa banatzeko funtzioa ezagututa eta negozioaren ziurgabetasunaren eta kalkulu-unearen arabera finkatutako ehunekoa kontuan hartuta.

- Kontratu-zerbitzuaren marjina (CSM) jaulkipenean kalkulatzen da, eta kontratuaren etorkizuneko guztizko irabazia adierazten du. Irabazi hori emaitzen kontura eramango da kontratuaren estaldura-aldian, zerbitzua eman ahala.

FINA 17ari esker, «Bestelako emaitza global bat» epigrafearen barruan jasotzen dira entitatearen ondare garbiko pasiboaren deskontu-tasaren aldaketak, emaitza-kontuan jaso beharrean. Hala, pasiboko aldakuntza finantzarioen inpaktuak arintzea lortzen da, arrazoizko balioan baloratu diren eta «Bestelako emaitza global bat» epigrafean aldaketak eragiten dituen aktiboaren aldakuntzen bidez. Taldeak aukera horri heltzea erabaki du 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera jaulkitako aseguru-kontratu guztietarako.

Metodo Sinplifikatua edo Prima Esleitzeko Metodoa (PAA) urtebetetik beherako iraupena duten kontratuei aplika dakieke, bai eta arauan ezarritako baldintzak betetzen dituztenei ere, iraupen luzeagoa izan arren. Metodo horretan, jasotako primaren arabera neurtzen da pasiboa, eta, hala erabakitzen bada, eskuratze-gastuak kentzen dira, horniduraren askapena emaitzetan egotziz, denboraren joanean oinarrituta. Ikuspegi horrek eragin txikia du FINA 4aren balorazioari dagokionez.

Taldeak epe luzeko produktuetarako aplikatzen du Metodo Orokorra (BBA); aseguru- eta berraseguru-kontratuengatiko aktibo eta pasiboen % 90 inguru dira produktu horiek. Gainerako % 10a Metodo Sinplifikatuaren (PAA) arabera baloratzen da. Metodo hori urtebetetik beherako iraupena duten produktuetarako erabiltzen da, bai eta, azterketa egokiak egin ondoren, arauak ezarritako baldintzak bete dituztenetarako ere, iraupen luzeagoa izan arren.

Taldeak ez du Komisio Aldakorraren Metodoaren arabera baloraturiko kontraturik.

- Urteko kontuetan aurkezteari dagokionez, FINA 17 arauak xehakapen berriak ezartzen ditu, eta horiek adierazle garrantzitsuak ezabatzen dituzte, hala nola primak eta hornidura teknikoen aldakuntza.

Trantsizio-inpaktuaren balorazio kuantitatiboari dagokionez, epe luzerako pasiboen baloraziotik dator eragin nagusia. Hala ere, egindako kalkuluetan oinarrituta, ez da zenbateko nabarmena taldearen ondarean. Eragin hori bi arrazoirengatik sortzen da funtsean:

- FINA 4aren kalkuluei dagokienez FINA 17an erabilitako Best Estimate hipotesiengatik, eta Arrisku Doikuntza (RA) eta Kontratu Zerbitzuaren Marjina (CSM) kontzeptu berriak sartzeagatik.

- Pasiboak deskontu-tasa berriekin baloratzeak duen eraginagatik, FINA 4aren horniduretan aplikatutako tasen aldean.

2022ko ekitaldiari buruzko zifrak berradieraztea

Ondorengo tauletan, banakatuta eta azalduta ageri dira irizpide berriak aplikatzearen ondorioz sailkapenean eta balorazioan izandako aldaketek ukitu dituzten finantzetako egoera-orri bateratuetako partidak.

Aldaketa horien ondorioz, aldatu egin dira 2022ko ekitaldiari dagozkion urteko kontu bateratu hauetako egoera-orrietako zenbait epigrafe (alderatzeko bakarrik sartu dira direnak), formulatutako 2022ko urteko kontu bateratuetan azaltzen direnekin alderatuta; horiek hemen banakatu ditugu:

Hona hemen 2023ko urtarrilaren 1eko balantze bateratuko zifren berradierazpenaren xehetasuna:

Aktiboa	Balantzea 2022-12-31n	FINA 17aren eragina	Balantzea 2023-01-01ean	
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan	**24.702.256**	**(11.088)**	**24.691.168**	**a)**
Zorra adierazten duten baloreak	9.065.591	-	9.065.591	
Maileguak eta aurrerakinak	15.636.665	(11.088)	15.625.577	
Horietatik: Bezeroak	15.199.886	(11.088)	15.188.798	
Berraseguru-kontratuek babestutako aktiboak	**29.208**	**(5.775)**	**23.433**	**a)**
Zergengatiko aktiboak	**208.252**	**6.431**	**214.683**	**d)**
Horietatik: zerga geroratuengatiko aktiboak	207.469	6.431	213.900	
Bestelako aktiboak	**65.555**	**(1.942)**	**63.613**	
Horietatik: bestelako gainerako aktiboak	37.482	(1.942)	35.540	
Aktiboa guztira	**27.754.731**	**(12.374)**	**27.742.357**	

a) FINA 17 araua indarrean sartutakoan, batetik, behera egin dute berraseguruaren konturako aseguru-kontratuengatiko aktiboek (5.775 mila euro) eta, bestetik, ezabatu egin dira hartzaileekin eta aseguratuekin kobratu beharreko kontuak —aktiboan erregistratutakoak, kontsumitu gabeko komisioak kenduta— (11.088 mila euro), pasiboan erregistratzen diren aseguru-kontratuengatiko pasiboetan sartu baitira.

Pasiboa	Balantzea 2022-12-31n	FINA 17aren eragina	Balantzea 2023-01-01ean	
Finantza-pasiboak kostu amortizatuan	**24.477.047**	**(6.355)**	**24.470.692**	**b)**
Horietatik: bestelako finantza-pasiboak	278.142	(6.355)	271.787	
Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako pasiboak	**525.047**	**(19.301)**	**505.746**	**c)**
Zergengatiko pasiboak	**97.960**	**8.547**	**106.507**	**d)**
Horietatik: zerga korronteengatiko pasiboak	6.252	1.887	8.139	
Horietatik: zerga geroratuengatiko pasiboak	91.708	6.660	98.368	
Bestelako pasiboak	**76.494**	**2.826**	**79.320**	
Pasiboa guztira	**25.670.182**	**(14.283)**	**25.655.899**	

b) Jaulki gabeko sortutako primen eta kobratzeko dauden primen kontsumitu gabeko komisioak kentzeari dagokio; aseguru-kontratuekin lotutako etorkizuneko diru-fluxuen estimaziorik onenaren ebaluazioaren parte dira eta, beraz, aseguru-kontratuengatiko pasiboen parte.

c) FINA 17 araua ezarritakoan, aldatu egin da aseguru- eta berraseguru-kontratuengatiko pasiboak —gainerako estaldurak eta gertatutako ezbeharrek eragindakoak— baloratzeko metodologia. Ondorioz, aseguru-kontratuengatiko pasiboek 19.301 milioi euroko murrizketa izan dute 2023ko urtarrilaren 1ean.

d) Aurreko doikuntzen zerga-eraginak zergengatiko aktibo handiagoa dakar (6.431 mila eurokoa), bai eta pasibo handiagoa ere (6.660 mila eurokoa).

Ondare garbia	Balantzea 2022-12-31n	FINA 17aren eragina	Balantzea 2023-01-01ean	
Funts propioak	**2.007.144**	**(29.552)**	**1.977.592**	
Horietatik: bestelako erreserbak	1.072.721	(25.030)	1.047.691	**e)**
Horietatik: Entitate Nagusiko jabeei egozteko moduko emaitza	139.060	(4.522)	134.538	**f)**
Bestelako emaitza global metatu bat	**77.405**	**31.461**	**108.866**	
Horietatik: emaitzetan birsailka daitezkeen elementuak	48.734	31.461	80.195	
Horietatik: arrazoizko balioan baloratu diren eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten zor-tresnen arrazoizko balioaren aldaketak	(67.363)	31.461	(35.902)	**g)**
Ondare garbia guztira	**2.084.549**	**1.909**	**2.086.458**	

e) FINA 17a 2022ko urtarrilaren 1ean —trantsizio-datan— aplikatzearen eragin negatiboa erregistratu da (zerga-eragina kenduta), lehen aplikazioko erreserben kontura. Eragin hori, funtsean, aseguru-kontratuengatiko aktiboak eta pasiboak berriro ebaluatzeari dagokio. 2.c) oharraren arabera kalkulatu da ebaluazio berria. 25.030 mila euroko eragin negatiboan sartuta daude, bai bizitzako negozioan izandako 26.005 mila euroko eragin negatiboa, bai bizitzakoak ez diren aseguruen negozioari dagokion 975 mila euroko eragin positiboa.

f) FINA 17a 2022ko urtarrilaren 1ean —trantsizio-datan— aplikatzeak 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiko emaitzetan izan duen eragin negatiboa jaso da (zerga-eragina kenduta). Ildo horretan, FINA 17 araua aplikatzeak bizitza-aseguruen negozioko emaitzen murrizketa ekarri du, 3.592 mila eurokoa. Bizitzakoak ez diren aseguruen negozioan, 930 mila eurokoa izan da emaitzen murrizketa.

g) 13.s) oharrean azaltzen denez, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera Taldeak kontabilitate-aukera jakin baten alde egin du. Horren arabera, aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako aktiboen eta pasiboen balio-aldaketa —merkatuko interes-tasen bilakaeraren ondoriozkoa— «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafean erregistra daiteke. 2022ko ekitaldian, merkatuko interes-tasen aldakuntzaren eraginez, aseguru- eta berraseguru-kontratuengatiko pasiboa 46.698 mila euroan murriztu da (kontzeptu horrengatiko aktiboak kenduta). Horrenbestez, kontzeptu horri dagokion ondare-hazkunde garbia 35.490 mila eurokoa da 2022ko ekitaldia ixtean.

Hona hemen 2023ko urtarrilaren 1eko galdu-irabazien kontu bateratuko zifren berradierazpenaren xehetasuna:

Galdu-irabazien kontua	2022ko galdu-irabazien kontua	FINA 17aren eragina	2022ko galdu-irabazien kontu berradierazia	
Komisioen sarrerak	142.707	(8.105)	134.602	**h)**
Komisioen gastuak	16.534	(6.156)	10.378	**i)**
Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako aktiboen sarrerak	194.353	(7.376)	186.977	**j)**
Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako pasiboen gastuak	123.243	15.318	138.561	**k)**
Administrazio-gastuak	240.830	(19.896)	220.934	**l)**
Pertsonal-gastuak	139.290	(10.148)	129.142	
Bestelako administrazio-gastuak	101.540	(9.748)	91.792	
Amortizazioa	23.758	(312)	23.446	
Jarduera etengabeetatik datozen zerga aurreko irabaziak edo (–) galerak	157.451	(4.435)	153.016	
Jarduera etengabeen emaitzaren gaineko zergen gastuak edo (–) sarrerak	18.391	87	18.478	
Jarduera etengabeetatik datozen zerga ondorengo irabaziak edo (–) galerak	139.060	(4.522)	134.538	
Ekitaldiko irabaziak edo (–) galerak	139.060	(4.522)	134.538	
Entitate Nagusiko jabeei egozteko modukoak	139.060	(4.522)	134.538	

h) Doikuntza hori berraseguruaren kontura berreskuratutako komisioen murrizketari dagokio; hemendik aurrera berraseguru-kontratuengatiko diru-sarreretan sartuko dira.

i) Doikuntza hori komisioen gastuen birsailkapenari dagokio; Taldeak horri egin behar dio aurre aseguru-kontratuen erosketan, eta, egotz daitekeen gastua denez, aseguru-kontratuengatiko gastuen barruan sartuko da.

j) Doikuntza hori aseguru-kontratuengatiko diru-sarrerak onartzeko bestelako irizpide bati dagokio, metodo orokorraren eta metodo sinplifikatuaren bidez baloratutako kontratuen kasuan.

k) Doikuntza hori bat dator, batetik, i) eta j) apartatuetan aipatutako gastu egozgarriak sartzearekin eta, bestetik, FINA 17 arauaren arabera egungo tasan egindako ezbeharrengatiko pasiboaren mugimenduaren eta ezbehar-hornidura mugimenduaren arteko balorazio-efektua txertatzearekin. Ezbehar-hornidura hori ez da orain arte kontuan hartu, FINA 4 arauari jarraikiz.

l) Doikuntza hori Taldea osatzen duten aseguru-konpainien administrazio-gastu batzuk birsailkatu izanari dagokio. Gastu egozgarriak direnez, aseguru-kontratuengatiko gastuen barruan sartu dira.

Hona hemen 2023ko urtarrilaren 1eko kontabilizatutako sarrera eta gastu bateratuen egoera-orriko zifrak berradieraztearen xehetasuna:

Kontabilizatutako sarrera eta gastuen egoera-orria	**Balantzea 2022-12-31n**	**FINA 17aren eragina**	**Balantzea 2023-01-01ean**	
Ekitaldiko emaitza	**139.060**	**(4.522)**	**134.538**	**m)**
Bestelako emaitza global bat	**507.321**	**31.461**	**538.782**	**n)**
Horietatik: emaitzetan birsailka daitezkeen elementuak	**508.236**	**31.461**	**539.697**	
Horietatik: bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten zor-tresnak arrazoizko balioan	(112.187)	40.892	(71.295)	
Horietatik: ondare garbian kontabilizatutako balio-irabaziak edo (–) -galerak	(113.012)	40.892	(72.120)	
Horietatik: irabazien gaineko zerga, irabazietan edo (–) galeretan birsailka daitezkeen elementuena	(200.451)	(9.431)	(209.882)	
Ekitaldiko guztizko emaitza globala	**646.381**	**26.939**	**673.320**	
Entitate Nagusiko jabeei egozteko modukoa	646.381	26.939	673.320	

m) Ikusi doikuntzen zehaztasunak berradierazitako 2023ko urtarrilaren 1eko galdu-irabazien kontu bateratuko zifretan.

n) Ikusi g) doikuntzaren zehaztasunak berradierazitako 2023ko urtarrilaren 1eko balantze bateratuko zifretan.

Hona hemen 2023ko urtarrilaren 1eko kontabilizatutako sarrera eta gastu bateratuen egoera-orriko zifrak berradieraztearen xehetasuna:

	Balantzea 2022-12-31n	FINA 17aren eragina	Balantzea 2023-01-01ean
A) Ustiapen-jardueretako diru-fluxuak	**(1.598.598)**	**(312)**	**(1.598.910)**
Ekitaldiko emaitza	**139.060**	**(4.522)**	**134.538**
Ustiapen-jardueretako diru-fluxuak lortzeko doikuntzak	**93.743**	**(312)**	**93.431**
Amortizazioa	23.758	(312)	23.446
Ustiapen-aktiboen gehikuntza/murrizketa garbia	**(1.202.846)**	**31.041**	**(1.171.805)**
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	(235.017)	18.668	(216.349)
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan	(989.816)	11.087	(978.729)
Ustiapeneko bestelako pasiboak	7.201	1.286	8.487
Ustiapen-pasiboen gehikuntza/murrizketa garbia	**(628.083)**	**(26.519)**	**(654.602)**
Finantza-pasiboak kostu amortizatuan	(1.138.123)	(6.357)	(1.144.480)
Ustiapeneko bestelako pasiboak	507.087	(20.162)	486.925
B) Inbertsio-jardueretako diru-fluxuak	**(607)**	**312**	**(295)**
Kobrantzak	**51.316**	**312**	**51.628**
Aktibo ukigarriak	19.884	312	20.196

Aseguru-jarduerarekin lotura duten ustiapen-jarduerei atxikitako aktiboen eta pasiboen diru-fluxuen egoera-orrian azaltzen diren aldakuntzei dagokienez, horiek guztiek aurretik aurkeztutako balantze eta galdu-irabazien kontu bateratuetako zifren berradierazpenean dute jatorria.

FINA 17 arauaren trantsizio-data efektiboa 2022ko urtarrilaren 1a denez, 2022ko urtarrilaren 1eko balantze bateratuaren zifren berradierazpenaren xehetasuna aurkeztuko dugu jarraian, dagozkien inpaktuekin.

Aktiboa	Balantzea 2021-12-31n	FINA 17aren eragina	Balantzea 2022-01-01ean
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan	**23.805.641**	(11.932)	23.793.709
Zorra adierazten duten baloreak	7.863.783	-	7.863.783
Maileguak eta aurrerakinak	15.941.858	(11.932)	15.929.926
Horietatik: bezeroak	15.157.532	-	15.145.600
Berraseguru-kontratuek babestutako aktiboak	**27.808**	**(2.387)**	**25.421**
Zergengatiko aktiboak	**382.210**	**6.910**	**389.120**
Horietatik: zerga gerorratuengatiko aktiboak	381.778	6.910	388.688
Bestelako aktiboak	**84.498**	(2.885)	81.613
Horietatik: bestelako gainerako aktiboak	40.837	(2.885)	37.952
Aktiboa guztira	**28.563.153**	**(10.294)**	**28.552.859**

Pasiboa	Balantzea 2021-12-31n	FINA 17aren eragina	Balantzea 2022-01-01ean
Finantza-pasiboak kostu amortizatuan	**25.615.172**	**1.714**	**25.616.886**
Horietatik: bestelako finantza-pasiboak	46.413	-	46.413
Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako pasiboak	**558.072**	**15.439**	**573.511**
Zergengatiko pasiboak	**59.603**	**29**	**59.632**
Horietatik: zerga korronteengatiko pasiboak	9.283	-	9.283
Horietatik: zerga geroratuengatiko pasiboak	50.320	29	50.349
Bestelako pasiboak	**79.301**	**(733)**	**78.568**
Pasiboa guztira	**27.077.385**	**16.449**	**27.093.834**

Ondare garbia	Balantzea 2021-12-31n	FINA 17aren eragina	Balantzea 2022-01-01ean
Funts propioak	**1.915.684**	(25.030)	1.890.654
Horietatik: bestelako erreserbak	1.030.165	(25.030)	1.005.135
Horietatik: Entitate Nagusiko jabeei egozteko moduko emaitza	101.433	-	101.433
Bestelako emaitza global metatu bat	**(429.916)**	-	(429.916)
Horietatik: emaitzetan birsailka daitezkeen elementuak	29.586	-	29.586
Horietatik: arrazoizko balioan baloratu diren eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten zor-tresnen arrazoizko balioaren aldaketak	(459.502)	-	(459.502)
Ondare garbia guztira	**1.485.768**	**(25.030)**	**1.460.738**

c) Akatsak eta aldaketak kontabilitate-estimazioetan

Kontabilitate-akatsak

Urteko kontu bateratuak egitean aurreko ekitaldietan sortutako akatsak ez-egiteen edo zehaztasun-falten ondorio dira, eta horiek epealdi horietarako urteko kontu bateratuak egitean eskura zegoen eta Entitate Nagusiak egoera-orriok egitean erabili behar zukeen informazio fidagarria erabiltzean egindako hutsegiteenak.

Aurreko ekitaldietako akatsak horiek aurkitu ondorengo lehen urteko kontu bateratuetan zuzentzen dira atzeraeraginez, inoiz egin izan ez balira bezala, eta:

- akatsak ukitu dituen egoera-orri finantzarioetako kontu-sailen zenbatekoak, urteko kontu bateratuetan alderatzeko argitaratzen direnak eta akatsa gertatu den ekitaldiari eta ondorengoetakoei dagozkienak, berriro ematen dira, txosten bateratuko oharrak barne hartuta, eta, bidezkoa bada,

- informazioa dugun ekitaldirik zaharrenaren irekiera-balantze bateratua berriro ematen da, baldin eta alderatzeko aurkezten diren finantzetako lehen egoera-orri bateratuak baino lehenago gertatu bazen akatsa.

Ezinezkoa denean lehenagoko ekitaldi batean alderatzeko emandako informazioaren gainean akats batek ekitaldi bakoitzean izango dituen eraginak zehaztea, hasierako saldoak berriro ematen dira, hori egin daitekeen ekitaldirik zaharrenetarako. Ezinezkoa denean aurreko ekitaldi guztietako akats batek uneko ekitaldiaren hasieran izango duen eragin metatua zehaztea, alderatzeko informazioa berriro ematen da, atzeraeraginez, aukera dagoen datarik urrunekoenetik.

Ondare garbi bateratuari eragiten dioten aurreko ekitaldietako akatsak aurkitzen diren ekitaldian zuzentzen dira, kasuan kasuko ondare garbiko kontu bateratua erabiliz. Aurreko ekitaldietako akatsak ez dira sekula horiek aurkitu direneko ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratua erabiliz zuzenduko. Bi salbuespen daude: garrantzi erlatiborik ez izatea eta, aurreko paragrafoan adierazitakoari jarraikiz, akatsaren eragina zehaztea ezinezkoa izatea.

Aldaketak kontabilitate-estimazioetan

Kontabilitate-estimazio batean aldaketak egitea, doikuntzak egitea da; hain zuzen ere, aktibo edo pasibo baten kontabilitate-balioan edo aktibo baten aldizkako kontsumoan doikuntzak egitea. Horretarako, elementuaren egungo egoera, etorkizunean espero diren mozkinak eta kasuan kasuko aktibo eta pasiboei lotutako betebeharrak hartzen dira kontuan.

Kontabilitate-estimazioetan aldaketak egin ahal izateko, aparteko informazioa edo gertakari berriak lortu behar dira, eta, beraz, aldaketak ez dira akatsen zuzenketak. Aldaketok etorkizunera begira kontabilizatzen dira aldaketak eragindako ekitaldiko edo etorkizuneko ekitaldiko edo ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuan.

2023ko eta 2022ko ekitaldietan ez da aurreko ekitaldiei dagokien akats-zuzenketa nabarmenik egin. Bestalde, kontabilitate-estimazioetan ere ez da egin ekitaldi horiei eragiten dien edo etorkizuneko ekitaldiei eragin ahal dien aldaketa nabarmenik.

4. Ekitaldiko soberakinaren aplikazioa

Kreditu Kooperatibei buruzko 13/1989 Legearen arabera —Kooperatiben Erregimen Fiskalari buruzko 20/1990 Legeak aldatu zuen—, Nahitaezko Erreserba Funtsera eta Heziketako eta Sustapeneko Funtsera bideratzen ez diren zenbatekoak Batzar Nagusiaren esanera jarri behar dira. Batzarrak honela bana ditzake:

- Bazkideei banatu edo itzulita.
- Borondatezko Erreserba Funtsera bideratuta.

Entitate Nagusiaren estatutu sozialetan ezarrita dagoenez, soberakin erabilgarria honela banatuko da, nahitaezko kapitalari edo kaudimen-koefizienteari erantzuteko sortzen diren obligazioak betetakoan:

- % 50, gutxienez, Nahitaezko Erreserba Funtsera.
- % 25, gehienez, sozietatearen eta kooperatiben arteko sustapen-beharrei erantzuteko. Zehazki, % 10 gutxienez Heziketako eta Sustapeneko Funtsera bideratuko da eta % 15, gehienez, Kooperatiba arteko Funts Sozialera.

- Gainerakoa Batzar Nagusiaren esku geratuko da, eta hark honela banatu ahal izango du: bazkideentzako itzulkinetarako, Borondatezko Erreserba Funtsetarako edo antzekoetarako.

Kooperatiba-itzulkinetarako zenbatekoa erdibanatu egingo da lan-bazkideen eta gainerako bazkideen artean.

Entitate Nagusiaren estatutuen arabera, lan-bazkideek beren lan-aurrerakinen arabera jasoko dute bazkideentzako itzulkina, eta gainerako bazkideek Entitate Nagusiarekin egindako eragiketen arabera.

Hauxe da Entitate Nagusiaren 2023ko ekitaldiko emaitzen soberakina banatzeko proposamena, Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusiari onesteko aurkeztuko diona, eta 2022rako onetsita dagoena:

	2023	2022
Banaketa:		
- Kapital sozialerako ekarpenengatiko interes gordinak (37. oharra)	57.539	36.064
- Nahitaezko Erreserba Funtsa	71.486	57.245
- Heziketako eta Sustapeneko Funtsa (*)	-	-
- Itzulkin kooperatiboak	35.743	28.623
- Kooperatiba arteko Funts Soziala	21.446	17.174
Ekitaldiko emaitza	186.214	139.106

(*) Heziketako eta Sustapeneko Funtserako zenbatekoa nahitaezko minimoari dagokio, eta 2023an 14.297 mila eurokoa eta 2022an 11.449 mila eurokoa izan da (55. oharra).

5. Negozio-segmentuen araberako informazioa

FINA 8 araua aplikatuta, negozio-segmentuen finantza-betetzeari buruzko informazioa emango dugu jarraian, Entitate Nagusiaren Zuzendaritzak segmentu horien etekina ebaluatzeko barruan erabiltzen duen informazioa oinarri hartuta.

FINA 8aren arabera, segmentu operatiboen berri eman behar da, baldin eta haien sarrera arruntak segmentu operatibo guztien sarrera arrunt agregatuen % 10ekoak badira gutxienez edo haien emaitzak magnitude hauetako handienaren % 10ekoak badira behintzat: (i) galerarik aitortu ez duten segmentu operatibo guztien irabazien batura eta (ii) galerak aitortu dituzten segmentu operatibo guztien galera deklaratuen batura. Edo, bestela, haien aktiboak gutxienez segmentu operatibo guztien aktiboen baturaren % 10ekoak badira. Era berean, segmentu operatiboen berri eman behar da, tamaina edozein dutelarik ere modu agregatuan Taldearen sarrera arrunten % 75 behinik behin osatzen badute.

Negozio-segmentuen araberako informazioa oinarrizko tresna da LABORAL Kutxa Taldearen jardueren jarraipena eta gestioa egiteko:

a. Segmentazio-irizpideak

- Negozioen araberako segmentazioa

Jarraian azaltzen diren negozio-unitateak LABORAL Kutxa Taldearen egiturak eta antolakuntzak ezarritako negozio-lerroen arabera ezarri dira:

- Txikizkako banku-jarduera
- Aseguruen negozioa

Txikizkako Banku-jarduerak inbertsio-produktuak eta aurrezki-produktuak eskaintzen ditu. Inbertsioari dagokionez, hipoteka-produktuak, kontsumorako kreditua, zirkulatzailea eta enpresentzako finantzaketa merkaturatzen dira bereziki. Aurrezkiari dagokionez, berriz, gordailuak (agerikoak eta eperakoak), abalak, ordainbideak (kreditu- eta zordunketa-txartelak), inbertsio-funtsak, pentsio-funtsak eta BGAEak dira produktu nagusiak. Caja Laboral Popular Coop. de Créditok gauzatzen du, batik bat, negozio hori, bere bulego-sarearen bidez edo berorrek % 100ean mendean dituen sozietate batzuen bidez, Entitate Nagusiaren jardueraren luzapen zuzentzat hartzen baitira. Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren Kontseilu Errektoreari dagokio erabaki estrategikoak, gestioari buruzkoak eta operatiboak hartzea.

Aseguruen negozioaren barruan, bestalde, Taldeak Seguros Lagun Aro Vida SAren eta Seguros Lagun Aro SAren bidez egiten dituen jarduerak sartzen dira. Taldeak bizitza arriskuko, bizitza aurrezkiko eta *unit linked* izeneko aseguruak merkaturatzen ditu bizitza-aseguruen jardueraren barruan. Horrez gain, bizitzakoak ez diren aseguruak merkaturatzen ditu, batik bat auto-aseguruak, erantzukizun zibilekoak eta arrisku anitzekoak, etxekoak batez ere. Bi sozietateon Administrazio Kontseiluei dagokie erabaki estrategikoak, gestioari buruzkoak eta operatiboak hartzea.

Hala ere, LABORAL Kutxa Taldearen barruan egoteagatik ezartzen zaien kontrolarekin hartzen dira Taldearen negozio guztietako erabakiak.

- Segmentazio geografikoa

Taldeak 283 bulegoko sarearen bidez gauzatzen du bere jarduera, 2023ko abenduaren 31ko datuetan. Horietatik 169 Euskal Autonomia Erkidegoan daude, 36 Nafarroan eta 78 Estatuko gainerako lurraldeetan (2022ko abenduaren 31n, 280 bulego ziren, horietatik 169 Euskal Autonomia Erkidegoan, 36 Nafarroan eta 75 Estatuko gainerako lurraldeetan).

Taldearen finantza-aktiboen eta maileguen eta kobratzeko partiden banaketa geografikoa urteko kontu bateratu hauetako 21. oharrean xehakatu dira. Taldearen diru-sarrerei dagokienez, gehientsuenak Espainian sortzen dira.

Beraz, esparru geografikoa segmentatzeko irizpideei dagokienez, ez da alderik ikusi Taldearen jarduera-eremuen artean (Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroaren eta Estatuko gainerako lurraldeen artean), eta, beraz, ez dago irizpide horren arabera informazioa bereizi eta zatikatu beharrik.

b. Informazio zatikatua lantzeko erabili diren oinarriak eta metodologia

Informazio hau osatzeko, LABORAL Kutxa Taldea osatzen duten sozietateen kontabilitate indibiduala hartu da kontuan, dagozkion baterakuntzako ezabapenak eta doikuntzak eginda.

Negozio-unitate bakoitza negozio independentetzat hartzen denez, negozioen artean dirusarreren eta gastuen fluxuak gertatzen dira produktuak, zerbitzuak edo sistemak banatzeko zerbitzuak emateagatik. Ezabapenak eta doikuntzak segmentuen arteko barruko emaitzak ezabatzeari dagozkie funtsean. Horrek, azkenean, ez du eraginik Taldearen emaitza-kontuan.

c. Negozioen araberako segmentazioa

Jarraian, 2023ko eta 2022ko ekitaldietako balantze bateratura eta galdu-irabazien kontu bateratura egin diren ekarpen nagusiak azaltzen dira, kontuan hartu gabe taldeko entitateekin egindako transakzioen eragina:

	2023		
	Txikizkako banku-jarduera	Aseguruen negozioa	Taldean guztira
Galdu-irabazien kontu bateratua:			
Marjina gordinari ekarritakoa	560.784	24.346	585.130
Administrazio-gastuak	243.470	6.475	249.945
Ekitaldiko emaitza	193.963	14.478	208.441
Balantze bateratua:			
Aktiboak guztira	25.957.120	632.371	26.589.491

	2022		
	Txikizkako banku-jarduera	Aseguruen negozioa	Taldean guztira
Galdu-irabazien kontu bateratua:			
Marjina gordinari ekarritakoa	397.352	14.801	412.153
Administrazio-gastuak	215.155	5.779	220.934
Ekitaldiko emaitza	130.904	3.634	134.538
Balantze bateratua:			
Aktiboak guztira	27.094.652	647.705	27.742.357

6. Gutxieneko koefizienteak

6.1 Gutxieneko baliabide propioen koefizienteak

Basileako Banku Ikuskaritzako Batzordea arduratzen da nazioarteko finantza-arauketa bateratzeaz. Batzorde horrek hartutako erabakien bidez kreditu-erakundeetarako taxututako lehen arautegian, arrisku guztien gainean % 8ko gutxieneko kapitala finkatu zen (Basilea I, 1988). Geroago, 2004an, Basilea II akordioak hobetu egin zuen arriskua estimatzeko mekanismoen sentikortasuna, eta beste 2 zutabe eman zituen: erakunde bakoitzak bere kapitala eta arriskuak ebaluatzearena (II. zutabea) eta merkatu-diziplinarena (III. zutabea). 2010eko abenduan, arau-esparru berria onartu zuen Batzordeak: Basilea III, alegia. Kalitate handiagoko tresnen bidez, kapital-eskakizunak handitzen ditu, eta sendoa izatea eta erakundeetan eta herrialdeetan homogeneotasunez aplikatzea du xede. Kapital-ratioen gardentasuna eta alderagarritasuna hobetzen ditu kapitalari buruzko akordio berriak. Gainera, zuhurtziazko tresna berriak ere erantsi zituen, likideziaren eta palanka-efektuaren alorretan.

Europar Batasunak bere ordenamendu juridikora eraman zituen Basilea III akordio horiek, 2019ko urtarrilaren 1era arte iraun zuen fasekako (*phase-in*) eredu baten bidez. Horretarako,

arau hauek onartu zituen: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/36/EB Zuzentaraua (CRD-IVa), 2013ko ekainaren 26koa, kreditu-erakundeen jardueran sartzeari eta kreditu-erakundeak eta inbertsio-enpresak zuhurtziaz gainbegiratzeari buruzkoa, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 575/2013 EB Erregelamendua (CRR), 2013ko ekainaren 26koa, kreditu-erakundeen eta inbertsio-enpresen zuhurtziazko betekizunei buruzkoa. Arau horiek, Europako Erkidegoen egunkari Ofizialean argitaratu ondoren, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzen dira.

Ordenamendu juridiko nazionala nazioartetik datozen araudi-aldaketetara egokitzeko asmoarekin, 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legea, kreditu-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzkoa, onetsi zen, 2013ko azaroaren 29ko Errege Lege Dekretuak eta Espainiako Bankuaren Zirkularrak, trantsizio-epealdian aplikatzekoak diren errekerimenduetarako arautze-aukerak ezartzen dituenak, abiatutako transposizioari jarraikiz. Indarreko araudiak (I. zutabeak) ezartzen dituen gutxieneko baliabide propioak kalkulatzeko, Taldearen kreditu-arriskua, truke-arriskua, negoziazio-zorroaren arriskua, merkatu-arriskua eta eragiketa-arriskua hartzen dira kontuan. Horrez gain, arrisku-kontzentrazioaren mugak bete behar ditu Taldeak.

2015eko otsailaren 13ko 84/2015 Errege Dekretuak, 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legea, kreditu-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzkoa, garatzen duenak, Lege horren araudi-garapena osatzen du, eta testu bakar batean elkartzen ditu kreditu-erakundeen antolamenduari eta diziplinari buruzko erregelamendu-mailako arau guztiak, hura argitaratu arte eman zirenak.

Halaber, azpimarratzekoa da 2015-2019 epealdian CRR Erregelamendua osatzen duten arau berriak argitaratu zirela, funts propioei, likideziari, I. zutabeko arriskuei eta kapital-errekerimenduei dagozkien gaietan.

Horrela, bada, 2016ko otsailaren 2an, Espainiako Bankuak 2/2016 Zirkularra jaulki zuen, Espainiako 2013/36/EB Zuzentarauaren ordenamendu juridikorako transposizioa egiteko helburuz, kreditu-erakundeei dagokienez. Horrez gain, 575/2013 EB Erregelamenduak nazioko agintaritza eskudunari aitortzen dizkion aukeretako bat jasotzen du Zirkularrak, Espainiako Bankuak 2/2014 Zirkularrean erabilitakoak osatuz.

Zirkular horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko azaroaren 16ko 2011/89/EB Zuzentarauaren transposizioaren alderdi batzuk ere garatzen ditu. 2011/89/EB Zuzentarauak 98/78/EE, 2002/87/EE, 2006/48/EE eta 2009/138/EE Zuzentarauak aldatzen ditu, finantza-konglomeratu bat osatzen duten finantza-erakundeen gainbegiratze osagarriari dagokionez. Zuzentarau horren transposizioa eginda dago, funtsean, bai 10/2014 Legeak bai 84/2015 Errege Dekretuak, hurrenez hurren, 5/2005 Legean, apirilaren 22koan —finantza-multzoen ikuskaritzari buruzkoa eta finantza-sektoreko beste lege batzuk aldatzen dituena— eta lege hori garatzen duen 1332/2005 Errege Dekretuan egindako aldaketen bidez.

2017ko ekitaldian, Espainiako Bankuaren 2017ko urriaren 24ko 3/2017 Zirkularra kaleratu zen, 2014ko urtarrilaren 31ko 2/2014 Zirkularra aldatzen duena. Zirkular horren funtsezko helburua da 2/2014 Zirkularraren alderdi batzuk, hain zuzen garrantzirik txikieneko kreditu-erakundeei dagozkienak, Europako Banku Zentralak erakunde garrantzitsuentzat onartutako azken xedapenetara egokitzea —batez ere, Europako Banku Zentralaren 2017ko apirilaren 4ko 2017/697 EB Orientazioa, Europar Batasuneko zuzenbideak garrantzirik txikieneko erakundeei dagokienez agintaritza nazional eskudunei eskaintzen dizkien aukera eta ahalmenei buruzkoa—. Era berean, kendu egin ziren 2017ra arte ezarri beharrekoak ziren aukera iragankorrei buruzko arauak.

Azkenik, 2019ko ekitaldian Espainiako Bankuaren 2019ko urriaren 22ko 3/2019 Zirkularra kaleratu zen, 557/2013 EB Erregelamenduak emandako ahalmena erabiltzekoa, mugaeguneratutako obligazioen nabarmentasun-muga zehazteko. 2020ko abendutik aurrera aplikatzekoa zen.

Horrez gain, 2020an 2020/873 EB Erregelamendua onartu zen, honako alderdi hauek barne hartuta: FINA 9 araua aplikatzeari buruzko xedapen iragankorrak luzatzea, aldi baterako zuhurtziazko iragazki bat sartzea bonu subiranoen esposizioen gainean, palanka-efektuaren ratioa desberdin kalkulatzea aldi batez, entitate sistemikoei adierazle horren gainean aurreikusitako koltxoiak eskatzeko data 2023ko urtarrilaren 1era geroratzea, pentsioen edo soldaten bidez bermatutako mailegu jakin batzuetan (eta ETE eta azpiegiturei zuzendutako maileguetan) kapital-eskakizunak murrizteko neurriak eta esportaziorako kreditu-agentziek bermatutako zalantzazko maileguetako lehentasunezko tratua sektore publikoko bestelako bermatzaileei zabaltzea.

Horrez gain, Batzordearen 2020/2176 Erregelamendu Eskuordetua argitaratu zen, programa informatikoen barne-garapenei lotutako aktibo ukiezinei buruz indarrean dagoen kenkaria aldatzekoa. Europako Banku Zentralaren 2021eko ekainaren 18ko 2021/1074 Erabakiak, berriz, berronetsi egin zuen hau: 2019ko abenduaren 31tik ez dira aldatu zenbait baldintza berezi, hain zuzen ere justifikatzen dutenak baldintza jakin batzuk betetzen dituzten banku-zentralen aurreko esposizioen palanka-efektuaren ratioarekiko esposizio osoa salbuestea. Salbuespen hori 2022ko martxoaren 31ra arte luzatuko da —aurreko salbuespen-aldia, Europako Banku Zentralaren 2020ko irailaren 16ko 2020/1306 Erabakian ezarritakoa, 2021eko ekainaren 28an amaitu zen—.

Aurreko paragrafoetan aipatutako araudia osatzeko, CRD V zuzentaraua Espainiako araudira eraman da hauen bidez: 7/2021 Errege Lege Dekretua, apirilaren 27an argitaratua; 970/2021 Errege Dekretua, azaroaren 9an argitaratua, 84/2015 Errege Dekretua aldatzen duena, eta Espainiako Bankuaren 5/2021 Zirkularra, abenduaren 23an argitaratua, Espainiako Bankuaren 2/2016 Zirkularra aldatzen duena. Horrela, amaitu egin da Europako araudian ezarritako kreditu-erakundeen gainbegiratze- eta kaudimen-eskakizunak Espainiako araudira egokitzeko prozesua.

CRR Erregelamenduan ezarritako errekerimenduei jarraikiz, kapitalaren % 8ko ratioa bete beharko dute, une oro, kreditu-erakundeek. Dena den, kontuan izan behar dugu arau-esparru berrian arautzaileek beren ahalmenak erabil ditzaketela, erakundeei aparteko kapital-maila bati eustea eskatzeko.

Zentzu horretan, Entitateak jakinarazpen bat jaso zuen 2023ko abenduaren 5ean, Entitateari aplikagarri zaizkion zuhurtziazko gutxieneko errekerimenduen inguruko erabakiari buruz. Horren arabera, LABORAL Kutxak % 8,125eko CommonEquityTier 1 (CET1) ratioa izan behar du, kapital erregulatorioaren gainean neurtua. Baldintza horrek barne hartzen ditu I. zutabeak eskatzen duen gutxienekoa eta II. zutabearen errekerimendua, bai eta kapitalari eusteko koltxoia ere. Aldi berean, I. zutabearen % 8ko eskakizunetik abiatuz, Kapital Osoaren gutxieneko errekerimenduak % 11,625ekoak dira.

CET1aren % 8,125en errekerimenduak osagai hauek ditu: I. zutabeak eskatzen duen CET1aren gutxienekoa (% 4,5ekoa), II. zutabearen errekerimendua (% 1,125ekoa) eta kapitalari eusteko koltxoia (% 2,5ekoa).

Hona hemen Taldearen Entitate Nagusiaren zuzendaritzak baliabide propioen kudeaketaren inguruan finkatutako helburu estrategikoak:

- Gutxieneko baliabide propioen inguruan aplikatzekoa den araudia une oro betetzea, bai banaka bai taldean.

- Baliabide propioen kudeaketan efizientziarik handiena bilatzea, errentagarritasuneko eta arriskuko beste aldagai batzuekin batera baliabide propioen kontsumoa funtsezko aldagaitzat har dadin, Taldeko inbertsio-erabakiak hartzeko egiten diren analisietan.

Helburu horiek betetzeko, baliabide propioak kudeatzeko hainbat politika eta prozesu ditu Taldeak ezarrita. Hauek dira horien jarraibideak:

- Taldeak jarraipeneko eta kontroleko unitate bat du, Entitatearen Arriskuen Zuzendaritzaren mendean. Espainiako Bankuak baliabide propioez ezarrita duen araudia zenbateraino ari den betetzen aztertzen du.

- Taldearen antolamendu estrategiko eta komertzialean, horiek Taldearen baliabide propio konputagarrietan duten eragina eta kontsumoaren, errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko erlazioa gakotzat hartzen dira erabakiak hartzeko orduan.

- Taldearen kaudimen-egoerari eta etorkizuneko plangintzari etengabeko jarraipena eginez monitorizatzea. Bi agertoki hartzen dira kontuan: nagusia, datozen hiru ekitaldietarako gertagarriena den hipotesiarekin, eta hainbat estres-agertoki, askotariko aurkako egoerak gainditzeko duen finantza-gaitasuna ebaluatzeko helburuarekin.

Aurrez azaldu dugun kaudimen-araudian xedatutakoari lotuz kudeatzen ditu Taldeak bere baliabideak, definizio kontzeptualei dagokienean.

	2023	2022
1. mailako kapital arrunta (CET1)		
Kapitala	818.210	797.846
Emaitza onargarriak	129.459	85.823
Erreserbak	1.101.896	1.072.721
Balorazio-doikuntzak	167.837	77.405
(–) Bestelako kenketak	(71.690)	(65.929)
(–) CET1 doikuntzak, zuhurtziazko iragazkiak direla eta	(106.714)	(119.101)
	2.038.998	1.848.765
1. mailako kapital gehigarria		
Kapital-tresna onargarriak	-	-
	-	-
2. mailako kapitala		
Kapital-tresnak eta mendeko maileguak	-	-
Kreditu-arriskuetarako estaldura osagarria metodo estandarraren bidez	-	-
Balorazio-doikuntzak	-	-
Heziketako eta Sustapeneko Funtsa	-	-
(–) Doikuntza iragankorrak	-	-
	-	-
Bestelako kontzeptu eta kenketak	-	-
Funts propio konputagarriak guztira	2.038.998	1.848.765
Funts propio minimoak guztira	684.057	665.040
Arriskuaren arabera haztatutako aktiboak	8.550.712	8.312.995

Hona hemen 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n Taldeak zituen gutxieneko baliabide propioen daturik garrantzitsuenak:

	2023	2022
1. mailako kapital arruntaren ratioa (CET1)	% 23,85	% 22,24
1. mailako kapitalaren ratioa	% 23,85	% 22,24
Kapital-ratioa guztira	% 23,85	% 22,24

Urteko kontu bateratu hauek formulatzeko egunean, Taldeak betetzen du araudi hori.

6.2 Gutxieneko erreserben koefizienteak

1998ko irailaren 29ko 1/1998 Zirkular Monetarioak, 1999ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zenak, indargabetu egin zuen hamar urterako kutxa-koefizientea, eta, horren ordez, gutxieneko erreserben koefizientea jarri zuen.

Europar Batasunaren 2011ko abenduaren 21eko egunkari ofizialak Europako Banku Zentralaren 2011ko abenduaren 14ko 1358/2011 EB Erregelamendua argitaratu zuen, Gutxieneko Erreserbak aplikatzeari buruzko 1745/2003 EB Erregelamendua aldatu zuena. Aldaketa honako hau izan zen: Europako Banku Zentralaren Gobernu Kontseiluak 2011ko abenduaren 8an erabakitako erreserba-koefizientearen murrizketa jasotzea. Erabaki horren arabera, erakunde lotuek 2012ko urtarrilaren 18tik aurrera eutsi beharreko gutxieneko erreserba-koefizientea % 2tik % 1era murriztu zen.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, eta 2023ko eta 2022ko ekitaldietan, araudi aplikagarriak une bakoitzean koefiziente horretarako ezarritako gutxienekoak betetzen zituen Entitate Nagusiak.

2023ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak 1.261.130 mila euroko zenbatekoa du, helburu horrekin, Espainiako Bankuko kontuan (1.226.861 mila eurokoa 2022ko abenduaren 31n) (21. oharra). Dena den, mantentze-aldian kontu horretan dauden amaierako saldoen batez bestekoa hartzen da kontuan, araudi aplikagarriak gutxieneko erreserben koefiziente hori betetzeko eskatzen duen saldoa kalkulatzeko.

7. Entitate Nagusiko kontseilarien eta goi-zuzendarien ordainsariak

a) Estatutuetako ezarpenak

2022ko maiatzetik aurrera, bertaratze-dieten bidez ordaintzen zaie Kontseilu Errektoreko kideei, presidenteari izan ezik. Karguak berekin dakartzan lana eta ardura konpentsatzeko ordaintzen dira dietak; 93 mila eurokoak izan dira 2023ko ekitaldian, eta 67 mila eurokoak 2022ko maiatzaren 22tik abenduaren 31ra.

Caja Laboral Popularrek ordaindu egiten du presidentearen lana, eta, zehaztutako prozeduren bitartez, Caja Laboral Popular Coop. de Créditok finkatutako ordainsariei buruzko irizpideak aplikatzen ditu.

Jarraian, Kontseilu Errektoreko presidenteak jasotako ordainsariak ageri dira:

	Epe laburreko ordainsariak	
	2023	2022
Kontseilu Errektoreko presidentea	185	177
	185	177

b) Kontseilu Errektorearen eta goi-zuzendaritzako kideen bestelako ordainsariak

Hona hemen Kontseilu Errektoreko 4 lan-bazkideek beren lanpostuetan jaso dutena, 2023ko abenduaren 31n (4 lan-bazkidek 2022ko abenduaren 31n):

	Epe laburreko ordainsariak	
	2023	2022
Kontseilu Errektoreko kideak	350	343
	350	343

Era berean, 9 lagun hartu dira Entitate Nagusiko goi-zuzendaritzako kidetzat, 2023ko abenduaren 31n Zuzendaritza Kontseilua osatzen dutenak alegia —2022ko abenduaren 31n 9 ziren—.

Taula honetan bildu ditugu talde horrek aurrez zehaztu dugun eran jasotakoak:

	Epe laburreko ordainsariak	
	2023	2022
Goi-zuzendaritza	1.497	1.311
	1.497	1.311

Bestalde, 2023ko eta 2022ko ekitaldietan, Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideek 333,23 mila euro eta 225,53 mila euro jaso dituzte, hurrenez hurren, konturako kapital-ordainketengatik (interesengatik) eta erabilgarri dagoen soberakinaren (kooperatiba-itzulkinen) banaketa osagarriagatik.

Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideen alde ekitaldian adierazitako ordainsariez gain, bestelako sarrera eta gastuak ere erregistratu dira 2023ko eta 2022ko galdu-irabazien kontuan, hain zuzen ere Entitate Nagusiaren Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideekin egindako eragiketenak, eta horien xehetasunak aurkeztuko ditugu jarraian:

	Finantza-sarrerak		Finantza-gastuak		Komisioen sarrerak	
	2023	2022	2023	2022	2023	2022
Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideak	39	6	8	-	5	6

Taldeko partaidetzapeko erakundeen administrazio-kontseiluetan Entitate Nagusiaren izenean jarduten duten goi-zuzendariek ez dute, 2023an eta 2022an, inolako ordainsaririk jaso partaidetzapeko erakunde horietako kontseilari izateagatik.

c) Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideekiko mailegu, kreditu, eperako gordailu, abal eta konpromisoak

Entitatearen Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideekin egindako eragiketen ondorioz 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n balantzean erregistratu diren aktiboko eta pasiboko saldoen xehetasuna eskainiko dizuegu jarraian:

	Aktiboa – emandako maileguak (zenbateko gordina)		Aktiboa – kreditu-kontuak (zenbateko gordina)		Pasiboa – ageriko eta eperako gordailuak		Abalak eta konpromisoak	
	2023	2022	2023	2022	2023	2022	2023	2022
Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideak	1.416	1.942	-	-	1.756	1.435	-	-

8. Agentziako kontratuak

2015eko otsailaren 13ko 84/2015 Errege Dekretuaren 21. artikuluarekin bat —2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legea, kreditu-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzkoa garatzen du—, kreditu-erakundeen jarduerako ohiko eragiketak Entitate Nagusiaren izenean eta kontura bezeroekin negoziatzeko edo formalizatzeko 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n ahalordeak emanda dauden pertsona fisiko eta juridikoen zerrenda dator, II. eranskinean.

Zerrenda hori behar bezala jakinarazi zaio Espainiako Bankuari, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n.

9. Ingurumenarekiko inpaktua

Taldearen eragiketa globaletan, besteak beste, ingurumena eta langileen segurtasuna eta osasuna babesteko legeak zaintzen dira. Taldeak uste du behar bezala betetzen dituela legeok, eta horiek betetzen direla bermatzeko diseinatutako prozedurak dituela ezarrita.

Taldearen ustez, beharrezko neurriak hartu ditu ingurumena babestu eta hobetzeko edota, dagokionean, ingurumen-inpaktua minimizatzeko, betiere indarrean dagoen araudia betez. Horren haritik, 2001ean ISO 14001 Arauaren araberako Ingurumen Kudeaketaren Ziurtagiria lortu zuen Entitateak, eta 2023an berritu egin du, beste 3 urterako. Bestalde, Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioen sinatzaile sortzaile gisa hartutako konpromisoen barruan, LABORAL Kutxaren jardueraren ESG inpaktuen analisia egin da.

2023ko eta 2022ko ekitaldietan, Entitate Nagusiaren Kontseilu Errektorearen iritziz klima-arriskuek ez dute eragin nabarmenik izan 2023ko eta 2022ko ekitaldietako finantzetako egoera-orri bateratuetan. Alde horretatik, arlo hauek hartu dira aintzat azterketarako:

- Finantza-aktiboen arrazoizko balioaren estimazioa. Kotizatutako finantza-aktiboen kasuan, klima-arriskuak balorazioan duen edozein eragin berorren merkatuko prezioan jasoko da. Kotizatu gabeko finantza-aktiboei dagokienez, erabaki da klima-arriskuek ez dutela eragin nabarmenik haiek baloratzeko erabilitako hipotesi eta inputetan.

- Finantza-aktiboen kreditu-arriskuagatiko horniduren zenbatespena. Taldearen iritziz, gaur egun ez da nabarmena klima-arriskuek finantza-aktiboetan espero den galeran duten eragina; izan ere, klima-aldaketak kreditu-hartzaileengandik espero diren diru-fluxuetan izan ditzakeen ondorioak Taldeak emandako finantzaketaren batez besteko bizitza baino epe luzeagoan agertuko dira (ikusi 13.h oharra).

- Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteen eta elementu-multzo besterengarrien eta higiezinetako izakinen balorazioa. Arrisku klimatikoek ez dute eraginik izan urteko kontu hauen 13.s eta 13.v oharretan adierazitakoaren arabera kalkulatuta dauden aktibo horien narriaduragatiko galerak zehazterakoan.

- Aktibo ukigarrien narriadura-testa. Taldeak ez du ingurumen-kontuek eragiteko moduko aktiborik. Lehenengo azterketa egin ondoren, ez da uste epe laburrean edo ertainean narriadura-aztarnarik egon daitekeenik, ez eta horien balio-bizitza aldatzeko arrisku nabarmenik dagoenik ere.

- Aseguru-kontratuen pasiboengatiko balorazioa. Taldearen ustez ez dago eragin nabarmenik klima-arriskuak ekar ditzakeen aseguru-kontratuen pasiboen balorazioan (13.t oharra).

Horrez gain, ESG alderdien inguruko azterketa egin da KLATean, aurreikusten diren galerak tenkatzeko, eta ondorioztatu da ez dela kapitalik behar balizko galera horiek estaltzeko, zenbateko garrantzia izan dezaketen kontuan hartuta.

Egindako azterketaren ondoren, Entitateak ez du beharrezkotzat jo inolako hornidurarik egitea ingurumen-arrisku eta -gastuetarako, alor horretan ez baitago urteko kontu hauetan eragin nabarmenik izan dezakeen kontingentziarik.

Bestalde, jasangarritasun-estrategia aplikatzen jarraitu du Entitateak 2023an, jasangarritasun-estrategiari eta jasangarritasun-arriskuak eta klima-aldaketarenak integratzeko arautzaileen eskakizunei jarraikiz. Hauek dira elementurik aipagarrienetako batzuk, ingurumen-inpaktuari dagokionez:

- ESGaren alorreko inbertsio-, finantzaketa- eta aseguru-politika onartzea.
- Jasangarritasunaren gobernantza ezartzea, eta Jasangarritasun Batzordea zein Jasangarritasun Bulegoa sortzea.
- Hobetzea ESG irizpideei jarraikiz eragiketen irizpideak eta sailkapena definitzeko prozesua.
- ESG irizpideak Kapitalaren eta Likideziaren Autoebaluazioko Txostenean (KLATean) eta Zuhurtziazko Garrantziko Txostenean txertatzea.
- ESG arriskuen bero-mapa egitea, hipoteka- eta merkataritza-finantzaketaren zorroaren zuzeneko arriskuak eta trantsizio-arriskuak hobeto ezagutze aldera.
- Arriskuarekiko Grinaren Esparruko ESG adierazleen atalaseak berrikusi eta ezartzea.
- Produktu jasangarrien katalogoa garatzen jarraitzea.
- Plantillarentzako prestakuntza-plana.
- Inbertsio- eta finantzaketa-zorroaren karbono-aztarna neurtzea.
- Zuzeneko jardueraren inpaktua gutxitzeko plana. Barne hartzen ditu iturri berriztagarrietatik energia sortzeko instalazio fotovoltaikoetan inbertitzea eta paperaren kontsumoa % 25 murrizteko helburua.
- Ingurumen-helburuei lotutako ordainsari aldakorra langile guztientzat.
- Hirugarren txostena egitea TCFD metodologiari jarraituz, eta TNFCaren lehena.

10. Suntsiarazpen Funts Bakarra eta Gordailuak Bermatzeko Funtsa

10.1 Suntsiarazpen Funts Bakarra

11/2015 Legeak, ekainaren 18koak, eta hori garatzen duen 1012/2015 Errege Dekretuak, azaroaren 6koak, 2014ko maiatzaren 15eko 2014/59/EB Zuzentaraua ordenamendu juridiko nazionalera transposatzea arautzen dute. Arau horrek esparru berria finkatu du, kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuetako enpresak suntsiarazteko. Hain zuzen, Suntsiarazpen Mekanismo Bakarra osatzen dutenetako bat da. 2014ko uztailaren 15eko 806/2014 EB Erregelamenduak hainbat arau eta prozedura finkatzen ditu kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuetako enpresak suntsiarazteko, Europako Suntsiarazpen Mekanismo Bakarraren eta Suntsiarazpen Funts Bakarraren esparruan.

Araudi hori garatzeko, 2016ko urtarrilaren 1ean Suntsiarazpen Funts Bakarra sartu zen indarrean. Suntsiarazpenaren alorreko erabakiak hartzeari dagokionez Europako agintaria den Suntsiarazpen Batzorde Bakarrarentzako finantzaketa-tresnatzat eratu zen, berak hartutako suntsiarazpen-neurriak eraginkortasunez ezartzeko asmoz. Berari atxikitako kreditu-erakundeek eta inbertsio-zerbitzuak emateko enpresek elikatuko dute Suntsiarazpen Funts Bakarra.

Suntsiarazpen Mekanismo Bakarra Suntsiarazpen Funts Bakarrean oinarritzen da. Funts hori bankuen ekarpenez zuzkituko da, 2024ko abenduaren 31ra arteko epealdian, bermatutako gordailuen % 1eko tamainara iritsi arte.

2015/63 EB Erregelamenduak arautzen duen Suntsiarazpen Funts Bakarrera entitate bakoitzak egin beharreko ekarpena kalkulatzeko, atxikitako entitateen pasibo osoen guztizko agregatuan entitateari dagokion proportzioa hartzen da aintzat, berorren baliabide propioak eta gordailuetan bermatutako zenbatekoa kenduta. Ateratzen den kopurua entitatearen arrisku-profilari egokitzen zaio ondoren. Suntsiarazpen Funts Bakarrera ekarpena egiteko eginbeharra urte bakoitzaren urtarrilaren 1ean sortuko da.

2023ko ekitaldian, erakunde horri egindako ekarpenaren gastua 4.339 mila eurokoa izan da (6.635 mila eurokoa 2022ko ekitaldian) (55. oharra). Gastu hori FINAIB 21 arauaren arabera kontabilizatu da, Gordailuak Bermatzeko Funtsak kontabilizatutako gastuaren antzera.

10.2 Gordailuak Bermatzeko Funtsa

Entitate Nagusia Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsean dago sartuta.

1996ko abenduaren 20ko 2606/1996 Errege Dekretuak, 2015eko azaroaren 6ko 1012/2015 Errege Dekretuak aldatu zuenak, hauxe ezartzen du: Gordailuak Bermatzeko Funtsaren Gestio Batzordeak finkatuko ditu Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsera atxikitako erakundeen urteko ekarpenak. 2023ko ekitaldian, 2022ko abenduaren 31n bermatuta zeuden gordailuen milako 1,75eko ekarpena finkatu zuen Gestio Batzordeak (2021eko abenduaren 31n bermatuta zeuden gordailuen milako 1,75ekoa izan zen 2022ko ekitaldian). Entitate bakoitzaren ekarpena kalkulatzeko, bermatutako gordailuen zenbatekoa eta arrisku-profila hartzen dira aintzat, bai eta zenbait adierazle ere: kapitalaren egokitasuna,

aktiboen kalitatea eta likidezia. Horiek Espainiako Bankuaren 2016ko maiatzaren 27ko 5/2016 Zirkularrak garatu ditu —1/2018 Zirkularrak aldatu zuen—. Era berean, 2023ko abenduaren 31n zaintzan dauden baloreen eta bestelako finantza-tresnen % 5en milako 2an finkatu da balore-bermeen konpartimentura egin beharreko ekarpena.

Aurreko paragrafoan aipatu diren ohiko ekarpenen gastua FINAIB 21aren arabera sortzen da, ordainketa-betebeharra dagoenean —urte bakoitzeko abenduaren 31n izan ohi da—.

2012ko uztailaren 30ean, berari atxikitako entitateen artean aparteko derrama bat egitea erabaki zuen Gordailuak Bermatzeko Funtsaren Gestio Batzordeak: entitate bakoitzak urteko 10 kuota berdin ordainduko ditu. Entitatearen derramaren zenbatekoa 35.227 mila eurokoa da: 3.523 mila euroko urteko 10 kuota. Dagokionean Entitateak ordaintzen duen urteko ohiko ekarpenetik kenduko dira kuota horiek, ohiko ekarpen horren zenbatekoraino. 2022ko uztailaren 30ean, azken ordainketa (3.523 mila eurokoa) egin zuen Entitateak, eta, beraz, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n ez zeukan erregistratuta ordaindu gabeko inongo zenbatekorik aipatutako konpromisoagatik.

6/2013 Errege Lege Dekretuak honako hau ezarri zuen, Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsaren ondarea sendotzeko xedez: Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsei buruzko 1996ko abenduaren 20ko 2606/1996 Errege Dekretuaren 3. artikuluan aurreikusitako urteko ekarpena, erakunde lotuek 2012ko abenduaren 31n gordailuen gainean egin beharrekoa, beste milako 3 handituko da, salbuespenez eta behin bakarrik.

Bi zatitan gauzatu behar zen hazkuntza hori:

a) Lehen zatia, guztizkoaren 2/5en parekoa, 2013ko abenduaren 31tik aurrerako 20 egun baliodunetan ordaindu behar zen. Zati hori murriztu egin zen, araudian aurreikusitako kenketen ondorioz, eta 7.693 mila euroko zenbatekoarekin gastu moduan erregistratu zen, 2013ko ekitaldiko emaitza-kontuan.

b) Bigarren zatia (24.455 mila eurokoa) gainerako 3/5en parekoa da, eta 2014ko urtarrilaren batetik aurrera Gestio Batzordeak zehaztuko duen egutegiaren arabera ordaindu behar zen, gehienez ere 7 urteko epearen barruan. FINAIB 21ean ezarritakoari jarraikiz, 2013ko martxoaren 22ko Errege Lege Dekretu hori indarrean sartzerakoan sortutakotzat jo zen gastua, batetik Entitate Nagusiaren etorkizuneko jardueraren mende ez zegoen ekarpena zelako eta bestetik osotasunean pasibo gisa kontabilizatu behar zelako egun horretan, noiz ordaindu zen aintzat hartu gabe. 2014ko irailaren 30ean, 3.494 mila euro abonatu zituen Entitate Nagusiak. Bestalde, 2014ko abenduaren 17an, ekarpenaren bigarren zati horren gainerako zatia kopuru bereko 2 zatitan ordaintzea erabaki zuen Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsaren Gestio Batzordeak, araudi horrek emandako gaikuntzaren barruan: 2015eko ekainaren 30ean lehena eta 2016ko ekainaren 30ean bigarrena. 2015eko ekainaren 30ean, 10.480 mila euro abonatu zituen Entitate Nagusiak, eta, beraz, 2015eko abenduaren 31n 10.480 mila euro geratzen zitzaizkion ordaintzeko. 2016ko ekainaren 30ean abonatu zuen zenbatekoa, eta, beraz, ordainduta geratu zen 2. zati horretako kopuru osoa.

2023ko ekitaldian, erakunde horri egindako ekarpen guztien gastu osoa 31.354 mila eurokoa izan da (30.734 mila eurokoa, 2022ko ekitaldian), eta honi atxikitako galdu-irabazien kontu bateratuan jaso ditugu, «Ustiapeneko bestelako gastuak» epigrafean (55. oharra).

11. Ikuskaritzako zerbitzu-sariak

2023ko eta 2022ko ekitaldietan zerbitzu-sari hauek jaso dituzte Entitate Nagusiaren Pricewaterhouse Coopers Auditores SL auditoreak eta kontrol, jabetza komun edo kudeaketa bidez auditoreari lotutako enpresek, Taldea osatzen duten sozietateen urteko kontu indibidual eta bateratuetako auditoretza-zerbitzuengatik eta Taldeko sozietateei emandako bestelako zerbitzuengatik:

	Mila eurokotan	
	2023	**2022**
Ikuskaritzako zerbitzuak	631	495
Egiaztapeneko bestelako zerbitzuak	114	113
Ikuskaritzako zerbitzuak eta lotutakoak guztira	**745**	**608**
Zerga-aholkularitzako zerbitzuak	-	-
Bestelako zerbitzuak	173	52
Bestelako zerbitzu profesionalak guztira	**173**	**52**

12. Ondorengo gertakariak

2023ko abenduaren 31tik urteko kontu bateratu hauek egin bitarteko epealdian ez da jazo Taldeari nabarmen eragingo dion aparteko gertakaririk.

13. Aplikatutako kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balorazio-irizpideak

Urteko kontu hauek egiteko erabili ditugun kontabilitate-printzipio eta -araurik eta balorazio-irizpiderik nabarmenenak azalduko ditugu segidan:

a) Jarduneko enpresaren printzipioa

Urteko kontu bateratuak egitean, Taldeko erakundeen jarduerak etorkizunean ere jarraitu egingo duela hartu da kontuan. Hortaz, kontabilitate-arauak aplikatzearen helburua ez da ondare garbi oso bateratua edo horren zati bat transmititzeari begira berorren balioa ezartzea edo likidazioa eginez gero emango lukeen zenbatekoa finkatzea.

2023ko ekitaldian eragin oso nabarmena izan dute egoera geopolitikoak, tentsio inflazionistek eta politika makroekonomikoaren arloan banku zentralek hartutako erabakiek; izan ere, erabaki horiek interes-tasak igotzea ekarri dute, eta, ondorioz, finantza-erakundeen interes-marjinek gorakada handia izan dute, baita Europako finantza-erakundeetan ere. Aldagai makro eta mikroekonomiko nagusiek inbertsio-zorroari, kreditu-zorroari, finantzaketa-iturriei eta Entitatearen eta bere Taldearen galdu-irabazien kontuari zer neurritan eragiten dien jakiteko, aldagai horiek zer bilakaera duten eta etorkizunean gauzak zertaratzen diren ikusi beharko da, baina urteko kontuak prestatzen ari garen honetan ezin da egin iragarpen fidagarririk.

Urteko kontu bateratu hauek formulatzeko datan, oraindik ere ziurgabetasuna dago egungo egoera ekonomiko eta geopolitikoaren inpaktu ekonomiko-finantzarioei eta horien etorkizuneko bilakaerari dagokienez. Hala eta guztiz ere, urteko kontu hauetako zenbatespen nagusietan azaldutako egoeraren ondorioak aztertu ondoren, Zuzendaritzak uste du kaudimen- eta likidezia-indize altuak dituela, egoera honetan negozioaren jarraitutasunari aise eusteko modukoak.

b) Sortzapen-printzipioa

Urteko kontu bateratu hauek, diru-fluxuen egoera-orri bateratuekin zerikusia duten gaietan salbu, ondasun eta zerbitzuen korronte errealaren arabera prestatu dira, noiz ordaindu edo kobratu diren kontuan hartu gabe.

c) Bestelako printzipio orokorrak

Kostu historikoaren ikuspegiari jarraikiz egin dira urteko kontu bateratuak. Dena den, 2004ko urtarrilaren 1ean eta 13.q oharrean adierazitakoaren arabera lursailei eta eraikuntzei aplikatutako errebalorizazioa ere sartu da, eta arrazoizko balioko balorazioa ere bai, bai «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» atalarena, bai «Bestelako finantza-aktibo eta -pasiboak» atalarena (deribatuak barne hartuta).

Urteko kontu bateratuak egiteko, kontabilitateko zenbait estimazio erabili behar dira. Bestalde, Taldearen kontabilitate-politikak aplikatzeko prozesuan bere iritzia erabili behar du Zuzendaritzak. Estimazio horiek eragina izan dezakete, bai urteko kontu bateratuen eguneko aktiboen eta pasiboen zenbatekoan eta aktibo eta pasibo kontingenteen banakapenean, bai urteko kontu bateratuei dagokien aldiko sarreren eta gastuen zenbatekoan. Estimazioak Zuzendaritzaren egungo eta etorkizuneko gorabeheren ezagutzan oinarritzen badira ere, azken emaitzak bestelakoak izan daitezke.

d) Finantza-deribatuen izaera eta funtzionamendua

Finantza-deribatuak izeneko tresnek, galerak edo irabaziak ekartzeaz gain, saldoei eta transakzioei lotutako kreditu- edo merkatu-arrisku guztiak edo batzuk konpentsatzeko aukera eman dezakete, baldintza batzuk betetzen badira. Horretarako, azpiko elementu gisa erabiltzen dituzte interes-tasak, indize jakin batzuk, balore batzuen prezioak, zenbait dibisaren kanbio-tasa gurutzatuak eta antzeko bestelako erreferentziak. Taldeak merkatu antolatuetan negoziatutako finantza-tresna deribatuak erabiltzen ditu, edo, bestela, antolatutako merkatuetatik kanpo (OTC) kontrako alderdiarekin negoziatuak.

Eskatzen dituzten bezeroekin negoziatzeko erabiltzen dira finantza-tresna deribatuak, bai eta Taldearen posizioen arriskuak (estaldura-deribatuak) gestionatzeko eta horien salneurrien aldaketei onura ateratzeko ere. Estaldura-eragiketatzat hartu ezin diren finantza-tresna deribatuak negoziazio-deribatutzat hartzen dira. Hauek dira estaldura-kontabilitatea aplikatu ahal izateko baldintzak:

i) Finantza-tresna deribatuak arrisku hauek estali behar ditu: interes-tasak edo kanbio-tasak gorabeherak izatearen ondorioz aktiboen eta pasiboen balioan aldaketak izatekoa (arrazoizko balioen estaldura); jatorria finantza-aktibo eta -pasiboetan, konpromisoetan eta aurreikusitako transakzio oso probableetan duten diru-fluxu baloratuetan gorabeherak izatekoa (diru-fluxuen estaldura); eta atzerriko negozioetako inbertsio garbiarena (atzerriko negozioetako inbertsio garbien estaldura).

ii) Estaldura-epean zehar, finantza-tresna deribatuak eraginkortasunez deuseztatu behar du estalitako elementu edo posizioaren berezko arriskuren bat. Hortaz, eraginkortasuna izan behar du: prospektiboa, erretrospektiboa eta estaldura baldintza normaletan kontratatzen den unekoa. Bermatu behar du, estalitako elementuaren edo posizioaren bizitza osoan iraungo duela estaldurak.

Estalduren eraginkortasuna prospektiboa eta erretrospektiboa dela ziurtatzeko, eraginkortasun-testak erabiltzen ditu Taldeak. Horien bidez frogatzen du estaldura-tresnaren arrazoizko balioaren aldakuntza hein handian datorrela bat estalitako elementuaren arrazoizko balioaren aldakuntzarekin. Horrela, bada, indarreko arautegiari jarraikiz, estaldura eraginkorra izatekotan, estaldura-tresnaren arrazoizko balioaren aldakuntzak estalitako elementuaren arrazoizko balioaren aldakuntzaren % 80 eta % 125 bitartekoa izan behar du. Deribatu batek hasieran eraginkortasun-testa betetzen badu, baina aurrerago utzi egiten badio betetzeari, kontabilitatean negoziazio-deribatutzat hartuko da une horretatik, eta estaldurak eteteko araua aplikatuko zaio.

iii) Egoki dokumentatu behar da, batetik, finantza-tresna deribatua saldo edo transferentzia jakin batzuk estaltzeko kontratatu zela berariaz eta, bestetik, estaldura eraginkor hori nola lortu eta neurtu nahi zen, betiere bat badator Taldeak arrisku propioak kudeatzeko duen moduarekin.

Elementu edo saldo indibidualak nahiz finantza-aktiboen eta -pasiboen zorroak estal daitezke. Azken kasu horretan, estaliko ditugun finantza-aktibo edo -pasiboek arrisku-tasa bera izan behar dute. Baldintza hori betetzeko, elementu indibidualetan estalitako arriskuak aldaketarekiko duen sentikortasuna antzekoa izan behar da.

Estaldurak gauzatzeko, hainbat izaeratako deribatuak erabiltzen ditu Entitate Nagusiak: interes-tasaren deribatuak, errenta aldakorrarenak, dibisarenak eta abarrenak, estali nahi den elementuaren azpiko arrisku-motaren arabera. Estaldura-tresna hauek erabil daitezke, nagusiki: Interes Rate Swap (IRS) izenekoak, Call Money Swap (CMS) deritzenak, FRAk, interes-tasen gaineko gerokoak, bonuen gaineko gerokoak, errenta aldakorreko interesen gaineko gerokoak, akzioen gaineko gerokoak, eperako dibisa-salerosketa, interes-tasen gaineko aukerak, errenta aldakorreko indizeen gaineko aukerak, akzioen gaineko aukerak, dibisaren gaineko aukerak, interes-tasen egituren gaineko aukerak, errenta aldakorreko egituren gaineko aukerak eta Equity Swapak.

Taldeak kontratatutako eta tresna deribatuekin egindako estaldura-eragiketak arrazoizko balioko estalduratzat hartzen dira, oro har. Estaltzen dute, batetik, Entitate Nagusiak jaulkitako zenbait pasiboren edo gordailuren arrazoizko balioak interes-tasen gorabeherengatik izan dezakeen aldaketa-arrisku osoa edo zati bat eta, bestetik, «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroko ondare-tresna eta zorra adierazten duten balore batzuen arrazoizko balioa.

Bestelako finantza-tresnetan edo beste kontratu nagusi batzuetan sartzen diren finantza-tresna deribatuak bereizi erregistratzen dira deribatu gisa, horien arriskuak eta ezaugarriak kontratu nagusietakoekin estuki lotuta ez daudenean eta kontratu nagusi horiek «Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak» eta «Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktibo eta -pasiboak arrazoizko balioan» epigrafeetan sailkatuta ez daudenean.

Entitate Nagusiak kontrako alderdiekin sinatutako netting- eta kolateral-hitzarmenak erabiltzen ditu arriskuak arintzeko politika moduan; izan ere, kontrako alderdiaren balizko porrotarekiko esposizioa minimizatzen du horrela. 2023ko abenduaren 31n, berme kolateral gisa jasotako eta entregatutako gordailuak 1.320 eta 398.873 mila eurokoak dira, hurrenez hurren, eta «Finantza-pasiboak kostu amortizatuan – Bestelako finantza-pasiboak» eta «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan – Maileguak eta aurrerakinak» epigrafeetan daude

erregistratuta (6.310 eta 288.550 mila euro, hurrenez hurren, 2022ko ekitaldian) (35. eta 25. oharrak).

Ohar horren beraren e) Finantza-aktiboak atalean deskribatzen dira finantza-deribatu horiek baloratzeko irizpideak.

e) Finantza-aktiboak

Finantza-aktiboak hauetako zorroren batean sartzen dira baloratzeko:

i) Finantza-aktiboak kostu amortizatuan

ii) Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan

iii) Nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak:

a. Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak

b. Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak

iv) Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan

Kategoria horiek sailkatzeko, bi elementu hauek hartzen dira aintzat:

- finantza-aktiboak gestionatzeko Taldearen negozio-eredua
- finantza-aktiboen kontratuzko diru-fluxuen ezaugarriak

<u>Negozio-eredua</u>

Diru-fluxuak sortzeko finantza-aktiboak gestionatzeko modua da negozio-eredua. Negozio-eredua zehaztu ahal izateko, helburu zehatz bat lortzearren finantza-aktiboen multzoak batera nola gestionatzen diren hartzen da aintzat. Beraz, negozio-eredua ez dago Taldeak tresna jakin baterako duen asmoaren mende; aitzitik, tresna-multzo baterako zehazten da.

Hona hemen Taldeak erabiltzen dituen negozio-ereduak:

- Finantza-aktiboei eustea, haien kontratuko diru-fluxuak jasotzeko. Eredu horren arabera, kontratuzko diru-fluxu zehatzak kobratzeko asmoz gestionatzen dira finantza-aktiboak, eta ez, ordea, errendimendu global bat eskuratzeko, aktibo horiek gordez eta salduz. Dena dela, egoera jakin batzuetan, aktiboak mugaeguneratu aurretik besterentzeko aukera dago. Aktiboak kontratuzko diru-fluxuak jasotzeko asmoz mantentzeko ereduarekin bateragarriak diren salmenten artean daude oso maiztasun urriko edo garrantzi txikiko salmentak, muga-egunetik gertu dauden aktiboen salmentak, kreditu-arriskua hazi delako egindako salmentak, eta kontzentrazio-arriskua gestionatzeko egiten direnak.

- Finantza-aktiboen salmenta.

- Aurreko bi negozio-ereduak (finantza-aktiboak mantentzea kontratuzko diru-fluxuak jasotzeko eta finantza-aktiboak saltzea) uztartzea. Negozio-eredu horretan, aktiboak maiztasun handiagoz eta zenbateko handiagoan saltzen dira, eta funtsezkoak izaten dira negozio-ereduan.

Finantza-aktiboen kontratuzko diru-fluxuen ezaugarriak
Bi kategoria hauetakoren bat aukeratuko da hasiera batean finantza-aktiboak sailkatzeko:

- Kontratuko baldintzen ondorioz data jakin batzuetan diru-fluxuak sorrarazten dituztenak, zor den kopuruaren printzipala eta interesak ordaintzean.

- Gainerako finantza-aktiboak.

Sailkapen horren ondoreetarako, hasierako kontabilizazioan duen arrazoizko balioa da finantza-aktiboaren printzipala, jakinik finantza-aktiboaren bizitzan aldaketak egon daitezkeela (adibidez, printzipala itzuliz gero). Era berean, interesa ateratzeko, hainbat arrazoiren ondorioz jasotako kontraprestazioak batzen ditugu; alegia, diruaren denbora-balioaren, finantzaketa- eta egitura-kostuen eta aldi zehatz batean kobratzeko dagoen printzipalaren zenbatekoari lotutako kreditu-arriskuagatiko kontraprestazioak, eta irabazi-marjina bat gehitzen zaio.

Zorroen sailkapena, balorazio-ondoreetarako

Taldeak honela sailkatzen ditu finantza-aktiboak, balorazio-ondoreetarako:

- «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan» zorroan, bi baldintza hauek betetzen direnean:

  a. Erabiltzen den negozio-ereduan finantza-aktiboei eustea, kontratuzko diru-fluxuak jasotzeko asmoz.

  b. Kontratuzko baldintzek diru-fluxuak sorraraztea data jakin batzuetan; zor den printzipalaren gaineko printzipalaren eta interesen ordainketak dira soilik (PIOS testa: printzipalaren eta interesen ordainketa soilik).

- «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroan, bi baldintza hauek betetzen direnean:

  a. Erabiltzen den negozio-ereduak finantza-aktiboen kontratuzko diru-fluxuak jasotzea eta saltzea uztartzen ditu.

  b. Kontratuzko baldintzek diru-fluxuak sorraraztea data jakin batzuetan; zor den printzipalaren gaineko printzipalaren eta interesen ordainketak dira soilik (PIOS testa: printzipalaren eta interesen ordainketa soilik).

- «Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak» zorroan sartzen dira ezaugarri hauetakoren bat duten tresna guztiak:

  a. Epe laburrean gauzatzeko helburuarekin sortu edo eskuratzea.

b. Batera identifikatu eta kudeatzen diren finantza-tresnen talde batekoak izatea eta ebidentziak egotea talde hori erabili egin dela arestian, epe laburrean irabaziak lortzeko.

c. Finantza-bermeko kontratuaren definizioa betetzen ez duten tresna deribatuak izatea eta kontabilitate-estaldurako tresnaren izendapena ez izatea.

- «Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroan: baldin eta Entitateak horiek kudeatzeko darabilen negozio-ereduagatik edo horien kontratuzko diru-fluxuen ezaugarriengatik ez bada komeni aurreko zorroetakoren batean sailkatzea.

Deskribatu berri ditugun balorazio-irizpide orokorretatik kanpo gelditzen dira (salbuespenak dira) ondare-tresnetako inbertsioak. Oro har, Taldeak hasierako kontabilizazioan eta era ezeztaezinean gauzatzen du aukera, «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroan sartzen dituelako negoziatzeko dauden tresna moduan sailkatzen ez diren ondare-tresna garbietan egindako inbertsioak, aukera hori gauzatu ezean «Nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak» zorroan sailkatu beharko liratekeenak.

Negozio-ereduaren ebaluazioari dagokionez, eredu hori ez dago banakako tresna batentzako asmoen mende; aitzitik, tresna-multzo batentzat zehazten da, honako hauek kontuan hartuta: aurreko ekitaldietako salmenten maiztasuna, zenbatekoa eta egutegia; salmenta horien zergatiak, eta etorkizuneko salmentekiko aurreikuspenak. Kontratuzko diru-fluxuak jasotzeko aktiboei eustearen ereduarekin bateragarriak izan daitezke, besteak beste, oso gutxitan egiten diren edo oso garrantzi txikia duten salmentak, aktiboaren muga-egunetik hurbil daudenak eta finantza-aktiboen kreditu-arriskua handitu delako edo kontzentrazio-arriskua gestionatzeko egin direnak.

Finantza-aktibo baten kontratuko klausula batek egutegia edo kontratuzko diru-fluxuen zenbatekoa aldatzeko aukera ematen badu (adibidez, amortizazio aurreratuko klausulak edo iraupena luzatzeko klausulak), Taldeak erabakitzen du ea kontratuko klausula hori erabiliz tresnaren bizitzan sortzen diren diru-fluxuak zor den kopuruaren printzipalaren eta interesen ordainketak soilik diren. Horretarako, egutegia aldatu aurretik eta ondoren sor litezkeen kontratuzko diru-fluxuak edo kontratuzko diru-fluxuen zenbatekoa hartzen ditu aintzat.

Aldi berean, finantza-aktibo batek interes-tasa aldian behin doitzea jasotzen badu baina doikuntza horren maiztasuna ez badator bat erreferentziako interes-tasaren epearekin (adibidez, interes-tasa 3 hilean behin doitzen bada urtebeteko tasara), hasierako kontabilizazioa egiten duen unean ebaluatzen du Taldeak intereseko osagaien desdoikuntza, erabakitzeko ea kontratuzko diru-fluxuak zor den kopuruaren printzipalaren eta interesen ordainketak soilik diren.

Hasierako kontabilizazioa egiteko unean diru-fluxuen gainean oso eragin txikia duten edo gertatzeko oso zailak diren gorabehera berezien mende dauden kontratuko baldintzek (jaulkitzailearen likidazioak, adibidez) ez dute galarazten «Kostu amortizatuan» edo «Arrazoizko balioan eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituztela» zorroetan sailkatzea.

v) Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea: Taldeak eskuratu edo jaulkitako finantza-tresna deribatuak hartzen ditu barne, kontabilitate-estaldurakotzat hartzeko kalifikatzen direnak alegia.

Gobernu-organoek 2023ko ekainaren 2an onartu zuten IFRS 9a ezartzea estaldura-kontabilitatean, eta erabakia 2023ko urtarrilaren 1eko datarekin sartu zen indarrean. LABORAL Kutxak araudi berriaren arabera egokitu ditu kontabilitate-politikak eta -prozesuak, Entitate Nagusiko gobernu-organoen onespenarekin.

Estaldura-kontabilitaterako kontabilitate-esparru berria ezartzeak ez du eragin aldaketa kuantitatibo handirik egoera-orrietan. Jarraian, aipatutako araudia betetzeko kontuan hartu beharreko gakoak azalduko ditugu.

Estaldura-erlazioek izendapen ofiziala eta dokumentazio formala izan behar dituzte. Dokumentazioan alderdi hauek zehaztu behar dira:

- Arriskuen gestioaren helburua eta estrategia.
- Estalitako partidaren eta estaldura-tresnaren identifikazioa.
- Arriskuaren izaera.
- Eraginkortasuna neurtzeko metodologia, eraginkortasun-ezaren iturriak eta estaldura-ratioa zehazteko modua.

Atal horiei eraginkortasun-betebeharrak gehitu zaizkie:

- Estalitako partidaren eta estaldura-tresnaren arteko erlazio ekonomikoa frogatzea.
- Kreditu-arriskuak ez ditu menderatzen erlazio ekonomiko horren balio-aldaketak.
- Kontabilitateko estaldura-erlazioaren estaldura-ratioa betetzea; ratio hori estalitako partidaren kantitatearen eta estaldura-tresnaren kantitatearen arteko erlazioaren emaitza da.

Erlazio horrek berbera izan behar du kontabilitatean zein eragiketetan.

<u>Arrazoizko balioaren estaldurak</u>

Estaldura-mota horrek aktiboen edo pasiboen arrazoizko balioaren aldaketak estaltzen ditu, bai eta kontabilizatu gabeko konpromiso irmoen edo horien osagairen baten arrazoizko balioaren aldaketak ere, osagai hori arrisku jakin bati egotz badakioke eta emaitza-kontuari eragin badiezaioke.

Arrazoizko balioaren estalduretan balio-diferentziak kontabilizatuko dira, aukera hauen artean bereizketa eginez:

- Estalitako elementua arrazoizko balioan eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituela baloratzen bada, estalitako partidaren estalduragatiko aldakuntza ekitaldiko emaitzan kontabilizatuko da.
- Ondare-tresna bat bada, estalduragatiko aldakuntzak bestelako emaitza global batean kontabilizatuko dira.

Diru-fluxuen estaldurak

Estaldura-mota horrek emaitza-kontuaren hegakortasuna estaltzen du; hain zuzen ere, finantza-tresna aktibo edo pasibo bati edo oso probablea den transakzio bati lotutako arrisku zehatzak eragindako diru-fluxuen aldaketengatiko hegakortasuna.

Estaldura eraginkortzat joko den estaldura-tresnaren aldakuntza-proportzioa bestelako emaitza global batean kontabilizatuko da. Halere, gainerako edozein aldakuntza ekitaldiko emaitzan kontabilizatuko da.

vi) Interes-tasaren arriskua estalita duen zorro bateko estalitako elementuen arrazoizko balioko aldaketak: galdu-irabazien kontu bateratuan ordaindutako zenbatekoen kontrapartida bateratuari dagokio, baldin eta zenbatekook finantza-tresnen zorroen balorazioan badute jatorria eta zorro horiek interes-tasaren arriskutik eraginkortasunez babestuta badaude arrazoizko balioa estaltzeko deribatuen bidez.

vii) Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak: erakunde taldeaniztunetako edo elkartuetako ondare-tresnak hartzen dituzte barne.

Erakunde taldeaniztunak dira Taldeak eta Taldearekin loturarik ez duen beste erakunde batek edo hainbatek elkarren artean kontrolatutako partaidetzapeko erakundeak eta baterako negozioak. Baterako negozioak dira, bi erakunde edo partaidek edo gehiagok eragiketak egiten badituzte edo aktiboak gordetzen badituzte, eta finantzei edo eragiketei lotutako edozein erabaki estrategiko bideratzeko, partaide guztien ahobatezko adostasuna behar bada, baina eragiketa edo aktibo horiek partaideen finantza-egituretan txertatuta egon gabe.

Erakunde elkartuak partaidetzapeko erakundeak dira, zeinetan Taldeak eragin handia duen. Eragin nabarmen horren erakusle dugu, baina ez bakarra, zuzenean edo zeharka beste partaidetzapeko erakunde baten edo hainbaten bidez partaidetzapeko entitateko boto-eskubideen % 20ko edo gehiagoko partaidetza izatea.

viii) Aseguru- edo berraseguru-kontratuen bidez babestutako aktiboak: aseguru-polizek Planaren aktibotzat hartzeko baldintzak betetzen ez dituztenean prestazio-betebeharra ezeztatzeko behar den diru guztia edo zati bat itzultzea eskatzeko aseguru-entitateei galda dakizkiekeen ordaintze-eskubideei dagozkie.

ix) Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarri finantzarioak: erabiltzeko talde batean sartuta edo besterendu nahi den negozio-unitate batean —etendako eragiketak— dauden partida indibidualen liburuetako zenbatekoei dagozkie, baldin eta gaur egungo baldintzetan eta urtebeteko epean (urteko kontuetan azaltzen den datatik aurrera) saltzeko probabilitate handia badute. Hortaz, besterentzen direnean jasotzen den diruarekin berreskuratuko da, seguruenik, finantza-izaerako partida horien kontabilitate-balioa. Badira finantza-izaerarik ez duten eta salgai dauden bestelako aktibo ez-korronteak ere, eta horien kontabilitate-tratamendua 13.v oharrean jaso dugu.

Erregistroa eta balorazioa

Hasierako kontabilizazioa, finantza-tresna guztiak arrazoizko balioan erregistratzen dira. Ondoren, kontabilitate-itxiera bakoitzeko balorazioa egiteko, irizpide hauek hartzen dira kontuan:

i) Finantza-aktiboak arrazoizko balioan baloratzen dira. Salbuespenak: finantza-aktiboak kostu amortizatuan; baterako negozioetan eta elkartuetan egindako inbertsioak; ondare-tresna horiek azpiko aktibotzat dituzten eta beroriek emanez likidatzen diren finantza-tresna deribatuak.

ii) Finantza-aktibo batek egun jakin batean duen arrazoizko balioa da, egoki informatutako alderdi interesdunek independentziaz egindako transakzioan batak besteari emateko prezioa. Merkatu aktibo batean, hau da, merkatu antolatu, garden eta sakon batean, aktiboak duen kotizazio-balioa da arrazoizko balioa kalkulatzeko biderik garbiena.

Finantza-aktiboak merkatuko preziorik ez duenean, antzeko tresnekin egin diren transakzioetan erabilitakora jotzen da arrazoizko balioa kalkulatzeko, eta, bestela, behar bezala egiaztatutako balorazio-ereduetara. Orobat, baloratu nahi dugun aktiboaren bereizgarriak hartu behar dira kontuan, eragiten dioten arrisku-motak batik bat. Halere, garatutako balorazio-ereduen mugak eta eredu horiek eskatzen dituzten datuen zehaztasun-falta direla eta, gerta liteke modu horretan ateratako arrazoizko balioa bat ez etortzea balorazio-egunean erosi edo saltzeko izango lukeenarekin.

iii) Eguneroko kotizazio-prezioa da merkatu aktiboan kotizazio-balioa duten finantza-tresna deribatuen arrazoizko balioa; eta, ezohiko arrazoiengatik egun zehatz batean kotizazioa zehazterik ez badago, OTC finantza-deribatuak baloratzeko erabiltzen diren pareko bideak erabiltzen dira.

Merkaturik gabeko deribatuak edo oso aktiboa ez den merkatua duten deribatuak baloratzeko, metodologia ekonomikorik sendoenak eta egokienak erabiltzen dira, datu behagarrien erabilera maximizatuz eta merkatuko partaide batek baloratuko lituzkeen faktore guztiak aintzat hartuz; alegia: a) antzekotasun handiko beste tresna batzuen bidez egindako transakzioak, b) diru-fluxuen deskontua, c) aukerak baloratzeko merkatu-ereduak. Merkatuko partaideek lehenesten dituzten eta tresnaren prezioaren estimaziorik errealistena emateko gaitasuna erakutsi duten teknikak ezarriko dira.

Hasierako kontabilizazioan, finantza-deribatu guztiak arrazoizko balioan erregistratzen dira. Hasierako kontabilizazioan, transakzioaren prezioa izan ohi da finantza-tresna baten arrazoizko balioaren ebidentziarik onena. LABORAL Kutxa Taldeak ez du eragiketa garrantzitsurik egiten, hasierako kontabilizazioan transakzioaren prezioa ez den beste arrazoizko balio bat ezarria duten tresna deribatuekin.

iv) «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan» zorroa baloratzeko, kostu amortizatua baliatzen da, eta interes-tasa efektiboaren metodoa erabiltzen da berori finkatzeko. Kostu amortizatua finkatzeko, finantza-aktiboaren eskuratze-kostua hartzen da oinarri. Horri, baina, zuzenketa batzuk egiten zaizkio printzipaletik ateratako diru-kopuruekin eta galdu-irabazien kontu bateratuan sartutako zatiarekin, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz. Hasierako kostuaren eta muga-eguneko itzultze-balioaren arteko aldea ere hartzen da kontuan. Gero, zuzenean edo balioa zuzentzeko kontu baten bidez, aktiboaren zenbatekoa murriztu egin dela kontabilizatzen duen narriaduragatiko edozein balio-murrizketa kentzen zaio. Arrazoizko balioa estaltzeko eragiketetan estalitako «Maileguak eta kobratzeko partidak» epigrafearen kasuan, estaldura-eragiketa horietan estalitako arriskuaren edo arriskuen ondorioz arrazoizko balioan izaten dituzten aldakuntzak erregistratzen dira.

Interes-tasa efektiboa da finantza-tresna baten balioa tresna horri balio-bizitzan estimatu zaizkion diru-fluxuekin parekatzen duen eguneratze-tasa. Kontratuko baldintzak hartzen dira horretarako, amortizazio aurreraturako aukerak esaterako, baina etorkizuneko kreditu-arriskuen galerak kontuan hartu gabe. Interes-tasa finkoa duten finantza-tresnetarako, eskuratu zirenean kontratuan ezarri zen interes-tasa da interes-tasa efektiboa, baina izaeragatik interes-tasen antzekoak diren komisioak eransten zaizkio, dagokionean. Interes-tasa aldakorreko finantza-tresnei dagokienez, interes-tasa efektiboa bat dator erreferentziako interes-tasa lehen aldiz berrikusi arte kontzeptu guztiengatik indarrean dagoen errendimendu-tasarekin.

Arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak eragiten dituztela erregistratzen ez diren finantza-tresnei dagokienez, erosteko edo jaulkitzeko zuzenean egotzi diren transakzio-kostuak gehituz edo kenduz doitzen da arrazoizko balioaren zenbatekoa. Arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-tresnei dagokienez, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuak galdu-irabazien kontu bateratuan kontabilizatzen dira berehala.

Transakzio-kostuak honela definitzen dira: finantza-aktibo bat eskuratzeari edo erabiltzeari zuzenean egotz dakizkiokeen gastuak, edota Entitateak transakzioa burutu ez balu sortuko litzatekeen finantza-pasiboa jaulkitzeari edo onartzeari zuzenean egotz dakizkiokeenak.

Finantzaketa-izaera nabarmenik ez duten eragiketa komertzialengatik kobratu beharreko partidak eta hasieran transakzio-prezioan edo printzipalaren prezioan, hurrenez hurren, baloratu diren kreditu komertzialak eta epe laburreko zor-tresnak zenbateko horretan bertan baloratzen jarraituko dira, 13. ohar honen h) atalean deskribatzen den moduan estimatutako narriaduragatiko balio-doikuntza kenduta.

Taldeak barne-proiektu bat burutu zuen 2019an, kreditu-inbertsioko eragiketen transakzio-kostu zuzenak eta gehikuntzakoak identifikatzeko asmoz. Ondorioz, identifikatutako transakzio-kostu batzuk aktiboaren baliorik handienarekin kontabilizatzen dira hasiera batean, eta kontuan hartzen dira interes-tasa efektiboa zehazteko. Tasa hori txikitu egiten da finantza-aktiboetarako, eragiketaren iraunaldi osoan periodifikatuta (25.b.2 oharra).

Finantza-aktiboen liburuetako zenbatekoan gertatzen diren aldakuntzak, oro har, galdu-irabazien kontu bateratuan kontrapartida jasoz erregistratzen dira. Horretarako, bereizi egiten dira jatorria interesen sortzapenean eta antzeko kontzeptuetan dutenak eta beste arrazoi batzuk dituztenak. Lehenak «Interesen sarrerak» epigrafean jasotzen dira, eta bigarrenak galdu-irabazien kontu bateratuko «Negoziatzeko dauden finantza-aktibo eta -pasiboen irabazi edo (–) galera garbiak», «Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboen irabazi edo (–) galera garbiak» edo «Arrazoizko balioan izendatu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten aktibo eta pasiboen irabazi edo (–) galera garbiak» epigrafeetan, zenbateko garbian.

Halere, «Bestelako emaitza global metatu batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafeko tresnen liburuetako zenbatekoaren aldakuntzak ondare garbi bateratuko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafean jasotzen dira aldi baterako, baldin eta finantza-aktibo monetarioen kanbio-diferentzien ondoriozkoak ez badira. «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafeko zenbatekoek ondare garbi metatua osatzen dute, harik eta horien jatorri den aktiboari balantze bateratuan baja ematen zaion arte; une horretan, galdu-irabazien kontu bateratuaren kontra ezerezten dira, eta «Arrazoizko balioan baloratu ez diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktibo eta -pasiboei kontuetan baja emateagatiko irabaziak edo galerak» epigrafean erregistratu (zor-tresnen kasuan) eta «Bestelako erreserbak» epigrafean (ondare-tresnen kasuan).

Estalitako eta kontabilitateko estaldurako partida gisa hartzen diren finantza-aktiboetan, irizpide hauek kontuan izanda erregistratzen dira balorazio-aldeak:

i) Arrazoizko balioaren estaldurak:

   a. Estalitako elementua arrazoizko balioan eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituela baloratzen bada, estalitako partidaren estalduragatiko aldakuntza ekitaldiko emaitzan kontabilizatuko da.
   b. Ondare-tresna bat bada, estalduragatiko aldakuntzak bestelako emaitza global batean kontabilizatuko dira.

ii) Diru-fluxuen estaldura-eragiketetan eta atzerriko negozioetako inbertsio garbietan eraginkorra ez den zatiaren balorazio-aldeak galdu-irabazien kontu bateratuan sartzen dira zuzenean.

iii) Diru-fluxuen estalduretan, ondare garbi bateratuko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafean jasotzen dira, aldi baterako, estaldura-elementuen estalduran eraginkorra den zatiaren balorazio-aldeak.

iv) Atzerriko negozioetako inbertsio garbien estalduretan, ondare garbi bateratuko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafean jasotzen dira, aldi baterako, estaldura-elementuen estalduran eraginkorra den zatiaren balorazio-aldeak.

Azken bi kasu horietan, balorazio-aldeak ez dira emaitza gisa jasotzen, harik eta estalitako elementuaren galerak edo irabaziak galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen diren arte edo estalitako elementuaren muga-egunera arte.

Finantza-tresnen zorroen arteko birsailkapena

Taldeak finantza-aktiboak gestionatzeko negozio-eredua aldatzen duenean, eragindako finantza-aktibo guztiak atal hauen arabera birsailkatzen dira. Birsailkapenaren egunetik era prospektiboan burutzen da birsailkapena, baina ez da beharrezkoa aurretiaz kontabilizatutako irabaziak, galerak edo interesak berriro adieraztea. Oro har, oso gutxitan gertatzen da negozio-eredua aldatzea; supostu hauetan, hain zuzen:

i) Taldeak «kostu amortizatuan» zorrotik «arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak eragiten dituztela» zorrora birsailkatzen badu zor-tresnaren bat, birsailkatu den eguneko arrazoizko balioa estimatu beharko du. Aurretiko amortizazio-kostuaren eta arrazoizko balioaren artean aldea dagoelako galerarik edo irabazirik gertatzen bada, galdu-irabazien kontu bateratuan kontabilizatuko da.

ii) Taldeak «arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak eragiten dituztela» zorrotik «kostu amortizatuan» zorrora birsailkatzen badu zor-tresnaren bat, birsailkatu den egunean aktiboak duen arrazoizko balioa izango da bere liburuetako zenbateko gordin berria.

iii) Taldeak «kostu amortizatuan» zorrotik «arrazoizko balioan eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituztela» zorrora birsailkatzen badu zor-tresnaren bat, birsailkatu den eguneko arrazoizko balioa estimatu beharko du Taldeak. Aurretiko amortizazio-kostuaren eta arrazoizko balioaren artean aldea dagoelako galerarik edo irabazirik gertatuz gero, bestelako emaitza global bateko epigrafean kontabilizatuko da. Birsailkapenaren ondorioz ez dira doitu behar izango interes-tasa efektiboa eta aurreikusten diren kreditu-galeren estimazioa.

iv) Zor-tresnaren bat «arrazoizko balioan eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituztela» zorrotik «kostu amortizatuan» zorrora birsailkatzen bada, birsailkatu den eguneko arrazoizko balioaren arabera birsailkatuko da finantza-aktiboa. Ondare garbiko bestelako emaitza global metatu batean birsailkatu den eguneko galera edo irabazi metatua ezereztu egingo da. Horretarako, birsailkapenaren egunean aktiboak duen liburuetako zenbatekoa erabiliko da kontrapartida moduan. Hala, zor-tresna beti kostu amortizatuan baloratu balitz bezala baloratuko da, birsailkapenaren egunean. Birsailkapenaren ondorioz ez dira doitu behar izango interes-tasa efektiboa eta aurreikusten diren kreditu-galeren estimazioa.

v) Taldeak «arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak eragiten dituztela» zorrotik «arrazoizko balioan eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituztela» zorrora birsailkatzen badu zor-tresnaren bat, finantza-aktiboa arrazoizko balioan baloratzen jarraituko da. Ez da aldatuko aurretiaz erregistratutako balio-aldaketak kontabilizatzeko modua.

vi) Taldeak «arrazoizko balioan eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituztela» zorrotik «arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak eragiten dituztela» zorrora birsailkatzen badu zor-tresnaren bat, finantza-aktiboa arrazoizko balioan baloratzen jarraituko da. Aurretiaz ondare garbiko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafean jasotako galera edo irabazi metatua aldi horretako emaitzara intsuldatuko da, birsailkapenaren egunean.

vii) Mendeko erakunde batean, baterako negozio batean edo elkartu batean egindako inbertsioak halakotzat kalifikatzeari uzten dionean, mantendutako inbertsioa, dagokionean, birsailkatu den eguneko arrazoizko balioaren arabera neurtuko da, eta birsailkatu aurretik zeukan liburuetako zenbatekoaren eta arrazoizko balioaren artean aldea dagoelako sortzen den galera edo irabazia emaitzetan edo bestelako emaitza global batean kontabilizatuko da, mantendutako inbertsioaren ondorengo balorazioaren arabera.

2023ko eta 2022ko ekitaldietan ez da finantza-tresnen zorroen arteko birsailkapenik egin. 2023ko ekitaldian, merkatuan dauden BETik altueneko inbertsio-aukerak —etorkizuneko galdu-irabazien kontuan jasangarritasun handiagoa ahalbidetuko dutenak— aprobetxatzeko helburuarekin, Entitate Nagusiak saldu egin ditu finantza-aktiboak kostu amortizatuan / mugaegunera arte mantendutako inbertsioak, barne-politikan ezarrita dagoen % 5eko gehieneko ehunekoaren barruan.

f) Finantza-pasiboak

Sailkapena

Finantza-pasiboak balantze bateratuan sailkatzeko, irizpide hauek erabiltzen dira:

i) Negoziatzeko dauden finantza-pasiboak: epe laburrera berriro eskuratzeko jaulki diren finantza-aktiboak hartzen ditu barne. Elkarrekin kudeatzen diren eta epe laburrera irabaziak lortzeko eguneratu berri diren finantza-tresna identifikatuen zorroko zati bat dira, edo kontabilitateko estaldura-tresnatzat hartu ez diren tresna deribatuak, edo aldi baterako eskuratu edo mailegutan hartu diren finantza-aktiboen salmenta irmoak sortuak.

ii) Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-pasiboak arrazoizko balioan: Taldeak hasierako kontabilizazioan izendatutako finantza-pasiboak dira, edo horiek izendatzean informazio nabarmenagoa lortzen denean, arrazoi hauengatik:

- Galerak edo irabaziak irizpide desberdinekin kontabilizatzeagatik edo aktiboak edo pasiboak irizpide desberdinekin baloratzeagatik, kontabilizazioan edo balorazioan sortuko liratekeen inkoherentziak guztiz desagerrarazi edo nabarmen murrizteko.

- Finantza-pasiboen talde bat kudeatu eta errendimendua arrazoizko balioan oinarrituz ebaluatzeko, arriskua kudeatzeko edo inbertsioa dokumentatzeko estrategia erabiliz, eta talde horren informazioa Zuzendaritzako funtsezko langileei emateko, arrazoizko balioa oinarritzat harturik.

iii) Finantza-pasiboak kostu amortizatuan: balantze bateratuko gainerako ataletan sartu ezin direnak dira, finantza-erakundeen funts-bilketako ohiko jardueren ondoriozkoak, eta berdin dio nola gauzatzen diren eta zer muga-egun duten.

iv) Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea: Taldeak eskuratu edo jaulkitako finantza-deribatuak hartzen ditu barne, kontabilitate-estaldurakotzat hartzeko kalifikatzen direnak, alegia.

v) Interes-tasaren arriskua estalita duen zorro bateko estalitako elementuen arrazoizko balioko aldaketak: galdu-irabazien kontu bateratuan ordaindutako zenbatekoen kontrapartida bateratuari dagokio, baldin eta zenbatekook finantza-tresnen zorroen balorazioan badute jatorria eta zorro horiek interes-tasaren arriskutik eraginkortasunez babestuta badaude arrazoizko balioa estaltzeko deribatuen bidez.

vi) Ageriko kapital itzulgarria: Taldeak jaulkitako finantza-tresnen zenbatekoa hartzen du barne. Kapitalaren izaera juridikoa dute, baina ez dituzte betetzen ondare garbian sartzeko baldintzak. «Finantza-pasiboak kostu amortizatuan» zorrokoak moduan baloratzen dira, baldin eta Taldeak «Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-pasiboak arrazoizko balioan» zorroan sartu ez baditu, horretarako baldintzak bete eta gero.

Entitate Nagusiaren estatutuetan ezarri denez, bazkideen ekarpenak itzultzeko nahitaezkoa izango da Entitate Nagusiaren Kontseilu Errektoreak aldeko erabakia hartzea eta itzulketa egin ondoren gutxieneko kapital soziala, baliabide propioak edo kaudimen-koefizientea behar adina estalita geratzea.

vii) Saltzeko daudenen artean sailkatu diren elementu-multzo besterengarrietako pasiboak: «Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak» zorroan jatorria duten saldo hartzekodunei dagozkie.

Erregistroa eta balorazioa

Finantza-pasiboak kostu amortizatuan erregistratzen dira, hain zuzen ere, 13.e oharrean finantza-aktiboentzat zehaztu den eran. Dena den, badira salbuespenak:

i) «Negoziatzeko dauden finantza-pasiboak» eta «Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-pasiboak arrazoizko balioan» epigrafeetako finantza-pasiboak arrazoizko balioan baloratzen dira, 13.e oharrean finantza-aktiboentzat zehaztu den eran. Arrazoizko balioa estaltzeko eragiketetan estalitako finantza-pasiboen kasuan, estaldura-eragiketa horietan estalita dagoen arriskuaren ondorioz arrazoizko balioan izaten dituzten aldaketak erregistratzen dira, finantza-pasibo horiei dagokien «Mikro-estaldurako eragiketak» atalean.

ii) Arrazoizko balioa behar bezalako objektibotasunez zehaztu ezin zaien ondare-tresnak azpian dituzten eta horiek entregatuz likidatzen diren finantza-deribatuak eskuratze-kostuan jasotzen dira.

Finantza-pasiboen liburuetako zenbatekoan gertatzen diren aldaketak, oro har, galdu-irabazien kontu bateratuan kontrapartida jasoz erregistratzen dira. Horretarako, bereizi egiten dira jatorria interesen sortzapenean eta antzeko kontzeptuetan dutenak eta beste arrazoi batzuk dituztenak. Lehenak «Interesen gastuak» epigrafean jasotzen dira eta bigarrenak galdu-irabazien kontu bateratuko «Negoziatzeko dauden finantza-aktiboen eta -pasiboengatiko irabazi edo (–) galera garbiak» edo «Arrazoizko balioan izendatu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten aktibo eta pasiboengatiko irabazi edo (–) galera garbiak» epigrafeetan, zenbateko garbian.

Estalitako kontu-sail eta kontabilitateko estaldurako kontu-sail gisa izendatutako finantza-pasiboetan, 13.e oharrean finantza-aktiboetarako adierazitako irizpideak kontuan hartuta erregistratzen dira balorazio-aldeak.

g) Finantza-tresnak transferitzea eta balantze bateratutik baja ematea

Finantza-tresnen transferentziak kontabilizatzeko, transferitutako finantza-tresnei lotutako arriskuak eta irabaziak intsuldatzeko modua hartzen da aintzat, irizpide hauek kontuan izanda:

i) Arriskuen eta mozkinen funtsezko intsuldaketa egiten bazaie hirugarrenei, transferitutako finantza-tresnari baja ematen zaio balantze bateratuan, eta, aldi berean, transferentziaren ondorioz atxikitako edo sortutako edozein eskubide edo obligazio kontabilizatzen da. Eragiketa-mota horietan sartzen dira: baldintza gabeko salmentak; berrerosteko egunean arrazoizko balioan berrerosteko ituna duten salmentak; finantza-aktiboen salmentak, dirua alde batera utzita erosteko aukera eskuratua edo saltzeko aukera emana dutenak; aktiboen titulazioak, lagatzaileak ez duenean mendeko finantzaketarik atxikitzen eta titular berriei ez dienean kreditu-hobekuntzarik eskaintzen, eta abar.

ii) Transferitutako finantza-tresnari dagozkion arriskuen eta mozkinen funtsezko atxikipena egiten bada, transferitutako finantza-tresnari ez zaio baja ematen balantze bateratuan, eta transferentziaren aurretik erabiltzen ziren irizpide berberekin baloratzen jarraitzen da. Eragiketa-mota horietan sartzen dira: salneurri finkoarekin edo salmenta-prezioari interes bat erantsita berrerosteko ituna duten finantza-aktiboen salmentak; baloreak mailegatzeko kontratuak, mailegu-hartzaileak horiek edo antzeko aktiboak itzultzeko betebeharra duenean, eta abar. Halarik ere, finantza-pasiboa kontabilizatzeko, jasotako kontraprestazioaren kopurua —kostu amortizatuan baloratzen da gero—, transferitu den baina baja eman ez zaion finantza-aktiboaren sarrerak eta finantza-pasibo berriaren gastuak hartzen dira kontuan.

iii) Transferitutako finantza-tresnari dagozkion arriskuak eta mozkinak ez badira transferitzen eta ez bazaie funtsezko atxikipena egiten, hainbat aukera daude; eragiketa-mota horietan sartzen dira: eskuratutako erosketa-aukera edo jaulkitako salmenta-aukera duten eta sakonean diruaren barruan nahiz kanpoan ez dauden finantza-aktiboen salmentak, titulizazioak (lagatzaileak mendeko finantzaketa hartzen duenean) eta transferitutako aktiboaren zati baten gaineko kreditu-hobekuntzak. Hauek dira aukerak:

- Taldeak ez badio transferitutako finantza-tresnaren kontrolari eusten, baja ematen zaio balantzean eta transferentziaren ondorioz atxikitako edo sortutako edozein eskubide edo obligazio kontabilizatzen da.

- Taldeak eutsi egiten badio transferitutako finantza-tresnaren kontrolari, balantzean kontabilizatzen jarraitzen du, balio-aldaketen eraginpean jartzeari dagokion zenbatekoan, eta jasotako kontraprestazioaren pareko kopuruko finantza-pasiboa kontabilizatzen da. Pasibo hori kostu amortizatuan baloratuko da gerora, salbu eta «Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-pasiboak arrazoizko balioan» atalean sailkatzeko baldintzak betetzen baditu. Gaur egun bete beharrekoa ez denez, finantza-pasibo horren zenbatekoa kalkulatzeko kendu egingo zaio bere jabetzako finantza-tresnen (hala nola titulizazio-bonuen eta maileguen) zenbatekoa, baldin eta finantza-aktiboak transferitu zaizkion entitatearentzat finantzaketa-iturri badira eta transferitutako aktiboak finantzatzen badituzte, bereziki, tresna horiek. Transferitutako aktiboaren eta lotutako pasiboaren zenbateko garbia hauxe izango da: atxikitako eskubide eta obligazioen kostu amortizatua, baldin eta transferitutako aktiboa kostu amortizatuan neurtzen bada, edota atxikitako eskubide eta obligazioen arrazoizko balioa, baldin eta transferitutako aktiboa arrazoizko balioan neurtzen bada.

Beraz, finantza-aktiboei bi kasutan bakarrik emango zaie baja balantze bateratutik: sortutako diru-fluxuak agortzen direnean edo berezkoak dituzten arrisku eta irabazi gehienak hirugarrenen esku uzten direnean. Halaber, finantza-pasiboei balantzetik baja emateko, sortzen dituzten obligazioak agortuta egon behar dira, edo, bestela, berriro kitatu edo birkokatzeko helburuarekin eskuratu behar dira.

2022ko ekitaldiko urteko kontu bateratuetan, IM Caja Laboral 1 ATF eta IM Caja Laboral 2 ATF titulizazio-funtsak sartu zituen Taldeak, integrazio globalaren bidez; izan ere, hurrenez hurren, zenbait mailegu transferitu zizkien 2006ko eta 2008ko ekitaldietan. 2023ko ekitaldian, IM Caja Laboral 1 ATF eta IM Caja Laboral 2 ATF titulizazio-funtsak aurrez likidatzea erabaki du Entitate Nagusiak (25. eta 35. oharrak).

Dena den, Taldeak ez ditu kontabilizatu 2004ko urtarrilaren 1aren aurretik egin diren transakzioengatiko finantza-aktibo eta -pasiboak, betiere geroagoko transakzio edo gertaeraren baten ondorioz jaso beharrekoak ez badira eta tresna deribatuak ez badira, horiek balantze bateratutik baja emanda baitaude, aurretik aplikatzen zen arautegiaren indarrez.

h) Finantza-aktiboen eta bestelako kreditu-esposizioen balioa narriatzea

Taldeak balio-narriaduraren inguruko eskakizunak aplikatzen dizkie bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten eta kostu amortizatuan eta arrazoizko balioan baloratzen diren zor-tresnei, bai eta kreditu-arriskua dakarten bestelako esposizioei ere, hala nola emandako maileguen konpromisoei, emandako finantza-bermeei eta emandako beste konpromiso batzuei.

FINA 9ak balio-narriaduraren inguruan zehazten dituen eskakizunen helburua hauxe da: taldean edo banaka ebaluatutako eragiketetan espero diren kreditu-galerak kontabilizatzea, eskura dagoen arrazoizko eta zentzuzko informazio guztia, baita aurrera begirakoa ere, kontuan hartuta.

Epealdiko zor-tresnen narriaduragatiko galerak gastu moduan kontabilizatzen dira galdu-irabazien kontu bateratuko «Arrazoizko balioan baloratu ez diren eta emaitzetan aldaketak eta aldaketen ondorioz galerak edo irabaziak dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) narriadura itzultzea» epigrafean. Aktiboaren liburuetako zenbatekoa txikitzen duen hornidurak zuzentzeko kontu batean kontabilizatzen dira zor-tresnen narriaduragatiko galerak.

Zor-tresnak ez diren eta kreditu-arriskua dakarten esposizioetako narriaduragatiko galeren estaldurak hornidura moduan erregistratzen dira balantzeko pasiboko «Hornidurak – Emandako konpromiso eta bermeak» epigrafean. Estaldura horien hornidurak eta itzulketak galdu-irabazien kontu bateratuko «Hornidurak edo (–) hornidura-itzulketak» epigrafearen kargura erregistratzen dira.

Ondoren, narriadura-irizpideak laburtuko ditugu, tresna-motaren eta zorroaren arabera sailkatuta:

Kostu amortizatuan baloratutako zor-tresnak eta balantzetik kanpoko esposizioak

Narriaduragatiko galerak zehazteko asmoarekin, Taldeak zordunen banan-banako jarraipena egiten du, zordun garrantzitsuak izan daitezkeenen kasuan behintzat. Era berean, finantza-aktiboko taldeen jarraipen kolektiboa ere egiten du, zordunek zorrak ordaintzeko duten gaitasunari buruz aipatu dugun kreditu-arriskuaren antzeko ezaugarriak dituztenean. Arrisku-ezaugarri antzekoak dituzten aktiboen talde batean ere sartu ezin den tresna bere aldetik aztertuko da, narriatuta dagoen ikusteko eta narriaduragatiko galera baloratzeko.

Kreditu-arriskuen ondorioz izan ditzakeen galerak estimatzeko politikak, metodoak eta prozedurak ditu Taldeak, bai kontrako alderdiari egotz dakiokeen kaudimengabeziaren kasuetarako, bai herrialde-arriskuaren kasuetarako. Zor-tresnetako eragiketak eta balantzetik kanpoko esposizioak onartu, aldatu, ebaluatu, jarraitu eta kontrolatzen direnean ezartzen dira politika, metodo eta prozedura horiek, bai eta beraien narriadura posiblea identifikatzen denean eta, dagokionean, aurreikusitako galerak estaltzeko zenbatekoak kalkulatzen direnean ere.

Kaudimengabeziagatiko kreditu-arriskuaren araberako kontabilitate-sailkapena

Taldeak zenbait irizpide ezarri ditu, ahuleziak eta narriadura-ebidentzia objektiboak dituzten kreditu-hartzaileak identifikatu eta kreditu-arriskuaren arabera sailkatzeko.

Hurrengo ataletan, Taldeak erabiltzen dituen sailkapen-printzipioen eta -metodologiaren berri emango dugu.

1) Sailkapen-kategorien definizioa

Negoziatzeko dauden finantza-aktiboen zorroan sartu ez diren zor-tresnak, balantzetik kanpoko esposizioak bezalaxe, kaudimengabeziagatiko kreditu-arriskuaren arabera sailkatzen dira, honela:

i) Arrisku normala

a. Gainerako kategorietan sailkatzeko baldintzak betetzen ez dituzten eragiketa guztiak sartzen dira bertan (Stage 1).

b. Zaintza bereziko arrisku normala. Kategoria honetan sartzen dira zalantzazko arriskutzat edo kobraezintzat sailkatzeko irizpideak betetzen ez dituzten eta hasierako kontabilizaziotik kreditu-arriskuan gehikuntza nabarmenak (Stage 2) edo indarreko araudiak eta Taldearen kreditu-arriskua kudeatzeko barruko politikek adierazten dituzten beste irizpide kualitatibo batzuk dituzten eragiketak, besteak beste, 30 eta 90 egun bitarteko ez-ordaintzeak.

Taldeak ratio- eta adierazle-sistema bat du, pertsona juridikoekiko arriskuetan kreditu-arriskuak nabarmen handitzen diren ebaluatzeko. Bezeroaren ondare-egoerak, kutxa sortzeko gaitasunak eta kutxa sortzeko gaitasunaren eta banku-zorraren arteko erlazioak eragindako eragiketak antzematean eta horien jarraipenean oinarritzen da sistema hori. Entitateak zehaztutako adierazleetan atalase jakin batzuk gainditzen badira, kreditu-arriskua nabarmen handituko da.

ii) Zalantzazko arriskua (Stage 3)

a. Titularraren berankortasunagatiko zalantzazko arriskua. Kategoria horretan sartzen da zor-tresnen zenbatekoa, titularra eta bermea edozein direlarik ere, baldin eta 90 egunetik gorako antzinatasuneko zenbatekoren bat (printzipala, interesak edo kontratuz hitzartutako gastuak) mugaeguneratuta badute, salbu eta kobraezintzat sailkatzea badagokie. Emandako bermeak ere kategoria horretan sartuko dira, abalduna berandutzean erori bada abalatutako eragiketan.

   Titular baten eragiketa guztiak kategoria horretan sartuko dira, muga-egunetik zenbatuta 90 egunetik gorako antzinatasuna duten eragiketak kobratzeko dagoen zenbatekoaren % 20 baino handiagoak direnean. Ehuneko hori zehazteko, zenbakitzailean jarriko da berankortasunagatik zalantzazkoak diren eta mugaeguneratutako zenbatekoak dituzten eragiketen liburuetako zenbateko gordina eta izendatzailean titularrari emandako zor-tresna guztien liburuetako zenbateko gordina. Horrela kalkulatutako ehunekoa % 20tik gorakoa bada, berankortasunagatiko zalantzazkoetara eramango dira titular horren zor-tresnak nahiz kreditu-arriskua dakarten balantzetik kanpoko esposizioak.

b. Titularraren berankortasuna ez beste arrazoiren batengatiko zalantzazko arriskua. Mugaeguneratuta nahiz mugaeguneratu gabe dauden zor-tresnak hartzen ditu barne, baldin eta, nahiz eta titularraren berankortasuna dela eta kobraezinen edo zalantzazkoen kategorietan sailkatzeko baldintza nahikorik ez egon, arrazoizko zalantzarik badago kontratuz hitzartutako terminoetan osorik (printzipala eta interesak) itzultzeko. Ildo beretik, hor sartzen dira balantzetik kanpoko esposizioak ere, baldin eta, nahiz eta titularraren berankortasuna dela eta zalantzazkoen artean sailkatuta ez egon, Taldeak ordainduko dituela probablea bada eta berreskuratzeko zalantzak badaude.

   Kategoria honetan sartuko dira, besteak beste, euren kaudimena narriatzea eragingo duten egoeran dauden titularren eragiketak. Entitateak ratio- eta adierazle-sistema bat du, pertsona juridikoekiko arriskuetan kreditu-arriskuak nabarmen handitzen diren identifikatzeko. Bezeroaren ondare-egoerak eta kutxa sortzeko gaitasunak eragindako eragiketak antzematean eta horien jarraipenean oinarritzen da sistema hori. Entitateak zehaztutako adierazleetan atalase jakin batzuk gainditzen badira, kaudimena narriatu egingo da eta, ondorioz, zalantzazko arrisku moduan sailkatuko da.

iii) Arrisku hutsegina Kategoria horretan sartuko dira, mugaeguneratuta egon ala ez, banaka egindako azterketaren arabera berreskuratu ezinezkotzat jotzen diren zortresnak, eragiketaren edo titularraren kaudimenean ageriko narriadura berreskuraezina gertatu delako. Kategoria horretan sailkatuz gero, eragiketaren liburuetako zenbateko gordina oso-osorik saneatu beharko da eta aktibotik baja eman beharko zaio erabat.

2) Eragiketak sailkatzeko irizpideak

Taldeak orotariko irizpideak erabiltzen ditu kreditu-hartzaileak nahiz eragiketak kategoria batean edo bestean sailkatzeko, kreditu-arriskuaren arabera. Horien artean daude hauek:

- irizpide automatikoak
- birfinantzamenduetarako berariazko irizpideak
- parametro jakin batzuen jarraipen-ereduetan oinarritutako irizpideak

Faktore automatikoak eta birfinantzamenduetarako berariazko sailkapen-irizpideak zorro osoaren gainean ezartzen diren sailkapen- eta saneamendu-prozesuak dira. Era berean, eragiketen ahuleziak eta narriadurak ahalik eta lasterren antzemateko asmoz, Taldeak zehaztuta duen jarraipen-ereduak tratamendu zehatz bat esleitzen dio eragiketa bakoitzari, ez ordaintzeko arrisku-mailen arabera.

Kreditu-hartzaile garrantzitsuen kasuan, ez-ordaintze posibleak iragartzeko eredu bat erabiltzen da. Aldagai- eta alerta-sistema baten bidez, bezeroen etorkizuneko ez-ordaintzeak antzematea, larritasuna neurtu eta kuantifikatzea eta ez ordaintzeko arrisku-aukerak mailakatzea du helburu. Arrisku-analista adituen talde batek aztertzen ditu alerta aktiboak dituzten kreditu-hartzaileak, ahuleziarik edo narriadura-ebidentzia objektiborik dagoen erabakitzeko eta, narriadura-ebidentziarik badago, galera eragin duen gertakariak finantza-aktiboaren edo taldearen etorkizuneko diru-fluxu estimatuen gainean inpakturik ba ote duen erabakitzeko.

Zalantzazko arrisku gisa sailkatzeko beste arrazoirik ez badago, berankortasun-arrazoien ondorioz zalantzazkoen kategorian sailkatutako eragiketak arrisku normalekoen multzoan sailkatu ahal izango dira berriro ere, baldin eta, mugaeguneratutako zenbatekoen zati bat kobratu ondoren, zalantzazko arrisku gisa sailkatzeko arrazoiak desagertzen badira eta eragiketa arrisku normalekoen multzoan sailkatzeko egunean titularrak ez badu 90 egun baino gehiagoko antzinatasuna duen beste eragiketarik. Berankortasuna ez den beste arrazoi batzuengatiko zalantzazkoei dagokienez, berriro ere arrisku normalekoen multzoan sailkatu ahal izango dira, baldin eta kontratuan hitzartutako baldintzetan erabat ordainduko duelako arrazoizko zalantzak desagertzen badira eta arrisku normalekoen multzoan sailkatzeko egunean titularrak ez badu 90 egun baino gehiagoko antzinatasuna duen beste eragiketarik.

<u>Kreditu-narriadurarekin erosi edo sortutako eragiketak</u>

Horrelako aktiboak erosi edo sortzean espero den kreditu-galera ez da sartuko estalduran, ez eta hasierako aitorpeneko liburuetako zenbateko gordinean ere. Eragiketa bat kreditu-narriadurarekin erosi edo sortzen denean, estaldura honako hau izango da: hasierako kontabilizazioaren ondoren eragiketen bizitzan zehar espero diren kreditu-galeren aldaketen zenbateko metatua. Aktibo horien interesen sarrerak, berriz, honela kalkulatuko dira: finantza-aktiboaren kostu amortizatuari interes-tasa efektiboa aplikatuta, interes-tasa hori kreditu-kalitatearen arabera doitu ondoren.

Birfinantzamendu- eta berregituratze-eragiketak

Taldeak kreditu-arriskuen kudeaketaren alorrean erabiltzen dituen politiken eta prozeduren bidez, bermatuta dago kreditu-hartzaileei jarraipen zehatza egitea; gainera, beraien kaudimenean narriadura-zantzuak egonez gero, zuzkidurak egiteko beharra azaleratzen dute. Horregatik, berregituratze- eta birfinantzamendu-eragiketetan kreditu-hartzailearen egoerak hala eskatzen badu, behar diren kaudimengabezia-zuzkidurak egiten ditu Taldeak. Hauek dira berregituratze- eta birfinantzamendu-eragiketak:

- Birfinantzamendu-eragiketak. Eragiketa horiek ematen edo erabiltzen dira, titularra eta bermeak edozein izanik ere, titularrak (edo titularrek) gaur egun ditu(zt)en edo etorkizunean aurreikusten zaizki(o/e)n zailtasun finantzarioekin lotutako arrazoi ekonomiko edo legezkoengatik, Entitateak berak nahiz taldeko beste erakunde batzuek titularrari (edo titularrei) nahiz talde ekonomikoko beste enpresa bati edo hainbati emandako eragiketa bat edo batzuk itzultzeko, edota eragiketa horien ordaintzeko betebeharra (osoa edo zati bat) egunean jartzeko, itzulitako edo birfinantzatutako eragiketen titularrei zorra (printzipala eta interesak) ordaintzen laguntzeko, egungo egoeran ezin du(t)enean ordainketa hitzartutako garaian eta forman ordaindu, edo etorkizunean ezingo du(t)ela aurreikusten denean.

- Berregituratutako eragiketak. Eragiketa horietan, titularrak (edo titularrek) gaur egun ditu(zt)en edo etorkizunean aurreikusten zaizkio(e)n zailtasun finantzarioei lotutako arrazoi ekonomiko edo legezkoengatik, baldintza finantzarioak aldatu egiten dira zorra (printzipala eta interesak) ordaintzen laguntzeko, hain zuzen ere egungo egoeran ezin du(t)elako hitzartutako garaian eta forman ordaindu, edo etorkizunean ezingo du(t)ela aurreikusten denean, nahiz eta aldaketa hori kontratuan aurreikusita egon. Nolanahi ere, berregituratutako eragiketatzat jotzen dira kita egiten zaien edo zorra murrizteko aktiboak jasotzen dituzten eragiketak, edota baldintzak aldatzen zaizkienak, muga-eguna luzatzeko, amortizazio-taula aldatzeko (epe laburrean kuoten zenbatekoa edo maiztasuna gutxitzeko) edo printzipalaren, interesen edo bien gabealdia ezarri edo luzatzeko; salbu eta frogatzen bada baldintzak aldatzeko arrazoia ez dela titularren finantza-arazoa eta aldaketa egiten den egunean merkatuan antzeko arrisku-profila duten erabiltzaileei ezarritako baldintza berberak ezartzen badira.

Eragiketa bat arrisku-kategoria jakin batean sailkatuta badago, birfinantzamendu-eragiketak ez du eragingo haren arrisku-maila hobetzea. Birfinantzatutako eragiketetan, hasierako sailkapena beraien ezaugarrien arabera zehazten da; batik bat, kreditu-hartzaileak finantza-arazoak izatea eta zenbait klausula (adibidez gabealdi luzeak) indarrean egotea hartzen dira aintzat.

Eragiketaren hasierako kalifikazioaren ondoren, arrisku txikiagoko beste kategoria bateko kalifikazioa justifikatuta egongo da agerikoa denean eragiketa berreskuratzeko aurreikuspenak hobetu egin direla, dela kreditu-hartzaileak denboraldi luzean etengabe bete dituelako ordaintzeko betebeharrak, dela hasierako zorra ehuneko handi nabarmen batean berrordaindu delako.

2021eko ekitalditik aurrera, 6/2021 Zirkularra indarrean sartzearen ondorioz, birfinantzatutako edo berregituratutako eragiketa bat zalantzazkoen artean sailkatzearen data geroagokoa bada birfinantzatzeko edo berregituratzeko eragiketaren data baino, eragiketa zalantzazko arrisku gisa sailkatzen den egunetik urtebete igaro beharko da, eragiketa zalantzazko arriskuaren kategoriatik kanpo birsailkatu ahal izateko.

Estaldurak estimatzeko irizpideak

Kreditu-arriskuagatiko galeren estaldurak kalkulatzeko, aurrerago zehaztu ditugun irizpideak erabiltzen ditu Taldeak.

Arrisku hautemangarririk gabetzat sailkatutako eragiketei (funtsean banku zentralekin, administrazio eta enpresa publikoekin eta finantza-erakundeekin egindakoei eta Europar Batasunekoak edo arriskurik gabekotzat jotako beste herrialde batzuetakoak direnei) % 0ko estaldura-ehunekoa ezartzen zaie, baldin eta zalantzazko eragiketatzat sailkatuta ez badaude, kasu horretan banaka estimatzen baitzaie narriadura.

1) Estalduren banakako zenbatespenak

Hauek dira banakako zenbatespena egiten zaien estaldurak:

i) Banaka nabarmenak diren kreditu-hartzaileen zalantzazko eta zaintza bereziko eragiketen estaldurak. Taldeak 3 milioi euroko atalasea ezarri du arriskuarekiko guztizko esposizioan, kreditu-hartzaileak nabarmentzat hartzeko.

ii) Arrisku-talde homogeneo batekoak ez diren zalantzazko eragiketen estaldurak.

iii) Berankortasunaren ondorioz edo bestelako arrazoiren bategatik zalantzazkotzat sailkatutako eta arrisku hautemangarririk gabetzat identifikatutako eragiketen estaldurak.

Estaldura horiek estimatzeko erabiltzen diren irizpideen bidez, analistek hornidura-maila esleitzen dute, bezeroaren egoera zehatzaren eta eragiketaren arabera eta hauek aintzat hartuz:

i) Kutxa-fluxuen sorrera: zordunek beren negozioaren bidez etorkizunean kutxa-fluxuak sortzeko gaitasuna dutenean, eta, aukera dutenean beren jardueraren eta egitura ekonomiko-finantzarioaren bidez zorraren zati bat edo osotasuna ordaintzeko.

ii) Bermeen berreskurapena: zordunek beren negozioarekin kutxa-fluxuak sortzeko gaitasunik ez dutenean, bermeak exekutatzen dira zorra berreskuratzeko.

Era berean, hauek izango dira banakako zenbatespenerako aintzat hartu beharreko gutxieneko estaldurak: aztertuko diren arriskuen kasuan (kontabilitate-sailkapenaren arabera), zenbatespen kolektiborako irizpideak erabiliz aplikagarriak direnak, eta, sustatzaileen sektoreko eragiketen kasuan, 2012ko otsailaren 3ko 2/2012 Errege Lege Dekretuan zehaztutako irizpideen arabera aplikatzekoak direnak.

2) Estalduren zenbatespen kolektiboak

Hauek dira zenbatespen kolektiboa egiten zaien estaldurak:

i) Arrisku normalekoen multzoan sailkatutako esposizioak (zaintza berezikoen multzoan sailkatutakoak ere barne hartuta); ez dira sartzen Taldearen politikei jarraikiz banakako zenbatespena egingo zaien zaintza bereziko arrisku normalekoen multzoan sailkatutako esposizioak.

Nabarmen izatera heltzen ez diren eta, gainera, zalantzakotzat jo ez diren kreditu-hartzaileentzat parametro jakin batzuk finkatu ditu Taldeak. Horiek gainditzen badituzte, zaintza bereziko arrisku normalekotzat sailkatuko dira berehala. Oro har, ez-ordaintzeak 30 egun baino handiagoak eta 90 egun baino txikiagoak izango dira, eta mugaeguneratutako zenbatekoak 300 eurotik gorakoak.

ii) Zalantzazkotzat sailkatu diren eta estalduren banakako zenbatespenaren bidez ebaluatzen ez diren esposizioak.

Narriadura estimatzeko prozesuan, kreditu-esposizio guztiak hartzen dira aintzat, bai zortresnak eta bai balantzetik kanpoko esposizioak. Horrela, bada, indarreko FINA arauetan ezarritako parametroak eta metodologia (aurreikusitako galerarena) eta indarreko gainerako tokiko araudia erabili du Taldeak, eta, Espainiako banku-sektoreko erakundeen batez besteko portaerari buruzko datu eta eredu estatistikoak, FINA arauen esparruarekin erabat bateragarria den erakusten dutenak, oinarritzat harturik, Taldeak bezeroekin dituen balantzeko eta balantzetik kanpoko esposizioen narriaduraren sailkapena eta kalkulua zehazteko erabiltzen dira. Metodologiak, besteak beste, kontzeptu hauek hartzen ditu aintzat: eragiketari dagokion kreditu-arriskuaren segmentua, jasotako berme erreal eta pertsonal eraginkorrak, zordunaren egoera ekonomiko-finantzarioa eta, dagokionean, mugaeguneratutako zenbatekoen antzinatasuna.

Bestalde, egungo egoera geopolitikoa dela eta, egoera ekonomiko-finantzarioaren narriadurak bere finantza-aktiboei aurreikusten zaizkien galeretan izango duen eragina aztertu du Taldeak. Ebaluazio horren ondorioz, 2023ko eta 2022ko ekitaldietan indartu egin ditu normalen eta zaintza bereziko normalen artean sailkatutako zenbait esposizioren narriaduragatiko balio-zuzenketak. Zehazki, batez ere multzo hauei eragiten dieten balio-zuzenketak egin dira:

i) Zaintza bereziko arrisku normalekoen artean sailkatutako esposizioak.
ii) Arrisku normalekotzat jotako esposizioak, kalteberatzat jotako jarduera ekonomikoko sektore batzuei dagozkienak.
iii) Arrisku-egoerak bultzatuta 15.c oharrean deskribatutako laguntza-neurriei atxikitako kreditu-hartzaileei onartutako zenbait eragiketa.
iv) 575/2013 EB Erregelamenduaren 178. artikuluaren eta Espainiako Bankuaren 3/2019 Zirkularraren arabera arrisku normalekoen baina ordaindu gabekoen artean sailkatutako esposizioak.
v) 2020ko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia 2022ko maiatzaren 31ra arte kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zuena, indarrean jarri ondoren zalantzazkoen artean sailkatu diren esposizioak.

Balio-zuzenketa horiek galdu-irabazien kontuan erregistratu dira, «Arrazoizko balioan baloratu ez diren eta emaitzetan aldaketak eta aldaketen ondorioz galerak edo (–) irabaziak eragiten dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) narriadura itzultzea» (60. oharra).

Kreditu-arriskuagatiko galeren estalduren estimazioetan, higiezin-bermeetatik berreskuratu beharreko zenbatekoa berme horien erreferentzia-balioa doitzearen emaitza izango da; hau da, honako hauek behar bezala jasotzeko doikuntzak eginda: estimazioaren ziurgabetasuna, bermeak exekutatu eta saldu arte izan litzakeen balio-galerak, exekuzio-kostuak, mantentze-kostuak eta salmenta-kostuak.

Berme erreal eraginkorretatik berreskuratu beharreko zenbatekoa zehazteko, Taldeak estimatutako deskontuak aplikatzen ditu horien erreferentziako balioaren gainean. Horretarako, Espainiako banku-sektoreari buruz duen esperientzia eta informazioa hartzen ditu oinarri, FINA arauek eta indarreko gainerako arauek eskatzen duten metodologiari jarraikiz.

Herrialde-arriskuagatiko kreditu-arriskuaren araberako sailkapena eta estaldura

Herrialde-arriskutzat hartzen da herrialde jakin batean bizi diren titularrekin egindako eragiketek ohiko merkataritza-arriskuaz bestelako arrazoiengatik izan lezaketen arriskua (arrisku subiranoa, transferentzia-arriskua edo nazioarteko finantza-jarduerak eragindako arriskua). Hirugarrenekin egiten dituen eragiketak taldeka banatzen ditu Taldeak, herrialdeetako hainbat elementu aintzat hartuta: bilakaera ekonomikoa, egoera politikoa, arau- eta erakunde-esparrua, ordainketak egiteko gaitasuna eta esperientzia. Hala, herrialde bakoitzari kaudimengabeziagatiko zuzkidurarako ehuneko jakin bat ezartzen dio, indarreko araudian finkatutakoarekin bat.

Herrialde-arriskuagatiko zalantzazko aktibotzat jotzen dira aldi luzez beren zorrari aurre egiteko zailtasunak dituzten herrialdeetan bizi diren azken obligaziodunekin egindako eragiketak, berreskuratzeko aukera zalantzazkoa denean. Ildo beretik, herrialdeari egotz dakizkiokeen gorabeheren ondorioz berreskuratzeko aukera urruna duten balantzetik kanpoko esposizioek ere kategoria bera izango dute.

2023ko eta 2022ko ekitaldien itxieran, Taldeak ez du inolako zuzkidura adierazgarririk kontzeptu horren pean.

Bermeak

Eraginkortzat jotzen dira Taldeak kreditu-arriskua arintzeko baliagarria dela frogatzeko balio duten berme errealak eta berme pertsonalak. Bermeen eraginkortasunaren analisiak kontuan hartzen ditu, besteak beste, bermeak gauzatzeko behar den denbora eta Taldeak horiek gauzatzeko duen gaitasuna, bai eta halakoak gauzatzeko duen esperientzia ere.

Ez dira inola ere berme eraginkortzat hartuko beren eraginkortasuna, funtsean, zordunaren kreditu-kalitatearen mende edo, dagokionean, zordunak parte hartzen duen talde ekonomikoaren mende dutenak.

Baldintza horiek betez gero, berme-mota hauek jo daitezke eraginkortzat:

i) Lehen kargako ondasun higiezinen hipoteka moduan eratutako higiezin-bermeak:

   a. Bukatutako eraikinak eta eraikinetako elementuak:
      - etxebizitzak
      - bulego eta lokal komertzialak, eta balio anitzeko pabiloiak
      - gainerako eraikinak, hala nola balio anitzekoak ez diren pabiloiak eta hotelak
   b. Hiri-lurzorua eta urbanizagarri antolatua.
   c. Gainerako ondasun higiezinak.

ii) Finantza-tresnen gaineko pignorazio-bermeak:

   - diru-gordailuak
   - kaudimen handiko jaulkitzaileen ondare-tresnak edo zorra adierazten duten baloreak

iii) Bestelako berme erreala:

- bermean jasotako ondasun higigarriak
- ondasun higiezinen gaineko bigarren eta hurrengo hipotekak

iv) Abal-emaile berrien bezeroarekiko erantzukizun zuzen eta mankomunatua dakarten berme pertsonalak, betiere pertsona edo entitate horien kaudimena nahikoa frogatuta badago, hitzartutako baldintzetan eragiketa osorik itzuliko dutela bermatzeko.

Espainian kokatutako aktiboetarako, indarreko araudiarekin bat datozen irizpideak erabiltzen ditu Taldeak, berme errealak baloratzeko. Zehazki, balorazioen hornitzaileak hautatu eta kontratatzeko Taldeak erabiltzen dituen irizpideen xedea da horien independentzia eta balorazioen kalitatea bermatzea. Guztiak ere Espainiako Bankuaren Tasazio Sozietateen Erregistro Berezian erregistratutako tasazio-sozietate eta -agentziak dira, eta balorazioak egiteko irizpideak ECO/805/2003 Aginduan, ondasun higiezinak eta eskubide jakin batzuk finantza-xede jakin batzuetarako baloratzeko arauen gainekoan, daude ezarrita.

Kreditu-eragiketen higiezin-bermeak eta ondasun higiezinak eurak eragiketa egiten denean tasatzen dira (azken horiek, erosketa, esleipen edo ordainean emate bidez), eta aktiboaren balioa nabarmen erortzen denean. Era berean, zenbait eguneratze-irizpide erabiltzen dira; horien artean nabarmentzen da urtean behin zalantzazko arriskuak eta esleitutakoak eguneratzea.

Arrazoizko balioan baloratutako zor-tresnak

«Bestelako emaitza global metatu batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafean sartutako zorra adierazten duten baloreen narriaduragatiko galerak honela kalkulatzen dira: eskuratze-kostuaren —printzipalaren edozein amortizazio kendu ostean— eta bere arrazoizko balioaren arteko alde positiboa ken galdu-irabazien kontu bateratuan aurrez kontabilizatutako narriaduragatiko edozein galera.

Ebidentzia objektiboak ditugunean arrazoizko balioa narriaduragatik txikitu dela, zuzenean ondare garbi bateratuko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafean kontabilizatutako ezkutuko minusbalioak galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira berehala. Aurrerago narriaduragatiko galera batzuk edo guztiak berreskuratzen badira, kopuru hori berreskurapen-epeko galdu-irabazien kontu bateratuan jasotzen da.

«Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafean sailkatutako zorra adierazten duten baloreen kasuan, Entitate Nagusiaren ustez narriadura gertatzen da, baldin eta printzipalean edota kupoian 90 egunetik gorako ez-ordaintzea gertatu bada.

«Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak» epigrafean sailkatuta dauden zor-tresnetan, aurrez ondare garbi bateratuan erregistratutako galerak egindakotzat jotzeko, galdu-irabazien kontu bateratuan kontabilizatzen dira, sailkapena egiten den egunean.

Ondare-tresnak

Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioen kasuan, narriaduragatiko galerak zenbatesteko, zenbateko berreskuragarria eta liburuetako zenbatekoa alderatzen ditu Taldeak. Narriaduragatiko galera horiek, gertatzen diren epealdiko galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira, eta ondorengo berreskurapenak, horiek gertatzen diren epeko galdu-irabazien kontu bateratuan.

Taldeak zantzu hauek hartzen ditu aintzat, besteak beste, narriadura-ebidentziarik dagoen zehazteko:

- Zailtasun finantzario nabarmenak.
- Zailtasun finantzarioen ondorioz kasuan kasuko tresnarentzat merkatu aktibo bat desagertzea.
- Emaitzetan aldaketa nabarmenak izatea, aurrekontuetan, negozio-planetan edo helburuetan jasotako datuekin alderatuta.
- Jaulkitzailearen ondare garbiko tresnen edo beraren produktu nahiz produktu posibleen merkatuan aldaketa nabarmenak izatea.
- Ekonomia globalean edo jaulkitzaileak jarduten duen inguruneko ekonomian aldaketa nabarmenak gertatzea.
- Jaulkitzaileak jarduten duen ingurune teknologiko edo legezkoan aldaketa nabarmenak gertatzea.

«Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak» epigrafean sartutako mendeko eta elkartutako entitateetako partaidetzen narriaduragatiko balio-zuzenketen zenbatekoa estimatzeko, haien zenbateko berreskuragarria eta kontabilitate-balioa alderatzen dira. Kontabilitate-balioa, berriz, bi zenbateko hauen artean handiena izango da: arrazoizko balioa ken salmenta-kostua eta erabilera-balioa.

Finantza-aktibo eta -pasiboen sarrerak eta gastuak

«Finantza-tresnen sarrerak eta gastuak kostu amortizatuan» zorroa kontabilizatzeko, irizpide hauek erabiltzen dira:

a) Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan erregistratzen dira, eragiketaren interes-tasa efektiboa eragiketaren liburuetako zenbatekoaren gainean aplikatuta (zalantzazko aktiboetan ez, halakoetan kontabilitate-balio garbiaren gainean aplikatzen baita).

b) Gainerako balio-aldaketak sarrera edo gastu moduan kontabilizatuko dira, finantza-tresnak balantzean baja hartzen duenean, birsailkatzen denean eta, finantza-aktiboei dagokienez, balio-narriaduragatiko galerak edo ondoren berreskuratzeagatiko irabaziak sortzen direnean.

«Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-tresnen sarrerak eta gastuak arrazoizko balioan» zorroa kontabilizatzeko, irizpide hauek erabiltzen dira:

a) Arrazoizko balioaren aldaketak galdu-irabazien kontuan erregistratzen dira zuzenean. Deribatuak ez diren tresnak jasotzean, bereizi egin behar dira tresnatik sortutako etekinei egoztekoa den zatia —interes edo dibidendu gisa erregistratuko da, izaeraren arabera— eta gainerako zatia —finantza-eragiketen emaitzatzat erregistratuko da dagokion partidan—.

b) Zor-tresnen ondorioz sortutako interesak kalkulatzeko, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuko da.

Salbuespen moduan, Taldeak honela kontabilizatu beharko lituzke arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak eragiten dituztela baloratutako finantza-pasiboen balio-aldaketak, dagokionean:

a) Pasiboaren kreditu-arrisku propioaren aldaketei egotz dakiekeen finantza-pasiboaren arrazoizko balioko aldaketaren zenbatekoa bestelako emaitza global batean kontabilizatzen da, eta zuzenean erreserba-partida batera intsuldatuko litzateke, finantza-pasiboak baja hartuko balu.

b) Pasiboaren arrazoizko balioko aldakuntzaren gainerako zenbatekoa ekitaldiko emaitzan kontabilizatzen da.

«Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroko sarrerak eta gastuak kontabilizatzeko, irizpide hauek erabiltzen dira:

a) Sortutako interesak edota, dagokionean, sortutako dibidenduak galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira. Interesekin, kostu amortizatuko aktiboekin bezala jokatzen da.

b) Kanbio-diferentziak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, finantza-aktibo monetarioak direnean, eta bestelako emaitza global batean, finantza-aktibo ez-monetarioak direnean.

c) Zor-tresnei dagokienez, balio-narriaduragatiko galerak edo ondoren berreskuratzeagatiko irabaziak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira.

d) Gainerako balio-aldaketak bestelako emaitza global batean kontabilizatzen dira.

Hartara, zor-tresna bat arrazoizko balioan eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituela baloratzen denean, kostu amortizatuan baloratuz gero kontabilizatuko liratekeen zenbatekoak kontabilizatuko dira ekitaldiko emaitzan.

Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituen arrazoizko baliodun zor-tresna bati balantzetik baja ematen zaionean, ekitaldiko emaitzan birsailkatzen da ondare garbian metatutako irabazia edo galera. Aitzitik, bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituen arrazoizko baliodun ondare garbiko tresna bati baja ematen zaionean, bestelako emaitza global batean erregistratutako irabaziaren edo galeraren zenbatekoa ez da birsailkatzen galdu-irabazien kontuan, erreserbetako partida batean baizik.

Aurreko zorroetako bakoitzean, kontabilizazioa aldatu egingo litzateke, tresnak estaldura-erlazio baten parte izanez gero.

i) Kontuak atzerri-dirutan baloratzea

Euroa da Taldeak bere jardunean darabilen dibisa. Beraz, eurotan ez dauden saldo eta transakzio guztiak atzerri-dirutan egindakotzat jotzen dira.

Hauxe da Taldeak 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n atzerri-dirutan guztira dituen aktiboen eta pasiboen kontrabalioa mila eurokotan:

	2023		2022	
	Aktiboak	Pasiboak	Aktiboak	Pasiboak
Dolar estatubatuarra	128.189	20.925	109.751	17.361
Libera esterlinak	3.589	945	3.079	1.589
Yen japoniarrak	8.277	262	548	546
Franko suitzarrak	3.055	355	2.573	902
Bestelakoak	1.873	5.334	1.205	151
	144.983	27.821	117.156	20.549

Hona hemen Taldeak 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n atzerri-dirutan guztira dituen aktiboen eta pasiboen kontrabalioa mila eurokotan, izaeraren arabera sailkatuta:

	2023		2022	
	Aktiboak	Pasiboak	Aktiboak	Pasiboak
Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko bestelako gordailuak	22.566	-	6.687	-
Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak	1.598	-	-	-
Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak	4.888	-	-	-
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	34.946	-	31.343	-
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan	75.990	-	79.126	-
Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea	4.995	-	-	-
Negoziatzeko dauden finantza-pasiboak	-	-	-	-
Finantza-pasiboak kostu amortizatuan	-	26.555	-	19.307
Emandako konpromisoak eta bermeak	-	1.266	-	1.242
	144.983	27.821	117.156	20.549

Hasierako kontabilizazioan, diru funtzionalera bihurtzen dira atzerri-dirutan dauden saldo zordun eta hartzekodunak. Helburu horretarako, kontabilizazioaren eguneko eskurako kanbio-tasa erabiltzen da; hau da, berehala entregatzeko kanbio-tasa. Hasierako kontabilizazioaren ondoren, arau hauek erabiltzen dira atzerri-dirutan dauden saldoak diru funtzionalera bihurtzeko:

i) Izaera monetarioko aktibo eta pasiboak itxierako kanbio-tasara bihurtzen dira, hau da, finantzetako egoera-orrien eguneko eskurako batez besteko kanbio-tasara.

ii) Kostu historikoarekin baloratutako partida ez-monetarioak eskurapen-eguneko kanbio-tasara bihurtzen dira.

iii) Arrazoizko balioan baloratutako partida ez-monetarioak arrazoizko balio hori zehazten den eguneko kanbio-tasara bihurtzen dira.

iv) Sarrerak eta gastuak bihurtzeko, berriz, eragiketaren eguneko kanbio-tasa aplikatzen da. Dena den, epealdiko eragiketa guztietan batez besteko kanbio-tasa bera erabiltzen da, aldaketa nabarmenik izan ez badu, behinik behin. Amortizazioak dagokion aktiboari aplikatutako kanbio-tasara bihurtzen dira.

Atzerri-dirutan dauden saldo zordun eta hartzekodunak bihurtzean sortutako kanbio-diferentziak galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira, oro har. Halarik ere, arrazoizko balioan baloratu diren, arrazoizko balio horretara egindako doikuntza ondare garbi bateratuko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafean jasotzen zaien eta monetarioak ez diren partidetako kanbio-diferentzien kasuan, kanbio-tasaren osagaia bereizi egiten da monetarioa ez den elementuaren errebalorizaziotik.

Diru funtzional moduan euroa erabiltzen ez duten partaidetzapeko erakundeetan, urteko kontuetako saldoak honela bihurtzen dira eurotara:

i) Aktiboak eta pasiboak bihurtzeko, ekitaldi-amaierako kanbio-tasa aplikatzen da.

ii) Sarrerak eta gastuak eta altxortegiko fluxuak bihurtzeko, ekitaldiko batez besteko kanbio-tasak aplikatzen dira.

iii) Ondare garbia kanbio-tasa historikoetara bihurtzen da.

Diru funtzional moduan euroa erabiltzen ez duten partaidetzapeko erakundeetako urteko kontuak bihurtzean sortutako kanbio-diferentziak ondare garbi bateratuko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafean jasotzen dira.

Partaidetzapeko erakundeek erabiltzen dituzten diru funtzionalen artean bat bera ere ez dagokio gai horren inguruan ezarrita dauden irizpideen arabera oso inflazionistatzat jotako ekonomia bati. Beraz, 2023ko eta 2022ko ekitaldien kontabilitate-itxieran ez da beharrezkoa izan partaidetzapeko erakundeetan finantzetako egoera-orriak doitzea, inflazioaren eraginak zuzentzeko.

j) Sarrerak eta gastuak kontabilizatzea

Interesen eta antzeko kontzeptuen sarrerak eta gastuak sortzapen-epearen arabera eta interes-tasa efektiboaren metodoaren bidez erregistratzen dira, oro har, kontabilitatean. Beste erakunde batzuetatik jasotako dibidenduak sarrera moduan kontabilizatzen dira, horiek jasotzeko eskubidea sortzen den unean.

Finantza-zerbitzuengatik ordaindutako eta kobratutako komisioak, kontratuan duten izendapena gorabehera, honela sailkatzen dira, eta sailkapen horren arabera egozten dira galdu-irabazien kontu bateratuan:

a) Kreditu-komisioak. Finantzaketa-eragiketa baten etekina edo kostu efektiboa osatzen dutenak dira. Aurrez jasotzen dira komisio horiek, eta horrelakoak izan daitezke:

i) Arrazoizko balioan eta galdu-irabazietan aldaketak eragiten dituztela baloratu ez diren finantzaketa-jarduerak sortu edo eskuratzeagatik jasotako komisioak. Hainbat jarduera betetzeagatik jasotako ordainsariak har ditzakete barne, hala nola mailegu-hartzailearen finantza-egoeraren ebaluazioa, zenbait bermeren ebaluazioa eta erregistroa, eragiketa-baldintzen negoziazioa, dokumentazioaren prestaketa eta tratamendua, eta transakzioaren itxiera. Eragiketaren etekinari edo kostu efektiboari egindako doikuntza gisa bereizten eta kontabilizatzen dira galdu-irabazien kontu bateratuan, eragiketaren bizitzan zehar. Hona hemen 2023an eta 2022an sortutako komisioak, produktuaren arabera: 2023an, 5.087 mila euroko finantza-komisioak sortu dira (2022an, 2.845 mila eurokoak).

ii) Finantzaketa emateko konpromisoagatik adostutako komisioak, konpromiso hori arrazoizko balioan baloratzen ez denean, galdu-irabazien kontuak aldaketak dituenean eta Taldeak berariazko mailegu-akordioa egin dezakeenean. Komisio horien ondoriozko sarreren erregistroa atzeratu egiten da, eta eragiketaren doikuntzari edo kostu efektiboari egindako doikuntza gisa esleitzen da galdu-irabazien kontu bateratuan, finantzaketarentzat aurreikusitako bizitzan zehar. Konpromisoa Entitateak mailegua eman gabe iraungitzen bada, komisioa sarrera moduan kontabilizatzen da konpromisoa iraungitzeko unean.

iii) Kostu amortizatuan baloratutako finantza-pasiboen jaulkipenean ordaindutako komisioak. Finantza-pasiboaren liburuetako zenbatekoan izandako kostu zuzen lotuekin batera sartzen dira, eta eragiketaren kostu efektiboari egindako doikuntza gisa esleitzen dira galdu-irabazien kontu bateratuan.

b) Krediturzkoak ez diren komisioak. Finantzaketa-eragiketak ez diren finantza-zerbitzuak emateagatik ordaindutakoak dira, eta honelakoak izan daitezke:

i) Denboran zehar emandako zerbitzu batekin lotutakoak, hala nola kontuak administratzeagatiko komisioak eta kreditu-txartelak jaulki edo berritzeagatik aldez aurretik jasotakoak. Sarrerak galdu-irabazien kontu bateratuan jasoko dira denboran zehar, gauzatze-betebeharra erabat betetzeko aurrerapausoak neurtuz, hurrengo atalean zehaztutako irizpideen arabera. Hirugarrenek inbertsioak administratzeagatiko komisioak badira, betebeharra betetzeko aurrerapausoak neurtuz jasoko dira, eta kontratua lortu eta betetzearen kostuei sarrerak eta gastuak erregistratzeko irizpide orokorrak aplikatuko zaizkie.

ii) Une jakin batean ematen den zerbitzu bati lotutakoak. Bezeroak zerbitzuaren gaineko kontrola duenean sortzen dira komisio horiek, adibidez baloreak harpidetzean, dibisa trukatzean edo maileguen aholkularitza edo sindikazioa egitean (kasu horretan, Taldeak beretzat eragiketaren zatirik atxikitzen ez duenean edo gainerako parte-hartzaileen arrisku-baldintza beretan atxikitzen duenean). Kreditu-eragiketetan, krediturren esku dagoenean funtsak erabili edo ez, erabili ez den krediturren zatiari dagokion erabilgarritasun-komisioa sarrera gisa erregistratuko da galdu-irabazien kontu bateratuan, kobratzen den unean.

Aurreko irizpideen salbuespena dira arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-tresnak. Tresna horien komisioaren zenbatekoa berehala erregistratzen da galdu-irabazien kontu bateratuan.

Finantza-jardueraren ohiko produktu edo zerbitzuen ondorioz sortutako komisioak bereizi egiten dira ohiko jarduerari ez dagozkion produktu eta zerbitzuengatiko komisioetatik, eta azken horiek galdu-irabazien kontu bateratuko «Ustiapeneko bestelako sarrerak» epigrafean sartzen dira.

k) Saldoak konpentsatzea

Kontratuaren edo lege-mailako arau baten ondorioz konpentsatzeko aukera duten transakzioen saldo zordun eta hartzekodunak zenbateko garbiarekin jasotzen dira balantze bateratuan, baldin eta horiek zenbateko garbiarekin likidatzeko edo aldi berean aktiboa egin eta pasiboa ordaintzeko asmoa badago.

l) Finantza-bermeak

Finantza-bermedun kontratuetan, jaulkitzaileak ordainketa espezifikoak egin behar dizkio hartzekodunari, baldin eta zordun jakin batek ez badu ordaintzeko betebeharra betetzen eta, ondorioz, hartzekodunak dirua galtzen badu, zor-tresna batean —berdin dio zer egitura juridiko duen: fidantza, finantza-abala, aseguru-kontratua edo kreditu-deribatua— hitzartutako baldintzen (jatorrizkoen nahiz aldatuen) arabera.

Finantza-bermedun kontratuen erakunde jaulkitzaileak «Finantza-pasiboak kostu amortizatuan – Bestelako finantza-pasiboak» partidan jasotzen ditu horrelakoak. Bertan, arrazoizko balioa gehi jaulkipenari zuzenean dagozkion transakzio-kostuak zehazten dira, aseguru-entitateek egindako kontratuetan izan ezik.

Hasieran, kontrako ebidentziarik ez badago, transakzio isolatuen bidez elkarrekiko independentzia-baldintzetan hirugarrenen alde egindako finantza-bermedun kontratuen arrazoizko baliotzat jasotako primaren zenbatekoa hartuko da. Eta zenbateko horri, dagokionean, jaso beharreko diru-fluxuen balio eguneratua gehituko zaio, Entitateak antzeko epean eta arriskuekin emandako finantza-aktiboen antzeko interes-tasa erabiliz. Era berean, aktiboko kreditu gisa kontabilizatuko da jasotzeko dauden etorkizuneko diru-fluxuen balio eguneratua, lehen aipatutako interes-tasa erabilita.

Hasierako kontabilizazioaren ondoren, kontratuak irizpide hauen arabera erregistratzen dira:

i) Finantza-bermeen ondorioz jaso beharreko komisio edo primen balioa eguneratzeko, aldeak galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira finantza-sarrera gisa.

ii) Zalantzazkoen artean sailkatu ez diren finantza-bermedun kontratuen balioa honela kalkulatzen da: pasiboan hasieran kontabilizatutako zenbatekoa ken bermearentzat aurreikusitako bizitzan zehar galdu-irabazien kontu bateratuan linealki egotzitako zenbatekoa. Beste irizpide bat ere erabil daiteke, bermearen ekonomia-etekinak eta -arriskuak zehatzago islatzeko balio badu behintzat.

Emandako bermeak bezeroari edo eragiketari egoztekoa den kaudimengabezia-arriskuaren arabera sailkatzen dira, eta berme horientzat 13.h oharrean azaldu direnen antzeko irizpideak erabiliz hornidurak eratzeko beharra zenbatesten da.

Eragiketa horietarako eratutako hornidurak balantze bateratuaren pasiboko «Hornidurak – Emandako konpromisoak eta bermeak» epigrafean daude kontabilizatuta (36. oharra). Horidura horien zuzkidurak eta berreskurapenak galdu-irabazien kontu bateratuko «Hornidurak edo hornidura-itzulketak» epigrafean erregistratzen dira.

m) Errentamenduak

Eragiketaren ekonomia-funtsaren arabera aurkezten dira errentamendu-kontratuak, edozein egitura juridiko dutelarik ere, eta finantza- edo errentamendu operatibo gisa sailkatzen dira hasieratik.

i) Kontratuko aktiboaren jabetzari atxikitako arrisku eta mozkinen funtsezko transferentzia egiten denean hartzen dira errentamenduak finantza-errentamendutzat.

Taldeak ondasunak errentan ematen dituenean, errentariak emango dizkion zenbatekoen egungo balioen eta bermatutako hondar-balioaren arteko batura hirugarrenei emandako finantzaketa gisa erregistratzen da, eta, beraz, balantze bateratuko «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan» epigrafean sartzen da, errentariaren izaeraren arabera. Bermatutako hondar-balioa kontratua amaitzen denean errentariak erosteko aukera erabiltzearen prezioa izan ohi da.

Beste alde batetik, Taldeak errentari jarduten duenean, errentan emandako aktiboen kostua balantze bateratuan erregistratzen da, kontratuko ondasunaren izaeraren arabera, eta, aldi berean, zenbateko bereko pasibo bat ere bai. Pasibo hori kalkulatzeko, bi hauen arteko txikiena hartuko da: (1) errentan emandako ondasunaren arrazoizko balioa eta (2) errentatzaileari ordaindu beharreko kopuruen egungo balioak gehi, dagokionean, erosteko aukeraren ekitaldiko prezioa. Erabilera propioko aktibo materialetan aplikatzen direnen antzeko irizpideez amortizatzen dira aktibo horiek.

Jatorria kontratu horietan duten finantza-sarrerak eta -gastuak galdu-irabazien kontu bateratuan ordaindu eta kargatzen dira, hurrenez hurren, kontratuen bizitzan zehar errendimendua konstantea izateko moduan.

ii) Finantza-errentamendutzat hartzen ez diren errentamendu-kontratuak errentamendu operatibo gisa sailkatzen dira.

Taldea denean errentatzailea, errentan emandako ondasunen eskuratze-kostua «Aktibo ukigarriak – Ibilgetu materiala» epigrafean erregistratzen da. Erabilera propioko antzeko aktibo materialetan erabiltzen diren politiken arabera amortizatzen dira horiek, eta errentamendu-kontratuen sarrerak linealki kontabilizatzen dira galdu-irabazien kontu bateratuan.

Bestalde, Taldeak errentari moduan jarduten duenean, aktibo ukigarriaren arauan jasotakoa aplikatzen da.

n) Kudeatutako ondareak

Taldeak kudeatzen dituen hirugarrenen jabetzako ondareak ez dira balantze bateratuan sartzen. Jarduera honek emandako komisioak galdu-irabazien kontu bateratuko «Komisioen sarrerak» epigrafean erregistratzen dira (47. oharra).

ñ) Taldeak kudeatutako inbertsio-funtsak eta pentsio-funtsak

Taldeak kudeatutako inbertsio-funtsak, pentsio-funtsak eta BGAEak ez dira balantze bateratuan aurkezten, horietako ondarea hirugarren batzuena delako (66. oharra). Taldeak funts horiei emandako zerbitzuengatiko —ondareak kudeatzeko zerbitzuak, zorroen gordailuak…— ekitaldiko komisioak galdu-irabazien kontu bateratuko «Komisioen sarrerak» epigrafean erregistratzen dira (47. oharra).

o) Pertsonal-gastuak eta enplegu ondoko ordainketak

Langileei emandako ordainsariak, enplegualdia amaitzen denean likidatzen direnak, enplegu ondoko ordainketatzat hartzen dira. Enplegu ondoko ordainketak —baita barneko edo kanpoko pentsio-funtsek estalitakoak ere— ekarpen definituko plan edo prestazio definituko plan gisa sailkatzen dira, obligazio horien baldintzen arabera, eta kontuan hartzen dira enplegatuekin formalki hitzartutako terminoen barruan zein kanpoan onartutako konpromisoak.

Enplegu ondoko ordainketak honela jasotzen dira:

i) Galdu-irabazien kontu bateratuan. Langileek emandako zerbitzuaren kostua (ekitaldi horretakoa nahiz aurreko ekitaldietakoa baina beraietan kontabilizatu gabea), horniduraren (aktiboaren) gaineko interes gordina eta likidatzeko unean gertatzen den irabazia edo galera.

ii) Ondare garbi bateratuko aldaketen egoera-orrian. Irabazi edo galera aktuarial bateratuengatiko horniduraren (aktiboaren) balorazio berriak, horniduraren (aktiboaren) gaineko interes garbian sartu ez diren planeko aktiboen errendimenduaren balorazio berriak eta Taldearentzat erabilgarri dauden fluxuen balioan izandako aldaketen ondorioz balio eguneratuak izan dituen aldaketak, baldin eta horniduraren (aktiboaren) gaineko interes garbian sartuta ez badaude. Ondare garbi bateratuaren aldaketen egoera-orrian kontabilizatutako zenbatekoak ez dira birsailkatuko hurrengo ekitaldi bateko galdu-irabazien kontu bateratuan.

Horrela, prestazio-plan mugatuak galdu-irabazien kontu bateratuan jasotzen dira, irizpide hauei jarraikiz:

a) Indarrean dagoen aldiko zerbitzuen kostua, pertsonal-gastu moduan.
b) Horniduraren gaineko interes garbia, interesen gastu moduan.
c) Aktiboaren gaineko interes garbia, interesen sarrera moduan.
d) Iragandako zerbitzuen kostua, hornidura edo (–) hornidura-itzulketa moduan.

Sare Berria

2016ko, 2017ko eta 2018ko ekitaldietan, baldintza laboral eta ekonomiko zehatz batzuk finkatu zituen Entitate Nagusiak, Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren bazkide-talde jakin bati begira. Plan horren barruan, zenbait bazkide lan-baldintza jakin batzuetara atxiki ziren, eta kontraprestazio ekonomiko bat jasoko dute, zerbitzuak emateari uzten dioten egunera arte.

2023ko eta 2022ko ekitaldiak ixtean sortutako betebeharra data horretako balantzeko «Hornidurak – Pentsioak eta enplegu ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak» epigrafean dago jasota (36. oharra).

PD 61

Era berean, Entitate Nagusiak PD 61 izeneko plana formalizatu zuen 2020ko ekitaldian. Plan hori Kontseilu Errektoreak onartu zuen eta lan-bazkideen kolektibo zehatz bati zegoen zuzenduta. 2021eko urtarrilaren 1etik 2024ko ekainaren 30era arte egongo da indarrean. Aurreko planak bezala, berri hau ere borondatezkoa da, eta helburu duen taldean aplikatuko da soilik. Horretarako, bazkide langileak idatziz jakinarazi behar du planari atxikitzeko gogoa.

Hona hemen plan horren ezaugarri nagusia:

i) 1961ean jaiotako bazkideei aukera ematen zaie, 60 edo 61 urte betetakoan jarduera uzten dutenean kontraprestazio edo laguntza ekonomiko bat jasotzeko, kontratua sinatzerakoan hautatu duten aukeraren arabera.

2023ko eta 2022ko ekitaldiak ixtean sortutako betebeharra data horretako balantzeko «Hornidurak – Pentsioak eta enplegu ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak» epigrafean dago jasota (36. oharra).

PD 62

Era berean, Entitate Nagusiak PD 62 izeneko plana formalizatu zuen 2020ko ekitaldian. Plan hori Kontseilu Errektoreak onartu zuen eta lan-bazkideen kolektibo zehatz bati zegoen zuzenduta. 2021eko urtarrilaren 1etik 2024ko ekainaren 30era arte egongo da indarrean. Aurreko planak bezala, berri hau ere borondatezkoa da, eta helburu duen taldean aplikatuko da soilik. Horretarako, bazkide langileak idatziz jakinarazi behar du planari atxikitzeko gogoa.

Hona hemen plan horren ezaugarri nagusia:

i) 1962an jaiotako bazkideei aukera ematen zaie, 60 edo 61 urte betetakoan jarduera uzten dutenean kontraprestazio edo laguntza ekonomiko bat jasotzeko, kontratua sinatzerakoan hautatu duten aukeraren arabera.

2023ko eta 2022ko ekitaldiak ixtean sortutako betebeharra data horretako balantzeko «Hornidurak – Pentsioak eta enplegu ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak» epigrafean dago jasota (36. oharra).

PD 63

Era berean, Entitate Nagusiak PD 63 izeneko plana formalizatu zuen 2021eko ekitaldian. Plan hori Kontseilu Errektoreak onartu zuen eta lan-bazkideen kolektibo zehatz bati zegoen zuzenduta. 2022ko urtarrilaren 1etik 2025eko ekainaren 30era arte egongo da indarrean. Aurreko planak bezala, berri hau ere borondatezkoa da, eta helburu duen taldean aplikatuko da soilik. Horretarako, bazkide langileak idatziz jakinarazi behar du planari atxikitzeko gogoa.

Hona hemen plan horren ezaugarri nagusia:

i) 1963an jaiotako bazkideei aukera ematen zaie, 60 edo 61 urte betetakoan jarduera uzten dutenean kontraprestazio edo laguntza ekonomiko bat jasotzeko, kontratua sinatzerakoan hautatu duten aukeraren arabera.

2023ko eta 2022ko ekitaldien amaieran sortutako betebeharra balantzeko «Hornidurak – Pentsioak eta enplegu-ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak» epigrafean dago jasota (36. oharra).

PACA 64 ETA 65

Era berean, Entitateak PACA 64 eta 65 izeneko plana formalizatu du 2023ko ekitaldian. Plan hori Kontseilu Errektoreak onartu du eta lan-bazkideen kolektibo zehatz bati dago zuzenduta. 2024ko urtarrilaren 1ean sartu da indarrean. Aurreko planak bezala, berri hau ere borondatezkoa da, eta helburu duen taldean aplikatuko da soilik. Horretarako, bazkide langileak idatziz jakinarazi behar du planari atxikitzeko gogoa.

Hona hemen plan horren ezaugarri nagusia:

i) 1964an eta 1965ean jaiotako bazkideei aukera ematen zaie, kontraprestazio edo laguntza ekonomiko bat jasotzeko, jarduera 60 urte eta erretiroa hartzeko legezko adina ken 2 urte bitarteko adinarekin eteten den unean, kontratua sinatzerakoan hautatu duten aukeraren arabera. Gainera, 1964. urtea baino lehen jaiotako bazkideei Planera atxikitzeko beste aukera bat eskainiko zaie, bigarrena. Aurreko dinamizazio-planekin alderatuta, hau da alde nagusia: aisialdia kendu da, eta, ondorioz, dirulaguntza ordainketa bakarrean jasoko da jarduera eteten den unean.

2023ko ekitaldiaren amaieran sortutako betebeharra balantzeko «Hornidurak – Pentsioak eta enplegu-ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak» epigrafean dago jasota (33. oharra).

Kaleratzearen kalte-ordainak

Indarrean dagoen legeriaren arabera, bidezko arrazoirik gabe kaleratzen diren enplegatuei kalte-ordaina eman behar die Taldeak. Langile-taldea murrizteko asmorik ez dagoenez, ez da beharrezkoa horretarako zuzkidurarik sortzea.

p) Jarduera etengabeen irabazien gaineko zerga

Sozietateen gaineko zerga gastutzat hartzen da, eta galdu-irabazien kontu bateratuko «Jarduera etengabeen emaitzen gaineko zergen gastuak eta sarrerak» epigrafean erregistratzen da.

«Jarduera etengabeen emaitzen gaineko zergen gastuak eta sarrerak» epigrafeko gastua ordaindu beharreko zergak zehazten du. Zerga hori ekitaldiko zerga-oinarriaren gainean kalkulatzen da, denbora-aldeak, kenkari eta hobariengatiko krediduak eta zerga-oinarri negatiboak direla eta ekitaldian izandako aldaketak aintzat hartuta. Gerta liteke ekitaldiko zerga-oinarria ez bat etortzea galdu-irabazien kontu bateratuan aurkeztutako emaitza garbi bateratuarekin. Izan ere, beste ekitaldi batzuetan kargatzekoak edo deduzitzekoak diren partidak eta kargatzen eta deduzitzen ez diren partidak kanpoan uzten ditu.

Finantzetako egoera-orrietako aktiboen eta pasiboen liburuetako zenbatekoen eta horien zerga-oinarrien arteko aldeetatik ordaindu edo berreskuratzea espero diren zergak sartzen dira zerga geroratuengatiko aktiboetan eta pasiboetan. Balantze bateratuan kontabilizatzen dira pasiboaren metodoa erabiliz, eta berreskuratu edo likidatzea espero den karga-tasari dagokion denbora-aldea edo kreditua aplikatuz kuantifikatzen dira.

Zerga geroratuarengatiko aktiboa, hala nola aurreratutako zerga, dedukzioen eta hobarien ondoriozko kreditua eta zerga-oinarri negatiboengatiko kreditua, kontabilizatzeko, horiek efektibo egiteko adina irabazi fiskal lortzeko itxaropena izan behar du Taldeak. Kasu hauetan esan dezakegu Taldeak etorkizunean behar adina irabazi fiskal lortzeko itxaropena izango duela:

i) Zerga geroratuarengatiko aktiboa egin den ekitaldian bertan edota aurreratutako zenbatekoak sortu duen zerga-oinarri negatiboa konpentsa daitekeen geroagoko batean kita daitezkeen zerga geroratuengatiko pasiboak daudenean.

ii) Zerga-oinarri negatiboak sortu dituzten arrazoiak nekez errepikatzekoak direnean.

Aurrekoa gorabehera, erakunde mendeko, taldeaniztun eta elkartuetako inbertsioen kontabilitate-erregistroan sortzen den zerga geroratuarengatiko aktiboa kontabilizatuko da, baldin eta hori etorkizunean gauzatzeko asmoa badago, eta etorkizunean behar adina irabazi fiskal izateko itxaropena badago, aktibo hori efektibo egiteko. Hasieran negozio-konbinazioa ez den ondare-elementu bat erregistratzen denean ere ez da kontabilizatzen, baldin eta kontabilizazioaren unean kontabilitate-emaitzari eta emaitza fiskalari eragin ez badio.

Zerga geroratuengatiko pasiboak beti jasotzen dira kontabilitatean, salbu eta merkataritzako funts bat kontabilizatzen denean edo pasibook erakunde mendeko, taldeaniztun edo elkartuen inbertsioak kontabilizatzean sortzen direnean. Baldintza da, Taldea gai izatea denbora-aldea itzultzeko unea kontrolatzeko eta alde hori ez itzultzea aurreikusteko moduko etorkizunean. Hasieran negozio-konbinazioa ez den ondare-elementu bat erregistratzen denean ere ez da kontabilizatzen zerga geroratuarengatiko pasiboa, baldin eta kontabilizazioaren unean kontabilitate-emaitzari eta emaitza fiskalari eragin ez badio.

Kontabilitate-itxiera bakoitzean, erregistratutako zerga geroratuak berrikusten dira, bai aktiboak eta bai pasiboak, indarrean jarraitzen dutela egiaztatzeko, eta beharrezko zuzenketak egiten dira.

Deskribatutako azterketa egiteko, aldagai hauek hartzen dira aintzat:

- Entitate bakoitzaren emaitza-proiekzioak, erakunde horietako gobernu-organoek onartutako finantza-aurrekontuetan oinarritutakoak, zerga geroratuengatiko aktiboak erregistratzeko aukera sortu zutenak (zerga-bateratzeko talderik ez zegoelako), gerora entitate bakoitzeko zuzendaritzak estimatutako hazkunde-tasa iraunkorrak ezarrita.

- Denbora-aldeak itzultzearen estimazioa, izaeraren arabera.

- Indarreko legeriak zergengatiko aktiboak itzultzeko ezarritako epea edo muga.

- Europako Banku Zentralaren diru-politiken ondoriozko interes-tasen agertokia.

Egungo ingurune ekonomiko eta geopolitikoa eta horrek Entitate Nagusiaren eta Taldearen etorkizuneko emaitzetan izan ditzakeen eraginak aintzat hartuta, plangintza eta proiekzio horiek eguneratu egin dira, Zuzendaritzak zuen informaziorik onenenean oinarrituz.

Zuzenean ondare garbi bateratuan erregistratutako sarrerak edo gastuak, emaitza fiskalean edo alderantziz eraginik ez dutenak, denbora-alde moduan kontabilizatzen dira.

q) Aktibo ukigarriak

Aktibo ukigarrietan hauek sartzen dira: Taldeak gaur egun edo etorkizunean erabiltzeko duen eta ekitaldi batean baino gehiagotan erabiltzeko asmoa duen ibilgetu materiala, bezeroei errentamendu operatiboan lagatzen zaien ibilgetu materiala, gizarte-ekintzari atxikia eta ondasun higiezinetako inbertsioak, aktiboak barne hartzen dituztenak alokairu-erregimenean ustiatzeko. Aktibo ukigarriak eskuratze-kostuan baloratzen dira, baina metatutako amortizazioa kenduta eta, dagokionean, elementu bakoitzaren balio garbia eta zenbateko berreskuragarria alderatzetik ateratzen den narriaduragatiko edozein galera kenduta. Erabilera propioko eta libreko aktibo materialeko elementu batzuen eskuratze-kostua horiek 2004ko urtarrilaren 1ean arrazoizko balioan baloratuta ateratzen da, 4/2004 Zirkularraren Lehen Xedapen Iragankorrean ezarritakoari jarraikiz —4/2017 Zirkularrak indargabetu zuen zirkular hori—. 2004ko urtarrilaren 1eko arrazoizko balio hori aditu independenteek egindako tasazioetan oinarrituta lortu da.

Esleitutako aktiboen kasuan, bi zenbateko hauetatik txikiena da eskuratze-kostua: esleipenaren truke emandako finantza-aktiboen zenbateko garbia edo esleipenaren uneko arrazoizko balioa ken zenbatetsitako salmenta-kostuak.

Amortizazioak metodo lineala erabiliz kalkulatzen dira. Elementuei estimatutako balio-bizitzako urteak aktiboen eskuratze-kostuari aplikatzen zaizkio eta, gero, hondar-balioa kentzen da. Eraikinak eta bestelako eraikuntzak dauden lursailen kasuan, bizitza mugagabea dutela ulertzen da, eta, beraz, ez dira amortizatzen. Aktibo materiala amortizatzeagatiko urteko zuzkidurak galdu-irabazien kontu bateratuaren kargura erregistratzen dira, eta elementu guztiei batez beste estimatzen zaizkien balio-bizitzako urteen arabera kalkulatzen dira.

	Estimatutako balio-bizitzako urteak
Eraikinak eta urbanizazioak	24 - 50
Altzariak	9 - 10
Instalazioak	5 - 10
Makineria, ekipamendu elektronikoa eta bestelakoak	3 - 6

Kontabilitate-itxiera bakoitzean, Taldeak aztertzen du ea barruan nahiz kanpoan zantzuren bat badagoen, aktibo materialeko elementuen balio garbia zenbateko berreskuragarria baino handiagoa dela erakusten duena. Kasu horretan, elementu horren liburuetako zenbatekoa kopuru berreskuragarriraino murrizten du Taldeak, eta etorkizuneko amortizazioagatiko karguak doitu egiten ditu, kontabilitate-balio doituaren eta geratzen zaion balio-bizitza berriaren arabera, baldin eta berriro kalkulatu beharra badago. Bestalde, elementu jakin baten balioa berreskuratu dela garbi dagoenean, aurreko epealdietan kontabilizatutako narriaduragatiko galeraren itzulketa erregistratzen du Taldeak, eta amortizazioagatik etorkizunean egin beharreko karguak doitzen ditu. Elementu baten narriaduragatiko galera itzultzeak ezin du inola ere eragin liburuetako zenbatekoa handitzea, aurreko ekitaldietan narriaduragatiko galerak kontabilizatu ez balitzaizkio izango zukeenetik gora.

Ekitaldi bakoitzaren amaieran behinik behin, erabilera propioko aktibo materialeko elementuen balio-bizitza estimatua berrikusten du Taldeak, horietan aldaketa nabarmenik dagoen ikusteko. Halako aldaketarik badago, doitu egiten ditu, dagozkion zuzenketak eginez balio-bizitza berriaren arabera amortizatu behar denaren zuzkidura etorkizuneko ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzean.

Erabilera propioko aktibo ukigarriak zaindu eta mantentzeagatiko gastuak, egiten diren ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira.

Aktibo ukigarrien ondasun higiezinetako inbertsioetan, Taldeak dituen lursail, eraikin eta bestelako eraikuntzen balio garbia sartzen da. Ondasun horiek alokairu bidez ustiatzeko edo salmentarekin (etorkizunean merkatuko prezioetan izaten diren igoeren ondorioz) gainbalioa lortzeko erabiltzen ditu Taldeak.

Taldeak erabilera propioko aktibo ukigarrietan erabiltzen dituen irizpide berberak aplikatzen ditu errentamendu operatiboan lagatako aktiboen eskuratze-kostua kontabilizatzeko, amortizatzeko, horien balio-bizitzak estimatzeko eta narriaduragatiko galerak erregistratzeko.

Kontabilitate-printzipio hauek erabiltzen dira errentariaren ikuspuntutik errentamenduen kontabilitatea egiteko:

- Errentamendu-epea. Errentamendu baten aldi errebokaezinaren parekoa da. Horri errentamendua luzatzeko aukerak estalitako epealdiak gehitu behar zaizkio, baldin eta seguru badakigu errentariak aukera hori erabiliko duela, eta, seguru bagaude errentariak ez duela aukera hori erabiliko, errentamendua hutsaltzeko aukerak estalitako epealdiak. Ildo horretan, irizpide hauek aplikatzen ditu Taldeak:

  a) Kontratuan adierazitakoa ez den beste data bat aurreikusita badago kontratua ezerezteko, azken data hori aplikatuko da erabilera-eskubidea ezerezteko.

  b) Kontratuaren muga-eguna 50 urtetik beherakoa bada, kontratuaren data aplikatuko da.

  c) Higiezinen errentamenduaren muga-eguna 50 urtetik gorakoa bada, 50 urtera mugatuko da muga-eguna, Taldeak aplikatutako higiezinen amortizazio-eperik handienarekin bat etorriko baita.

  d) Urtebetetik beherako muga-eguna duten errentamenduetan ez da batere aktibaziorik egingo, eta erregistroa emaitza-kontuaren bidez egiten jarraituko da. Izan ere, aukera handia dago kontratu hori ezereztu eta birnegoziatzeko; hau da, bestelako baldintzak dituen kontratu berri bat egiteko.

- Errentamendu-kontratuetatik sortzen diren aktiboak eta pasiboak errentamenduaren hasierako datan kontabilizatzen dira. Errentatzaileak ondasuna errentariaren eskuetan erabiltzeko prest uzten duen egunekoa da data hori.

- Errentamenduagatiko pasiboaren hasierako balioztapena. Kontratua hasteko datan, Taldeak errentamenduagatiko pasibo bat kontabilizatzen du, data horretan ordainduta ez dauden errentamenduagatiko ordainketen egungo balioan.

  Ordainketa horien balio eguneratua kalkulatzeko, honako hau hartzen da deskontu-tasatzat: antzeko ingurune ekonomiko batean errentariak erabilera-eskubideagatiko aktiboaren antzeko balioa duen ondasun bat eskuratzeko behar dituen funtsak antzeko epearekin eta bermearekin maileguan hartzeko ordaindu beharko lukeen interes-tasa (finantzaketa-tasa gehigarria).

- Erabilera-eskubideagatiko aktiboaren hasierako balorazioa. Kontratuaren hasierako datan, Taldeak erabilera-eskubideagatiko aktibo bat kontabilizatzen du, eta kostu-prezioan baloratzen du, honako hauek barne hartuta:

  a) Errentamenduengatiko pasiboaren hasierako balorazioaren zenbatekoa, lehen azaldutakoaren arabera.

  b) Kontratuaren hasierako datan edo lehenago egindako errentamenduengatiko edozein ordainketa ken errentatzailearengandik jasotako edozein kobrantza (adibidez, kontratua sinatzeko jasotako hobariak).

  c) Errentariak jasandako hasierako kostu zuzenak. Horiek barne hartzen dituzte, besteak beste, ondasun ukigarri bat errentariak erabiltzeko moduko lekuan eta baldintzekin kokatzearekin zerikusi zuzena duten kostuak.

d) Aurreikusten dituen kostuak, errentan hartutako ondasuna desegin edo kentzeko, ondasuna dagoen lekua birgaitzeko edo ondasuna kontratuan finkatutako egoeran itzultzeko, salbu eta kostu horiek izakinak sortzeko sortzen badira. Kostu horiek erabilera-eskubideagatiko aktiboaren kostuaren zati gisa kontabilizatzen dira, Taldeak horiek jasateko betebeharra hartzen duenean.

Erabilera-eskubideagatiko aktiboak aurkezteko, ukigarriak eta ukiezinak bereizten dira, errentan emandako ondasunaren izaeraren arabera.

- Errentamenduengatiko pasiboaren ondorengo balorazioa. Hasierako kontabilizazioaren ondoren, errentamenduengatiko pasiboa baloratzen du Taldeak, helburu hauekin:

a) Haien liburuetako zenbatekoa handitzea, sortutako interesak adieraziz. Interesak kalkulatzeko, hasierako balorazioan erabilitako interes-tasa aplikatzen da pasiboaren saldoaren gainean.

b) Haien liburuetako zenbatekoa txikitzea, errentamenduengatik egindako ordainketak adieraziz.

c) Honako hauek eguneratuta adieraztea: (i) errentamendu-epea, kontratua luzatu edo hutsaltzeko aukeren ebaluazioa aldatu eta gero; (ii) errentamendu-epea eta errentamenduengatiko ordainketak, errentan hartutako ondasuna erosteko aukeraren ebaluazioa aldatu eta gero; (iii) errentamenduengatiko ordainketak, hondar-balioaren bermearen arabera ordaintzea espero den zenbatekoaren ebaluazioa aldatu eta gero, eta (iv) etorkizuneko errentamenduengatiko ordainketen zenbateko aldakorrak, indize edo tasa baten araberakoak direnean, azken horiek aldatu eta gero. (i) eta (ii) puntuetan aurreikusitako kasuetan, errentamendu-epea eguneratu egin denez, berrikusitako ordainketak hasierako balorazioan erabilitako deskontu-tasaren arabera deskontatuko dira, salbu eta ordainketen aldakuntza interes-tasa aldakorren aldaketaren ondorioa bada; kasu horretan, interes-tasaren aldaketa islatuko duen berrikusitako deskontu-tasa erabiliko da. Taldeak errentamendu-epea berrikusten du, hondar-balioaren bermearen arabera ordaintzea espero duen zenbatekoetan, kontratuan jasotako aukeren ebaluazioan egitate edo aldaketa garrantzitsu bat gertatzen denean. Era berean, Taldeak indize edo tasa bat erreferentziatzat hartzen duten ordainketak berrikusten ditu, baldin eta, kontratuzko baldintzetan finkatutakoaren arabera, ordainketa horien zenbatekoak eguneratu egin behar badira.

d) Errentamenduaren edozein aldaketa adieraztea.

e) Saihestezintzat hartu ez ziren errentamenduengatiko ordainketak adieraztea, hala nola lehenago guztiz gertagarritzat jotzen ez ziren gertaeren mende daudenak, baldin eta erreferentziazko datan gertaera horiek finkoak badira, saihestezinak direlako.

Errentamenduengatiko pasiboaren balorazioan sartu ez diren errentamenduengatiko ordainketa aldakorrak, berriz, ordainketa horiek eragin dituen egitatea edo inguruabarra gertatu den ekitaldiko galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira.

Erabilera-eskubideagatiko aktiboaren ondorengo balorazioa. Hasierako kontabilizazioaren ondoren, erabilera-eskubideagatiko aktiboa kostu-prezioan baloratzen du Taldeak:

a) Metatutako amortizazioa eta narriaduragatiko galera metatuak kenduta. Erabilera-eskubideagatiko aktiboa errentan hartutako ondasunaren balio-bizitzan amortizatzen da, kontratua amaitzean errentan hartutako ondasunaren jabetza transferitzen bada edo erabilera-eskubideagatiko aktiboaren kostuaren hasierako balorazioak islatzen badu errentariak erosteko aukera erabiliko duela. Gainerako kasuetan, balio-bizitzaren edo errentamendu-epearen arabera amortizatzen da, txikiena zein den.

b) Doituta, lehen azaldutakoaren arabera egin beharreko errentamenduengatiko ordainketen balio eguneratuaren aldaketak islatzeko.

- Kontabilizaziorako eta baloraziorako tratamendu erraztua. Taldeak gastu gisa kontabilizatzen ditu errentamendu hauek direla eta egindako ordainketak:

  a) Epe laburreko errentamenduak (hau da, hasierako datan 12 hilabeteko edo gutxiagoko epea dutenak), erosteko aukerarik jasotzen ez badute.

  b) Errentan hartutako ondasuna balio txikikoa denean, betiere bestelako ondasunen mende egon gabe (edo haiekin lotura zuzenik izan gabe) erabili ahal bada ondasuna eta errentariak etekinak lortu ahal baditu ondasuna erabiliz (ondasuna bakarrik edo erraz eskura daitezkeen bestelako baliabideekin batera). Errentan hartutako ondasunaren balioaren ebaluazioa kopuru absolutuetan egiten da, berria zeneko balioa oinarri hartuta.

  Bi kasuetan, linealki egozten da galdu-irabazien kontuan, errentamendu-epean zehar.

- Errentamendua aldatzea. Errentamendu baten aldaketa kontabilizatzeko, beste errentamendu bat erregistratzen du Taldeak, baldin eta aldaketa horrek kontratuaren eremua zabaltzen badu (errentan hartutako ondasun bat edo batzuk gehituta) kontraprestazioa handitzearen truke; hau da, kontratuari gehitutako ondasunen gaineko errentamendu-kontratu bereizia egingo balitz ordainduko litzatekeen prezioaren zenbatekoan handitzearen truke.

  Baldintza horiek betetzen badira, aldeek aldaketa adosten duten datan, Taldeak:

  (a) Aldatutako kontratuaren kontraprestazioa banatzen du, errentamenduko partaideen eta beste mota batekoen artean.

  (b) Aldatutako errentamendu-epea zehazten du.

  (c) Errentamenduengatiko pasiboa baloratzen du berriro, berrikusitako errentamenduengatiko ordainketak berrikusitako deskontu-tasaren arabera deskontatuta, eta errentamenduaren gainerako eperako eta aldaketa-datarako zehaztuta.

  (d) Errentamenduengatiko pasiboaren balorazio berria kontabilizatzen du.

r) Aktibo ukiezinak

Irudi fisikorik ez duten aktibo monetario identifikagarriak dira aktibo ukiezinak. Aktibo ukiezinak identifikagarritzat jotzen dira bestelako aktiboetatik bereiz daitezkeenean, dela besterendu, errentan hartu edo banaka erabili daitezkeelako, dela kontratu edo bestelako negozio juridiko baten ondorioz sortu direlako. Aktibo ukiezina kontabilizatzerakoan, aurreko definizioa betetzeaz gain, Taldeak horren ondorioz mozkin ekonomikoak lortzeko asmoa izan behar du, eta haren kostua modu fidagarrian kalkulatzeko aukera egon behar da.

Kostuaren arabera kontabilizatzen dira, hasieran, aktibo ukiezinak. Eskurapenekoa edo produkziokoa izan daiteke kostu hori. Aurrerantzean, kostu horri amortizazio metatua eta narriaduragatiko galerak kentzen zaizkio, dagokionean.

Merkataritzako funtsa

Merkataritzako funtsak hauxe adierazten du: Taldeak eskuratutako entitate baten aktiboengatiko etorkizuneko etekin ekonomikoen ordainketa aurreratua, aktibo horiek banaka eta bereizita identifikatzeko eta kontabilizatzeko modukoak ez badira. Negozio-konbinazio batean kostu bidez eskuratzen denean soilik kontabilizatzen da.

Erakunde taldeaniztun eta elkartuen kapitalerako partaidetzen kostuaren eta hartutako balio teoriko eta kontabilitatekoen arteko alde positiboak, lehen baterakuntza-egunean doituak, honela egozten dira.

i) Eskuratutako erakundeen ondare-elementu jakin batzuei badagozkie, aktiboen balioa handituz edo pasiboen balioa murriztuz egozten dira, kontuan hartuta haien merkatuko balioa hurrenez hurren handiagoa edo txikiagoa den dagozkien balantzeetan dituzten kontabilitate-balio garbiak baino, eta horien kontabilitate-tratamendua Taldeko aktiboek eta pasiboek dutenaren antzekoa den.

ii) Aktibo ukiezin zehatzei esleitzekoak badira, berariaz balantze bateratuan kontabilizatuz egozten dira, eskurapen-eguneko arrazoizko balioa fidagarritasunez finka badaiteke.

iii) Egotzi ezin diren gainerako aldeak merkataritzako funts gisa erregistratzen dira, eta unitate diru-sortzaile bati edo gehiagori esleitzen zaie.

Erakunde taldeaniztun eta elkartuen kapitalerako partaidetzen kostuaren eta hartutako balio teoriko eta kontabilitatekoen arteko alde negatiboak, berriz, lehen baterakuntza-egunean doituak, honela egozten dira:

i) Eskuratutako erakundeen ondare-elementu jakin batzuei badagozkie, aktiboen balioa handituz edo pasiboen balioa murriztuz egozten dira, kontuan hartuta haien merkatuko balioa hurrenez hurren handiagoa edo txikiagoa den dagozkien egoera-balantzeetan dituzten kontabilitate-balio garbiak baino, eta horien kontabilitate-tratamendua Taldeko pasiboek edo aktiboek dutenaren antzekoa den.

ii) Egotzi ezin diren gainerako kopuruak kapitala eskuratu den ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira.

Gainerako aktibo ukiezinak bizitza mugatukoak dira eta horren arabera amortizatzen dira, aktibo materialekoen antzerako irizpideak erabiliz.

Edozein modutan ere, aktibo horientzat erregistratu den balioan narriaduragatik gertatzen diren galerak galdu-irabazien kontu bateratuan kontrapartida eginez erregistratzen dira kontabilitatean. Aktibo horien narriaduragatiko galerak eta, dagokionean, aurreko ekitaldietan erregistratutako narriaduragatiko galeren berreskuratzeak kontabilizatzeko irizpideak aktibo ukigarrian erabilitakoen antzekoak dira.

s) Izakinak

Izakinak aktibo ez-finantzarioak dira, eta hiru egoeratan egon daitezke: Taldeak negozioaren ohiko jardunean saltzeko prest; produkzio-, eraikuntza- edo garapen-prozesuan (saltzeko asmoz) edo produkzio-prozesuan edo zerbitzuak ematean kontsumitzeko. Taldeak higiezinen sustapenaren jardueran saltzeko dituen lursail eta gainerako jabetzak dira, besteak beste, izakinak.

Izakinak baloratzeko, bi zenbateko hauetatik txikiena hartzen da aintzat: kostu-balioa (eskuratzeko eta eraldatzeko eragindako kostu guztiak eta egungo izaera eta kokapena emateko eragindako gainerako kostuak, zuzenak eta zeharkakoak) eta burutzapen-balio garbia. Burutzapen-balio garbitzat hartzen da izakinek negozioaren ohiko jardunean duten salmenta-prezio estimatua ken produkzioa amaitzeko eta salmenta burutzeko ordaindu behar diren kostuak.

Izakinen balorazioagatiko edozein doikuntzaren zenbatekoa, hala nola kalteen, zaharkitzearen eta salmenta-prezioa txikitzearen ondoriozkoa, burutzapen-balio garbia eta bestelako kontzeptuengatiko galerak gastu moduan kontabilizatzen dira, narriadura edo galera gertatu den ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan. Ondorengo balio-berreskuratzeak, ostera, gertatzen diren ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan kontabilizatzen dira.

Izakinen kontabilitate-balioa, balantze bateratuan baja eman ondoren, gastu moduan erregistratzen da, salmentaren sarrera kontabilizatzen den ekitaldiko gastu-irabazien kontu bateratuan. Gastu hori galdu-irabazien kontu bateratuko «Ustiapeneko bestelako gastuak» epigrafean sartzen da.

t) Aseguru-eragiketak

<u>Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako aktiboak eta pasiboak</u>

Taldeak 2023ko urtarrilaren 1etik ezartzen du FINA 17 araua, aseguru-kontratuei buruzko FINA 4aren ordez. FINA 17a da aseguru- eta berraseguru-kontratuak kontabilizatzeko, neurtzeko eta aurkezteko kontabilitate-araua, eta atzeraeraginez aplikatzen da 2022ko urtarrilaren 1etik.

<u>Definizioa, sailkapena eta multzokatzea</u>

Taldeak ebaluatu egiten du hirugarren baten aseguru-arrisku esanguratsua onartu ala ez bere kontratuetan, eta adosten du aseguru-polizaren edukitzaileari konpentsatzea, etorkizunean gertaeraren baten ondorioz kalteak baditu. Modu horretan, FINA 17 arauaren eraginpean dauden aseguru-kontratuak identifikatzen ditu.

LABORAL Kutxa Taldeak honela multzokatzen ditu aseguru- eta berraseguru-kontratuak:

- Antzeko arriskuak dituztenak eta batera gestionatzen direnak, zuzeneko aseguruak eta berraseguruak bereizita.

- Aseguruaren errentagarritasuna edo kostubidezkotasuna aintzat hartuta (oro har, Taldeak bi multzotan sailkatzen du kontratuen errentagarritasuna: kostu bidezko kontratuak eta kostu bidezkoak ez direnak edo kostu bidezko bihurtzeko aukera handirik ez dutenak).

- Jaulkipen- edo kohorte-urtea kontuan hartuta. Azken irizpide horren arabera, urte naturalaren barruan jaulkitako kontratuak multzokatzen dira; hau da, urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean jaulkitakoak.

Taldeak aukeratutako trantsizio-ikuspegia arrazoizko baliokoa denez, 2022ko urtarrilaren 1eko trantsizio-data baino lehen jaulkitako epe luzeko kontratuen kasuan (batez ere, bizitza arriskuko aseguruak eta bizitza aurrezkiko aseguruak), ez da beharrezkoa izan kontratuak aurreko taldeen arabera eranstea. Trantsizio-dataren ondoren jaulkitako kontratuak, berriz, jaulkipen-urtearen arabera sailkatzen ditu Taldeak.

Taldeak aseguru-izaerarik ez duten osagaiak bereizteko analisia egin du, FINA 17 arauaren eraginpean dauden aseguru-kontratuen kasuan bakarrik. Ondorioztatu duenez, aseguru-kontratuen barruan ez dago bereizi beharreko osagairik. Banaezinak diren inbertsio-osagaiak kontratu-aseguruengatiko pasiboaren barruan sartzen dira, bakoitzari dagokionaren arabera, baina emaitza-kontuan aseguruen diru-sarreretatik edo gastuetatik kanpo geratzen dira.

Balorazio-metodoak

FINA 17ak aseguru-kontratuak balioztatzeko hiru metodo sartzen ditu: Metodo Orokorra (Building Block Approach – BBA), Metodo Sinplifikatua (Premium Allocation Approach – PAA) eta Komisio Aldakorraren Metodoa (Variable Fee Approach – VFA). Metodo Orokorra lehenetsiko da, Metodo Sinplifikatua edo Komisio Aldakorraren Metodoa erabiliz baloratzeko aukera daitezkeenak izan ezik.

Metodo orokorra erabiltzeko, beharrezkoa da aseguru- eta berraseguru-kontratuen hasierako balorazioa guztizko hauen arabera egitea:

- Betetzetik datozen diru-fluxuak; honako hauek hartzen dituzte barne:

    i. Aseguru- eta berraseguru-kontratuekin lotutako etorkizuneko diru-fluxuen zenbatespenak, kontratuaren mugen barruan. Taldeak etorkizuneko eskudiru-irteeren aurreikusitako balioa zenbatesten du, kontratuaren mugen barruan dauden etorkizuneko eskudiru-sarreren aurreikusitako balioa kenduta. Diru-fluxuak aseguru-kontratuaren mugen barruan egongo dira, baldin eta Taldeak primak ordaintzera behartu badezake hartzailea edo aseguru-kontratuaren zerbitzuak hartzaileari ematea bada Taldearen funtsezko betebeharretako bat. Taldeak hartzailearen arriskuak berriro ebaluatzeko ahalmen praktikoa duenean —eta beraz, arrisku horiek islatuko dituen prezioa edo prestazio-maila finka dezakeenean— amaituko da betebehar hori. Oro har, kontratua indarrean dagoen aldia bukatzen den eguna izaten da kontratuaren muga; berritzeko aukera duten kontratuetan, berriz, Taldeak arriskuak berriro ebalua ditzakeen unea da, eta biziarteko produktuetan aseguratuaren heriotza-data.

    ii. Diruaren denbora-balioa eta etorkizuneko diru-fluxuekin lotutako finantza-arriskuak islatzeko doikuntza. Oro har, Taldeak deskontu-tasen *bottom-up* ikuspegia erabiltzen du, arrisku libreko kurba oinarritzat hartuta, zeinari pasiboen likidezia-falta adierazten duen *spread* bat gehitzen baitzaio. Era berean, Taldeak *top-down* ikuspegia erabiltzen du multzo batzuetan, kreditu-arriskua kentzen zaion aktibo-zorro baten erreferentzia-tasan oinarrituta.

    iii. Arrisku ez-finantzariorako arriskuaren doikuntzak (RA) etorkizuneko kutxa-fluxuen zenbatekoaren eta ordainketa-unearen ziurgabetasuna islatzen du. Taldeak Value

at Risk (VaR) ikuspegia aplikatzea erabaki du. Ikuspegi horren bidez, arriskua doitzea lortzen da, aseguru-kontratuen bidez pasiboa banatzeko funtzioa ezagututa eta negozioaren ziurgabetasunaren eta kalkulu-unearen arabera finkatutako ehunekoa kontuan hartuta.

- Kontratu-zerbitzuaren marjina (CSM), jaulkitako aseguru-kontratuen etorkizuneko irabazia adierazten du. Zenbateko hori ez da hasierako kontabilizazioan kontabilizatzen emaitza-kontuan, kontratuaren zerbitzuak eskaintzen diren heinean baizik. Marjina hori negatiboa denean, aseguru-kontratua kostu bidezkoa da eta galera berehala kontabilizatu behar da emaitza-kontuan, kontratu-zerbitzuaren marjina balantzean kontabilizatu gabe.

Ondoren, informatzen den ekitaldi bakoitza ixtean, honako hauen batura izango da aseguru-kontratuen multzo baten liburuetan kontabilizatutako zenbatekoa:

- Gainerako estalduragatiko pasiboa; barne hartzen ditu data horretan esleitutako etorkizuneko zerbitzuei dagozkien diru-fluxuak, betetzetik datozenak, gehi kontratu-zerbitzuaren marjina.

- Ezbeharrengatiko pasiboa; barne hartzen ditu, batetik, gertatutako ezbeharrei dagozkien diru-fluxuak, betetzetik datozenak baina ordainduta ez daudenak, diruaren denbora-balioa islatzeko deskontatzen direnak, eta, bestetik, arrisku ez-finantzarioagatiko arrisku-doikuntza.

Aurrerago, diru-fluxuetan izandako egungo edo iraganeko zerbitzuarekin lotutako aldaketak emaitza-kontuan kontabilizatuko dira. Etorkizuneko zerbitzuarekin lotutako aldaketek, berriz, CSMa edo galera-osagaia doituko dute.

Ekitaldiko emaitzari dagokionez, aseguruengatiko jarduera arrunten diru-sarrera gisa kontabilizatuko da aldi horretako aseguru-kontratuaren zerbitzu-transferentzia. Zenbateko hori estaldura-unitateen bidez zehazten da. Aurreikusitako estaldura-aldian kontratuak betez emandako aseguru-kontratuen zerbitzu-kopurua dira estaldura-unitateak. Taldeak oinarritzat ditu, batez ere, bizitza arriskuko produktuetarako aseguratutako zenbatekoa eta bizitza aurrezkiko kontratuetarako aseguratutako prestazioak.

Metodo sinplifikatua urtebetetik beherako iraupena duten kontratuen gainerako estalduragatiko pasiboa baloratzeko erabiltzen da, bai eta iraupen luzeagoa izan arren arauan ezarritako baldintzak betetzen dituzten kontratuen kasuan ere. Metodo sinplifikatuan, honela osatuta dago gainerako estalduragatiko pasiboa: jasotako primak ken asegurua erosteagatiko diru-fluxuak. Emaitzetan linealki egozten da kontratuaren estaldura-aldian zehar. Bestalde, Taldeak ez du doitzen gainerako estalduragatiko pasiboa diruaren denbora-balioaren arabera; izan ere, aseguru-primak kontratuen estaldura-aldiaren barruan mugaeguneratzen dira, hau da, urtebetean, gutxi gorabehera. Metodo horrekin baloratutako kontratu-multzoek, berriz, metodo orokorraren arabera kalkulatutako ezbeharrengatiko pasiboa dute.

Bestalde, Taldeak ez du Komisio Aldakorraren Metodoaren arabera baloraturiko kontraturik.

<u>Kostubidezkotasuna</u>

Aseguru-kontratua kostu bidezkoa izango da, baldin eta kontratuaren esleipenaren betetzetik datozen diru-fluxuek, guztira, irteera garbia erakusten badute, hasierako kontabilizazioaren datan.

Taldeak kostu bidezko multzoetan sailkatu ditu metodo orokorraren bidez baloratutako kontratuak, kontuan hartuta betetze-fluxuak, erosketa-gastuak eta beste edozein fluxu egozgarri. Ebaluazioa, oro har, kontratuz kontratu egiten da.

Kontratua indarrean den bitartean, etorkizuneko kutxa-fluxuak aurreikusteko erabiltzen diren hipotesiak aldatu egin daitezke, eta, ondorioz, kontratu baten aurreikusitako errentagarritasuna handitu edo txikitu. Beraz, hasiera batean kostu bidezkotzat jo ez den kontratu-multzo bat kostu bidezko bilaka daiteke, edo alderantziz, hasieran kostu bidezkoa zen kontratuak izaera hori gal dezake eta aurretik kontabilizatutako galera leheneratu.

Metodo sinplifikatuaren bidez baloratutako kontratuen kasuan, kostu bidezkoak ez direla onartzen da, lehentasunez, hasierako kontabilizazioan, baldin eta aurkakoa adierazten duten egitateak eta egoerak ez badaude. Barneko txostenetako informazioa (ratioak eta adierazleak) erabiliz, Taldeak metodologia bat garatu du negozioaren etekina monitorizatzeko, FINA 17 arauaren irizpideen arabera. Ondorioztatu duenez, metodo sinplifikatuaren bidez baloratutako aseguru-kontratuen artean bat ere ez da kostu bidezkoa.

Aseguru- eta berraseguru-kontratuen sarrerak eta gastuak

Aseguru-zerbitzuaren sarrerek barne hartzen dituzte kontratu-zerbitzuaren marjina askatzea, arrisku-doikuntza askatzea, ezbeharrak eta aurreikusitako gastuak askatzea eta, metodo sinplifikatuaren kasuan, primak askatzea.

Aseguru-zerbitzuaren gastu gisa kontabilizatzen dira ezbeharren benetako zenbatekoak, aseguru-erosketaren eta -zerbitzuaren gastuak, iraganeko zerbitzuekin lotutako diru-fluxuen aldaketak eta kostu bidezko kontratuekin lotutako zenbatekoak.

Aseguruengatiko gastuetan edo finantza-sarreretan sartuta daude, batetik, diruaren denbora-balioaren eta horren aldaketen eraginez aseguru-kontratuen multzoaren liburuetako zenbatekoetan izandako aldaketa eta, bestetik, finantza-arriskuaren eragina eta aldaketak.

Oro har, metodo orokorraren arabera neurtutako kontratuen kasuan, diruaren denbora-balioaren eta finantza-arriskuaren eraginez deskontu-tasa aldatu izanaren ondoriozko aseguru-kontratuetatik datozen finantza-gastuak eta -sarrerak aurkezteko, Taldeak horiek desagregatzea erabaki du. Hala, kontabilitateko hautu politiko horren alde eginez, «Aseguru-kontratuengatiko finantza-gastuak» eta «Bestelako emaitza global bat» atalak bereizi ditu, gastuak eta sarrerak horietan erregistratzeko. Horren helburua da kontabilitate-asimetriak minimizatzea FINA 9 arauaren eraginpeko finantza-inbertsioen balorazioan eta kontabilizazioan, eta baita FINA 17 arauaren eraginpeko aseguru-kontratuetan ere.

u) Hornidurak eta pasibo kontingenteak

Iraganeko gertaeren ondorioz sortutako Taldearen egungo obligazioak hartzen dira horniduratzat. Horien izaera argi eta garbi zehaztuta dago finantzetako egoera-orrien egunean, baina zenbatekoa edo kitatzeko unea ez. Horiek kitatzeko, mozkin ekonomikoak ematen dituzten baliabideak besterendu beharko ditu muga-egunean Taldeak. Obligazio horiek iturri ugari izan ditzakete:

i) Lege- edo kontratu-xedapen bat.

ii) Obligazio inplizitu edo isilbidezkoa, hirugarrenen aurrean ardura batzuk hartzeari buruz Taldeak sortutako baliozko itxaropenean jatorria duena. Itxaropenok sortzen dira Taldeak jendaurrean hartzen dituenean ardurak, iraganeko portaeren ondorioz edo jabari publikoko enpresa-politiketan oinarrituta.

iii) Araudiek alderdi jakin batzuetan duten bilakaera ia segurua; zehazki, Taldeak nahitaez bete behar dituen arautze-proiektuak.

Iraganeko gertaeren ondorioz sortutako obligazio posibleak dira pasibo kontingenteak, eta Taldearen borondatearekin zerikusirik ez duten etorkizuneko gertaera bat edo gehiago gertatzearen edo ez gertatzearen mende egoten dira. Taldearen egungo obligazioak sartzen dira pasibo kontingenteetan; hain zuzen ere, kitatuz gero mozkin ekonomikoak ematen dituzten baliabideak murriztea ekarriko ez dutenak eta behar adinako fidagarritasunez zehazteko moduko zenbatekoa dutenak, kasu oso arraroetan izan ezik.

Hornidura eta pasibo kontingenteak honela sailkatzen dira: probableak, gertatzea errazagoa denean ez gertatzea baino; posibleak, gertatzea zailagoa denean ez gertatzea baino; eta gertagaitzak, gertatzea oso zaila denean.

Taldeak hornidura eta pasibo kontingente nabarmen guztiak sartzen ditu urteko kontu bateratuetan; alegia, obligazioari erantzun behar izateko aukera handiagoa denean ez erantzutekoa baino. Posibletzat jotako pasibo kontingenteak ez dira urteko kontu bateratuetan kontabilizatzen. Besterik gabe horien berri ematen da, baldin eta ez bada irabazi ekonomikoak ematen dituzten baliabideak galtzeko aukerarik ikusten.

Hornidurak kuantifikatzeko, sortu dituen gertaeraren ondorioei buruzko informaziorik onena hartzen da kontuan, eta kontabilitate-itxiera guztietan estimatzen dira. Dagozkien obligazioei aurre egiteko erabiltzen dira, eta, obligazio horiek desagertu edo txikitu egiten badira, kopuru osoa edo zati bat itzultzen da.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, bere jardueren ohiko garapenean sortutako hainbat auziri, erantzukizuni eta obligaziori erantzun beharra izan dezake Taldeak. Kontzeptu horiengatik Taldearen finantzetako egoera-orrietan erregistratutako hornidurak ekitaldi-amaieran dauden kasuen arabera eta etorkizunean egon daitezkeen kasuen proiekzioen arabera kalkulatzen dira, Taldearen esperientzia historikoaren eta barruko eta kanpoko lege-aholkularien azterketari jarraikiz. Taldeko lege-aholkularien eta bertako Entitate Nagusiaren goi-zuzendaritzaren ustetan, prozedura eta erreklamazio horiek ez dute eragin handirik izango, ez, behintzat, egindako hornidura baino handiagoa, mugaeguneratzen diren ekitaldietako urteko kontuetan.

v) Saltzeko daudenen artean sailkatu diren elementu-multzo besterengarrietako aktibo ez-korronteak eta pasiboak

Balantze bateratuko «Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak» epigrafean aktiboak sartzen dira, duten izaera gorabehera, ustiapen-jardueretatik kanpo daudelarik aurreikuspenen arabera urtebeteko gauzatze- edo berreskuratze-epea dutenak, epigrafe honetan sailkatu zirenetik.

Salbuespenez, salmenta urtebetetik gorako epean gertatzea aurreikusten denean, Taldeak salmenta-kostua balio eguneratuan balioztatzen du, eta denbora igaro ahalako balio-igoera erregistratzen du galdu-irabazien kontu bateratuko «Saltzeko mantendutakoen artean sailkatu diren eta jarduera etentzat har ez daitezkeen aktibo ez-korronteen eta elementu-multzo besterengarrietatik datozen irabaziak edo (–) galerak» epigrafean.

Hortaz, besterentzen direnean jasotzen den diruarekin berreskuratuko da, seguruenik, kontu-sail horien liburuetako zenbatekoa. Kontu-sailok izaera finantzariokoak eta ez-finantzariokoak izan daitezke.

Beraz, zordunek Taldeari zor osoak edo zati bat ordaintzeko emandako aktibo higiezinak edo bestelako aktibo ez-korronteak, salgai dauden aktibo ez-korrontetzat hartzen dira, salbu eta Taldeak horiek etengabe erabiltzea erabaki badu.

Bestalde, «Saltzeko mantendutakoen artean sailkatu diren elementu-multzo besterengarrietako pasiboak» epigrafean, Taldeko erabilera-taldeekin edo etendako eragiketekin zerikusia duten saldo hartzekodunak sartzen dira.

«Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak» partidan sailkatutako aktiboak baloratzeko, oro har, kopururik txikiena hartzen da, kontabilizatzen diren unean duten kontabilitate-balioaren eta arrazoizko balioaren artean; azken horri, baina, aktibooi estimatu zaizkien salmenta-kostuak kentzen zaizkio, finantza-izaerakoak salbu, horiek 13.e.ix oharrean ezarritakoaren arabera baloratzen dira eta. «Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak» epigrafean sailkatuta dirauten bitartean, beren izaeragatik amortizagarriak diren aktibo ukigarri eta ukiezinak ez dira amortizatzen.

Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako aktibo higiezinak erregistratzeko, erabilitako forma juridikoa edozein dela ere, bi zenbateko hauetatik txikiena hartzen da aintzat, hasiera batean: aplikatutako finantza-aktiboen liburuetako zenbatekoa —hau da, kostu amortizatua, narriadura estimatua kontuan izanda— edo aktiboak esleitzeko edo hartzeko unean duen arrazoizko balioa ken salmenta-kostu estimatuak —hau da, banakako tasazio osoetan emandako merkatuko balioa, Espainiako Bankuak onetsitako araudian jasotako irizpideen arabera berriz zenbatua, ken salmenta-kostuak—.

Prozesuko gastu guztiak sortzen diren epealdiko galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira, berehala. Erregistro-gastuak eta likidatutako zergak hasieran kontabilizatu zaien balioaz jaso ahal izango dira, baldin eta horrela arrazoizko balioa gainditzen ez bada, estimatutako salmenta-kostuak kendu ondoren. Esleipen-egunetik salmenta-egunera arte aktiboa mantentzeko eta babesteko egiten diren kostu guztiak (aseguruak, segurtasun-zerbitzuak eta beste) sortu diren epealdiko galdu-irabazien kontu bateratuan kontabilizatuko dira.

Esleitu edo jaso ondoren, arrazoizko balioa zenbatesteko abiapuntutzat erabiltzen den erreferentziazko balioa eguneratzen da. Salmenta-kostuaren arrazoizko balio garbia zehazteko, Taldeak kontuan hartzen ditu sozietate tasatzaileek —guztiak ere Espainiako Bankuko Erregistro berezian daude erregistratuta— egindako balorazioak, bai eta Espainiako Bankuak, bere esperientzian eta Espainiako banku-sektorearen inguruan duen informazioan oinarrituta erreferentziazko balioaren gainean zenbatetsi dituen deskontuak ere. Era berean, higiezinak 300.000 euroko edo hortik beherako arrazoizko balioa badu, balioztapen-eredu automatizatuak erabiliz eguneratuko da. Dena dela, higiezinek balantzean 3 urte ematen dituztenean, tasazio osoa eginez eguneratuko dira. Era berean, balorazioaren eguneratzea egiten duen tasazio-sozietatea ez da izango aurreko tasazioa egin duen berbera.

Ondasun higiezinen merkatuko prezioen eta gainerako aldagai makroekonomikoen bilakaerak eragina izan dezake balorazio horietan, ingurune ekonomikoaren eta egungo egoera geopolitikoaren ondorioz. Honenbestez, zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako aktibo higiezinen gainean Entitateak 2023ko abenduaren 31n erregistratuta dauzkan narriaduragatiko balio-zuzenketak bat datoz urteko kontu hauek formulatu diren datan goi-zuzendaritzako kideek duten zenbatespenik onenarekin.

Liburuetako zenbatekoa handiagoa bada aktiboen arrazoizko balioa baino (salmenta-kostuak kendu ondoren), Taldeak doikuntza egiten du aktiboon kontabilitate-balioan. Horrela, bada, soberakin hori galdu-irabazien kontu bateratuko «Saltzeko mantendutakoen artean sailkatu diren eta jarduera etentzat har ez daitezkeen aktibo ez-korronteetatik eta elementu-multzo besterengarrietatik datozen irabaziak edo (–) galerak» epigrafean kontrapartida eginez jasotzen da. Aktiboen arrazoizko balioa hazi egiten bada aurrerago, Taldeak itzuli egin ditzake aurrez kontabilizatuta dituen galerak, eta aktiboen kontabilitate-balioa handitu dezake, narriatu aurreko zenbatekoaren mugarekin eta galdu-irabazien kontu bateratuko «Saltzeko mantendutakoen artean sailkatu diren eta jarduera etentzat har ez daitezkeen elementu-multzo besterengarrietatik eta aktibo ez-korronteetatik datozen irabaziak edo (–) galerak» epigrafean kontrapartida eginez.

Eragiketa etenak

Eragiketa edo jarduera etentzat hartzen da Taldean besterendu egin den, edo beste era batera erabili den, edo salgai dagoen aktibo ez-korronteen artean sailkatu den eta, gainera, hauetako baldintzaren bat betetzen duen osagaia:

- Nabarmena eta gainerakotik independentea den ustiapenaren negozio-ildoa edo eremu geografikoa adierazten du.

- Nabarmena eta gainerakoetatik independentea den ustiapenaren negozio-ildoa edo eremu geografikoa besterentzeko edo beste bide batzuetatik eskuratzeko plan indibidual eta koordinatu baten atala da.

- Saltzeko asmo hutsez eskuratu den mendeko erakundea da.

Etendako eragiketatzat hartzen diren Taldeko kideek ekitaldian sorrarazitako emaitzak galdu-irabazien kontu bateratuko «Jarduera etenetatik datozen zerga ondorengo irabaziak edo (–) galerak» epigrafean jasotzen dira, Taldeko kidea jadanik aktibotik kanpo egon ala ez (ekitaldiaren bukaeran bertan jarraitzen badu). Etendako eragiketatzat hartu ondoren eragiketa jarraitutzat hartzea erabakiz gero, horien sarrerak eta gastuak, unean uneko galdu-irabazien kontu bateratuan ez ezik, urteko kontu bateratuetan argitaratutako ekitaldi konparatiboan ere jasotzen dira, kasuan kasuko ezaugarrien arabera dagozkien partidetan.

w) Diru-fluxuen egoera-orri bateratua

Diru-fluxuen egoera-orri bateratuan erabiltzen diren kontzeptuak honela definitzen dira:

i) Diru-fluxuak: eskudiruaren eta antzekoen sarrerak eta irteerak. Likidezia handia eta balio-aldaketak izateko arrisku txikia duten epe laburreko inbertsioak sartzen dira antzekoetan.

ii) Ustiapen-jarduerak: Taldearen ohiko jarduerak eta inbertsio edo finantzaketakotzat hartu ezin diren bestelako jarduerak, eta jasotako edozein finantzaketarengatik ordaindutako interesak, finantzaketa-jarduera moduan sailkatutako finantza-pasiboei egokitu arren.

iii) Inbertsio-jarduerak. Epe luzeko aktiboak eta eskudiruan edo antzekoetan sartuta ez dauden beste inbertsio hauek eskuratzeko, besterentzeko edo beste bide batzuk erabiliz erabiltzeko jarduerak dira: aktibo ukigarriak, aktibo ukiezinak, mendekoetako inbertsioak, baterako negozioak eta elkartuak, «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafean sailkatutako aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak, eta talde horietan sartutako pasiboak.

Negozio edo jarduera-lerro bat osatzen duten aktibo edo pasiboen multzoa eskuratzeak edo besterentzeak eragindako aldaketak «Bestelako negozio-unitateak» partidan sartuko dira, banakako finantzetako egoera-orrietan, eta «Mendeko erakundeak eta bestelako negozio-unitateak» partidan, finantzetako egoera-orri bateratuetan, haien zeinuaren arabera.

iv) Finantzaketa-jarduerak: ondare garbi bateratuaren eta ustiapen-jardueretan sartzen ez diren pasiboen tamainan eta osaeran aldaketak eragiten dituzten jarduerak.

Taldeak balantze bateratuetako «Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko bestelako gordailuak» epigrafean sartutako saldoak hartzen ditu eskudiru eta antzekotzat.

x) Heziketako, Prestakuntzako eta Kooperatiba Sustapeneko Funtsa (HSF)

Heziketako eta Sustapeneko Funtsa balantze bateratuko «Bestelako pasiboak» epigrafean erregistratzen da.

Kooperatiben Legearen eta Entitate Nagusiaren estatutuen arabera funts horretara nahitaez egiten diren zuzkidurak ekitaldiko gastu gisa jasotzen dira, nahiz eta kuantifikazioa egiteko ekitaldiko emaitza hartzen den oinarri. Zuzkitzen diren aparteko kopuruak ekitaldiko emaitzaren aplikazio moduan kontabilizatuko dira.

Legeari jarraikiz Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko Funtsari lotuta dauden dirulaguntzak, dohaintzak eta gainerako laguntzak, eta kooperatibak bazkideei ezarritako zehapen ekonomikoen funtsak, arautegiaren arabera funts horri lotuta badaude, kooperatibaren sarrera gisa kontabilizatuko dira, eta funts horretan sartu.

Heziketako, Prestakuntzako eta Kooperatiba Sustapeneko Funtsa bere xederako aplikatzen denean, baja ematen zaio eta, normalean, altxortegiko kontuetan egiten da abonua. Bestalde, funtsaren aplikazioa kreditu-erakundeak berezkoak dituen jardueren bidez gauzatzen denean, Heziketako, Prestakuntzako eta Kooperatiba Sustapeneko Funtsaren zenbatekoa txikitu egiten da eta, aldi berean, sarrera bat erregistratzen da kreditu-kooperatibaren galdu-irabazien kontuan, horrelako jardueretarako merkatuan dauden baldintzen arabera.

y) Ondare garbiaren aldaketen egoera-orri bateratua eta kontabilizatutako sarrera eta gastuen egoera-orri bateratua

Urteko kontu bateratu hauetan aurkeztu ditugun egoera-orri horiek ekitaldian ondare garbi bateratuak izan dituen aldakuntzen berri ematen dute. Segidan, bi egoera-orriotako informazioaren ezaugarri nagusiak zehaztuko ditugu:

i) Kontabilizatutako sarrera eta gastuen egoera-orri bateratua

Egoera-orri horretan, Taldeak ekitaldian bere jarduerarekin sortutako sarrera eta gastuak aurkezten dira, baina bereizita: batetik, ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan emaitza moduan erregistratutakoak eta, bestetik, indarreko araudian xedatutakoari jarraikiz zuzenean ondare garbi bateratuan erregistratutako gainerako sarrera eta gastuak.

Hortaz, egoera-orri horretan hauek aurkeztu ditugu:

a) Ekitaldiko emaitza bateratua.

b) «Bestelako emaitza global bat» gisa kontabilizatu diren eta emaitzetan birsailkatuko ez diren sarrera eta gastuen zenbateko garbia.

c) «Bestelako emaitza global bat» gisa kontabilizatu diren eta emaitzetan birsailka daitezkeen sarrera eta gastuen zenbateko garbia.

d) «Ekitaldiko guztizko emaitza globala», aurreko hirurak batuta kalkulatua.

«Bestelako emaitza global bat» epigrafean «Emaitzetan birsailkatuko ez diren elementuak» gisa kontabilizatutako sarrera eta gastuetan egondako aldakuntzak honela banakatzen dira:

a) Prestazio mugatuko pentsio-planetako irabazi edo galera aktuarialak. Epealdiko irabaziak edo galerak jasoko ditu, horien eragileak hauek direnean: obligazioen balorazioan izandako aldaketak, hipotesi aktuarialen aldaketen eta aldeen ondorioz; planari lotutako aktiboen etekin jakin batzuk, eta aktiboaren mugaren aldakuntzak.

b) Saltzeko dauden aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak. Epealdiko galerak eta irabaziak jasoko ditu, aktibo horien balorazioaren ondorioz bestelako emaitza global batean erregistratu behar direnean eta ondoren emaitzetan birsailkatuko ez direnean.

c) Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioetako kontabilizatutako bestelako sarrera eta gastuetan parte hartzea. Partida hori kontabilizatutako sarrera eta gastuen egoera-orri bateratuan soilik ageriko da, eta partaidetzaren metodoaz baloratutako entitateen epealdiko galerak eta irabaziak jasoko ditu, baldin eta bestelako emaitza global batean erregistratu behar badira eta ondoren ez badira emaitzetan birsailkatuko.

d) Arrazoizko balioan baloratu diren eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten ondare-tresnen arrazoizko balioaren aldaketak. Ondare garbiko tresnetako inbertsioen arrazoizko balioaren aldaketek epealdian eragindako galerak eta irabaziak jasoko ditu, Entitateak bestelako emaitza global batean kontabilizatzeko erabaki errebokaezina hartu duenean.

e) Arrazoizko balioan eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituztela baloratu diren ondare-tresnen estaldura-kontabilitatearen irabazi edo galera garbiak. Arrazoizko balioaren estalduretan metatutako estalduraren eraginkortasunik ezak epealdian izandako aldaketa irudikatzen du. Estalitako partida ondare garbiko tresna bat da, arrazoizko balioan eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituela baloratuta. Bi hauen arteko aldea jasoko du: «Arrazoizko balioan baloratu diren eta bestelako emaitza global batean aldakuntzak eragiten dituzten ondare-tresnen arrazoizko balioaren aldaketak (elementu estalia)» partidan erregistratutako ondare garbiko inbertsioaren arrazoizko balioaren aldakuntzarena eta «Arrazoizko balioan baloratu diren eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten ondare-tresnen arrazoizko balioaren aldaketak (estaldura-tresna)» partidan erregistratutako estaldura-deribatuen arrazoizko balioaren aldakuntzarena.

f) Arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak eragiten dituztela izendatutako finantza-pasiboen arrazoizko balioaren aldaketak, kreditu-arriskuaren aldaketei egoztekoak direnak. Arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak eragiten dituztela izendatutako finantza-pasiboen epealdiko arrazoizko balioaren aldaketak jasoko ditu, kreditu-arrisku propioaren aldaketei egoztekoak direnak.

«Bestelako emaitza global bat» epigrafean «Emaitzetan birsailka daitezkeen elementu» moduan kontabilizatutako sarrera eta gastuetan egon diren aldakuntzak honela banakatuko dira:

a) Atzerriko negozioetako inbertsio garbien estaldura (zati eraginkorrarena). Atzerriko negozioetako estalduren (iraunkorren nahiz etenen) zati efektiboko kanbio-tasaren aldakuntzen ondorioz metatutako emaitzek epealdian izandako aldaketa jasoko du.

b) Dibisa-bihurketa. Dibisa funtzionaleko partidak aurkezpen-dirutara bihurtzearen ondorioz epealdian sortutako aldeak jasoko ditu.

c) Diru-fluxuen estaldurak (zati eraginkorrarenak). Horrelako estaldura-erlazioetan, estaldura-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntzen zati eraginkorrak epealdian izandako galerak eta irabaziak jasoko ditu.

d) Estaldura-tresnak (izendatu gabeko elementuak). Ondorengo elementuen arrazoizko balioan metatutako aldaketek epealdian izan dituzten aldakuntzak jasoko ditu, baldin eta estalduren osagai izendatu ez badira: aukeren denbora-balioarena, gerokoen kontratuen etorkizuneko elementuena eta finantza-tresnen kanbio-diferentzien oinarrizko diferentzialarena.

e) Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten zor-tresnak arrazoizko balioan. Tresna horiek epealdian izandako galerak edo irabaziak jasoko ditu, ez badira narriaduraren edo kanbio-diferentzien ondorioz gertatu. Azken horiek galdu-irabazien kontuko epigrafe hauetan erregistratuko dira, hurrenez hurren: «Arrazoizko balioan baloratu ez diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea» eta «Kanbio-diferentzia (irabazi edo galera) garbiak».

f) Saltzeko dauden aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak. Horrelako aktiboen balorazioaren ondorioz bestelako emaitza global batean erregistratu behar diren eta, geroago, emaitzetan birsailka daitezkeen epealdiko galerak eta irabaziak jasoko ditu.

g) Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioetako kontabilizatutako bestelako sarrera eta gastuetan parte hartzea. Partida hori kontabilizatutako sarrera eta gastuen egoera-orri bateratuan soilik azalduko da. Partaidetzaren metodoaz baloratutako erakundeetatik datozen ekitaldiko galdu-irabaziak jasoko ditu, bestelako emaitza global batean erregistratu eta, geroago, emaitzetan birsailka daitezkeenak.

Horrez gain, aurreko ataleko partida bakoitza honela banakatuko da:

a) Ondare garbian kontabilizatutako balio-irabaziak edo (–) -galerak. Zuzenean ondare garbian kontabilizatutako sarreren zenbatekoa bilduko du, baina ekitaldian sortutako gastuak kenduta. Ekitaldian ondare garbian kontabilizatutako zenbatekoak partida horretan mantenduko dira, nahiz eta ekitaldi berean galdu-irabazien kontura edo aktibo eta pasiboen hasierako liburuetako zenbatekora transferitu edo beste partida batean birsailkatu, b), c) eta d) letren arabera, hurrenez hurren. Banakapena aurreko ataleko b) letrari dagokionean, «Ondare garbian kontabilizatutako dibisa-trukeagatiko irabaziak edo galerak» izena hartuko du.

b) Emaitzetara transferitua. Aurretik —ekitaldian bertan izan daiteke— ondare garbian kontabilizatutako balorazioagatiko galdu-irabazien zenbatekoa biltzen du; horiek galdu-irabazien kontuan onartzen dira (batzuetan, aurkezpen horren ondorioari «sarrera eta gastuen birziklapena» esaten zaio, eta transferitutako zenbatekoari «birsailkapenagatiko doikuntza»).

c) Estalitako elementuen hasierako liburuetako zenbatekora transferitua. Banakapen hori aurreko ataleko c) letrako partidarako aurkeztuko da soilik, eta aurretik —ekitaldian bertan izan daiteke— ondare garbian kontabilizatutako balorazioagatiko irabazien edo galeren zenbatekoa bilduko du, baldin eta diru-fluxuen estalduraren ondorioz aktiboen edo pasiboen liburuetako zenbatekoan kontabilizatzen badira.

d) Bestelako birsailkapenak. Partiden artean ekitaldian egindako intsuldaketen zenbatekoa bilduko du, titulu honetako arauetan ezarritako irizpideei jarraikiz.

Egoera-orri horretako partiden zenbatekoak kopuru gordinetan erregistratuko dira, eta, azkenean, dagokion irabazien gaineko zerga —emaitzetan birsailka daitezkeen elementuena zein sailkatu ezin direnena— partida bereizi batean sartuko da.

ii) Ondare garbi bateratuko aldaketen egoera-orria

Egoera-orri horretan, ondare garbi bateratuan izandako mugimendu guztiak aurkezten dira, kontabilitate-irizpideen aldaketetan eta akats-zuzenketetan jatorria dutenak barne hartuta. Hortaz, ekitaldiaren hasieran eta amaieran ondare garbi bateratua osatzen duten partida guztiek liburuetan duten zenbatekoaren berdinkatzea jaso da egoera-orri horretan. Mugimenduak izaeraren arabera multzokatu dira kontu-sail hauetan:

a) Kontabilitate-politiketako aldaketen eraginak eta Akatsen zuzenketaren eraginak. Kontabilitate-politiken aldaketetan eta akatsen zuzenketan jatorria duten finantzetako egoera-orrietako saldoak atzeraeraginez berriro ematearen ondorioz ondare garbi bateratuan gertatutako aldaketak hartzen ditu barne.

b) Ekitaldiko guztizko emaitza globala. Lehenago adierazi ditugun eta Kontabilizatutako sarrera eta gastuen egoera-orri bateratuan erregistratu diren partida guztiak biltzen ditu.

c) Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak. Ondare garbi bateratuan erregistratutako gainerako partidak biltzen ditu, hala nola kapitalaren gehikuntzak edo murrizketak, emaitzen banaketa, norberaren kapital-tresnez egindako eragiketak, kapital-tresnen bidezko ordainketak, ondare garbi bateratuko partiden arteko intsuldaketak eta ondare garbiko bestelako edozein gehikuntza edo murrizketa.

z) Negozio-konbinazioak

Entitate edo batasun ekonomiko bi edo gehiago entitate- edo sozietate-talde bakarrean bateratzen dituen eragiketari esaten zaio negozio-konbinazioa.

Negozio-konbinazioaren ondorioz entitate bakarra sortzen denean eta bateratutako entitate bi edo gehiagoren bazkideei partaidetzak jaulkitzen zaizkienean, aurretik zegoen entitateetako bat eskuratzaile moduan hartuko da eta entitate batek beste bat eskuratzen duenean moduan kontabilizatuko da transakzioa.

Negozio-konbinazioak kontabilizatzeko, eskurapen-metodoa aplikatzen du Taldeak. Bestelako erakunde bat eskuratzeagatik transferitzen den kontraprestazioa honako hauei dagokie: transferitutako aktiboen arrazoizko balioari, erositako erakundearen aurreko jabeekin egindako pasiboei eta Entitateak jaulkitako ondareko partaidetzei. Transferitutako kontraprestazioan, kontraprestazio kontingenteko akordio batek eragindako edozein aktiboren edo pasiboren arrazoizko balioa sartzen da. Eskuratutako aktibo identifikagarriak eta negozio-konbinazio batean onartutako pasiboak eta pasibo kontingenteak, hasiera batean, arrazoizko balioan baloratzen dira, eskurapen-datan. Negozio-konbinazio bakoitzean, Entitateak arrazoizko balioan edo eskuratutako erakundearen aktibo garbien zenbateko kontabilizatuetan nagusi ez den partaidetzaren zati proportzionalarekin kontabiliza dezake eskuratutako erakundean nagusi ez den edozein partaidetza.

Eskurapenarekin zerikusia duten kostuak dagokien ekitaldiko gastu moduan kontabilizatzen dira.

Entitateak transferitu beharreko edozein kontraprestazio kontingente arrazoizko balioan jasotzen da, eskurapen-datan. Aktibotzat edo pasibotzat hartzen den kontraprestazio kontingenteari ondoren arrazoizko balioan gertatzen zaizkion aldaketak, KNA 39 arauaren arabera, emaitzetan kontabilizatzen dira, edo ondare garbiaren aldaketatzat jo. Ondare garbi bateratu moduan sailkatzen den kontraprestazio kontingentea ez da berriro baloratzen, eta haren ondorengo likidazioa ondare garbian kontabilizatzen da.

Merkataritzako funtsa honela baloratzen da, hasiera batean: transferitutako kontraprestazioaren soberakin gisa eta nagusi ez den partaidetzak eskuratutako aktibo identifikagarrien eta onartutako pasiboen arabera duen arrazoizko balio gisa. Kontraprestazio hori erositako mendeko erakundearen aktibo garbien arrazoizko balioa baino txikiagoa bada, aldea emaitzetan kontabilizatzen da.

Negozio-konbinazioaren datatik aurrera, urtebeteko epea («neurketa-epea») ezartzen da, eskuratzaileak aukera izan dezan kontabilizatutako behin-behineko zenbatekoak doitzeko, negozio-konbinazioaren ondorengo lehen urteko kontu bateratuak formulatzeko unean beharrezkoak diren zenbatespenak egin ostean.

aa) Merkataritzako funtsa

Negozio-konbinazioen kostuaren eta arrazoizko balioari eskuratutako erakundeen aktibo eta pasibo kontingenteak kenduta ematen duen eskurapen-ehunekoaren arteko alde positiboak merkataritzako funts moduan erregistratzen dira balantze bateratuko aktiboan. Beraz, merkataritzako funtsak hauxe adierazten du: Taldeak eskuratutako entitate baten aktiboengatiko etorkizuneko etekin ekonomikoen ordainketa aurreratua, aktibo horiek banaka eta bereizita identifikatu eta kontabilizatzeko modukoak ez badira. Negozio-konbinazio batean kostu bidez eskuratzen denean soilik kontabilizatzen da. Merkataritzako funts horiek ez dira amortizatzen. Aitzitik, horien arrazoizko balioa erregistratutako kostu garbitik behera murriztuko duen narriaduraren bat egon den baloratzen da kontabilitate-itxieretan. Baiezkoan, saneatu egiten dira, galdu-irabazien kontu bateratuaren kontra.

Merkataritzako funtsak narriadura-zantzurik duen ikusteko, balorazioak egiten dira, banatutako mozkinen deskontuaren metodoa erabiliz, batez ere. Balorazioetan, parametro hauek hartzen dira kontuan:

- Negozioaren funtsezko hipotesiak. Hipotesi horietan oinarritzen dira balorazioan jasotako diru-fluxuen proiekzioak. Finantza-jarduera duten negozioetan hainbat aldagai proiektatzen dira, hala nola: kredituaren, berankortasunaren, bezeroen gordailuen eta interes-tasen bilakaera, aurreikusitako agertoki makroekonomiko zehatz baten eta kapital-eskakizun zehatz baten arabera.

- Aldagai makroekonomikoen zenbatespena, eta bestelako balio finantzarioak.

- Proiekzioen epea. Eskuarki, 5 urteko proiekzio-epea erabiltzen da. Hortik aurrera, irabazia eta errentagarritasuna errepikari bihurtzen dira. Ondore horietarako, balorazioaren unean dagoen egoera ekonomikoa hartzen da aintzat.

- Deskontu-tasa. Etorkizuneko dibidenduen egungo balioa (erabilera-balioa lortzeko erabilia) kalkulatzeko, merkatuko partaide baten ikuspegitik Entitateak duen kapital-kostua (Ke) erabili da deskontu-tasatzat. Hori zehazteko, CAPM (Capital Asset Pricing Model) metodoa erabiltzen da, formula honen arabera: «Ke = Rf + β = sozietatearen arrisku sistemikoaren koefizientea, Rm = espero den merkatu-errentagarritasuna eta α = arrisku ez-sistemikoagatiko prima».

- Hazkunde-tasa hori erabiltzen da diru-fluxuen proiekzioak azken aurreikuspenen epealdiaz harago estrapolatzeko. Makroekonomia-magnitude nagusien eta negozioaren funtsezko aldagaien epe luzeko estimazioetan oinarritzen da, finantza-merkatuen egoera une oro kontuan izanda. Bada, % 1eko betiko hazkunde-tasa estimatzen da.

- Merkataritzako funtsaren narriadura ebaluatzeko estimazioan egungo egoera ekonomiko eta geopolitikoa hartu dugu kontuan.

Merkataritzako funtsen narriaduragatiko galerak ez dira geroago itzultzen.

14. Bezeroarentzako arreta

Zerbitzu honek bezeroen kontsulta, kexa eta erreklamazioei erantzutea du helburu; horretarako, hainbat bide dituzte bezeroek.

Idazkia jasotzen denetik 2 hilabeteko epe ofiziala dago erantzuteko (hilabetekoa, erreklamatzailea kontsumitzailea bada), baldin eta ordainketa-zerbitzuei buruzko erreklamazioak ez badira, horiek gehienez ere 15 egun baliodunetan ebatzi behar dira eta. Dena den, Entitateak ahalik eta bizkorren erantzuteko konpromisoa du hartuta; hau da, aipatutako epeak iragan baino lehen.

Entitate Nagusiaren, Caja Laboral Gestión SGIIC SAren eta Caja Laboral Pensiones GFP SAren Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren jarduerari dagokionez, 2023an 24.167 espediente ireki dira guztira (2022an 9.753). Horietatik, 22.658 tramitatu eta erantzun dira (2022an 9.009). 1.509 espediente tramitatu gabe geratu dira (2022an 744), aurkeztutako kexak eta erreklamazioak baztertzeko Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren erregelamenduan jasota dauden zenbait arrazoi tarteko.

	2023	2022
Irekitako espediente-kopurua		
- Idatziak: liburuxka/gutuna	18.978	6.660
- Internet bidezkoak	4.476	2.859
- Telefono bidezkoak	1	1
- Erakunde publikoak: KIUB/gobernu autonomikoak	712	233
	24.167	**9.753**
Tramitatutako espediente-kopurua	**22.658**	**9.009**
Espedienteen izaera		
- Kexak	3.328	4.016
- Erreklamazioak	20.722	5.625
- Kontsultak	11	3
- Iradokizunak	1	12
- Zorionak edo eskerrak emateko gutunak	4	3
- Hainbat eskaera	100	93
- Bestelakoak	1	1
	24.167	**9.753**

	2023	2022
Erreklamatutako kopuruak		
- Entitatearen alde ebatzitako espedienteen zenbatekoak	2.935	2.248
- Bezeroaren alde ebatzitako espedienteen zenbatekoak:	5.374	171
Entitateak kalte-ordainetan emandako kopuruak	5.374	171
	8.309	**2.419**

Espedienteak irekitzeko arrazoiari dagokionez, jarduera-esparru hauek bereiz daitezke:

	2023	2022
Baldintza ekonomikoak	% 1	% 2
Komisioak eta gastuak	% 89	% 85
Informazioa falta da edo okerra da	% 1	% 1
Bezeroentzako zerbitzu zentralizatuak	% 1	% 2
Bulegoak, elementu objektiboengatik	% 0	% 1
Beharren estaldura	% 0	% 0
Bezeroekin harremanak izateko elementuak	% 2	% 3
Bestelakoak	% 6	% 6
- Arintasuna eta eraginkortasuna kutxazainetan	% 2	% 2
- Hainbat	% 4	% 4
	% 100	% 100

Erreklamatutako zenbatekoen ehunekoak, berriz, hauek dira:

	2023	2022
= < 10 €	% 0,04	% 0,14
> 10 < = 60 €	% 0,16	% 0,43
> 60 < = 100 €	% 0,17	% 0,40
> 100 < = 250 €	% 1,21	% 1,55
> 250 < = 1.000 €	% 82,87	% 45,69
> 1.000 €	% 15,56	% 51,79

Seguros Lagun Aro Vida SAren Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuak, berriz, 128 kexa eta erreklamazio jaso ditu 2023ko ekitaldian (51 2022an), eta horietako 117 espediente bideratu dira (2022an 42). Hauek dira 2023ko eta 2022ko ekitaldietan tramitatzeko irekita dauden espedienteetatik bideratutakoen emaitzak:

	2023	2022
Bezeroaren aldekoak	39	21
Entitatearen aldekoak	62	18
Bestelakoak	16	3
	117	42

Bezeroen aldeko kexa eta erreklamazioek 55 mila euroko kostua eragin diote 2023an Entitateari —2022an 11 mila euro izan ziren—. 10,83 egunekoa izan da kexa eta erreklamazioei erantzuteko batez besteko epea (9,4 egunekoa 2022an).

Seguros Lagun Aro SAren Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuak, ostera, 824 kexa eta erreklamazio jaso ditu 2023ko ekitaldian (680 2022an), eta horietako 795 espediente bideratu dira (2022an 651).

Hauek dira 2023ko eta 2022ko ekitaldietan tramitatzeko irekita dauden espedienteetatik bideratutakoen emaitzak:

	2023	2022
Bezeroaren aldekoak	361	274
Entitatearen aldekoak	416	336
Bestelakoak	18	41
	795	651

Bezeroen aldeko kexa eta erreklamazioek 67 mila euroko kostua eragin diote 2023an Taldeari (2022an 52 mila euro izan ziren). 2023an 13,71 egunekoa izan da erantzuteko batez besteko epea (11,22 egunekoa 2022an).

Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLUren Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuak, bestalde, erreklamazio bat jaso du 2023ko ekitaldian (2 2022an), eta espediente bat bideratu da 2023ko ekitaldian (0 2022an).

Hauek dira 2023ko eta 2022ko ekitaldietan tramitatzeko irekita dauden espedienteetatik bideratutakoen emaitzak:

	2023	2022
Bezeroaren aldekoak	1	-
Entitatearen aldekoak	-	-
Bestelakoak	1	2
	2	2

Guztira, bezeroaren aldeko kexa eta erreklamazioek 28,03 euroko gastua ekarri diote Taldeari 2023an (0 eurokoa 2022an). 2023an 13 egunekoa izan da erantzuteko batez besteko epea (0 egunekoa 2022an).

15. Kreditu-arriskua

Kontrako alderdiak Entitate Nagusiari zor dizkion kopuru guztiak edo batzuk ez ordaintzearen nahiz hitzartutako epeetatik kanpo ibiltzearen ondorioz egon daitekeen galera-arriskua da kreditu-arriskua. Gestioaren ikuspegitik, bi arrisku-mota bereizten ditugu Caja Laboral Popular Coop. de Créditon: altxortegiko eta kapital-merkatuko jardueraren ondoriozkoa —finantza-erakundeak eta errenta finko pribatua— eta bezeroekiko kreditu-arriskua, inbertsio-jarduera tradizionalaren ondoriozkoa.

Azken horien harira, Kontseilu Errektoreak Eragiketa Batzorde Nagusian eskuordetu ditu arriskuei lotutako zenbateko eta figura guztien eskumenak, bai eta zenbateko-mugarik gabeko kobraezinak baimentzea ere. Batzorde Nagusiak, bere aldetik, Batzorde Delegatuan eskuordetzen ditu eskumenak, eta horrek Arriskuen Gestioko Departamentuan eta Merkataritza Sarean. Sareko berrespen-ahalmena arrisku-mailaren eta alerta-sistema baten araberakoa da; arriskuaren bolumena, produktu-mota eta eragiketaren marjina hartzen dira kontuan.

Arriskuen Area hori zuzendari nagusiaren mende dago, eta Arriskuen Gestioaren eta Aholkularitza Juridikoaren Departamentuak biltzen ditu, bai eta Kreditu Arriskuaren Metodologien sekzioa ere. Beraz, kreditu-arriskua onartu, jarraitu eta berreskuratzeko prozesuetan efizientzia handitzea ekarri du, bai eta Entitate Nagusiaren arriskuen kontrol integralean sakontzea ere.

Etxeko eta merkataritzako kreditu-arriskuari dagokionez, alderdi horiek guztiak Kontseilu Errektoreak azken eguneratzea 2024ko urtarrilaren 26an onetsi zion Arrisku-politikari buruzko eskuliburuan eta horri lotutako beste dokumentu batzuetan daude zehaztuta; hauek dira beste dokumentu horiek: Laburpena – Arrisku-politikari buruzko eskuliburua eta Etxeko arriskuak eta merkataritza-arriskua emateko jardunbide egokiei buruzko eskuliburuak.

Dokumentu horietan, kreditu-arriskuak eman, kontrolatu eta jarraitzearen alorreko prozedurak zehazten dira, bai eta erabil daitezkeen eredu prediktiboen, horien aldagaien, haztapenen, arriskuak berresteko eskudantzia eta irizpideen, onarpen-prozesuaren eta arriskuak arindu eta murrizteko politiken azalpena ere.

Entitate Nagusiak politika, metodo eta prozedura horiei jarraipen eraginkorra egiteko ezarritako kontrol-mekanismoak Entitate Nagusian ezarri diren Arrisku Globalaren Kontrolerako Sistemetan euskarritzen dira eta Barne Ikuskaritzako Departamentuaren ikuskapen independentean oinarritu, arriskua onartzeko eta kudeatzeko sistemen kalitatea bermatuz.

2020ko ekitalditik, hasteko pandemiak eragindako egoeragatik eta, ostean, inflazioak eta interes-tasek izandako gorakada handia dela eta, Entitate Nagusiak indartu egin ditu familien, negozioen eta enpresen arriskuak kontrolatzeko metodologiak. Familietako arriskuari dagokionez, moratoria publiko zein pribatuak dituzten bezeroek zalantzagarritasunarekiko duten portaera berrikusten du Taldeak hainbatean behin. Negozio eta enpresen alorrean, jarraipen goiztiarra eta kalifikazio-sistema automatikoak sendotu ditu.

Arriskuen Gestioaren Departamentua zorroan sartutako enpresak onartu eta horiei jarraipena egiteaz arduratzen da, Enpresa Handien Arriskuen Azterketa eta ETE-en Arriskuen Azterketa sekzioen bitartez. Negozioak eta Enpresa Txikiak sekzioak, berriz, segmentu horiek onartzearen ardura du, eta Partikularren sekzioak etxeko negozioaren arriskua onartzearena.

Adiskidantzako Berreskurapenaren eta Auzi-aurrearen sekzioak, ostera, berandutze aurreko alertei lotutako protokoloak kudeatzea eta adiskidantzako konponketaren faseko (< 60 eguneko ez-ordaintzeko) eta auzi-aurreko faseko (> 60 eguneko ez-ordaintzeko) eragiketetan ahalik eta berreskurapenik gehien lortzea du helburu.

Bukatzeko, Aholkularitza Juridikoa arrisku-eragiketetan aholkularitza eta estaldura dokumental juridikoa emateaz arduratzen da, hala hasierako eragiketetan, nola zorraren birfinantzamendu edo berregituratze posibleetan. Berreskuratzeko auzia kudeatzea eta bezeroen eta hirugarrenen erreklamazioen aurrean Taldeari defentsa juridikoa ematea ere haren ardura da.

Metodologien sekzioa arduratzen da eragiketen kreditu-arriskua ebaluatzeko barne-ereduak sortu eta mantentzeaz. Caja Laboral Popular Coop. de Créditok bere rating- eta scoring-ereduak garatu ditu, bezeroak (rating) eta eragiketak (scoring) bakoitzaren arrisku-mailaren arabera bereizteko. Horrela, arriskuaren onarpen erreaktiborako prozesuari scoring lotesleen bidez erantzuten zaio Partikularretan. Horrekin batera, gainera, ratingean oinarritutako aurrez emandako kontsumorako mailegu proaktiboak eskaintzen dira, eta bezeroak automatikoki beregana ditzake, eskura dituen kanalen bidez. Enpresen Arean, berriz, analista-gestorea binomioan oinarritutako eskemaren arabera funtzionatzen dute onarpen-prozesuek, eta bezeroak-analista binomioan oinarrituta zorroratzen dira. Erabakiak hartzeko, barne-ratinga eta berandutze aurreko alerta-eredua erabiltzen ditu analistak euskarritzat. Barneko ereduak, hortaz, oinarrizkoak dira arriskua emateari begira, eta, gainera, espero daitekeen galera eta eragiketa bakoitzari esleitutako kapital erregulatorioa kalkulatzeko aukera ematen diote Entitate Nagusiari.

Sistematikoki berrikusten diren barruko eredu horiek, beraz, erabakitze-prozesuetan ez ezik, datu-base integratuak eraiki eta garatzeko ere erabiltzen dira, CRR2aren kapital-eskakizunen barruan zorroztasunak, espero diren galerak, kapital kontsumoa... kalkulatzeko, alegia. Bestalde, bai scoring-ereduek bai rating-ereduek partikularren eta enpresaren areetako eragiketei lotutako kostuak kalkulatzeko eta pricinga ezartzeko aukera ematen diote Entitate Nagusiari.

Arriskua arintzeko eta murrizteko politikei dagokienez, helburu horrekin hainbat bide erabiltzen dira:

- Onarpen-prozesuan, onartzeko irizpideak mailegu-hartzaileen ordaintzeko gaitasunean oinarritzen badira ere —hori estimatzeko, funtsezkoak dira barne-ereduak—, bermeak dira zorrak berreskuratzeko bigarren bidea. Aintzat harturik inbertsio-jarduerarik handiena etxebizitzaren finantzaketara bideratuta dagoela, hipoteka-bermea da berme nagusia, eta eragiketen LTV erlazioa baloratzen da zehazki. Halaber, garrantzi handikoa da abal bidezko bermea; pisu espezifiko txikiagoa dute, berriz, diru-gordailuen bermeek eta finantza-aktiboenek.

- Jarraipen-prozesuan, berandutze aurreko barne-ereduak erabiltzen ditu Entitate Nagusiak. Horien bidez, ez-ordaintzeei aurrea hartzen zaie, eta ez-ordaintzeak gertatzeko aukera handiak proaktibotasunez kudeatzen dira.

- Berreskurapenen gestioari dagokionez, prozedura bat dago finkatuta; horren arabera, hainbat eragilek hartzen dute parte berandutzea berreskuratzen, bezero berankorra zer fasetan dagoen aintzat hartuta. Testuinguru horretan, berreskurapena kudeatzen barruko eragileek (bulegoak, Telebankak, auzi-aurreak eta auziak) eta kanpokoek (berreskuratze-agentziek) hartzen dute parte.

Entitate Nagusiak, oro har, berme errealak ondasun higiezin moduan baloratzen ditu, tasazio-balioan. Gainera, higiezinen balioa eguneratzeko politika finkatu du, Espainiako Bankuaren araudian ezarritako errekerimenduei jarraikiz.

Altxortegiaren eta Kapital-merkatuaren alorretan, finantza-erakundeekiko kreditu-arriskuari eta errenta finko pribatuari dagokienez, arrisku-politikaren azken eguneratzea 2024ko urtarrilaren 26ko Kontseilu Errektorean onetsi da eta Entitate Nagusiak kaudimenaren eta MRELaren alorretan duen arriskuarekiko grinaren araberako muga globala ezartzen du Altxortegiaren jarduerarako. Bestalde, mugak finkatzen ditu kontrako alderdiaren arabera, erreferentziaren nahiz gestorearen ondoriozko kontzentrazioaren arabera eta herrialdearen arabera. Horretarako, mugak finkatzeko prozedura ezarri da, kanpoko ratingak eta alerta-sistema oinarri hartuta.

Ondoren, Bezeroen maileguen eta aurrerakinen kontrako alderdiagatiko 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko banakapena aurkeztuko dugu, «Bestelako finantza-aktiboak» sartu gabe. Berme nagusietako bakoitzak estaltzen duen zenbatekoa zehazteaz gain, berme errealeko finantzaketen banaketaren berri ere ematen dugu, finantzaketen kontabilitate-balioak eskura dugun bermearen azken tasazioaren edo balorazioaren zenbatekoaren gainean duen ehunekoaren arabera.

2023

				Berme erreala duten maileguak. Eskura dagoen azken *loan to value* tasazioaren kopuruaren gaineko liburuetako zenbatekoa				
	Guztira	Horietatik: higiezin-bermea	Horietatik: gainerako berme errealak	% 40koa edo txikiagoa	% 40koa baino hand. eta % 60koa edo txik.	% 60koa baino hand. eta % 80koa edo txik.	% 80koa baino hand. eta % 100eko a edo txik.	% 100ekoa baino handiagoa
Administrazio publikoak	1.080.739	2.850	1.102	2.850	-	-	-	1.102
Bestelako finantza-sozietateak eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera finantzarioa)	59.991	36.271	227	20.398	5.488	238	10.095	279
Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera ez-finantzarioa) (helburuaren arabera banakatuta)	2.797.156	705.242	151.880	312.616	243.867	105.748	15.139	179.752
– Eraikuntza eta higiezinen sustapena (lurzorua barne)	21.050	19.614	-	3.542	2.657	2.255	2.324	8.836
– Obra zibileko eraikuntza	61.467	11.065	7.043	4.093	3.208	3.228	105	7.474
– Gainerako helburuak	2.714.639	674.563	144.836	304.981	238.001	100.265	12.710	163.442
Enpresa handiak	771.606	30.107	18.242	21.447	6.264	1.687	573	18.378
ETEak eta enpresaburu indibidualak	1.943.033	644.456	126.594	283.534	231.738	98.577	12.138	145.063
Gainerako etxeak (helburuaren arabera banakatuta)	10.910.950	9.953.217	14.116	2.701.065	2.844.285	3.400.398	521.605	499.980
– Etxebizitzak	10.072.128	9.819.053	11.522	2.625.423	2.808.921	3.384.932	518.427	492.872
– Kontsumoa	487.291	31.077	396	20.819	6.915	1.895	1.203	641
– Bestelako helburuak	351.531	103.087	2.198	54.823	28.450	13.571	1.975	6.466
GUZTIRA	14.848.836	10.697.580	167.325	3.036.929	3.093.640	3.506.384	546.839	681.113
PRO-MEMORIA								
Birfinantzatzeko, birfinantzatutako eta berregituratutako eragiketak	141.476	87.582	85	27.569	19.155	16.943	10.145	13.855

2022

				Berme erreala duten maileguak. Eskura dagoen azken *loan to value* tasazioaren kopuruaren gaineko liburuetako zenbatekoa				
	Guztira	Horietatik: higiezin-bermea	Horietatik: gainerako berme errealak	% 40koa edo txikiagoa	% 40koa baino hand. eta % 60koa edo txik.	% 60koa baino hand. eta % 80koa edo txik.	% 80koa baino hand. eta % 100eko a edo txik.	% 100ekoa baino handiagoa
Administrazio publikoak	1.299.779	5.779	50	4.534	-	-	-	1.295
Bestelako finantza-sozietateak eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera finantzarioa)	84.927	16.490	255	11.180	4.437	722	97	309
Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera ez-finantzarioa) (helburuaren arabera banakatuta)	2.847.046	732.525	129.591	332.175	227.628	119.637	16.437	166.237
– Eraikuntza eta higiezinen sustapena (lurzorua barne)	21.393	19.782	-	3.142	1.446	2.377	793	12.024
– Obra zibileko eraikuntza	64.212	10.681	3.845	4.490	3.270	2.324	86	4.354
– Gainerako helburuak	2.761.441	702.062	125.746	324.543	222.912	114.936	15.558	149.859
Enpresa handiak	691.150	25.462	6.028	16.979	6.179	2.053	-	6.279
ETEak eta enpresaburu indibidualak	2.070.291	676.600	119.718	307.564	216.733	112.883	15.558	143.580
Gainerako etxeak (helburuaren arabera banakatuta)	10.891.153	9.957.209	17.716	2.756.743	2.883.917	3.156.953	575.026	602.286
– Etxebizitzak	10.084.919	9.815.875	13.989	2.678.530	2.846.593	3.139.262	571.741	593.738
– Kontsumoa	444.911	27.758	443	19.085	5.454	2.127	608	927
– Bestelako helburuak	361.323	113.576	3.284	59.128	31.870	15.564	2.677	7.621
GUZTIRA	15.122.905	10.712.003	147.612	3.104.632	3.115.982	3.277.312	591.560	770.127
PRO-MEMORIA								
Birfinantzatzeko, birfinantzatutako eta berregituratutako eragiketak	129.375	90.798	473	27.312	16.076	15.670	12.374	19.838

Ondoren, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n berme nagusiek estalita dituzten Entitate Nagusiaren kreditu-arriskuen gehienezko zenbatekoaren xehetasuna emango dugu:

	2023							
	Higiezin-bermea	Pignorazio-bermea	Bestelako berme errealak	Abal edo asegurudun berme pertsonala	Abalik gabeko berme pertsonala	Sailkatu gabea	Balorazio-doikuntzak	Guztira
Bezeroen maileguak eta aurrerakinak								
Saldo erabilia	10.459.274	11.086	303.791	1.303.270	2.700.659	442.370	(247.327)	14.973.123
Bermearen balioa	26.118.666	17.945	1.252.148	1.194.433	21.590	-	-	28.604.782

	2022							
	Higiezin-bermea	Pignorazio-bermea	Bestelako berme errealak	Abal edo asegurudun berme pertsonala	Abalik gabeko berme pertsonala	Sailkatu gabea	Balorazio-doikuntzak	Guztira
Bezeroen maileguak eta aurrerakinak								
Saldo erabilia	11.501.790	15.545	305.611	1.402.875	2.634.146	(414.990)	(263.540)	15.181.437
Bermearen balioa	26.232.567	24.773	1.217.766	1.265.663	28.580	-	-	28.769.349

Hona hemen bezeroekiko eragiketak kobratzen direla bermatzeko jasotako bermeen balioa, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31koa, berme errealak eta bestelako bermeak bereizita:

Jasotako bermeen balioa	**2023**	**2022**
Berme errealen balioa	27.370.814	27.450.333
Horietatik: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu	*449.850*	*447.454*
Bestelako bermeen balioa	1.233.968	1.319.016
Horietatik: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu	103.819	75.412
Jasotako bermeen balioa guztira	**28.604.782**	**28.769.349**

Jarraian, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n emanda dauden finantza-bermeen balioari buruzko informazioa emango dugu:

	2023	**2022**
Emandako maileguen konpromisoak	1.180.033	1.069.497
Horietatik: zalantzazkoen artean sailkatutako zenbatekoa	*9.584*	*8.327*
Balantzeko pasiboan erregistratutako zenbatekoa	-	-
Emandako finantza-bermeak	159.686	215.305
Horietatik: zalantzazkoen artean sailkatutako zenbatekoa	*10.916*	*13.510*
Balantzeko pasiboan erregistratutako zenbatekoa	11.097	13.987
Emandako bestelako konpromisoak	442.426	396.560
Horietatik: zalantzazkoen artean sailkatutako zenbatekoa	*4.575*	*5.728*
Balantzeko pasiboan erregistratutako zenbatekoa	3.294	3.537

Taldeak argibide hauek eman ditu, eraikuntza eta higiezinen sustapena finantzatzen, etxebizitzaren erosketa eta zorrak ordaintzeko eskuratutako aktiboak finantzatzen eta merkatuetako finantzaketa-beharrak baloratzen erabili beharreko gardentasunaz Espainiako Bankuak emandako gomendioei jarraikiz eta eskatzen diren banakapen-ereduak aintzat hartuz:

a) Eraikuntzaren eta higiezinen sustapenaren sektorearekiko esposizioa

Eraikuntzari eta higiezinen sustapenari zuzendutako finantzaketa eta estaldura hauek dira, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n:

	2023		
	Liburuetako zenbateko gordina	Berme erreal eraginkorren gehieneko zenbateko berreskuragarriaren gaineko esposizio gordinaren soberakina	Balio-narriadura metatua
Eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne) (Espainiako negozioak)	**43.274**	**25.918**	**22.224**
Horietatik: ez-betetzedunak/zalantzazkoak	16.887	15.481	14.649
Pro-memoria:	93.679		
Aktibo kobraezinak			

Pro-memoria:	Zenbatekoa
- Administrazio publikoei ez beste bezeroei emandako maileguak (Espainiako negozioetan)	13.767.199
- Aktiboa guztira (negozio guztietan)	26.589.491
- Balio-narriadura eta ez-zalantzazkoen artean sailkatutako esposizioetarako hornidurak (negozio guztietan)	135.668

	2022		
	Liburuetako zenbateko gordina	Berme erreal eraginkorren gehieneko zenbateko berreskuragarriaren gaineko esposizio gordinaren soberakina	Balio-narriadura metatua
Eraikuntzara eta ondasun higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne) (Espainiako negozioak)	**44.041**	**25.466**	**22.647**
Horietatik: ez-betetzedunak/zalantzazkoak	18.267	13.460	14.011
Pro-memoria:			
Aktibo kobraezinak	93.734		

Pro-memoria:	Zenbatekoa
- Administrazio publikoei ez beste bezeroei emandako maileguak (Espainiako negozioetan)	13.819.356
- Aktiboa guztira (negozio guztietan)	27.754.731
- Balio-narriadura eta ez-zalantzazkoen artean sailkatutako esposizioetarako hornidurak (negozio guztietan)	136.519

Jarraian, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n eraikuntzara, higiezinen sustapenera eta etxebizitza erostera bideratutako finantzaketaren banakapena aurkeztuko dugu:

	Eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa. Liburuetako zenbateko gordina	
	2023	2022
Higiezin-bermerik gabe	10.366	11.219
Higiezin-bermearekin	32.909	32.821
Eraikinak eta bukatutako bestelako eraikuntzak	18.816	22.189
Etxebizitza	16.166	19.102
Gainerakoetan	2.650	3.087
Eraikinak eta eraikitze-bidean dauden bestelako eraikuntzak	733	1.196
Etxebizitza	683	1.146
Gainerakoak	50	50
Lurzorua	13.360	9.436
Hiri-lurzoru finkatua	13.140	8.861
Gainerako lurzorua	220	575
Guztira	**43.275**	**44.040**

Hauxe da familiei etxebizitza erosteko emandako kredituen xehakapena, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n:

	2023		2022	
	Liburuetako zenbateko gordina	Horietatik: zalantzazkoak	Liburuetako zenbateko gordina	Horietatik: zalantzazkoak
Etxebizitza eskuratzeko maileguak	**9.875.484**	**126.392**	**9.851.188**	**117.119**
Hipoteka-bermerik gabe	206.825	2.586	220.299	2.586
Hipoteka-bermearekin	9.668.660	123.805	9.630.889	114.533

Hauek dira familiei etxebizitza erosteko emandako hipoteka-bermedun kredituaren banakapenak, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n eskura dagoen azken tasazioaren gainean arrisku osoak duen ehunekoaren arabera:

	Azken loan to value tasazioaren zenbatekoaren gaineko liburuetako zenbateko gordina					
	2023					
	% 40koa edo txikiagoa	% 40koa baino hand. eta % 60koa edo txik.	% 60koa baino hand. eta % 80koa edo txik.	% 80koa baino hand. eta % 100ekoa edo txik.	% 100ekoa baino handiagoa	Guztira
Liburuetako zenbateko gordina	2.495.263	2.760.566	3.366.123	524.617	522.091	9.668.660
Horietatik: ez-betetzedunak/zalantzazkoak	14,995	22.376	28.298	19.162	38.974	123.805

	Azken *loan to value* tasazioaren zenbatekoaren gaineko liburuetako zenbateko gordina					
	2022					
	% 40koa edo txikiagoa	% 40koa baino hand. eta % 60koa edo txik.	% 60koa baino hand. eta % 80koa edo txik.	% 80koa baino hand. eta % 100ekoa edo txik.	% 100ekoa baino handiagoa	Guztira
Liburuetako zenbateko gordina	2.538.294	2.790.430	3.113.190	572.017	616.959	9.630.890
Horietatik: ez-betetzedunak/zalantzazkoak	11.615	18.502	24.314	19.022	41.080	114.533

Hona hemen zorrak ordaintzeko jasotako aktiboen xehetasuna, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n:

	2023		2022	
	Liburuetako zenbateko gordina	Balio-narriadura metatua	Liburuetako zenbateko gordina	Balio-narriadura metatua
Eraikuntzako eta higiezinen sustapeneko enpresetarako finantzaketetatik datozen aktibo higiezinak	376.811	343.243	397.031	361.572
Amaitutako eraikinak eta eraikuntzak	16.995	16.962	21.009	16.191
Etxebizitza	5.066	5.066	5.151	4.387
Gainerakoak	11.929	11.896	15.858	11.804
Eraikinak eta eraikitze-bidean dauden bestelako eraikuntzak	53.596	20.061	50.153	22.931
Etxebizitza	49.694	17.078	46.362	20.903
Gainerakoak	3.902	2.983	3.791	2.028
Lursailak	306.220	306.220	325.869	322.450
Hiri-lurzoru finkatua	121.041	121.041	124.532	123.406
Gainerako lurzorua	185.179	185.179	201.337	199.044
Familiei etxebizitza erosteko emandako hipoteka-finantzaketetatik datozen aktibo higiezinak	22.335	14.176	25.366	7.686
Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako gainerako aktibo higiezinak	26.024	21.851	30.909	18.206
Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako kapital-tresnak	-	-	-	-
Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako aktibo higiezinak dituzten erakundeen kapital-tresnak	-	-	-	-
Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako aktibo higiezinak dituzten erakundeentzako finantzaketa	-	-	-	-
Guztira	**425.170**	**379.270**	**453.306**	**387.464**

Segidan, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n eraikuntzarako eta higiezinen sustapenerako erabilitako finantzaketari lotutako bermeen balioa aurkeztuko dugu:

Jasotako bermeen balioa – Eraikuntza eta higiezinen sustapena	**2023**	**2022**
Berme errealen balioa	153.458	145.859
Horietatik: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu	*29.109*	*33.016*
Bestelako bermeen balioa	1.684	2.016
Horietatik: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu	-	-
Jasotako bermeen balioa guztira	**155.142**	**147.875**

Eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako eragiketei emandako berme finantzarioen balioa, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31koa, aurkeztuko dugu jarraian:

	2023	**2022**
Eraikuntzarako eta higiezinen sustapenerako emandako finantza-bermeak	23.709	19.706
Balantzeko pasiboan erregistratutako zenbatekoa	767	841

8/2012 Legeak xedatutakoa betez, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n Entitate Nagusiak aktiboak kudeatzeko sozietate batean ditu eraikuntza eta higiezinen sustapena finantzatzetik datozen aktibo higiezinak. Horien xehetasuna eta partaidetzaren ehunekoa urteko kontu bateratu hauen txostenaren I. eranskinean azaltzen da.

b) Birfinantzamendu-eragiketak

Entitate Nagusiak onartuta dauka arriskuak berrantolatzeko politika. Horren arabera, arriskuak kudeatzeko tresna da eragiketak berrantolatzea, eta adiskidantzako berreskurapenera zuzenduta dago. Hala, birfinantzamendu-eragiketak eta berregituratutako edo berritutako eragiketak bereizten dira. Lehenengoetan, eragiketa berri bat ematen da aurretikoa ezerezteko; bigarrenetan, berriz, irekita dagoen eragiketa baten baldintza bat edo batzuk aldatzen dira.

Politika horretan, halaber, halako eragiketak berresteko ahalmenak ezarri dira, horiek ordaindu gabeko kuotak (berankorrak) izan ala ez. Ahalmen hori Arriskuen Gestioaren Departamentuak (eta bere sekzioek) izango du beti.

2020ko ekitaldian, 3/2020 Zirkularra sartu zen indarrean, birfinantzamendu eta berregituratze jakin batzuen kontabilitate-tratamendua aldatu zuena (2.3 oharra). Birfinantzamendu- edo berregituratze-eragiketak Stage 1 multzokoen artean sailkatzen ez direnean, honela sailkatuko dira:

b.1) Stage 2 – Zaintza bereziko arrisku normala

Zalantzazkoa eta kobraezina ez dena, baina ahuleziak dituena. Operatiboki, gainerakoak baztertu ondoren esleituko da tipologia hori: birfinantzatzeko edo berregituratzeko eragiketa geroago zerrendatuko diren tipologiaren batean sailkatzen ez bada, baina kreditu-arriskuan hazkunde nabarmena badu.

b.2) Stage 3 – Zalantzazkoa, berankortasunaren ondorioz

90 egunetik gorako ez-betetzeak dituzten birfinantzatutako edo berregituratutako eragiketak.

b.3) Stage 3 – Zalantzazkoa, berankortasuna ez den bestelako arrazoiengatik

Osorik itzuliko den arrazoizko zalantzak daudenean. Egoera horren aztarnak edo adierazleak aztertuko dira.

Kreditu-arriskuaren galera (nahitaezko zuzkidura) zenbatespen kolektibo bidez estaliko da, salbu eta «garrantzizkotzat» jotzen direnak (3 milioi eurotik gorakoak, zalantzazko eragiketetan eta zaintza bereziko arrisku normalekoetan) edota faktore ez-automatikoengatik «Zalantzazkoa, berankortasuna ez den bestelako arrazoiengatik» multzoan sailkatu direnak. Halakoetan, banaka aztertuz erabakiko da beharrezko zuzkidura.

Banakako zenbatespena egiteko, eredutik lortutako zuzkidura-proposamena izango du arrisku-analistak esku artean, eta, azkenean, ereduaren proposamena eta eragiketaz duen ezagutza aintzat hartuta erabakiko du beharrezko zuzkidura.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

URTEKO KONTUEN TXOSTENA, 2023KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

FINA 9aren errekerimenduei jarraikiz; eragiketak birfinantzatzekoen, birfinantzatutakoen eta berregituratutakoen artean bereizteko irizpideak zehazten dituzten 2012ko irailaren 28ko 6/2012 Zirkularrak eta 2017ko azaroaren 27ko 4/2017 Zirkularrak egindako aldaketak betez, eta Entitate Nagusiak horren harira zehaztutako politiken arabera, birfinantzatzeko, birfinantzatutako eta berregituratutako eragiketen 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko xehetasunak azalduko ditugu jarraian.

2023ko ekitaldia

	GUZTIRA							Horietatik: ez-betetzedunak/zalantzazkoak						
	Berme errealik gabe		Berme errealarekin				Balio-narriadura metatua	Berme errealik gabe		Berme errealarekin				Balio-narriadura metatua
					Kontuan har daitekeen berme errealaren gehieneko zenbatekoa							Kontuan har daitekeen berme errealaren gehieneko zenbatekoa		
	Eragiketa-kopurua	Liburuetako zenbateko gordina	Eragiketa-kopurua	Liburuetako zenbateko gordina	Higiezin-bermea	Gainerako berme errealak		Eragiketa-kopurua	Liburuetako zenbateko gordina	Eragiketa-kopurua	Liburuetako zenbateko gordina	Higiezin-bermea	Gainerako berme errealak	
Kreditu-erakundeak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Administrazio publikoak	-	-	1	5.700	5.700	-	(2.850)	-	-	1	5.700	5.700	-	(2.850)
Bestelako finantza-sozietateak eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera finantzarioa)	5	33	2	255	255	-	(23)	4	33	2	255	255	-	(23)
Finantzen alorrekoak ez diren sozietateak eta enpresaburu indibidualak (finantzen alorrekoa ez den enpresa-jarduera)	971	100.532	308	47.978	44.134	171	(72.103)	539	59.050	245	33.396	31.143	107	(57.996)
Horietatik: eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne)	5	9.813	21	12.771	10.931	-	(18.216)	4	5.041	16	6.716	6.404	-	(10.816)
Gainerako familiak	647	7.464	854	87.097	80.188	15	(32.607)	348	4.498	548	58.331	53.352	-	(29.336)
GUZTIRA	1.623	108.029	1.165	141.030	130.277	186	(107.583)	891	63.581	796	97.682	90.450	107	(90.205)
INFORMAZIO GEHIGARRIA														
Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronte eta elementu-multzo besterengarri moduan sailkatutako finantzaketa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-

2022ko ekitaldia

	GUZTIRA							Horietatik: ez-betetzedunak/zalantzazkoak						
	Berme errealik gabe		Berme errealarekin				Balio-narriadura metatua	Berme errealik gabe		Berme errealarekin				Balio-narriadura metatua
					Kontuan har daitekeen berme errealaren gehieneko zenbatekoa							Kontuan har daitekeen berme errealaren gehieneko zenbatekoa		
	Eragiketa-kopurua	Liburuetako zenbateko gordina	Eragiketa-kopurua	Liburuetako zenbateko gordina	Higiezin-bermea	Gainerako berme errealak		Eragiketa-kopurua	Liburuetako zenbateko gordina	Eragiketa-kopurua	Liburuetako zenbateko gordina	Higiezin-bermea	Gainerako berme errealak	
Kreditu-erakundeak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Administrazio publikoak	-	-	1	6.080	6.080	-	(3.040)	-	-	1	6.080	6.080	-	(3.040)
Bestelako finantza-sozietateak eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera finantzarioa)	5	51	3	320	320	-	(32)	4	48	1	160	160	-	(31)
Finantzen alorrekoak ez diren sozietateak eta enpresaburu indibidualak (finantzen alorrekoa ez den enpresa-jarduera)	886	50.843	358	90.017	54.930	666	(69.286)	542	25.894	271	70.816	38.465	178	(59.490)
Horietatik: eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne)	2	287	21	14.109	11.609	-	(9.912)	2	287	16	7.402	7.075	-	(5.326)
Gainerako familiak	600	6.475	767	72.395	64.436	24	(24.448)	334	3.910	492	51.276	45.814	-	(20.901)
GUZTIRA	**1.491**	**57.369**	**1.129**	**168.812**	**125.766**	**690**	**(96.806)**	**880**	**29.852**	**765**	**128.332**	**90.519**	**178**	**(83.462)**
INFORMAZIO GEHIGARRIA														
Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronte eta elementu-multzo besterengarri moduan sailkatutako finantzaketa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-

Jarraian, birfinantzatu edo berregituratu ostean ekitaldian zaintza bereziko arrisku normalekoen eta zalantzazkoen artean sailkatutako eragiketen zenbateko gordin osoa (2023ko eta 2022ko abenduaren 31koa) dago xehatuta:

	2023		
	Zenbateko gordina		
	Higiezinen erabateko hipoteka-bermea	Gainerako berme errealak	Berme errealik gabe
Administrazio publikoak	-	-	-
Gainerako pertsona juridikoak eta enpresaburu indibidualak	6.319	172	50.847
Horietatik: eraikuntzari eta higiezinen sustapenari zuzendutako finantzaketa	*258*	-	-
Gainerako pertsona fisikoak	36.572	-	3.468
Horietatik: eraikuntzari eta higiezinen sustapenari zuzendutako finantzaketa	-	-	-

	2022		
	Zenbateko gordina		
	Higiezinen erabateko hipoteka-bermea	Gainerako berme errealak	Berme errealik gabe
Administrazio publikoak	-	-	-
Gainerako pertsona juridikoak eta enpresaburu indibidualak	9.495	232	30.732
Horietatik: eraikuntzari eta higiezinen sustapenari zuzendutako finantzaketa	*251*	-	-
Gainerako pertsona fisikoak	18.986	18	2.692
Horietatik: eraikuntzari eta higiezinen sustapenari zuzendutako finantzaketa	*112*	-	-

Hona hemen birfinantzamendu- eta berregituratze-eragiketak kobratzen direla bermatzeko jasotako bermeen balioa, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31koa, berme errealak eta bestelako bermeak bereizita:

Jasotako bermeen balioa – Birfinantzamenduak	**2023**	**2022**
Berme errealen balioa	328.604	336.688
Horietatik: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu	240.100	234.035
Bestelako bermeen balioa	89.930	50.083
Horietatik: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu	53.801	24.207
Jasotako bermeen balioa guztira	**418.534**	**386.771**

Hona hemen 2023ko eta 2022ko ekitaldietako birfinantzamenduen eta berregituratzeen saldoaren mugimendua, lotutako hornidurak kenduta:

	2023	**2022**
Irekierako saldoa	**129.375**	**151.636**
(+)/(–) Epealdiko birfinantzamenduen eta berregituratzeen sarrerak/irteerak	32.958	(13.307)
Pro-memoria: epealdiko galdu-irabazien kontuan erregistratutako eragina	*(5.755)*	*15.114*
(–) Zorraren amortizazioak	(13.611)	(21.725)
(–) Esleipenak	(621)	(1.378)
(–) Balantzeko baja (kobraezinetan birsailkatzea)	-	-
(+)/(–) Bestelako aldakuntzak	(6.625)	14.149
Ekitaldi-amaierako saldoa	**141.476**	**129.375**

16. Likidezia-arriskua

Likidezia-arriskuak bi definizio ditu:

- Funtsen likidezia-arriskua: Entitate Nagusia gai ez izatea egungo eta etorkizuneko aurreikusitako eta ezusteko kutxako fluxuei eta ordainketa-obligazioen ondoriozko berme-ekarpenei eraginkortasunez erantzuteko, eguneroko jardunari edo finantza-egoerari kalterik eragin gabe.

- Merkatuko likidezia-arriskua: merkatuan sakontasunik ez izatearen edo distortsioak egotearen ondorioz finantza-erakundeek posizio bat merkatuko prezioetan konpentsatu edo desegiteko gaitasunik ez izateari egiten dio erreferentzia.

Entitate Nagusiak helburu estrategikotzat jo izan du, beti, likidezia; ondorioz, sistematikoki kudeatu eta kontrolatu izan du, azken bi hamarkadetan. Testuinguru horretan, Likidezia-arriskuaren inguruko politika eta prozeduren eskuliburua du Caja Laboral Popular Coop. de Créditok, Kontseilu Errektoreak onartuta. Eskuliburu horrek, Basileako Banku Ikuskaritzako Batzordearen «Likidezia-arriskua egoki kudeatzeko eta gainbegiratzeko printzipioak» (2008ko iraileko dokumentua) betetzeaz gain, hainbat likidezia-helburu ez ezik, alerta-mailak eta jarduketa-protokoloak jasotzen dituen kontingentzia-plana ere finkatzen du. Egoera horretan, aipatzekoa da, halaber, Entitate Nagusiak Arriskuarekiko Grinaren Esparrua sortu zuela 2015ean. Baimentze- eta hobetze-prozesu sistematikoa ezartzen zaio, eta, bertan, likidezia-arriskuaren funtsezko adierazle batzuetarako grinaren eta tolerantziaren atalaseak jaso dira. Bestalde, Recovery Plana ere egin zuen, likidezia-krisietarako alerta-mailak eta jarduketa-protokoloak eguneratzeko.

Prozeduretan ezarritako eginkizunetan sakonduz, likideziaren kudeaketak kontrol-sistema bat du euskarri. Horren bidez, batetik, funtsezko zenbait adierazletarako mugak eta aurreko adierazleetarako edo aparteko beste batzuetarako epe ertainerako hileko likidezia-helburuak ezartzen dira eta, bestetik, muga eta helburu horiek zenbateraino bete diren sistematikoki kontrolatu. Muga eta helburu horiek hilean behin egiten den finantzaketa-plan baten bidez kontrolatzen dira. Inbertitzeko moduko baliabideen, kreditu-inbertsioaren eta handizkako finantzaketaren bilakaerari buruzko aurreikuspenak jasotzen ditu —aurreikuspenok mugen eta helburuen xede diren adierazleen bilakaera zehazten dute—. Horrela, Aktiboen eta Pasiboen Batzordeak (APBk) aukera du epe ertainean adierazle horiei eta likideziari aurreikusten zaien bilakaerari buruzko informazioa eguneratuta izateko etengabe. Horrela, agregatuen bilakaeran likidezian eragiten duten desorekak zuzentzeko ekintzak bidera ditzake APBk, behar adinako aurrerapenez. Likidezia-helburuen artean, aktibo likido erabilgarriak eta hainbat likidezia-ratio daude, LCR ratioa barne hartuta. 2023ko ekitaldia ixtean, Entitate Nagusiak maila oso altua du bertan; izan ere, aise bete du arautzaileak 2018ko urtarrilaren 1erako ezarritako muga.

Zehazki, 2023ko itxieran honako hauek ditu Entitate Nagusiak:

- % 439ko LCR ratioa.

- *Haircut*ak aplikatu ostean, 6.472 milioi euroko aktibo likido deskontagarriak (eta erabilgarriak) Europako Banku Zentralean (EBZn), ezusteko kontingentziei aurre egiteko. Zenbateko horretatik, 2.676 milioi euro EBZren polizan daude eskuragarri, eta 3.796 milioi euro EBZko aktibo hautagarriak dira, pignorazioaren bidez eskuratzeko modukoak. Entitate Nagusiak likidezia-maila garbi positiboari eutsi dio urtean zehar.

- 1.261 milioi euroko saldoa, Espainiako Bankuko kontu korrontean; horietatik 218,8 milioi euro kutxa-koefizienteari dagozkio.

- % 66,3ko loan-to-deposit ratioa.

- Entitate Nagusiak zuhurtasun-politika erabili duen handizkakoen finantzaketa:

    - 2024ko ekainean mugaeguneratuko diren 180 milioi euro, EBZtik (TLTROtik) hartuta, balantze osoaren % 1.

Entitate Nagusiaren finantzaketa-egitura honela dago banatuta:

	2023	
Finantzaketa-egitura	**Milioi eurokotan**	**%-a**
Bezeroen gordailuak	21.941	84,22
Hipoteka-zedulak (1)	-	0,00
EBZtik jasoa	180	0,69
Titulizazioak (1)	-	0,00
KOI finantzaketa	1	0,01
Aktiboa guztira	26.053	

(1) Autozorroa ez da sartzen.

Epe ertainerako likidezia-beharrak behar bezala estalita daude, finantzaketa-gaitasunen bidez. Horrela, bada, *haircut*ak aplikatu ostean eskuragarri dauden aktibo likido garbiak eta Entitate Nagusiaren jaulkipen-gaitasuna aurkeztuko ditugu ondorengo tauletan:

	Milioi eurokotan	
	2023-12-31	
	Erabilia	**Erabilgarria**
Aktibo likido garbiak (2)	180	6.472

(2) Espainiako Bankuaren likideziaren egoera-orrietarako irizpideak (errenta aldakorra kanpo utzita).

Jaulkipen-gaitasuna	**Milioi eurokotan**
Hipoteka-zedulak jaulkitzeko gaitasuna	5.717
Lurralde-zedulak jaulkitzeko gaitasuna	691
	6.408

Bestalde, taula honetan Entitate Nagusiaren aktiboen eta pasiboen azterketa jaso da (milioi eurokotan), Espainiako Bankuak igorritako egoera-orrien likideziari buruzko irizpideei jarraikiz, hondar-epemuga kontuan hartuta —kanpo utzi dira mugaeguneratutako saldoak, zalantzazko kreditu-inbertsioa, esleituak eta kobraezinak—:

2023

AKTIBOEN ETA PASIBOEN BANAKETA MUGA-EGUNEKO TARTEEN ARABERA

	Milioi eurokotan							
	Saldoa guztira	Agerikoak	Hilabetera artekoak	1 eta 3 hilabete artekoak	3 eta 6 hilabete artekoak	6 hilabete eta urtebete artekoak	1 eta 5 urte artekoak	5 urtetik gorakoak
Sarrerak GUZTIRA	25.131	45	305	510	834	1.897	6.625	14.915
Irteerak GUZTIRA	(23.280)	(19.107)	(758)	(193)	(620)	(2.204)	(240)	(158)
Garbia	1.851	(19.062)	(453)	317	214	(307)	6.385	14.757

2022

AKTIBOEN ETA PASIBOEN BANAKETA MUGA-EGUNEKO TARTEEN ARABERA

	Milioi eurokotan							
	Saldoa guztira	Agerikoak	Hilabetera artekoak	1 eta 3 hilabete artekoak	3 eta 6 hilabete artekoak	6 hilabete eta urtebete artekoak	1 eta 5 urte artekoak	5 urtetik gorakoak
Sarrerak GUZTIRA	27.616	1.020	300	446	904	1.616	8.162	15.168
Irteerak GUZTIRA	(24.956)	(22.640)	(549)	-	(845)	(72)	(602)	(248)
Garbia	2.660	(21.620)	(249)	446	59	1.544	7.560	14.920

17. Interes-tasaren arriskua

Entitate Nagusiaren emaitza-kontuan eta ondare-balioan interes-tasen aurkako mugimendu batek eragin ditzakeen galerekin du zerikusia interes-tasaren arriskuak.

Kontseilu Errektoreak Aktiboen eta Pasiboen Batzordearen (APBren) eskutan du utzita arrisku hori kontrolatu eta kudeatzeko zeregina, eta Kontseilu Errektoreak finkatutako eta urtean behin berrikusitako mugen barruan jarduten du. Merkatuko eta kontrako egoera bateko interes-tasen artean gehienez onar daitekeen galeraren arabera ezartzen dira mugok.

APBk sistematikoki aztertzen du interes-tasaren arriskuaren eragina, eta, kudeaketa aktiboaren bidez, merkatuko interes-tasen bilakaera kaskarrek epe ertainera galdu-irabazien kontuan izan dezaketen eragin negatiboari aurrea hartzen saiatzen da. Erabaki bat edo beste bat hartzeko, APB simulazioetan oinarritzen da. Simulazioek balantzeko eta balantzetik kanpoko egiturazko posizioak aztertu eta interes-tasa ezberdinen aurrean Entitate Nagusiak epe luzera izango dituen emaitzak neurtzen dituzte.

Interes-tasekiko sentikorrak diren partiden gap estatikoa bildu dugu ondoko taulan. Entitate Nagusiak interes-tasen gorabeheren aurrean duen arriskuarekiko lehen hurbilpena da. Halere, gaparen berezko supostuen mugak kontuan hartuta, ez da egokia Caja Laboralak arrisku hori neurtzeko erabili izan duen teknika, aurreko paragrafoan azaldu dena.

	Milioi eurokotan								
	Balantzeko saldoa 23-12-31n	Hilabetera artekoak	1 eta 3 hilabete artekoak	3 hilabete eta urtebete artekoak	Urtebete eta 2 urte artekoak	2 eta 3 urte artekoak	3 eta 4 urte artekoa	4 eta 5 urte artekoak	5 urtetik gorakoak
Aktibo sentikorrak	26.011	4.123	2.473	9.190	1.619	1.159	821	876	5.750
Diru-merkatua	1.795	1.689	0	51	55	0	0	0	0
Kreditu-merkatua	16.341	2.045	2.395	5.158	866	1.122	623	819	3.312
Balore-merkatua	7.875	389	77	3.981	697	37	198	57	2.438
Pasibo sentikorrak	22.828	2.966	2.600	*9.394*	*33*	*20*	*20*	*30*	*7.763*
Handizkako merkatua	183	181	0	1	0	0	0	0	0
Gainerako hartzekodunak	22.645	2.785	2.600	9.393	33	20	20	30	7.763
GAP arrunta		1.156	(127)	(204)	1.585	1.139	801	846	(2.013)
Pasibo Osoarekiko %-a		% 4	(% 0)	(% 1)	% 6	% 4	% 3	% 3	(% 8)
GAP metatua		1.156	1.029	825	2.410	3.549	4.350	5.196	3.183
Pasibo Osoarekiko %-a		% 4	% 4	% 3	% 9	% 14	% 17	% 20	% 12

	Milioi eurokotan								
	Balantzeko saldoa 22-12-31n	Hilabetera artekoak	1 eta 3 hilabete artekoak	3 hilabete eta urtebete artekoak	Urtebete eta 2 urte artekoak	2 eta 3 urte artekoak	3 eta 4 urte artekoa	4 eta 5 urte artekoak	5 urtetik gorakoak
Aktibo sentikorrak	26.974	4.109	2.666	8.760	3.003	1.329	717	674	5.716
Diru-merkatua	1.520	1.520	-	-	-	-	-	-	-
Kreditu-merkatua	16.163	2.215	2.663	5.522	731	592	687	500	3.254
Balore-merkatua	9.291	375	3	3.238	2.271	737	29	175	2.463
Pasibo sentikorrak	24.239	2.950	4.300	*8.351*	*40*	*17*	*20*	*35*	*8.527*
Handizkako merkatua	1.044	48	1.002	1	(1)	(5)	-	-	-
Gainerako hartzekodunak	23.195	2.903	3.298	8.350	41	22	20	35	8.527
GAP arrunta		1.159	(1.633)	409	2.963	1.312	697	639	(2.811)
Pasibo Osoarekiko %-a		% 4	(% 6)	% 2	% 11	% 5	% 3	% 2	(% 10)
GAP metatua		1.159	(474)	(65)	2.898	4.210	4.906	5.545	2.735
Pasibo Osoarekiko %-a		% 4	(% 2)	(% 0)	% 11	% 16	% 18	% 21	% 10

Kontratuan interes-tasa bat ezarrita duten partidak interes-tasekiko sentikorrak dira, eta, beraz, gapean jasotzen dira. Gainerakoak kanpoan geratzen dira; hau da, balorazio-doikuntzak, kreditu sailkaezina, kutxa, ibilgetua (esleituak barne), deribatuak, hainbat kontu eta periodifikatze-kontuak, Gizarte Ekintzako Funtsa, funts bereziak, kapitala eta erreserbak, eta ekitaldiko emaitzak.

Gap horretan, sentikortzat jotako partidak dagokien denbora-tarteetan banatzen dira, ondoren adierazi ditugun irizpideei jarraikiz. Interes-tasa aldakorreko produktuak interes-tasa berrikusten (balioa handitzen) zaien denbora-tartean kokatzen dira. Bestalde, interes-tasa finkoko partidak hondar-epemugaren arabera banatzen dira. Ageriko produktuetarako, saldoen aldakortasun-estimazioak kontuan hartuta, haien portaerari buruzko hipotesiak eman ditu Entitate Nagusiak. Epemuga espliziturik gabeko kontu-mota bakoitzerako —ordainketarik

gabeko kontuak, administratuak eta erreferentziatuak— analisi estatistikoak egin dira, kontu horien interes-tasaren eta merkatuaren interes-tasaren bilakaera aintzat hartuta.

Entitate Nagusiak gainbegiralearentzat egiten dituen inpaktu-azterketen arabera, interes-tasek oinarrizko 200 puntu behera eginez gero, interesen marjina % 7,17 inguru txikituko litzateke, lehen urtean. Gainbegiraleak azterketa horiek egiteko ezarritako irizpideak hauek dira: hasierako saldoei eta balantzearen egiturari eustea, interes-tasak merkatu-igurikimenen arabera garatzea, ordainketarik gabeko eta administratutako kontu korronteetarako 5 urteko iraupena finkatzea eta merkatuko interes-tasetarako –% 1,5 eta % 0 bitarteko zorua ezartzea, hurrenez hurren agerikoen eta 50 urtekoen artean dauden epeetarako.

Balio ekonomikoaren gaineko inpaktuari dagokionez, interes-tasetako oinarrizko 200 puntuko beherakadak 148,5 milioi euroko jaitsiera eragingo luke Entitate Nagusiaren balio ekonomikoan, hau da, baliabide propioen % 7,28 ingurukoa. Halaber, magnitude bera handituz gero, 42,0 milioi euroko hazkundea eragingo luke Entitate Nagusiaren balio ekonomikoan, hau da, baliabide propioen % 2,06koa. Ondare-balioa kalkulatzeko, interes-tasaren gaparen atalean aipatu diren irizpide berberak erabili dira. Duela gutxi, Europako Banku Agintaritzak interes-tasen arriskua kudeatzeko arau teknikoak argitaratu ditu Europako banku guztientzat, eta 2024ko irailetik aurrera hartuko dute indarra, aurreikusitakoaren arabera.

18. Merkatuko bestelako arriskuak

2023an azpimarratzekoa da Estatu Batuetako eskualde-mailako bankuen eta Credit Suisseren krisia, martxoan piztu zena, baita ekitaldiko gertakari geopolitikoak ere (Ukraina-Errusia, Israel-Palestina…). Hala ere, 2022an bezala, banku zentralen diru-politika eta erabakiak izan dira finantza-merkatuen eragile nagusiak.

Magnitude makroekonomikoei dagokienez, 2023an ekonomia globala % 3,2 haztea espero zen, aurreko urteko % 3,4aren azpitik. Dena den, urte-hasierako aurreikuspenetakoa baino dezelerazio txikiagoa izango du. Ia herrialde guztiek izan dute goranzko joera hazkunde-tasan. AEBko ekonomia % 2,5 hazi da (2023ko hasieran, % 0,3koa zen aurreikuspena); Eurogunean, berriz, % 0,5ekoa izan da igoera (azpimarratzekoa da Espainiakoa, % 2,5eko hazkundea izan baitu urtearen amaieran). Alemania, % 0,1eko beherakadarekin, ez da gai izan duela urtebete aurreratutako atzeraldi txikia gainditzeko. Beste eremu geografiko batzuen kasuan, Erresuma Batuak % 0,5eko gorakada izan du, Japoniak % 1,2koa eta garatzeko bidean dauden herrialdeek % 4,2koa. India da aipatzekoa, % 6,7ko hazkunde-tasa izan baitu.

Espero baino hazkunde handiagoko egoera horretan, inflazioaren moderazioa motela izan da urtean zehar. Urritik aurrera, handiagoa izan da prezioen adierazleen murrizketa. Besteak beste, eskaintza-osagaien, botila-lepoen eta lehengaien oinarrizko efektuek eragiten dute hori. Inflazio-tasei dagokienez, hauek dira argitaratutako azken datuak: % 3,4koa AEBn eta % 2,9koa eurogunean; Espainian, berriz, % 3,1 hazi da KPIa.

2023an, AEBko Erreserba Federalaren kasuan, oinarrizko 100 puntura arteko igoerak izan dira, % 5,5erainokoak, eta, EBZren kasuan, oinarrizko 200 puntura artekoak, % 4,5erainokoak. Urritik aurrera, inflazio-datuen dezelerazioarekin batera, banku zentralen mezua aldatu egin da; horren ondorioz, kotizazioak suspertu egin dira, eta horrek finantza-merkatuetan urteko saldoa positiboa izatea ahalbidetu du.

Burtsa-merkatuan, S&P500 indizeak % 24,2ko balioa erregistratu du; Nasdaqak, berriz, % 43,4koa. Eurostoxx50 indizeak % 19,2arekin itxi du urtea; Ibex indizearen bilakaera da aipagarriena, % 22,8ko igoera izan baitu. Erresuma Batuak, 2022an urte erlatibo hobea izan ondoren, % 3,8ko igoerarekin itxi du 2023a. Japoniako indize nagusia % 28,2 igo da, eta garatzeko bidean dauden herrialdeetako MSCI indizeak % 7ko errentagarritasun positiboa erregistratu du urtean; bestalde, Txinako baloreen portaera txarra nabarmendu behar da.

Errenta finko pribatuan, kreditu-diferentzialak uzkurtzen ari direla, Europako Bloomberg Investment Grade indizeak % 8,1 irabazi du; High Yieldena apur bat hobea izan da: % 12,1ekoa. Garatzeko bidean dauden herrialdeetako indizeak % 7,6ko igoera izan du.

Zor publikoko merkatuetan ere gainbalioak izan dira nagusi, kurbaren tarte guztietan egin baitute behera interes-tasek. Italiako, Espainiako eta Alemaniako Bloomberg indize subiranoen errentagarritasuna % 9, % 7 eta % 6 ingurukoa izan da urte-amaieran, hurrenez hurren; AEBkoarena, berriz, % 4koa izan da.

Dibisen bilakaerari dagokionez, euroak % 3,1 egin du gora dolarrarekiko ekitaldian; aldiz, % 2,1 egin du behera libera esterlinarekiko, eta ia % 11 gora Japoniako yenarekiko.

Bestelako aktiboek, hala nola urreak edo bitcoinak, errebalorizazio handiekin itxi dute urtea. Aitzitik, lehengaien indize orokorrek, eta zehazki petrolioaren prezioak, behera egin dute 2023an.

Kontuan izanik aktibo arriskutsuek gure inbertsio-zorroetan duten esposizio-maila baxua, positiboa baina mugatua izan da bilakaera horren eragina.

Interes-tasa handiagoak diren ingurune honetan, estrategiak ezarri dira hurrengo ekitaldietan Entitate Nagusiaren irabaziak hobetzeko eta, aldi berean, interes-tasen balizko jaitsieren aurrean arriskua murrizteko. Zehazki, minusbalioak izan dira —finantza-eragiketen emaitzan—, Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan eta Finantza-aktiboak kostu amortizatuan saltzearen bidez, eta errentagarritasun handiagoa espero zaion zorro berri bat sortu da, etorkizuneko emaitzetan ekarpen positiboa egingo duena.

19. Eragiketa-arriskua

Prozesuetan, pertsonalean nahiz barruko sistemetan gertatutako desegokitasun edo akatsen nahiz kanpoko faktoreen ondorioz Entitateak izan ditzakeen galerei buruzkoa da eragiketa-arriskua.

Caja Laboral Popular Coop. de Créditok metodo estandarra erabiliz informatzen du arautzailea, hain zuzen ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 Erregelamenduan deskribatutako metodologiaren arabera.

Ikuspegi kualitatiboari begira, departamentu guztien arrisku-mapak eta kontrolak ditu Taldeak. Arrisku horiek noizean behin ebaluatzen dira, eta, ondoren, arriskurik larrienak arintzeko ekintza-planak taxutzen dira.

Gaur egun, Taldeak 60 koordinatzaileko eta 30 balidatzaileko sarea du, sistemak eskatzen dituen zereginak (autoebaluazioak eta ekintza-planak) gauzatu ahal izateko.

Ikuspegi kuantitatibotik, eragiketetan galdutakoen barneko datu-basea du Taldeak 2002tik. Galera bakoitza Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 Erregelamenduak zehaztutako gertaera-mota eta negozio-linea bati dago esleituta.

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito CERO (Consorcio Español de Riesgo Operacional – Eragiketa Arriskuaren Espainiako Partzuergoa) taldeko partaide da. Bertan, estatuko finantza-erakunde nagusiak daude ordezkatuta, eta eragiketa-arriskuaren alorreko informazioa eta esperientziak partekatzen dira.

20. Aseguru-eragiketen arriskua

Hona hemen Taldeak aurre egin beharreko aseguru-eragiketen arrisku nagusiak:

- Hilkortasun-arriskua: hilkortasun-tasen mailan, joeran edo hegakortasunean gertatzen diren aldaketak, baldin eta hilkortasun-tasaren igoerak hartutako konpromisoen balioa handitzea badakar.

- Longebitate-tasa: longebitate-tasen mailan, joeran edo hegakortasunean gertatzen diren aldaketak, baldin eta hilkortasun-tasaren jaitsierak hartutako konpromisoen balioa handitzea badakar.

- Erorketa-arriskua: aseguru-kontratuen hartzaileek egindako ezerezte-, berritze- eta benetako erreskate-tasen mailan, joeran edo hegakortasunean gertatzen diren aldaketak, aplikatutako erorketa-hipotesien aldean.

- Gastu-arriskua: aseguru- edo berraseguru-kontratuak betetzeko gastuen mailan, joeran edo hegakortasunean gertatzen diren aldaketak, produktuen horniduren tarifikazioan eta eraketan aurreikusitako errekarguen aldean.

- Ezbehar-arriskua: aseguru- edo berraseguru-kontratuen ezbehar-maiztasunean gertatzen diren aldaketak, aurreikusitako ezbehar-tasaren aldean.

Taldeak aseguruen balorazio-hipotesiak, kaudimenari buruzko II. araudiko horniduren balorazio-mekanismoekin bat datozenak, erabiltzen ditu, arrisku horiek behar bezala neurtzeko eta haien jarraipena egiteko. Hipotesi horien oinarriak dira, alde batetik, ingurune ekonomikoko hilkortasunaren, longebitatearen, erorketen, gastuen eta ezbeharren inguruko estimaziorik onena eta, bestetik, Taldearen aseguru-kontratuen zorroaren portaerari buruzko estimaziorik onena.

Aseguruen Zuzendaritza Orokorrak zehaztutako araudiari jarraikiz, Taldea PASEM2020 eta PER2020 taula berrietara dago egokituta. Baliaezintasun-arriskuetarako, PEAIM-2007 taulak baliatzen ditu.

Espainiako legeria aplikatuz, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren mende dagoenak, bere egindako hondamen-arriskuen ondorioak estalita ditu Taldeak bere kontratuetan.

Beste alde batetik, kontratuetan ezbehar-tasaren arriskua murriztu ahal izateko, berraseguru-kontratuak erabiltzen ditu Taldeak.

Ez da jotzen arrisku-metaketa nabarmenik dagoenik; izan ere, Taldearen aseguru-negozioa batez ere partikularren arrisku pertsonalak aseguratzean datzanez, oso arrisku-maila apala

dauka, dagoeneko Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak estaltzen duen hondamendi-arriskuari dagokionez izan ezik.

Urteko kontu hauek formulatzeko egunean, Entitate Nagusiko kontseilariek berretsi dute arriskuen eta kaudimenaren barneko ebaluazioa egina dagoela eta Taldeko aseguru-erakundeek kaudimen-betebehar globalak betetzen dituztela, euren arrisku-profila, onartutako arrisku-tolerantziaren mugak eta negozio-estrategia kontuan hartuta.

Jarduerari lotutako arriskuen izaerari, bolumenari eta konplexutasunari egokitutako prozesuak ezarri dira eta, horiei esker, epe labur eta luzera Taldeko aseguru-erakundeek izan litzaketen eta aurre egin behar lieketen arriskuak egoki zehaztu eta ebaluatzeko aukera du.

Era berean, Entitate Nagusiko kontseilariek berretsi dutenez, Taldeko aseguru-erakundeek etengabe betetzen dituzte kapital-errekerimenduak eta aseguru-kontratuagatiko pasiboen arloko eskakizunak.

Taldeak sentikortasun-analisi bat egin du, jakiteko nolako eragina izan dezaketen harpidetza-arriskuen aldagaien inguruko aldaketek Taldearen aseguru-kontratuen pasiboetan, galdu-irabazien kontuan eta ondarean. Analisia hipotesien aldaketan oinarritzen da, gainerako supostuei konstante eutsita.

Bizitza-aseguruen negozioaren kasuan, estres-egoera hauek hartu dira aintzat etorkizuneko estimazioetan erabiltzen diren hipotesien gainean:

- Hilkortasun-tasaren % 15eko igoera iraunkorra.
- Hilkortasun-tasaren % 20ko jaitsiera iraunkorra.
- Erreskate-tasaren eta ezerezte aurreratuen tasaren % 50eko igoera iraunkorra.

Bizitzakoak ez diren aseguruen konpainiaren kasuan, estres-egoera hau hartu da aintzat:

- Ezbeharrengatiko prestazioen % 5eko igoera.

Bizitza-aseguruen negozioaren kasuan, egoerarik okerrenak ia ez luke eraginik izango aseguru-kontratuen pasiboetan; izan ere, BEL adierazleak milioi bat euro inguruko hazkundea izango luke, baina CSMak bereganatuko luke zenbateko horren zatirik handiena. CSMak bereganatuko ez lukeen galera-zatia, berriz, emaitza-kontuan erregistratuko litzateke. Beraz, kasu guztietan, milioi bat eurotik beherako inpaktua izango luke egoera horrek emaitza-kontuan eta ondarean.

Bizitzakoak ez diren aseguruen negozioaren kasuan, ezbehar-tasaren egoera horrek 2 milioi euro inguruko eragina izango luke ezbeharretarako pasiboetan. Ondorioz, 5 milioi euroko inpaktu negatiboa izango luke emaitzetan, eta 4 milioi euroko jaitsiera eragingo luke ondarean.

21. Arriskuen kontzentrazioa

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 575/2013 Erregelamenduaren eta kaudimen-errekerimenduen gainean ondoren egin diren aldaketen arabera, arrisku handietan —baliabide propioen % 10 gainditzen dutenak dira— pertsona edo talde batekin ezin da baliabide propioen % 25 baino gehiago arriskatu. Aparteko kasu batean, esposizioek muga hori gainditzen badute, Entitateak berehala jakinaraziko die esposizioaren balioa agintaritza eskudunei. Egoerak eskatzen badu, dagokion mugara itzultzeko denbora-epe mugatua aitor diezaiokete kreditu-erakundeari agintariek. Entitatearen arriskuak emateko politikak kontuan hartzen ditu muga eta irizpide horiek, eta eskakizunei dagozkien kontrako alderdiaren arrisku-mugak eta soberakoak kontrolatzeko prozedurak ezarri dira.

2023ko abenduaren 31n ez dago «esposizio handikotzat» hartzen den kreditu-hartzailerik, ez baitago baliabide propioen % 10 gainditzen duenik. 2022ko abenduaren 31n, MONDRAGON taldeko kooperatibekiko arriskua, esposizio handien ondoreetarako arriskuen unitate ekonomikotzat hartzen dena, bakarrik jo daiteke «esposizio handitzat».

Taldearen arriskuen kontzentrazioak eta horien kontabilitate-balioak hauek izan dira, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, arriskuari dagokion geografia-sektorea eta kontrako alderdien motak kontuan hartuta:

2023

	Guztira (liburuetako zenbatekoa) (a)	Espainia	Europar Batasuneko gainerako herrialdeak	Amerika	Munduko gainerako lurraldeak
Banku zentralak eta kreditu-erakundeak	2.522.628	1.871.053	292.049	17.867	341.659
Administrazio publikoak	9.137.905	8.616.921	520.984	-	-
– Administrazio zentrala	7.500.730	7.307.279	193.451	-	-
– Bestelako administrazio publikoak	1.637.175	1.309.642	327.533	-	-
Bestelako finantza-sozietateak eta enpresaburu indibidualak	312.077	145.060	148.557	4.509	13.951
Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak	3.212.874	3.124.358	50.840	25.398	12.278
– Eraikuntza eta higiezinen sustapena	43.920	43.920	-	-	-
– Obra zibileko eraikuntza	148.901	148.830	71	-	-
– Gainerako helburuak	3.020.053	2.931.608	50.769	25.398	12.278
Enpresa handiak	910.145	831.587	42.838	23.924	11.796
ETEak eta enpresaburu indibidualak	2.109.908	2.100.021	7.931	1.474	482
Gainerako etxeak	10.919.656	10.898.230	16.097	2.224	3.105
– Etxebizitzak	10.072.128	10.051.315	15.687	2.094	3.032
– Kontsumoa	487.291	486.855	317	47	72
– Bestelako helburuak	360.237	360.060	93	83	1
GUZTIRA	26.105.140	24.655.622	1.028.527	49.998	370.993

2022

	Guztira (liburuetako zenbatekoa) (a)	Espainia	Europar Batasuneko gainerako herrialdeak	Amerika	Munduko gainerako lurraldeak
Banku zentralak eta kreditu-erakundeak	2.472.710	1.793.291	313.644	10.252	355.523
Administrazio publikoak	10.355.833	9.831.583	425.901	-	98.349
– Administrazio zentrala	8.742.423	8.490.520	251.903	-	-
– Bestelako administrazio publikoak	1.613.410	1.341.063	173.998	-	98.349
Bestelako finantza-sozietateak eta enpresaburu indibidualak	271.385	176.103	76.675	1.779	16.828
Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak	3.282.875	3.168.486	71.791	23.156	19.442
– Eraikuntza eta higiezinen sustapena	40.691	40.691	-	-	-
– Obra zibileko eraikuntza	141.055	140.921	134	-	-
– Gainerako helburuak	3.101.129	2.986.874	71.657	23.156	19.442
Enpresa handiak	867.617	762.248	64.002	22.396	18.971
ETEak eta enpresaburu indibidualak	2.233.512	2.224.626	7.655	760	471
Gainerako etxeak	10.901.874	10.883.514	12.901	2.053	3.406
– Etxebizitzak	10.084.919	10.067.033	12.621	1.894	3.372
– Kontsumoa	444.911	444.652	181	45	33
– Bestelako helburuak	372.044	371.829	99	114	1
GUZTIRA	27.284.677	25.852.977	900.912	37.240	493.548

(a) Esposizioen definizioak barruan hartzen ditu maileguak eta aurrerakinak; zorra adierazten duten baloreak; ondare-tresnak; deribatuak (negoziatzeko daudenak eta estaldurakoak); baterako negozioetan eta elkartuetan egindako inbertsioak, eta emandako bermeak, balantzean edozein partidatan sartuta daudela ere.

Mailegu-hartzaileen, balore-jaulkitzeen eta deribatuen eta emandako bermeen kontrako alderdiak zer herrialdetan edo autonomia-erkidegotan dauden kontuan hartuta banatuko da jarduera eremu geografikoetan.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

URTEKO KONTUEN TXOSTENA, 2023KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

2023

Espainiako jarduera	Guztira (liburuetako zenbatekoa) (a)	AUTONOMIA-ERKIDEGOAK EAE	Nafarroa	Madril	Gainerakoetan
Banku zentralak eta kreditu-erakundeak	1.871.053	54.146	-	1.597.771	219.136
Administrazio publikoak	8.616.921	476.172	108.860	210.711	7.821.278
– Administrazio zentrala	7.307.279	-	-	-	7.307.279
– Bestelako administrazio publikoak	1.309.642	476.172	108.860	210.711	513.899
Bestelako finantza-sozietateak eta enpresaburu indibidualak	145.060	38.091	1.068	94.375	11.526
Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak	3.124.358	1.718.776	281.677	448.485	675.420
– Eraikuntza eta higiezinen sustapena	43.920	35.217	2.169	-	6.534
– Obra zibileko eraikuntza	148.830	106.919	6.324	19.615	15.972
– Gainerako helburuak	2.931.608	1.576.641	273.184	428.485	652.913
Enpresa handiak	831.587	457.891	64.018	163.904	145.774
ETEak eta enpresaburu indibidualak	2.100.021	1.118.750	209.166	264.966	507.139
Gainerako etxeak	10.898.230	5.887.475	1.202.564	919.186	2.889.005
– Etxebizitzak	10.051.315	5.296.745	1.114.614	901.038	2.738.918
– Kontsumoa	486.855	297.358	62.158	11.438	115.901
– Bestelako helburuak	360.060	293.372	25.792	6.710	34.186
GUZTIRA	24.655.622	8.174.660	1.594.168	3.270.528	11.616.266

2022

Espainiako jarduera	Guztira (liburuetako zenbatekoa) (a)	AUTONOMIA-ERKIDEGOAK EAE	Nafarroa	Madril	Gainerakoetan
Banku zentralak eta kreditu-erakundeak	1.793.291	37.009	-	1.557.938	198.344
Administrazio publikoak	9.831.583	483.912	108.830	200.296	9.038.545
– Administrazio zentrala	8.490.520	-	-	-	8.490.520
– Bestelako administrazio publikoak	1.341.063	483.912	108.830	200.296	548.025
Bestelako finantza-sozietateak eta enpresaburu indibidualak	176.103	94.227	909	70.489	10.478
Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak	3.168.486	1.834.602	302.910	352.872	678.102
– Eraikuntza eta higiezinen sustapena	40.691	28.722	5.085	-	6.884
– Obra zibileko eraikuntza	140.921	102.752	5.198	20.891	12.080
– Gainerako helburuak	2.986.874	1.703.128	292.627	331.981	659.138
Enpresa handiak	762.248	465.226	67.531	126.115	103.376
ETEak eta enpresaburu indibidualak	2.224.626	1.237.902	225.096	205.866	555.762
Gainerako etxeak	10.883.514	6.089.903	1.209.441	733.966	2.850.204
– Etxebizitzak	10.067.033	5.513.944	1.124.162	717.613	2.711.314
– Kontsumoa	444.652	275.972	56.873	10.483	101.324
– Bestelako helburuak	371.829	299.987	28.406	5.870	37.566
GUZTIRA	25.852.977	8.539.653	1.622.090	2.915.561	12.775.673

(a) Esposizioen definizioak barruan hartzen ditu maileguak eta aurrerakinak; zorra adierazten duten baloreak; ondare-tresnak; deribatuak (negoziatzeko daudenak eta estaldurakoak); baterako negozioetan eta elkartuetan egindako inbertsioak, eta emandako bermeak, balantzean edozein partidatan sartuta daudela ere.

Ondorengo oharretan, Taldearen arrisku-kontzentrazioaren xehetasunak bildu dira, eragiketa-motaren, jarduera- eta geografia-eremuaren, dibisaren, arrisku-kalitatearen eta abarren arabera.

22. Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko bestelako gordailuak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n duen banakapena:

	2023	2022
Eskudirua	94.534	94.062
Eskudirutako saldoak banku zentraletan	1.261.130	1.226.861
Ageriko bestelako gordailuak	62.043	29.475
	1.417.707	1.350.398
Dibisaren arabera:		
Eurotan	1.395.141	1.343.710
Dolar estatubatuarretan	11.044	3.839
Franko suitzarretan	431	144
Libera esterlinatan	1.708	1.762
Yen japoniarretan	8.253	511
Bestelakoetan	1.130	432
	1.417.707	1.350.398

Hurrenez hurren, % 2,757koa eta –% 0,177koa izan da banku zentraletako eta ageriko bestelako gordailuetako eskudirutako saldoek 2023ko eta 2022ko ekitaldietan lortu duten urteko batez besteko interes-tasa.

Europako Banku Zentralaren 1745/2003 EB Erregelamenduaren arabera, Europar Batasuneko estatu kideetako kreditu-erakundeek araudi horretan zehaztutako pasibo konputagarrien % 1eko gutxieneko erreserba-koefizientea izan behar dute, hurrenez hurren, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n. 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, gutxieneko erreserben koefizientea bete behar du Espainiako Bankuko kontu korrontean eutsitako saldoaren zati batek. Entitate Nagusiak betetzen ditu indarrean dagoen araudiak koefiziente horretarako agintzen dituen gutxienekoak.

23. Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak eta -pasiboak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe hauek 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n duten banakapena:

	Aktiboa		Pasiboa	
	2023	2022	2023	2022
Deribatuak	2.647	2.683	2.177	3.684
Ondare-tresnak	2.621	576	-	-
Zorra adierazten duten baloreak	2.770	6.283	-	-
	8.038	9.542	2.177	3.684

2023ko ekitaldian, negoziatzeko dauden finantza-aktiboak 0,93 milioi inguru txikitu dira. 2022ko ekitaldian, «Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak» epigrafea 7 milioi euro inguru murriztu zen, batez ere Estatuak jaulkitako zorra saltzearen ondorioz.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n «Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak eta -pasiboak» epigrafean dauden elementuen arrazoizko balioa eta erabilitako balorazio-teknikak 40. oharrean sartu dira.

«Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak eta -pasiboak» multzoan sailkatutako elementuen arrazoizko balioan izandako aldaketek eragina izan dute 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuetan (50. oharra). Hona hemen:

	Irabaziak		Galerak	
	2023	2022	2023	2022
Deribatuak	39.433	25.017	40.153	32.166
Ondare-tresnak	943	744	768	938
Zorra adierazten duten baloreak	2.285	5.556	1.741	3.542
	42.661	31.317	42.662	36.646

Negoziatzeko dauden finantza-aktiboen eta -pasiboen zorroetako elementuen arrazoizko balioan izandako aldaketek 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuetan eragindakoa banakatu egin dugu, arrazoizko balioa zehazteko irizpidea erabiliz, eta hauxe da banakapena:

	Irabaziak		Galerak	
	2023	2022	2023	2022
Arrazoizko balioa honela ateratzen zaien elementuak:				
Kotizazioak erreferentziatzat harturik (1. maila)	4.389	11.239	3.943	9.180
Honako hauetan oinarritutako teknika baten bidez:				
Merkatutik datozen datuak (2. maila)	38.272	20.078	38.719	27.466
Merkatutik ez datozen datuak (3. maila)	-	-	-	-
	42.661	31.317	42.662	36.646

Hona hemen 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak» eta «Negoziatzeko dauden finantza-pasiboak» epigrafeetako saldoen banakapena, dibisen eta muga-egunen arabera:

	Aktiboa		Pasiboa	
	2023	2022	2023	2022
Dibisaren arabera:				
Eurotan	6.440	9.542	2.177	3.684
Dolar estatubatuarretan	1.598	-	-	-
	8.038	9.542	2.177	3.684
Muga-egunaren arabera:				
Hilabetera artekoak	207	235	88	83
1 eta 3 hilabete artekoak	310	444	682	324
3 hilabete eta urtebete artekoak	537	468	654	1.255
Urtebete eta 5 urte artekoak	3.936	7.781	371	900
5 urtetik gorakoak	427	38	382	1.122
Zehaztu gabeko muga-egunekoak	2.621	576	-	-
	8.038	9.542	2.177	3.684

a) Kreditu-arriskua

Arriskuen kontzentrazioaren eta egun jakin batzuetan horiek zuten liburuetako zenbatekoaren berri emango dugu jarraian, arriskuari dagokion geografia-sektorea, kontrako alderdien motak eta tresna-motak kontuan hartuta:

	2023		2022	
	Zenbatekoa	%-a	Zenbatekoa	%-a
Geografia-sektorearen arabera:				
Estatua	6.293	% 78,29	9.225	% 96,68
Europar Batasuneko gainerako herrialdeak	114	% 1,42	225	% 2,36
Munduko gainerako lurraldeak	1.631	% 20,29	92	% 0,96
	8.038	% 100,00	9.542	% 100,00
Kontrako alderdien motaren arabera:				
Kreditu-erakundeak	2.100	% 26,13	1.871	% 19,60
Administrazio publiko egoiliarrak	2.770	% 34,46	6.283	% 65,85
Bestelako sektore egoiliarrak	1.570	% 19,53	1.388	% 14,55
Bestelako sektore ez-egoiliarrak	1.598	% 19,88	-	-
	8.038	% 100,00	9.542	% 100,00
Tresna-motaren arabera:				
Kotizatutako obligazioak eta bonuak	2.770	% 34,46	6.283	% 65,85
Errenta finkoko bestelako baloreak	-	-	-	-
Antolatutako merkatuetan negoziatu ez diren deribatuak	2.647	% 32,93	2.683	% 28,11
Akzio kotizatuak	2.621	% 32,61	576	% 6,04
	8.038	% 100,00	9.542	% 100,00

Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak banakatuko ditugu ondoren, kalifikazio-agentzia nagusiek emandako kanpoko kreditu-kalifikazioen arabera:

	2023		2022	
	Zenbatekoa	%-a	Zenbatekoa	%-a
A ratinga eman zaien arriskuak	4.688	% 45,60	7.350	% 77,03
B ratinga eman zaien arriskuak	181	% 2,25	228	% 2,39
Esleitu gabeko zenbatekoak	3.169	% 52,15	1.964	% 20,58
	8.038	% 100,00	9.542	% 100,00

b) Zorra adierazten duten baloreak

Segidan, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko balantze bateratuko aktiboko «Zorra adierazten duten baloreak» epigrafeko saldoaren banakapena azaltzen da:

	2023	2022
Europar Batasuneko gainerako herrialdeetako zor publikoa	-	-
Espainiako/autonomia-erkidegoko zor publikoa	2.770	6.283
Kreditu Ofizialeko Institutua	-	-
Errenta finkoko bestelako baloreak	-	-
	2.770	6.283

Hurrenez hurren, % 0,929koa eta % 0,878koa izan da banku-negozioko «Zorra adierazten duten baloreak» zorroak 2023ko eta 2022ko ekitaldietan lortutako urteko batez besteko interes-tasa.

c) Ondare-tresnak

Hauxe da 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako aktiboko «Ondare-tresnak» epigrafeko saldoaren banakapena:

	2023	2022
Espainiako erakundeetako partaidetzak	-	-
Atzerriko erakundeetako partaidetzak	-	-
Inbertsio-funtsetako partaidetzak	2.621	576
Bestelako partaidetzak	-	-
	2.621	576

d) Negoziatzeko dauden deribatuak

Hona hemen 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak» eta «Negoziatzeko dauden finantza-pasiboak» epigrafeetako deribatuen saldoaren banakapena:

	2023		
	Balio nozionala	Arrazoizko balioa	
		Aktiboa	Pasiboa
Mugaeguneratu gabeko dibisen salerosketa			
Erosketak	38.012	124	790
Salmentak	53.851	806	630
Baloreen, indizeen eta interes-tasen gaineko gerokoak			
Erositakoak	-	-	-
Saldutakoak	2.140	-	-
Baloreen gaineko aukerak			
Erositakoak	17.950	115	-
Saldutakoak	454.597	-	-
Dibisen gaineko aukerak			
Erositakoak	-	-	-
Saldutakoak	-	-	-
Interes-tasen gaineko aukerak			
Erositakoak	18.600	720	-
Saldutakoak	-	-	-
Interes-tasen gaineko bestelako eragiketak			
FRAk	-	-	-
Finantza-trukeak	47.737	838	757
Call Money Swapak (CMSak)			
Eperako bestelako eragiketak			
Erositakoak	-	-	-
Saldutakoak	2.809	44	-
		2.647	2.177

	2022		
	Balio nozionala	Arrazoizko balioa	
		Aktiboa	Pasiboa
Mugaeguneratu gabeko dibisen salerosketa			
Erosketak	58.089	241	1.746
Salmentak	37.647	907	423
Baloreen, indizeen eta interes-tasen gaineko gerokoak			
Erositakoak	-	-	-
Saldutakoak	511	-	-
Baloreen gaineko aukerak			
Erositakoak	17.950	86	-
Saldutakoak	592.516	-	-
Dibisen gaineko aukerak			
Erositakoak	-	-	-
Saldutakoak	-	-	-
Interes-tasen gaineko aukerak			
Erositakoak	28.600	822	1.099
Saldutakoak	135	-	1
Interes-tasen gaineko bestelako eragiketak			
FRAk	-	-	-
Finantza-trukeak	19.933	450	415
Call Money Swapak (CMSak)	-	-	-
Eperako bestelako eragiketak			
Erositakoak	-	-	-
Saldutakoak	6.416	177	-
		2.683	3.684

Negoziatzeko dauden deribatuen kontratuetako zenbateko nozionalean edo kontratukoan ez da Taldeak bere gain hartutako arriskua kuantifikatzen, posizio garbia tresna horiek konpentsatu eta/edo konbinatzetik lortzen delako.

Taldeak inbertsio-funts, pentsio-funts eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde batzuei emandako bermeak —guztiak ere LABORAL Kutxa Taldeko sozietateek gestionatutakoak (ikusi I. eranskina)—, baloreen gainean jaulkitako aukera gisa erregistratzen dira. Eragiketa horien 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko balio nominala 455 eta 593 milioi eurokoa da, hurrenez hurren; arrazoizko balioa, berriz, 0 eurokoa bien kasuan.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n negoziatzeko dauden deribatuen balorazioan kontrako alderdiaren arriskua nahiz arrisku propioa aintzat hartuta, eragina hutsala da.

Bezeroei erositako eta saldutako deribatuen balioak eta kontrako alderdien partidei erositako eta saldutako deribatuen balioak ez dute alde handirik (kasu batean eta bestean Taldearentzat marjina sortu dutenak kontuan hartuta).

24. Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n duen banakapena:

	2023	2022
Ondare-tresnak	162.657	137.499
Espainiako erakundeetako partaidetzak	21.283	20.858
Atzerriko erakundeetako partaidetzak	24.257	18.925
Inbertsio-funtsetako partaidetzak	-	-
Arrisku-kapitaleko erakundeekiko partaidetzak	116.305	94.279
Heziketako eta Sustapeneko Funtsari atxikitako baloreak	812	3.437
Zorra adierazten duten baloreak	833.611	685.202
Espainiako zor publikoa	610.364	424.892
Altxor-letrak	-	-
Estatuaren obligazioak eta bonuak	610.364	424.892
Bestelako zor anotatuak	-	-
Espainiako bestelako administrazio publikoen zorra	16.726	14.397
Atzerriko zor publikoa	24.305	26.306
Kreditu-erakundeek jaulkitakoak	105.806	116.737
Egoiliarrak	18.809	24.238
Ez-egoiliarrak	86.997	92.499
Errenta finkoko bestelako baloreak	76.346	100.811
Bestelako egoiliarrek jaulkitakoak	22.522	30.626
Bestelako ez-egoiliarrek jaulkitakoak	53.824	70.185
Zalantzazko aktiboak	13.372	16.637
Aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak	(13.308)	(14.578)
Mikro-estaldurako eragiketak	-	-
	996.268	822.701

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, zorro honetako erreferentziarik gehienak Stage 1 atalean daude sailkatuta, eta Stage 3 atalean 3,13 milioi euro 2023an eta 17 milioi euro 2022an.

«Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafeko elementuen 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko arrazoizko balioa eta erabilitako balorazio-teknikak 40. oharrean sartu dira.

38. oharrean, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko ondare garbi bateratuko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafeko saldoa banakatu dugu. Saldo hori «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafeko elementuen arrazoizko balioan gertatu diren aldaketek eragin dute.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan, hurrenez hurren, 52.702 eta 2.436 mila eurori eman zaie baja ondare garbiko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafetik, eta, «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroan sailkatutako finantza-tresnak saltzearen ondorioz, galdu-irabazien kontu bateratuan kontabilizatu dira; bi zenbatekooi kendu egin zaie zerga-eragina (38. oharra).

Era berean, 2023ko ekitaldian ondare garbiko «Bestelako emaitza global metatu bat – Emaitzetan birsailkatuko ez diren elementuak» epigrafetik baja eman zaie, «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroan sailkatutako errenta aldakorreko finantza-tresnak saldu direlako. Salmentaren zenbateko gordina 494 mila eurokoa izan da, zergak kenduta (2022ko ekitaldian, 1.395 mila eurokoa).

Hona hemen 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafearen banakapena, dibisak eta muga-egunak kontuan hartuta:

	2023	2022
Dibisaren arabera:		
Eurotan	961.322	791.358
Dolar estatubatuarretan	29.825	26.843
Libera esterlinatan	1.797	1.317
Franko suitzarretan	2.580	2.409
Gainerakoetan	744	774
	996.268	822.701
Muga-egunaren arabera:		
Hilabetera artekoak	20.754	24.517
1 eta 3 hilabete artekoak	9.239	8.979
3 hilabete eta urtebete artekoak	25.937	37.275
Urtebete eta 5 urte artekoak	223.857	252.270
5 urtetik gorakoak	567.493	366.197
Zehaztu gabeko muga-egunekoak	162.296	148.041
	-	-
Aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak	(13.308)	(14.578)
	996.268	822.701

Ondoren, «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafean 2023ko eta 2022ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

	2023	2022
Ekitaldi-hasierako saldoa	822.701	702.554
Gehikuntza/baja garbiak	73.035	237.827
Arrazoizko balioaren aldaketengatiko mugimenduak	99.211	(113.456)
Narriaduragatiko galerak (garbiak), emaitzetan kargatzekoak (60. oharra)	1.321	(4.224)
Bestelakoak	-	-
Ekitaldi-itxierako saldoa	996.268	822.701

Hurrenez hurren, % 2,564koa eta % 1,076koa izan da banku-negozioko «Zorra adierazten duten baloreak» zorroak 2023ko eta 2022ko ekitaldietan lortutako urteko batez besteko interes-tasa. Hurrenez hurren, % 0,41ekoa eta % 0,65ekoa izan da aseguruen negozioko «Zorra adierazten duten baloreak» atalak 2023ko eta 2022ko ekitaldietan lortutako urteko batez besteko errentagarritasuna.

Bestalde, 2023ko abenduaren 31n, Taldeak 4.419 mila euroko mendeko bestelako zor-tresnak zituen «Bestelako emaitza global metatu batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroan (4.419 mila eurokoak 2022ko abenduaren 31n).

Kotizatu gabeko hainbat sozietateren kapitalean partaidetzak harpidetuta ditu Entitate Nagusiak, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n. Horiek galdatu ez diren eta egiteko dauden ordainketak dituzte, 30 mila eurokoak alegia (ekitaldi bietan).

2023ko eta 2022ko ekitaldietan, Entitate Nagusiak 908.435 eta 58.000 mila euroko zenbateko nominaleko errenta finkoko jaulkipenak saldu zituen, eta 64.938 mila euroko minusbalio gordinak lortu 2023ko ekitaldian, eta 3.692 mila euroko gainbalio gordinak 2022ko ekitaldian. Ekitaldiko galdu-irabazien kontuko «Arrazoizko balioan baloratu ez diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktibo eta -pasiboei kontuetan baja emateagatiko irabazi eta (–) galera garbiak» epigrafean jaso ziren (49. oharra).

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak ez du arrazoizko balioaren estaldurarik, «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroan sartutako errenta finkoko jaulkipenen gainean.

a) Kreditu-arriskua

Hona hemen «Zorra adierazten duten baloreak» zorroko geografia-sektoreagatiko arrisku-kontzentrazioak:

	2023		2022	
	Zenbatekoa	**%-a**	**Zenbatekoa**	**%-a**
Estatua	680.927	% 80,40	486.510	% 69,52
Europar Batasuneko gainerako herrialdeak	116.737	% 13,78	144.749	% 20,68
Europako gainerako herrialdeak	-	-	-	-
Munduko gainerako lurraldeak	49.255	% 5,82	68.521	% 9,80
	846.919	% 100,00	699.780	% 100,00
Aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak	(13.308)		(14.578)	
	833.611		685.202	

Zorra adierazten duten baloreen banakapena hauxe da, kalifikazio-agentzia nagusiek emandako kanpoko azken kreditu-kalifikazioen arabera:

	2023		2022	
	Zenbatekoa	**%-a**	**Zenbatekoa**	**%-a**
A ratinga eman zaien arriskuak	687.205	% 82,44	522.957	% 76,32
B ratinga eman zaien arriskuak	146.406	% 17,56	162.193	% 23,67
C ratinga eman zaien arriskuak	-	-	-	-
Ratingik gabeko zalantzazko aktiboak	-	-	-	-
Esleitu gabeko zenbatekoak	-	-	52	% 0,01
	833.611	% 100,00	685.202	% 100,00

Batez ere finantza-aktibo batzuen etorkizuneko fluxuak berreskuratzeko itxaropena, burtsa-merkatuen bilakaera, errenta finkoko jaulkipen batzuen likidezia eta kreditu-arriskuagatiko diferentzialen gorakada tarteko, Taldeak narriatutzat jo zituen «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroko zenbait zortresna.

b) Narriaduragatiko galerak

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuetako «Arrazoizko balioan baloratu ez diren, emaitzetan aldaketak eragiten dituzten eta aldaketaren ondorioz galera edo (–) irabazi garbiak dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea – Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafeko saldoaren banakapena emango dugu jarraian (60. oharra):

	2023	2022
Zorra adierazten duten baloreak	(1.321)	4.224
Ondare-tresnak	-	-
	(1.321)	4.224
Emaitzetan kargatzeko zuzkidurak		
Banaka zehaztutakoak	(1.321)	4.225
Taldean zehaztutakoak	-	-
Emaitzetan ordaintzeko zuzkiduren berreskuratzeak	-	(1)
Emaitzetan ordaintzeko kobraezinen berreskuratzeak	-	-
Bestelako zuzkidurak	-	-
	(1.321)	4.224

Ondoren, «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan – Zorra adierazten duten baloreak» epigrafeko «Narriaduragatiko balio-zuzenketak» ataleko saldoak 2023ko eta 2022ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

	2023	2022
Ekitaldi-hasierako saldoa	14.578	10.353
Emaitzetan kargatzeko/(ordaintzeko) zuzkidura/(berreskuratze) garbiak	(1.321)	4.225
Kobraezinetara intsuldatzea eratutako funtsen kargura	-	-
Bestelako mugimenduak	51	-
	13.308	14.578

Hauxe da «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafeko «Aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak» ataleko saldoaren 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko banakapena, zehaztapenaren irizpidea erabiliz:

	2023	2022
Zehazteko moduaren arabera:		
Banaka zehaztutakoa	13.308	14.578
Taldean zehaztutakoa	-	-
	13.308	14.578

25. Finantza-aktiboak kostu amortizatuan

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n duen banakapena:

	2023	2022
Zorra adierazten duten baloreak	7.947.509	9.065.591
Maileguak eta aurrerakinak	15.434.109	15.625.577
Kreditu-erakundeak	445.130	436.779
Bezeroak	14.988.979	15.188.798
	23.381.618	24.691.168

Ondoren, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan» epigrafearen banakapena egingo dugu, dibisen eta muga-egunen arabera:

	2023	2022
Dibisaren arabera:		
Eurotan	23.589.100	24.927.011
Dolar estatubatuarretan	75.839	79.069
Libera esterlinatan	83	-
Yen japoniarretan	24	37
Franko suitzarretan	44	20
Bestelakoetan	-	-
	-	-
Balorazio-doikuntzak	(283.472)	(314.969)
	23.381.618	24.691.168
Muga-egunaren arabera:		
Agerikoak	266.426	312.759
Hilabetera artekoak	38.923	7.741
1 eta 3 hilabete artekoak	68.332	1.179
3 hilabete eta urtebete artekoak	1.943.199	1.194.959
Urtebete eta 5 urte artekoak	3.385.357	4.635.315
5 urtetik gorakoak	17.202.525	18.143.805
Zehaztu gabeko muga-egunekoak	760.328	710.379
	-	-
Balorazio-doikuntzak	(283.472)	(314.969)
	23.381.618	24.691.168

a) Zorra adierazten duten baloreak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n duen banakapena:

	2023	2022
Obligazioak eta bonuak:	7.983.241	9.113.825
Espainiako zor publikoa	7.248.519	8.387.447
Europar Batasuneko gainerako herrialdeetako zor publikoa	269.430	271.733
Kreditu-erakundeek jaulkitakoak	455.371	444.636
Egoiliarrak	95.455	89.749
Ez-egoiliarrak	359.916	354.887
Bestelako sektoreek jaulkitakoak	9.921	10.009
Egoiliarrak	9.921	10.009
Ez-egoiliarrak	-	-
Ordaindukoak eta errenta finkoko bestelako jaulkipenak:	-	1.991
Bestelako sektoreek jaulkitakoak	-	1.991
Egoiliarrak	-	1.991
Ez-egoiliarrak	-	-
Aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak	-	-
Mikro-estaldurako eragiketak	(35.732)	(50.225)
	7.947.509	9.065.591

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, zorro horretako erreferentzia guztiak Stage 1 atalean daude sailkatuta.

Ondoren, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan – Zorra adierazten duten baloreak» epigrafearen banakapena egingo dugu, dibisen, muga-egunen eta ratingaren arabera:

	2023	2022
Dibisaren arabera:		
Eurotan	7.916.895	9.046.113
Dolar estatubatuarretan	66.346	69.703
Balorazio-doikuntzak	(35.732)	(50.225)
	7.947.509	9.065.591
Muga-egunaren arabera:		
Urtebetera artekoak	1.661.228	1.141.057
Urtebete eta 5 urte artekoak	947.642	2.597.450
5 urtetik gorakoak	5.374.371	5.377.309
Balorazio-doikuntzak	(35.732)	(50.225)
	7.947.509	9.065.591
Ratingen arabera:		
A ratingarekin sailkatutako arriskuak	7.726.990	8.862.310
B ratingarekin sailkatutako arriskuak	256.251	253.506
Esleitu gabeko zenbatekoak	-	-
Balorazio-doikuntzak	(35.732)	(50.225)
	7.947.509	9.065.591

Ondoren, «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan – Zorra adierazten duten baloreak» epigrafean 2023ko eta 2022ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

	2023	2022
Ekitaldi-hasierako saldoa	9.065.591	7.863.783
Erosketen gehikuntzak	364.782	812.119
Amortizazioak	(1.144.999)	(35.488)
Salmentengatiko bajak	(308.435)	-
Mikro-estaldurengatiko doikuntzak	14.493	(104.563)
Kobratutako interesak	(231.668)	(172.760)
Interesen periodifikatzeak	187.745	702.500
Narriadura/(Narriadura-itzulketa) (60. oharra)	-	-
Ekitaldi-itxierako saldoa	7.947.509	9.065.591

Hurrenez hurren, % 3,511koa eta % 0,795ekoa izan dira banku-negozioko «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan – Zorra adierazten duten baloreak» epigrafeak 2023ko eta 2022ko ekitaldietan lortutako urteko batez besteko interes-tasak. Hurrenez hurren, % 2,89koa eta % 3,62koa izan dira aseguruen negozioko «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan – Zorra adierazten duten baloreak» epigrafeak 2023ko eta 2022ko ekitaldietan lortu dituen urteko batez besteko errentagarritasunak.

Aurreko tauletan erakutsi dugun liburuetako zenbatekoak horietan sartutako finantza-tresnekin zerikusia duen kreditu-arriskuarekiko esposizioaren gorengo maila erakusten du.

«Finantza-aktiboak kostu amortizatuan – Zorra adierazten duten baloreak» epigrafeko elementuen 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko arrazoizko balio kuantifikagarria eta erabilitako balorazio-teknikak 40. oharrean sartu dira.

2023an, Entitate Nagusiak Estatuaren zor publikoa erosi du, eta 317 milioi euroko nominala du (451 milioi eurokoa 2022ko ekitaldian). Bestalde, 2023ko ekitaldian, 1.118 milioi euroko nominala zuten Estatuaren errenta finkoko jaulkipenak amortizatu dira muga-egunean (16 milioi eurokoak 2022an).

2023an, Entitate Nagusiak 308 milioi euroko nominaleko zor publikoko tituluak saldu ditu. Salmenta horiek 45.105 mila euroko galerak ekarri dituzte, eta «Arrazoizko balioan baloratu ez diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktibo eta -pasiboei kontuetan baja emateagatiko irabazi edo galera garbiak» epigrafean erregistratu dira (49. oharra).

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, 350.000 mila euroko zenbateko nominala duen arrazoizko balioaren estaldura bat du Entitate Nagusiak Estatuaren zorraren jaulkipenetan, «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan» zorroan. Kreditu-erakundeekin interes-tasen gaineko OTC finantza-trukeak kontratatuz egin da estaldura. 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, hurrenez hurren, 8.608 eta 9.870 mila eurokoa da horien arrazoizko balioa.

Era berean, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, hurrenez hurren 3.644 eta 3.637 milioi euroko balio nozionaleko diru-fluxuen estaldura bat du Entitate Nagusiak errenta finkoko hainbat jaulkipenen gainean, hain zuzen ere «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan» zorroan. Kreditu-erakundeekin interes-tasen gaineko OTC finantza-trukeak —euroguneko interes-tasa – inflazioa— kontratatuz egin da estaldura. 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, hurrenez hurren, 418.904 eta 312.518 mila eurokoa da horien arrazoizko balioa.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, arrazoizko balioa estaltzeko eragiketak izan ditu Entitate Nagusiak, autonomia-erkidegoetako zor publikoaren eta Europar Batasuneko beste estatu batzuetako zor publikoaren gainean. Hurrenez hurren, 303 eta 305 milioi euroko zenbateko nominala dute eta «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan» zorroan daude sartuta. Estaldura horiek egiteko, kreditu-erakundeekiko interes-tasen gaineko OTC finantza-trukeak kontratatu dira. 2023ko abenduaren 31n, estaldura-tresna horien arrazoizko balioa 50.211 mila eurokoa da, (2022ko ekitaldian, 13.370 mila eurokoa zen).

b) Maileguak eta aurrerakinak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n duen banakapena:

	2023	2022
Maileguak eta aurrerakinak		
Kreditu-erakundeak	445.130	436.779
Bezeroak	14.988.979	15.188.798
	15.434.109	15.625.577

«Finantza-aktiboak kostu amortizatuan – Maileguak eta aurrerakinak – Bezeroak» esleitutako kanpoko nahiz barruko kreditu-sailkapenen arabera banakatzeari eta inbertsio horietako ez-ordaintzeen tasei dagokienez, kreditu-arriskuari buruzko oharrean azaldu denez, Entitate Nagusiak barruko rating- eta scoring-ereduak garatu ditu, bezeroak (rating) eta eragiketak (scoring) bakoitzaren arrisku-mailaren arabera bereizteko. Helburuak dira arriskuaren kudeaketa hobetzea eta barruko eredu horiek baliozkotzea, Basileako eskakizunen arabera kapital erregulatorioa kalkulatzeko.

2023ko eta 2022ko ekitaldiak ixtean, partikularren hipoteka- eta kontsumo-eragiketetarako scoring-ereduei eta ETE-entzako rating-ereduei buruzko informazioa du Entitate Nagusiak. Dena den, Taldearen inbertsio-arriskuaren gaineko informazio osoa emateko asmoarekin, erabaki da «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan – Maileguak eta aurrerakinak» ataleko xehetasuna 2023ko eta 2022ko abenduaren 31rako zuten kreditu-kalitatearen arabera sartzea.

	2023		
	Zenbateko gordina	Narriaduragatiko balio-zuzenketak	Liburuetako zenbatekoa
Stage 1 (normala)	15.123.295	81.646	15.041.649
Stage 2 (zaintza bereziko arrisku normala)	262.350	51.135	211.215
Stage 3 (zalantzazkoa)	384.296	203.051	181.245
GUZTIRA	**15.769.941**	**335.832**	**15.434.109**

	2022		
	Zenbateko gordina	Narriaduragatiko balio-zuzenketak	Liburuetako zenbatekoa
Stage 1 (normala)	15.276.222	81.107	15.195.115
Stage 2 (zaintza berezia)	281.288	53.227	228.061
Stage 3 (zalantzazkoa)	386.817	184.416	202.401
GUZTIRA	**15.944.327**	**318.750**	**15.625.577**

Ondoren, Entitate Nagusiaren berankortasun-tasaren berri emango dugu. Hori kalkulatzeko, kontabilitatean zalantzazkoen artean sailkatutako saldoen eta «Maileguak eta aurrerakinak – Bezeroak» ataleko saldoaren arteko erlazioa hartu da kontuan, balorazio-doikuntzak alde batera utziz.

2023	2022	2021
% 2,52	% 2,50	% 2,60

b.1) Maileguak eta aurrerakinak – Kreditu-erakundeak

Hauxe da balantze bateratuko epigrafe horrek tresnaren izaeraren arabera duen xehetasuna:

	2023	2022
Eperako kontuak	105.948	152.681
Aktiboen aldi baterako eskurapena	-	-
Bestelako kontuak	339.182	284.098
Balorazio-doikuntzak		-
Aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak	-	
Gainerakoak	-	-
	445.130	436.779

Hurrenez hurren, % 1,966koa eta % 0,035ekoa izan da «Maileguak eta aurrerakinak – Kreditu-erakundeak» atalak 2023ko eta 2022ko ekitaldietan lortutako urteko batez besteko interes-tasa.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, zorro horretako erreferentzia guztiak Stage 1 atalean daude sailkatuta.

b.2) Maileguak eta aurrerakinak – Bezeroak

«Finantza-aktiboak kostu amortizatuan – Maileguak eta aurrerakinak» epigrafeko bezeroen 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko saldoa banakatu dugu, hainbat irizpide erabiliz:

	2023	2022
Modalitatearen eta egoeraren arabera:		
Espainiako administrazio publikoak	965.968	1.184.811
Kreditu komertziala	265.062	289.356
Hipoteka-bermedun zordunak	10.518.422	10.530.413
Bestelako berme errealak dituzten zordunak	29.930	32.216
Eperako bestelako zordunak	2.438.196	2.450.805
Finantza-errentamenduak	160.049	143.404
Ageriko zordunak eta beste hainbat	317.778	346.819
Aktiboen aldi baterako eskurapena kontrako alderdiekin	-	-
Zalantzazko aktiboak	384.296	386.817
Bestelako finantza-aktiboak	157.018	88.901
Balorazio-doikuntzak	(247.740)	(264.744)
Sortutako interesak eta eskurapen-prima	41.098	22.585
Aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak	(335.832)	(318.750)
Batzordeak	(21.877)	(19.481)
Transakzio-kostuak (13.e oharra)	68.871	50.902
	14.988.979	15.188.798
Kreditu-hartzailearen jarduera-sektorearen arabera:		
Espainiako administrazio publikoak	971.668	1.190.890
Bestelako sektore egoiliarrak:	13.996.596	14.045.259
Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta basozaintza, eta arrantza	61.698	76.781
Industriak	872.671	903.755
Eraikuntza	230.673	246.854
Zerbitzuak:	1.661.959	1.824.239
Merkataritza eta ostalaritza	693.422	728.633
Garraioak eta komunikazioak	236.978	250.392
Bestelako zerbitzuak	731.559	845.214
Partikularrentzako krediduak:	10.936.109	10.887.049
Etxebizitza	9.854.921	9.833.501
Kontsumoa eta bestelakoak	1.081.188	1.053.548
Sailkatu gabe	233.486	106.581
Balorazio-doikuntzak	(247.740)	(264.744)
Bestelako sektore ez-egoiliarrak	127.415	136.643
Bestelako finantza-aktiboak	141.040	80.750
Aktiboen aldi baterako eskurapena kontrako alderdiekin	-	-
	14.988.979	15.188.798
Eremu geografikoaren arabera:		
- Bizkaia	3.286.967	3.440.291
- Gipuzkoa	4.269.636	4.527.458
- Araba	1.337.953	1.462.043
- Nafarroa	1.448.342	1.481.765
- Sare Berria	4.893.821	4.541.985
- Sailkatu gabe	-	-
Balorazio-doikuntzak	(247.740)	(264.744)
	14.988.979	15.188.798
Aplikatutako interes-tasaren arabera:		
Interes-tasa finkoa	4.913.350	4.854.170
Euriborra erreferentziatzat duen interes-tasa aldakorra	9.725.235	10.073.928
CECA erreferentziatzat duen interes-tasa aldakorra	-	-
IRMH erreferentziatzat duen interes-tasa aldakorra	112.830	79.778
Bestelakoak	485.304	445.666
Balorazio-doikuntzak	(247.740)	(264.744)
	14.988.979	15.188.798

2019ko ekitaldian, Entitate Nagusiak Estatuko Administrazio Orokorraren mailegu bat erosi zuen, 530.480 mila euroren truke. Mailegua 2023an muga-eguneratu zen, 2022ko abenduaren 31n 500 milioi euroko zenbateko nominala zuen eta interes-tasa aldakorra sortzen zuen, Euriborra erreferentziatzat hartuta. Horrez gain, 2019an Entitate Nagusiak estaldura bat formalizatu zuen eragiketa horren diru-fluxuaren gainean, interes-tasen truke bat kontratatuz, 500 milioi euroko zenbateko nozionalarekin. 2023ko abenduaren 31n, 0 mila eurokoa da estaldura-deribatuaren arrazoizko balioa (23.929 mila eurokoa 2022an).

Hauxe da 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan – Maileguak eta aurrerakinak» epigrafeko bezeroen saldoaren banakapena, dibisak eta muga-egunak kontuan hartuta:

	2023	2022
Dibisaren arabera:		
Eurotan	15.227.076	15.444.119
Dolar estatubatuarretan	9.493	9.366
Libera esterlinatan	83	-
Yen japoniarretan	24	37
Franko suitzarretan	43	20
Bestelakoetan	-	-
Balorazio-doikuntzak	(247.740)	(264.744)
	14.988.979	15.188.798
Muga-egunaren arabera:		
Agerikoak	266.426	312.760
Hilabetera artekoak	18.017	258
1 eta 3 hilabete artekoak	68.332	1.179
3 hilabete eta urtebete artekoak	244.659	7.163
Urtebete eta 5 urte artekoak	2.382.536	1.931.922
5 urtetik gorakoak	11.828.276	12.766.496
Zehaztu gabeko muga-egunekoak	428.473	433.764
	-	-
Balorazio-doikuntzak	(247.740)	(264.744)
	14.988.979	15.188.798

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, Taldeak ez du mendeko izaeradun mailegurik erregistratuta epigrafe horretan, IM Caja Laboral 1 ATF eta IM Caja Laboral 2 ATF aktiboen titulizazio-funtsei emandako finantzaketa izan ezik.

«Finantza-aktiboak kostu amortizatuan – Maileguak eta aurrerakinak» epigrafeko bezeroen saldoaren zenbateko gordinak mugimendu hau izan du 2023ko eta 2022ko ekitaldietan:

	Stage 1	Stage 2	Stage 3	Guztira
Aurreko ekitaldi-itxierako saldoa	15.595.013	295.952	401.883	16.292.848
Kontzesio/(Amortizazio) garbiak	(245.469)	(38.200)	(26.838)	(310.507)
Saldo gordinen arteko transferentziak	(72.451)	23.982	48.469	-
Salgai dauden aktiboetara intsuldatzea	-	-	(9.075)	(9.075)
Kobraezinetara intsuldatzea	(871)	(446)	(27.622)	(28.939)
2022ko ekitaldi-itxierako saldoa	15.276.222	281.288	386.817	15.944.327

	Stage 1	Stage 2	Stage 3	Guztira
Aurreko ekitaldi-itxierako saldoa	15.276.222	281.288	386.817	15.944.327
Kontzesio/(Amortizazio) garbiak	(74.664)	(39.294)	(37.479)	(151.437)
Saldo gordinen arteko transferentziak	(77.460)	20.895	56.565	-
Salgai dauden aktiboetara intsuldatzea	-	(51)	(2.406)	(2.457)
Kobraezinetara intsuldatzea	(803)	(488)	(19.201)	(20.492)
2023ko ekitaldi-itxierako saldoa	15.123.295	262.350	384.296	15.769.941

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, aktibo ukigarrien gaineko finantza-errentamenduko kontratuak ditu Taldeak bezeroekin sinatuta, eta oharrean azaldutakoaren arabera kontabilizatu dira. Kontratu horien hondar-balioa bat dator errentamenduko azken kuotaren zenbatekoarekin, eta errentamenduaren helburu den ondasunak berak bermatzen du. 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, hauxe da inbertsio biziaren eta hondar-balioen banakapena, finantzatutako objektu-motaren arabera:

Printzipala	2023	2022
Ekipamendu-ondasunak	37.249	35.093
Informatika-ekipamenduak	687	844
Materiala eta garraiobideak	61.031	48.365
Automobilak	22.059	19.483
Bestelako ondasunak	9.091	7.922
Ondasun higigarriak guztira	130.117	111.707
Ondasun higiezinak	16.302	17.236
GUZTIRA	146.419	128.943

Printzipala	2023	2022
Ekipamendu-ondasunak	1.355	1.332
Informatika-ekipamenduak	28	33
Materiala eta garraiobideak	3.961	5.353
Automobilak	9.051	8.015
Bestelako ondasunak	300	301
Ondasun higigarriak guztira	14.695	15.034
Ondasun higiezinak	1.704	2.461
GUZTIRA	16.399	17.495

Saldo horietatik, 2.769 mila euro 2023ko abenduaren 31n eta 3.036 mila euro 2022ko abenduaren 31n, narriatutako aktiboenak dira, eta «Zalantzazko aktiboak» atalean sartu dira.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n Entitate Nagusiak eginda dituen titulizazioen eta aktiboen bestelako transferentzien xehetasuna jaso dugu ondoren:

	2023	2022
Balantzean erabat baja emanda daudenak:	-	-
Hipoteka-partaidetzen bidez titulizatutako hipoteka-aktiboak	-	-
Pro-memoria: balantzean baja emanda daudenak 2004ko urtarrilaren 1a baino lehen	-	-
Balantzean oso-osorik eutsi zaienak:	-	342.372
Transmisio-ziurtagirien bidez titulizatutako hipoteka-aktiboak		
Hipotekarioa	-	342.372
Titulizatutako bestelako aktiboak	-	-
	-	342.372

Aurreko ekitaldietan, aktiboak titulizatzeko hainbat programa garatu zituen Entitate Nagusiak, eta IM Caja Laboral 1 ATF eta IM Caja Laboral 2 ATF titulizazio-funtsetara 900.000 eta 600.000 mila euroren hipoteka-maileguak eta enpresenak transmititu zituen. Aktiboen transferentzia horiek ez zituzten Espainiako Bankuaren 4/2017 Zirkularreko 23. Arauan ezarritako baldintzak betetzen, balantzetik transferitutako aktiboei baja emateari zegokionez; izan ere, aktiboen jabegoari lotutako arriskuak eta irabaziak atxiki eta kontrolatu egiten ditu Entitate Nagusiak. Ondorioz, aurrez aipatu ditugun funtsetara transferitutako aktibo garbiei lotutako pasiboa erregistratu zen (29. oharra).

2022ko abenduaren 31n, 342.372 mila euroko saldo bizia zuten aktibo horiek. Gainera, ezin esan gabe utzi Caja Laboralak IM Caja Laboral 2 ATF funtsaren titulizazio-bonu guztiak izenpetu zituela.

Bestalde, 2022ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak 18.853 mila euroko mendeko maileguak ditu emanda, Aktiboak Titulizatzeko Funts horietarako.

2023ko ekainean, Sozietate Gestoreko administrazio-kontseiluak aho batez erabaki zuen IM Caja Laboral 1 ATF funtsa aldez aurretik likidatzea, funtsaren liburuxkaren 4.4.3.(i) atalean —liburuxka CNMVn 2006ko azaroaren 30ean erregistratu zen— ezarritakoaren arabera; izan ere, hipoteka-mailegu ez-kobraezinen ordaindu gabeko saldo nominala txikiagoa zen funtsaren eraketa-egunean hipoteka-maileguek hasieran zuten saldoaren % 10 baino.

Orobat, 2023ko ekainaren 26an, Sozietate Gestoreko administrazio-kontseiluak aho batez erabaki zuen IM Caja Laboral 2 ATF funtsa aldez aurretik likidatzea, funtsaren liburuxkaren 4.4.3.(vi) atalean —liburuxka CNMVn 2008ko maiatzaren 22an erregistratu zen— ezarritakoaren arabera. Caja Laboral Popular Cooperativa de Créditok eskatu zuen funtsaren aurretiko likidazioa, funtsak jaulkitako eta amortizatu gabeko bonu guztien lagatzailea eta titularra zen aldetik. Indarreko kontratuak zituzten kontrako alderdi guztiek baimendu zuten likidazioa.

c) Narriaduragatiko galerak

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuetako «Arrazoizko balioan baloratu ez diren, emaitzetan aldaketak eragiten dituzten eta aldaketaren ondorioz galera edo (–) irabazi garbiak dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea – Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafeko saldoaren banakapena emango dugu jarraian (60. oharra):

	2023	2022
Maileguak eta aurrerakinak	30.332	(11.284)
Zuzkidurak	162.459	122.012
Aktibo kobraezinen berreskuratzeak	(8.177)	(8.316)
Gainerako berreskuratzeak	(123.950)	(124.980)
Zorra adierazten duten baloreak	-	-
	30.332	(11.284)
Emaitzetan kargatzeko zuzkidurak	162.459	122.012
Banaka zehaztutakoak	41.320	30.552
Taldean zehaztutakoak	121.139	91.460
Emaitzetan ordaintzeko zuzkiduren berreskuratzeak	(123.950)	(124.980)
Etenda dauden partida berreskuratuak	(8.177)	(8.316)
	30.332	(11.284)

Hauxe da «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan – Maileguak eta aurrerakinak» epigrafeko «Aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak» ataleko saldoaren 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko xehetasuna:

	2023	2022
Zehazteko moduaren arabera:		
Banaka zehaztutakoa	101.452	117.398
Taldean zehaztutakoa	234.380	201.352
	335.832	318.750
Kontrako alderdien arabera:		
Bestelako sektore egoiliarrak	335.612	318.586
Bestelako sektore ez-egoiliarrak	220	164
	335.832	318.750

2023ko abenduaren 31n, estaldura generikoaren saldoa 51.135 mila eurokoa da, Stage 2 multzoan sailkatutako 262.350 mila euroko eragiketen balio-zuzenketagatik (2022ko abenduaren 31n, 53.227 eta 281.288 mila eurokoak, hurrenez hurren).

Ondoren, «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan – Maileguak eta aurrerakinak» epigrafeko «Aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak» ataleko saldoak 2023ko eta 2022ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

	Stage 1	Stage 2	Stage 3	Guztira
2022ko urtarrilaren 1eko saldoa	83.437	54.857	212.696	350.990
Emaitzetan kargatzeko zuzkidura garbiak	(2.150)	(1.630)	(6.586)	(10.366)
Kobraezinetara intsuldatzea eratutako funtsen kargura	-	-	(21.617)	(21.617)
Balio-zuzenketen arteko transferentzia	-	-	-	-
Bestelakoak	(180)	-	(77)	(257)
2022ko ekitaldi-itxierako saldoa	81.107	53.227	184.416	318.750
Emaitzetan kargatzeko zuzkidura garbiak	1.329	(2.092)	36.047	35.284
Kobraezinetara intsuldatzea eratutako funtsen kargura	-	-	(17.412)	(17.412)
Balio-zuzenketen arteko transferentzia	-	-	-	-
Bestelakoak	(790)	-	-	(790)
2023ko ekitaldi-itxierako saldoa	81.646	51.135	203.051	335.832

2023ko abenduaren 31n 3.225 mila euro jaso ditu Entitate Nagusiak kaudimengabezien amortizazio gisa (7.397 mila euro 2022ko abenduaren 31n). Zenbateko horrek galdu-irabazien kontuko «Arrazoizko balioan baloratu ez diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea – Finantza-aktiboak kostu amortizatuan» epigrafeko saldoa handitzen du (60. oharra).

2022ko abenduaren 31n, higiezinen sozietate instrumentalei emandako finantzaketaren estaldura espezifikoa «Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak» epigrafean sailkatzeko eragiketa (77 mila eurokoa) jasotzen du, batez ere, «Bestelakoak» atalak (34. oharra).

Galdu-irabazien kontu bateratuan kontabilizatu ez diren narriatutako finantza-aktiboen finantza-sarrera metatuen zenbatekoak 57.319 mila eta 52.138 mila eurokoak izan dira, hurrenez hurren, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n.

Hona hemen narriatutako aktiboen liburuetako zenbatekoa, narriaduragatiko balio-zuzenketak kendu gabe:

	2023	2022
Eremu geografikoaren arabera:		
- Bizkaia	89.885	88.984
- Gipuzkoa	111.992	116.356
- Araba	28.840	33.174
- Nafarroa	35.326	35.003
- Sare Berria	118.253	113.300
- Sailkatu gabe	-	-
	384.296	386.817
Kontrako alderdien arabera:		
Espainiako administrazio publikoak	5.700	6.080
Bestelako sektore egoiliarrak	377.561	379.996
Bestelako sektore ez-egoiliarrak	1.035	741
	384.296	386.817
Tresna-motaren arabera:		
Kreditu komertziala	7.071	8.103
Maileguak eta kredituak	363.395	366.012
Finantza-errentamenduak	5.371	5.312
Gainerakoak	8.459	7.390
	384.296	386.817

Hona hemen mugaeguneratutako zenbatekoen antzinatasunaren araberako xehetasuna:

	2023	2022
6 hilabetera artekoak	203.378	195.504
6 hilabete baino gehiago eta 9 baino gutxiagokoak	17.916	18.743
9 hilabete baino gehiago eta 12 baino gutxiagokoak	15.381	17.784
12 hilabete baino gehiago eta 15 baino gutxiagokoak	13.966	9.203
15 hilabete baino gehiago eta 18 baino gutxiagokoak	9.536	9.700
18 hilabete baino gehiago eta 21 baino gutxiagokoak	8.292	5.624
21 hilabetetik gorakoak	115.827	130.259
	384.296	386.817

Berreskuratzeko zailak direla erabaki delako Taldearen balantze bateratuan baja eman zaien finantza-aktiboen saldoak, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31koak, banakatuko ditugu ondoren:

	2023	2022
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan – Maileguak eta aurrerakinak – Bezeroak	618.247	614.459
	618.247	614.459

Berreskuratzeko zailak direla erabaki delako aktibotik baja eman zaien narriatutako finantza-aktiboek mugimendu hau izan dute:

	2023	2022
Ekitaldi-hasierako saldoa	614.459	605.930
Gehikuntzak:	22.121	30.620
Aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketa eta bestelako mugimenduak	20.613	28.940
Kontratu bidez galdatzekoak diren interesak	1.508	1.680
Berreskurapenak:	(8.177)	(8.316)
Printzipala eskudirutan kobratzeagatikoak	(8.177)	(8.316)
Behin betiko bajak:	(10.156)	(13.775)
Barkatzeagatikoak	(7.816)	(11.184)
Bestelako arrazoiengatikoak	(2.340)	(2.591)
Ekitaldi-amaierako saldoa	618.247	614.459

26. Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n duen banakapena:

	2023	2022
Ondare-tresnak	10.378	40.829
Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzak (*)	10.378	40.829
Zorra adierazten duten baloreak	2.013	1.841
	12.391	42.670

(*) 2023ko abenduaren 31n, 5.490 mila euro dira Taldeak gestionatutako inbertsio-funtsak (2022ko abenduaren 31n 2.544 mila euro).

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n «Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak» epigrafean dauden elementuen arrazoizko balioa eta erabilitako balorazio-teknikak 40. oharrean sartu dira.

Hauxe da «Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak» zorroko elementuek arrazoizko balioan izandako aldaketek 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuan izandako eragina (49. oharra):

	Irabaziak		Galerak	
	2023	2022	2023	2022
Ondare-tresnak	7.225	4.023	(3.661)	(8.192)
Zorra adierazten duten baloreak	171	-	-	(356)
	7.396	4.023	(3.661)	(8.548)

Bestalde, «Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak» zorroko elementuek arrazoizko balioan izandako aldaketek 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuan izandako eragina banakatu egin dugu, arrazoizko balioa zehazteko irizpidea erabiliz, eta hauxe da banakapena:

	Irabaziak		Galerak	
	2023	2022	2023	2022
Arrazoizko balioa honela ateratzen zaien elementuak:				
Kotizazioak erreferentziatzat harturik (1. maila)	6.403	2.778	(3.423)	(6.697)
Honako hauetan oinarritutako teknika baten bidez:				
Merkatutik datozen datuak (2. maila)	171	-	-	(356)
Merkatutik ez datozen datuak (3. maila)	822	1.245	(238)	(1.495)
	7.396	4.023	(3.661)	(8.548)

Hona hemen 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak» epigrafeko saldoen banakapena, dibisak eta muga-egunak kontuan hartuta:

	2023	2022
Dibisaren arabera:		
Eurotan	7.503	42.670
Dolar estatubatuarretan	4.888	-
	12.391	42.670
Muga-egunaren arabera:		
Hilabetera artekoak	-	-
1 eta 3 hilabete artekoak	-	-
3 hilabete eta urtebete artekoak	-	-
Urtebete eta 5 urte artekoak	2.013	-
5 urtetik gorakoak	-	1.841
Zehaztu gabeko muga-egunekoak	10.378	40.829
	12.391	42.670

Arriskuen kontzentrazioaren eta egun jakin batzuetan horiek zuten kontabilitate-balioaren berri emango dugu jarraian, arriskuari dagokion geografia-sektorea, kontrako alderdien motak eta tresna-motak kontuan hartuta:

	2023		2022	
	Zenbatekoa	%-a	Zenbatekoa	%-a
Geografia-sektorearen arabera:				
Estatua	7.503	% 60,55	42.670	% 100,00
Europar Batasuneko gainerako herrialdeak	-	-	-	-
Munduko gainerako lurraldeak	4.888	% 39,45	-	-
	12.391	% 100,00	42.670	% 100,00
Kontrako alderdien motaren arabera:				
Kreditu-erakundeak	2.013	% 16,24	1.841	% 4,31
Administrazio publiko egoiliarrak	-	-	-	-
Bestelako sektore egoiliarrak	5.490	% 44,31	40.829	% 95,69
Bestelako sektore ez-egoiliarrak	4.888	% 39,45	-	-
	12.391	% 100,00	42.670	% 100,00
Tresna-motaren arabera:				
Kotizatutako obligazioak eta bonuak	2.013	% 16,25	1.841	% 4,31
Errenta finkoko bestelako baloreak	-	-	-	-
Antolatutako merkatuetan negoziatu ez diren deribatuak	-	-	-	-
Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzak	10.378	% 83,75	40.829	% 95,69
Akzio kotizatuak	-	-	-	-
	12.391	% 100,00	42.670	% 100,00

«Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak» atala banakatuko dugu ondoren, kalifikazio-agentzia nagusiek emandako kanpoko kreditu-kalifikazioen arabera:

	2023		2022	
	Zenbatekoa	%-a	Zenbatekoa	%-a
A ratinga eman zaien arriskuak	-	-	-	-
B ratinga eman zaien arriskuak	-	-	-	-
Esleitu gabeko zenbatekoak	12.391	% 100,00	42.670	% 100,00
	12.391	% 100,00	42.670	% 100,00

27. Aktiboko eta pasiboko Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe hauek 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n duten banakapena:

	Aktiboa		Pasiboa	
	2023	2022	2023	2022
Mikro-estaldurak:	57.411	78.994	434.648	345.570
Arrazoizko balioaren estaldurak	51.084	55.065	8.608	9.870
Diru-fluxuen estaldurak	6.327	23.929	425.231	335.700
Kreditu-arriskuagatiko doikuntza	-	-	809	1.895
	57.411	78.994	434.648	347.465

Hona hemen 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako aktiboko eta pasiboko «Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea» epigrafeen banakapena, dibisak eta muga-egunak kontuan hartuta:

	Aktiboa		Pasiboa	
	2023	2022	2023	2022
Dibisaren arabera:				
Eurotan	52.416	76.920	434.648	347.465
Dolar estatubatuarretan	4.995	2.074	-	-
	57.411	78.994	434.648	347.465
Muga-egunaren arabera:				
Hilabetera artekoak	-	-	-	-
1 eta 3 hilabete artekoak	-	-	-	-
3 hilabete eta urtebete artekoak	5.061	747	105.641	-
Urtebete eta 5 urte artekoak	10.826	2.186	8.608	130.321
5 urtetik gorakoak	41.524	76.061	319.590	215.249
Zehaztu gabeko muga-egunekoak	-	-	809	1.895
	57.411	78.994	434.648	347.465

Hona hemen 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako aktiboko eta pasiboko «Deribatuak – Estaldura-deribatuak» epigrafeko saldoaren banakapena:

	2023		
	Balio nozionala	Arrazoizko balioa	
		Aktiboa	Pasiboa
Interes-tasen gaineko bestelako eragiketak			
Finantza-trukeak	4.763.721	57.411	434.648
Akzioen gaineko bestelako eragiketak			
Finantza-trukeak	-	-	-
		57.411	434.648

	2022		
	Balio nozionala	Arrazoizko balioa	
		Aktiboa	Pasiboa
Interes-tasen gaineko bestelako eragiketak			
Finantza-trukeak	4.936.858	78.994	347.465
Akzioen gaineko bestelako eragiketak			
Finantza-trukeak	-	-	-
		78.994	347.465

Aktiboko eta pasiboko «Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea» epigrafeko kontratuetako zenbateko nozionalean edo kontratukoan ez da Taldeak bere gain hartutako arriskua kuantifikatzen, posizio garbia tresna horiek konpentsatu edo konbinatzetik lortzen delako.

Segidan, Taldeak 2023ko abenduaren 31n dituen estaldura nagusien ezaugarriak eta 2022ko abenduarekiko aldakuntzak deskribatuko ditugu:

Arrazoizko balioaren estaldurak:

- Arrazoizko balioa aldatzeko arriskurako mikroestaldurak, banaka jasota eta «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» eta «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan» zorroetan sailkatuta dauden zor publikoko tresna batzuen arriskutik kanpoko interes-tasan aldakuntzak egon direlako. Estaldura horien bidez, interes-tasa finkoko esposizioa interes-tasa aldakorreko esposizio bihurtzen da.

  2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, zor-tresna horiek (estalitako partidek) 652.988 eta 655.422 mila euroko balio nominala dute, hurrenez hurren (24. eta 25. oharrak).

- 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n ez dago «Finantza-pasiboak kostu amortizatuan» zorroan sailkatuta dauden finantzaketako tresna (hipoteka-zedula) batzuen arriskutik kanpoko interes-tasan aldakuntzak egotearen ondorioz arrazoizko balioa aldatzeko arriskurako mikroestaldurarik.

Diru-fluxuen estaldurak:

- Inflazioagatik diru-fluxuak aldatzeko arriskurako mikroestaldurak, «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» eta «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan» zorroko bonu jakin batzuen gainean. Bonu horien kupoia euroguneko inflazioari lotuta dago. Finantza-trukeak erabiltzen dira kanbio-tasa hori estaltzeko. 2023ko abenduaren 31n 3.644.000 mila euroko zenbateko nozionala dute (3.637.000 mila eurokoa 2022ko abenduaren 31n).

- 2023ko abenduaren 31n ez dago diru-fluxuak aldatzeko arriskuagatiko mikroestaldurarik. 2022ko abenduaren 31n, Diru-fluxuak aldatzeko arriskurako mikroestaldurak zeuden, 2019ko ekitaldian Estatuko Administrazio Orokorrari erositako eta «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan» zorroan sailkatutako mailegu baten gainean —interesak Euriborrari lotuta zituen—. Finantza-trukeak erabiltzen ziren interes-tasaren arrisku hori estaltzeko. 166.666 mila euroko zenbateko nozionala izan zuten (25. oharra).

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n negoziatzeko dauden deribatuen balorazioan kontrako alderdiaren arriskua nahiz arrisku propioa aintzat hartuta, eragina hutsala da.

Finantza-tresna batzuen balio nozionalak oinarria eskaintzen du, balantzean erregistratutako tresnekin alderatzeko; baina, ez du, ezinbestez, etorkizuneko kutxako fluxuen zenbatekoen edo tresnen egungo arrazoizko balioaren berri ematen, eta, beraz, ez du erakusten Entitatea zenbateraino dagoen kreditu-arriskuaren edo prezio-arriskuaren menpe. Tresna deribatuak aldekoak (aktiboak) edo kontrakoak (pasiboak) izan daitezke, merkatuko interes-tasen gorabeheren ondorioz edota lotutako kanbio-tasen gorabeheren ondorioz.

Gorabehera handiak izan ditzakete, bai eskura dauden finantza-tresna deribatuen kontratu- edo nozio-agregatuak, bai tresnak aldekoak edo kontrakoak izateko neurriak eta, beraz, bai finantza-aktibo eta -pasibo deribatuen arrazoizko balio agregatuek.

28. Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n duen banakapena:

	2023	2022
Erakunde taldeaniztunak:		
Balio garbia	-	-
Erakunde elkartuak:		
Balio garbia	381	385
Kotizatu gabeak	381	385
Aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak	-	-
	381	385

Jarraian, «Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak» epigrafeko saldoak 2023ko eta 2022ko ekitaldietan izandako mugimenduaren berri emango dugu:

	2023	2022
Ekitaldi-hasierako saldoa	385	337
Eskurapenak	-	-
Salmentengatiko bajak	-	-
Kapitala itzultzeagatiko bajak	-	-
Emaitzetako partaidetza (46. oharra)	10	50
Narriaduragatiko zuzkidura (61. oharra)	-	-
Balorazioagatiko irabazietako/(galeretako) parte-hartzea	-	-
Dibidenduen banaketa	-	-
Bestelakoak	(14)	(2)
Ekitaldi-amaierako saldoa	381	385

I. eranskinean txertatu da erakunde taldeaniztun eta elkartuetako eta integrazio globalaren metodoa erabiliz bateratu diren mendeko erakundeetako partaidetzei buruzko 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko informazioa.

29. Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako aktiboak eta pasiboak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n duen banakapena:

	Bizitzakoak		Ez-bizitzakoak		Zuzeneko partaidetza	Guztira		
	BBA	PAA	BBA	PAA	VFA	BBA	VFA	PAA
2023ko abenduaren 31n								
Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako aktiboak:	-	**2.689**	**449**	**21.872**	-	**450**	-	**24.561**
Gainerako estaldurarako aktiboa	-	1.299	421	9.150	-	421	-	10.448
Izandako ezbeharrengatiko aktiboa	-	1.390	29	12.722	-	29	-	14.113
Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako pasiboak:	**329.879**	**27.695**	**850**	**117.120**	-	**330.729**	-	**144.815**
Hondar-estalduragatiko pasiboa (LRC)	324.393	11.553	799	60.593	-	325.192	-	72.146
Pasiboen zenbatespenik onena (PVCF)	309.116	11.553	444	60.593	-	309.560	-	72.146
Arriskuaren doikuntza (RA)	2.941	-	49	-	-	2.990	-	-
Kontratuzko zerbitzuaren marjina (CSM)	12.336	-	306	-	-	12.642	-	-
Gertatutako ezbeharrengatiko pasiboak (LIC)	5.486	16.142	51	56.527	-	5.537	-	72.669

	Bizitzakoak		Ez-bizitzakoak		Zuzeneko partaidetza	Guztira		
	BBA	PAA	BBA	PAA	VFA	BBA	VFA	PAA
2022ko abenduaren 31n								
Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako aktiboak:	-	**2.749**	**437**	**20.247**	-	**437**	-	**22.996**
Gainerako estaldurarako aktiboa	-	1.245	419	8.108	-	419	-	9.353
Izandako ezbeharrengatiko aktiboa	-	1.504	18	12.139	-	18	-	13.643
Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako pasiboak:	**360.003**	**28.904**	**861**	**115.978**	-	**360.864**	-	**144.882**
Hondar-estalduragatiko pasiboa (LRC)	353.835	11.043	839	55.443	-	354.674	-	66.486
Pasiboen zenbatespenik onena (PVCF)	342.870	11.043	512	55.443	-	343.382	-	66.486
Arriskuaren doikuntza (RA)	4.202	-	56	-	-	4.258	-	-
Kontratuzko zerbitzuaren marjina (CSM)	6.763	-	271	-	-	7.034	-	-
Gertatutako ezbeharrengatiko pasiboak (LIC)	6.168	17.861	22	60.535	-	6.190	-	78.396

Taldeak Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak (APFZNk) onartutako metodo aktuarial eta finantzarioak eta modelizazio-teknikak erabiltzen ditu aseguru-kontratuengatiko pasiboak zenbatesteko. Metodo eta teknika horiek, funtsean, etorkizunera begira zenbatetsitako diru-fluxuak baloratzen dira, itxierako data bakoitzeko merkatuko interes-tasan.

Hauxe da hondar-estalduragatiko pasiboaren (LRCaren) eta izandako ezbeharrengatiko pasiboen (LICen) mugimendua 2023ko eta 2022ko ekitaldietan:

		LCR		
	LIC	Galera-osagaia	Galera-osagaia kenduta	Guztira
Aseguru-kontratuengatiko pasiboak 2023ko urtarrilaren 1ean	**84.587**	**261**	**420.898**	**505.746**
Pasiboko aldaketekin lotutako zenbatekoak, BBA edo VFA bidez baloratutako kontratuen gainerako estalduran	-	-	(12.622)	(12.622)
Gertatutako itxarondako ezbeharrak eta aseguru-zerbitzuaren bestelako gastuak	-	-	(8.657)	(8.657)
Arriskuaren doikuntzako aldaketak arrisku ez-finantzarioan	-	-	(1.057)	(1.057)
Emandako zerbitzuengatik kontabilizatutako kontratuzko zerbitzuaren marjina (CSM)	-	-	(2.908)	(2.908)
Pasiboko aldaketekin lotutako zenbatekoak, PAA bidez baloratutako kontratuen gainerako estalduran	-	-	(158.494)	(158.494)
BBA edo VFA bidez aseguruak eskuratzeagatiko diru-fluxuak berreskuratzea	-	-	(3.989)	(3.989)
Aseguruen sarrerak guztira	**-**	**-**	**(175.105)**	**(175.105)**
Izandako ezbeharrak eta aseguru-zerbitzuaren bestelako gastuak	113.320	-	-	113.320
Asegurua eskuratzeagatiko diru-fluxuak amortizatzea	-	-	31.896	31.896
Izandako ezbeharrengatiko pasiboarekin (LICarekin) lotutako betetzetik datozen iraganeko zerbitzuei lotutako aldaketak	11.096	-	-	11.096
Kostu bidezko kontratuen galerak eta galera horien itzulerak	-	(136)	-	(136)
Aseguru-zerbitzuen gastuak guztira	**124.416**	**(136)**	**31.896**	**156.176**
Jaulkitako aseguru-kontratuetatik datozen finantza-gastuak	**212**	**-**	**3.830**	**4.042**
Inbertsio-osagaiak	**61.851**	**-**	**(61.851)**	**-**
Bestelako aldaketak	**(329)**	**-**	**-**	**(329)**
Emaitza integralean kontabilizatutako zenbatekoak guztira	**862**	**-**	**16.729**	**17.591**
Jasotako primak	-	-	193.649	193.649
Ezbeharrak eta zuzenean egoztekoak diren gastu ordainduak	(193.393)	-	-	(193.393)
Aseguruak eskuratzeagatiko diru-fluxuak	-	-	(32.833)	(32.833)
Diru-fluxuak guztira	**(193.393)**	**-**	**160.816**	**(32.577)**
Aseguru-kontratuengatiko pasiboak 2023ko abenduaren 1ean	**78.206**	**125**	**397.213**	**475.544**

	LIC	LCR		Guztira
		Galera-osagaia	Galera-osagaia kenduta	
Aseguru-kontratuengatiko pasiboak 2022ko urtarrilaren 1ean	**83.710**	**-**	**500.987**	**584.697**
Pasiboko aldaketekin lotutako zenbatekoak, BBA edo VFA bidez baloratutako kontratuen gainerako estalduran	-	-	(10.472)	(10.472)
Gertatutako itxarondako ezbeharrak eta aseguru-zerbitzuaren bestelako gastuak	-	-	(8.535)	(8.535)
Arriskuaren doikuntzako aldaketak arrisku ez-finantzarioan	-	-	(522)	(522)
Emandako zerbitzuengatik kontabilizatutako kontratuzko zerbitzuaren marjina (CSM)	-	-	(1.415)	(1.415)
Pasiboko aldaketekin lotutako zenbatekoak, PAA bidez baloratutako kontratuen gainerako estalduran	-	-	(149.437)	(149.437)
BBA edo VFA bidez aseguruak eskuratzeagatiko diru-fluxuak berreskuratzea	-	-	(3.682)	(3.682)
Aseguruen sarrerak guztira	**-**	**-**	**(163.591)**	**(163.591)**
Izandako ezbeharrak eta aseguru-zerbitzuaren bestelako gastuak	91.066	-	-	91.066
Asegurua eskuratzeagatiko diru-fluxuak amortizatzea	-	-	31.083	31.083
Izandako ezbeharrengatiko pasiboarekin (LICarekin) lotutako betetzetik datozen iraganeko zerbitzuei lotutako aldaketak	25.624	-	-	25.624
Kostu bidezko kontratuen galerak eta galera horien itzulerak		261	-	261
Aseguru-zerbitzuen gastuak guztira	**116.690**	**261**	**31.083**	**148.034**
Jaulkitako aseguru-kontratuetatik datozen finantza-gastuak	**(172)**	**-**	**1.669**	**1.497**
Inbertsio-osagaiak	**53.336**	**-**	**(53.336)**	**-**
Bestelako aldaketak	**(143)**	**-**	**-**	**(143)**
Emaitza integralean kontabilizatutako zenbatekoak guztira	**(914)**	**-**	**(45.791)**	**(46.705)**
Jasotako primak	-	-	181.285	181.285
Ezbeharrak eta zuzenean egoztekoak diren gastu ordainduak	(167.920)	-	-	(167.920)
Aseguruak eskuratzeagatiko diru-fluxuak	-	-	(31.408)	(31.408)
Diru-fluxuak guztira	**(167.920)**	**-**	**149.877**	**(18.043)**
Aseguru-kontratuengatiko pasiboak 2022ko abenduaren 31n	**84.587**	**261**	**420.898**	**505.746**

Hauxe da kontratuen hasierako kontabilizazioaren berdinkatzea, metodo orokorra (BBA) edo komisio aldakorraren metodoa (VFA) erabiliz baloratutako kontratuetarako, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n:

	2023			2022		
	Kostu bidezkoak ez diren sortutako kontratuak	Kostu bidezko sortutako kontratuak	Guztira	Kostu bidezkoak ez diren sortutako kontratuak	Kostu bidezko sortutako kontratuak	Guztira
Etorkizuneko eskudiru-irteeren egungo balioaren zenbatespenak:						
Aseguruak eskuratzeagatiko diru-fluxuak	3.894	-	3.894	3.279	-	3.279
Erreklamazioak eta bestelako eskudiru-irteerak	7.886	-	7.886	8.314	-	8.314
Etorkizuneko eskudiru-sarreren egungo balioaren zenbatespenak	16.441	-	16.441	12.884	-	12.884
Arrisku ez-finantzarioagatiko arriskuaren doikuntza	341	-	341	180	-	180
Kontratuzko zerbitzuaren marjina	4.319	-	4.319	1.111	-	1.111
Hasierako kontabilizazioan kontabilizatutako irteera garbiaren galerak	**-**	**-**	**-**		**-**	**-**

Hona hemen ekitaldian kontabilizatutako kontratuen inpaktua, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n:

	2023			2022		
	Kostu bidezkoak ez diren sortutako kontratuak	Kostu bidezko sortutako kontratuak	Guztira	Kostu bidezkoak ez diren sortutako kontratuak	Kostu bidezko sortutako kontratuak	Guztira
Etorkizuneko eskudiru-irteeren egungo balioaren zenbatespenak:						
Aseguruak eskuratzeagatiko diru-fluxuak	77	-	77	68	-	68
Erreklamazioak eta bestelako eskudiru-irteerak	6.522	-	6.522	6.125	-	6.125
Etorkizuneko eskudiru-irteeren egungo balioaren zenbatespenak:						
Etorkizuneko eskudiru-sarreren egungo balioaren zenbatespenak	(1.022)	-	(1.022)	(355)	-	(355)
Arrisku ez-finantzarioagatiko arriskuaren doikuntza	271	-	271	140	-	140
Aseguruak eskuratzearen diru-fluxuengatiko aktiboa eta kontabilizatu aurreko bestelako diru-fluxuak, baja emandakoak	-	-	-	-	-	-
CSM	3.683	-	3.683	940	-	940
Ekitaldian kontabilizatutako kontratuetatik datozen aseguru kontratuengatiko pasiboen gehikuntza	**9.531**	**-**	**9.531**	**6.918**	**-**	**6.918**

Azkenik, hauxe da trantsizioan kontabilizatutako zenbatekoen xehetasuna, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n:

	Kontratu berriak eta trantsizioan atzera begirako ikuspegi osoarekin neurtutako kontratuak	Trantsizioan arrazoizko balioaren ikuspegiarekin neurtutako kontratuak	Guztira
Kontratuzko zerbitzuaren marjina 2023ko urtarrilaren 1ean	**940**	**6.092**	**7.032**
Egungo zerbitzuarekin lotutako aldaketak			
Emandako zerbitzuengatik kontabilizatutako CSMa	(1.174)	(1.734)	(2.908)
Aseguruen gastu edo sarrera finantzarioak	114	16	130
Etorkizuneko zerbitzuarekin lotutako aldaketak			
CSMa doitzen duten zenbatespenetako aldaketak	893	3.311	4.204
Kostu bidezko kontratuen galerak eta galera horien itzulerak	-	(136)	(136)
Hasieran ekitaldian kontabilizatutako kontratuak	4.319	-	4.319
Kontratuzko zerbitzuaren marjina 2023ko abenduaren 31n	**5.092**	**7.549**	**12.641**

	Kontratu berriak eta trantsizioan atzera begirako ikuspegi osoarekin neurtutako kontratuak	Trantsizioan arrazoizko balioaren ikuspegiarekin neurtutako kontratuak	Guztira
Kontratuzko zerbitzuaren marjina 2022ko urtarrilaren 1ean	**-**	**9.713**	**9.713**
Egungo zerbitzuarekin lotutako aldaketak			
Emandako zerbitzuengatik kontabilizatutako CSMa	(152)	(1.263)	(1.415)
Aseguruen gastu edo sarrera finantzarioak	16	(11)	5
Etorkizuneko zerbitzuarekin lotutako aldaketak			
CSMa doitzen duten zenbatespenetako aldaketak	(35)	(2.607)	(2.642)
Kostu bidezko kontratuen galerak eta galera horien itzulerak	-	261	261
Hasieran ekitaldian kontabilizatutako kontratuak	1.111	-	1.111
Kontratuzko zerbitzuaren marjina 2022ko abenduaren 31n	**940**	**6.093**	**7.033**

30. Aktibo ukigarriak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n duen banakapena:

	2023	2022
Ibilgetu materiala	340.009	304.261
Erabilera propiokoa:	326.033	290.733
Tresna informatikoak eta instalazioak	14.675	11.041
Altzariak, ibilgailuak eta gainerako instalazioak	36.858	34.436
Eraikinak	290.485	273.749
Horietatik: errentamenduengatiko erabilera-eskubideak	*53.918*	*51.325*
Uneko obrak	19.879	6.427
Bestelakoak	-	-
Narriaduragatiko balio-zuzenketak	(35.864)	(34.920)
Errentamendu operatiboan lagatakoa	13.976	13.528
Higiezinetako inbertsioak	52.996	53.602
Eraikinak	64.980	64.647
Landa-finkak, partzelak eta orubeak	419	419
Narriaduragatiko balio-zuzenketak	(12.403)	(11.464)
	393.005	357.863

Jarraian, «Aktibo ukigarriak» epigrafeko saldoak 2023ko eta 2022ko ekitaldietan izandako mugimenduaren berri emango dugu:

	Erabilera propiokoa	Errentamendu operatiboan lagatakoa	Gizarte-ekintzari lotua	Higiezinetako inbertsioak	Guztira
Gordina					
2022ko urtarrilaren 1eko saldoa	542.800	28.020	-	77.716	648.536
Gehikuntzak	44.521	7.402	-	-	51.923
Ateratzeak	(13.949)	(6.632)	-	(3.241)	(23.822)
Intsuldaketak	(5.439)	-	-	5.439	-
Salgai dauden aktibo ez-korronteeta(tik/ra) intsuldatzea	(757)	-	-	3.454	2.697
2022ko abenduaren 31ko saldoa	567.176	28.790	-	83.368	679.334
2023ko urtarrilaren 1eko saldoa	567.176	28.790	-	83.368	679.334
Gehikuntzak	55.141	7.188	-	-	62.329
Ateratzeak	(8.432)	(9.849)	-	(720)	(19.001)
Intsuldaketak	(1.675)	-	-	1.675	-
Salgai dauden aktibo ez-korronteeta(tik/ra) intsuldatzea	4.492	-	-	297	4.789
2023ko abenduaren 31ko saldoa	616.702	26.129	-	84.620	727.451
Metatutako amortizazioa					
2022ko urtarrilaren 1eko saldoa	233.129	14.624	-	15.467	263.220
Zuzkidurak	16.465	6.196	-	785	23.446
Ateratzeak	(6.367)	(5.558)	-	(463)	(12.388)
Intsuldaketak	(1.497)	-	-	1.497	-
Salgai dauden aktibo ez-korronteeta(tik/ra) intsuldatzea	(207)	-	-	1.016	809
2022ko abenduaren 31ko saldoa	241.523	15.262	-	18.302	275.087
2023ko urtarrilaren 1eko saldoa	241.523	15.262	-	18.302	275.087
Zuzkidurak	19.193	5.756	-	722	25.671
Ateratzeak	(6.536)	(8.865)	-	(151)	(15.552)
Intsuldaketak	(273)	-	-	273	-
Salgai dauden aktibo ez-korronteeta(tik/ra) intsuldatzea	898	-	-	75	973
2023ko abenduaren 31ko saldoa	254.805	12.153	-	19.221	286.179
Aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak					
2022ko urtarrilaren 1eko saldoa	(40.358)	-	-	(10.520)	(50.878)
Zuzkidurak	-	-	-	-	-
Ateratzeak	3.258	-	-	1.717	4.975
Intsuldaketak	2.103	-	-	(2.103)	-
Salgai dauden aktibo ez-korronteeta(tik/ra) intsuldatzea	77	-	-	(558)	(481)
2022ko abenduaren 31ko saldoa	(34.920)	-	-	(11.464)	(46.384)
2023ko urtarrilaren 1eko saldoa	(34.920)	-	-	(11.464)	(46.384)
Zuzkidurak	(310)	-	-	(927)	(1.237)
Ateratzeak	177	-	-	85	262
Intsuldaketak	-	-	-	-	-
Salgai dauden aktibo ez-korronteeta(tik/ra) intsuldatzea	(811)	-	-	(97)	(908)
2023ko abenduaren 31ko saldoa	(35.864)	-	-	(12.403)	(48.267)
Garbia					
2022ko abenduaren 31ko saldoa	**290.733**	**13.528**	**-**	**53.602**	**357.863**
2023ko abenduaren 31ko saldoa	**326.033**	**13.976**	**-**	**52.996**	**393.005**

2023ko ekitaldian, 19.001 mila euroko zenbateko gordineko aktibo materialei eman zaie baja, eta 448 mila euroko salmentagatiko emaitza sortu da (2022an 23.822 mila eurori eman zitzaien baja, eta 1.104 mila euroko emaitza sortu zen).

Bestalde, 2023ko ekitaldian, 62.329 mila euroko balio gordineko aktibo ukigarriei eman zaie alta, batez ere lokal berriak eskuratzeari dagozkienak (51.923 mila euroko altak 2022an).

Balantze bateratuetako «Erabilera propioko ibilgetu materiala» epigrafeko saldoa, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31koa, banakatuko dugu orain:

	Gordina	Metatutako amortizazioa	Narriaduragatiko zuzenketak	Garbia
2023ko abenduaren 31n				
Tresna informatikoak eta instalazioak	61.567	(46.893)	-	14.674
Altzariak, ibilgailuak eta gainerako instalazioak	168.939	(132.080)	-	36.859
Eraikinak	366.538	(76.053)	(35.864)	254.621
Uneko obrak	19.879	-	-	19.879
Bestelakoak	842	(842)	-	-
	617.765	(255.868)	(35.864)	326.033
2022ko abenduaren 31n				
Tresna informatikoak eta instalazioak	54.719	(43.678)	-	11.041
Altzariak, ibilgailuak eta gainerako instalazioak	161.715	(127.279)	-	34.436
Eraikinak	343.461	(69.712)	(34.920)	238.829
Uneko obrak	6.427	-	-	6.427
Bestelakoak	854	(854)	-	-
	567.176	(241.523)	(34.920)	290.733

«Erabilera propioko ibilgetu materiala» atalaren arrazoizko balioa txostenaren 40. oharrean agertzen da.

«Erabilera propioko ibilgetu materiala» atalaren 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko saldo garbian ez da sartzen erabiltzen ez den aktibo materialaren zenbatekorik.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n erabiltzen diren eta erabat amortizatuta dauden Taldearen «Erabilera propioko ibilgetu materiala» ataleko elementuen balio gordina 143.833 mila eurokoa eta 137.381 mila eurokoa dira, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak ez du aktibo materialik, ez erabilera propiokorik ez eraikitze-bidean dagoenik, titulartasuna mugatuta duenik edo zorrak ordaintzeko bermetzat eman denik. 2023ko abenduaren 31n, 825 mila euroko hirugarrenekiko konpromisoa dago aktibo materiala eskuratzeko; 354 mila eurokoa 2022ko ekitaldian.

Egoera-balantzeetako «Higiezinetako inbertsioak» epigrafeko saldoa, 2023ko eta 2022ko 31koa, banakatuko dugu jarraian:

	Gordina	Metatutako amortizazioa	Narriaduraga-tiko zuzenketak	Garbia
2023ko abenduaren 31n				
Eraikinak	84.201	(19.221)	(12.403)	52.577
Landa-finkak, partzelak eta orubeak	419	-	-	419
	84.620	(19.221)	(12.403)	52.996
2022ko abenduaren 31n				
Eraikinak	82.949	(18.302)	(11.464)	53.183
Landa-finkak, partzelak eta orubeak	419	-	.-	419
	83.368	(18.302)	(11.464)	53.602

«Higiezinetako inbertsioak» epigrafeko arrazoizko balioa txostenaren 40. oharrean agertzen da.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n errentan hartuta eta erabat amortizatuta dauden Taldearen «Higiezinetako inbertsioak» ataleko elementuen balio gordina 2.499 eta 2.525 mila eurokoa da, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren.

2023ko eta 2022ko ekitaldietan, Taldearen «Higiezinetako inbertsioak» ataletik lortutako ustiapeneko sarrera garbiak 2.572 eta 2.444 mila eurokoak izan dira, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren.

Merkataritzarako lokalak edo antzekoak errentan hartzeko kontratuek zehaztuta dute muga-eguna, eta kasuaren araberakoa da iraupena.

Balantze bateratuetako «Errentamendu operatiboan lagatako aktiboak» epigrafeko saldoa, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31koa, banakatu dugu hemen:

	Gordina	Metatutako amortizazioa	Garbia
2023ko abenduaren 31n			
Makineria	9.977	(4.216)	5.761
Altzariak eta lanabesak	459	(261)	198
Eraikinak	-	-	-
Informatika-ekipamenduak	13.800	(6.697)	7.103
Mediku-ekipamenduak	1.088	(592)	496
Garraio-elementuak	-	-	-
Bestelakoak	805	(387)	418
	26.129	(12.153)	13.976
2022ko abenduaren 31n			
Makineria	9.332	(4.248)	5.084
Altzariak eta lanabesak	707	(586)	121
Eraikinak	-	-	-
Informatika-ekipamenduak	16.249	(9.074)	7.175
Mediku-ekipamenduak	1.155	(516)	639
Garraio-elementuak	-	-	-
Bestelakoak	1.347	(838)	509
	28.790	(15.262)	13.528

2023ko eta 2022ko ekitaldietan Taldeak «Errentamendu operatiboan lagatako aktiboak» ataleko errentetatik lortutako sarrerak 6.708 eta 7.175 mila eurokoak izan dira, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren. 2023ko eta 2022ko ekitaldietan, Taldeak «Errentamendu operatiboan lagatako aktiboak» epigrafeko kontzeptu guztien ustiapen-gastuak 510 eta 543 mila eurokoak izan dira, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren (55. oharra).

Taldeak errentamenduagatiko erabilera-eskubideak ditu, batez ere bulegotarako higiezinen gainean, bere jarduera gauzatzeko.

Segidan, errentamenduagatiko erabilera-eskubideen 2023ko banakapena eta mugimendua aurkeztuko ditugu:

	Lursailak eta eraikinak	Bestelakoak	Guztira
2022ko urtarrilaren 1eko saldoa	35.499	-	35.499
Gehikuntzak	21.479	-	21.479
Ateratzeak	(2.011)	-	(2.011)
Amortizazioa	(3.642)	-	(3.642)
Bestelako mugimenduak	-	-	-
2022ko abenduaren 31ko saldoa	51.325	-	51.325
Gehikuntzak	8.371	-	8.371
Ateratzeak	(2.078)	-	(2.078)
Amortizazioa	(3.700)	-	(3.700)
Bestelako mugimenduak	-	-	-
2023ko abenduaren 31ko saldoa	53.918	-	53.918

Ondoren, erabilera-eskubideei lotutako errentamenduagatiko pasiboen xehetasuna emango dugu; «Finantza-pasiboak kostu amortizatuan» epigrafean daude erregistratuta:

	2023	2022
Errentamenduengatiko pasiboa		
Errentamendu korronteena	55.019	51.964
Errentamendu ez-korronteena	-	-
	55.019	51.964

Entitateak 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n dituen errentamenduengatiko pasiboak honela daude banakatuta, muga-egunaren arabera:

	2023	2022
Urtebetera artekoak	72	452
1 eta 5 urte artekoak	4.100	5.419
5 urtetik gorakoak	50.847	46.093
	55.019	51.964

31. Aktibo ukiezinak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n duen banakapena:

	2023	2022
Merkataritzako funtsa	33.425	33.425
Bestelako aktibo ukiezina	134	-
	33.559	33.425

Balantze bateratuetako «Merkataritzako funtsa» epigrafeko saldoa, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31koa, banakatuko dugu jarraian:

	2023	2022
Seguros Lagun Aro SA		
Gordina	33.425	33.425
Narriaduragatiko zuzenketak	-	-
	33.425	33.425

2011ko abenduaren 20ra arte, Taldeak Seguros Lagun Aro SAren kapital sozialaren % 36,05 izan zuen zuzenean eta % 4,94 zeharka. Data horretan, Taldeak Seguros Lagun Aro SAren kapital sozialaren % 59,01 eskuratu zuen, eta, ondorioz, Seguros Lagun Aro SAren kontrola bereganatu zuen. Aseguru-sozietate horrek bizitzakoak ez diren atal nagusietako arriskuak aseguratzen ditu, adar bakoitzerako lege-estaldura jakin batzuk finkatuta.

Eskurapenaren ondoriozko 33.425 mila euroko merkataritzako funtsa eskuratutako bezero-oinarriari dagokio, eta Taldearen eragiketak eta Seguros Lagun Aro SArenak konbinatuta segur aski sortuko diren eskalako ekonomiei.

Entitate Nagusiko kontseilariek dituzten estimazioen eta proiekzioen arabera, merkataritzako funtsak sortzen dituzten partaidetzapeko erakundeei esker Taldeari egoztekoak diren sarreren aurreikuspenek egoki estaltzen dute erregistratutako horien balio garbia.

Ondoren, «Merkataritzako funtsa» atalak «Aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak» aintzat hartu gabe 2023ko eta 2022ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

	2023	2022
Ekitaldi-hasierako saldoa	33.425	33.425
Negozio-konbinazioaren ondorioz bateratze-perimetroa aldatzeagatiko sarrerak	-	-
	33.425	33.425

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuko «Aktibo ez-finantzarioen balioa narriatzea edo (–) narriadura itzultzea – Merkataritzako funtsa» epigrafean ez da narriaduragatiko balio-zuzenketarik egin.

Hauek dira merkataritzako funtsen narriadura ebaluatzeko erabilitako hipotesi makroekonomikoak eta interes-tasen ingurukoak:

Urtean behin, kontabilitate-arauetan finkatutako narriadura-azterketa egiten dio Entitate Nagusiak merkataritzako funtsari, Seguros Lagun Aro SAren % 100 erostean bereganatutakoari, eta sentikortasuna ere aztertzen da. Azterketa hori egiteko, aipatutako merkataritzako funtsa esleitu zaion eskudirua sortzeko unitatearen (kasu honetan Seguros Lagun Aro SAren) narriadura aztertzen da. Unitatea narriatuta legoke bere kontabilitate-balioa erabilera-balioaren gainetik balego. Erabilera-balioa da unitatearen zenbatetsitako diru-fluxuen gaur egungo balioa. Ez da horrelakorik gertatu eskuratu zenetik.

Estimatutako diru-fluxuak Seguros Lagun Aro SA sozietatearen negozio-planetik atera dira, hazkunde-tasa apaletan oinarrituta eta negozioaren edo haren eraginkortasunaren egiturazko aldaketen ondorioz sor litezkeen fluxu positibo garbiak bazterrean utzita. Zehazki, plangintzan sartu diren ekitaldietako emaitzen proiekzioa erabili da diru-fluxuen proiekzioak egiteko abiapuntuko hipotesitzat.

Seguros Lagun Aro SAtik datozen aktiboak eskuratu izanaren ondoriozko negozio-konbinazioan sortu den merkataritzako funtsari dagokionez, Seguros Lagun Aro SAren merkataritzako funtsaren narriaduraren aztarnarik ote dagoen baloratu du Taldeak 2023ko eta 2022ko itxieran, eta zenbateko berreskuragarria zenbatetsi du. Zenbateko berreskuragarri horiek beraien liburuetako zenbatekoak baino handiagoak direnez, ez da narriadurarik gertatu.

Baloratzeko, metodologia hau erabili du: aseguru-sozietatearen jarduerari lotutako etorkizuneko irabazi garbi banagarriak 5 urteko (2028ra arteko) proiekzioarekin deskontatzea, eta amaierako balioa kalkulatzea, % 1eko betiko hazkunde-tasa erabiliz. Tasa hori bat dator sozietatearen jarduera-eremua dagoen ingurune ekonomikoaren helburuko inflazioarekin. Aurreko esperientzia % 1 horretatik gorakoa da. Hauek dira finantza-proiekzioak eraikitzeko funtsezko aldagaiak: zuzeneko aseguruaren marjina gordinaren bilakaera —espero diren negozio-bolumenen eta interes-tasen menpe egongo da— eta emaitza-kontuko gainerako partiden eta kaudimen-mailaren bilakaera.

Banatuko diren fluxuen egungo balioa (erabilera-balioa lortzeko erabili dena) kalkulatzeko, merkatu-partaide baten ikuspegitik Seguros Lagun Aro SAk duen kapital-kostua (Ke) erabili da deskontu-tasatzat. Hori zehazteko, CAPM (Capital Asset Pricing Model) metodoa erabili da.

Metodo horren arabera, diru-fluxuen proiekzioei aplikatutako zerga aurreko deskontu-tasa % 7,64koa izan da, kapitalaren kostua barruan hartu baita kontuan. Kapitalaren kostuaren zenbatespena bat dator sektoreko analista independenteek aplikatutakoekin.

Proiektatutako aldian erabili diren urteko hazkunde-tasak (CAGRak) % 1 eta % 8,13 bitartekoak izan dira eskuratutako primetan, eta % 1 eta % 4,01 bitartekoak aseguruen gastu teknikoetan.

Batez ere, hipotesi hauek hartu dira aintzat 2023ko abenduaren 31ko analisia egiteko:

- Sektore osoan gertatzen ari den prezio-igoera.
- Ezbeharren batez besteko kostuaren igoera (funtsean, inflazioak eragindakoa) eta haien maiztasunari eustea.
- Etorkizunera finantza-etekin handiagoak lortzea, ekitaldi honetan Seguros Lagun Aro SAren aktibo-zorroetan egindako minusbalioen ondorioz.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, balorazioaren funtsezko aldagaien sentsibilitate-azterketa egin da, eta hor ere ez da antzeman narriadura-aztarnarik.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n indarrean dagoen zerga-araudiaren arabera, sortutako merkataritzako funtsa ez da kengarria zergetan.

2023ko abenduaren 31n, «Aktibo ukiezinak – Bestelako aktibo ukiezina» epigrafean erregistratutako 134 mila euroko zenbatekoa Lagun Klik SLren jarduerak eragindako garapen informatiko eta patenteei dagokie.

32. Zergengatiko aktiboak eta pasiboak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe hauek 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n duten banakapena:

	Aktiboa		Pasiboa	
	2023	2022	2023	2022
Zerga korronteak:	727	783	9.249	8.139
Sozietateen gaineko zerga	129	311	4.516	4.596
BEZa	47	-	934	745
Ogasun publikoa zordun atxikipenengatik	551	472	-	-
Bestelakoak	-	-	3.799	2.798
Zerga geroratuak:	165.229	213.900	103.328	98.368
Finantza-tresnen balorazio-doikuntzak	15.098	30.640	75.560	63.382
Ibilgetuaren amortizazioa	-	-	27.768	28.326
Irekitze-komisioak	357	535	-	-
Kreditu fiskalak	109.099	140.329	-	-
Ibilgetua berrinbertitzea	-	-	-	-
Pentsioetarako eta antzeko obligazioetarako funtsak	4.980	5.110	-	-
Kaudimengabezietarako eta bestelako horniduretarako funtsa	32.313	27.448	-	-
Ibilgetuaren amortizazioa	-	-	-	-
Partaidetzen narriadura	-	-	-	-
Finantza-pasibo propioen eta hipoteka-zedulen errebalorizazioa	-	6.431	-	6.660
Gordailuak Bermatzeko Funtsa	-	-	-	-
Bestelako kontzeptuak	3.382	3.407	-	-
	165.956	214.683	112.577	106.507

2023ko eta 2022ko ekitaldietan, irizpide kontableen eta fiskalen artean aldeak sortu dira, Entitate Nagusiari eta partaidetzapeko erakundeei aplikatzekoa den sozietateen gaineko zergaren inguruan indarrean dagoen araudi fiskalaren ondorioz. Alde horiek aktiboko eta pasiboko «Zerga geroratuak» epigrafean erregistratu dira, jarduera etengabeen irabazien gaineko zerga kalkulatu eta erregistratzean.

Aktiboko eta pasiboko «Zerga geroratuak» epigrafeko saldoek 2023ko eta 2022ko ekitaldietan izandako mugimenduak azalduko ditugu:

	Aktiboa		Pasiboa	
	2023	2022	2023	2022
Ekitaldi-hasierako saldoa	213.900	381.778	98.368	50.320
Gehikuntzak/(murrizketak)	(48.671)	(167.878)	4.960	48.048
Kaudimengabezietarako eta bestelako horniduretarako funtserako zuzkidura	4.865	789	-	-
Finantza-tresnen balorazio-doikuntzak	(21.973)	(157.805)	5.518	39.790
Ibilgetua errebalorizatzea	-	-	(558)	1.598
Irekitze-komisioak	(178)	(215)	-	-
Kreditu fiskalak	(31.230)	(14.028)	-	-
Pentsioetarako eta antzeko obligazioetarako funtsak	(130)	(3.075)	-	-
Finantza-pasiboen errebalorizazioa	-	6.431	-	6.660
Bestelakoak	(25)	25	-	-
Ekitaldi-itxierako saldoa	165.229	213.900	103.328	98.368

Ekitaldia itxi eta hurrengo 10 urteetako onura fiskalen bidez konpentsatzeko aukera probablea dela egiaztatzen den heinean kontabilizatzen dira zerga-oinarri negatiboengatik zerga geroratuengatiko aktiboak. 2023ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak 70.785 mila euroko eta 38.314 mila euroko zerga geroratuengatiko aktiboak kontabilizatu ditu, hurrenez hurren, zerga-oinarri negatiboengatik eta aplikatzeko dauden kenketengatik (106.615 mila eurokoak eta 33.714 mila eurokoak, hurrenez hurren, 2022ko abenduaren 31n). Horiek guztiak etorkizuneko ekitaldietan Entitate Nagusiak sortutako zerga-onuren kontra konpentsatzea espero da, Zuzendaritzak prestatutako urteko Gestio Planetan aurreikusi denez.

Entitate Nagusiak 2023ko abenduaren 31n erregistratuta dauden kreditu fiskalen zerga-oinarrien araberako berreskuragarritasuna ebaluatzen du urtero, etorkizunean izango dituen emaitzen proiekzioan oinarrituta —10 urtetik beherako berreskuragarritasuna hartzen da aintzat—.

2013ko azaroaren 29ko 14/2013 Errege Lege Dekretuak, Espainiako zuzenbidea Europar Batasuneko finantza-erakundeen gainbegiratzeari eta kaudimenari buruzko araudiaren arabera egokitzeko premiazko neurriak ezarri zituenak, Bigarren Azken Xedapenean finkatutakoarekin bat, eta Dekretu hori foru-araudian jasotzeko erabakia (Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2014ko abenduaren 16ko 17/2014 Foru Araua) betez, zerga-administrazioari eskatzeko kreditu bihur daitezkeen zerga geroratuengatiko aktiboak ditu Taldeak, 2023ko abenduaren 31n. Estimatutako zenbatekoa: 71 milioi euro (107 milioi euro 2022ko abenduaren 31n). Era berean, 2016ko ekitalditik aurrera, bihurtze hori efektiboa izan dadin % 1,5eko ondare-prestazioa eramango du lotuta, aktibo horien zenbatekoaren gainean (55. oharra).

39. oharrean jaso ditugu Taldearen egoera fiskalari buruzko xehetasunak.

33. Bestelako aktibo eta pasiboak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horiek 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n duten banakapena:

	Aktiboa		Pasiboa	
	2023	2022	2023	2022
Izakinak	35.148	28.073	-	-
Sortutako komisioen periodifikatzeak	39.180	35.178	-	-
Bestelako periodifikatzeak	-	-	66.034	62.882
Bideratzen ari diren eragiketak	23	88	63	251
Gizarte Ekintzako Funtsa	-	-	15.109	14.886
Bestelako kontzeptuak	-	274	1.282	1.301
	74.351	63.613	82.488	79.320

10. oharrean adierazi denez, ez dago 2012ko otsailaren 3ko 2/2012 Errege Lege Dekretuan ezarritakoari jarraikiz Gordailuak Bermatzeko Funtsari egindako derramagatik ordaindu beharreko zenbatekorik, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n.

2023ko ekitaldian 17.121 mila euroko zenbateko gordina eta 13.424 mila euroko kontabilitate-balio garbia dituzten izakinak saldu dira, 18.539 mila euroko salmenta-prezioan. Izakin horiek saltzearen ondorioz, 5.115 mila euroko emaitza sortu da. 2022ko ekitaldian 43.812 mila euroko zenbateko gordina eta 34.051 mila euroko kontabilitate-balio garbia zituzten izakinak saldu ziren, 46.685 mila euroko salmenta-prezioan. Izakin horiek saltzearen ondorioz, 12.634 mila euroko emaitza sortu zen.

Gizarte Ekintzako Funtsa

Hona hemen 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko balantzeetako «Bestelako pasiboak» epigrafeko Gizarte Ekintzako Funtsa kapituluaren banakapena:

	2023	2022
Heziketako eta Sustapeneko Funtsa	15.109	14.886
Zuzkidura:	15.109	14.886
Aktibo materialari aplikatua	-	-
Bestelako inbertsioei aplikatua – Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	812	3.437
Ekitaldian konprometitutako gastuak	11.449	7.348
Uneko ekitaldiko mantentze-gastuak	(11.449)	(7.348)
Konprometitu gabeko zenbatekoa	14.297	11.449
Errebalorizazio-erreserbak	-	-
	15.109	14.886

Gizarte Ekintzako Funtseko saldoak mugimendu hauek izan ditu 2023ko eta 2022ko ekitaldietan:

	2023	2022
Ekitaldi-hasierako saldoa	14.886	10.785
Ekitaldiko soberakinaren kargura egin beharreko nahitaezko zuzkidura (4. eta 55. oharrak)	14.297	11.449
Ekitaldiko mantentze-gastuak	(11.449)	(7.348)
Bestelakoak	(2.625)	-
Ekitaldi-amaierako saldoa	15.109	14.886

Kreditu-kooperatibei buruzko 13/1989 Legeak, Kooperatiben Erregimen Fiskalari buruzko 20/1990 Legeak aldatu zuenak, hauxe agintzen du, 1978ko azaroaren 3ko 2860/1978 Errege Dekretuan ezarritako banaketa-irizpideei eutsiz: gutxienez soberakin garbiaren % 10 Heziketako eta Sustapeneko Funtsera bideratuko da (4. oharra).

Funts horretara egiten diren zuzkidurak kooperatibismoa garatzera, komunitateko kultura- eta asistentzia-beharrei erantzutera eta helburu horietan lagunduko duen ibilgetua gauzatzera bideratuko dira, besteak beste. Ildo horretatik, 2023ko eta 2022ko ekitaldietako nahitaezko zuzkiduratik —14.297 eta 11.449 mila eurokoak izan dira, hurrenez hurren—, 4.923 mila euro MONDRAGON Taldeko korporazio-erakundeak finantzatzeko eta 2.862 mila euro Heziketako eta Kooperatiba arteko Sustapeneko Funtserako izan dira 2023an (3.367 eta 3.160 mila euro 2022an).

34. Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n duen banakapena:

	2023	2022
Erabilera propioko aktibo ukigarria	17.651	21.467
Higiezinetako inbertsioak	2.484	3.709
Esleitutako aktibo ukigarria	377.960	409.359
Aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak	(374.300)	(381.053)
	23.795	53.482

Ondoren, «Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak» epigrafeak 2023ko eta 2022ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

	2023	2022
Banakako partidak:		
Ekitaldi-hasierako saldoa	53.482	106.471
Gehikuntzak	2.457	9.065
Salmentagatiko bajak	(5.938)	(16.792)
Narriaduragatiko zuzkidurak (64. oharra)	(23.298)	(43.855)
Aktibo ukigarrien intsuldaketak (30. oharra)	(2.908)	(1.407)
Aktibo kobraezinetara intsuldatzea	-	-
Izakinetara intsuldatzea (33. oharra)	-	-
Ekitaldi-itxierako saldoa	23.795	53.482

Segidan, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuko «Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak» atalaren galderak edo narriaduragatiko itzulerak xehatuko ditugu (64. oharra):

	2023	2022
Aktibo ukigarriak	(15.613)	(3.065)
Bestelako aktiboak	(7.685)	(40.790)
	(23.298)	(43.855)
Emaitzetan kargatzeko zuzkidurak	(23.298)	(43.855)
	(23.298)	(43.855)

Hauxe da «Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak» epigrafeko «Aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak» ataleko saldoak 2023ko eta 2022ko ekitaldietan izandako mugimendua:

	2023	2022
Ekitaldi-hasierako saldoa	381.053	380.016
Emaitzetan kargatzeko zuzkidura garbiak	23.298	43.855
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan intsuldatzea (25. oharra)	-	77
Aktibo kobraezinetara intsuldatzea eratutako funtsen eta salmentengatiko bajen kargura	(29.143)	(42.414)
Izakinetara intsuldatzea (33. oharra)	-	-
Aktibo ukigarrien intsuldaketak (30. oharra)	(908)	(481)
	374.300	381.053

Hauxe da «Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak» epigrafeko «Aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak» ataleko saldoak 2023ko eta 2022ko abenduak 31an duen banakapena:

	2023	2022
Banakako partidak	374.300	381.053
	374.300	381.053

35. Finantza-pasiboak kostu amortizatuan

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n duen banakapena:

	2023	2022
Banku zentraletako gordailuak	184.265	981.817
Kreditu-erakundeen gordailuak	1.552	3.961
Bezeroen gordailuak	22.562.965	23.182.835
Zorra adierazten duten balore jaulkiak	-	30.292
Bestelako finantza-pasiboak	285.291	271.787
	23.034.073	24.470.692

Ondoren, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Finantza-pasiboak kostu amortizatuan» epigrafearen banakapena egingo dugu, diruaren eta mugaegunaren arabera:

	2023	2022
Dibisaren arabera:		
Eurotan	23.007.518	24.451.382
Dolar estatubatuarretan	19.680	16.136
Libera esterlinatan	945	1.589
Franko suitzarretan	344	896
Yen japoniarretan	252	535
Gainerakoetan	5.334	154
	23.034.073	24.470.692
Muga-egunaren arabera:		
Agerikoak	17.900.846	20.442.118
Hilabetera artekoak	826.574	700.981
1 eta 3 hilabete artekoak	418.325	460.210
3 hilabete eta urtebete artekoak	3.151.466	2.008.970
Urtebete eta 5 urte artekoak	286.958	419.614
5 urtetik gorakoak	11.811	56.489
Zehaztu gabeko muga-egunekoak	412.077	397.413
Balorazio-doikuntzak	26.015	(15.103)
	23.034.073	24.470.692

a) Banku zentraletako gordailuak

Hauxe da 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Banku zentraletako gordailuak» epigrafeko saldoaren banakapena:

	2023	2022
Espainiako Bankua	180.000	1.000.000
Balorazio-doikuntzak	4.265	(18.183)
	184.265	981.817

16. oharrean adierazitakoari jarraikiz, Entitate Nagusiko finantzaketari eta likideziari jarraipena egiteko politika aktiboarekin bat, 2020ko ekainean Europako Banku Zentralak iragarritako berariazko helburuaz epe luzeagoan finantzatzeko eragiketen —TLTRO II— hirugarren sortara jo zen —1.680 milioi eurokoak izan ziren—. 2021ean, Entitate Nagusiak 180 milioi euro erantsi dizkio finantzaketari, eta 1.860 milioi euroko kopurura iritsi da. 2022ko abenduan, 860 milioi euro amortizatu ziren; 1.000 milioi geratu ziren amortizatu gabe. 2023ko abenduan, 820 milioi euro amortizatu dira, eta 180 milioi geratzen dira TLTRO III programan amortizatzeko, 2023ko ekitaldiaren amaieran, abenduaren 31n.

Finantzaketa horren azken interes-tasa zehazteko erabakigarria izango da Entitate Nagusiak eragiketa hautagarriak emateko helburu jakin batzuk betetzea. Zuzendaritzaren zenbatespenaren arabera, hauxe izango da Entitate Nagusiaren finantzaketa bizirako espero den interes-tasa: gordailutzeko erraztasun-tasa ken oinarrizko 50 puntu, eragiketaren hasieratik 2022ko ekainaren 23ra bitartean, eta gordailutzeko erraztasun-tasa 2022ko ekainaren 24tik aurrera. 2022ko ekainaren 24tik aurrera, dagokion jaulkipenaren bizitza osoko gordailu-erraztasun marjinalaren batez besteko tasaren pareko interes-tasa sortzen dute TLTRO III programako jaulkipenek, barne direla jaulkipenetik igarotako epeak eta mugaeguneratu arte etorkizunean geratzen direnak. Kasu horretan, batez besteko interes-tasa kalkulatuta sortzen ditu Entitate Nagusiak TLTRO III programako jaulkipenen interesak, Europako Banku Zentralaren erabakiek xedatzen dutenari jarraikiz. Batez besteko interes-tasa hori zehazteko ez da erabiltzen etorkizuneko interes-tasen bilakaerari buruzko hipotesirik eta, FINA 9 arauaren B5.4.5 paragrafoa aplikatuta, gordailu-erraztasun marjinalean izaten den aldaketa bakoitzean berriro kalkulatzen da mugaeguneratu arte geratzen den epean sortu beharreko interes-tasa.

2022ko azaroaren 7an argitaratu zen Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean (EBEOn) 2022ko urriaren 27ko 2022/2128 Erabakia (EB), zeinaren bidez aldatzen baita berariazko helburuaz epe luzeagoan finantzatzeko eragiketen hirugarren serieari buruzko 2019/1311 Erabakia (EB), TLTRO III programaren interes-sortzapenaren baldintzak aldatzen dituena: 2022ko azaroaren 23an hasi zen interes-tasaren azken epe bat gehitu du, bi zatitan banatu du orain arte interes-epe nagusia zena eta alde batera utzi du aurrez deskribatutako interes-tasa bereziaren epea.

Honenbestez, 2022ko ekainaren 24tik 2022ko azaroaren 22ra arte honela sortzen dira interesak: jaulkipenaren hasieratik 2022ko azaroaren 22ra arte, gordailu-erraztasunaren batez bestekoaren arabera eta, 2022ko azaroaren 23tik jaulkipena mugaeguneratu arte, epe horretako gordailu-erraztasunaren batez bestekoaren arabera.

Hurrenez hurren, % 2,92koa eta –% 0,48koa izan dira, hurrenez hurren, banku zentraletako gordailuek 2023ko eta 2022ko ekitaldietan lortu duten urteko batez besteko interes-tasa.

2023ko abenduaren 31n, Espainiako Bankuak diru publikoen bermedun kredituen sisteman Entitate Nagusiari esleitutako muga 2.873.729 mila eurokoa da (2.886.534 mila eurokoa 2022ko abenduaren 31n).

b) Kreditu-erakundeen gordailuak

Hauxe da 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Kreditu-erakundeen gordailuak» epigrafeko saldoaren banakapena:

	2023	2022
Eperako kontuak	1.416	1.928
Berrerosteko ituna	-	-
Bestelako kontuak	117	2.018
Balorazio-doikuntzak	19	15
	1.552	3.961

Hurrenez hurren, % 3,35ekoa eta –% 0,08koa izan dira «Kreditu-erakundeen gordailuak» atalak 2023ko eta 2022ko ekitaldietan lortu dituen urteko batez besteko interes-tasak.

c) Bezeroen gordailuak

Jarraian, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko balantze bateratuetan «Bezeroen gordailuak» epigrafeko saldoak duen banakapena emango dugu:

	2023	2022
Espainiako administrazio publikoak	699.102	678.276
Berrerosteko ituna kontrako alderdiekin	-	-
Bestelako sektore egoiliarrak:	21.816.359	22.454.031
Ageriko gordailuak:	17.566.644	20.292.568
Kontu korronteak	7.026.191	7.310.552
Aurrezki-kontuak	10.509.118	12.953.043
Bestelakoak	31.335	28.973
Eperako gordailuak:	3.607.043	1.614.634
Eperako ezarpenak	3.531.868	1.547.167
Bestelakoak	75.175	67.467
Berrerosteko ituna	625.230	544.035
Balorazio-doikuntzak	17.442	2.794
Sortutako interesak	16.662	2.312
Mikro-estaldurako eragiketak	780	482
Bestelako sektore ez-egoiliarrak	47.504	50.528
	22.562.965	23.182.835

Bezeroen gordailuek urteko batez besteko interes-tasa hau eman dute, 2023ko eta 2022ko ekitaldietan, produktuaren arabera:

	2023	2022
Ageriko gordailuak	% 0,02	% 0,00
Eperako gordailuak	% 0,79	% 0,04

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, ez dago hipoteka-zedula bizirik.

«Bestelako sektoreak – Eperako gordailuak – Bestelakoak» atalean, 0 euroko zenbatekoa dago 2023ko abenduaren 31n (29.874 mila eurokoa 2022ko abenduaren 31n). IM Caja Laboral 1 ATF eta IM Caja Laboral 2 ATF titulizazio-funtsen bidez bonuen jaulkipenean lortutako finantzaketaren zenbateko garbia da hori. Funts horiei hainbat mailegu atxiki zitzaizkion, eta, baja emateko baldintzak betetzen ez zituztenez, Taldearen balantzean jarraitzen zuten 2022ko abenduaren 31n (25. oharra).

Epigrafe honetan, funts horiei ekarritako maileguen saldo bizia, 0 eurokoa 2023ko abenduaren 31n (341.233 mila eurokoa 2022ko abenduaren 31n), sartu da batik bat, Taldeak harpidetu dituen 0 euroko (2022ko abenduaren 31n 283.743 mila euroko) bonuen zenbatekoa kendu ondoren.

Jarraian, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko balantze bateratuetan «Bezeroen gordailuak» epigrafeko saldoak duen banakapena emango dugu, dibisen eta muga-egunen arabera:

	2023	2022
Dibisaren arabera:		
Eurotan	22.536.410	23.163.525
Dolar estatubatuarretan	19.680	16.136
Libera esterlinatan	945	1.589
Franko suitzarretan	344	896
Yen japoniarretan	252	535
Gainerakoetan	5334	154
	22.562.965	23.182.835
Muga-egunaren arabera:		
Agerikoak	17.886.154	20.416.874
Hilabetera artekoak	826.531	700.940
1 eta 3 hilabete artekoak	418.223	458.282
3 hilabete eta urtebete artekoak	2.969.886	1.008.719
Urtebete eta 5 urte artekoak	286.711	418.976
5 urtetik gorakoak	1.906	12.264
Zehaztu gabeko muga-egunekoak	151.823	163.715
	22.541.234	23.179.770
Balorazio-doikuntzak	21.731	3.065
	22.562.965	23.182.835

d) Zorra adierazten duten balore jaulkiak

Segidan, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Balore negoziagarriek ordezkatutako zorrak» epigrafeko saldoaren banakapena azaltzen da:

	2023	2022
Ordaindukoak eta efektuak	-	-
Bihurgarriak ez diren bestelako baloreak	-	-
Hipoteka-tituluak	-	30.292
Balore propioak	-	-
Balorazio-doikuntzak	-	-
	-	30.292

Hipoteka-tituluak

2006an, titulizazio-bonuak jaulkitzeko hipoteka-mailegu batzuk ekarri zituen Taldeak IM Caja Laboral 1 ATF titulizazio-funtsera. 2008ko eta 2011ko ekitaldietan ere, titulizazio-bonuak jaulkitzeko hipoteka-mailegu batzuk ekarri zituen Taldeak IM Caja Laboral 2 ATF titulizazio-funtsera (25. oharra), eta Taldeak guzti-guztiak harpidetu zituen. Harpidetutako bonu horiek berme kolateral gisa erabiltzeko asmoa du Taldeak, eurosistemako kreditu-eragiketetan, hain zuzen ere.

2023ko abenduaren 31n, 0 mila eurokoa da IM Caja Laboral 1 ATF eta IM Caja Laboral 2 ATF funtsen bitartez jaulki diren eta Taldekoak ez diren hirugarrenek harpidetu dituzten titulizazio-bonuen zenbateko efektiboa (30.292 mila eurokoa, 2022ko abenduaren 31n). Bonuok 2049ko urrian eta 2051ko urtarrilean mugaeguneratuko dira, hurrenez hurren, eta Euriborrari hurrenez hurren % 0,15 eta % 0,21 bitarteko eta % 0,30 eta % 1 bitarteko diferentziala gehituta ateratzen den interes-tasa sortzen dute urtean.

2023ko ekainean, Sozietate Gestoreko administrazio-kontseiluak aho batez erabaki zuen IM Caja Laboral 1 ATF funtsa aldez aurretik likidatzea, funtsaren liburuxkaren 4.4.3.(i) atalean —liburuxka CNMVn 2006ko azaroaren 30ean erregistratu zen— ezarritakoaren arabera; izan ere, hipoteka-mailegu ez-kobraezinen ordaindu gabeko saldo nominala txikiagoa zen funtsaren eraketa-egunean hipoteka-maileguek hasieran zuten saldoaren % 10 baino.

Orobat, 2023ko ekainaren 26an, Sozietate Gestoreko administrazio-kontseiluak aho batez erabaki zuen IM Caja Laboral 2 ATF funtsa aldez aurretik likidatzea, funtsaren liburuxkaren 4.4.3.(vi) atalean —liburuxka CNMVn 2008ko maiatzaren 22an erregistratu zen— ezarritakoaren arabera. Caja Laboral Popular Cooperativa de Créditok eskatu zuen funtsaren aurretiko likidazioa, funtsak jaulkitako eta amortizatu gabeko bonu guztien lagatzailea eta titularra zen aldetik. Indarreko kontratuak zituzten kontrako alderdi guztiek baimendu zuten likidazioa.

Ondoren, «Zorra adierazten duten balore jaulkiak» epigrafean 2023ko eta 2022ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

	2023	2022
Ekitaldi-hasierako saldoa	30.292	46.413
Jaulkipenak	-	-
Hirugarrenek harpidetutako baloreak	-	-
Amortizazioak	(29.873)	(16.369)
Taldearen balore propioak	-	-
Balorazio-doikuntzak	(419)	248
Ekitaldi-itxierako saldoa	-	30.292

e) Bestelako finantza-pasiboak

Hona hemen 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko balantzeetako «Bestelako finantza-pasiboak» epigrafearen saldoak duen banakapena:

	2023	2022
Ordaindu beharreko obligazioak	18.049	27.713
Jasotako fidantzak	5.703	9.805
Konpentsazio-ganberak	36.831	30.128
Bilketa-kontuak	116.311	106.498
Kontu bereziak	1.399	575
Finantza-bermeen periodifikatzeak	2.040	2.286
Bestelako kontzeptuak	104.958	94.783
	285.291	271.787

«Bestelako kontzeptuak» epigrafearen barruan, Entitateak 55.019 mila euroko errentamenduengatiko pasiboa erregistratu du 2023ko abenduaren 31n (30. oharra) (51.964 mila eurokoa 2022ko abenduaren 31n).

36. Hornidurak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n duen banakapena:

	2023	2022
Pentsioak eta enplegu ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak	17.785	18.251
Langileen epe luzeko bestelako ordainsariak	-	-
Ordaintzeko dauden zergen prozesu-gaiak eta auziak	-	-
Emandako konpromisoak eta bermeak	14.392	17.524
Gainerako hornidurak	121.618	106.710
	153.795	142.485

Ondoren, «Hornidurak» epigrafean 2023ko eta 2022ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

	Pentsioak eta enplegu ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak	Langileen epe luzeko bestelako ordainsariak	Ordaintzeko dauden zergen prozesu-gaiak eta auziak	Emandako konpromisoak eta bermeak	Gainerako hornidurak	Guztira
2022ko abenduaren 31n						
Ekitaldi-hasierako saldoa	29.230	-	-	25.872	100.471	155.573
Gehikuntzak, dauden hornituren igoerak barne	602	-	-	10.194	23.768	34.564
(–) Erabilitako zenbatekoak	(11.507)	-	-	-	(27.457)	(38.964)
(–) Erabili gabeko zenbatekoak, epealdian itzuliak	(74)	-	-	(18.701)	(741)	(19.516)
Bestelako mugimenduak	-	-	-	159	10.669	10.828
Ekitaldi-itxierako saldoa	18.251	-	-	17.524	106.710	142.485
2023ko abenduaren 31n						
Ekitaldi-hasierako saldoa	18.251	-	-	17.524	106.710	142.485
Gehikuntzak, dauden hornituren igoerak barne	9.092	-	-	6.958	32.898	48.948
(–) Erabilitako zenbatekoak	(9.333)	-	-	-	(34.978)	(44.311)
(–) Erabili gabeko zenbatekoak, epealdian itzuliak	(225)	-	-	(10.033)	(1.970)	(12.228)
Bestelako mugimenduak	-	-	-	(57)	18.958	18.901
Ekitaldi-itxierako saldoa	17.785	-	-	14.392	121.618	153.795

a) Pentsioak eta enplegu ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak

2023ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak etorkizuneko konpromisoak ditu bazkide batzuekin hartuta, batez ere PD 61, PD 62, PD 63, Sare Berria, PACA 64 eta PACA 65 planetara atxikitzeko borondatezko erabakiaren ondorioz (2022ko abenduaren 31n, PD 61, PD 62, PD 63 eta Sare Berria ziren planak). Horrela, bada, jarduneko langileen konpromisoei erantzuteko funtsak ditu eratuta Entitateak. Dinamizazio-planen kasuan, planok ezarri zirenetik bazkideek Entitateari zerbitzu emateari uzten dioten egunera bitartean sortutakoak izango dira konpromiso horiek. Benetan erretiratu bitartean bazkideek jasoko dituzten soldata-osagaien eta bestelako gizarte-kargen ondoriozko konpromisoak dira. Lanbide-jarduera aldez aurretik uzteko laguntza-planen (PACAen) kasuan, aurreko dinamizazio-planekin alderatuta aisialdia kendu denez, prestazioaren zenbateko osoa plana ezartzen den egunean sortzen da.

Entitate Nagusiak enplegu ondoko ordainketetan hartutako konpromisoen egungo balioa eta konpromiso horiek nola estaltzen ziren azalduko dugu jarraian:

	2023	2022
Hartutako konpromisoak	17.785	18.251
	17.785	18.251
Estaldurak		
Barruko funtsak	17.785	18.251
	17.785	18.251

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, enplegu-osteko ordainsarien konpromisoak estaltzeko etorkizuneko prestazio-fluxuak baloratu dira, eta, hori kalkulatzeko, aurreikusitako kreditu-unitatea aplikatu da, langile bakoitzaren erretiro-adin estimatutzat erretiratzeko eskubidea ematen dion lehenengoa hartuz.

Hona hemen balorazioan kontuan hartutako hipotesiak:

	2023	2022
Deskontu-tasa	% 0	% 0
Kontsumo-aurrerakin gordinaren etorkizunerako hazkundea	% 0	% 0
Prestazioen hazkundea	% 0	% 0
Erretiro-adina	Ahalik eta adinik txikiena	Ahalik eta adinik txikiena

Lanbide-jarduera aldez aurretik uzteko 1964ko eta 1965eko laguntza-planei dagokienez, ez dira hipotesi horiek aintzat hartu behar, horietan ez baitago aisialdirik (13.o oharra).

Zenbatespenean erabilitako KPIaren zenbatespena % 2,9koa da 2024ko urterako, % 2,9koa 2025erako, % 2,9koa 2026rako eta % 2koa 2027rako eta ondorengoetarako. 2022ko abenduaren 31n, ekitaldi horietarako erabilitako zenbatespena % 5,8koa zen 2023rako, % 4,1ekoa 2024rako, % 3,6koa 2025erako eta % 2koa 2026rako eta ondorengoetarako.

Obligazioak deskontatzeko interes-tasa konpromisoaren iraupenaren (1,3 urteren) arabera zehaztu da; erreferentziako kurba kalkulatzeko, berriz, 2023ko abenduaren 31ko Euro Denominated Corporate Bonds AA kurba hartu da erreferentziatzat (iturria: Bloomberg).

b) Gainerako hornidurak

«Hornidurak – Gainerako hornidurak» epigrafeak gastu posibleei edo galerei aurre egiteko edo abian diren erreklamazio eta auzietatik datozen erantzukizun probable edo ziurrei edo Taldearen jardueraren ondoriozko betebeharrei erantzuteko hornidurak hartzen ditu, besteak beste, barne. Epigrafe horren saldoa zenbatesteko, kalkulu-prozedura zuhur eta sendoak erabili dira, estali behar dituzten betebeharrek dakarten zalantza kontuan hartuta.

Entitatearen politika orokorraren arabera, galtzeko arrisku probablea duten legezko prozesuetarako hornikuntzak erregistratzen dira; galtzeko arriskua posiblea edo urrunekoa bada, ordea, ez da hornikuntzarik erregistratzen. Hornitu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, dagokion erreklamazioa edo eskaria likidatzeko behar izango den zenbatekoa zenbatesten da ahalik eta doien. Horretarako, besteak beste, gertaeren banakako azterketa eta barneko eta kanpoko lege-aholkularien iritziak hartzen dira aintzat, antzeko erreklamazio edo eskariengatiko galeren batez besteko historikoa ikusirik. Entitateari etekin ekonomikoak ekarriko dizkioten baliabideen behin betiko irteera-data betebehar bakoitzaren araberakoa izango da. Batzuetan, betebeharrek ez dute likidazio-epe finkorik eta, beste batzuetan, abian diren lege-prozesuen mende izaten dira.

Ekitaldiaren amaieran eratutako horniduren artean, hipotekak formalizatzeko gastuak daude, 2023ko ekitaldian eta aurrekoetan jasotako demanda eta erreklamazioen bilakaeraren araberakoak. Entitateak hainbatean behin egiten du demanden eta erreklamazioen jarraipena, eta 2023ko eta 2022ko ekitaldietan hurrenez hurren 31.148 eta 17.542 mila euroko hornidura gehigarria egin du kontzeptu horretarako, galdu-irabazien kontura kargatuta.

Taldeak erreklamazio edo lege-prozesu bakoitzari lotutako betebeharrak zenbatetsi ditu, eta, beharrezkoa izan denean, jasotako erreklamazioetatik edo legezko prozesu judizialetatik etor litezkeen pasiboak arrazoiz estaltzeko hornikuntza egokiak kontabilizatu ditu.

c) Espainiako hipoteketarako erreferentzia-tasa

Espainiako hipoteketarako erreferentzia-tasari dagokionez, zenbait prozedura judizial planteatu dira, hipoteka-maileguen zenbait kontratutan hipoteka-maileguen erreferentzia-indizea (IRPH) deritzon erreferentzia-tasa erabiltzeari buruz.

Hauxe da eztabaidagai dagoen gai juridikoa: 93/13 Zuzentarauaren 4.2 artikuluan oinarritutako gardentasun-kontrola, mailegu-hartzailea kontsumitzailea den kasuetan. IRPHa kontratuaren prezioa denez eta kontratuaren helburu nagusiaren definizioaren barruan dagoenez, modu argi eta ulergarrian idatzi behar da, kontsumitzailea gai izan dadin kontratuak eragindako ondorio ekonomikoak ebaluatzeko, irizpide argi eta ulergarrietan oinarrituta.

2017ko abenduaren 14ko Espainiako Auzitegi Gorenaren (AGaren) Osoko Bilkuraren 669/2017 Epaiak zioenez, IRPHari buruzko klausulak gainditu egiten zituen gardentasun-kontrolak; hori dela eta, indarrean jarraitzen du.

AGaren epai haren ostean, lehen auzialdiko epaitegi batek judizio aurreko arazo bat aurkeztu zion Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari (EBJAri), IRPHaren klausula zela eta kontsumitzaileen zuzenbide komuna interpretatzeaz.

2020ko martxoaren 3an eman zuen EBJAk gai horri buruzko epaia, eta ondorio hauek plazaratu zituen:

1.- Epaiak ez ditu IRPH klausulak deuseztatu, baizik eta auzitegi nazionaletara bideratu ditu, horiek azter ditzaten, eta erabaki dezaten hipoteka-maileguen kontratuetan interes-tasa aldakorra finkatzen duen kontratu-klausula gardena den ala ez, ulertzen baita klausula horrek, ulergarria izateaz gain formaltasunari eta gramatikari dagokienez, aukera eman behar diola batez besteko kontsumitzaileari —oro har, informatua eta nahiko arretatsua eta zorrotza— interes-tasa hori nola kalkulatzen den ulertzeko eta, irizpide zehatz eta ulergarriak oinarri dituela, klausula horrek bere finantza-obligazioetan dituen ondorio ekonomikoak baloratzeko, nabarmenak izan daitezke eta.

2.- Horrekin lotuta, EBJAk ulertzen du i) IRPHa kalkulatzeko elementurik garrantzitsuenak aise eskura zitzakeela hipoteka-mailegu bat kontratatu nahi zuen edonork, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako 8/1990 Zirkularrean ageri baitziren, eta ii) erreferentziako indizeak iraganean izandako bilakaeraz kontsumitzaileari emandako informazioa elementu garrantzitsua dela klausularen gardentasuna baloratzeko.

3.- Auzitegi nazionalak IRPHa deuseztatzen badu eta aldeak ados jartzen ez badira, Auzitegiak ordezkatu egin dezake 14/2013 Legeak aipatzen duen ordezko legeriak deuseztatutako indizea —entitateen IRPHaz ari gara, eta berorren magnitudea kutxen IRPHaren eta bankuen IRPHaren batezbestekoa da—; izan ere, kontsumitzailearen kaltetan kontratua suntsiaraztea ekarriko luke horrek.

EBJAren epaiaren ondoren, Auzitegi Gorenaren Osoko Bilkurak lau epai eman zituen 2020-11-12an (595, 596, 597 eta 598 zenbakidunak). Horien bidez jakinarazi zuen —EBJAren jurisprudentzia aplikatuz— IRPHaren klausulak ez duela gardentasun-kontrola gainditzen, indizearen iraganeko bilakaerari buruzko informaziorik eman ez delako. Hala eta guztiz ere, epaiaren arabera gardentasun-ezak ez du esan nahi klausula zuzenean abusuzkoa denik, baizik eta abusuzkoa izan den aztertzeko aukera ematen du, mailegu-kontratuaren funtsezko elementu bati buruzkoa da eta. Epai horien bidez AGak ebatzi zuenez, IRPHaren klausulak gainditu egiten du abusibitate-kontrola; izan ere, IRPHa eskaintzea ez da fede onaren aurkakoa eta hura aplikatzeak ez du desorekarik eragiten, kontsumitzailearen kalterako, alderdien eskubide eta betekizunetan.

Entitate Nagusiko goi-zuzendaritzaren iritzian, oso txikia da Auzitegi Gorenaren doktrina hori aldatzeko probabilitatea. Horregatik, Entitateak ez du inongo hornidurarik egin kontzeptu hori dela eta.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, hurrenez hurren 111,6 eta 77,1 milioi euro ingurukoa da pertsona fisikoei IRPHari lotuta emandako hipoteka-maileguen zenbateko osoa (ordainketa egunean duena).

37. Funts propioak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n duen banakapena:

	2023	2022
Kapitala	818.761	797.870
Bestelako erreserbak	1.101.895	1.047.691
(Akzio propioak)	(2.864)	(2.507)
Entitate Nagusiko jabeei egozteko moduko emaitza	208.444	134.538
(Konturako dibidenduak)	-	-
	2.126.236	1.977.592

Kapitala

Entitate Nagusiaren kapital soziala lan-bazkideek, bazkide kolaboratzaileek eta elkartutako kooperatibek eginiko eta ordaindutako ekarpenez dago osatuta. Entitate Nagusiko estatutu sozialen arabera (1. oharra), bazkide bakoitzaren ekarpenen zenbateko osoak ezin izango du kapital sozialaren % 20 gainditu pertsona juridikoa denean eta % 2,5 pertsona fisikoa denean. Bazkideek zor sozialetan duten erantzukizuna beraien ekarpenetara mugatuko da.

Ekitaldi bakoitzean, ekarpenei aplikatuko zaien interes-tasa proposatzen dio Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusiari, horrek onespena eman diezaion. Kreditu Kooperatiben Legeak ezartzen duen araudiaren arabera, interes hori ezin da inoiz izan diruaren legezko interes-tasa baino 6 puntu handiagoa. 2023ko eta 2022ko ekitaldietan % 7koa eta % 4,5ekoa izan da, hurrenez hurren, kapital sozialerako ekarpenetarako aplikatutako urteko tasa. 2023ko ekitaldiari dagokion % 7a Batzar Nagusiak onesteko dago.

Ondoren, Entitate Nagusiaren «Kapitala» epigrafeko saldoan 2023ko eta 2022ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

	2023	2022
Ekitaldi-hasierako saldoak	797.870	786.383
Aurreko ekitaldiko soberakinaren banaketatik sortutako kooperatiba-itzulkinak (4. oharra)	28.623	18.369
Uneko ekitaldiko kapital sozialari egindako ekarpenetatik kapitalizatutako ordainketak	-	-
Kapital sozialerako ekarpenak		
- Elkartutako kooperatibenak	304	10
- Bazkideenak eta bestelakoenak	703	583
Ken, bajengatiko ekarpenen likidazioa		
- Elkartutako kooperatibenak	(1.620)	(1.171)
- Bazkideenak eta bestelakoenak	(7.119)	(6.304)
Finantza-pasiboaren izaerako kapitalerako intsuldaketak	-	-
Ekitaldi-itxierako saldoak	818.761	797.870

2023ko abenduaren 31n, LagunAro EPSV da zuzenean edo zeharka Entitate Nagusiaren kapital sozialean % 10etik gorako partaidetza duen erakunde bakarra; % 14,88koa da partaidetza (2022an % 15,02koa).

2013ko eta 2012ko ekitaldietan, kapital-ekarpeneko 2 jaulkipen berri egin zituen Entitate Nagusiak:

i) Lehenengo jaulkipena lan-bazkideei, bazkide kolaboratzaileei eta elkartutako kooperatibei zuzendu zitzaien, eta 2012ko apiriletik urrira bitarteko harpidetze-aldia izan zuen. 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, lehen jaulkipen horretan harpidetutako zenbatekoa 34.364 eta 34.624 mila eurokoa izan da, hurrenez hurren. Lehen jaulkipen horretan, urtean % 7,5eko ordainketa finkoa lortu zen, 2015eko abenduaren 15era arte. Hortik aurrera, Entitateko Batzar Nagusiak gainerako ohiko ekarpenetarako onartu zuen tasaren pareko ordainketa ezarri zen.

ii) Bigarren jaulkipena 2012ko abenduan abiatu zen, eta Entitatearekin lotura zehatz bat duten bezeroei zuzendu zitzaien. 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, bigarren jaulkipen horretan harpidetutako zenbatekoa 53.122 eta 53.703 mila eurokoa izan da, hurrenez hurren. Bigarren jaulkipen horretarako, urtean % 6ko ordainketa finkoa zehaztu zen, 2014ko abenduaren 30era arte. Hortik aurrera, Entitate Nagusiko Batzar Nagusiak gainerako ohiko ekarpenetarako onartu zuen tasaren pareko ordainketa ezarri zen.

Ekarpenak (sozietate-zatiak) inter vivos eskualdagarriak dira, baina baldintza batekin: ekarpena jasotzen duena bazkide izatea edo bazkide bihurtzea, Entitate Nagusiaren estatutuetan ezarritako baldintzen arabera. Bestalde, heriotzaren ondoriozko oinordetza bidez ere transmiti daitezke, eskubidedunak bazkideak badira edo bazkide bihurtzen badira 6 hileko epean. Bazkideren batek baja hartuz gero, kapital sozialari egindako ekarpenak itzultzeko eska dezakete bazkide horrek edo dagozkion eskubidedunek. Kasu horretan, behin betiko baja-egunaren osteko lehen Batzar Nagusiak onartutako balantzearen arabera zehaztuko da ekarpenaren balioa, eta, bazkide izateari utzi izanaren arrazoiaren arabera, gerta daiteke zenbatekoa txikitzea Kontseilu Errektoreak erabakitako ehunekoa aplikatuz. Itzultzeko epea Kontseilu Errektoreak finkatuko du; baina, gehienez ere, 5 urtekoa izango da, baja-egunetik kontatzen hasita, edo urtebetekoa, gertaera eragiletik kontatzen hasita, bazkidea hilez gero.

2005eko azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuaren Seigarren Azken Xedapenak hainbat aldaketa ekarri zituen, Kreditu-kooperatiben Erregelamendua onartu zuen 84/1993 Errege Dekretuaren 10. artikuluan, eta, horien bidez, kreditu-kooperatibek aukera dute estatutuetan bazkideen kapitalerako ekarpenen itzulketa mugatzeko. Entitate Nagusiaren estatutu sozialetan ezarri denez, bazkideen ekarpenak itzultzeko nahitaezkoa izango da Kontseilu Errektoreak aldeko erabakia hartzea eta itzulketa egin ondoren gutxieneko kapital soziala, baliabide propioak edo kaudimen-koefizientea behar adina estalita geratzea.

Entitate Nagusiaren estatutuen arabera, 10.000 mila eurokoa da erabat ordaindu behar den gutxieneko kapital soziala.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, hauek dira Entitate Nagusiaren eta Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU sozietatearen esku dauden kapital-tresnak, horien balio nominala eta egun horietan egin gabe dauden ordainketak:

	2023			2022		
	Akzio-kop.	Balio nominala (eurotan)	Egiteko dauden ordainketak	Akzio-kop.	Balio nominala (eurotan)	Egiteko dauden ordainketak
Seguros Lagun Aro Vida SA	285.000	111,88	-	285.000	111,88	-
Seguros Lagun Aro SA	87.360	90,15	-	87.360	90,15	-
Caja Laboral Gestión SGIIC SA	1.045.000	6,01	-	1.045.000	6,01	-
Caja Laboral Pensiones GFP SA	250.000	10	-	250.000	10	-
Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU	1.237.500	6	-	1.237.500	6	-
Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLU	10.000	1	-	10.000	1	-
ISGA Inmuebles SA	60.000	1	-	60.000	1	-
Lamiak SCA, SICAV-RAIF	29.700	1	-	-	-	-
Lagun Klik SL	3.000	1	-	-	-	-

Bestelako erreserbak

Balantze bateratuetako «Bestelako erreserbak» epigrafeko saldoa, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31koa, banakatuko dugu jarraian:

	2023	2022
Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioetan metatutako erreserbak edo galerak:	37	2
Erakunde elkartuak	37	2
Erakunde taldeaniztunak	-	-
Bestelakoak:	1.101.858	1.047.689
Entitate Nagusiari egotzitako erreserbak (galerak)	1.263.435	1.195.877
Mendeko erakundeei egotzitako erreserbak (galerak)	(161.577)	(148.188)
	1.101.895	1.047.691

Hona hemen «Bestelako erreserbak» epigrafearen saldoan 2023ko eta 2022ko ekitaldietan gertatutako mugimenduak:

	2023	2022
2022ko abenduaren 31ko saldoa	1.047.691	1.030.165
Aurreko ekitaldiko emaitzaren banaketa	52.678	40.401
IFRS 17ra egokitzearen erreserben gaineko eragina	-	(25.030)
Kapital-murrizketa	-	-
Bazkideen ekarpen garbiak	126	90
Dibidenduak (edo bazkideei egindako ordainketak)	-	-
Bestelakoak	1.400	2.065
2023ko abenduaren 31ko saldoa	1.101.895	1.047.691

1989ko maiatzaren 26ko Kreditu Kooperatiben 13/1989 Legeak, Kooperatiben zerga-erregimenari buruzko 1990eko abenduaren 19ko 20/1990 Legeak partzialki aldatu zuenak, kreditua antolatzeko oinarri berriak ezarri zizkien erakunde horiei. 1993ko ekitaldian, berriz, 1989ko maiatzaren 26ko Kreditu Kooperatiben 13/1989 Legearen garapenerako Erregelamendua onartu zen, 1993ko urtarrilaren 22ko 84/1993 Errege Dekretuaren bidez. Ekitaldian eskuragarri dagoen soberakina banatzeko irizpideak 4. oharrean jaso ditugu.

Hona hemen 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n mendeko erakundeei egotzitako «Bestelako erreserbak – Erreserbak/(galerak)» epigrafearen saldoa, erakundeen arabera banakatuta:

	2023	2022
Seguros Lagun Aro Vida SA (*)	(14.724)	(14.551)
Caja Laboral Gestión SGIIC SA	1.257	1.257
Caja Laboral Pensiones GFP SA	648	510
Seguros Lagun-Aro SA (*)	14.211	10.256
Caja Laboral Kutxa Cartera SLU	3.403	3.419
Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLU	4.469	1.870
ISGA Inmuebles SA (*)	(170.841)	(150.949)
Lamiak SCA, SICAV-RAIF	-	-
Lagun Klik SL	-	-
	(161.577)	(148.188)

(*) Barne hartzen du Seguros Lagun Aro 2003 AIE entitatearen baterako eragina.

Nahitaezko Erreserba Funtsa

«Bestelako erreserbak» epigrafeak Nahitaezko Erreserba Funtsaren 898.300 mila euroak eta 840.929 mila euroak biltzen ditu, hurrenez hurren, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n. 13/1989 Legearen arabera, Nahitaezko Erreserba Funtsera bideratu behar zen ekitaldiko soberakin erabilgarriaren % 50 gutxienez. 20/1990 Legeak aldatu egin zuen aurreko araua, ekitaldian Nahitaezko Erreserba Funtsera bideratu beharreko gutxienekoa % 20ra txikitzeko. Entitate Nagusiaren estatutuetan ezarrita dagoen banaketa ekitaldian erabilgarri dagoen soberakinaren % 50ekoa da gutxienez, eta 4. oharrean banakatu da.

Kaudimengabezia-arriskuak aurreikusteko erreserba

13/1989 Legea indarrean sartu arte, kreditu-kooperatiba kalifikatuek gutxienez ekitaldiko soberakinaren % 15 bideratu behar zuten erreserba horretara. 13/1989 Legeak eta 20/1990 Legeak, ordea, ez dute zehazten ekitaldiko soberakinaren banaketa egitean erreserbei ezer zuzkitu behar zaienik, kaudimengabezia-arriskuak aurreikusteko.

Hauxe da «Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioetan metatutako erreserbak edo galerak» ataleko saldoak 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n zuen banakapena:

	2023	2022
Erakunde elkartuak:	37	2
Ategi Green Power SL	37	2
Erakunde taldeaniztunak:	-	-
	37	2

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n Taldeari egotzitako emaitzetarako ekarpena banakatuko dugu jarraian, erakundeen arabera:

	2023	2022
Entitate Nagusia	175.341	146.019
Mendeko erakundeak:	33.093	(11.531)
Caja Laboral Gestión SGIIC SA	9.717	2.572
Caja Laboral Pensiones GFP SA	155	138
Seguros Lagun Aro SA	5.340	3.895
Seguros Lagun Aro Vida SA	9.138	(261)
Seguros Lagun-Aro 2003 AIE	-	-
Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU	(22)	(15)
Caja Laboral BancaSeguros OBSV SLU	2.128	1.900
ISGA Inmuebles SA	7.049	(19.760)
Lamiak SCA, SICAV-RAIF	(342)	-
Lagun Klik SL	(70)	-
Partaidetzaren metodoaz baloratutako erakundeak:	10	50
- Erakunde elkartuak:	10	50
Ategi Green Power SL	10	50
	208.444	134.538

38. Bestelako emaitza global metatu bat

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n duen banakapena:

	2023	2022
Emaitzetan birsailka daitezkeen elementuak:	138.344	80.195
Estaldura-deribatuak. Diru-fluxuen estaldura (zati eraginkorra):	103.147	116.097
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak:	35.197	(35.902)
Zor-tresnak	35.197	(35.902)
Emaitzetan birsailkatuko ez diren elementuak	29.493	28.671
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak:	29.493	28.671
Ondare-tresnak	29.493	28.671
	167.837	108.866

Ondare garbiko «Bestelako emaitza global metatu bat – Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak – Zor-tresnak» epigrafeko saldoan, Taldearen ondare garbiaren barruan sartu behar diren errenta finkoko finantza-tresna horien arrazoizko balioaren aldakuntzen zenbateko garbia biltzen da. Finantza-aktiboak saltzen direnean, aldeak galdu-irabazien kontuan jasotzen dira.

Ondare garbiko «Bestelako emaitza global metatu bat – Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak – Ondare-tresnak» epigrafeko saldoan, Taldearen ondare garbiaren barruan sartu behar diren ondare-tresna horien arrazoizko balioaren aldakuntzen zenbateko garbia biltzen da. Finantza-aktiboak saltzen direnean, aldakuntzak ondare garbiko «Bestelako erreserbak» epigrafean jasotzen dira (37. oharra).

Hona hemen 2023ko eta 2022ko ekitaldiak ondare garbiko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafearen banakapena:

	2023	2022
Ekitaldi-hasierako saldoa	108.866	(429.916)
Erreserbetan kargatuz egindako mugimendu garbia	(494)	(1.395)
Emaitzetan kargatzeko/(abonatzeko) mugimendu garbia	51.698	774
Salmentak eta amortizazioak (24. oharra)	52.702	(2.436)
Narriaduragatiko galerak (garbiak), emaitzetan kargatzekoak	(1.004)	3.210
Errebalorizazio/(Minusbalio) garbiak	20.717	(51.626)
Diru-fluxuen mikroestalduraren aldakuntzak	(12.950)	591.029
	167.837	108.866

Epigrafe honen bilakaera egoki irakurtzeko, 2023ko eta 2022ko ekitaldietan finantza-merkatuetan gertatutako inguruabarrak hartu behar dira kontuan; 18. oharrean azaldu dira.

Hona hemen 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko ondare garbiko «Bestelako emaitza global metatu bat» epigrafeko zenbatekoaren banakapena, erakundeen arabera:

	2023	2022
Entitate Nagusia	152.155	102.484
Mendeko erakundeak:	15.682	6.382
- Seguros Lagun-Aro Vida SA	19.269	14.897
- Seguros Lagun Aro SA	(3.587)	(8.515)
Erakunde elkartuak eta taldeaniztunak	-	-
	167.837	108.866

39. Egoera fiskala

Entitate Nagusiak eta partaidetzapeko erakundeek bakoitzaren arautegi fiskal aplikagarriaren arabera banaka aurkezten dituzte sozietateen gaineko zergaren aitorpenak.

Gipuzkoako Kooperatiben erregimen fiskalari buruzko 2/97 Foru Arauaren arabera, kreditu-kooperatibei aplikatu beharreko zerga-tasa bakarra da, hain zuzen, % 28koa. Mendeko gainerako sozietateei, berriz, % 24ko zerga-tasa aplikatzen zaie.

Partaidetzapeko erakunde nagusien 2023ko ekitaldiko sozietateen gaineko zerga likidatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2014ko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Araua aplikatu behar dira, partaidetzapekoak bere jarduera zer lurraldetan garatzen duen eta, beraz, sozietateen gaineko zergaren likidazioa non aurkezten duen.

2023ko ekitaldian zerga horri dagozkion zenbatekoak kalkulatu dituzte Entitate Nagusiko eta partaidetzapeko erakundeetako kontseilariek, baita ekitaldiaren itxieran indarrean dagoen foru-araudiaren arabera ikuskapena egiteko prest daudenak ere.

Zerga-oinarri negatiboek eta Gipuzkoako foru-araudiaren babesean sortutako kenketek 30 urteko aplikazio-muga dute.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

URTEKO KONTUEN TXOSTENA, 2023KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Hona hemen Entitate Nagusiaren 2023ko eta 2022ko ekitaldietako kontabilitate-emaitza indibidualaren eta sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarriaren berdinkatzeari buruzko informazioa:

	2023	2022
Ekitaldiko zerga aurreko kontabilitate-emaitza (*)	226.459	166.347
Diferentzia iraunkorrak		
Gehikuntzak		
- Kengarriak ez diren gastuak	245	1.545
- Bestelako kontzeptuak	-	-
- Ondare garbian kontabilizatutako gastuak	-	-
Murrizketak		
- Heziketako eta Sustapeneko Funtserako nahitaezko zuzkidura (55. oharra) (*)	(14.297)	(11.449)
- Kooperatiba arteko Funts Sozialerako zuzkidura	(17.174)	(11.022)
- Kapital sozialerako ekarpenengatik kontura ordaindutako interes gordin kengarriak	(43.154)	(36.064)
- Nahitaezko Erreserba Funtserako nahitaezko zuzkiduraren % 50	(35.743)	(28.623)
- Ustiapenari lotutako higiezinak saltzeagatik berrinbertitutako gainbalioak	(438)	(804)
- Ezarpen bikoitzagatiko kenkariak	(6.755)	(14.578)
- Sarrera ez-konputagarriak	(3)	(4.051)
- Bestelako kontzeptuak	-	-
Zergaren kontabilitate-oinarria	109.140	61.301
Denbora-aldeak		
- Uneko ekitaldian sortutakoak	18.862	(6.298)
- Dinamizazio Plana	(466)	(10.979)
- Bestelako horniduren zuzkidurak	17.375	2.815
- Irekitze-komisioak (FINA 9)	(637)	(765)
- Finantza-pasibo propioen eta hipoteka-zedulen errebalorizazioa	-	-
- Bestelakoak	2.590	2.631
Zerga-oinarri fiskala	128.002	55.003
Zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa	(128.002)	(55.003)
Likidazio-oinarria	-	-
Kuota osoa (% 28)	-	-
Kenketak eta hobariak	-	-
Kuota likidoa	-	-
Kontuko atxikipenak eta ordainketak	(551)	(472)
Sartu/(itzuli) beharreko sozietateen gaineko zerga	(551)	(472)

(*) Zerga aurreko emaitza, galdu-irabazien kontuko «Ustiapeneko bestelako gastuak» epigrafearen barruko gizarte-ekintzako funtsetarako nahitaezko zuzkidura aintzat hartu gabe (55. oharra).

Hona hemen Entitate Nagusiaren galdu-irabazien kontuko «Jarduera etengabeen irabazien gaineko zergen gastuak edo (–) sarrerak» epigrafearen osaera, 2023ko eta 2022ko ekitaldietan:

	2023	2022
Kontabilitate-oinarria tasa aplikagarrian	30.559	17.164
Kenketak eta hobariak	(3.889)	(1.372)
Bestelako kontzeptuak	(722)	-
	25.948	15.792

Hona hemen galdu-irabazien kontuko «Jarduera etengabeen emaitzen gaineko zergen gastuak edo (–) sarrerak» epigrafearen osaera, 2023ko eta 2022ko ekitaldietan:

	2023	2022
Kontabilitate-oinarria tasa aplikagarrian	30.559	17.164
Kenketak eta hobariak	(3.889)	(1.372)
Bestelako kontzeptuak	(722)	-
Entitate Nagusiaren mozkinen gaineko zerga	25.948	15.792
Partaidetzapeko erakundeen mozkinen gaineko zerga:		
Kontabilitate-oinarria tasa aplikagarrian	8.590	2.686
Bestelako kontzeptuak	-	-
	34.538	18.478

2023ko eta 2022ko ekitaldietan, galdu-irabazien kontuko «Jarduera etengabeen emaitzen gaineko zergen gastuak edo (–) sarrerak» ez ezik, ondare garbiko «Bestelako emaitza global metatu bat» atalaren ondoriozko zerga geroratuak sortu edo itzuli dira, kontzeptu eta zenbateko hauen arabera:

	2023	2022
Estaldura-deribatuak. Diru-fluxuen estaldura (zati efektiboarena)	(5.036)	229.844
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	27.969	(8.812)
	22.933	221.032

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, hauexek dira etorkizuneko ekitaldietan konpentsatzeko dauden aurreko ekitaldietako Entitate Nagusiaren zerga-oinarri negatiboak:

	Konpentsazioaren azken ekitaldia	2023	2022
Zerga-oinarri negatiboak	2042	252.803	380.805
		252.803	380.805

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, hauxe da etorkizuneko ekitaldietan erabiltzeko dauden Entitate Nagusiaren sozietateen gaineko zergaren kuotaren kenkari eta hobarien xehetasuna:

	Erabileraren azken ekitaldia	2023	2022
Ezarpen bikoitzagatiko kenkariak	2041ekotik 2049kora	11.329	11.225
% 35eko kuotaren gaineko baterako mugadun kenkariak	2038kotik 2049kora	17.922	14.208
% 70eko kuotaren gaineko baterako mugadun kenkariak	2040kotik 2049kora	9.064	8.280
		38.315	33.713

% 70eko kuotaren gaineko baterako mugadun kenkariak Entitate Nagusiak I+G+i-an egindako inbertsioengatiko kenkariei dagozkie, batez ere.

Entitate Nagusiko kontseilarien iritzian, aski litekeena da adierazi ditugun zenbatekoak aplikatzeko aukera emango duten onura fiskalak sortzea etorkizunean. Horregatik, kenkari, hobari eta zerga-oinarri negatibo horiek «Zerga geroratuengatiko aktiboak» atalean aktibatu dira (32. oharra).

Indarreko legeriaren arabera, zergak ezin dira behin betiko likidatutzat jo, harik eta aurkeztu diren aitorpenak aginte fiskalek ikuskatzen dituzten arte edo 4 urteko preskripzio-epea iragan arte.

2023ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak agintari fiskalek ikuskatzeko ditu azken 4 ekitaldietan aplikagarri zaizkion zerga nagusi guztiak.

Entitate Nagusiko kontseilarien aburuz, ikuskatzeko dauden eta preskribatu ez diren ekitaldietako pasiboek (baldin badaude) ez dute eragin handirik izango, 2023ko ekitaldiko urteko kontu bateratuetan. Halaber, Taldeak eginiko eragiketei aplikatzekoa den araudi fiskala modu askotara uler daitekeenez, zenbait pasibo fiskal kontingente sor litezke ikuskatzeko dauden urteetan. Hala eta guztiz ere, Entitate Nagusiko kontseilarien iritziz, oso zaila izango da pasibo kontingente horiek gauzatzea, eta, edozein modutan, sor lezaketen zerga-zorrak ez luke eragin handirik izango Taldearen urteko kontu bateratuetan.

40. Balantze bateratuko aktiboen eta pasiboen arrazoizko balioa

i) Finantza-aktibo eta -pasiboen arrazoizko balioa

13. oharrean adierazi denez, «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan» atala izan ezik, Taldearen finantza-aktiboak arrazoizko balioan daude erregistratuta honekin batera doan balantze bateratuan. Era berean, Taldearen finantza-pasiboak ere arrazoizko balioan daude jasota honekin batera doan egoera-balantze bateratuan, «Ageriko kapital itzulgarria» eta «Finantza-pasiboak kostu amortizatuan» atalak izan ezik.

Taula honetan laburtu ditugu jarraian adierazten diren finantza-aktiboen eta -pasiboen 2023ko eta 2022ko ekitaldi-itxieretako arrazoizko balioak, Taldeak arrazoizko balioak zehazteko erabilitako balorazio-metodologien arabera sailkatuta:

2023

	Balantzea guztira	Arrazoizko balioa	Arrazoizko balioaren hierarkia		
			1. maila	2. maila	3. maila
Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko bestelako gordailuak	1.417.707	1.417.707	-	-	1.417.707
Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak	8.038	8.038	5.435	2.603	-
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	996.268	996.268	870.986	-	125.282
Negoziatzeko helbururik ez duten eta nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren finantza-aktiboak	12.391	12.391	5.490	2.013	4.888
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan	23.381.618	23.380.319	7.957.701	-	15.422.618
Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea	57.411	57.411	-	57.411	-
FINANTZA-AKTIBOAK GUZTIRA	**25.873.433**	**25.872.134**	**8.839.612**	**62.027**	**16.970.495**
Negoziatzeko dauden finantza-pasiboak	2.177	2.177	-	2.177	-
Finantza-pasiboak kostu amortizatuan	23.034.073	23.034.073	-	-	23.034.073
Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea	434.648	434.648	-	433.838	810
FINANTZA-PASIBOAK GUZTIRA	**23.470.898**	**23.470.898**	**-**	**436.015**	**23.034.883**

2022

	Balantzea guztira	Arrazoizko balioa	Arrazoizko balioaren hierarkia		
			1. maila	2. maila	3. maila
Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko bestelako gordailuak	1.350.398	1.350.398	-	-	1.350.398
Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak	9.542	9.542	7.036	2.506	-
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	822.701	822.701	701.184	-	121.517
Negoziatzeko helbururik ez duten eta nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren finantza-aktiboak	42.670	42.670	38.843	1.842	1.985
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan	24.691.168	24.584.271	8.961.033	-	15.623.238
Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea	78.994	78.994	-	78.994	-
FINANTZA-AKTIBOAK GUZTIRA	**26.995.473**	**26.888.576**	**9.708.096**	**83.342**	**17.097.138**
Negoziatzeko dauden finantza-pasiboak	3.684	3.684	-	3.684	-
Finantza-pasiboak kostu amortizatuan	24.470.692	24.470.692	-	-	24.470.692
Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea	347.465	347.465	-	345.570	1.895
FINANTZA-PASIBOAK GUZTIRA	**24.821.841**	**24.821.841**	**-**	**349.254**	**24.472.587**

Hauek dira arrazoizko balioak zehazteko erabili diren irizpideak:

1. maila: finantza-tresna horientzat jarduneko merkatuetan kotizatutako prezioak erabiltzea.

2. maila: antzeko finantza-tresnentzat jarduneko merkatuetan kotizatutako prezioak edo bestelako balorazio-teknika batzuk erabiltzea (horietan, input garrantzitsu guztiak zuzenean edo zeharka behatzekoak diren merkatu-datuetan oinarritzen dira).

3. maila: merkatu-datu behagarrietan oinarrituta ez dagoen input garrantzitsuren bat duten balorazio-teknikak erabiltzea.

Zehazki, balorazio-teknika eta hipotesi hauek erabili dira arrazoizko balioak zehazteko:

- Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko bestelako gordailuak. Ageriko saldoak edo epe laburrera egitekoak direnez, ulertu da horien arrazoizko balioa bat datorrela liburuetan erregistratutako balioarekin.

- Zorra adierazten duten baloreak. Zor publikoko aktiboetarako eta kreditu-erakundeek jaulkitako errenta finkoko balore jakin batzuetarako, merkatu aktiboetan argitaratutako kotizazioa hartu da aintzat (1. maila). Interes-tasen bilakaerari lotutako errentagarritasuna duten errenta finkoko balore batzuetarako, berriz, fluxuen deskontuan oinarritutako balorazio-teknikak erabili dira, interes-tasen kurban eta antzeko tresnetarako merkatuaren *spread*ean oinarrituta (2. maila). Zorra adierazten duten gainerako baloreetarako, kanpoko balorazio-agente baimenduek kalkulatutako prezioak erabili dira (3. maila).

- Ondare-tresnak. Jarduneko merkatuetan argitaratutako kotizazioa hartu da aintzat (1. maila), inbertsio-funts eta arrisku-kapitaleko funts jakin batzuetarako salbu, horietarako kanpoko balorazio-agente baimenduek kalkulatutako prezioak erabili baitira (2. eta 3. maila).

- Finantza-aktiboak kostu amortizatuan – Maileguak eta aurrerakinak – Bezeroak. Erabaki da ez dagoela alde handirik horien kontabilitate-balioaren eta arrazoizko balioaren artean. Izan ere, Caja Laboralak emandako mailegu gehienek interes-tasa aldakorra dute erreferentziatzat edo, bestela, haien muga-eguna 12 hiletik beherakoa da. Era berean, kreditu-arriskuaren zorroan dagoen kreditu-arriskuagatiko hornidura-maila kuantifikatu egin da, ezartzekoa zaion kontabilitate-araudiarekin bat, eta ikusi da nahikoa dela kreditu-arriskua estaltzeko.

  Dena dela, egungo ekonomia- eta finantza-ingurunea kontuan hartuta eta finantza-aktibo horientzako merkaturik ez dagoenez, litekeena da aktibo horiek alderdi interesdunen artean trukatuz gero har lezaketen zenbatekoa eta erregistratutako balio garbia desberdinak izatea. Izan ere, balizko erosleak galerak deskontatzeko aukera izango luke, bai kontabilitate-araudi aplikagarriari jarraikiz sortutako eta kontabilizatutako galerak, bai egungo egoera ekonomikoak, bere iraunaldia dela eta ezohikoak, etorkizunean jarraituz gero izan litzakeenak.

- Finantza-pasiboak kostu amortizatuan. Erabaki da ez dagoela alde handirik horien kontabilitate-balioaren eta arrazoizko balioaren artean. Izan ere, gehienek interes-tasa aldakorra dute erreferentziatzat edo, bestela, haien muga-eguna 12 hiletik beherakoa da.

Finantza-tresnen arrazoizko balioaren eta kontabilitate-balioaren artean aldea egotea hainbat arrazoiren ondorio izan daiteke:

- Tasa finkoarekin jaulkitako tresnetan, horien arrazoizko balioa merkatuko interes-tasen bilakaeraren arabera aldatzen da. Tresnaren hondar-bizitza zenbat eta handiagoa, orduan eta aldakuntza handiagoa.

- Tasa aldakorrarekin jaulkitako tresnetan, erreferentziazko interes-tasarekiko marjina aldatu egiten bada tresna jaulki zenetik, gerta liteke arrazoizko balioa eta kontabilitate-balioa desberdinak izatea. Marjinak aldatzen ez badira, arrazoizko balioa eta kontabilitate-balioa balio-handitzeen datetan bakarrik etorriko dira bat. Gainerako datetan, zehaztuta dauden fluxuak interes-tasaren arriskuaren menpe egongo dira.

Honekin batera doazen balantze bateratuetan 3. mailan sailkatu eta arrazoizko balioan erregistratu diren finantza-aktibo eta -pasiboen saldoen mugimendua azalduko dugu jarraian:

	Aktiboa	Pasiboa
Saldoa 2021eko abenduaren 31n	**98.823**	**721**
Emaitzetan erregistratutako balorazio-doikuntzak	(250)	1.174
Emaitzetan erregistratu ez diren balorazio-doikuntzak	28.134	-
Erosketak, salmentak eta likidazioak	(3.205)	-
Sarrera/(irteera) garbiak 3. mailan	-	-
Kanbio-diferentziak eta bestelakoak	-	-
2022ko abenduaren 31ko saldoa	**123.502**	**1.895**
Emaitzetan erregistratutako balorazio-doikuntzak	584	(1.085)
Emaitzetan erregistratu ez diren balorazio-doikuntzak	28.093	-
Erosketak, salmentak eta likidazioak	(22.009)	-
Sarrera/(irteera) garbiak 3. mailan	-	-
Kanbio-diferentziak eta bestelakoak	-	-
2023ko abenduaren 31ko saldoa	**130.170**	**810**

2023ko eta 2022ko ekitaldietan zehar ez da finantza-aktiboen intsuldaketarik egin balorazio-maila ezberdinen artean.

ii) Aktibo ez-finantzarioen arrazoizko balioa

Arrazoizko balioa ez den beste irizpide batez baloratzen diren Taldeko aktibo ez-finantzarioek balantze bateratuan duten erregistro-balioaren eta arrazoizko balioaren arteko 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko konparazioa egingo dugu jarraian:

	2023		2022	
	Balio erregistratua	Arrazoizko balioa	Balio erregistratua	Arrazoizko balioa
Aktiboa				
Aktibo ukigarria:				
Erabilera propiokoa eta higiezinetako inbertsioak	379.029	398.938	344.335	372.074
Saltzeko daudenen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-multzo besterengarriak	23.795	23.795	53.482	53.482
Izakinak	35.148	35.148	28.073	28.073

Honela zehaztu da aktibo horien arrazoizko balioa:

- 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiaren «Erabilera propioko ibilgetu materiala» eta «Higiezinetako inbertsioak» epigrafeetan dauden ondasun higiezinen arrazoizko balioak, Espainiako Bankuak ezarritako arauei jarraikiz erakunde independenteek 2013aren eta 2023aren artean emandako tasazio-balioen bidez kalkulatu denak, epigrafe horietako kontabilitate-balioaren % 71 osatzen du (% 82 2022ko abenduaren 31n). Gainerako higiezinetarako, 2012ko balorazioak (barruko tasazioak eta balorazioak) eguneratu egin dira. Horiei, uneko abagunea eta merkatu-itxaropenak aintzat hartuta, objektibotasunez estimatutako zuzenketa-faktore bat aplikatu die Entitate Nagusiak.

  Aktibo ukigarriko gainerako elementuetarako, kontabilitate-balio garbia hartu dugu, egun horietan merkatuan zuten balioaren estimaziorik fidagarriena delakoan.

- Estatuan dauden «Aktibo ez-korronteak salgai» atalekoen arrazoizko balioa zenbatesteko, horiek berreskuratzeko aukera hartu da kontuan, Espainiako Bankuak argitaratutako zirkularretan jasotako parametroak ezarriz esleitutako ondasunaren tipologiaren arabera. 2011ko abenduaren 31n higiezinen sustapenari lotuta zeuden aktiboen kasuan, berriz, 2012ko otsailaren 3ko 2/2012 Errege Lege Dekretuan zehaztutako irizpideak erabili dira. Ildo beretik, aipaturiko balioa zehazteko, Espainiako Bankuaren Erregistroan inskribatuta dauden tasazio-sozietateek egindako tasazioak hartu dira input osagarritzat, 2003ko martxoaren 27ko ECO/805/2003 Ministerio Aginduan xedatutakoa betez. Bestalde, higiezinen merkatuaren eta ziklo ekonomikoaren gaur egungo egoera ere hartu da aintzat.

Entitateak tasazio-sozietate hauek erabiltzen ditu, batez ere: Krata SA, Servicios Vascos de Tasaciones SA, Tinsa Tasaciones Inmobiliarias SA eta Balkide Balorazioak SA.

41. Emandako finantza-bermeak

Taldeak ohiko jardunean hartutako konpromisoen ondorioz ordaintzera behartuta daudenek ordaindu ezean, Taldeak berak ordaindu beharko du hirugarrenen kontura, eta, epigrafe honetan, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n Taldeak kontzeptu horregatik ordaindu beharreko zenbatekoak biltzen dira:

	2023	2022
Emandako finantza-bermeak	159.686	215.305
	159.686	215.305

42. Emandako maileguen konpromisoak eta emandako bestelako konpromisoak

Hona hemen epigrafe horren banaketa 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n:

	2023	2022
Emandako maileguen konpromisoak:	1.180.032	1.069.497
Hirugarrenek erabiltzeko modukoak:	1.180.032	1.069.497
Kreditu-erakundeek	252	566
Administrazio publikoen sektoreak	158.350	152.026
Bestelako sektore egoiliarrek	1.018.971	916.753
Ez-egoiliarrek	2.459	152
Emandako bestelako konpromisoak	442.426	396.560
Zor anotatua erostea		-
Ordaintzeko dauden harpidetutako baloreak	91.693	79.936
Emandako bestelako abalak eta berrespenak	140.821	126.480
Dokumentu-kreditu ezeztaezinak	18.398	21.416
Bestelako konpromiso kontingenteak:	191.514	168.728
Konpentsazio-ganberei emandako dokumentuak	191.514	168.728
	1.622.459	1.466.057

43. Interesen sarrerak

Galdu-irabazien kontuko epigrafe horrek banakapen hau du 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan:

	2023	2022
Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak	38	78
Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	-	-
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	17.794	11.023
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan	677.218	902.230
Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioarekin baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak	40	40
Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea, interes-tasaren arriskua	(46.082)	(636.335)
Bestelako aktiboak	34.117	10.280
Pasiboen interesen sarrerak	9.530	14.279
	692.655	301.595

2023ko ekitaldian, hipoteka-bermedun eragiketei dagozkien 298.767 mila euro daude «Finantza-aktiboak kostu amortizatuan» epigrafean (2022an 107.137 mila euro izan ziren).

Interesen sarrerarik gehienak Entitate Nagusiko finantza-aktiboek sortu dituzte, eta kostu amortizatuan edo arrazoizko balioan eta bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituztela baloratzen dira.

Aurreko taulako Interesen sarrerarik gehienak, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz kalkulatu dira.

Hona hemen Taldearen banku-bulegoek 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n duten kokapena lurraldeka:

	2023	2022
Bizkaia	79	79
Gipuzkoa	62	62
Araba	28	28
Nafarroa	36	36
Sare Berria	78	75
	283	280

44. Interesen gastuak

Galdu-irabazien kontuko epigrafe horrek banakapen hau du 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan:

	2023	2022
Negoziatzeko dauden finantza-pasiboak	-	-
Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-pasiboak arrazoizko balioan	-	-
Finantza-pasiboak kostu amortizatuan	92.168	5.302
Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea, interes-tasaren arriskua	(34)	(220)
Bestelako pasiboak	917	620
Aktiboen interesen gastuak	40.728	15.128
	133.779	20.830

Aurreko taulako Interesen sarrerarik gehienak, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz kalkulatu dira.

Estaldura-eragiketen gastuen zuzenketan, hipoteka-zedulen jaulkipen batzuen arrazoizko balioa estaltzeko kontratatutako finantza-trukeko eragiketak jasotzen dira, nagusiki (35. eta 27. oharrak).

2023ko abenduaren 31ko «Pasiboen interesen gastuak» epigrafean, TLTRO III finantzaketa-programari dagozkion interesen gastuak sartzen dira. 2022ko abenduaren 31n, TLTRO III finantzaketa-programari dagozkion interesak «Pasiboen interesen sarrerak» epigrafean erregistratu ziren.

45. Dibidenduen sarrerak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2023	2022
Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak	29	3
Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak	2.198	3.032
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	1.434	1.103
	3.661	4.138

46. Partaidetzaren metodoaz baloratutako erakundeen emaitzak

Galdu-irabazien kontu bateratuko epigrafe horrek banakapen hau du 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan (28. oharra):

	2023	2022
Erakunde elkartuak	10	50
Erakunde taldeaniztunak	-	-
	10	50

47. Komisioen sarrerak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2023	2022
Arrisku kontingenteengatik	3.306	3.018
Konpromiso kontingenteengatik	1.554	1.468
Dibisak eta bankuko atzerriko billeteak aldatzeagatik	60	64
Kobrantza- eta ordainketa-zerbitzuengatik	59.986	61.897
Balore-zerbitzuengatik:	67.249	57.985
Baloreak aseguratu eta kokatzea	-	-
Balore-salerosketa	918	931
Administrazioa eta zainketa	1.314	1.141
Ondarearen gestioa	65.017	55.913
Banku-jarduerakoak ez diren finantza-produktuen komertzializazioagatik:	5.618	4.890
Inbertsio-funtsak	3.263	2.762
Pentsio-funtsak	523	444
Aseguruak	1.832	1.684
Bestelakoak	-	-
Bestelako komisioak	4.148	5.280
	141.921	134.602

48. Komisioen gastuak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2023	2022
Eragiketa aktibo eta pasiboetako artekari-sariak	9	12
Bestelako erakunde korrespontsalei lagatako komisioak	5.982	5.430
Efektuak kobratu edo itzultzeagatikoak	4	9
Bestelako arrazoiengatikoak	5.978	5.421
Balore-eragiketengatik ordaindutako komisioak	1.165	1.378
Bitartekari monetarioekin	1.083	1.174
Bestelakoak	81	204
Bestelako komisioak	3.576	3.558
	10.732	10.378

49. Arrazoizko balioan baloratu ez diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktibo eta pasiboei kontuetan baja emateagatiko irabazi edo (–) galera garbiak, eta Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboen irabazi edo (–) galera garbiak

Galdu-irabazien kontu bateratuko epigrafe horiek banakapen hau dute 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan, osatzen duten partiden jatorria aintzat hartuta:

	2023	2022
Arrazoizko balioan baloratu ez diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktibo eta -pasiboei kontuetan baja emateagatiko irabazi edo (–) galera garbiak	(118.356)	3.399
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	(72.780)	3.399
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan	(45.576)	-
Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboen irabazi edo (–) galera garbiak	3.735	(4.525)
Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioan baloratu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak	3.735	(4.525)
	(114.621)	(1.126)
Irabaziak	9.130	8.846
Galerak	(123.751)	(9.972)
	(114.621)	(1.126)

Bestalde, hauxe da 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan saldo horiek eman dituzten finantza-tresnen banakapena, horien izaera aintzat hartuta:

	2023	2022
Zorra adierazten duten baloreak	(118.184)	3.043
Ondare-tresnak	3.563	(4.169)
Deribatuak	-	-
	(114.621)	(1.126)

50. Negoziatzeko dauden finantza-aktiboen eta -pasiboen irabazi edo (–) galera garbiak

Galdu-irabazien kontu bateratuko epigrafe horrek banakapen hau du 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan, osatzen duten partiden jatorria aintzat hartuta:

	2023	2022
Negoziatzeko dauden finantza-aktiboak	(1)	(5.329)
	(1)	(5.329)
Irabaziak	42.661	31.317
Galerak	(42.662)	(36.646)
	(1)	(5.329)

Bestalde, hauxe da 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan saldo horiek eman dituzten finantza-tresnen banakapena, horien izaera aintzat hartuta:

	2023	2022
Zorra adierazten duten baloreak	544	2.014
Ondare-tresnak	175	(194)
Deribatuak	(720)	(7.149)
	(1)	(5.329)

51. Arrazoizko balioan izendatu diren eta emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktibo eta -pasiboen irabazi edo (–) galera garbiak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2023	2022
Emaitzetan aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	-	-
	-	-
Irabaziak		-
Galerak	-	-
	-	-

52. Estaldura-kontabilitatearen irabazi edo (–) galera garbiak

Galdu-irabazien kontuko epigrafe horrek banakapen hau du 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan:

	2023	2022
Estaldura-deribatuak	(6.005)	7.988
Estalitako partidak	6.025	(9.324)
	20	(1.336)
Irabaziak	6.432	10.854
Galerak	(6.412)	(12.190)
	20	(1.336)

«Estaldura-kontabilitatearen irabaziak edo (–) galerak – Estaldura-deribatuak» epigrafean, Entitateak 2023an eta 2022an zituen arrazoizko balioko estaldura-tresnen balorazio-doikuntzak sartzen dira. Bestalde, «Estaldura-kontabilitatearen irabaziak edo (–) galerak – Estalitako partidak» epigrafean, arrazoizko balioa estaltzeko izendatutako kontratu horiek estali dituzten elementuen balorazio-doikuntzak sartzen dira (ikusi 13.e oharra).

53. Kanbio-diferentzia [irabazi edo (–) galera] garbiak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2023	2022
Irabaziak	1.345.619	1.950.927
Galerak	(1.345.290)	(1.950.727)
	329	200

54. Ustiapeneko bestelako sarrerak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2023	2022
Zerbitzuak emateagatiko salmentak eta sarrerak	2.363	2.056
Gainerako ustiapen-produktuak	12.679	19.826
Kostuak konpentsatzeko finantza-komisioak	3	1
Bestelako errentamendu operatiboen sarrerak (garbiak) (30. oharra)	6.198	6.632
Aktibo higiezinengatiko izakinen aldakuntza	-	-
Bestelako produktuak	6.478	13.193
	15.042	21.882

55. Ustiapeneko bestelako gastuak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2023	2022
Gordailuak Bermatzeko Funtserako ekarpena (10. oharra)	31.354	30.734
Suntsiarazpen Funts Nazionalerako ekarpena (10. oharra)	4.339	6.635
Gizarte-ekintzako funtsetarako nahitaezko zuzkidura (4. eta 33. oharrak)	14.297	11.449
Aktibo higiezinen erosketak eta gastuak	-	-
Kreditu-erakundeen gordailuen gaineko zerga	6.747	7.045
Bestelako kontzeptuak	4.037	3.867
	60.774	59.730

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietako galdu-irabazi bateratuen kontuetako «Ustiapeneko bestelako gastuak – Gizarte-ekintzako funtsetarako nahitaezko zuzkidura» epigrafean erregistratutako zenbatekoak (14.297 eta 11.449 mila eurokoak, hurrenez hurren) Kooperatiben Legean eta Entitatearen estatutuetan ezarritakoari jarraikiz Heziketako eta Sustapeneko funtsera egin beharreko nahitaezko zuzkidurari dagozkio (4. oharra).

Era berean, «Ustiapeneko bestelako gastuak – Bestelako kontzeptuak» epigrafean, zerga geroratuengatiko aktiboak zerga-administrazioaren aurrean galdagarria den kreditu bihurtzearen ondoriozko ondare-prestazioaren estimazioa, 2023ko abenduaren 31koa, jaso da; 1.582 mila euroko kopurua osatzen du (1.812 eurokoa 2022ko ekitaldian).

56. Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako aktibo eta pasiboen sarrerak eta gastuak

Galdu-irabazien kontu bateratuko epigrafe horietan, bateratuan integratutako aseguru-erakundeek Taldearen marjina arruntari egindako ekarpenak jaso dira. Xehetasun hauek ditu 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuari egindako ekarpenak:

	2023	2022
Aseguruen sarrerak		
Gertatutako itxarondako ezbeharrak eta aseguru-zerbitzuaren bestelako gastuak	8.657	8.535
Arriskuaren doikuntzako aldaketak arrisku ez-finantzarioan	1.057	522
Emandako zerbitzuengatik kontabilizatutako kontratuzko zerbitzuaren marjina (CSM)	2.908	1.415
Pasiboko aldaketekin lotutako zenbatekoak, PAA bidez baloratutako kontratuen gainerako estalduran	158.494	149.477
BBA edo VFA bidez aseguruak eskuratzeagatiko diru-fluxuak berreskuratzea	3.989	3.682
Aseguruen sarrerak guztira	175.105	163.631
Aseguruen gastuak		
Izandako ezbeharrak eta aseguru-zerbitzuaren bestelako gastuak	113.320	91.106
Asegurua eskuratzeagatiko diru-fluxuak amortizatzea	(610)	5.594
Izandako ezbeharrengatiko pasiboarekin (LICarekin) lotutako betetzetik datozen iraganeko zerbitzuei lotutako aldaketak	4.538	10.748
Kostu bidezko kontratuen galerak eta galera horien itzulerak	(136)	261
Aseguruen gastuak guztira	117.112	107.709

	2023	2022
Berraseguruak berreskuratzeagatiko sarrerak	29.094	23.346
Berraseguratzaileari ordaindutako primak esleitzearen gastuak	(31.799)	(29.334)
Berraseguruaren emaitza garbia guztira	(2.705)	(5.988)

	2023	2022
Aseguru-kontratuen sarrera eta gastu finantzarioak	(3.889)	1.497
Berraseguru-kontratuen sarrera eta gastu finantzarioak	-	21
Aseguru-zerbitzuaren finantza-emaitza guztira	(3.889)	1.518

Hauxe da 2023ko eta 2022ko ekitaldien itxieran erantsitako galdu-irabazien kontu bateratuan kontratu-zerbitzuaren marjinatik (OMZtik) espero den etorkizuneko kontabilizazioaren analisiaren banakapena:

	2023	2022
Urtebete baino gutxiagokoak	2.782	1.220
1 eta 3 urte bitartekoak	3.915	1.762
3 eta 5 urte bitartekoak	2.150	1.248
5 eta 8 urte bitartekoak	853	723
8 urtetik gorakoak	2.942	2.081
Jaulkitako aseguru-kontratuak guztira	12.642	7.034

57. Administrazio-gastuak

a) Pertsonal-gastuak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2023	2022
Pertsonal aktiboaren soldatak eta eskersariak	138.240	122.128
Gizarte-segurantzaren kuotak	4.209	4.103
Kaleratzeen kalte-ordainak	-	-
Prestakuntza-gastuak	1.498	1.406
Bestelako pertsonal-gastuak	1.030	1.016
	144.977	129.142

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiaren jarduerari loturiko zerbitzuak emateagatiko ordainketak daude eta xehetasun hau dute:

	2023			2022		
	Interes hobariduna	Merkatuko interesa	Diferentzia	Interes hobariduna	Merkatuko interesa	Diferentzia
Interes-tasa txikiko maileguak	1.364	2.794	1.430	40	764	724

Ondoren, 2023ko eta 2022ko ekitaldietan zegoen enplegatuen batez besteko kopurua zehaztuko dugu, kategoriaren arabera banatuta:

	2023	2022
Zuzendariak	49	46
Buruak	382	384
Teknikariak	1.141	961
Administrariak	521	696
	2.093	2.087

2023ko abenduaren 31n, plantilla osoko 25 lagunek desgaitasun-mailaren bat dute aitortuta (24k 2022ko abenduaren 31n).

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, hauxe da Taldeko langileen banaketa, generoari begiratuta:

	Langile-kopurua					
	2023			2022		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Zuzendariak	14	35	49	14	35	49
Buruak	148	237	385	140	238	378
Teknikariak	651	528	1.179	617	486	1.103
Administrariak	369	177	546	337	159	496
	1.182	977	2.159	1.108	918	2.026
Entitate Nagusia	973	890	1.863	906	826	1.732
Gainerako erakundeak:						
Mendekoak	209	87	296	202	92	294
	1.182	977	2.159	1.108	918	2.026

Hona hemen Entitate Nagusiaren Kontseilu Errektoreak 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n duen banaketa, generoari dagokionez:

	Kide-kopurua					
	2023			2022		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Kontseilu Errektoreko kideak	6	8	14	7	7	14

b) Bestelako administrazio-gastuak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2023	2022
Higiezinak, instalazioak eta materiala:	12.053	13.322
Alokairuak (30. oharra)	496	253
Ibilgetuaren mantentze-lana	6.901	6.784
Argiteria, ura eta berokuntza	3.240	4.467
Inprimakiak eta bulegoko materiala	1.416	1.818
Informatika	13.344	8.078
Komunikazioak	5.801	5.908
Publizitatea eta propaganda	8.945	8.753
Gastu judizialak eta letratuenak	3.009	2.981
Txosten teknikoak	39.051	28.697
Funtsak zaindu eta lekualdatzeko zerbitzuak	2.261	2.016
Aseguru- eta autoaseguru-primak	907	895
Gobernu- eta kontrol-organoak	248	248
Langileek entitatea ordezkatzen eta joan-etorrietan egindako gastuak	2.021	1.906
Elkarteen kuotak	648	457
Azpikontratatutako administrazio-zerbitzuak	11.508	12.034
Kontribuzioak eta zergak	2.692	3.763
Bestelako gastuak	2.481	2.732
	104.968	91.791

Hala, Taldeak «Alokairuak» epigrafean erregistratzen ditu 12 hilabetetik beherako errentamendu-kontratuen gastuak, bai eta errentan hartutako elementua balio txikikoa (emaitza-kontuan nabarmena ez dena) duten kontratuen gastuak ere (13.q oharra).

2023ko ekitaldian, Entitate Nagusiko kontseilari eta zuzendari guztien erantzukizun zibilerako aseguru kolektiboaren prima ordaindu da, kargua betetzean egindako edo ustez egindako egintza okerrek eragin litzaketen balizko kalteak estaltzeko. 84 mila euroko zenbatekoa ordaindu da guztira (56 mila eurokoa 2022ko ekitaldian).

58. Amortizazioa

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2023	2022
Aktibo materiala	25.671	23.446
Ibilgetu ukigarria	24.949	22.661
Erabilera propiokoa	19.193	16.465
Finantza-errentamenduan lagatakoak	5.756	6.196
Higiezinetako inbertsioak	722	785
Aktibo ukiezina	-	-
	25.671	23.446

59. Hornidurak edo (–) horniduren itzulera

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2023	2022
Pentsioetarako hornidurak eta enplegu ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak (36. oharra)	8.867	528
Konpromisoetarako eta emandako bermeetarako hornidurak (36. oharra)	(3.075)	(8.507)
Ordaintzeko dauden zergen prozesu-gaietarako eta auzietarako hornidurak (36. oharra)	-	-
Gainerako hornidurak (36. oharra)	30.928	22.366
	36.720	14.387

60. Arrazoizko balioan baloratu ez diren, emaitzetan aldaketak eragiten dituzten eta aldaketaren ondorioz galera edo (–) irabazi garbiak dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2023	2022
Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak (*) (24. oharra)	(1.321)	4.224
Zorra adierazten duten baloreak	(1.321)	4.224
Finantza-aktiboak kostu amortizatuan (**) (25. oharra)	30.332	(11.284)
Maileguak eta aurrerakinak	30.332	(11.284)
Zorra adierazten duten baloreak	-	-
	29.011	(7.060)

(*) Barne hartzen du 2023ko abenduaren 31ko aktibo kobraezinen berreskurapena; 0 mila eurokoa izan da (2022ko abenduaren 31n 0 mila eurokoa).

(**) Barne hartzen du kaudimengabezien amortizazioa eta aktibo kobraezinen berreskurapena; hurrenez hurren, 3.225 eta 8.177 mila eurokoak izan dira 2023ko ekitaldian (2022koan, 7.397 eta 8.316 mila eurokoak, hurrenez hurren).

61. Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2023	2022
Erakunde elkartuetako partaidetzak (28. oharra)	-	-
Erakunde taldeaniztunetako partaidetzak (28. oharra)	-	-
	-	-

62. Aktibo ez-finantzarioen balioa narriatzea edo (–) narriadura itzultzea

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2023	2022
Aktibo ukigarriak (30. oharra)	1.237	17
Bestelako aktiboak	1.131	1.078
	2.368	1.095

63. Aktibo ez finantzarioei kontuan baja emateagatiko irabazi edo (–) galera garbiak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2023	2022
Aktibo ez-finantzarioak saltzeagatiko irabazi (galera) garbiak	5.563	13.737
Partaidetzak saltzeagatiko irabazi (galera) garbiak	-	-
	5.563	13.737

64. Saltzeko daudenen artean sailkatu diren eta jarduera etentzat har ez daitezkeen aktibo ez-korronteetatik eta elementu-multzo besterengarrietatik datozen irabaziak edo (–) galerak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	2023	2022
Salgai dauden aktibo ez-korronteak saltzeagatiko irabazi (galera) garbiak	19.299	23.782
Salgai dauden aktibo ez-korronteen narriaduragatiko zuzkidura garbiak (34. oharra)	(23.298)	(43.855)
	(3.999)	(20.073)

65. Erakunde taldeaniztun eta elkartuekin egindako eragiketak

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n Entitate Nagusiaren eta mendeko erakundeen artean dituzten saldo garrantzitsuak eta egun horietan bukatutako ekitaldietan horien artean egindako transakzioen eragina ez dira baterakuntza-prozesuan sartu. Hona hemen erakunde taldeaniztun eta elkartuekin egindako aktiboko eta pasiboko eragiketen 2023ko eta 2022ko abenduaren 31ko saldoen laburpena:

	2023	2022
Saldoak		
Bezeroen gordailuak	513	506
Aktibo ez-korronteak salgai	-	-
Abalak	-	-
Maileguak eta aurrerakinak	638	638

2023ko eta 2022ko ekitaldietan ez da izan transakzio nabarmenik erakunde taldeaniztun eta elkartuekin.

66. Bestelako informazioa

Hona hemen Taldearen balantze bateratutik kanpo dauden bezeroen baliabideen xehetasuna, 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n:

	2023	2022
Entitatearen Taldeak gestionatutakoak:	7.042.515	5.585.615
Inbertsio-sozietateak eta -funtsak	4.832.288	3.494.570
Pentsio-funtsak eta BGAEak	1.921.493	1.761.263
Aseguru-kontratuetako aurrezkia	288.733	329.782
Diskrezioz kudeatutako bezero-zorroak	-	-
Entitatearen Taldeak komertzializatutakoak baina ez kudeatuak	1.762.146	1.863.688
	8.804.661	7.449.303

2023ko abenduaren 31n, 7.480.743 mila eurokoa da hirugarrenen jabetzako balore-gordailuen saldoa (5.882.263 mila eurokoa 2022ko abenduaren 31n).

Taldeak 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n lagatako «Zorra adierazten duten baloreak» atalaren lagapena 870.142 mila eurokoa eta 748.170 mila eurokoa da, hurrenez hurren. Zor-baloreok hirugarrenei lagatakoak dira, eta balantzeko «Finantza-pasiboak kostu amortizatuan – Bezeroen gordailuak» epigrafean agertzen dira.

67. Hipoteka-merkatuko jaulkitzaileen eta kontabilitate-erregistro bereziaren gaineko informazioa

Txosteneko 35. oharrean adierazi denez, Entitate Nagusiak hipoteka-zedulak jaulki zituen aurreko ekitaldietan, eta 2021eko ekitaldian izan zuten azken mugaeguna. Hori dela eta, 2009ko apirilaren 24ko 716/2009 Errege Dekretuaren 21. artikuluan aipatzen den kontabilitate-erregistro berezian entitate jaulkitzaileari buruz dauden datuak erantsi ditugu jarraian, 7/2010 Zirkularrean ezarritakoari jarraikiz. Zirkular horrek hipoteka-merkatuaren hainbat alderdi garatzen ditu, Espainiako Bankuaren 2011ko azaroaren 30eko 5/2011 Zirkularrean ezarritako banakapen-mailarekin.

Era berean, eta hipoteka-merkatua arautzeko eta hipoteka- eta finantza-sistemako beste arau batzuei buruzko 1981eko martxoaren 25eko 2/1981 Legearen alderdi jakin batzuk garatzen dituen 2009ko apirilaren 24ko 716/2009 Errege Dekretuak zehaztutakoaren arabera, Entitate Nagusiaren Kontseilu Errektoreak adierazi du 2023ko abenduaren 31n Entitate Nagusiak prozedura- eta politika-sorta bat daukala zehaztuta, hipoteka-merkatua arautzen duen araudia beteko dela bermatzeko, eta bere gain hartzen duela ardura hori.

Politika eta prozedura horietan, gai hauen inguruko irizpideak sartzen dira, besteak beste:

Arriskua emateko irizpideak mailegu-hartzaileen ordaintzeko gaitasunean oinarritzen dira. Gaitasun hori estimatzeko, funtsezkoak dira barne-ereduak (scoringak eta ratingak).

Hipoteka-bermea eta abal-emaileak dira onartutako arintzaile nagusiak. Hipoteka-bermean, eragiketen LTV erlazioa (arriskua eta tasazioa) baloratzen da, bereziki.

Eredu horiek gai dira ez ordaintzeko probabilitatea estimatzeko, eta, beraz, eskabidearen lehen kreditu-kalifikazioa esleitzeko, idatzitako datuetan eta aldagai batzuen portaera historikoetan oinarrituta. Eragiketa bakoitza kalifikatzeko, arrisku-mailarik txikienetik handienera doan eskala bat erabiltzen da, eta maila horietako bakoitzaren arabera ez-ordaintzeak izateko probabilitatea esleitzen zaio.

Ereduek aldagai batzuk aztertzen dituzte: errenta- edo sarrera-maila, ondarea edo zorpetzea, ordainketetan izandako portaera, kreditu-hartzailearen atxikimendua eta alderdi pertsonalak eta arrisku-eragiketari lotutako ezaugarri jakin batzuk.

Zehazki, aldagai-mota hauek bereizten dituzte indarrean dauden ereduek: ezaugarri pertsonalak, ez-ordaintzeen historikoa, errentak edo sarrerak lortzeko ahalmena, zorpetzea, ondare garbia, entitatearekiko atxikimendua, eragiketaren ezaugarriak eta krediduaren estaldura (arintzaileak).

Gainera, prozedura batzuk daude, sartutako datuen gainean sisteman jasotako informazioa egiaztatzeko, bereziki gai hauetan: sarrerak, ondarea, hipoteka-bermea (higiezina tasatzearen bidez), finantzaketaren helburua, bezeroaren datu orokorrak eta bezeroaren portaeraren oinarriak.

Tasazioak egiten dira arrisku-eragiketak formalizatzeko hipoteka-berme moduan erabiltzen diren aktibo higiezinen balioa zehazteko, eta baldintza hauek bete behar dituzte:

- Espainiako Bankuaren Tasazio Erregistro Ofizialean erregistratutako tasazio-sozietateek egin behar dituzte.
- ECO/805/2003 Ministerio Agindua, martxoaren 27koa, bete behar dute.

Aktibo horien balioa maiztasun desberdinarekin berrikusten da, aldagai hauek aintzat hartuta: bermatutako eragiketaren kalifikazioa, balioa eta LTVa (arriskua/aktiboaren balioa). Hala, politika desberdinak zehazten dira, eragiketa arazotsu moduan —zalantzazkoak edo esleituak— sailkatutakoetarako edota normalen edo jarraipen berezikoen artean sailkatutakoetarako.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n ez dago eragiketa aktibo eta pasiborik, azkenak 2021eko ekitaldian mugaeguneratu baitziren.

68. Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epealdiari buruzko informazioa. Hirugarren Xedapen Gehigarria. 2010eko uztailaren 5eko 15/2010 Legearen «Informatzeko beharra»

Jarraian, 2023ko eta 2022ko ekitaldietan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epealdiari buruzko informazioa emango dugu, arau hauek aintzat hartuta: batetik, 31/2014 Legea, abenduaren 3koa, gobernu korporatiboa hobetzeari buruzkoa, 15/2010 Legearen, uztailaren 5ekoaren, Hirugarren Xedapen Gehigarria aldatzen duena —azken Lege horrek 3/2004 Legea aldatu zuen, abenduaren 29koa, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen zituena—, eta, bestetik, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren 2016ko urtarrilaren 29ko Ebazpenaren Xedapen Bakarra, eskatutako informazio-betebeharra betetzeari buruzkoa.

	Egunak	
	2023	2022
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epealdia	18	15
Ordaindutako eragiketen ratioa	18	15
Ordaintzeko eragiketen ratioa	19	18

	Zenbatekoa (mila eurokotan)	
	2023	2022
Egindako ordainketak guztira	326.124	272.780
Ordaintzekoak guztira	7.383	6.373

Xedapen gehigarriaren 3. apartatuari jarraikiz 2022ko irailaren 29ko 18/2022 Legean ezarritako informatzeko betekizuna aintzat harturik, hauek dira berankortasunaren alorreko araudian ezarrita dauden gehieneko epeaz azpiko ordainketa-epea duten fakturen datuak, 2023ko ekitaldiari dagozkionak:

	Zenbatekoa (mila eurokotan)	
	2023	2022
60 egun baino lehen egiteko ordainketak	281.107	266.595
Faktura guztien gaineko %-a	% 97	% 98

	Faktura-kopurua	
	2023	2022
60 egun baino lehen egiteko ordainketak		
Faktura guztien gaineko %-a	81.251	57.747
Ordaintzekoak guztira	% 95	% 88

69. Erakunde mendeko, taldeaniztun edo elkartuetako negozio-konbinazioak eta partaidetzen eskurapenak

a) Erakunde mendeko, taldeaniztun edo elkartuetako kapitaleko eskurapenei buruzko informazioa

2023ko eta 2022ko ekitaldietan zehar, ez da Taldearentzat garrantzizkoa den eskurapenik gertatu erakunde mendeko, taldeaniztun edo elkartuetako kapitalean.

b) Negozio-konbinazioak

2023ko eta 2022ko ekitaldietan zehar, Taldearentzat ez da garrantzizko negozio-konbinaziorik gertatu.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

TALDEKO ENPRESETAN DITUGUN PARTAIDETZEN ETA BESTELAKO PARTAIDETZEN BANAKAKO XEHETASUNA, 2023KO ABENDUAREN 31KOA
(Mila eurokotan adierazita)

			2023								
			Partaidetzaren %-a		Kontabilitate-balioa			Partaidetzapeko erakundearen datuak (*)			
Sozietatea	Helbidea	Jarduera	Zuzena	Zeharkakoa	Gordina	Narriadura	Garbia	Aktiboak	Ondare garbia	Zerbitzuen/ salmenten sarrerak	Emaitza garbia
Mendeko erakundeak											
Seguros Lagun Aro Vida SA	Bilbo	Aseguruak	% 76	% 24	34.508	-	34.508	438.103	70.916	53.642	3.040
Seguros Lagun-Aro SA	Bilbo	Aseguruak	% 49,64	% 50,36	17.649	-	17.649	220.698	61.561	99.693	238
Seguros Lagun-Aro 2003 AIE	Bilbo	Zerbitzuak ematea	-	% 100	-	-	-	3.672	2.792	-	-
Caja Laboral Gestión SGIIC SA	Arrasate	Inbertsio-funtsen gestorea	% 100	-	6.281	-	6.281	26.811	17.253	39.429	9.717
Caja Laboral Pensiones GFP SA	Arrasate	Pentsio-funtsen gestorea	% 100	-	2.500	-	2.500	4.156	3.303	3.507	155
Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU	Arrasate	Partaidetza-edukitzailea	% 100	-	59.673	-	59.673	63.054	63.054	-	(22)
Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLU	Bilbo	Banka-aseguruetako operadorea	% 100	-	10	-	10	7.951	4.657	35.260	2.128
ISGA Inmuebles SA	Arrasate	Aktibo higiezinen gestorea	% 100	-	50.354	(22.403)	27.951	45.902	33.305	32.281	7.049
Lamiak SCA, SICAV-RAIF	Luxenburgo	Ondarearen gestioa	% 99	-	11.881	-	11.881	11.895	11.845	140	(185)
Lagun Klik SL	Bilbo	Zerbitzu-bilaketako bitartekaritza	-	% 100	-	-	-	283	233	1	(70)
					182.856	(22.403)	160.453				

			2023								
			Partaidetzaren %-a		Kontabilitate-balioa			Partaidetzapeko erakundearen datuak (*)			
Sozietatea	Helbidea	Jarduera	Zuzena	Zeharkakoa	Gordina	Narriadura	Garbia	Aktiboak	Ondare garbia	Zerbitzuen/ salmenten sarrerak	Emaitza garbia
Erakunde elkartuak											
Ategi Green Power SL	Arrasate	Energia-ekoizpena (BISG)	% 28,57	-	333	-	333	3.638	1.332	278	36
					333	-	333				

(*) Honekin batera doazen ondareari buruzko datuak partaidetzapeko sozietateek 2023ko abenduaren 31n dituzten finantzetako egoera-orri indibidual homogeneizatuei dagozkie.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

TALDEKO ENPRESETAN DITUGUN PARTAIDETZEN ETA BESTELAKO PARTAIDETZEN BANAKAKO XEHETASUNA, 2022KO ABENDUAREN 31KOA
(Mila eurokotan adierazita)

			2022								
			Partaidetzaren %-a		Kontabilitate-balioa			Partaidetzapeko erakundearen datuak (*)			
Sozietatea	Helbidea	Jarduera	Zuzena	Zeharkakoa	Gordina	Narriadura	Garbia	Aktiboak	Ondare garbia	Zerbitzuen/ salmenten sarrerak	Emaitza garbia
Mendeko erakundeak											
Seguros Lagun Aro Vida SA	Bilbo	Aseguruak	% 76	% 24	34.507	-	34.507	464.159	52.744	52.869	5.551
Seguros Lagun-Aro SA	Bilbo	Aseguruak	% 49,64	% 50,36	17.649	-	17.649	206.548	54.583	94.825	5.972
Seguros Lagun-Aro 2003 AIE	Bilbo	Zerbitzuak ematea	-	% 100	-	-	-	3.667	2.792	-	-
Caja Laboral Gestión SGIIC SA	Arrasate	Inbertsio-funtsen gestorea	% 100	-	6.280	-	6.280	17.365	10.109	30.743	2.573
Caja Laboral Pensiones GFP SA	Arrasate	Pentsio-funtsen gestorea	% 100	-	2.500	-	2.500	3.928	3.148	3.395	138
Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU	Arrasate	Partaidetza-edukitzailea	% 100	-	59.673	-	59.673	63.085	63.076	-	(15)
Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLU	Bilbo	Banka-aseguruetako operadorea	% 100	-	10	-	10	16.179	2.530	43.084	1.900
ISGA Inmuebles SA	Arrasate	Aktibo higiezinen gestorea	% 100	-	44.249	(24.548)	19.701	53.470	32.934	70.528	(19.760)
					164.868	(24.548)	140.320				

			2022								
			Partaidetzaren %-a		Kontabilitate-balioa			Partaidetzapeko erakundearen datuak (*)			
Sozietatea	Helbidea	Jarduera	Zuzena	Zeharkakoa	Gordina	Narriadura	Garbia	Aktiboak	Ondare garbia	Zerbitzuen/ salmenten sarrerak	Emaitza garbia
Erakunde elkartuak											
Ategi Green Power SL	Arrasate	Energia-ekoizpena (BISG)	% 28,57	-	333	-	333	3.743	1.348	412	174
					333	-	333				

(*) Honekin batera doazen ondareari buruzko datuak partaidetzapeko sozietateek 2022ko abenduaren 31n dituzten finantzetako egoera-orri indibidual homogeneizatuei dagozkie.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

AGENTZIA-KONTRATUAK, 2023KO ETA 2022KO ABENDUAREN 31KOAK

Izena	Helbidea	Identifikazio-kodea	Ahalmenen egilespen-data	Agintearen amaiera-data	Jarduera-eremu geografikoa	Ordezkapenaren norainokoa
Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLU	Diego Lopez de Haro Kale Nagusia 2, Bilbo	B 75060988	2013-01-01	Mugagabea	Estatua	- Kontu korronteko, aurrezki-libretako eta epe finkorako ezarpenetako, inbertsio-funtsetako eta pentsio- eta aurreikuspen-planetako eragiketak tramitatzea, eta horretarako behar diren agiriak sinatzea. - Entitateari kredituen eta bestelako arrisku-eragiketen tramiteak egitea. - Entitatearekin posta-harremana eta publikoarekin kontaktua izatea. Berak egokitzat jotzen duen moduan antolatuko du lan-moldea eta ordutegia, Entitateak agintzen dizkion arau eta jarraibideen barruan.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

III. ERANSKINA

URTEKO BANKU-TXOSTENA

LABORAL Kutxa Taldearen 2023ko abenduaren 31ko informazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 10/2014 Legea eta 2013/36/EE Zuzentaraua betetzeko emana

Informazio hau prestatzeko, 2014ko ekainaren 27ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legearen, kreditu-erakundeen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzkoaren, 87. artikuluan eta Hamabigarren Xedapen Iragankorrean xedatutakoa bete dugu. Lege horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 2013/36/EB Zuzentarauaren, kreditu-erakundeen jardueran sartzeari eta kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten enpresak zuhurtziaz gainbegiratzeari buruzkoaren, 89. artikulua transposatzen du. Zuzentarau horrek, berriz, 2002/87/EE Zuzentaraua aldatzen du eta 2006/48/EE eta 2006/49/EE —CRD IV izenez ezaguna— Zuzentarauak indargabetzen ditu.

Araudi horri jarraikiz, kreditu-erakundeek Espainiako Bankuari bidali beharko diote, eta urtero argitaratu, ekitaldi bakoitzeko informazio bateratu hau, zer herrialdetan ezarrita dauden adierazita:

a) jardueraren izena, izaera eta kokapen geografikoa
b) negozio-bolumena
c) lanaldi osoko langile-kopurua
d) zerga aurreko emaitza gordina
e) emaitzaren gaineko zerga
f) jasotako dirulaguntzak edo laguntza publikoak

Aurrekoaren ildotik, eskatutako informazio hori zehaztuko dugu ondoren:

a) Jardueraren izena, izaera eta kokapen geografikoa

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito (aurrerantzean Entitatea, LABORAL Kutxa edo Caja Laborala), helbide soziala Arrasaten (Gipuzkoan) duen eta 2012ko azaroaren 2an eratu zen kreditu-kooperatiba da. Caja Laboral Popular Coop. de Créditok eta Ipar Kutxa Rural S. Coop. de Créditok bat eginez sortu zuten. Kooperatiba kalifikatuaren izaera du Entitateak.

Entitateko estatutu sozialen arabera, bere jarduera ez dago inolako lurralde-eremutara mugatuta, eta bazkideen eta hirugarrenen finantza-beharrak kreditu-erakundeen berezko jardueren bidez asetzea du helburu. Ondore horretarako, gainerako kreditu-erakundeek egin ditzaketen mota guztietako eragiketa aktibo, pasibo eta zerbitzuzkoak egin ahal izango ditu, bere helburu kooperatiboak sustatzeko eta ahalik eta ondoen betetzeko balio dutenak barne. Arreta berezia eskainiko die bere bazkideen finantza-beharrei, eta hirugarrenekiko eragiketa aktiboetarako legezko mugak errespetatuko ditu.

2023ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko LABORAL Kutxaren urteko kontu bateratu hauen I. eranskinean, jurisdikzio bakoitzean diharduten sozietateak xehatu ditugu, haien izena, kokapena eta jardueraren izaera zehaztuta.

b) Negozio-bolumena, lanaldi osoko langile-kopurua, zerga aurreko emaitza gordina eta emaitzaren gaineko zerga

	Negozio-bolumena (mila eurokotan)	Lanaldi osoko langile-kopurua	Zerga aurreko emaitza gordina	Emaitzaren gaineko zerga
Espainia	585.130	1.933	242.979	34.538
GUZTIRA	**585.130**	**1.933**	**242.979**	**34.538**

Informazio honen ondoreetarako, 2023ko abenduko emaitza-kontu bateratuaren marjina gordina hartu dugu negozio-bolumentzat. Lanaldi osoko langile-kopuru baliokideari buruzko datuak sozietate/herrialde bakoitzeko plantillatik hartu ditugu, 2023ko ekitaldiaren itxieran.

Taldeko aktiboen etekinak, hau da, Entitate Nagusiari egotzitako emaitza garbia zati guztira dituen aktiboak, % 0,78 dira, 2023ko abenduaren 31n.

c) Jasotako dirulaguntzak edo laguntza publikoak

LABORAL Kutxa Taldeak 2023ko ekitaldian jasotako dirulaguntza edo laguntza publikoen zenbatekoa ez da nabarmena.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

KUDEAKETA-TXOSTENA, 2023KO EKITALDIKOA

Ingurune makroekonomikoa zalantzazkoa izan da, gertaera geopolitikoen ondorioz; izan ere, Ukraina eta Errusia arteko gerrak bere horretan jarraitzen du, eta Israelek Gazaren aurkako erasoari ekin zion urrian. Gainera, EBZk interes-tasak igotzen jarraitu du, inflazioa murriztu nahian, hori baitzen ekitaldiaren hasierako kezka nagusia.

Horrek eragina izan du BPGd-aren bilakaeran, urtean zehar txikituz joan baita; hain zuzen, bilakaera hori nabarmen samarra izan da bazkide komertzial nagusietan, Frantzian eta Alemanian, alegia. Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan (EAEn), aurreikuspenen arabera, 2024an hazkunde txikiagoa izango da 2023aren aldean: % 2,4tik % 1,5era igaroko da Estatuan, eta % 1,7tik % 1,4ra EAEn. Dena den, lan-merkatua sendo agertu da; afiliazio-maila maximo historikoetan egon da, baina hazkundea moteldu egingo dela aurreikusten da. Langabezia % 12 ingurukoa da Estatuan, eta % 8 ingurukoa EAEn.

Energia-prezioen moderazioak eta interes-tasen igoerek inflazio-hazkundea txikiagoa izatea ahalbidetu dute. 2023an kezka txikitu bada ere, azpiko inflazioa orokorra baino handiagoa izan da. Euriborrak gora egin du azkar —horrek amortizazio aurreratuak ekarri ditu hipoteka-zorroan—; ondoren, tasa inplizituak egonkortu egin dira, eta 12 hilerako Euriborra jaisten hasi da urte-amaieran. Gainera, bazkide komertzial nagusien ahultasunaren eta interes-tasen igoeraren aurrean, inbertsioa moteldu egin da, eta kreditu-zorroen bolumenak behera egin du.

Sektorearen errentagarritasuna hobetu egin da interes-tasen igoeraren ondorioz, eta igoera hori motelagoa izan delako pasiboan. Likidezia pixkanaka murrizten ari zelarik, Entitatearen efizientziak eta kaudimenak gora egin dute, zalantzagarritasuna egonkor samar mantendu da, eta kapitala kudeatzea eta MREL eskakizunak betetzea funtsezkoa izan da, LABORAL Kutxaren moduko erakundeentzat. Errentagarritasuna hobetu den arren, eraldaketa- eta digitalizazio-prozesu sektorialak aurrera jarraitzen du, zerbitzuaren efizientzia eta kalitatea hobetze aldera.

Lehia horretan, aurreikusten da apurka-apurka normalizatu egingo dela balantzean eta funtsetan ordaindutako baliabideen sorta, eta hurrengo hiruhilekoetan aktiboan areagotu egingo dela presio lehiakorra. Aseguruen sektorean, kontrako klima-gertakarien maiztasuna handitu izanak txikiarazi egin du negozioaren errentagarritasun teknikoa, eta primak handitzea eragingo du, baita inflazioa ezbeharren kostura azkarrago eramatea ere.

Ziurgabetasun-egoera horretan, LABORAL Kutxak tinko eutsi dio kaudimen- eta likidezia-mailari, eta errentagarritasuna eta efizientzia hobetzen jarraitu du.

Ondoren, negozioaren zifrarik garrantzitsuenak jaso ditugu.

Aktibo osoa 26.589 milioi eurora iritsi da, hau da, % 4,20ko jaitsiera izan du aurreko urteko itxierakoaren aldean.

Bezeroen gordailuak 22.563 milioi eurokoak dira, aurreko ekitaldian baino % 2,67 txikiagoak. Beherakada horren arrazoia da aurrezki-kontuetako saldoen irteera (2.444 milioi eurokoa) handiagoa izan dela eperako ezarpenen sarrera baino (2.074 milioi eurokoa).

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

KUDEAKETA-TXOSTENA, 2023KO EKITALDIKOA

Maileguak eta bezeroen aurrerakinak 14.989 milioi eurokoak dira 2023ko ekitaldiaren amaieran. Bestelako finantza-aktiboen aldaketaren eragina alde batera utzita, kreditu-inbertsio tradizionala % 1,32 txikitu da.

Bezeroei emandako kredituaren zalantzazko arriskuen bolumena % 0,65 txikitu da, eta «Bestelako sektore egoiliarrak» epigrafeko berankortasun-ratioak 2022aren amaierako mailari eutsi dio, % 2,70ekoa baita. Datu hori sektoreko batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa da, gordailu-erakundeetakoa % 3,45ekoa baita.

Bestalde, «Bestelako emaitza global batean aldaketak eragiten dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» eta «Zorra adierazten duten baloreak kostu amortizatuan» epigrafeek, hurrenez hurren, 996,3 eta 7.947,5 milioi euroko zenbatekoak dituzte. Horrela, kostu amortizatuko zorroak % 29,9ko pisua du balantze osoan.

Efizientziari eta likideziari buruzko adierazleek parametro egokietan jarraitzen dute, bai termino absolutuetan bai erlatiboetan. Efizientzia-indizea, KHSFaren aurreko marjina gordinaren gaineko administrazio-gastu moduan neurtua, % 41,7an kokatu da 2023an. Egiturazko likideziaren ratioa, emandako krediituen gaineko gordailuetan oinarritua, berriz, % 66,3koa izan da.

Kaudimenari dagokienez, Talde bateragarriaren baliabide propio konputagarriak 2.040,2 milioi eurokoak dira, 2023ko abenduaren 31n. CET1 (Common Equity Tier 1) ratioa, sektoreko nabarmenenetako bat, % 23,85ean kokatu da, eta bat dator guztizko kaudimenaren ratioarekin.

Galdu-irabazien kontuan sarrera eta gastuen atal hauek nabarmentzen dira:

Zerga ondorengo emaitza 208,4 milioi eurokoa da 2023an, gizarte-ekintzako zuzkidura egin aurretik 222,7 milioiko irabazia lortuz, eta, beraz, gainditu egin dira Entitatearen Gestio Planeko aurreikuspenak.

Onuragarria izan da interes-tasen igoera interesen marjinarentzat, zeina 558,9 milioikoa izan baita, 2022koa baino % 99,05 handiagoa.

Dibidenduak, komisio garbiak, finantza-tresnen zorroen errebalorizaziotik eta besterentzetik lortutako irabaziak eta ustiapeneko bestelako emaitza batzuk batuta, 26,2 milioi euro lortu dira 2023an. Horrenbestez, marjina gordina 585,1 milioi eurokoa da.

Kostuen atalean, Taldeak berretsi egin du bere estrategia-agendari eusteko eta etorkizunari aurre egiteko diseinatutako proiektu eraldatzaileei ekiteko erabakia. Horrela, bada, inflazioaren eraginarekin bat, % 13,13 gehiago bideratu da administrazio-gastuetara, 250 milioi euro, alegia.

Horniduretarako, saneamenduetarako eta bestelako narriaduretarako zuzkiduren epigrafeei dagokienez, ekitaldiko emaitza onek aukera eman dute pasibo kontingenteen eta bestelako aktibo arazotsu batzuen —zalantzazko eragiketak eta esleitutakoak— estaldura sendotzeko.

Taldearen arrisku nagusiei dagokienez, horien xehetasuna 2023ko ekitaldiko urteko kontuetako 16.etik 21.era bitarteko oharretan jaso da.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

KUDEAKETA-TXOSTENA, 2023KO EKITALDIKOA

Aseguruen negozioan, primek % 8,9 egin dute gora bizitzakoak ez diren aseguruetan, eta % 3 bizitzakoetan. Hala ere, ezbehar-tasa igo egin da 2023an, ekitaldian zehar izandako gertakari klimatologiko kaltegarriak direla eta. Ondorioz, LABORAL Kutxa Taldeari egindako ekarpena 39 milioi eurokoa izan da emaitza arrunt globaletan; hau da, 2022koa baino % 11 handiagoa.

Bestalde, 2023ko ekitaldian eutsi egin zaio higiezinen sustapenaren eta eraikuntzaren jarduerarekin arrisku-posizioak murrizteko joerari; 21 milioi euro txikitu ostean, 420 milioi euroan kokatu da urte-amaieran.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea 18 egunekoa izan da 2023an, 2010eko uztailaren 5eko 15/2010 Legeak, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzekoak, gehienez finkatutako 30 eguneko epea baino laburragoa. Aintzat hartu dira, gainera, 2014ko abenduaren 3ko 31/2014 Legea, gobernu korporatiboa hobetzeko Kapital Sozietateen Legea aldatzen duena, eta Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren 2016ko urtarrilaren 29ko Ebazpenaren Xedapen Gehigarri Bakarra. Batez besteko ordainketa kalkulatzeko, Lege horretan ezarritakoa hartu da aintzat.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

KUDEAKETA-TXOSTENA, 2023KO EKITALDIKOA

LABORAL Kutxan, Core negozioa optimizatzen jarraitzen dugu, eta gure plangintza estrategikoaren funtsezko bi zutabeetako bat bultzatzen: agenda eraldatzailea. Agenda horren bidez, Entitatearen eraldaketa-gaitasunak indartu nahi dira, bezeroekin dugun harremana eta gure prozesuen lehiakortasuna optimizatzeko. Entitateak etorkizuneko gaitasunak bultzatzen jarraitzen du hainbat arlotan, hala nola produktu eta zerbitzuen digitalizazioan, zibersegurtasunean, data analytics-ean, talentuaren erakarpen eta atxikipenean, eta Entitatea gainbegiraleen (EBZren) eskakizun berrietara egokitzean.

Agenda estrategiko bikoitz horrekin batera, asmo handiko barne-gogoetarako proiektu bat ari da garatzen Entitatea, Zentzua izenarekin. LABORAL Kutxaren Asmoari, Misioari eta Balioei buruzko partaidetzazko gogoeta-prozesu bat egin nahi du proiektu horrek, hiru jarduera-eremu nagusi ardatz hartuta: Entitateko PERTSONAK, BEZEROEKIKO harremanak eta GIZARTEARENTZAKO ekarpena.

2018ko abenduaren 28ko 11/2018 Legeak, informazio ez-finantzarioari eta dibertsitateari buruzkoak, arautzen du bi alderdi horien inguruan eman beharreko informazioa. LABORAL Kutxak, interes publikoko erakundea izanik, Kudeaketa Txosten Bateratuari atxikitako agiri gehigarri batean argitaratu du LABORAL Kutxa Taldeari buruzko informazio ez-finantzarioaren egoera-orria, aipaturiko araudiak agindutako betebeharrei erantzuteko, eta Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan gordailutuko da. Agiri hori Taldearen urteko Jasangarritasun Txostena (EGEa) ere bada, eta nazioarteko GRI estandarraren arabera egiten da.



JASANGARRITASUNA '23

JASANGARRITASUN TXOSTENA ETA INFORMAZIO EZ-FINANTZARIOAREN EGOERA-ORRIA

LABORAL Kutxak aitortzen du Urteko Txosten hau GRI estandarren arabera egin dela eta 2018ko abenduaren 28ko 11/2018 Legearen errekerimenduak, informazio ez-finantzarioari eta dibertsitateari buruzkoak, betetzen dituela, AENORek egindako kanpo-egiaztapenaren arabera.

LABORAL kutxa

AURKIBIDEA

0. Gutuna **4**

1. Nor garen **7**
1.1. Taldearen aurkezpena 8
1.2. Egitura operatiboa 10
1.3. Kooperatibismoa 10
1.4. Balioak, printzipioak, estandarrak eta jokabide-arauak 11
1.5. Bulegoen banaketa geografikoa 12
1.6. Taldearen magnitude nagusiak 13
1.7. Estrategia eta arriskuaren gestioa 15
1.8. Printzipioak eta gobernua 18
1.9. Gobernu-organoen garapena 23
1.10. Gobernu-organoen ordainketa 24
1.11. Ustelkeria eta eroskeria 24
1.12. Kapitalak zuritzea 26
1.13. Araudia betearaztea 27

2. Gestio arduratsua **28**
2.1. Gestio-ikuspegia 29
2.2. Konpromisoak eta lorpenak 30
2.3. Materialtasun-analisia 32
2.4. Jasangarritasunaren Ibilbide-orria – Gai materialen lehenespena 35
2.5. LABORAL Kutxaren EGEaren inguruko aginte-taula 35
2.6. Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJHak) 36

3. Interes-taldeen gestioa **37**
3.1. Bezeroekiko harremanak 38
3.1.1. Gestio-ikuspegia 38
3.1.2. Bezeroen magnitude nagusiak 38
3.1.3. Bezeroekiko elkarrizketak 39
3.1.4. Bezeroarekiko gestio arduratsua eta zerbitzu-kalitatearen bikaintasuna 42
3.1.5. Datuen eta eragiketen pribatutasuna eta segurtasuna babestea 45
3.1.6. Produktu eta zerbitzu arduratsuak 47
3.2. Plantillarekiko harremanak 55
3.2.1. Gestio-ikuspegia 55
3.2.2. Plantillaren magnitude nagusiak 56
3.2.3. Plantillarekiko elkarrizketak 61
3.2.4. Plantillaren garapena 62
3.2.5. Aniztasuna eta aukera-berdintasuna 65
3.2.6. Kontziliazioa 67
3.2.7. Ordainsariaren gestioa 68
3.2.8. Laneko segurtasuna eta osasuna 70
3.2.9. Onura sozialen paketea 73
3.3. Gizartearekiko harremanak 75
3.3.1. Gestio-ikuspegia 75
3.3.2. Magnitude nagusiak: irabaziak gizartean banatzea 78
3.3.3. Gizartearekiko elkarrizketak 78
3.3.4. LABORAL Kutxak babestutako ekimenak 79

3.4. Ingurumenarekiko harremanak 82
3.4.1. Gestio-ikuspegia 82
3.4.2. Magnitude nagusiak eta bideratutako ekimenak 83
3.5. Enpresa hornitzaileekiko harremanak 91
3.5.1. Gestio-ikuspegia 91
3.5.2. Magnitude nagusiak 92
3.5.3. Hornitzaileekiko elkarrizketak 92
3.5.4. Ekitaldian hornitzaileen gestio arduratsurako garatutako ekimenak 94

4. Txostenari buruzko informazioa 95

5. Eranskinak 98
5.1. GRI edukien aurkibidea 99
5.2. Txostenaren edukia zehazteko prozesua 108
5.3. Jasangarritasun-informazioa zabaltzea. Taxonomia 109
5.4. AENORen egiaztapena 113

0. GUTUNA

Lehenik eta behin, garapen jasangarriak LABORAL Kutxa Taldearentzat duen garrantziaz hitz egiten hasi nahi nuke, eta, horretarako, erakunde gisa dugun asmoari buruz 2023an egin genuen barne-gogoeta aipatuko dut. Zentzua izena eman diogu gogoeta horri, eta, haren bidez, gure iragana eta geroa lotu nahi izan ditugu, gaur egunera ekarri gaituena eta gure kreditu-kooperatibarentzat eraikitzen jarraitu nahi dugun etorkizuna identifikatuta.

Caja Laborala 1959an sortu zen, gizartea eraldatzeko xedearekin, bidezkoagoa, solidarioagoa eta berdinzaleagoa izan zedin. Pertsonak neurri berean duintzeko helburu nabarmenarekin. Azken batean, gizartearen zerbitzura dagoen enpresa-proiektu bat gara, gizartea eraldatu nahi duena, aberatsagoa eta ekitatiboagoa izan dadin. Gizarteak, ekonomiak eta kooperatibak berak bilakaera handia izan dute harrezkeroztik; baina, gure ustez, helburu hori orduan bezain baliagarria da gaur egun ere. Hori dela eta, gogoetaren emaitza gisa, honela definitu ditugu gure asmoa eta legatua:

Komunitate oparoagoak, berdinzaleagoak eta jasangarriagoak eraikitzen ditugu, kultura kooperatibo solidario eta erantzunkidea zabalduz.

Definizio hori balioak definitzeko, kultura garatzeko eta erabaki estrategikoak bideratzeko gida izango da hemendik aurrera. Txosten honetan, Zentzuari buruzko xehetasun gehiago emango ditugu, bai eta proiektu honen ondorioz aktibatu nahi ditugun palankei buruz ere.

LABORAL Kutxak 2023an izandako jardueraren bilakaerari erreparatuta, ekintza ugari egin ditu jasangarritasunaren inguruan. Arau-ekimen ugari gertatu dira, oso bizkorrak eta zorrotzak, eta, horien ondorioz, finantza-erakundeok ahalegin handia egiten ari gara, gure egiturak eta prozesuak egokitzeko eta eraldatzeko.

Joan den ekitaldiko mugarri garrantzitsu bat jasangarritasun-arriskuen integrazioan egindako aurrerakuntza izan da. Bide horri sakonago heldu beharko diogu datozen urteetan, bai arautzaileek eskatzen dutelako, bai zaila delako orain gutxi arte analisietan aintzat hartzen ez ziren elementu berritzaileak integratzea. 2023an, txosten honetan xehetasun handiagoz deskribatu denez, gure merkataritza-finantzaketaren zorroari eragiten dioten zuzeneko eta trantsizioko arriskuak aztertu dira bereziki.

Horrez gain, 2023an egindako beste hiru aurrerapauso nabarmendu nahi nituzke. Lehenik, ESG produktuen katalogo bat diseinatu eta martxan jarri dugu, gure bezeroen aurrezkiari, finantzaketari eta aseguramenduari lotuta. Bigarrenik, LABORAL Kutxa Taldearen ESGaren alorreko inbertsio-, finantzaketa- eta aseguru-politika onartu dugu. Eta, hirugarrenik, jasangarritasun-adierazleei lotutako helburuak txertatu ditugu langile guztien ordainsari aldakorrean.

Halaber, aipatzekoa da TNFD (Taskforce on Nature-related Financial Disclosures) elkartearen gomendioei jarraituz lehen txostena egin dugula. Dokumentu honen bitartez —TCFD txosten klimatikoarekin batera—, hobetu egingo dugu gure jarduerak biodibertsitatean dituen eraginei buruzko ezagutza, eta naturarekin eta ekosistemen narriadurarekin lotutako arriskuei buruzkoa, eta hobeto emango dugu ezagutza horren berri.

Ingurumenean eta gizartean ditugun zuzeneko eraginen ikuspegitik, bi aurrerapen aipatuko nituzke. Batetik, 2023an ere gora egin du geuk sortutako energiaren kontsumoaren ehunekoak. Laster, gure energia-kontsumoaren erdia parke fotovoltaikoetan dugun partaidetzatik etorriko da. Bestetik, Irisgarritasun integraleko proiektua abiarazi dugu. Epe luzerako ekimena da, eta xede hau du: pertsona guztiek aukera izatea elkarrekin harremanetan jartzeko eta gure

bezeroekiko eta gizartearekiko harreman-kanal guztietarako sarbidea izateko, beren egoera edozein dela ere.

LABORAL Kutxa Taldeak jasangarritasun-estrategia ezartzen aurrerapen nabarmenak egin dituen arren, ahalegin handiak egin beharko ditugu elementu batzuei aurre egiteko. Eskuragarri dagoen barne- zein kanpo-informazioaren kalitatea hobetzea da erronka nagusia. Datuen eskuragarritasuna egokia izan ezean, ezinezkoa izango da jasangarritasun-arriskuak behar bezala integratzea finantza-sistemaren gainerako arrisku tradizionalekin batera. Hori konpontzeko, hainbat proiektutan lanean jarraituko dugu 2024an eta hurrengo ekitaldietan.

Epe ertainera begira, hurrengo urteetan aurre egin beharreko zenbait erronka nabarmen daude. Informazio ez-finantzarioa zabaltzeko araudi berrira (CSRDra) egokitu izana azpimarratuko nuke; araudi horren arabera, ingurumen-, gizarte- eta gobernu-alderdiei buruzko informazioa eman behar dugu, finantza-alderdiei buruzko informazioa ematean dugun sakontasun-maila berarekin. Orobat, deskarbonizazio-prozesuan aurrera egin beharko dugu, bai gure zuzeneko jardueran, bai gure inbertsio-, finantzaketa- eta aseguru-lanaren ondoriozkoan, epe luzera neutraltasuna lortze aldera.

Amaitzeko, aurten ere berretsi egin nahi dut garapen jasangarria, giza eskubideekiko eta lan- eta ingurumen-eskubideekiko errespetua eta ustelkeriaren aurkako borroka sustatzen dituzten nazioarteko ekimenekin dugun konpromisoa. Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak eta 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJHak) dira.

Adolfo Plaza Izaguirre

LABORAL Kutxako presidentea

1. NOR GAREN

1.1. Taldearen aurkezpena

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito —izen komertziala: LABORAL Kutxa; helbidea: Jose Maria Arizmendiarrieta pasealekua zk.g., Arrasate (Gipuzkoa)— ***banka kooperatibo eta parte hartzekoaren eredu sendo eta arduratsua*** da, webgune korporatiboan bere burua aurkezteko dioen moduan. *«Banku-jarduera gauzatzeko beste modu bat du LABORAL Kutxak, lankidetzan eta gure gizartearekiko konpromisoan oinarritua. Bezero guztiak asebetetzea eta ingurunean aberastasuna eta enplegua sortzea dira gure helburu nagusiak. Gurea banka kooperatiboa da, eta, gidari dituen balioei eta filosofiari jarraituz, guztion interesa lehenesten dugu norberaren interesaren aurrean, erabakiak parte-hartzean oinarrituz eta arduraz hartzen ditugu eta gure mozkinak gizartean inbertitzen ditugu».*

Kreditu-kooperatiba bat da, eta MONDRAGON Taldeko kooperatiben eta jarduneko eta erretiratutako bazkide langileen (kolaboratzaileen) esku dago kapitalaren zatirik handiena.

LABORAL Kutxa Talde bateratuak banku- eta aseguru-jarduerak hartzen ditu barne. Txikizkako banku-jarduerak inbertsio-produktuak eta aurrezki-produktuak eskaintzen ditu. Inbertsioari dagokionez, hipoteka-produktuak, kontsumorako kreditua, zirkulatzailea eta enpresentzako finantzaketa merkaturatzen dira bereziki. Aurrezkiari dagokionez, berriz, gordailuak (agerikoak eta eperakoak), abalak, ordainbideak (kreditu- eta zordunketa-txartelak), inbertsio-funtsak, pentsio-funtsak eta BGAEak dira produktu nagusiak. Caja Laboral Popular Coop. de Créditok —aurrerantzean, LABORAL Kutxa; helbidea: J. M. Arizmendiarrieta pasealekua zk.g., 20500 - Arrasate, Gipuzkoa— bere bulego-sarearen bidez egiten du, batik bat, negozio hori, edo Entitate horrek % 100ean mendean dituen sozietate jakin batzuen bidez, Entitate nagusiaren jardueraren luzapen zuzentzat hartzen baitira. Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren Kontseilu Errektoreari dagokio erabaki estrategikoak, gestioari buruzkoak eta operatiboak hartzea.

Aseguruen negozioaren barruan sartzen dira Taldeak Seguros Lagun Aro Vida SAren eta Seguros Lagun Aro SAren bidez egiten dituen jarduerak. Taldeak bizitza arriskuko eta bizitza aurrezkiko aseguruak merkaturatzen ditu bizitza-aseguruen jardueraren barruan. Horrez gain, bizitzakoak ez diren aseguruak merkaturatzen ditu, batik bat auto-aseguruak, erantzukizun zibilekoak eta arrisku anitzekoak, etxekoak batez ere. Bi sozietateon Administrazio Kontseiluei dagokie erabaki estrategikoak, gestioari buruzkoak eta operatiboak hartzea.

Seguros Lagun Aro Vida eta Seguros Lagun Aro (aurrerantzean Seguros Lagun Aro) bi sozietate anonimo dira, % 100 LABORAL Kutxaren partaidetzapekoak.

KAPITAL SOZIALA 2023-12-31N

818,8 M EURO



LABORAL Kutxa Taldea osatzen duten partaidetzapeko enpresak:

Mendeko erakundeak	Jarduera	Partaidetzaren %-a	Egoitza
Seguros Lagun Aro Vida SA	Aseguruak	% 100	Basurtoko Kaputxinoen kalea 6, 2.a, 48013 – Bilbo (Bizkaia)
Seguros Lagun Aro SA	Aseguruak	% 100	
Seguros Lagun Aro 2003 AIE	Aseguruak	% 100	
Caja Laboral Gestión SGIIC SA*	Inbertsio-funtsen gestorea	% 100	Jose Maria Arizmendiarrieta pasealekua 5, 1.a, 20500 – Arrasate (Gipuzkoa)
Caja Laboral Pensiones GFP SA*	Pentsio-funtsen gestorea	% 100	Jose Maria Arizmendiarrieta pasealekua zk.g., 5. eraikina, 1.a, 20500 – Arrasate (Gipuzkoa)
ISGA Inmuebles SA*	Higiezinen sustatzailea	% 100	Jose Maria Arizmendiarrieta pasealekua 4, 20500 – Arrasate (Gipuzkoa)
Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU*	Partaidetza-edukitzailea	% 100	
Caja Laboral BancaSeguros (CLBS) OBSV SLU	Banka-aseguruetako operadorea	% 100	On Diego Lopez Haroko Kale Nagusia 2, 1.a, 48001 – Bilbo (Bizkaia)
Lagun Klik SLU*	Merkataritza-bitartekariak	% 100	Basurtoko Kaputxinoen kalea 6, 3.a, 48013 – Bilbo (Bizkaia)
Partners Group LAMIAK SCA, SICAV – RAIF*	Finantza-aktiboen gestorea	% 99	Avenue John F. Kennedy 35 D, L-1855 – Luxenburgo
Erakunde elkartuak			
ATEGI GREEN POWER SL*	Instalazio fotovoltaikoak	% 28,57	Goiru kalea (b eraikina) 1, 3.a, 20500 – Arrasate (Gipuzkoa)

*Plantillarik ez duten sozietateak.

Ez dago ezberdintasunik egoera-orri finantzarioen eta egoera-orri ez-finantzarioen artean. Urteko Txosten honetan emandako informazioak bereizi egiten ditu, nagusiki, LABORAL Kutxa, CLBS eta Seguros Lagun Aro (hori osatzen duten hiru sozietateak taldekatuta). Sozietate horiek bereizten ez diren kasuetan, informazioa bateratua izango da

1.2. Egitura operatiboa

2023ko abenduaren 31n indarrean zen eta 2024ko urtarrilaren 1ean aldatuko den egitura area funtzionaletan dago banatuta. Horiek, bestalde, departamentuek, sekzioek, zonek eta bulego-sareak osatzen dituzte.



Seguros Lagun Aro



1.3. Kooperatibismoa

ZERK BEREIZTEN GAITU BESTE BANKU ETA KUTXA BATZUETATIK?

KREDITU-KOOPERATIBA BAT GARA	LABORAL Kutxan, entitateko bazkideak gara zerbitzu ematen dizugunak, eta, proiektuarekin bat egin eta hartan sinesten dugunez, pertsona bakoitzari zerbitzurik onena ematen ahalegintzen gara. Gure bezeroak pozik izatea da gure enpresa-proiektuaren bermerik onena.
GIZARTEARI ITZULTZEA. BANKA ERABILGARRIA, GURE GIZARTEAREKIN KONPROMETITUA	Gure dibidendua gizarterako itzulkina da. Gure soberakin banagarrien % 25 ekonomiaren eta gizartearen aldetik interesgarriak diren proiektuak finantzatzera bideratzen dugu, eta prestakuntzan eta enplegua sortzen laguntzera. Gainerakoa Entitatean inbertitzen dugu, berorren kaudimena eta etorkizuneko garapena sendotzeko.
LANGILEAK, BAZKIDEAK ETA PROTAGONISTAK GARA	LABORAL Kutxak ez du burtsan kotizatzen eta ez dago finantza-merkatuen espekulazio-presioaren eraginpean. Bazkide guztiok hartzen dugu parte Entitatearen kapitalean eta erabakietan, erantzukizunez eta gure gestioaren ondorioak geure gain hartuz. Erabakirik funtsezkoenak Batzar Nagusian onesten ditugu, eta bazkide guzti-guztiek hartzen dute parte bertan, mozkinak lortzen eta horiek gure gizartean inbertitzen lagunduko digun gestio eraginkorra eta arduratsua bermatzearren.

Asmoa eta legatua

«Komunitate oparoagoak, berdinzaleagoak eta jasangarriagoak eraikitzen ditugu, kultura kooperatibo solidario eta erantzunkidea zabalduz».

Misioa

LABORAL Kutxaren eta kreditu-kooperatiba osatzen dugunon konpromisoa da gure bezeroei finantza- eta aseguru-zerbitzu hurbila, profesionala eta zintzoa eskaintzea, beren helburuak eta ongizatea lor ditzaten laguntzeko.

Horretarako, balioak dituen eta epe luzera lehiakorra, kaudimenduna eta errentagarria izango den banku-jarduera garatuko dugu, hurrengo belaunaldiei legatu hobea uzteko xedearekin.

Mondragon Esperientzia Kooperatiboa garatzeko konpromisoa dugu, eta prest gaude eredu sozial jasangarri bat lortu nahi duten eragileekin lankidetzan aritzeko.



1.4. Balioak, printzipioak, estandarrak eta jokabide-arauak

LABORAL Kutxak jokabide-arau batzuetan funtsatuta arautzen du pertsonen jarduera. Jokabide-arau edo -jarraibide horiek Balore-merkaturako Jokabideen Barne Araudian daude jasota, eta Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritza Kontseiluko kideei nahiz jarduera-eremu horretan inplikaturikoei ezartzen zaie.

Etikaren eta osotasunaren alorrean, Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodean eta Jardunbide egokien eta sekretu profesionalaren gidan daude jasota Entitatearen arauak. Bi dokumentuok intranetean argitaratuta daude, eta, hurrenez hurren, Araudia Betearazteko Departamentuaren eta Barne Ikuskaritzaren Departamentuaren ardura da horiek berrikusi eta eguneratzea. Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodea aldatzeko, Kontseilu Errektoreak oniritzia eman behar du.

Kode Etikoaren garapen gisa, Entitatean egon litezkeen jokabide kriminalei aurrea hartzeko eta erantzuteko esparruan, Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburuan eta Zigor Kodea Betetzeari buruzko Politikan jasota daude barne-arauak.

Halaber, Opari eta Mesede Politika eta Sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako protokoloa onartu ditu Entitateak.

2023an, Laboral Kutxa Taldearen Barneko Informazio Sistemari buruzko politika korporatibo bat onartu da, bai eta haren funtzionamendua arautzen duen prozedura ere. Politika horren helburua da Salaketen Kanala arautzeko esparru homogeneo bat ezartzea, LABORAL Kutxa Taldeko erakundeek jaso dezaten aplikagarri duten barne- edo kanpo-araudiaren ez-betetzeei buruzko informazioa. Beraz, politika horrek osatu egiten ditu LABORAL Kutxa Taldeko erakundeetan delituak prebenitzeko eta horiei erantzuteko dagoen ereduaren oinarriak.

Etika Batzordeak du Salaketen Kanalaren ardura, Pertsonen eta Baliabideen Zuzendaritzaren gidaritzapean; besteak beste, departamentu hauek hartzen dute parte bertan: Araudia Betearaztekoak, Aholkularitza Juridikoak eta Barne Ikuskaritzak. Organo horrek, jarraipena egiteaz gain, baimenak edo salbuespenak eman eta Salaketen Kanalean jasotako salaketak ebazten ditu, dagokien bezala bideratzeko.

2022an eta 2023an ez da kontsultarik edo salaketarik egon.

Taldeko aseguru-erakundeek (Seguros Lagun Arok eta Seguros Lagun Aro Vidak) kooperatiben balioak eta politika zein gestio-jardunbideak partekatzen dituzte, nahiz eta araudiari jarraituz sozietate anonimoaren egitura juridikoa izan, sozietate kooperatiboaren egitura barik.

Seguros Lagun Aro *Europako Gizarte Ekonomiako Aseguratzaileen Elkarteko* (*EURESA*ko) kidea da, eta bat egiten du elkarte horrek defendatzen dituen elkarrekikotasun- eta lankidetza-balioekin:

- poner en práctica sus principios rectores en todos los niveles de sus actividades.,
- Kontsumitzaileen benetako beharrizanak aseko dituzten produktu eta zerbitzuak diseinatzea.
- Aseguratuek eta interes-taldeek zuzenean nahiz ordezkarien bidez enpresaren bizitzan aktiboki parte hartzen dutela bermatzea.
- Alderdi ekonomikoaren eta jokabide etikoaren arteko oreka lortzea.
- Bermatzea pertsonengan ardaztuta dagoen eta garapen jasangarria eta gizartearekiko arduratsua bilatuko duen ekonomiaren barruan gauzatzen duela jarduna.

Aktibo higiezinak gestionatzeko sozietateek beren jarduna jorratzeko hirugarrenekin egiten dituzten kontratuetan, betebehar jakin batzuk zehaztu dituzte, bai eta ez-betetzeetarako zehapen larriak ere, bermatzeko hirugarrenek laneko osasunari eta segurtasunari buruzko araudia, ingurumenaren errespetuari loturikoa eta giza eskubideak beteko dituztela (eta hornitzaileei betearaziko dizkietela).

1.5. Bulegoen banaketa geografikoa

LABORAL Kutxak banka-aseguruen estrategia batean biltzen du aseguruen jarduera; hortaz, Taldeko konpainiek (Seguros Lagun Aro SAk, bizitzakoak EZ diren aseguruetan, eta Seguros Lagun Aro Vida SAk) LABORAL Kutxaren bulegoetan eta webgunearen bidez merkaturatzen dituzte, gehienbat, euren produktuak. Hautatutako bitartekari-sare batekin osatzen ditu banku-kanal horiek Seguros Lagun Arok.

Partikularren bulegoetan, LABORAL Kutxako eta CLBSko langileak daude. Era berean, enpresetan espezializatutako sarea ere badago, bai eta Kooperatiben eta Enpresa Handien bulegoa, Sustatzaileen bulegoa eta Sektore Publikoaren bulegoa ere.

Bulegoen banaketa 2023-12-31n			
Probintzia	**Partikularrak**	**Enpresak**	**Bitartekotza**
Bizkaia	80	1	1
Gipuzkoa	62	1	1
Nafarroa	36	1	1
Araba	28	1	1
Zaragoza	16	1	1
Valladolid	12	1	1
Madril	12	2	-
Asturias	8	-	1
Burgos	6	-	-
Salamanca	6	-	-
Errioxa	4	-	1
Kantabria	4	-	-
Leon	3	-	-
Palentzia	2	-	-
Bartzelona	2	-	1
Huesca	1	-	-
Zamora	1	-	-
Valentzia	-	-	1
Bulegoak guztira	**283***	**8**	**9**

*12-31n, 439 Rivas-Vaciamadrid bulegoa kontabilitatean zegoen zabalik, baina ez fisikoki.

1.6. Taldearen magnitude nagusiak

Kontzeptua	2022	2023
Aktiboak guztira (M€-kotan)	27.755	26.589
Funts propioak (M€-kotan)	2.007	2.126
Bezeroen gordailuak (M€-kotan)	23.183	22.563
Bezeroei emandako kreditua (M€-kotan)	15.200	14.989
Bulegoak	280	283*
Kutxazain automatikoak	529	544
Interesen marjina (M€-kotan)	280,8	558,9
Marjina gordina (M€-kotan)	496,5	585,1
Administrazio-gastuak (M€-kotan)	240,8	249,9
Zerga ondorengo emaitzak (M€-kotan)	139,1	208,4

*12-31n, 439 Rivas-Vaciamadrid bulegoa kontabilitatean zegoen zabalik, baina ez fisikoki.

LABORAL Kutxak sortutako aberastasunaren banaketa taula honetan ikus daiteke:

Kontzeptua (mila €-kotan)	2022	2023
1. Sortutako balio ekonomiko zuzena	**520.327**	**662.792**
Marjina gordina (beste ustiapen-karga batzuen aurretik)	496.525	645.905
Aktibo materiala eta esleitutakoa saltzearen irabaziak	23.802	16.887
2. Banatutako balio ekonomikoa	**372.189**	**424.242**
Hornitzaileei egindako ordainketak (kostu operatiboak)	149.821	151.445
- bestelako administrazio-gastu orokorrak	101.539	104.968
- bestelako ustiapen-kargak	48.281	46.477
Pertsonal-gastuak	139.291	144.977
Mozkinen gaineko zerga	18.391	34.538
Kapitalerako interesak	36.064	57.539
Komunitaterako inbertsioak eta dohaintzak	28.623	35.743
Heziketako eta Sustapeneko Funtsa (HSF)	11.449	14.297
Kooperatiba arteko Funts Soziala (KFS)	17.174	21.446
3. Atxikitako balio ekonomikoa (1-2)	**148.138**	**238.550**

Aktibo higiezinak gestionatzeko sozietateei dagokienez, LABORAL Kutxa ISGA SAren jabea da, eta bazkide bakarra. Sozietateak 7.049 mila €-ko irabazia izan du, eta Taldearen emaitza bateratuan adierazi da.

Kontzeptua (mila €-kotan). Aktibo higiezinen gestioa	2022	2023
Sarrerak (salmentak)	70.528	32.281
Kostu operatiboak	3.534	818
Pertsonal-gastuak	0	0
Finantza-gastuak, interesengatik eta dibidenduengatik	154	3,5
Zerga gordinak	1.863	238

CLBSri dagokionez, hauek dira magnitude ekonomiko nagusiak (emaitza bateratuan jaso dira):

Kontzeptua (mila €-kotan). CLBS	2022	2023
Negozio-bolumena (komisioak)	43.084	35.260
Pertsonal-gastuak	7.389	7.901
Gastuak guztira	40.584	32.470
Zerga aurreko emaitzak	2.499	2.790

Aktibo higiezinak gestionatzeko sozietateek helburu hauek izan dituzte 2023an: batetik, hirugarren sustatzaileen aktibo higiezinak erostea edo esleitzea, LABORAL Kutxari zor ziotena ordaintzeko, eta, bestetik, jabetzako aktibo guztiak desinbertitzea; hau da, bukatutako produktuak (etxebizitzak, garajeak, lokalak…) saltzea, hasitako obrak bukatzea, azken produktuak saltzeko, eta lurzorua saltzea edo gestionatzea, etxebizitza bihurtzeko, autosustapenak nahiz eraikuntzak garatuz.

2023an, ISGA sozietatearen bidez, higiezinen arloko 6 proiektu bideratu ditugu, hau da, 273 etxebizitza hasi gara eraikitzen; horietatik, 3 proiektu bukatu ditugu (guztira, 81 etxebizitza bukatu eta entregatu dira).

Lurzoru, aribideko sustapen edo bukatutako etxebizitzetatik bat ere ez dago babestutako naturagune edo babestu gabeko dibertsitate biologiko handiko area baten barruan edo ondoan.

Aktibo higiezinak gestionatzeko sozietate horien jarduerak oso partaidetza txikia du Espainiako higiezinen sektorean. Horien zeharkako eragina proiektuak garatzeko behar diren jarduerak hirugarrenei kontratatzearekin dago lotuta.

Zerga-sistema

LABORAL Kutxak jarduera gauzatzen duen lurraldeetan betetzen ditu zerga-obligazioak; lau foru-lurraldeetan eta lurralde erkidean, zehazki. Horrela, zerbitzu publikoei eusten eta gizartea garatzen laguntzen du.

Entitatearen estrategia fiskala bat dator gestioaren esparru guztietan aplikatzen den zuhurtziaren printzipio historikoarekin.

LABORAL Kutxak zergen eta legearen arloak gestionatzeko prozedura du, bere finantza-informazioaren barne-kontroleko sistemaren barruan. Agiri hori barnekoa da, eta Kontseilu Errektoreak onartu zuen bere garaian. Bertan zehazten dira zerga guztien gestioaz arduratzen diren erakundeko eremuak, haietako bakoitzak bete behar dituen zereginak eta prozedura zuzen betetzen dela bermatzeko kontrolak. Prozedura aldian behin berrikusten du Barne Ikuskaritzak.

Entitateak azalpen-ohar baten bidez ematen du informazio fiskalaren berri urteko kontuetan. Kontabilitate-emaitzaren eta zerga-oinarriaren arteko kontziliazioa jasotzen da ohar horretan, sozietateen gaineko zergaren ondoreetarako. Informazio horri eta gainerako finantza-informazioari kanpo-auditoretza egiten zaie urtean behin.

Zergak eta tributuak (mila €-kotan). LABORAL Kutxa	2022	2023
Tributuak (OHZ, EJZ...)	1.786	1.646
BEZa	10.414	3.071
Gordailuen zerga	7.045	6.746
Ondare-prestazioa (DTAk)	1.812	1.582
LK guztira	**21.057**	**13.045**
Mozkinen gaineko zerga CLBSn	**600**	**663**
Zergak eta tributuak (mila €-kotan). Lagun Aro	**2022**	**2023**
Sozietateen gaineko zerga	2.704	2.356
Tributuak (OHZ, EJZ...)	88	86
Lagun Aro guztira	**2.794**	**2.443**

2022an, 15.792 mila €-ko sozietate-zerga sortu zuen LK-k, eta 2023an, 25.948 mila €-koa sortu du.

Administrazio publikoak ez du parterik kapitalean, eta ez du inolako ordezkaritzarik gobernu-organoetan. Hauek dira administraziotik jasotako finantza-laguntzak:

Kontzeptua (mila eurokotan)	2022	2023
Dirulaguntzak (enplegurako, prestakuntzarako eta energiako inbertsioetarako)	38	275
Kontzeptua (mila eurokotan)	**2022**	**2023**
Lagun Aroren dirulaguntzak	0	0

1.7. Estrategia eta arriskuaren gestioa

2022an egindako gogoeta estrategikoaren ondorioz, 2023-2024rako Plan Estrategikoa egin genuen. LABORAL Kutxaren gogoeta estrategikoak norabideak finkatzeko prozesuari jarraitzen dio. Merkatuen lehiakortasunaren behaketa sistematizatzea du helburu, eta negozio-ereduak eta ondoren Gestio Plan bakoitzean garatzen diren apustu estrategikoak berrikustea.

Ingurunearen egoeraren analisia egin genuen, honako hauek aztertuz bereziki:

- Ziurgabetasun ekonomikoa, hornikuntza-arazoek eta Ukrainako gerrak areagotu dutena.
- Inflazioaren hazkundea eta ondoriozko interes-tasen igoera.

Aurreko plangintza estrategikoaren oinarrizko eskemari eutsi genion, asmo hauek kontuan hartuta:

- **Entitatearen negozio nagusietako kuotak handitzea.** Hipotekak, Merkataritza, Aseguruak eta Balantzetik kanpokoak.
- **Entitatearen eraldaketa bultzatzea.** Digitalizazioa, teknologia, zibersegurtasuna, data analytics, gainbegiratze-eskakizunak eta talentua.

Programek lau atal nagusi dituzte (Barne-gobernua, Core negozioaren hazkunde errentagarria, Negozio-azeleratzaileak eta Gaitasun eraldatzaileak).

2023ko udan, ingurunearen bilakaeraren analisia egin dugu, baita Plan Estrategikoaren baliozkotasunarena ere. Hona hemen birbideratze horren ondorio nagusia: Planaren oinarrizko egiturak eta helburuek beren horretan jarraituko dute.

Plangintzaren berritasunetako bat hauxe izan zen: Gobernantza eta Jasangarritasuna bereiztea, aurreko planean programa bakar batean elkartuta baitzeuden. Zeharkakoa. Hauek dira Jasangarritasun-programaren jarduketa-ildo nagusiak:

- Jasangarritasun-estrategia Zentzuarekin lerrokatzea.
- Produktuen katalogoa negozio-lerro guztietan egokitzea.
- Ingurumen-arriskuak eta klima-aldaketarenak zeharka integratzea, eta horren inguruko prestakuntza ematea.
- Jardueraren zuzeneko inpaktua murriztea (kontsumoak eta lantokiak, instalazioen irisgarritasuna, karbono-aztarnak…).
- Posizionamendua eta produktuaren komunikazioa.
- Jasangarritasunaren aginte-taula: KPIak eta horien jarraipena (RASa barne).
- Etxebizitza efizienteak sustatzea (A eta B).

Erronka nagusiak

Jasangarritasun-estrategia hedatzea, Entitatearen asmoari (Zentzuari) buruzko gogoetaren ondorioak, balio kooperatiboak, Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioen sinatzaile gisa hartutako konpromisoak eta 2030 Agendako GJHak oinarri hartuta. Ekimenak eta proiektuak *greenwashingaren* ikuspegitik monitorizatuko dira, bigarren eta hirugarren defentsa-lerroak barne direla. Bestalde, Entitatea ESG araudiaren aurreikuspenetara egokituko da, produktu berdeen katalogoa prestatuz, jasangarritasun-printzipioak (irisgarritasuna barne) baliabide eta pertsona guztiei aplikatuz, eta jardueraren zuzeneko inpaktua murriztuz.

Arriskuen gestioa funtsezkoa da finantza-erakunde batentzat. 2023an aipatzekoak dira mugarri nagusi hauek, txosten honetan eta Txosten Klimatikoan zehar xehetasun handiagoz azalduko ditugunak:

- Gure finantzaketa-zorroak jasaten dituen ESG arriskuen analisia egin da, berotasun-mapa baten bidez.

- LABORAL Kutxa Talderako ESGaren alorreko finantzaketa-, inbertsio- eta aseguru-politika onartu da. Esklusioak, sentikortzat jotzen diren sektoreak eta eztabaiden kudeaketa argitzen ditu politika horrek.
- Produktu jasangarrien katalogoa garatzen jarraitu dugu.

Jasangarritasunari dagokionez, honako hauek izan dira 2023ko birbideratzearen ondorioak:

- Reportingaren premiak eta behar dituen baliabideak ugaritu egin dira.
- ESG arriskuak gainerako arriskuekin batera integratzea korapilatsua da.

ZENTZUA

2022an gogoeta-prozesu bat ireki zen, LKren etorkizuneko zentzu edo asmoari buruz. Kontua zen:

1. **LKren nortasun-ezaugarri historikoak eguneratzea**, Entitatea etorkizunean gidatzen jarrai dezaten.
2. Pertsonen eta gizartearen kezkak eta geroa adierazten dituzten **joera berriak txertatzea gidaritza horretan**, erakunde gisa erantzun diezaiegun eta gure jatorrizko ezaugarrien osagaiak izan daitezen.
3. **Erakundearen bereizgarriak definitzea, hau da, nola nahi dugun ezagutu gaitzaten**, Entitatean ezarri nahi ditugun printzipioak eta portaerak finkatuz; hau da, **gizabanakoari** eragiten diotenak eta erakundearen **barruko harremanak** gidatuko dituztenak, **bezeroekiko harremana** oinarrituko dutenak eta LK-k **gizarteari** egiten dion balio-proposamena bilduko dutenak.
4. Entitatearen eboluzioa eragitea, **erakundearen eboluzio-iparra zehaztuko duten hobekuntza-erronkak** erantsiz.

2023an, gogoeta amaitu egin da, Kooperatibako organo guztien eta edukiak alderatzeko hautatutako pertsonen parte-hartzeari esker.

Ondoren, ZENTZUAren formulazioa hedatzeari ekin diogu, Entitateko aginte-lerroa osatzen duten pertsonentzat saio espezifikoak eginez eta «Topaketa Kooperatiboak» izeneko esperientzia-lantegien bidez. Lantegien lehen edizioak egin dira, eta haietan parte hartzeko deia egingo zaie kooperatibako bazkide guztiei.

Aurrekoaz gain, 2024an zehar pertsonen, bezeroen eta gizartearen alorretan landu beharreko ekimenak zehaztu dira. Horien artean aipatzekoa da ZENTZUA estrategian integratzea.

2.2. Konpromisoak eta lorpenak atalean, deskargu bat egiten da, 2023ko ekitaldia ixtean aurreko Plan Estrategikoan finkatutako helburuak dauden egoeraren berri emateko.

Bestalde, **Seguros Lagun Aro**k bere Gestio Plana egiten du urtero. Hartan, helburuak eta ekintza-planak ezartzen ditu, gestioko *aginte-taulako* adierazle kuantitatiboen balantzearen eta ondorio kualitatiboen arabera.

1.8. Printzipioak eta gobernua

Gobernu korporatiboa

LABORAL Kutxaren jarduera estatu osoan garatzen denez, gaitasun profesional egokiak izatea jartzen dugu beti zuzendari nagusiak kontratatzeko irizpide nagusitzat. Hori dela eta, zuzendariak hautatzeko politikaren barruan ez dago jatorri geografikoari buruzko inolako baldintzarik.

Gobernu korporatiboari dagokionez, hona hemen 2023an izandako aurrerakuntzak:

- Urtero bezala, Kontseilu Errektorearen azken urteko egitura, tamaina, osaera eta jarduera ebaluatzeari buruzko txostena egin da.
- Kontseilu Errektorea berrituko dela eta, hutsik geratuko diren lanpostuak betetzeko behar diren profilei buruzko txostenak egin dira.
- Kontseilu Errektorerako hautagaien Erakartze, Hautapen, Izendapen, Berritze eta Aniztasun Politika eguneratu da. Halaber, Kontseilu Errektorearen ezagutzen, gaitasunaren, aniztasunaren eta esperientzien oreka ebaluatu da.
- Kontseilu Errektoreko kideen eta funtsezko eginkizunen titularren egokitasunari urteko ebaluazioa egin zaio.
- 2023. urtearen amaieran, Kooperatibako presidentea ordezkatzeko prozesua burutu zen, aurrekoak erretiroa hartu zuelako.

Entitateak aintzat hartzen ditu *aniztasun*-politikei buruzko errekerimenduak. Hortaz, berdintasunari buruzko gidalerroetan eta araudian ezarritakoa betez, administrazio-organoetako kideen eta funtsezko eginkizunen titularren egokitasuna ebaluatzen du. Ildo horretan, profil akademikoa, profil profesionala, generoa, adina eta beste alderdi batzuk hartzen dira kontuan, Kontseilu Errektorerako hautagaiak hautatzeko politikan eta ebaluazio- eta egokitasun-prozesuetan.

2023ko abenduaren 31n, Kontseilu Errektorean ordezkaritzarik txikiena duen sexuaren presentzia % 42tik gorakoa zen.

Era berean, goi-zuzendaritzako kideak hautatu, izendatu eta berritzearen alorrean, Funtsezko Postuetarako Ondorengotza Plana du LABORAL Kutxak. Bertan, ordezkatuko diren postu kritikoak, ibilbide profesionalak eta jatorri-profilak identifikatzen dira, eta identifikatutako pertsonen garapen profesionalerako planak eta postu bakoitzerako ondorengotza-planak ezartzen. Funtsezko postuak (ondorengotza-plana izateko modukoak) eta postu horietakoak etorkizunean ordezkatzeko gaitasuna duten pertsonak identifikatzeko, hainbat aldagai hartzen dira aintzat: prestakuntza, esperientzia eta ezagutza; zuzendaritzako ibilbidea; errendimenduaren historia; gaitasun eta trebetasun pertsonalak; Entitatearekiko konpromisoa; potentziala, eta abar. 2023an, goi-zuzendaritzako kideak hautatu, izendatu eta ordezkatzeko politika eguneratu da.

2023an, Zuzendaritza Kontseiluaren osaera aldatzea adostu zen; hain zuen, kontseiluak beste kide bat izango du, 2024ko urtarrilaren 1eko hasiera-datarekin.

Lagun Aroren 2019ko urtarrileko Administrazio Kontseiluan aktan jaso zenez, sozietatearen Administrazio Kontseilua osatzen duten kide guztiek bete egiten dituzte gaitasun- eta ohore-baldintzak, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta

kaudimenaren 2015eko azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuaren (RDOSSEARen) 18. artikuluaren arabera. Ondoren, 2022ko uztailean Administrazio Kontseiluan kontseilari independente bat sartu zela eta, horren gaitasun- eta ohore-baldintzak onartzeko prozesua burutu zen, eta prozesu horren berri eman zitzaion Aseguruen Zuzendaritza Orokorrari. Aseguru-konpainietako administrazio-kontseiluek ez dute aldaketarik izan 2023an.

Gobernu Organoa	30 eta 50 urte artekoak				50 urtetik gorakoak			
	2022		2023		2022		2023	
	G	E	G	E	G	E	G	E
Kontseilu Errektorea*	2	5	1	3	5	2	6	4
Kontu-hartzaileak	0	1	0	1	1	1	1	1
Eragiketa Batzordea	0	2	1	1	2	0	1	2
Ikuskaritza Batzordea	0	1	0	1	3	0	3	0
Izendapenen Batzordea	1	0	0	0	1	1	2	1
Kontseilu Soziala	8	4	7	6	3	5	3	4
Zuzendaritza Kontseilua	1	1	1	2	6	1	6	1
Arrisku Batzordea	1	2	1	1	1	0	1	2
Ordainsarien Batzordea	0	3	1	1	0	0	0	1
Administrazio Kontseilua – Seguros Lagun Aro	1	1	1	1	4	0	4	0
Zuzendaritza Kontseilua –Seguros Lagun Aro	0	2	0	2	4	1	4	1

Gobernu korporatiboari buruzko informazio guztia LABORAL Kutxaren webgune korporatiboan dago: https://korporatiboa.laboralkutxa.com/txostenak/

Hona hemen LABORAL Kutxaren gainbegiratze-organoak:

Batzordea/Erakundea	Funtzioak	Eratze-urtea
Administrazio-organoaren egitura		
Kontseilu Errektorea	Goi-mailako gestioa, Zuzendaritza gainbegiratzea eta Entitatea ordezkatzea. Jasangarritasunari lotutako alderdiak aldian behin aztertzen ditu; inpaktuak, arriskuak eta aukera ekonomiko eta sozialak, berriz, etengabe. Ez du izaera betearazlerik.	1960
Errekurtso Batzordea	Kontseilu Errektorearen erabaki batzuen aurkako errekurtsoak ebazteko estatutuen araberako organo eskuduna. Batzar Nagusian aukeratzen da.	1993
Ikuskaritza Batzordea	Barne-ikuskaritzako zerbitzuak gainbegiratzea, finantza-informaziorako prozesua eta barne-kontrolerako sistemak ezagutzea eta jokabide-kodeak eta gobernu korporatiboaren arauak betetzen diren gainbegiratzea.	2004
Izendapenen Batzordea	Kontseilu Errektorerako hautagaiak identifikatzea eta kideen egokitasuna eta ezagutzen, gaitasunaren, aniztasunaren eta esperientzien oreka ebaluatzea. Ordezkaritzarik txikiena duen sexuarentzat ordezkaritza-helburu bat du ezarrita.	2012
Arrisku Batzordea	Kontseilu Errektorea aholkatzea, arrisku garrantzitsuen gestioan eta gainbegiratze-jardunean eta arriskuarekiko joera globala Entitatearen estrategiari egokitzen zaiola zaintzen.	2015
Ordainsarien Batzordea	Kontseilu Errektoreari ordainsari-politika orokorra proposatzea, ordainsari-politikaren ebaluazio independentea ziurtatzea eta identifikaturiko kolektiboan dauden zuzendarien ordainsari-politikaren berri ematea.	2016
Gainbegiratze- eta aholkatze-organoak		
Kontseilu Soziala	Lan-erregimenaz arduratzea eta Kontseilu Errektoreari eta Zuzendaritza Nagusiari aholku ematea.	1960
Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua	Bezeroen kontsultak, kexak eta erreklamazioak gestionatzea.	1994
Segurtasun eta Osasun Batzordea	Lan-arriskuen prebentzioari buruzko organo aholku-emailea.	1996

Hizkuntza Batzordea	Hizkuntza-normalizazioa bultzatzeko batzordea.	2000
Ingurumen Batzordea	Ingurumen Sistema gestionatzea.	2001
Kapitalak Zuritzeari aurrea hartzeko Batzordea	Kapitalak zuritzeari aurrea hartzeko prozedura kontrolatu eta ezagutaraztea.	2003
Arriskuaren Kontrol Globala eta APBa	Likidezia-arriskua, interes-tasaren arriskua, kreditu-arriskua, merkatu-arriskua eta eragiketa-arriskua kontrolatzea. Aktibo eta Pasiboen Batzordea da APBa.	2008
Berdintasun Batzordea	Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatu eta bermatzea, eta indarrean dagoen Berdintasun Planaren jarraipena egitea.	2009
Etika Batzordea	Jarduera zuzentzen duten printzipio eta balioak (batik bat *Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kode*an jasota daudenak) ezartzen direla zaintzea.	2015
Produktu Batzordea	MiFID araua ezarriz, bezeroari eskaintzen zaizkion produktu guztien inguruko arriskuak ebaluatu eta onartzea.	2015
Segurtasun Osoko Batzordea	Entitatean segurtasun osoa (fisikoa nahiz logikoa) ziurtatzeko estrategia bermatzea.	2015
Proiektu Batzordea	Departamentu arteko proiektu lehenetsiak ordenatu eta lehenestea, arrakasta lortzen dutela bermatzeko.	2017
Datuen Babeserako Batzordea	Datuak babesteko politikak eta prozedurak gainbegiratzea eta bultzatzea.	2019
Datuaren Batzordea	Entitateko datuaren estrategia finkatzea, CDO lanak egitea eta datuak analizatzen erabili beharreko lerro estrategikoak finkatzea.	2020
Berrikuntza Batzordea	Berrikuntzako ildo estrategikoak zehazten ditu eta haien bilakaeraren jarraipena egiten du.	2021
Eragiketa Arriskuaren Batzordea	Eragiketa-arriskua murrizten laguntzea, Entitateak eragiketa-arriskua duten gertakarien aurrean duen erresilientzia hobetzeko ekimenak bultzatuz.	2022
Jasangarritasun Batzordea	Martxan dauden ekintzen jarraipena egitea, eta behar diren neurriak hartzea, estrategian finantza jasangarriei dagokienez zehaztutako posizionamendura egokitu dadin Entitatea.	2022

Entitatearen eta Kontseilu Errektoreko kideen arteko interes-gatazkak saihesteko, Estatutu Sozialetan eta Balore Merkatuko Jokabideen Barne Araudian ezarritako ezgaitasunen eta bateraezintasunen erregimenaz gain, gatazka horiek sor ditzaketen erabakiak hartzeko bozketa-sistemari buruzko araudi espezifikoa dago Kontseilu Errektorean.

Prozedura horiek hau hartzen dute barne:

- Kontseilu Errektoreko kideen ezintasunak eta bateraezintasunak.
- Balore-merkatuko jokabideen araudia.
- Kontseilu Errektorearen araudiaren erregulazioa, interes-gatazkak saihesteko.

Etika Batzordearen eginkizuna da LABORAL Kutxaren jarduera guztietan portaera etikoa sustatzea. Kontseilu Errektorearen mendeko organo autonomoa da, *Salaketak Gestionatzeko Sistemaren* kanal moduan eratu dena. Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodearen ez-betetzeak aztertzen ditu, eta, zigorren alorrean, diziplina-espedienteak gestionatzen ditu. Urtean behin, Kontseilu Errektoreari Prebentzio Penalaren Txostena ematen dio, dagokion ekitaldiko *Ebaluazio Txostena* barne duena. Batzordea 5 pertsonak osatzen dute; une honetan, 3 gizonezko eta 2 emakumezko dira.

Urtean behin, Izendapenen Batzordeak etengabeko ebaluazioa egiten dio Kontseilu Errektoreko kide bakoitzaren egokitasunari (ohoreari, ezagutzei, esperientziari eta gobernantza onerako jarrera onari) eta Talde osoaren ezagutzen, gaitasunaren, aniztasunaren eta esperientziaren orekari. Horretaz gain, Batzorde horrek berorrek Kontseilu Errektorearen egitura, tamaina, osaera eta jarduera ebaluatzeko txostena ere egiten du, urtean behin.

Arrisku Batzordeari dagokionez, Entitateak, bere estrategia eta finantza-egoeraren osasun-maila kontuan hartuta, arriskuarekiko tolerantzia-mailak berrikusten ditu urtero, Arriskuarekiko Grinaren Esparrua esaten zaion horretan. Tolerantzia-maila horiek kapitala, likidezia eta errentagarritasuna hartzen dituzte aintzat. Jarraipena egiteko, berriz, banku-arautzaileari jakinarazten zaion adierazle-multzo bat erabiltzen da, eta, adierazle horietan, ESG arriskuaren adierazleak ere sartzen dira. 2021. urtearen amaieraz geroztik, batzorde horren eginkizunen artean dago, berariaz, jasangarritasunaren eta klima-aldaketaren arriskuak gainbegiratzea. Halaber, Kontseilu Errektoreak urtero onartzen duen *Kreditu-arriskuaren politikari buruzko eskuliburuak* arriskuari lotutako politikak, prozedurak eta irizpideak jasotzen ditu.

Jasangarritasunaren eta klima-aldaketaren arriskuei zein haien integrazioari eta azterketari buruzko alderdi espezifikoak Arrisku Batzordearen erantzukizunen barruan daude. Jasangarritasunaren arloko arriskuak jarduketa-eremu berria dira, eta, gainera, zenbait ezaugarri bereizgarri dituzte; hori dela eta, oso zaila da halakoak baloratzea. Taldearen asmoa da haiei buruzko ezagutza pixkanaka-pixkanaka hobetzea, eta behar bezala txertatzea.

Arriskuaren kudeaketari dagokionez, oinarrizko arriskuen deskribapen zehatz bat kontsulta daiteke urteko ***Zuhurtziazko Garrantziko Informazioa***n. Arriskurik garrantzitsuenek zer bilakaera duten eta jardueran zer eragin duten zehazten da bertan; hona hemen arrisku horiek: krediturena, merkatuarena, operatiboa, interes-tasarena eta ESG arriskuena. Arrisku-profila eta aplikatutako gestio-mekanismoak ere jasotzen ditu.

2022an, Jasangarritasun Batzordea sortu zen. Batzorde hori arduratuko da Kontseilu Errektoreak zehaztutako estrategia eta gestio-planak gauzatzen direla bermatzeaz. Horretarako, martxan dauden ekintzen jarraipena egin eta behar diren neurriak hartuko ditu, estrategian finantza jasangarriei dagokienez zehaztutako posizionamendura egokitu dadin Entitatea. Zuzendaritza Kontseiluko eta Jasangarritasun Bulegoko kideak egongo dira batzorde horretan. Gainera, unean-unean jasangarritasunarekin zerikusia duten alderdien zuzeneko gestioan parte hartzen duten Entitateko pertsonek ere batzordean parte hartu ahal izango dute, eta horretarako gonbit egingo zaie.

Seguros Lagun Aroren Administrazio Kontseiluak «Funtsezko lanpostuak egokitzeko politika» berrikusi eta onartu zuen, 2022ko uztailean. Ildo horretan, Gaitasun eta Ohore Politika bat eta erakundearen gobernu-sistema osatzen dutenen Egokitasun Eskuliburua egin zituen. Politikaren berrikuspen integrala egin zuen sozietateak, baita aldaketa nabarmenak ere, eta urtean behin eguneratzen du.

Aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenaren 2015eko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen (LOSSEARen) 38. artikuluaren arabera, aseguru- eta berraseguru-entitateek eta aseguru-entitateen taldeetako entitate nagusiek bermatu egingo dute zuzendaritza eraginkorrean edozein tituluren bidez diharduten pertsona guztiek eta gobernu-sistemako funtzioetan dihardutenek une oro betetzen dituztela gaitasun- eta ohore-baldintzak.

Bestalde, honako hau arautzen dute Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 25eko 2009/138/EE Zuzentarauak, bizitza-aseguruari, aseguru- eta berraseguru-jardueran sartzeari eta aritzeari buruzkoak, 42. artikuluan (II. Kaudimen Zuzentaraua), eta zuzentarau hori osatzen duen Europako Batzordearen 2014ko urriaren 10eko Erregelamendu Eskuordetuak, 273. artikuluan: aseguru- eta berraseguru-entitateek politika dokumentatuak eta prozedura egokiak ezarri, aplikatu eta erabiliko dituzte, Entitateko zuzendariek eta Entitatean

funtsezko beste eginkizun batzuk betetzen dituztenek une oro gaitasun- eta ohore-eskakizunak betetzen dituztela bermatzeko.

Era berean, hau agintzen dute Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/97 (EB) Zuzentarauak, 2016ko urtarrilaren 20koak, aseguruen banaketari buruzkoak (IDD), eta 3/2020 Errege Lege Dekretuak, aseguruen banaketaren inguruko araudi berria jasotzen duenak eta aurreko Zuzentarauaren transposizioa egiten duenak: aseguruak banatzeko arduradunek beren eginbeharra ezagutu eta bete behar dute, eta gaitasun- eta ohore-printzipioen arabera jardungo dute beren funtzioak betetzean.

Hauei aplikatuko zaie aipatutako politika: zuzendaritza efektiboari (Administrazio Kontseiluko eta Zuzendaritza Nagusiko kideei) eta funtsezko eginkizunen titularrei (funtzio aktuariala, barne-ikuskaritzako funtzioa, arriskuak gestionatzeko funtzioa eta araudia betearazteko funtzioa dutenei, baita banaketa-zuzendari eta -arduradunei ere).

Bestalde, 2022ko martxoan, Seguros Lagun Aroren Kode Etikoa onartu zen. Seguros Lagun Aroren eta bere langile guztien portaera arautu behar duten printzipio eta jarraibide orokorrak zehazten ditu agiri horrek. Hau da, Seguros Lagun Aroren negozio eta jardueretan —berdin dio non gauzatzen diren— erabili beharreko portaera etikoaren oinarriak garatzen ditu. Agiri horretan, Seguros Lagun Aroren konpromiso hau jasotzen da: langileekin, bezeroekin, hornitzaileekin eta abarrekin dituen harremanetan balio jakin batzuen arabera jokatuko duela, portaera arduratsua eta indarrean dagoen legediarekiko errespetua bermatuz. Arau horrek eta jendaurrean ezagutarazitako beste araudi eta informazio batzuek —besteak beste, Kontseilariaren Estatutu Juridikoak, Araudia Betearazteko Politikak eta Zigorra Prebenitzeko Ereduak— agerian jartzen dute Seguros Lagun Arok erabateko interesa duela gobernu korporatibo onaren, gardentasunaren eta gizarte-erantzukizunaren araberako portaera etikoa, zintzoa eta zuzena izateko. Seguros Lagun Arok arriskuak gestionatzeko sistema integrala du. Entitatearen arriskuak etengabe identifikatu, neurtu, zaindu, kudeatu eta ezagutarazteko beharrezko informazio-estrategiak, -prozesuak eta -prozedurak hartzen ditu barne sistema horrek. Horrela, balizko inpaktu kaltegarriak minimizatzen ditu, eta ezin hobeto erabiltzen ditu eskura dauden baliabide ekonomiko-finantzarioak. Gainera, sistema osoak bat egiten du Administrazio Kontseiluak finkatutako arrisku-profilarekin.

Arriskuen gestio-sistemaren aplikazioa erraztearren, arriskuen funtzio independentea eratu du Seguros Lagun Arok. Horren zeregina da, besteak beste, Entitatearen arriskuen eta kaudimenaren barne-ebaluazioa gidatzea, hori funtsezko prozesua baita arriskuen gestio-sistemarentzat. Horrez gain, Administrazio Kontseiluak onartutako Arriskuen Gestio Politika dago indarrean, arriskuen gestio-sistemaren irismena eta helburuak zehazteko eta sistemaren xede diren arriskuak identifikatzeko. Seguros Lagun Arok aseguruen sektoreko jardunbiderik onenak hartzen ditu oinarri bere arriskuak sailkatzeko, araudiak finkatutako eskakizun eta gomendioekin bat.

Arriskuen Gestioko Arearen zeregin eta funtzio nagusiak eta sistemaren azken arduradunak zehazten ditu, besteak beste, Arriskuen Gestio Politikak. Seguros Lagun Aron, enpresaren antolamendu-egituran eta erabakiak hartzeko prozesuan integratuta dago arriskuen gestio-sistema, eta kontuan hartzen ditu enpresa zuzentzen duten eta gobernu-sistemaren funtzioak betetzen dituzten pertsonak. Hauek dira arriskuen gestio-sistemaren arduradunak, zereginen segregazio-printzipioa betez: Arriskuen Gestioko Unitatea, Produktuaren Zuzendaritza Teknikoa, Inbertsioen Zuzendaritza Teknikoa eta Berraseguruen Area. Barne Ikuskaritzaren Arearen ardura

da berrikuspen independentea egitea. Administrazio Kontseiluak eta Zuzendaritza Batzordeak osatzen duten goi-zuzendaritza da sistemaren azken arduraduna.

Entitateak hainbat funtzio ditu:

Arriskuen gestioko funtzioa

- ✓ Arriskuak neurtzeko eta ebaluatzeko erabili beharreko metodologiak eta adierazleak zehaztea, eta haiek ezartzen laguntzea.
- ✓ Area teknikoekin lankidetzan aritzea, arriskuak zein diren eta zer ezaugarri dituzten jakiteko, eta Entitatearen arrisku-matrizea egitea.
- ✓ Etorkizuneko agertokiek eta estres-egoerek Entitatearen mailan eta kaudimenean duten eraginari buruzko ebaluazioak egitea aldizka.
- ✓ Departamentu teknikoei harpidetza-arriskua neurtzeko eta ebaluatzeko metodologia eta ereduak aplikatzen laguntzea.
- ✓ Aktiboen eta pasiboen arteko egiturazko korrespondentziarik eza ebaluatzea.
- ✓ Arriskua kuantifikatzeko erabilitako informazioa egokia ote den eta osorik ote dagoen ebaluatzea.
- ✓ Produktu berriak onartzeko prozesuetan aktiboki parte hartzea.
- ✓ Entitatearen arriskuen eta kaudimenaren barne-ebaluazioaren prozesua gidatzea, eta dagokion txostena egiteko ardura izatea.

Araudia betearazteko funtzioa

- ✓ Araudia ez betetzearen arriskua zehaztea eta ebaluatzea, eta arau-arriskuen mapa eguneratuta izatea.
- ✓ Produktu, zerbitzu eta merkatu berriei buruzko aholkularitza ematea, araudiaren ikuspuntutik.
- ✓ Araudia Betearazteko Plana egiten, koordinatzen eta gauzatzen dela egiaztatzea.
- ✓ Langileei araudia betearazteari buruzko etengabeko prestakuntza ematea.

Barne-ikuskaritzako funtzioa Barne-kontroleko sistema eta gobernu-sistemako elementuak egokiak eta eraginkorrak direla egiaztatzea.

Funtzio aktuariala

- ✓ Hornidura teknikoen kalkulua koordinatzea eta berrikustea.
- ✓ Entitate bakoitzaren harpidetza-estrategiari buruzko iritzia ematea.
- ✓ Berraseguru-akordioei eta atxikipen-estrategiari buruzko iritzia ematea.
- ✓ Arriskuen gestio-sistema eraginkortasunez aplikatzen laguntzea.

Aurreko funtzio bakoitzerako, Entitateko zuzendaritza- eta gobernu-organoak onartutako idatzizko politikak daude. Politika horietan, eginkizunak eta erantzukizunak zehazten dira, besteak beste, behar bezala banatuta eta funtzioak argi eta garbi bereizita, kaudimenari buruzko egungo II. araudian independentziaren inguruan ezarritakoaren arabera.

1.9. Gobernu-organoen garapena

2023an, LABORAL Kutxako gobernu-organoko (Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritza Kontseiluko) kideek zenbait prestakuntza-programatan hartu dute parte.

- Zuzendaritza Kontseilua:
    - Zibersegurtasunari buruzko sentsibilizazio-jardunaldiak. Zibersegurtasunari eta finantza-sektorean indarrean den araudiari buruz zer jakin behar duten azaldu zen.

    - Kapitalak zuritzeari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzearen inguruko joerak eta berritasunak.
- Kontseilu Errektorea:
    - Zibersegurtasunari buruzko sentsibilizazio-jardunaldiak. Zibersegurtasunari eta finantza-sektorean indarrean den araudiari buruz zer jakin behar duten azaldu zen.
    - Finantza-erakundeen gobernuari eta gestioari buruzko berariazko prestakuntza, Kontseiluan sartzen diren kide berrientzat.

1.10. Gobernu-organoen ordainketa

Taula honetako datuak Zuzendaritza Kontseiluko kideek eta, adierazten diren ekitaldietan, Kontseilu Errektoreko presidenteak eta lan-bazkide diren kideek (14 lagun 2022an eta 2023an) jaso dituzten ordainsariei buruzkoak dira.

LK kontzeptua (mila eurokotan)	2022	2023
Egindako lanaren ordainsari osoa	1.831	2.062
Kapitalizatutako itzulkin kooperatiboak + ekarpenaren interesak	226	333
Guztira	2.057	2.395
Pertsona bakoitzeko batez besteko ordainsaria	146,9	171,1
Kontseilu Errektoreko dietak (13 lagun)	67	93

Lagun Aro kontzeptua (mila eurokotan)	2022	2023
Egindako lanaren ordainsari osoa	571	617
Kapitalizatutako itzulkin kooperatiboak + ekarpenaren interesak	6,8	8,16
Guztira	577,8	625,16
Pertsona bakoitzeko batez besteko ordainsaria *	115,56	104,19

* 5 gizon eta 2 emakume 2021ean eta 2022an.

1.11. Ustelkeria eta eroskeria

LABORAL Kutxak *Zigor Kodea Betetzeari buruzko Politika* du, bai eta hainbat jokabide-kode eta -erregelamendu ere, besteak beste:

- Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodea.
- Jardunbide egokien eta sekretu profesionalaren gida.
- Opari eta Mesede Politika.
- Balore-merkatuko Jokabideen Barne Araudia.

Antolamenduari begira, *Etika Batzordea*, *Barne Ikuskaritzako* Departamentua eta *Araudia Betearazteko* Departamentua ere sortu ditu, irregulartasunak saihestu eta arau eta prozedurok betetzen diren jagoteko.

Jokabide-araudiak eta -kodeak

LABORAL Kutxak jokabide-arau batzuetan funtsatuta arautzen du pertsonen jarduera. Jokabide-arau edo -jarraibide horiek Balore-merkaturako Jokabideen Barne Araudian daude jasota, eta Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritza Kontseiluko kideei nahiz jarduera-eremu horretan inplikaturikoei ezartzen zaie.

Etikaren eta osotasunaren alorrean, Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodean eta Jardunbide egokien eta sekretu profesionalaren gidan daude jasota Entitatearen arauak. Bi dokumentuok intranetean argitaratuta daude, eta, hurrenez hurren, Araudia Betearazteko

Departamentuaren eta Barne Ikuskaritzako Departamentuaren ardura da horiek berrikusi eta eguneratzea.

Kode Etikoaren garapen gisa, Entitatean egon litezkeen jokabide kriminalei aurrea hartzeko eta erantzuteko esparruan, Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburuan eta Zigor Kodea Betetzeari buruzko Politikan jasota daude barne-arauak.

Salaketen Kanala dago, Kode Etikoari eta Zigor Kodea Betetzeari buruzko Politikari lotutako garrantzi handiko irregulartasunak jakinarazteko. Gainera, Etika Batzordea ere badago, zigor-arloko prebentzio-organo gisa, Entitatean jokabide etikoa sustatzeko; batzordeak gai horren inguruko kontsultak ebatzi eta Salaketen Kanalean jasotako salaketak bideratzen ditu.

Aztertutako negozio-unitateak

Ondoren, ustelkeriaren inguruko arriskuen harira aztertu diren LABORAL Kutxako negozio-unitateak aurkeztuko ditugu:

	2022		2023	
	Egind.	Helb.	Egind.	Helb.
Aztertutako bulego guztiak	74	65	49	47
Aztertutako bulegoen %-a	% 26	% 23	% 18	% 16

Esan beharra dago, hala ere, urrutiko ikuskaritza-analisiak Entitatearen sukurtsalen % 100ean duela eragina.

Ustelkeriari lotutako gertaerei erantzuteko hartutako neurriei dagokienez, sozietate-harremana deuseztatzeko diziplina-espediente bat bideratu da 2023an, konfiantzaz abusatzea dela eta.

2023an, LABORAL Kutxa Taldearen Barneko Informazio Sistemari buruzko politika korporatibo bat onartu du LABORAL Kutxak, bai eta haren funtzionamendua arautzen duen prozedura bat ere. Politika horren helburua da Salaketen Kanala arautzeko esparru homogeneo bat ezartzea, LABORAL Kutxa Taldeko erakundeek jaso dezaten aplikagarri duten barne- edo kanpo-araudiaren ez-betetzeei buruzko informazioa. Beraz, politika horrek osatu egiten ditu LABORAL Kutxa Taldeko erakundeek delituak prebenitzeko eta horiei erantzuteko erabiltzen duten ereduaren oinarriak.

2023an, KYC fitxa berria eta horri lotutako arreta egokiko neurriak ezartzeko plana martxan jarri da. Prozesu horrek 2024an jarraituko du. Bestalde, aktibo dauden banku-korrespontsalien harremanei lotutako informazioa eta dokumentazioa eguneratzeko lana amaitu egin da. Halaber, alerta-sistema berria abiarazi da, eta hainbat doikuntza egin dira KZTFAren eskuliburuan, hala nola:

- KZTFAren arloko Politika Korporatiboa eguneratzea.
- Eskuliburuan dauden hainbat prozedura berrikustea eta eguneratzea, hala nola onarpen-politika, herrialdeen arriskua sailkatzeko metodologia, komunikazio sistematikoa (DMO) eta S1 ordainbideen mugimenduen deklarazioa.
- Monitorizazio-sisteman bi alerta berri sartzea.
- Sepblac-eko ordezkariaren eta Araudia Betearazteko Departamentuko zuzendaritzaren funtzioak arautzea, EBAren jarraibideetara egokitzeko (EBA/GL/2022/05, 2022ko ekainaren 14koa).

- Prozedura berriak arautzea; esate baterako, FTFari buruzko informazioa deklaratzeko edo errekerimenduei erantzuteko prozedura bat, eta Barne Zerrenda Beltza erregistratzeko eta gestionatzeko prozedura bat.

Kapitalak Zuritzeari Aurrea Hartzeko Unitateak kapitalak zuritzeko eragiketa susmagarrien 76 komunikazio bidali dizkio Kapital Zuritzearen eta Arau-hauste Monetarioen Prebentzio Batzordearen Zerbitzu Exekutiboari.

Seguros Lagun Aron, aseguramendurako eta kontsultarako jarduera independente eta objektibo gisa eratu da Barne Ikuskaritza, erakundearen eragiketei balioa eta hobekuntza eransteko. Barne Ikuskaritzaren funtzioaren helburua da erakundeari bere helburuak betetzen laguntzea. Ikuspegi sistemiko eta diziplinatua ematen du, arriskuen gestioko, kontroleko eta gobernamenduko prozesuen eraginkortasuna ebaluatu eta hobetzeko. Ikuskaritza Batzordeak onartutako arriskuen analisia oinarri duen Urteko Ikuskaritza Planaren arabera garatzen du bere jarduna. Urteko plangintzak auditoretza jarraituak eta aldi jakin batean egindako auditoretza monografikoak konbinatzen ditu, eta estaldura ematen die Seguros Lagun Aroren harpidetza-arriskuei, araudiak eskatutako gobernantza-sistemaren ezarpenari, kapitalak zuritzeari aurrea hartzeko sistemaren funtzionamenduari eta, oro har, Entitateak dituen arrisku nagusiei.

Lagun Arori dagokionez:

> **AUTOERREGULAZIORAKO SEKTOREKO GIDEI ATXIKI GATZAIZKIE GEURE BORONDATEZ.**
> Enpresa-bikaintasunarekin eta korporazioko jardunbiderik onenekin konprometituta gaudenez, UNESPAk bultzatutako gida hauei lotu gatzaizkie, erakunde horren gomendioei jarraikiz:
> - gobernu korporatiboaren jardunbide egokien gida
> - barne-kontroleko jardunbide egokien gida
> - merkaturatzeko jardunbide egokien gida
> - erreklamazioak ebazteko jardunbide egokien gida
>
> Era berean, ADECOSEk bultzatzen duen Ezbeharrak Kudeatzeko Jardunbide Egokien Kodeari ere atxiki zaio konpainia.

1.12. Kapitalak zuritzea

LABORAL Kutxako gestio-politiketan, *kapitalak zuritzea eta terrorismoaren finantzaketa* dira iruzurraren eta sekretuak ezagutaraztearen esparruetako arriskurik handienak. Ildo horretan, konpromisoa hartu du indarrean dagoen araudiaren eta nazioarteko estandarren arabera beharrezkoak diren organoak eta prozedurak ezartzeko. Helburu horrekin:

- Entitatearen erakunde-egituran, Barneko Kontrol Organoa (BKOa) sortu da Taldean. Funtzio espezifikoak izango ditu prebentzioaren arloan.
- Gainera, arau eta prozedura zehatzak finkatu dira eta *Kapitalak zuritzeari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzeko eskuliburua* izeneko txostenean jaso (2023-01-04an onartu zen azken bertsioa).

Kapitalak zuritzeari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzeko politika korporatiboak LABORAL Kutxa Talde osoan du eragina, sozietate filialak barne.

Hauek dira nahitaez bete beharreko arau eta prozedura horien xedeak:

- Une bakoitzean indarrean dagoen araudia eta nazioko nahiz nazioarteko erakunde eta agintariek emandako gomendioak zorroztasun osoz betetzea.
- Jokabide-arau eta kontrol- eta komunikazio-sistema egokiak ezartzea, delituzko jatorria duten funtsak LABORAL Kutxa Taldearen bitartez bidera ez daitezen eta zenbait pertsonari sarbidea eragozteko.
- Bezeroak onartzeari buruzko politikak finkatzea.
- Laneko bazkideek eta gainerako langileek bezeroa ezagutzeko politikaren alorreko prozedurak betetzen dituztela bermatzea.

Prebentzioa da, batez ere, politika eta prozedura horien burubidea. Gainera, kanpoko aditu batek urtero ebaluatzen ditu barne-kontroleko prozedurak, kapitalak zuritzeko eta terrorismoa finantzatzeko arrisku horiekiko esposizioa murrizteko prozesuetan etengabeko hobekuntzaren logika aplikatzeko.

1.13. Araudia betearaztea

Araudia Betearazteko Departamentuak merkatu-abusua izateko susmagarri diren eragiketen detekzioa sartu du bere gestio-eremuen barruan. LABORAL Kutxak alerta-sistema bat du, zeinak 3.597 alarma erregistratu baititu 2023an zehar. CNMVri ez zaio jakinarazpenik egin balizko merkatu-abusuko eragiketa susmagarriengatik.

2. GESTIO ARDURATSUA

2.1. Gestio-ikuspegia

Oinarrizko jardunbide hauen arabera jorratzen dugu gure interes-talde nagusiekiko harremana:

Banku-jarduera funtsean bezeroei zerbitzua eman eta haiekin harremanak izateko jarduera dela kontuan hartuta, gure materialtasun-matrizean garrantzirik handieneko alderditzat jo dira *bezeroen gestio arduratsua* –batez ere aurrezki-produktu konplexuen salmentari dagokionez–, *zerbitzuaren kalitatearen bikaintasuna* eta *bezeroekiko harremanak*. Alderdi horietan guztietan, gure lehiakideen aldean abantaila iraunkorrak eskaintzea da LABORAL Kutxaren jarrera.

Zehazki, Entitate lehiakideekin egindako konparaziotik ateratako datuek, oro har, gure aldeko diferentzialak erakusten dituzte, batez ere harremanetako alderdi garrantzitsuetan: informazioaren *gardentasunean* eta *argitasunean*, bezeroengan sortzen dugun *konfiantzan* eta, oro har, gure Entitateak gizartearekin hartzen duen *konpromisoan*.

3.1. Bezeroekiko harremanak puntuan, alderdi horietan egindako esku-hartzeak zehazten dira, barne harturik egoera arazotsuei eta gizarte-eragin handikoei irtenbidea emateko egiten dugun gardentasun-ahalegina. Egoera horietako batzuk dira, adibidez, bezeroak etxebizitza erosteko *gehiegi zorpetzea* eta aurkeztu diren demandak.

Pertsonen ikuspegitik, LABORAL Kutxa kreditu-kooperatiba denez, langileak enpresako bazkideak eta jabeak dira, eta erabateko eskubideak eta betebeharrak dituzte, euren lanbide-eginkizunak betetzeari eta enpresaren gestioan zein emaitzetan parte hartzeko eskubideari dagokienez. Beste enpresa batzuekin dugun ezberdintasun hori enpresaren barruko harremanetan ere islatzen da; izan ere, langileek 3 arloetan hartzen dute parte, hala nola jabetzan, emaitzetan eta gestio-metodoetan, gestio demokratikoa eta arduratsua egitea baita gure helburua. Hala, erabakirik funtsezkoenak Batzar Nagusian onesten ditugu, eta bazkide guzti-guztiek hartzen dute parte bertan, mozkinak lortzen eta horiek gure gizartean inbertitzen lagunduko digun gestio eraginkorra eta arduratsua bermatzearren.

Hezkuntza Kooperatiboko prestakuntza-programek, bazkideen identitate kooperatiboa indartzeaz gain, Entitatean eta langile-taldean integratzen eta inplikatzen laguntzen diete bazkide berriei.

3.2. Plantillarekiko harremanak puntuan, ekimen horiek eta beste batzuk garatu dira sakonago.

Kreditu-kooperatibaren izaera juridikoak eraginda gizartearekin dugun konpromisoa da LABORAL Kutxaren beste bereizgarri bat. Izan ere, legez, gizarteari egindako ekarpen zuzenetara bideratu behar dute kreditu-kooperatibek urteko mozkin banagarrien % 10. Gure Entitatearen kasuan, ehuneko hori askoz handiagoa da, % 25eraino heltzen baita.

LABORAL Kutxa Euskal Herrian sortu zen, gizartea zerbitzatzeko konpromiso handia duen enpresa-talde baten barruan. Taldearen misioa da partaidetzazko elkarlan kooperatiboa sortzea, sozietateetako zuzeneko partaideentzat nahiz gizartearentzat aberastasuna eta ongizatea lortzeko.

LABORAL Kutxak, bere izaera juridikoagatik eta bokazio kooperatiboagatik, kooperatiben mundua sustatzera bideratzen du ekarpen solidarioen zati handi bat. Bestalde, bulegoak dituen lurraldeetako ekimen ugaritara ere zuzentzen ditu atal berezi batzuk, bereziki jarduera zehatz batzuetara, hala nola *autoenplegua eta ekintzailetza* (Gaztenpresa izeneko fundazioaren bidez) sustatzera eta *euskara* babestera eta euskal kultura bultzatzera.

Mekanismo horiek 3.3. Gizartearekiko harremanak puntuan azaldu dira.

Ingurumenarekiko harremanak hobetzeko, ISO 14001 Arauarekin bat, 2001az geroztik *Ingurumena Gestionatzeko Sistema* erabiltzen du LABORAL Kutxak, Egoitza Nagusiko 3 eraikinetako jarduera guztietan. LABORAL Kutxak Zerbitzu Zentraletan gauzatzen dituen ingurumenaren alorreko jarduketarik gehienak gainerako lantokietara zabaltzen ditu, ziurtagiridun sistemaren barnean egon ez arren. Ziurtagiri hori 2022an berritu zen.

Ingurumena Gestionatzeko Sistema Ingurumen Batzordeak kudeatzen du, eta Aholkularitza Juridikoko, Barne Ikuskaritzako, Arriskuetako, Higiezinetako, eta Plangintzako eta Gestio Kontroleko kideek osatzen dute; azken horretako ordezkariak egiten ditu koordinatzaile-lanak. *Rioko Adierazpenaren* zuhurtziazko printzipioa ezarriz, jarduerak izan litzakeen inpaktuak hartzen dira aintzat, ingurumenari kalterik ez egiteko.

2019an, Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak sortu eta sinatu zituzten bankuetako bat izan zen LABORAL Kutxa. Printzipio horiek jasangarritasunaren alor guztiak ukitzen badituzte ere, klima-krisiaren larritasun-egoera dela eta, gure jarduerak (krediduenak eta inbertsioenak) ingurumenean duen inpaktuari erreparatzen diote.

Mekanismo horiek 3.4. Ingurumenarekiko harremanak puntuan azaldu dira.

Hornitzaileen gestioaren ikuspegitik, gogorarazi beharrekoa da *hornikuntza-katearen* gestio egokiaren garrantzia, jarduera arduratsuaren helburuak betetzekotan. Kontuan hartuta gure finantza-jardueraren ezaugarriak eta oso lurralde-eremu zehatzean dugula presentzia, enpresa horiekiko gestioan ez dugu arrisku nabarmenik. Halere, aurrerago ikusiko dugun moduan, LABORAL Kutxak hornitzaileen inguruko hainbat ekimen ditu martxan.

Hornitzaileen artean aipamen berezia merezi dute Lagun Aroko bitartekariek, aseguruen jardueran interes-talde nabarmenaren mailara iritsi dira eta. Taldean, ezaugarri bereziko hornitzailetzat jotzen dira.

Mekanismo horiek 3.5. Enpresa hornitzaileekiko harremanak puntuan azaldu dira.

2.2. Konpromisoak eta lorpenak

Jarraian, LABORAL Kutxak EGEaren aurreko txostenetan bere egindako konpromisoak betez 2023an gauzatu dituen jarduera nagusiak azalduko ditugu, bai eta 2024rako helburuak ere. Jarduerok Entitateak zehaztutako interes-taldeetan —ingurumena (I) barne hartuta— sailkatu dira; hona hemen taldeok: Pertsonak–Plantilla (P), Bezeroak (B), Gizartea (G) eta Enpresa hornitzaileak (H).

Jasangarritasunaren inguruko jarduerak	Ekintzaren/ helburuaren egoera	Ezarritako gobernu-mekanismoak eta egiteko epea	Materialtasuna eta ukitutako interes-taldeak	Zein GJHtan eragiten den
2023ko funtsezko proiektu eta ekintzak, eta aurreko urteetan egiteko gelditutakoak				
Kaudimena eta likidezia indartzea	**Aribidean**	Lehentasun estrategikoa	Ertain-handia P eta B	
Zirbersegurtasuna etengabe hobetzea	**Aribidean**	Segurtasuna	Handia B	9. eta 16. helburuak
Digitalizazioa aprobetxatzea, paper-kontsumoa murrizteko eta bezeroekiko harreman multikanala sustatzeko	**Zati bat eginda**	Ardatz estrategikoa: digitalizazioa	Ertain-handia G eta I	13. eta 15. helburuak
Bezeroekiko harremanen gestioan bikaintasun-posizioei eustea	**Aribidean**	Kalitate integralerako prozesua	Ertain-handia B	8. helburua
Enpresak sortzeari eta finkatzeari laguntzea, MONDRAGONen bidez	**Aribidean**	Funtsak, KFSaren eta HSFaren bidez 2023	Ertaina G eta B	5., 8., 9., 10. eta 16. helburuak
Zerbitzu Zentraletako LK3 eraikinaren birgaitze integrala	**Abian, 2024an bukatuko da**	Ibilgetua	Ertaina I	9. helburua
Datu-baseak sortzea eta klima-arriskuak txertatzea	**Abian**	Arriskuak	Ertaina B eta I	13. eta 14. helburuak
Arrisku psikosozialak ebaluatzeko metodologia berria ezartzea	**Eginda**	Segurtasun eta Osasun Batzordea	Ertaina P	3. helburua
Produktu jasangarrien eskaintza garatzea	**Garatze-bidean**	Negozio Garapenaren Area	Ertaina B eta I	13. eta 15. helburuak
Bulego jasangarriaren eredua	**Bideratzeko**	Ibilgetua	Ertaina G, B eta I	9. helburua
Inbertsio jasangarriko politika	**Eginda**	GJHak	Handia G eta I	Helburuak: denak
Inbertsio-funts bat diseinatzea (9. artikulua)	**Atzeratuta**	Gestorea NGA	Ertaina B, I eta G	Helburuak: denak
Irisgarritasun integraleko proiektua	**Abian**	GJHak	Ertaina B eta G	10. eta 11. helburuak
Pertsona guztientzako ordainketa-helburua	**Eginda**	Pertsonak	Ertaina P eta I	Helburuak: denak
Paper-kontsumoa % 25 murriztea	**Ez da lortu**	GJHak	Ertaina P, B eta I	6., 13. eta 15. helburuak
ESG proiektua hornitzaileekin	**Eginda**	GJHak Hirugarrenen Gestioa	Ertaina H	8. eta 17. helburuak
Jasangarritasunaren aginte-taula	**Eginda**	Jasangarritasun Batzordea	Ertaina, guztiak	Helburuak: denak
Jasangarritasunaren inguruko jarduerak 2024rako oinarrizko proiektu eta ekintzak				
Materialtasun bikoitzeko azterketa berria egitea, CSRD metodologiaren arabera	Inpaktu nagusiak zehaztea	GJHak	Handia, guztiak	8. eta 9. helburuak
Informazio ez-finantzarioa CSRDra migratzea	Gardentasuna jakinarazpenetan	GJHak	Handia, guztiak	12. helburua
Lehenengo TNFD txostena	Biodibertsitate-arriskuak	GJHak	Ertaina, I eta G	13. eta 15. helburuak
Ingurumen-arriskuak txertatzea hipoteken pricingean	Produktu jasangarria	NGA	Ertaina, B eta I	12. helburua
Gaztenpresa bultzatzea	Irismena zabaltzea	ENG	Ertaina, B eta G	1., 5., 8., 10. eta 12. helburuak
Mugikortasun jasangarrirako aplikazioa plazaratzea	Mugikortasunaren inpaktua murriztea	GJHak	Txikia, P eta I	3. eta 11. helburuak
LK3 eta Lagun Aro biomasa-instalazioarekin lotzea	Energia berriztagarria	IZO	Txikia, I	7. helburua
Eremua berrurbanizatzea	Irisgarritasuna eta jasangarritasuna	IZO	Txikia P eta I	11. helburua

2.3. Materialtasun-analisia

2014az geroztik materialtasun-analisia egiten da, GRI estandarren eskakizunak betetzeko alderdi materialak zehazteko eta lehenetsi beharreko jasangarritasun-inpaktuekin lotutako alderdiak ezagutzeko. Materialtasun-matrizeari esker interes-talde nagusien informazio-beharrizanak identifikatu dira eta haien eskaerak lehenetsi.

Urtez urte, bildutako informazioa zabaldu da eta hobetu egin da Entitatearekin harremana duten interes-taldeen beharrizanen eta itxaropenen interpretazioa. 2022an, berrikusi egin ziren metodologia eta galde-sorta, merkatuaren joerak kontuan hartuta, emaitzak lehiakideenekin alderatuta eta interes-taldeen eskaeretara egokituta.

2022an aldaketa garrantzitsuak egin ziren materialtasun-analisian. Kontuan hartu den lehen faktoreak 2021eko GRI estandarrak eguneratzea eta Europako Batzordearen CSRD Zuzentaraua izan dira. Arau horietan kontzeptu tradizionalaren eboluzioa proposatzen da, jasangarritasunaren hiru eremuak (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) aintzat hartuta inpaktu nagusiak identifikatu eta lehenesteko, eta hiru eremuok txostenean eta estrategian txertatzeko. Hori dela eta, materialtasun bikoitzaren kontzeptua erantsi da:

- Inpaktukoa: enpresak ingurumenean, gizartean eta ekonomian duen edo izan dezakeen eragin negatiboa edo positiboa, baita garapen jasangarrirako ekarpena ere.
- Finantzarioa: inguruneak enpresaren balio ekonomikoan duen eragin negatiboa edo positiboa.

Materialtasun-analisiaren prozesuan zenbait iturri erabili dira gai materialak zehazteko:

- ✓ **Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak** sinatuta hartu ditugun betebeharretako bat hauxe da: jardueraren inpaktu nagusien —positibo zein negatiboen— analisia egitea. Analisi hori egiteko, UNEP-FI ekimenak diseinatutako tresna bat erabili dugu, zeinak Entitatearen balantzean eta ezaugarrietan sakontzen baitu. Inpaktu-analisi horren helburua da zehaztea zer eremutan duen eragina gure jarduerak. Partikularren eta enpresen negozioak aztertu ondoren, Entitateak inpaktu hauek dituela ondorioztatu da:
    - o Entitateak inpaktu positiboa du bai enpleguaren arloan eta bai ekonomia inklusibo eta osasungarrien arloan.
    - o Inpaktu negatiboa klimari dagokionez, batez ere hipoteka-finantzaketako zorroaren energia-kalifikazio eskasagatik.
- ✓ Txosten bat egin dugu Task Force on Climate-Related Financial Disclosures (**TCFD**) delakoaren jarraibideak betez. Helburuak: klimak eragindako arriskuek enpresetan duten inpaktua hobeto ulertzea, eta ekonomian klima-aldaketaren ondoriozko finantza-shockaren arriskua murriztea. Txostenak, webgunean eskuragarri dagoenak, klima-aldaketari eta ekonomiaren deskarbonizazioari lotutako arriskuak aztertzen ditu, eta inpaktuak identifikatu eta kuantifikatu egiten ditu.
- ✓ Aurreko ildoan sakonduz, **ESG arriskuek** hipoteka- eta merkataritza-finantzaketaren zorroan dituzten **inpaktuen analisia** landu dugu 2023an. Bero-mapa baten bidez, jarduera-sektorearen araberako analisia egin dugu, eta dagokion arrisku-maila esleitu diogu sektore bakoitzari, LABORAL Kutxak horren aurrean duen esposizioa kontuan hartuz. Analisiak ingurumen-arriskuak aztertu ditu nagusiki (arrisku fisikoak eta trantsiziokoak), baina arrisku sozialak eta gobernantzakoak ere hartu ditu barne.

Iturri horien bidez, alderdi ezberdinak eta gai material nagusiak zehaztu ahal izan ditugu.

Gai materialak	Lotutako inpaktu nagusiak
Gure plantillaren gestioa: kontziliazioa, soldata-mailak eta -tarteak, enpresa osasungarria eta abar.	Balio kooperatiboak sendotzea.
Zerbitzu-kalitatearen bikaintasuna: adeitasuna, zerbitzu azkarra, eragiketak erraz egin ahal izatea, hutsegiteak ahalik eta gehien txikitzea…	Bezeroak gogobetetzea.
Datuen eta eragiketen pribatutasuna eta segurtasuna babestea.	Informazioa galtzeko arriskua eta iruzur-arriskua.
Kontrol-neurriak: kode etikoa; ustelkeriari eta kapitalak zuritzeari aurre egitea; armen, jokoaren eta pornografiaren finantzaketa kontrolatzea eta abar.	Gobernantza-arriskuak eta arrisku sozialak.
Hornitzaileen gestio arduratsua: tokiko erosketak lehenestea eta haien jokabidea kontrolatzea (lan-baldintzak, lan-arriskuak, ingurumen-gestioa…).	Ekonomia osasungarria eta inklusiboa. Tokiko hornitzaileak.
Bezeroekiko gestio arduratsua: azalpen argi eta gardenak, komisio orekatuak, gehiegizko zorpetzea saihestea eta ordaindu gabeko zorrak gestionatzeko malgutasuna.	Ekonomia osasungarria eta inklusiboa. Bankuko jardunbide okerren arriskua.
Laguntzea gizarte-ekonomiari eta MONDRAGONeko kooperatiba, ikerkuntza-zentro eta hezkuntza-zentroei.	Aberastasun jasangarria eta ezagutza sortzea.
Digitalizazioa garatzea (banka elektronikoa, banka mugikorra, ezbehar digitala…), urrutiko gestio pertsonalizatua eskaintzeko.	Ingurumen-inpaktua murriztea. Zerbitzuaren kalitatea hobetzea. Finantza-bazterketako arriskua.
Garapen ekonomikoan laguntzea: negozio, enpresa eta ekintzaileentzako laguntza.	Enplegua sortzea.
Zuzeneko ingurumen-inpaktuak murriztea: kontsumoak eta hondakinak, berotegi-efektuko gasen isurtzea eta karbono-aztarnaren konpentsazioa.	Inbertsio- eta finantzaketa-zorroen CO_2-aren isurtze handiak.
Lan-arriskuak, ingurumen-arriskuak eta klima-aldaketaren arriskuak gure finantza-arriskuen ereduetan txertatzea.	Arriskuak murriztea. Hipotekatutako etxebizitzen energia-kalifikazio eskasa.
Produktu eta zerbitzu gizartearekiko eta ingurumenarekiko arduratsuak garatzea, ekonomia berde eta jasangarrirako trantsizioa bultatzeko.	Etxebizitzen efizientzia hobetzea. Ekonomia jasangarrirako trantsizioa.
Bezeroen eta gizartearen finantza- eta aseguru-hezkuntza bultzatzea.	Ekonomia osasungarria eta inklusiboa. Finantza-bazterketako arriskua.
LABORAL Kutxaren sendotasun finantzarioa, arriskuen gestioa eta likidezia indartzea.	Epe luzerako jasangarritasun ekonomikoa.
Gizarte-ekintza: babesletzak, GKE-entzako ekarpenak, gizarte-jarduerak, garapenerako lankidetza…	Aurrerabiderako eta justizia sozialerako ekarpena.
Kultura babestea eta euskara sustatzea.	Aurrerabiderako eta justizia sozialerako ekarpena.
Emakume eta gizonen berdintasuna sustatzea.	Generoen araberako banaketa orekatua.
Finantza-zerbitzuen eskuragarritasuna erraztea bazterketa-arriskuan dauden kolektiboei.	Gizarte-sektore batzuen finantza-bazterketa jatorria, adina, generoa eta abar direla eta.

Ondoren, interes-taldeei galdetu zaie. Horretarako, gai material jakin batzuk erabili ditugu. Hauek izan dira informazio-iturriak:

- Bezeroak (urtean behingo kontsulta). 2022ko txostenaren laburpenarekin batera, galde-sorta bidali zaie bezeroei (540.000 laguni baino gehiagori), gaien balorazioa egin dezaten. Jasotako erantzunak: 288 merkataritza arloan, 68 banka pertsonalean eta 405 KIDE/TOP segmentuan (lotuak); guztira **802**. Bezeroak LABORAL Kutxarenak eta Lagun Arorenak dira.
- Era berean, langileei ere egin zaie kontsulta (bazkideei, behin-behinekoei eta CLBSkoei; urtean behingo kontsulta), intranetean jarritako galde-sortaren bidez. 41 erantzun.

Balorazio horiek inpaktuaren materialtasun-analisian txertatu dira.

- 2022an Zuzendaritza Kontseiluko kideei kontsulta egin zitzaien, gai materialen finantza-materialtasuna zehazteko. 7 erantzun.

Kontsulta horien emaitzaz, materialtasun-matrizea egin dugu.

Materialtasun-matrizea



Ondorioak:

- Materialtasun bikoitzaren metodologiarako hurbilketa erabiliz egindako bigarren analisia da. Aurreko urtekoarekin alderatuta, inpaktuen araberako lehentasunei erreparatuz gero, ez dago alde nabarmenik. Oro har, interes-taldeetako lehenespenak antzekoak dira, ez dago alde handirik ondoen eta gaizkien baloratutako alderdien artean. Talde bakoitzaren interesen edo beharrizanen arabera, ñabardurak daude.
- Nabarmentzekoa da interes-talde guztien lehentasunak bat etortzea.
- Era berean, azpimarratzekoa da ezberdintasun handirik ez egotea materialtasun finantzarioen eta inpaktukoen artean: ez da agertzen ikuspegi batetik garrantzia duen eta beste ikuspegitik batere garrantzirik ez duen alderdirik.
- Jasangarritasunaren ibilbide-orrian, alderdi estrategiko hauek ageri dira argi eta garbi:
    - *Datuen eta eragiketen pribatutasuna eta segurtasuna babestea.*
    - *Bezeroekiko gestio arduratsua: azalpen argi eta gardenak, komisio orekatuak, gehiegizko zorpetzea saihestea eta ordaindu gabeko zorrak gestionatzeko malgutasuna.*
    - *Zerbitzu-kalitatearen bikaintasuna: adeitasuna, zerbitzu azkarra, eragiketak erraz egin ahal izatea eta hutsegiteak ahalik eta gehien txikitzea.*
    - *LKren sendotasun finantzarioa, arriskuen gestioa eta likidezia indartzea.*

2024an, materialtasun bikoitzaren analisian aurrera egin eta sakonduko dugu, CSRD araudi berriaren eskakizunak betetzeko.

2.4. Jasangarritasunaren Ibilbide-orria – Gai materialen lehenespena

Egindako hausnarketaren eta materialtasun bikoitzeko analisiaren ondorioz, jasangarritasunaren ibilbide-orria zehaztu da. Bertan, garrantzitsuenen artean sailkatutako arrisku eta aukerak jaso dira, eta LABORAL Kutxak erreferentzia moduan erabiltzen du jasangarritasunaren alorreko gai materialak lehenesteko.

Jarduera-eremu estrategikoak
Datuen eta eragiketen pribatutasuna eta segurtasuna babestea
Bezeroekiko gestio arduratsua: azalpen argi eta gardenak, komisio orekatuak, gehiegizko zorpetzea saihestea eta ordaindu gabeko zorrak gestionatzeko malgutasuna
Zerbitzu-kalitatearen bikaintasuna: adeitasuna, zerbitzu azkarra, eragiketak erraz egin ahal izatea eta hutsegiteak ahalik eta gehien txikitzea
LABORAL Kutxaren sendotasun finantzarioa, arriskuen gestioa eta likidezia indartzea
Bestelako jarduera-eremu garrantzitsuak
Digitalizazioa garatzea (banka elektronikoa, banka mugikorra, ezbehar digitala...), urrutiko gestio pertsonalizatua eskaintzeko.
Kontrol-neurriak: Kode Etikoa; ustelkeriari eta kapitalak zuritzeari aurre egitea; armen, jokoaren eta pornografiaren finantzaketa kontrolatzea.
Garapen ekonomikoan laguntzea: negozio, enpresa eta ekintzaileentzako laguntza.
Emakume eta gizonen berdintasuna sustatzea.
Gure plantillaren gestioa: kontziliazioa, soldata-mailak eta -tarteak, enpresa osasungarria eta abar.
Produktu eta zerbitzu gizartearekiko eta ingurumenarekiko arduratsuak garatzea, ekonomia berde eta jasangarrirako trantsizioa bultatzeko.
Lan-arriskuak, ingurumen-arriskuak eta klima-aldaketaren arriskuak gure finantza-arriskuen ereduetan txertatzea.
Bezeroen eta gizartearen finantza- eta aseguru-hezkuntza bultzatzea.

2.5. LABORAL Kutxaren jasangarritasunaren aginte-taula

LABORAL Kutxaren aginte-taulak ahalbidetzen du ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspuntuetatik erakundeko funtsezko adierazleen ikuspegi orokorra izatea.

Jarduera ekonomikoaren adierazleak (datu bateratuak):

Adierazleak	2022	2023
Zerga ondorengo emaitzak (M€-kotan)	139,06	208,44
Efizientzia-indizea (%-tan) (Administrazio-gastuak + Amortizazioak / Marjina gordina)	59,03	% 45,98
Bezeroen gordailuak (M€-kotan)	23.183	22.563
Bezeroei emandako kreditua (M€-kotan)	15.200	14.989
Funts bereziak (M€-kotan)	846	859
Kaudimena. Kapital-ratio osoa (CET1a) erabiltzen da.	% 22,24	% 23,85
ROEa	% 7,67	% 10,78
Loan-to-deposit (likidezia)	% 64,72	% 66,28
Zalantzazko arriskuen %-a inbertsioaren gainean	% 2,7	% 2,7

Gizarte-arloko jardueraren adierazleak:

Alderdia/Adierazlea	2022. urtea	2023. urtea
Jarduneko pertsonen kopurua (LK + CLBS + SLA)	2.037	2.292
Prestakuntza		
Prestakuntza-orduak / plantilla osoa	87,77	80,49
Prestakuntzaren ebaluazioa (1-10)	8,15	8,15
Segurtasuna eta osasuna		
Absentismoa %-tan	4,45	3,66
Garapen profesionala		
Batez besteko lan-indizea	2,36	2,38
Sustapena: Egiturazko indizearen hazkundea	10,28	31,21

Alderdia/Adierazlea	2022. urtea	2023. urtea
Soldaten dispertsioa		
LKn ondoen ordaindutako langilearen ordainsari osoa / ordainsari oso medianoa	4,52	4,32
Berdintasuna		
Emakume bazkideen %-a	% 52,05	% 52,23
Emakumeen %-a zuzendaritzako langile guztien artean	% 29,19	% 26,19

Ez da helbururik ezarri enplegu-dinamikaren eta emakumezko bazkideen %-an. Eta ez da eskualdeen arabera banakatu, gure esparru geografikoaren tamaina murritza dela eta.

Alderdia/Adierazlea	2022	2023
Funtsetarako (HSF eta KFS) ekarpenak (m€-kotan)	25.860	32.659
Ordaindutako zergak (m€-kotan)	24.451	16.151
Gaztenpresaren laguntzaz sortutako enpresak	314	320

Ingurumen-arloko jardueraren adierazleak:

Kontsumoa:	2022	2023
Publizitaterako papera (bezeroko kg-tan)	0.089	0,057
Barruko papera (bezeroko kg-tan)	0,191	0,183
Ura (m^3-tan)	7.124	5.850
Elektrizitatea (kWh-tan)	10.570.653	10.291.441
Tonerra (kontsumitutako kg-tan)	2.089	1.820
Gasolioa (litrotan)	720	399
Kudeatutako hondakinak (kg-tan) (1)	174.928	184.366

(1) Hondakinen % 100 kudeatzea da helburua. Bolumena urtero aldatzen da, inguruabarren arabera.

2.6. Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak (BAPak) eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJHak)

Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak sortu eta sinatu zituzten bankuetako bat izanik, urtean egindako aurrerapenaren deskargua egin izan du LABORAL Kutxak, urtero, hartutako konpromisoaren barruan. Txosten honen eranskinetan jaso da.

Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJHak)

Segidan, laburtuta emango ditugu Garapen Jasangarrirako Helburuei (GJHei) eta Nazio Batuen 2030 Agendari lotuta LABORAL Kutxa gauzatzen ari den ekintzak, txosten honetan azaldu ditugunak:

- **5. helburua – Genero-berdintasuna:** LKren IV. Berdintasun Plana hedatzea, Sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako protokoloa.
- **8. helburua – Lan duina eta hazkunde ekonomikoa:** Gaztenpresa; hornitzaileak kudeatzeko prozedura, Zainduz osasun-plana, finantza-hezkuntza, mugikortasun jasangarria, arrisku psikosozialen ebaluazioa.
- **9. helburua – Industria, berrikuntza eta azpiegitura:** digitalizazioko hainbat aurrerapauso, Mondragoni laguntzea, LK3 eraikinaren energia-alderdia berritzea, klima-aldaketaren arriskuak eta aukerak aztertzea, zibersegurtasuna.
- **10. helburua – Desberdintasunak murriztea:** irisgarritasun integrala, irabazia gizartean banatzea, inbertsio gizartearekiko arduratsua, gizarte-irizpidedun finantzaketa.
- **17. helburua – Helburuak lortzeko itunak:** marka-posizionamendua, EIF InnovFin eta EaSI Soziala hitzarmenak berritzea, Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak.

3. INTERES-TALDEEN GESTIOA

3.1. Bezeroekiko harremanak

3.1.1. Gestio-ikuspegia

Aurreko urteetako txostenetan, gestio arduratsuaren gestio-ikuspegian, LABORAL Kutxak bezeroekiko harremanean eta produktuen gaineko erantzukizunean darabilen politika jaso izan dugu. Arlo garrantzitsua da Entitatearentzat, eta horregatik du berariazko area bat sortuta, ikuspegi hori aplikatzeko oinarrizko zereginarekin. Bezeroak honela daude sailkatuta: partikularrak, autonomoak, negozioak eta enpresak. Segmentu horietako bakoitza modu berezian kudeatzen da, eta bezero horien behar eta itxaropenen araberako eskaintza komertziala egiten da.

3.1.2. Bezeroen magnitude nagusiak

Ondorengo taulan LABORAL Kutxako bezeroen bilakaera ikus daiteke. Esan beharra dago urtean behin araztu egiten dela datu-basea eta aktiboak ez diren bezeroei baja ematen zaiela.

Eremu geografikoa	Bezero-kopurua		%
	2022	2023	
Araba	134.500	134.198	% 11,66
Aragoi, Katalunia eta Errioxa	74.658	75.233	% 6,53
Asturias eta Kantabria	34.843	35.621	% 3,09
Bizkaia	360.205	358.459	% 31,14
Gaztela eta Leon	129.611	129.277	% 11,23
Gipuzkoa	271.145	270.648	% 23,51
Madril	22.091	23.472	% 2,04
Nafarroa	124.233	124.331	% 10,80
LABORAL Kutxa guztira	**1.151.286**	**1.151.239**	**% 100**
Bezero partikularrak (%-a)	% 85,52	% 84,74	
Bezero autonomoak (%-a)	% 8,40	% 7,62	
Bezero negozioak (%-a)	% 3,50	% 3,43	
Bezero enpresak (%-a)	% 0,95	% 1,05	
Gainerakoa/segmentatu gabe	% 1,62	% 3,16	

*2022an, Egoitza Nagusikoak dagozkien probintzien artean banatu dira.

Funtsezko negozio-lineak (krediduena eta aseguruena) aintzat hartuz, zorroen xehetasunak emango ditugu jarraian. Hona hemen krediduen bezeroen profila:

Krediduak sektoreko (M€-kotan)	2022	2023
Sektore publikoa	**1.195**	**976**
Beste sektore egoiliar batzuk	**14.164,2**	**14.197,2**
Etxeko ekonomiak	10.609,1	10.633,2
- Hipotekarioak	10.175,2	10.152,4
- Kontsumorako finantzaketa	414,2	438,6
- Gainerakoak	19,7	42,2
Enpresak	2.869,4	2.967,2
Beste kreditu batzuk	685,8	596,9
Ez-egoiliarrei emandako kreditua	**139,8**	**135,1**
Bezeroei zuzendutako kreditu gordina guztira	**15.499**	**15.308,4**
Aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak	–317,5	–335,3
Bezeroei zuzendutako kreditu garbia guztira	**15.181,4**	**14.973,1**

Hauxe da LK-ko bezeroen banaketa geografikoa:

Eremu geografikoa	Kreditu-inbertsioa		Gordailuak	
	2022	2023	2022	2023
Bizkaia	% 20,53	% 22,7	% 32,71	% 17,98
Gipuzkoa	% 13,57	% 15,86	% 27,08	% 28,34
Araba	% 6,51	% 7,09	% 11,26	% 12,53
Nafarroa	% 8,35	% 9,53	% 9,71	% 9,76
Burgos	% 1,72	% 2,07	% 1,35	% 1,76
Madril	% 5,91	% 7,23	% 1,02	% 1,41
Valladolid	% 2,63	% 3,2	% 1,89	% 2,24
Zaragoza	% 5,04	% 5,22	% 1,80	% 1,83
Beste batzuk	% 35,74	% 27,10	% 13,18	% 24,15
GUZTIRA	% 100,00	% 100,00	% 100	% 100,00

Hona hemen CLBS sozietateko bezeroen profila, 2023-12-31n:

Modalitatea	Aseguratu gizonezkoak		Aseguratu emakumezkoak	
	Poliza-kopurua	Batez besteko adina	Poliza-kopurua	Batez besteko adina
Bizitza Arriskua	38.398	48	35.819	48
BPMen amortizazioa	30.249	45	25.242	47
HBMen amortizazioa	19.432	41	19.645	41
Etxea Jabea	71.552	55	57.955	55
Etxea Errentatzailea	7.888	57	6.559	58
Etxea Maizterra	3.272	50	8.497	49

3.1.3. Bezeroekiko elkarrizketak

Aurreko urteetan bezala, 2023an ere ahalegin handia egin dugu, elkarrizketen bidez bezeroek finantza- eta aseguru-produktuekiko dituzten itxaropenen eta eskaeren berri izateko eta, horrela, hobekuntza-ekintza berriak ezartzeko. Mekanismo horiek, gainera, *erabateko kalitateko* prozesu batean txertatzen dira, zeinaren etengabeko helburua baita bezeroarekiko arretaren eta zerbitzuaren kalitatea lehiakideekiko abantaila izatea, harremanetarako erabiltzen ditugun kanal guztietan.

Bezeroei egindako inkesta-kopurua oso handia izan da.

- Stiga azterketa: bezeroen gogobetetasuna. Guztira, zenbait finantza-erakundetako 14.125 bezerori egin zaie kontsulta, horien artean LABORAL Kutxako 400 bezerori.

Beste banku eta aseguru-entitate batzuekiko konparaziozko emaitzak aldekoak dira. Beheko taulotan txertatu ditugu adierazgarrienetako batzuk.

STIGAren benchmarkinga Banku-sektoreko zerbitzu-kalitatea 2023an (0-10 bitarteko puntuazioa)	2022	Sektorearekiko diferentziala 2022	2023	Sektorearekiko diferentziala 2023
Bezero potentzialei emandako arreta – Sektoreko Kalitate Objektiboaren Azterketa (EQUOS-Stiga)	8,20	+0,5	8,12	+ 0,38
Entitatearekiko gogobetetasun orokorra	7,58	+ 0,41	7,66	+ 0,42
Harremanetako ukiezinen balorazioa: gardentasuna, konfiantza eta pertsonalizazioa	7	+ 0,55	7,06	+ 0,56
Markako ukiezinen balorazioa: sendotasuna eta kaudimena, modernotasuna eta gizarte-konpromisoa	7,58	+ 0,36	7,72	+ 0,43
Bulegoarekiko gogobetetasuna	8,12	+ 0,42	8,40	+ 0,55

Bezero gomendatzaileen posizioa nabarmentzen da: +% 12,4ko NPSa (sektorean –% 2,7koa).
NPSa. 9 edo 10 gomendio-asmoa duten bezeroen %-aren eta gomendio-asmoa =< 6 dutenen arteko aldea.

Handia da Entitatearekin harremanetan jartzeko kanal guztiekiko gogobetetasun-maila ere, LKren bezeroekin egiten dugun gogobetetasunari buruzko barne-ikerketak erakutsi duenez. Entitatearekin lotura duten bezeroen balorazioek bilakaera positiboa islatzen dute 2023an.

- Bulegoa: 83,6, bilakaera +1,3
- Internet bidezko banka: 84,5, bilakaera +0,5
- Aplikazioa: 84,7, bilakaera +0,2
- Telebanka: 81,8, bilakaera –0,7

Elkarrizketarako mekanismoetan eta bezeroen itxaropenetan oinarrituta, jasotako zerbitzuarekiko gogobetetasuna handitzeko hobekuntza-ekintzak zehazten dira.

LABORAL Kutxaren Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuak bezeroek aurkeztutako kontsulta, kexa eta erreklamazioei erantzuten die. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 2023an erreklamazioek nabarmen egin dute gora (% 146), batez ere hipoteka-bermedun maileguak formalizatzeko gastuen erreklamazioen eraginez. Horri aurre egite aldera, Entitateak ahalegin handia egin du pertsona-baliabideak areagotzeko, erreklamazioen bolumen nabarmen hori bideratu ahal izateko.

Hona hemen zerbitzu horren emaitzak:

Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua	2022	2023
Espedienteak guztira	**9.753**	**24.167**
Espedienteen izaera		
Kexak	4.016	3.328
Erreklamazioak	5.625	20.772
Kontsultak	0	11
Iradokizunak	0	1
Zorionak edo eskerrak emateko gutunak	0	4
Hainbat eskaera eta bestelakoak	112	101

Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua	2022	2023*
Irekita dauden espedienteak	**9.753**	**24.050**
Idatziak: liburuxka/gutuna	6.661	18.839
Internet/Telefonoa	2.859	4.403
Erakunde publikoak: KIUB/gobernu autonomikoak	50	620
Bestelakoak	0	88

*Kexak eta erreklamazioak bakarrik hartzen dira kontuan.

2022ko Jasangarritasun Txostena egin ostean, azken urteetan ohikoa denez, komunikazio-jarduera jarri zen martxan, eta Txostenaren Laburpena bidali zitzaien loturarik handieneko bezeroei. Informazio horrekin batera, galde-sorta bat ere erantsi zen, nahi zuten bezeroek jasangarritasunari buruzko iritzia eman zezaten. Lau bidalketa ezberdin egin dira: enpresa bezeroei, bezero autonomo eta mikroenpresei, Banka Pertsonaleko bezero partikularrei eta KIDE/TOP bezero partikularrei. 540.760 bezerori bidali zaie guztira, eta, horietatik, % 25,8k irakurri du mezua. 802 erantzun jaso dira orotara.

Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua – eskatutako zenbatekoak (mila €-kotan)	2022	2023
Entitatearen alde ebatzitako espedienteen zenbatekoak	2.248	747
Bezeroaren alde ebatzitako espedienteen zenbatekoa	171	5.374
Entitateak kalte-ordainetan emandako kopuruak	171	5.374
Entitateak bezeroei itzulitako zenbatekoak; ez dago kobratzerik	0	0
Hirugarren batzuek itzuli edo kalte-ordainetan emandako kopuruak	0	0
Guztira	**2.419**	**6.121**

Espedienteak irekitzeko arrazoiak (BAZ)	2022	2023
Bezeroentzako zerbitzu zentralizatuak	% 2	% 1
Komisioak eta gastuak	% 85	% 89
Baldintza ekonomikoak	% 2	% 1
Informazioa falta da edo okerra da	% 0	% 1
IKTetako iruzurra	% 2	% 0
Bulegoak, elementu objektiboengatik	% 3	% 0
Bezeroekin harremanak izateko elementuak	% 3	% 2
Kanpainak, oro har	% 1	% 0
Kutxazainak	% 2	% 2
Hainbat	-	% 4
Erreklamazioen zenbatekoa	**2022**	**2023**
≤ 100 €	% 0,97	% 0,37
> 100 ≤ 250 €	% 1,55	% 1,21
> 250 ≤ 1.000 €	% 45,69	% 82,87
> 1.000 €	% 51,79	% 15,56

Hauek izan dira eskuragarri dauden kanalen bidez aurkeztutako erreklamazioak:

	2022	2023
Espainiako Bankuaren Erreklamazio Zerbitzuan produktuen segurtasunaren gainean aurkeztutako erreklamazioen kopurua (1)	4	11
Espainiako Bankuan LABORAL Kutxaren aldekoak izan diren erreklamazioen kopurua	0	8

(1) Ordainbideen eta phisingaren iruzurrezko erabilerarekin zerikusia duten erreklamazioak.

	2022	2023
Espainiako Bankuaren, Aseguruen Zuzendaritza Orokorraren, CNMVren eta Kreditu Kooperatiben Nazio Batasunaren erreklamazio-zerbitzuan produktuen eta zerbitzuen informazioaren gainean aurkeztutako erreklamazioen kopurua (1)	14	21
Espainiako Bankuan eta CNMVn LABORAL Kutxaren aldekoak izan diren erreklamazioen kopurua	4	9

(1) Erreklamazioek informazio okerrarekin edo aholkularitza txarrarekin dute zerikusia, batez ere komisio eta gastuekin —kontua mantentzekoak, zorpekoenak eta abar—.

	2022	2023
Espainiako Bankuaren eta CNMVren erreklamazio-zerbitzuan produktuen eta zerbitzuen publizitatearen gainean eta pribatutasunaren gainean aurkeztutako erreklamazioen kopurua	0	0
Espainiako Bankuan eta CNMVn LABORAL Kutxaren aldekoak izan diren erreklamazioen kopurua	0	0
Zerbitzuen hornikuntzari eta erabilerari buruzko araudia ez betetzeagatik jarritako isunen zenbatekoa	0	0

	2022	2023
Legeak eta arauak ez betetzeagatik taldeari jarritako zehapenak (€-tan)	0	0

Lagun Aro	2022	2023
Irekitako espedienteak (erreklamazioak eta kexak)	731	952
Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Orokorreko (APFZOko) erreklamazio-zerbitzuaren aurrean aurkeztutako erreklamazioen kopurua	12	17
Itxitako espedienteetatik osorik edo partzialki onetsi direnen %-a	% 40,3	% 43,9
Erantzuteko batez besteko epea (egunak)	10,31	13,34
Bezeroaren aldeko ordainketen zenbatekoa, €-tan	62.499	121.995
Gainbegiralearengandik jasotako txostenen artean erreklamatzailearen aldekoak (osorik edo hein batean) direnen %-a	% 7,1	% 33,3
CLBS	**2022**	**2023**
Irekitako espedienteak (erreklamazioak eta kexak)	2	1
Itxitako espedienteetatik osorik edo partzialki onetsi direnen %-a (1)	% 0	% 100
Erantzuteko batez besteko epea (egunak)	1	13
Bezeroaren aldeko ordainketen zenbatekoa, €-tan	0	28,03€

(1) Ez-onartzerik gehienak beste erakunde batzuei zuzenduta daudelako gertatu dira.

3.1.4. Bezeroarekiko gestio arduratsua eta zerbitzu-kalitatearen bikaintasuna

Zerbitzuaren kalitatearen bikaintasuna eta bezeroarekiko harremana dira gure materialtasun-matrizean garrantzirik handieneko alderdien artean identifikatutakoak.

- ✓ 2023an, Higiezin Krediduko Kontratu Legearen (HKKLaren) araberako egiaztagiria eta MiFID delakoa lortzeko prozesuarekin jarraitu dugu, oraindik lortu gabe zeuden pertsonekin, batez ere sartu berriekin.
- ✓ Bezeroarekiko gestio arduratsuaren ildo horretan bertan eta enpresa-finantzaketa errazte aldera, azpimarragarria da EIBren (Europako Inbertsio Bankuaren) EIFrekin (European Investement Fundekin) dugun lankidetza. 2023an, hitzarmen bat egon da indarrean. Horren bidez, LABORAL Kutxak onartutako arriskuaren zati bat bermatu du EIFk, eta, horrela, hitzarmenetan sartutako enpresek prezio eta berme hobeetan lortu ahal izan dute finantzaketa. Hona hemen hitzarmenok:
    - EaSI Mikrokredituak II hitzarmena: merkataritza-finantzaketarako lerro berezia. Hitzarmena berritzeak aukera ematen digu ekintzaile, mikroETE eta autonomoentzako maileguak finantzatzen jarraitzeko, enplegua sortzeko eta finkatzeko helburuz.
- ✓ Aholkularitzaren eta harremanaren kalitaterako funtsezkoa da azkar egokitzea eraldaketa digital geldiezinera. Erabiltzaileak banka digitalaren munduan esperientzia egokia izan dezan, gestoreak eta bezeroak harreman pertsonalizatua izan behar dute elkarrekin, omnikanala betiere.

Informazioaren gardentasuna eta argitasuna

- ✓ LABORAL Kutxa Autocontrol elkarteko bazkidea da 2008ko uztailaren 29az geroztik. Elkarte horren helburua da prozesu ekonomikoan publizitatea tresna erabilgarria izatea, publizitate-etikarekiko eta kontsumitzaileen eskubideekiko errespetua zainduz eta interes pertsonalak albo batera utziz. 2023an, LABORAL Kutxak kontsulta hauek egin dizkio Autocontroli:

Aurretiazko aholkularitza	2022	2023
Positiboak	343	390
Aldaketadunak	169	178
Negatiboak (iragarkia baztertzea aholkatu digute)	0	0
GUZTIRA	**512**	**568**
Kontsulta deontologikoak	53	50

- ✓ Gure webgunean (laboralkutxa.eus) eta Lagun Aroren orrialdean eskuragarri dago produktu eta zerbitzu nagusiei buruzko informazioa, hala nola aurrezki-produktu, txartel, hipoteka, mailegu, plan, funts, aseguru eta zerbitzuei eta Online Bankari buruzkoa. Bestalde, sare sozialetarako —bloga, Facebook, Twitter, YouTube…— sarbidea ere eskaintzen dute.

Bezeroarekiko gestio arduratsuari lotutako beste alderdi bat gehiegizko zorpetzearen arazoa da. Materialtasun-matrizearen arabera, garrantzi handia du. Eragindako pertsonengan duten inpaktu handiagatik, baina aldi berean hedabideetan eta gizartean oihartzun handia duen alderdi bati buruzko gardentasun-betebeharra betetzeko asmoz, bereziki hipotekak ordaintzeko arazoak dituzten bezeroekin egiten ditugun jarduketa zehatzak azalduko ditugu segidan.

Etxebizitza ordaintzeko arazoak dituzten bezeroekin banan-banan negoziatzeko politikaren barruan, LABORAL Kutxak 2012an sinatu zuen *Jardunbide Egokien Kodea* eskaintzen zaie (baldin eta baldintzak betetzen badituzte). Jardunbide Egokien Kode horrek bigarren aukerako mekanismoa, finantza-kargaren murrizketa eta gizarte arloko bestelako neurriak biltzen ditu.

Jardunbide Egokien Kodea	2022	2023
Eskaerak	62	75
Ukatuak	40	14
Onartuak	22	61

Onartutako 61 eragiketei Dekretuak xedatutako baldintzak ezarri zaizkie, zerga-onurak barne. Era berean, eskuragarri dauden 37 etxebizitzetatik, 29 Etxebizitzen Gizarte Funtsera bideratu dira.

Legearen eskakizunetako bat ez betetzeagatik kode hori aplikatzen ez zaien eragiketetan, LABORAL Kutxaren prozedurak eta protokoloak erabiltzen dira. Gure protokoloek, zorrak berregituratzeko aukeraz gain, ordainean emateko aukera ere jasotzen dute, hipotekatutako ondarearen balio-galera partekatzeko. Bestalde, lehengo jabeak etxebizitzan jarraitzeko hitzarmena ere aurreikusten dugu, epailearen ebazpenak etxebizitza LABORAL Kutxari eman arren.
Adostasunak asko izan badira ere, Entitateak 46 etxebizitza eskuratu ditu (horietatik 19 ezohikoak), kasu batzuetan ordainean emateko akordioen bidez eta beste batzuetan epailearen erabakiz. Azken kasu horietako epai judizialaren ostean ere, bezeroek badute beren etxea izandakoaren botatze-exekuzioa etetea eskatzerik. 2023an ez zaio etxean jarraitzeko eskubidea aitortu exekuzioaren ondoren jabe izateari utzi dion inori.

Erreklamazioak

2017ko urtarrilean, judizioz kanpoko prozedura bat arautu genuen etxebizitza erosteko hipoteka-kontratuetan *zoru-klausulei* lotutako erreklamazioak ebazteko. Izan ere, kontsumitzaileak babestearren, klausula horiek gehiegizkotzat eta, ondorioz, baliogabetzat jo ziren, ez edukiagatik beragatik, baizik eta gardentasun nahikorik gabe txertatuta zeudelako kontratuetan. Ondorioz, klausula horien eragina indargabetzeko judizioz kanpoko akordioak lortzeko bideak ezarri ziren, 1/2017 Errege Lege Dekretuaren bidez.

LABORAL Kutxak demanda judizialera jo aurretik erabil daitekeen borondatezko erreklamazio-sistema ezagutarazi zien bezeroei. Sistema osagarri horretara jo nahi izan ez duten bezeroek Bezeroentzako Arreta Zerbitzura jotzeko aukera izan dute.

Hona hemen jasotako erreklamazioen kopuru metatua:

Zoru-klausulen judizioz kanpoko erreklamazioak. 1/2017 Errege Lege Dekretua (ELD)	**2022ko abenduan**	**2023ko abenduan**
- Baztertuak (ELDa ez da aplikagarria)	1.149	1.186
- Onartuak	809	950
- Ukatuak	3.509	3.518
- Kudeatzen ari direnak	136	67
Sarrerak GUZTIRA	5.603	5.721

Hauxe izan da, 2022ra arte, kontsumitzaileei erreklamazioa baztertzeko ia arrazoi bakarra: aurretik Entitatearen eta beraien artean akordio bat lotuta izatea, Entitateak zoru-klausula ezabatzeko eta bezeroek aurretik ordaindutako likidazioak erreklamatzeari uko egiteko. Ikus daitekeenez, 2018. urtetik aurrera egonkorra izan da sartutako erreklamazioen kopurua, urtetik urtera zertxobait handitu bada ere.

2022an Entitateak aldatu egin du irizpidea, kontuan hartuta transakzio-akordioen baliozkotasunari buruzko jurisprudentzia finkatu dela, akordio horietan akzioak egiteari uko egiteko hartutako konpromisoa barne. Hortaz, bai esparru judizialean eta bai BAZean judizioz kanpo ere, kontsumitzaileen erreklamazio guztiei erantzutea erabaki zen, nahiz eta transakzio-akordioa sinatuta izan; era berean, merkataritza-maileguak atzera botatzea erabaki zen.

Bestalde, 2023an, 80 demanda judizial sartu dira hipoteka-maileguen *zoru-klausulen* ondorioz. Horrelako demanden kopuruak behera egin du 2022tik, orduan 103 izan baitziren (2021ean 73 izan ziren eta 2020an 71).

Hipoteka-maileguak formalizatzean sortutako gastuen ondoriozko erreklamazioei dagokienez, Zuzendaritza Kontseiluak judizioz kanpoko erreklamazioak aztertzeko irizpidea onetsi ondoren, horrelakoek nabarmen egun dute gora ekitaldian zehar, batez ere azken hiruhilekoan.

AÑO	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Nº Reclamaciones	10.580	4.080	3.209	6.108	8.707	3.647	13.932

Demanda judizialen kopuruak behera egin du, baina oraindik ere badaude, judizioz kanpoko erreklamazio asko atzera bota baitziren Zuzendaritza Kontseiluak irizpidea aldatzea erabaki aurretik. Hala, 2023an 2.220 demanda judizial izan dira, 2022an 2.971, eta 2021ean 3.117 (ekitaldi horretan gorakada handia izan zuten 2020ko datuekin alderatuta).

Sarritan, gastuen inguruko demanda horien barruan sartzen dira beste klausula batzuk indargabetzeko eskaerak —gehienetan estrategia prozesalaren ondorioz eta batere eduki ekonomikorik gabe—, hala nola berandutze-interesena, posizio zordunak erreklamatzeagatiko komisioarena, fidantzamenduarena eta abar.

Eroskiren eta Fagorren mendeko finantza-ekarpenei (*MFE*-ei) lotutako demandak ia erabat amaitu dira. Hala, haien kopurua hutsala da orain dela urte batzuk izan zirenekin alderatuta: 0 2023an eta 2 2022an.

Azkenik, *irekitze-komisioaren* inguruko erreklamazio judizialari dagokionez, 2023an 325 demanda jaso dira (2022an 507 izan ziren), eta ez da inongo demandarik iritsi IRPHaren eta 57/68 Legearen inguruan.

3.1.5. Datuen eta eragiketen pribatutasuna eta segurtasuna babestea

Datu pertsonalak

LABORAL Kutxak lanean jarraitzen du Entitatean datuen babesaren zeharkakotasuna bermatzen duten politikak eta prozedurak finkatzen. 2021eko Txostenaren atal berean laburtuta agertzen dira indarrean dauden politikak eta prozedurak, nahitaez bete beharrekoak.

2018an DBEOa indarrean sartzea aurrekaririk gabeko erronka izan zen finantza-erakundeentzat, tratatutako datu pertsonalen bolumenaz eta izaera bereziaz gain, askotariko tratamenduak behar baitira bezeroei banku-zerbitzuak egoki eskaintzeko eta merkaturatzeko.

Hala, LABORAL Kutxak barneko arau-sarea finkatu du, diseinutik hasita eta lehenespenez datuen babesa ezartzen dela bermatzeko. Beraz, produktu edo zerbitzu bat diseinatzen den unetik hartzen da kontuan datuen babesa.

Arau eta prozedura horiek etengabe aldatu behar dira arau berrietara egokitzeko eta agintaritza eskudunek gidaliburu, ebazpen eta irizpenen bidez ezarritako irizpideak betetzeko.

Xede horrekin, honako hauek izan dira LABORAL Kutxak datuen babesaren arloan 2023an burutu dituen jarduketa nagusiak:

- Barne-kontrolak egin dira aldizka, Entitatearen datuen babesari buruzko araudia erantzukizun proaktiboaren printzipioaren arabera betetzen dela egiaztatu eta frogatzeko (pertsona interesdunek dagozkien eskubideak baliatzeari erantzun egokia ematen zaiola erakusteko, besteak beste).
- Tratamendu-jardueren erregistroan jasotako informazioa eguneratu da eta arrisku-analisiaren beharrezko berrikuspena egin da.
- Datuen babeserako ordezkariak aktiboki hartu du parte hornitzaileak kontratatzeko prozesu zentralizatuan. Modu horretan ziurtatu nahi da datu pertsonalak LABORAL Kutxaren kontura tratatzen dituzten hornitzaileek neurri egokiak —teknikoak zein antolakuntzakoak— aplikatzeko berme nahikoak eskaintzen dituztela, tratamendua legezko eskakizunen araberakoa izan dadin eta pertsonen eskubideen babesa behar bezala berma dadin.
- LABORAL Kutxako langileak prestakuntza-pilulen bidez trebatu dira, datuen babesaren garrantziaz eta zeharkako izaeraz kontzientziatzeko.
- Entitatean datuen babesaz arduratzen diren teknikarien taldea indartzea.

Seguruenik, 2024ak erronka berriak ekarriko ditu arauei dagokienez, eta LABORAL Kutxak berme osoz egingo die aurre, datuen babesarekin duen konpromisoa oinarri hartuta.

Zibersegurtasuna

Egungo ekonomia digitalean, LABORAL Kutxak erronka garrantzitsuak ditu aurrean ingurumen-, gizarte- eta gobernu-helburuak betetzeko eta aldi berean zibersegurtasun- eta pribatutasun-neurri sendoak bermatzeko. Arlo horiekin lotutako kezkak lehentasunezkoak izan dira gure erakundearen gestio-planetan, 2023ko ekitaldian.

Mehatxu zibernetikoen maiztasuna goraka doala kontuan hartuta, nahitaezkoa da jasangarritasunaren eta zibersegurtasunaren arteko lotura sendotzea, erakundearen osasuna, negozioaren etorkizuna eta gure bezeroen eta bazkide komertzialen interesak babesten lagunduko duen ikuspegi integratu gisa.

Teknologia- eta zibersegurtasun-arriskuen hazkundearen jakitun, LABORAL Kutxak aurrerapauso sendoak eman ditu 2023an eraso disruptiboen ondorioak leuntzeko eta 2023-2025 hirurtekoan garatuko den Erabateko Segurtasunerako Plan Zuzentzailea aurrera eramateko. Planak, identifikatutako ekimenen jarraipena eta informazio-biltzea sustatzen ditu, denbora- eta irismen-desbideratzeak antzematen ditu, arriskuak aurreikusten ditu plangintzan ikuspegi kritikoa erabiliz, eta segurtasun-eremuen heldutasun-mailaren bilakaera bultzatzen du. Hori guztia alderdi hauei dagokienez: Estrategia eta Eredu Operatiboa, Ziberarriskuen Kultura eta Portaera, Hirugarrenen Arriskuen Gestioa eta Gobernuaren, Babesaren, Zaintzaren eta Erresilientziaren eremuetako adabakien eta ahulezien kudeaketa.

Ildo estrategiko beretik, LABORAL Kutxarentzat, gobernantza ona eta zibersegurtasunaren arloan bizi dugun ingurune aldakorrera egokitzea funtsezkoak dira negozioaren jarraipena eta gure interes-taldeen konfiantza ziurtatzeko, modu horretan ahalik eta gehien murrizten baitira zibererasoen ondoriozko galera ekonomikoen arriskua eta ospearen inguruko kalteak. Helburu horrekin, LABORAL Kutxak handitu egin du segurtasun-irtenbide garrantzitsuetako inbertsioa, eta segurtasun-proiektu berriak sustatu ditu. Baita hirugarrenen gestio-ereduan ere, zerbitzuak kanporatzearekin lotutako gobernu-sistemak koherenteak izan daitezen norbanakoaren arrisku-profilarekin, Entitatearen izaerarekin eta negozio-ereduarekin, eta heldutasun- zein estaldura-maila zenbatesteko prozesuak ezar daitezen, ikuspuntu logiko nahiz fisikotik aplikatutako neurri tekniko eta antolakuntzakoei dagokienez.

Bestalde, 2023an aurrera egin da arriskuen ebaluaziorako eredu operatiboa ezartzeko bidean, industriaren jardunbiderik onenetan oinarritutako zibersegurtasunaren ikuspegitik. Horrela, aurrera egin da arriskuak kontrolatzeko metodologien hedapenean. Ildo horretan, arrisku horien estrategia negozio-planean txertatzeari ekin zaio, ezarritako grina, tolerantzia eta arrisku-mugak betetzea ahalbidetzeko. Halaber, informazio-sistemak babesteko irtenbiderik egokienak ebaluatzeko eta hautatzeko estrategia indartu da, eta teknologia berrien bidez irtenbide horiek LABORAL Kutxaren azpiegitura teknologikoarekin lerrokatu dira.

Bestalde, prestakuntza- eta kontzientziazio-jarduerak egin dira gure arrisku-kultura zuzentzen duten portaerak ezagutzera emateko. Hain zuzen ere, trebakuntza-ekintzak diseinatu eta garatu dira, kontuan hartuta barneko edo kanpoko banakoen kognizioan identifikatutako ahuleziak. Askotariko kanalen bidez identifikatu dira ahulezia horiek, gure prestakuntza-ekosistema digitalaren bidez, esaterako. Beste alderdi garrantzitsu hauek ere indartu egin dira: konpainiak jasaten dituen gorabeheren eta ahulezien aurrean erantzuteko plana, eta mehatxuen aurrean ziberadimeneko ekimenak sustatzea. Horri esker, jarraipena egiteko, ebazteko eta erabakiak hartzeko jarduerak optimizatu ahal izan dira, eta inplikatutako arloek prebentzioz prestatu ahal izan dituzte ekintzak, erakundearen aktiboen babesa bermatzeko.

Era berean, 2023an indartu egin dira informazio-aktiboetarako sarbidea kontrolatzeko parametroak, sistema eta zerbitzu kritikoenetarako sarbidea berrikusteko aparteko kontrolak ezarrita.

Beste lan-ildo azpimarragarri bat izan da hodeiko zerbitzuen politika korporatiboa osatuz joatea. Hala, administrazio-profilen autentifikazio-baldintzak eta sarbide-kontrolak osatu dira, eta merkatuko jardunbide eta erreferentziarik onenak geureganatu ditugu, erabilitako hodeiko irtenbideak monitorizatu eta etengabe hobetzeko aukera emango duen eredu sendo bat eraikitzeko.

Bestalde, segurtasun-politika eta -prozedura guztiak eguneratu dira, hain zuzen ere honako hauek: informazio korporatiboaren sistema babesteko bideak ezartzen dituztenak, konpromiso arautzaileak betearazten dituztenak, eta erabiltzaile bakoitzari printzipio gidariak eta jarduteko jarraibideak ematen dizkiotenak. Prozedura eta politika horien monitorizazioa eta aldizkako jarraipena sustatzen dira, zehaztutako parametroen egokitasuna lortzeko.

Beste alde batetik, araudiaren presioa handitu egin denez ekosistema finantzarioko arrisku teknologikoaren gestioaren esparruan, indartu egin dugu segurtasun-neurriak betetzeko barne-programa, kontrol-agintaritzek ezarritako estandarrik onenekin eta jardunbide egokiekin bat. Horrenbestez, erakundean aplikagarriak diren araudiak, zuzentarauak eta estandarrak bateratu nahi dira, arriskuen gestioko betebeharrak zabaldu, inplikatutako guztien betekizunak berdindu, eta izapideen gestioaren konplexutasuna murriztu.

Ildo beretik, LABORAL Kutxak Informazioaren Segurtasuna Gestionatzeko Sistema ezarri du. Bertan, hainbat xehetasun-mailatan, informazioaren teknologien aktibo eta baliabide guztiak erabiltzeko eta gestionatzeko zenbait arau, jarraibide eta prozedura bildu dira.

Azkenik, teknologia hasiberriei dagokienez, LABORAL Kutxa adimen artifizialaren (AAren) erabilerari eta datuen etikari buruz sortu diren kezka berriak txertatzen ari da bere plan estrategikoetan. Hala, prozesatzen den informazioa babesteko printzipioa indartu nahi du eta zibersegurtasunaren arloko kontzientzia zibernetikoa eta alfabetatzea areagotu.

Azken finean, LABORAL Kutxak, urtero bezala, ibilbide-orri bat definitu du zibersegurtasunaren arloan, eta ikuspegi integral bat proposatu du, zibersegurtasunaren gobernua eta gestioa arriskuen enpresa-kudeaketarekin lerrokatzen dituena eta alderdi interesdun guztien ikuspuntua eskaintzen duena.

3.1.6. Produktu eta zerbitzu arduratsuak

Kredituen politikan darabiltzagun gizarte- nahiz jasangarritasun-ukituko irizpideak produktu hauetan agertzen dira:

- Kontsumo-helburuetarako mailegu jasangarrietan: bezeroak ingurumen- edo gizarte-inpaktu positiboa duen inbertsiora bideratzen badu finantzaketa (energia berriztagarrien instalazioa, auto elektrikoa, osasuna…), interes-tasa txikiagoa ezartzen zaio.
- DispON ESG maileguetan: LABORAL Kutxaren aurrez emandako maileguak dira; kontsumo-maileguek bezala, interes-tasa txikiagoa dute finantzaketa ingurumen- edo gizarte-helburuetara bideratzen bada.
- Enpresentzako autokontsumorako eguzki-plaken finantzaketan: autokontsumorako eguzki-plakak instalatu nahi dituzten enpresentzat.
- Erkidego eta partikularrentzako birgaitze jasangarrirako paketean: energia, irisgarritasuna, igogailuak eta abar hobetzeko maileguak dira, partikularrei zein jabeen erkidegoei

zuzendutakoak. Finantzaketa ez ezik, honako hauek ere eskaintzen dira: dirulaguntza eskuragarrien eta zerga-kenkarien simulatzailea, obra birgaitzeko eta zuzentzeko proiektuak, dirulaguntzen gestioa eta etxebizitza zein erkidegoentzako aseguruak.

- Gizarte-ekonomiako enpresentzako maileguetan (EaSI Mikrokredituak II hitzarmena): kooperatiba, lan-elkarte, gizarteratze-enpresa eta gizarte-ekonomiako beste erakunde batzuk dira onuradunak.
- Mailegu pertsonaletan: egoera berezietarako % 0ko UTBdun maileguak eta nomina-aurrerakinak daude. Gazteei ikasketak (materiala, matrikulak eta abar) finantzatzeko emandakoak ere badaude. Adibidez, 2022an, hauekin sinatu genituen akordioak: AEKrekin, Nafarroako Unibertsitatearekin, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, MONDRAGON Unibertsitatearekin, Erasmus programekin eta MONDRAGON Linguarekin.
- Akordio eta hitzarmenetan: Erkiderekin (finantza-abantailak enpresa kideetako bazkideentzat), FCTCrekin (Kataluniako Lan Kooperatiben Federazioarekin) eta CEPESekin sinatu ditugu, kapital-ekarpenak finantzatzeko eta kooperatibistentzako finantza-abantailak emateko.
- Beste entitate batzuekin egindako akordio eta hitzarmenetan: KOI, Elkargi.

Hitzarmenak eta lankidetza administrazio publikoekin

Urteko Txosten honetan azaldu dugunez, LABORAL Kutxak administrazio publikoekin batera jarduten du, finantzaketa-lineak lehentasunezko baldintzetan irekitzeko ekintzaile, autonomo nahiz enpresentzat, edo etxebizitzak birgaitzeko. Gainera, ETE-ei finantzaketa egokiagoa eskaintzen die, elkar bermatzeko sozietateekin (EBSekin) egindako hitzarmen edo kreditu-lineen bidez. Horietako batzuk gure webgunean kontsulta ditzakezu:

- Enpresentzat: https://www.laboralkutxa.com/eu/enpresak/finantzatu-inbertsioak/
- Negozio eta profesionalentzat: https://www.laboralkutxa.com/eu/enpresak/
- Gizarte-ekonomiako enpresentzat: https://www.laboralkutxa.com/eu/enpresak/finantzatu-inbertsioak/
- Laguntzak: https://www.laboralkutxa.com/eu/enpresak/

Elkartasunezko txartelak

Bezeroek elkartasunezko txartelak erosketetan erabiltzeagatik LABORAL Kutxak lortzen dituen diru-sarreren zati bat hauei ematen die Entitateak: Medicus Mundiri, Cáritasi eta Ikastolen Elkarteari. Zenbateko hauek ematen ditu urtero:

- Txartel titular bakoitzeko, urtearen amaieran: 2,5 euro urtean edo 1 euro urtean onuradun bakoitzeko.
- Erosketetako fakturazioagatik: Jasotako diru-sarreren % 20.

Elkartasunezko txartelengatik emandako zenbatekoa	2022	2023
• Medicus Mundi	24.567	24.788
• Cáritas	3.490	3.565
• Ikastolak	26.935	27.580
Dohaintza guztira (eurotan)	**54.992**	**55.934**

GKE-en asegurua

LABORAL Kutxak GKE-ei zuzendutako aseguru bat du, erakunde horiei estaldura eta baldintza bereziak eskaintzeko, bi polizaren bidez:

- Istripu-poliza. Boluntarioak estaltzen ditu GKE-en jarduerak betetzen ari direnean, in itinere arriskua (beharrezko joan-etorrietakoa) barne.
- Erantzukizun zibileko poliza. Boluntarioen ohiko jardueretan hirugarrenei edo erakundekoak ez diren ondasunei eragindako kalteen erreklamazioa estaltzen du. 2023an, 36 elkarte eta 716 aseguratu estaltzen ditu aseguru horrek.

Enpresak sortzeko laguntza. Mondragon taldea

Kreditu-inbertsioaren bidez finantzatzeaz gain, LABORAL Kutxak garatzen laguntzen die Mondragoneko kooperatibei. Horretarako, bere emaitzetatik etorritako funtsak ematen ditu, lanpostu berriak sortzeko eta daudenak finkatzeko helburuarekin. Ekarpen horiek hauetara bideratzen dira:

- *MONDRAGON fundaziora,* helburu hauetarako, besteak beste:
    - Kooperatibek sustatutako 14 ikerketa-zentroen garapena finantzatzea.
    - Kooperatiben garapen-proiektuak finantzatzen laguntzea, hala Espainiako estatuan nola atzerrian.
    - *Mondragon Taldearen korporazio-zentroa*

Mondragon talderako ekarpenak (mila eurokotan)	2022	2023
MONDRAGON Inversionesi egindako ekarpena	5.143	-
MONDRAGON S. Coop. sozietateari egindako ekarpena	5.633	-
MONDRAGON Fundazioari egindako ekarpena	6.772	24.959
Ekarpenen batura	**17.548**	**24.959**
MONDRAGONeko enpresetako inbertsioa (zirkulatzailea, egiturazkoa eta sinadura)	346.392	312.196

ESG irizpidedun finantzaketa/inbertsioa

Inbertsio- edo finantzaketa-proiektuak hautatzerakoan, gizartearen, ingurumenaren eta gobernu korporatiboaren alorretako irizpideak aplikatzen dituena da ESG irizpidedun inbertsioa. LABORAL Kutxak urteak daramatza arlo horretan lanean, eta esklusio-irizpide batzuk ditu ezarrita, jarduera sentikorretan inbertitzea edo halakorik finantzatzea saihesteko. Esklusio-irizpide horiek gai hauei eragiten diete: jokoari, pornografiari, tabakoari, armei eta ikatzari.

Horrez gain, finantzaketari dagokionez, ICMAren (International Capital Market Associationen), Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJHen) eta EBko jardueren taxonomiaren araberako Finantzaketa Jasangarriaren Esparrua ezarri zen 2022an. Bertan, LABORAL Kutxarentzat finantzaketa jasangarria zer den zehazten da. Hau da, zer baldintza bete behar dituen finantzaketak jasangarritzat hartzeko ingurumenaren edo gizartearen aldetik.

Irizpide horiek zehaztu ondoren, Entitateak emandako eragiketarik garrantzitsuenak aztertu dira. Hala, LABORAL Kutxak 2023an egindako eragiketa garrantzitsu guztietatik, % 55ek gizarte-ezaugarriak ditu, eta % 12k ingurumen-ezaugarriak.

2023KO ERAGIKETA HANDIEN FINANTZAKETA



Eragiketak ingurumenaren eta gizartearen arloetan sailkatzeaz gain, LABORAL Kutxaren Finantzaketa Jasangarriaren Esparruan eremu horietako bakoitzerako zenbait partida zehazten dira. Ingurumenaren eremuan sartu dira: mugikortasun jasangarria, energia berriztagarriak, biodibertsitatea eta nekazaritza ekologikoa, ekonomia zirkularra eta etxebizitza berdea. Gizartearen eremuak, berriz, atal hauek hartzen ditu: gizarte-ekonomia, gizarteratzea, etxebizitza eskuragarria, inklusio ekonomikoa eta finantzaketa publikoa. Azkenik, ESG linked maileguen prezioa jasangarritasunarekin lotutako zenbait adierazleren menpe dago, eta ildo horretan ezarritakoa betetzen ez bada, interes-tasa handitu egiten da. Honako hauek dira partida bakoitzaren datuak:

Ingurumen-finantzaketa		Gizarte-finantzaketa		Bestelakoak	
Mugikortasun jasangarria	6.550.850	Inklusio ekonomikoa	335.902.860	ESG linked	5.580.000
Energia berriztagarriak	58.737.208	Finantzaketa publikoa	111.000.000		
Biodibertsitatea eta nekazaritza jasangarria	30.875.853	Gizarte-ekonomia	207.707.201		
Ekonomia zirkularra eta hondakinen gestioa	5.874.002	Gizarte-inklusioa	52.978.050		
Etxebizitza berdea	55.614.396	Etxebizitza eskuragarria	3.250.000		

Inbertsioaren aldetik, Jasangarritasuna Kudeatzeko Planak lan-ildo batzuk hartzen ditu aintzat:

- Bezeroaren egokitasunari buruzko galde-sortak egokitu dira, MiFID II arauari jarraikiz. Egokitzapen horrek aukera ematen du bezeroek jasangarritasunaren aldetik dituzten lehentasunak ebaluatzeko.
- Inbertsio-funtsak egokitu dira, bezeroek jasangarritasunaren aldetik dituzten lehentasunekin bat etor daitezen eta horiei erantzuna eman diezaieten. Gehienetan, aldatu egin dira 6. artikulutik 8.era.
- ESGaren alorreko finantzaketa-, inbertsio-, eta aseguru-politika onartu da.
- Plantillari prestakuntza emateko ahalegina egin da urtean zehar.
- 2023an indartu egin da *LK Konpromiso FI* inbertsio-funtsaren eskaintza. Funts etikoa eta solidarioa da, eta horren inbertsioetan kontrolak erabiltzen dira, ingurumenari, gizarteari eta gobernu korporatibo onari lotutako irizpideen aplikazioa neurtzeko. Funts solidarioa da,

bezeroei kobratzen dien gestio-komisioaren zati bat sei GKEri ematen baitie LABORAL Kutxak (bezeroak aukeratzen du 6 horietatik zeini). 2022an, aholkupeko zorroei erantsi zitzaien funts hori. Hori dela eta, aktiboki gomendatzen zen, eta nabarmen handitu ziren gestionatutako saldoen bolumena eta komisio-lagapenak. Era berean, GKE onuradunen kopurua 3tik 6ra handitu zen.

Ekarpenak	2022	2023
MEDICUS MUNDI	99.915	120.652
MUNDUKIDE	95.203	117.198
CÁRITAS	63.910	80.211
GURUTZE GORRIA	1.222	11.117
UNICEF	1.183	9.502
INTERMON-OXFAM	689	5.638
GUZTIRA	**262.122**	**344.318**

Produktu eta zerbitzu ingurumenarekiko arduratsuak

Ingurumena hobetzen laguntzeko estrategiarekin bat, klima-aldaketa moteltzen laguntzen duten produktu eta zerbitzuak ditu LABORAL Kutxak. Urteko Txosten honetan, horien xehetasunak eman ditugu, bai eta horiek indartzeko abian diren proiektuenak ere.

	2022		2023	
	Kop.	Mila €-kotan	Kop.	Mila €-kotan
Mikrokredituak	988	16.631	965	18.595
Mailegu pertsonala	201	475	5.312	38.729
Hipoteka-mailegua	38	2.114	489	70.422
Erkide mailegua	61	726	30	287
FCTC mailegua	-	-	-	-
CEPES/ASLE mailegua	7	91	1	6
Hipoteka-moratoria	-	-	64	211
Jabeen erkidegoei emandako birgaitze energetikorako maileguak	35	4.179	34	5.709
Eguzki-plakak	-	-	-	1.145
EKO mailegu pertsonala	-	-	97	1.277

Hauxe da hitzarmenek 2022an eta 2023an izan duten bolumena:

Erakunde publikoa (mila €-kotan)	Formalizatutako eragiketa-kopurua		Formalizatutako zenbatekoa		12-31ko saldo erabilia	
	2022	2023	2022	2023	2022	2023
KOI	336	112	55.336	28.439	397.404	27.393
Eusko Jaurlaritza + Elkargi	0	0	-	0	172.172	133.372
Nafarroako Gobernua + Sodena	0	0	-	0	27.079	19.243
EIF. Horretatik:	44	0	9.703	0	35.336	22.708
• EaSI Soziala	17	0	2.972	0	12.851	9.335
• Innovfin	27	0	6.731	0	22.485	13.373
EaSI Micros II	988	768	16.631	13.728	44.302	39.404
EIF Invest EU mikrokredituak	-	197	-	4.867	-	4.812
Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiak	0	0	-	0	261	199
Luzaro	40	36	3.605	5.770	14.877	19.126
Beste hitzarmen batzuk	0	0	0	0	0	0
Maileguak + Leasinga	**1.452**	**1.113**	**94.978**	**52.804**	**726.767**	**288.965**
EBSekin (Elkargi, Iberaval, Sonagar, Oinarri...)	407	390	73.221	76.787	404.930	378.111
EBSrik gabe (KOI, Europako Inbertsio Funtsa...)	1.415	1.081	87.518	48.549	532.344	427.201
Mailegu + Leasing bermatuak	**1.822**	**1.471**	**160.739**	**125.246**	**937.274**	**805.312**

Kanal berrien erabiltzaileak diren bezeroak	2022	2023
CLNet kontratuen kopurua	744.441	772.532
CLNeteko bezero aktiboak	541.654	574.413
Banka Mugikorra (mugikorraren bidez sartu diren erabiltzaileak)	488.786	505.216
Alertak (kontratu aktiboak)	409.839	462.301
Bizum	345.981	367.209

Bezeroei informazioa igortzeko zerbitzu elektronikoa

Bezeroei informazioa bidaltzeko LABORAL Kutxaren Postamail zerbitzua goraka doa etengabe. Zerbitzu horrek, bezeroei kontuen laburpenak eta egiaztagiriak posta elektronikoz bidaltzean oinarritzen denez, paper-kontsumoa gutxitzen laguntzen du. Aurreko urteko erabiltzaileen kopurua handitzea da urteko helburua; horregatik, bulego-saretik etengabe azaltzen dira zerbitzu horren nondik norakoak.

Postamailen erabiltzaileak	2022	2023
Erabiltzaile-kopurua	624.493	638.720
Bezero guztietatik erabiltzaile direnen %-a	% 55,6	% 56,9

Finantza-zerbitzuetarako irisgarritasuna

Udalerri txikiak

Finantza-sektorearen erronka berrien ondorioz sare komertziala arrazionalizatzeko gauzatu dugun prozesuan, herri nahiko txikietan finantza-bazterketa saihesteko ahaleginak egin ditugu. Helburua da urte askoan presentzia izan dugun landa-udalerriak edo biztanle gutxiko udalerriak zerbitzurik gabe ez uztea. Horrela, bada, errentagarritasun txikikoak izan arren, bulegook ez ditugu ixten, eta, horretarako, neurri batzuk hartzen ditugu, hala nola asteko egun jakin batzuetan irekitzea.

Oztopo arkitektonikoak eta irisgarritasuna

Gero eta bulego irisgarriagoak izatearren, bulegoak arkitektura-oztoporik gabeko eremuez hornitzeko konpromisoa du LABORAL Kutxak. Lokalaren ezaugarri fisikoek ahalbidetzen dutenean bulegoetan egiten diren esku-hartze guztietan, irisgarritasuna hobetzea da helburua. Beraz, arkitektura-oztopoak kentzen dira eta irisgarritasun-araua bete. Urte asko daramatzagunez esku-hartzeok egiten, gaur egun oso lantoki gutxi geratzen dira irisgarritasun-arazoren batekin.

2023an, bulego-eredu fisiko berria ezartzen jarraitu dugu. Eredu berri horretan, irisgarritasunari eman zaio lehentasuna, bai bulego barruan, oztopo arkitektonikoak ezabatuz, bai espazioen tipologia osoan, kutxako transakzio-eremuari espazio berezi bat emanez, mugikortasun murriztua duten pertsonei arreta eskaintzeko. Bulegora sartzeko, ate automatikoen sistema bat ezarri da, edonori sarbidea errazteko (ateak irekitzeko ez dago ezer manipulatu beharrik), eta, gainera, botoien sistema touchless da, hau da, ez dago zertan botoiak ukitu, kutxazainaren barrura sartzeko atea blokeatu eta desblokeatzeko. Kanpoko kutxazainak ere ipini dira.

Irisgarritasun integrala

Ilunionek (ONCE taldekoak) irisgarritasunaren diagnostiko integrala egin zuen 2022an. Irisgarritasun fisikoa zein kognitiboa izan ditu kontuan diagnostikoak, eta hauek hartu ditu barne:

- Kanal fisikoa: bulegoen analisia.

- Telefono bidezko kanala eta back officea (SMS, WhatsApp, posta elektronikoa).
- Online kanala (webgunea eta aplikazioak).
- Produktua: kutxazain automatikoen analisia.
- Zerbitzuak (hipoteka eta kontuak irekitzea).
- Bezeroarentzako Arreta Zerbitzu integrala: kanal, produktu eta zerbitzu guztietako erabiltzaile-esperientzia.

Diagnostikoaren txostenak eta dagozkien hobekuntza-planak jaso ondoren, 2023an, taldeek neurriak katalogatzea eta lehenestea proposatu dute. Proiektu horrek **Irisgarritasuna 360** du izena, eta haren baitako ekintzak datozen urteotan hedatuko dira, irisgarritasuna LABORAL Kutxaren bereizgarria izan dadin. Ezarri diren ekintzetako batzuk:

- Irisgarritasunaren inguruko trebakuntza, proiektuan inplikatuta dauden pertsona guztientzat.
- Bezeroaren arreta-zerbitzuko langileentzako prestakuntza-jarduera diseinatzea, desgaitasuna duten pertsonei arreta eskaintzeko jarraibideak, komunikazioa eta irisgarritasuna lantzeko.
- Ateetako/paramentuetako beirak biniloz seinaleztatzea.
- Desgaitasuna duten pertsonen ebakuaziorako berariazko larrialdi-plana berrikustea.
- Pertsonalizatutako hipoteka-eskaintza komertzialeko dokumentu ulergarriagoa/eskuragarriagoa sortzea bezeroentzat.
- Online banka berriaren diseinuan gomendatutako jarraibideak kontuan hartzea (tamainei, koloreei eta abarri dagokienez).

Interneten eta telefono mugikorraren bidezko sarbidea. Banka multikanala

LABORAL Kutxaren ustetan, estrategikoa da jarduera digitalizatzen jarraitzea. Lehiakortasuna handitzeko ez ezik, ezinbestekoa da irisgarritasuna eta bezeroentzako komunikazio-bideak eta zerbitzua hobetzeko ere.

Etengabea da urruneko bankatik emandako erantzunen hazkundea:

Eragiketak	2022	2023
Jasotako deiak	375.053	452.917
Egindako deiak	74.497	87.527
WhatsApp	65.458	80.753
Mezu elektronikoak	31.227	55.586
Txartelen iruzurrari buruzko alertak	34.369	56.163

Finantza-kultura

LABORAL Kutxak **sare sozialak** erabiltzen jarraitu du, finantza-kultura sortu eta kooperatibismoari buruzko ezagutza indartzeko. Hala, Entitatearen blogean (bloga.laboralkutxa.com) interes orokorreko 92 artikulu erantsi ditugu, horietatik 69 finantza-kultura eta -gaurkotasuna hobetzen laguntzeko helburuarekin. Horrela, formatu errazean eta irisgarrian, finantza-kulturari buruzko edukiak eta gizarte-erantzukizunarekin zerikusia dutenak tartekatzen dira. Hona hemen batzuk: finantza etikoak, aseguruen betebeharrezkotasuna, zerga-berritasunak, enpresak nola sortu eta abar.

Martxan da aholkularitza eta laguntza eskaintzen duen **LK Next** zerbitzua: bulego teknikoko aholkularitza zerbitzuak 27 hilabete daramatza abian, eta epe horretan 600 laguntza-eskaera jaso ditu guztira. Gehienak (% 45) laguntzailearen bidez jaso dira, batez ere zerbitzua martxan jarri eta lehenengo hilabeteetan. Bulego teknikoa finkatu denean eta laguntza espezifikoekin —

Kit Digitala, energia-autohornikuntza eta -biltegiratzea, ibilgailu-flotak berritzea…— lotutako komunikazio-kanpainak egin ondoren, eskaerak Laboral Nexten posta elektronikotik (% 29) edo gestoreen bitartez (% 23) bideratu dira batez ere.

Informazio-eskaeren % 84 mikroenpresetatik edo enpresa txikietatik dator, eta % 4 soilik enpresa ertainetatik. Enpresa handien aldetik ez da eskaerarik jaso.

2023. urtean, LKS Nextekin, Afi-rekin eta LKren Ikerketa Departamentuarekin batera online saioak egin dira, autonomo, negozio eta enpresentzat. Ikusi gertaera bakoitzaren xehetasunak biltzen dituen taula.

Data	Web-mintegiaren izenburua	Balorazioa
01/27	Autokontsumorako eta energia biltegiratzeko laguntzak, EiDF eta LKrekin batera	8,29
03/24	Industria-sektorerako laguntzak	7,87
07/05	Aurreikuspen ekonomikoei buruzko txostena	8,74
07/14	Next Generation Funtsak: nola eskuratu 2023tik aurrera?	8,6

Bestalde, hilean behin, **bideo** bat egiten da (Afi, Analistas Financieros Internacionalesen laguntzarekin), egoera ekonomikoa eta finantza-merkatuen egoera aztertzeko. Bideo hori posta elektronikoz igortzen zaie Banka Pertsonaleko eta Premium Bankako bezeroei, eta CLNeten ere ezartzen da. Bestalde, hiru hilean behin infografia bat bidaltzen zaie BPko eta Premium multzoko bezeroei, zorroen posizionamenduarekin eta osaerarekin. Bertan, amaitutako hiruhilekoko datu makroekonomiko eta merkatuetako gertaera nagusiak jasotzen dira, bai eta gure posizionamendua eta Banka Pertsonaleko zorroen osaera ere.

3.2. Plantillarekiko harremanak

3.2.1. Gestio-ikuspegia

LABORAL Kutxaren eta bere langileen arteko zuzeneko jarduerari dagokionez, kooperatibaren forma juridikoa *Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala* inspiratzen duten printzipioen asmo handiko garapena da; hain zuzen, gizaki guztiak duintasun eta eskubide berak dituztela dioen printzipioarena.
Izan ere, egitura kooperatiboak berekin dakar enpresan lan egiten duten pertsonak bazkideak izatea, eta, beraz, eskubide eta betebehar berak izatea, ezagutzak edo hierarkian duten egoera edozein izanda ere. Pertsona guztiek eskubide eta betebehar berak dituzte, denek hartzen baitute parte enpresa-jardueraren arriskuetan eta irabazietan.
Eta lankidetzaren kontzeptua gure gizartearekiko konpromisora ere zabaltzen da. *Gurea banka kooperatiboa da, eta, gidari dituen balioei eta filosofiari jarraituz, guztion interesa lehenesten dugu norberaren interesaren aurrean, erabakiak parte-hartzean oinarrituz eta arduraz hartzen ditugu eta gure mozkinak gizartean inbertitzen ditugu*.

Pertsonen arloan, giza eskubideak urratzearekin lotutako arriskurik handienak ustelkeriarekin eta laneko jazarpenarekin lotuta daude.

- Ustelkeriari dagokionez, ikusi Gobernu Korporatiboa, 1. atalean.
- Laneko jazarpenari dagokionez, adierazi behar da arazo horrek eragin kuantitatibo txikia duela, baina eragin handia izan dezakeela horrelako egoera batean egon daitezkeen pertsonengan. Prozeduretan, badago *Laneko jazarpen-egoeretan jarduteko protokolo* bat, 2015-0-31n eguneratua. Antolakuntzaren aldetik, *Ikerketa Batzorde* bat dago, eta bertan *salaketen kanal* berezi bat. Protokoloak jazarpen morala (*mobbing* esaten zaiona), sexuala eta sexista aurreikusten ditu. 2022an eta 2023an ez da salaketarik eta kontsultarik jaso salaketen kanal horretan.

Gure finantza-jarduerak, jardunaren eremu geografikoak eta jabetza-egiturak eragotzi egiten dute Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko hitzarmenetako xedapenak urratzea.

Seguros Lagun Arok ere badu sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako protokoloa. Horrelako egoeretan erreklamazioak eta salaketak ebazteko jarduera-prozedura arautzen du, eta prebentzio-mekanismoak ezartzen ditu, sentsibilizazioaren, prestakuntzaren eta informazioaren bidez. Protokoloa 2023an eguneratu da, indarrean den araudiaren arabera. Era berean, Entitatearen salaketen kanala gestionatzeko tresna ezarri da. Salaketek barne hartzen dute jazarpen sexual eta morala ere. Tresna horrek anonimotasuna eta konfidentzialtasuna bermatzen ditu, eta ahotsez egindako salaketak bidaltzeko aukera ematen du. Konpainiako pertsonek eta kanpoko hirugarrenek erabil dezakete. Kanal horrek ez du ez salaketarik ez kontsultarik jaso 2022an eta 2023an.

3.2.2. Plantillaren magnitude nagusiak

LK-ko bazkideen plantilla, sexuaren eta kategoria profesionalaren arabera*	2022				2023			
	Gizonak		Emakumeak		Gizonak		Emakumeak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Zuzendariak	31	% 1,81	11	% 0,64	31	% 1,68	11	% 0,60
Buruak	195	% 11,36	115	% 6,70	198	% 10,73	120	% 6,50
Teknikariak	317	% 18,47	419	% 24,42	378	% 20,49	505	% 27,37
Administrariak	110	% 6,41	206	% 12,00	122	% 6,61	207	% 11,22
Bestelakoak	168	% 9,79	144	% 8,39	155	% 8,40	118	% 6,40
Guztira	821	% 48	895	% 52	884	% 48	961	% 52
Jarduneko bazkideak	1.716				1.845			

*Lanbide-talde bakoitzean, kategoria hauek sartzen dira:

- Zuzendariak: zuzendari nagusia, area-zuzendaria, lurralde-zuzendariak, departamentu- eta zona-zuzendariak.
- Buruak: sekzio-buruak, zona-buruak eta bulego-zuzendariak (partikularren eta enpresen bulegoetakoak).
- Teknikariak: Zerbitzu Zentraletako teknikariak, bulegoko arduradunak eta teknikariak (gestore komertzialak).
- Administrariak: 1. mailako ofizialak, 2. mailako ofizialak, administrari laguntzaileak eta langileak.
- Bestelakoak: ZEEBZ.

LK-ko langileak, adinaren arabera	2022						2023					
	Bazkideak			Gainerakoak			Bazkideak			Gainerakoak		
	G	E	Guztira	G	E	Guztira	G	E	Guztira	G	E	Guztira
30 urtera artekoak	34	36	70	71	78	149	83	84	167	54	51	105
31 eta 40 urte artekoak	71	176	247	6	9	15	63	167	230	12	10	22
41 eta 50 urte artekoak	382	422	804	10	6	16	360	395	755	12	7	19
51 eta 60 urte artekoak	321	257	578	3	0	3	367	312	679	6	0	6
60 urtetik gorakoak	13	4	17	0	0	0	11	3	14	0	0	0
Langileak guztira	**821**	**895**	**1.716**	**90**	**93**	**183**	**884**	**961**	**1.845**	**84**	**68**	**152**

	2023*		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Bekadunak	25	12	13

*2023ra arte ez zen informazio hau jasotzen.

CLBSko langileak, sexuaren, kategoria profesionalaren eta negozio-arearen arabera	2022				2023			
	Gizonak		Emakumeak		Gizonak		Emakumeak	
	Kop.	%-a	Kop.	%-a	Kop.	%-a	Kop.	%-a
Zuzendariak	0	% 0	0	% 0	0	% 0	0	% 0
Buruak	7	% 5,8	1	% 0,8	7	% 6,2	1	% 0,8
Teknikariak	0	% 0	0	% 0	0	% 0	0	% 0
Gestore komertzialak	28	% 23,3	84	% 70	25	% 22,1	80	% 71
Langileak guztira	35	% 29,2	85	% 70,8	32	% 28,3	81	% 71,7
Zerbitzu Zentralak	1	% 0,8	0	% 0	1	% 0,9	0	% 0
Merkataritza Sarea	34	% 28,3	85	% 70,8	31	% 27,4	81	% 71,7
Langileak guztira	35	% 29,2	85	% 70,8	32	% 28,3	81	% 71,7
Langileak guztira	120				113			

CLBSko langileak, adinaren arabera	2022			2023		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
30 urtera artekoak	7	3	10	4	2	6
31 eta 40 urte artekoak	1	5	6	1	3	4
41 eta 50 urte artekoak	8	34	42	8	31	39
51 eta 60 urte artekoak	19	43	62	19	44	63
60 urtetik gorakoak	0	0	0	0	1	1
Langileak guztira	35	85	120	32	81	113

Lagun Aroko langileak, sexuaren eta kategoria profesionalaren arabera	2022				2023			
	Gizonak		Emakumeak		Gizonak		Emakumeak	
	Kop.	%-a	Kop.	%-a	Kop.	%-a	Kop.	%-a
Zuzendariak	4	% 2	3	% 2	4	% 7	3	% 2
Buruak	16	% 9	14	% 8	15	% 25	14	% 11
Teknikariak	36	% 21	52	% 30	37	% 63	56	% 46
Administrariak	2	% 1	47	% 27	3	% 5	50	% 41
Langileak guztira	58	% 33	116	% 67	59	% 32	123	% 68

Lagun Aroko langileak, adinaren arabera	2022		2023	
	G	E	G	E
30 urtera artekoak	5	3	6	7
31 eta 40 urte artekoak	5	5	4	8
41 eta 50 urte artekoak	14	51	13	47
51 eta 60 urte artekoak	30	53	32	56
60 urtetik gorakoak	4	4	4	5
Batura	**58**	**116**	**59**	**123**
Langileak guztira	**174**		**182**	

LKrekiko kontratu-harremana (12-31n)	2022			2023		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Jarduneko bazkideak	1.716	821	895	1.845	884	961
Eszedentziak	46	9	37	22	6	16
Zerbitzu-eginkizunak	16	5	11	18	6	12
Aurre-erretirodunak	119	70	49	69	34	35
Sozietate-kontratuak	1.897	905	992	1.954	930	1.024
Behin-behinekoak lanaldi osoan	143	68	75	107	52	55
Behin-behinekoak lanaldi partzialean	2	1	1	3	1	2
Aldi baterako kontratuak	145	69	76	110	53	57
Kontratu mugagabeak	38	21	17	42	31	11
Langileak guztira 12-31n	2.080	995	1.085	2.106	1.014	1.092

CLBSrekiko kontratu-harremana (12-31n)	2022			2023		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Aldi baterako kontratuak	12	5	7	7	4	3
Kontratu mugagabeak	108	28	80	106	28	78
Langileak guztira 12-31n	120	35	85	113	32	81

LArekiko kontratu-harremana (12-31n)	2022			2023		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Aldi baterako kontratuak	2	0	2	6	0	6
Kontratu mugagabeak	172	58	114	176	59	117
Langileak guztira	174	58	116	182	59	123

LKrekiko kontratuak adinaren arabera, 12-31n	2022						2023					
	Guztira	30 urtera artekoak	31-40	41-50	51-60	> 60	Guztira	30 urtera artekoak	31-40	41-50	51-60	> 60
Jarduneko bazkideak	*1.716*	*70*	*247*	*804*	*578*	*17*	1.845	167	230	755	679	14
Eszedentziak	*46*	*1*	*24*	*14*	*6*	*1*	22	1	4	11	5	1
Zerbitzu-eginkizunak	*16*	*0*	*4*	*7*	*5*	*0*	18	1	4	8	5	0
Aurre-erretirodunak	*119*	*0*	*0*	*0*	*91*	*28*	69	0	0	0	50	19
Sozietate-kontratuak	**1.897**	**71**	**275**	**825**	**680**	**46**	1.954	169	238	774	739	34
Behin-behinekoak lanaldi osoan	*143*	137	6	0	0	0	107	100	6	1	0	0
Behin-behinekoak lanaldi partzialean	*2*	2	0	0	0	0	3	3	0	0	0	0
Aldi baterako kontratuak	**145**	**139**	**6**	**0**	**0**	**0**	110	103	6	1	0	0
Kontratu mugagabeak	*38*	10	9	16	3	0	42	2	16	18	6	0
Langileak guztira	**2.080**	**220**	**290**	**841**	**683**	**46**	2.106	274	260	793	745	34

Plantilla, lantokiaren arabera – LK	2022				2023			
	Bazkideak	Inoren kont.	Emak.	Gizon.	Bazkideak	Inoren kont.	Emak.	Gizon.
Zerbitzu Zentralak	429	23	235	217	501	17	256	262
Partikularrak	26	0	12	14	26	0	13	13
Aseguruak	73	0	50	23	81	2	56	27
Enpresak	90	7	27	70	93	7	27	73
1. lurral. sar.	506	106	367	245	536	79	370	245
2. lurral. sar.	592	47	297	342	608	47	307	348
Guztira 12-31n	1.716	183	988	911	1.845	152	1.029	968

Plantilla, lantokiaren arabera – Lagun Aro	2022*				2023			
	Bazkideak	Inoren kont.	Emak.	Gizon.	Bazkideak	Inoren kont.	Emak.	Gizon.
Zerbitzu Zentralak	-	-	-	-	151	6	109	48
Bitartekotza Sarea	-	-	-	-	25	0	14	11
Guztira 12-31n	-	-	-	-	176	6	123	59

*Informazio hau 2023an hasi da jasotzen.

Lan-bazkideen bajak eta urteko errotazioa LABORAL Kutxan	2022	30 urtera artekoak		31 eta 40 urte artekoak		41 eta 50 urte artekoak		51 eta 60 urte artekoak		60 urtetik gorakoak	
		E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
Urteko bajak:	**98**	**1**	**0**	**19**	**0**	**5**	**2**	**22**	**27**	**3**	**6**
Borondatezko eszedentzia eta kargu publikoa betetzeagatikoa	9	-	-	-	-	4	1	2	2	-	-
Seme-alabak edo senitartekoak zaintzeko eszedentzia	25	1	-	19	-	4	1	-	-	-	-
Erretiroa	9	-	-	-	-	-	-	-	-	3	6
Heriotza eta baliaezintasuna	2	0	0	0	0	1	0	1	0	0	0
Borondatezko baja	6	1	-	-	2	-	1	-	1	-	1
Zerbitzu-eginkizunak	0	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Aurre-erretirodunak	47	-	-	-	-	-	-	22	25	-	-
Zuzendarien irteera-tasa	% 16,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 20,00	% 27,27	% 0,00	% 0,00
Buruen irteera-tasa	% 3,66	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 2,50	% 0,00	% 12,90	% 6,67	% 0,00	% 0,00
Teknikarien irteera-tasa	% 4,13	% 0,00	% 0,00	% 8,20	% 3,28	% 2,25	% 0,58	% 9,09	% 6,41	% 0,00	% 0,00
Administrarien eta beste batzuen irteera-tasa	% 8,73	% 28,57	% 0,00	% 19,05	% 0,00	% 2,56	% 0,00	% 12,73	% 7,14	% 75,00	% 60,00
Irteera-tasa	% 8,13	% 7,14	% 0,00	% 6,81	% 0,82	% 1,83	% 0,15	% 13,68	% 11,87	% 18,75	% 15,00

(*) Irteera-tasa ateratzeko, urteko baja-kopurua eta aurreko urtearen amaieran lanean zihardutten bazkideen kopurua hartzen dira oinarri. Zonakako bajak nahiz bazkideen errotazioa ez dira jaso, modu agregatuan aztertzen baitira.

Lan-bazkideen bajak eta urteko errotazioa LABORAL Kutxan	2023	30 urtera artekoak		31 eta 40 urte artekoak		41 eta 50 urte artekoak		51 eta 60 urte artekoak		60 urtetik gorakoak	
		E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
Urteko bajak:	**86**	**2**		**16**		**8**	**2**	**1**	**1**	**16**	**40**
Borondatezko eszedentzia eta kargu publikoa betetzeagatikoa	3					3					
Seme-alabak edo senitartekoak zaintzeko eszedentzia	21	1		16		3	1				
Erretiroa	6									2	4
Heriotza eta baliaezintasuna	2					1		1			
Borondatezko baja	4	1				1	1		1		
Zerbitzu-eginkizunak											
Aurre-erretirodunak	50									14	36
Zuzendarien irteera-tasa											
Buruen irteera-tasa	% 0			% 7							
Teknikarien irteera-tasa	% 3	% 4		% 11		% 2	% 1			% 67	% 60
Administrarien irteera-tasa	% 2	% 14		% 8		% 1		% 1			
Irteera-tasa	% 2	% 6	% 6	% 11	% 0	% 2	% 1	% 0	% 0	% 50	% 27

2022an eta 2023an ez da nahi gabeko bajarik izan.

2023an, 23 emakumek (tartean 1 IKLk) eta 25 gizonek (tartean 2 IKLk) izan dute, eta erabili dute, amatasun- eta aitatasun-baimenak izateko eskubidea. Pertsona horien % 100 beren lanpostuetara itzuli da.

Bajak eta urteko errotazioa CLBSn	2022	30 urtera artekoak		31 eta 40 urte artekoak		41 eta 50 urte artekoak		51 eta 60 urte artekoak		60 urtetik gorakoak	
		E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
Urteko bajak:	23	3	3	3	1	1	1	5	2	3	1
Seme-alabak edo senitartekoak zaintzeko eszedentzia	1			1							
Erretiroa											
Heriotza eta baliaezintasuna	1					1					
Borondatezko baja	17	1	2	1	1		1	5	2	3	1
Kontratu-amaiera	4	2	1	1							

Bajak eta urteko errotazioa CLBSn	2023	30 urtera artekoak		31 eta 40 urte artekoak		41 eta 50 urte artekoak		51 eta 60 urte artekoak		60 urtetik gorakoak	
		E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
Urteko bajak:	12	3	5	1	1	1	0	0	0	1	0
Seme-alabak edo senitartekoak zaintzeko eszedentzia											
Erretiroa											
Heriotza eta baliaezintasuna											
Borondatezko baja	4	1	1	0	0	1	0	0	0	1	0
Kontratu-amaiera	8	2	4	1	1	0	0	0	0	0	0

Langileen bajak eta urteko errotazioa Lagun Aron	2022
Urteko bajak:	10
Borondatezko baja	4
Beste batzuk	6
Emakumeen urteko bajak	3
Gizonen urteko bajak	7
Irteera-tasa guztira *	**% 5,75**
Emakumeen irteera-tasa	% 2,59
Gizonen irteera-tasa	% 12,07

*Hauek izan dira irteerak: 30 urtetik beherako 2 langile eta 30 urtetik gorako 8.

Bajak eta urteko errotazioa Lagun Aron	2023	30 urtera artekoak		31 eta 40 urte artekoak		41 eta 50 urte artekoak		60 urtetik gorakoak	
		E	G	E	G	E	G	G	E
Urteko bajak:	6	1	1		1	1		1	1
Borondatezko eszedentzia eta kargu publikoa betetzeagatikoa									
Seme-alabak edo senitartekoak zaintzeko eszedentzia									
Erretiroa									
Heriotza eta baliaezintasuna									
Borondatezko baja	4	1	1		1	1			
Zerbitzu-eginkizunak	2							1	1
Aurre-erretirodunak									
Irteera-tasa guztira (*)	% 3,45								
Zuzendarien irteera-tasa									
Buruen irteera-tasa									
Teknikarien irteera-tasa	% 5,68								
Administrarien irteera-tasa	% 2,04								
Irteera-tasa	% 3,45								

LABORAL Kutxan, CLBSn eta Lagun Aron ez da kaleratzerik izan azken 2 urteetan.

Plantillan ez dauden langileak

LABORAL Kutxan, zenbait jarduera azpikontratek egiten dituzte. Laguntza-zerbitzuetako jarduerak izaten dira, hala nola garbiketarekin, mantentze-lanekin eta segurtasunarekin lotutakoak. Finantza-jarduerarekin lotura duen funtsezko eginkizun bakarra dago kanporatuta: urruneko bankaren telefono-zerbitzua, LANALDEN SA enpresak eskaintzen duena. Entitateko bezeroei telefono bidezko arreta emateaz gain, WhatsApp eta Txat kanalak eta harremanetarako helbide elektronikoa erabiliz erantzuten die.

2023-12-31n Lanaldeneko 49 langile (36 emakume eta 13 gizon) ari dira LABORAL Kutxarentzat lanean, kontratu mugagabearekin. Plantilla % 15 hazten da urtean, zerbitzuaren eskaera goraka ari baita.

3.2.3. Plantillarekiko elkarrizketak

Kreditu-kooperatiba garen heinean, bide ugari ditugu pertsonekin hitz egiteko:

- ✓ 2022an egin zen azken Barruko Bezeroaren Gogobetetasunari buruzko Inkesta (BBGI). Bi urtean behin egiten denez, hurrengoa 2024an egingo da. Inkestaren bidez, merkataritza-sareak Zerbitzu Zentraletatik jasotzen dituen zerbitzuen kalitatea baloratzen du, hobetzeko iradokizunak egiten ditu eta egokitzat jotzen dituen iruzkinak bideratzen ditu. Galde-sorta 472 pertsonari bidali zitzaien, eta % 53ko erantzun-indizea lortu zen. Inkestan bildutako balorazio kuantitatibo eta kualitatiboetan oinarrituta, hainbat hobekuntza-ekintza jarri dira martxan.
- ✓ Barne Iradokizunen Sistema. 2021etik eta 2023ko ekitaldia itxi bitartean, langileen 658 ekarpen bildu dira, eta horietatik 67 (% 10,2) ezarri dira.
- ✓ Funtsezko gobernu-organoetan parte hartzea eta erabakitzeko ahalmena izatea: Ohiko eta Ezohiko Batzarretan eta Kontseilu Errektorean, baita Plan Estrategikoak eta Gestio Planak lantzen ere.
- ✓ Negoziatzeko eta erabakitzeko ahalmen handiak dituen Kontseilu Sozialaren jarduera.
- ✓ Presidentearen eta zuzendari nagusiaren agerraldi bat pertsona guztien aurrean, egoeraren diagnostikoa eta hartzen diren neurriak ezagutarazteko. Horietan, pertsona guztiek dute hitz egiteko aukera, egoki deritzoten iradokizunak egin eta argibideak eskatzeko.
- ✓ Plantillaren bileren sistematika: «Laguntzaile-bilera – Giltza» arduradunen eta beraien taldeen artean.

Negoziazio kolektiboa

Kreditu Kooperatiben Hitzarmen Kolektiboa da erreferentzia orokorra. Dena den, LABORAL Kutxak Enpresaren Negoziazio Kolektiborako araua finkatu zuen 1996an, negoziazio kolektiborako eredu jakin bat ezartzeko.

Negoziazio kolektiboaren bidez, LABORAL Kutxako bazkide guztien lan-baldintzak ezartzen dira, bai eta horiek aplikatuko direla bermatzen duten berme sozialak ere. Prozesu horren emaitza dira LABORAL Kutxako bazkide guztien lan-baldintza orokorrei buruzko arauak eta prozedurak, aldeek (Zuzendaritza Kontseiluak eta Kontseilu Sozialak) eta pertsona guztiek bete beharrekoak.

Hauek dira 2023an zehar landu eta adostu diren gaiak:

- **Lanbide-jarduera aldez aurretik uzteko laguntza-plana** 1964an eta 1965ean jaiotako bazkideentzat.
- 2024-2029 aldirako **Aurrerakinak eguneratzeko** akordioa.
- **Mugikortasun Geografikoari buruzko Araudia** 5 urtez luzatzea.
- **Zerbitzu Zentraletarako, Premium Bankarako eta Enpresen Bankarako ordutegiei buruzko akordioa** 6 urtez luzatzea.
- **Onura sozialak** eguneratzea.
- **Barne-araudia** 5/2023 Errege Lege Dekretura egokitzea, guraso eta zaindari direnek familia eta lana bateragarri egiteko neurriak onartzen baititu.
- **Bartzelona**rako lekualdatzeak sustatzeko laguntzei eta konpentsazioei buruzko akordioa.

Urtero bezala, 2024an negoziatu beharreko gaien zerrenda trukatu dugu bi alderdiok, urteko negoziazio-prozesua amaitu ondoren.

Seguros Lagun Arok harreman etengabea eta erraza du langileen legezko ordezkaritzarekin. 2022an estatutuaren araberako hitzarmen berria negoziatu zen 2022-2025 aldirako.

Caja Laboral Bancaseguros SLU (CLBS) sozietateari dagokionez —LABORAL Kutxaren partaidetzapekoa da % 100ean—, bertako langile guzti-guztiak inoren kontura daude kontratatuta, eta 2021ean berritu zen hitzarmen kolektiboak eta lan-araudi orokorrak zehazten dituzte lan-baldintzak. Langileei zuzenean eragiten dieten lan- eta -lanbide-gaiak arautzen ditu hitzarmen horrek, eta lotura handia du LABORAL Kutxako lan-araudi eta -prozedurekin.

3.2.4. Plantillaren garapena

2023an asmo handiko **prestakuntza-planari** heldu diogu, helburu nagusi batekin: pertsonak trebatzen jarraitzea gure Core negozioaren arrakasta bermatuko duten ezagutza eta gaitasunetan. Gainera, aurrera jarraitu dugu Entitatea eraldatzea ahalbidetuko duten prestakuntza-ekimenekin, gero eta digitalagoa eta aldakorragoa den ingurunean etorkizunera begira beharrezkoak izango diren gaitasunak garatzeko; besteak beste, trebetasun digitalak, data-analytics, segurtasun digitala, AA, agile metodologiak, berrikuntza…

Horretarako, bi aldaketa egin genituen prestakuntza gestionatzeko sistemetan: batetik, prestakuntza-beharrak diagnostikatzeko metodologia eta ikuspegi berria —osoagoa eta segmentatua— ezarri genuen, eta bestetik, zeharkako gaien inguruko prestakuntza-plana landu genuen Entitate osoarentzat eta berariazko planak area bakoitzerako.

Horri guztiari esker, 2023an aurrera egin dugu erakundearen ikaskuntza-eredu arin eta dinamikoagoa ezartzeko bidean, non pertsonak gai izango garen une bakoitzean eskatzen diren gaitasun berrietara egokitzeko, eta ikasitako guztia gure lan-jarduerara eta negoziora transferitzen dela ziurtatuko dugun.

Ekitaldiko beste erronka nagusietako bat **pertsonen hautaketaren** eremuan landu dugu. Langileak erakarri eta hautatzeko gure politiken auditoretza egin ondoren, talentua erakartzeko eredu askoz proaktiboago baterantz abiatzen hasi gara. Horretarako, Talentu Marka proiektua diseinatu dugu, eta horren barruan lau lan-ildo zehaztu ditugu: Candidate Experience, Marka-irudia, Talentu-harrobia, eta Finantzak eta Teknologia (Fintech). Horrenbestez, erakarpen-erronkak bete ditugu bai Zerbitzu Zentraletan —batez ere Teknologia eta Analytics Arean— eta bai Bulego Sarea hedatzeko guneetan ere, bereziki Madrilen eta Bartzelonan.

Halaber, 2023an finkatu egin da Merkataritza Sareko pertsonei bideratuta dagoen **Onenak Bidean** garapen profesionalerako gure programa. Zehaztutako prozesua kalitate handiagoz gauzatzea lortu da: autobalorazio zehatzagoak egin dira, arduradunen eta laguntzaileen arteko elkarrizketa sakonagoak ahalbidetu dira, eta garapen-plan indibidualak hobeto zehaztu eta bulegoko funtsezko dinamiketara bideratu dira. Aurreko guztia, 1.282 pertsonaren parte-hartzeari eta 1.158 garapen-plan indibidual zehazteari esker lortu da.

Osasuna kudeatzeko **ZAINDUZ** programak askotariko ekimen berritzaileak plazaratu ditu, beste urte batez, osasuna sustatzeko. Nutrizioaren, jarduera fisikoaren eta ongizate emozionalaren ikuspegiak kontuan hartuta dihardu lanean. 2023an jende gehiagorengana iritsi nahi izan dugu, eta hala, 1.241 lagunek hartu dute parte martxan jarritako ekimenen batean, gutxienez.

Etengabe prestatzeko programak

LABORAL Kutxaren 2023ko prestakuntza-jarduera 510 ikastarotan eta 182.542 prestakuntza-ordutan gauzatu da.

Prestakuntza kudeatzeko 2023ko planaren lan-ildoak aurreko urteetako ezagutzak sendotzera bideratu dira, nagusiki. Merkataritza Sareari erreparatu zaio, batez ere proaktibotasun komertzialari. Alderdi hori sustatzeko helburuarekin, 3 prestakuntza-programa eskaini dira:

- FIDELIZA: gestore komertzialei zuzendutakoa. Proaktibotasun komertziala sustatzea izan du helburu, bai eta eragiketak ixtera jotzea; bideodeiaren bidez salmentak ixteko aukera azpimarratu da.
- CONTACTA +: Fideliza programa burutu duten pertsonei zuzendutakoa. Bideodeiaren bidez salmentak ixteko trebetasunen aplikazio homogeneoa lortzea izan du helburu; horretarako, agenda komertzialaren bidez, harremanen kopurua handitu dute.
- INTEGRA: bulego-zuzendariei zuzendutakoa. Merkataritzaren antolaketa eta proaktibotasuna sustatzea izan du helburu, eta horretarako, azken urteetan landutako proiektuak integratu ditu, besteak beste, Onenak Bidean eta Fideliza.

Bestalde, MiFID II zuzentarauaren, Higiezin Kredituko Kontratuen Legearen (HKKLaren) eta aseguruen inguruko ziurtagiria ez zuten pertsonei ziurtapena lortzen laguntzen jarraitu dugu; horretarako, MiFIDen alorreko etengabeko prestakuntzako 30 ordu, HKKLaren alorreko etengabeko prestakuntzako 10 ordu eta aseguruen alorreko etengabeko prestakuntzako 15/25 ordu diseinatu ditugu, eta eragindako kolektiboaren eskura jarri.

Azkenik, aipagarria da Lidergoari buruzko prestakuntza-jarduerak antolatu ditugula taldeetan ardura-postuak hartu dituztenentzat, eta Araudia Betearazteari eta zibersegurtasunari buruzkoak Entitateko pertsona guztientzat.

Prestakuntza LABORAL Kutxan eta CLBSn	**2022**	**2023**
Ikastaro-kopurua	526	510
Prestakuntza-orduak	196.613	182.542
Prestakuntza-orduak pertsonako	87,77	80,49
Bazkideak	86,47	82,03
Behin-behinekoak	107,48	67,69
Batez besteko prestakuntza-orduak kategoria profesionalaren arabera (banaka)		
Zuzendariak	71,53	55,71
Bulego-buruak eta -zuzendariak	95,84	76,30
Teknikariak	92,03	83,49
Administrariak	76,67	78,81

Prestakuntza-orduak	2022		2023	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Zuzendariak	83,14	65,89	49,09	57,63
Bulego-buruak eta -zuzendariak	100,49	91,22	78,41	75,05
Gestore komertzialak eta teknikariak	94,62	88,67	84,03	82,81
PGOak	76,98	76,32	79,81	77,47

Prestakuntza Seguros Lagun Aron	2022	2023
Prestakuntza-orduak	4.029	7.970
Emakumeak	1.988	4.572
Gizonak	2.041	3.398
Prestakuntza-orduak pertsonako	24,27	44
Zuzendariak	699	296
Bulego-buruak eta -zuzendariak	1.402	638
Teknikariak	1.509	6.977
Administrariak	419	60

Ikastaroetako partaideen proportzioa sexuaren arabera (emakumeak/gizonak), 1,14koa izan da 2023an, eta 1,15ekoa 2022an.
Prestatutako pertsonen ehunekoa % 100ekoa izan da 2023an, 2022an bezala.

Ustelkeriaren kontrako prozeduretako prestakuntza

Ustelkeriaren aurkako borrokarekin eta jokabide-kodearekin zerikusia duten eskuliburu eta prozedura guztiak intranetean daude, eta plantillaren % 100ek ditu eskura.

2016an «Delituzko portaerei aurrea hartzeko sistemak eta politikak» izeneko prestakuntza jarri zen abian, eta plantillaren % 96,4k egin du dagoeneko.

Era berean, 2023an araudia betearaztearekin lotutako bi prestakuntza-jarduera eskaini dira. Hain zuzen, honako hauek izan dira jarduerak eta horiek burutu dituzten pertsonen ehunekoak:

- Kapitalak zuritzeari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzea: % 90.
- DBEO Araudia Betearaztea: % 98,3.

Erretirora iritsi diren pertsonentzako prestakuntza

«Aktibatu zeure erretiroa» izeneko programa bat dugu LABORAL Kutxan. Berorren bidez, Entitateko jarduera utzi eta erretirora, aurre-erretirora edo aisialdira doazen pertsonak Zerbitzu Zentraletara deitzen dituzte egoera berrira begirako prestakuntza jasotzeko. Ikastaroa 3 jardunalditan egiten da, eta hainbat alderdi ukitzen ditu: aldaketaren gestioa eta harreman-osasuna, komunitate-partaidetza, alderdi juridikoak, jarduera fisikoa eta osasuna, elikadura osasungarria, teknologia berriak eta abar.

2023an ez da horrelako saiorik egin.

Pertsonen garapenaren gestioa – Bidean

Pertsonen garapena gestionatzeko sistema bat dago: BIDEAN. Sistema horrek pertsonak eta horien garapena ditu ardatz, eta pertsonak moldakorrak, ekimentsuak eta etengabe ikasteko gai izatea sustatzen du, bai eta autoexijentziaren, erantzunkidetasunaren eta lankidetzaren kultura ere. LABORAL Kutxaren gaitasunen katalogoa hartzen du erreferentzia gisa. Honako hauek dira sistema horren zutabeak:

- Pertsonak eta haien garapena ditu ardatz.
- Arduradunaren eta kolaboratzailearen arteko etengabeko elkarrizketari ematen dio garrantzia, eta etengabeko feedbacka sustatzen du.
- Sendotasunen eta garapen-aukeren inguruan egituratuta dago, eta etorkizunera begiratzen du.
- Etengabeko ikaskuntzaren eta autoikaskuntzaren dinamika txertatuta dauka.
- Autogestioari eta erantzunkidetasunari dagokienez, arina, erraza eta malgua da, eta gure garapenaren arduradun eta protagonista bihurtzen gaitu.

Sistema horri esker, antolamendu-potentziala identifikatu eta ahalduntzeko eta garatzeko testuinguru bat sortu dugu, LABORAL Kutxaren estrategia eta pertsonen gogobetetasuna eta konpromisoa betetzen laguntzeko.

Garapen Plan Indibidual bat aktibo duten pertsonak guztira	2022		2023	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Zuzendariak	1	1	10	4
Buruak	168	95	168	98
Teknikariak	293	407	292	422
Administrariak	99	149	102	151
Guztira	**561**	**652**	**572**	**675**
Lagun Aron Garapen Plan Indibidual bat aktibo duten pertsonak guztira	2022		2023	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Zuzendariak	-	-	4	3
Buruak	-	-	7	7

Euskara

2023a trantsizio-urtea izan da. Hasitako bidetik jarraitu dugu eta egitura zein abian diren proiektuak sendotu ditugu. Gure bezeroak aktibatzeko kanpainak egin ditugu, euskaldunek kutxazainetan euskara erabil dezaten eta gure Entitatearekiko harremanak euskaraz izan ditzaten; gainera, euskara-trebakuntza areagotzen jarraitu dugu: euskara ikasteko edo hobetzeko zenbait aukera eskaintzen ditugu gaur egun ere (ehun lagun baino gehiago ari dira ikastaroetan parte hartzen); Berbetan ekimena, bazkalorduan euskara praktikatzeko (Zerbitzu Zentraletan); Mintzanet, euskara ordenagailu bidez praktikatzeko (bulego-sarearentzat)… Ildo beretik, baliabide gehiago bideratu ditugu itzulpenak egin edo kudeatzera: Elia itzultzaile automatikoa erabiltzeko aukerak zabaldu ditugu, pertsonen autonomia handitzearren; itzulpenetarako Babel plataforma jarri dugu martxan… Motibazioan eta erabileran eragiteko ekintzak ere burutu ditugu: euskararekin lotura duten albisteak jakinaraztea, argazki-lehiaketa, euskarazko baliabideak erabiltzeko aholkuak.

3.2.5. Aniztasuna eta aukera-berdintasuna

LABORAL Kutxa beti izan da aitzindaria eta berritzailea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko politika aktiboak garatzen eta ezartzen, balio kooperatiboekin eta aukera-berdintasuna sustatzearekin duen konpromisoaren erakusgarri.

Berdintasunarekiko konpromisoa LABORAL Kutxaren berezko balioa da, eta horren erakusgarri da J.M. Arizmendiarrietaren gogoeta hau, 1958an Lanbide Eskolako emakumezko ikasleen lehen promozioak bere ikasketak hasi zituenean adierazitakoa: «Hutsegite handia da emakumea lanbide-heziketan oro har baztertua izatea, eta birmoldaketa-prozesuetan eta etengabeko prestakuntzan parte hartzeko aukerarik gabe uztea; gaur egun desegokitzat jotzen duten lanbideetan lekua eman behar zaio emakumeari».

Genero-berdintasunaren aitorpen praktikoan ere aitzindaria izan zen LABORAL Kutxa. 1964an, LABORAL Kutxaren 8. bulegoa zabaldu zen, Markina-Xemeinen, emakume bat zuzendaria zela. Nabarmentzeko modukoa izan zen hura, kontuan hartzen badugu 1978ra arte emakumeek ezin zutela kontu korronterik zabaldu senarraren baimenik gabe.

Berdintasunaren inguruko kezka horrek konpromiso-itxura hartu zuen duela 25 urte, berdintasun-planen bidez. Konpromiso horren erakusgarri, 1997an Emakunderen Entitate Laguntzailea bereizgarria lortu genuen; hain zuzen, lehen finantza-entitatea izan ginen bereizgarri hori lortzen.

Urte hauetan guztietan, egitura egonkor bat sortu dugu berdintasunerako politikak sustatzeko eta gai jakin batzuk landuko dituzten lantaldeak martxan jartzeko; baina, horrez gain, berdintasuna Entitatearen estrategian txertatzea lortu dugu. Hori dela eta, zuzendaritzaren agendan dago gaur egun, eta beharrezko baliabide ekonomikoak ditugu, azken urteetan diseinatu eta ezarri ditugun berdintasun-planetan zehaztutako politikak eta jarduerak aurrera eraman ahal izateko.

Egindako lanari esker, Kontseilu Errektoreak eta Kontseilu Sozialak osaera parekidea izatea lortu dugu. Beste adierazle garrantzitsu bat txikizkako sareko bulego-zuzendaritzetan dagoen emakumeen ehunekoa da; izan ere, emakumeen presentziak, sendotzeaz gain, gora egiten jarraitzen du. Nafarroako sarean, zuzendarien % 60 emakumeak dira, eta Gipuzkoakoan, % 59.

Ildo beretik, Zerbitzu Zentraletako erantzukizun-postuetan sendotzen ari da emakumeen presentzia, eta, 2023an, buruzagien % 41 emakumeak ziren, bai eta departamentu edo areetako zuzendarien % 30 ere.

LABORAL Kutxaren IV. Berdintasun Planaren azken urteko ekintzei dagokienez —pandemiaren ondoren 2023-2024 aldirako egindako egokitzapenaren ondoren—, sei erronka nagusiren inguruan egin dugu lan, eta hainbat jarduketa eraman ditugu aurrera; honako hauek dira aipagarrienak:

Berdintasun-politikak jasangarritasun-estrategiarekin lerrokatu, uztartu eta sendotzeko lanean jarraitu dugu. Aurreko urtean jasangarritasunaren inguruko kontakizun integratzaile bat eraikitzeko oinarriak finkatu genituen, eta 2023an lan zehatzagoak egin ditugu. Zeregin horiek aukera eman digute LABORAL Kutxaren beste area batzuetara sartzeko (hornitzaileen maparen analisia, HSF, mugikortasun-plana, Gaztenpresa…), eta baliagarriak izan zaizkigu berdintasuna eta euskara zeharka lantzea zer den ikasteko (aginte-taula zeharkako ikuspegiarekin lantzeko ariketaren bidez).

Martxoaren 8an, genero-rolek eta -estereotipoek lan-eremuan duten eragina aztertzen jarraitu nahi izan genuen Estrella Montolío Duránen eskutik. Estereotipo horiek komunikazioan eta talentuaren sustapenean duten eragina aztertu zuen adituak hitzaldian. 2022tik jorratzen ari garen lan-ildoa da, eta Entitatearen barruan erronketako bat izaten jarraituko du, lan-harreman eta kultura inklusiboagoak eta berdinzaleagoak bultzatzen jarraitzeko.

Emakumeentzako ahalduntze-lantegiak eta gizonentzako sentsibilizaziokoak egiten jarraitu dugu. Dagoeneko 130 emakume eta 75 gizon baino gehiago aritu dira lantegi horietan. Berdintasunaren alde lanean jarraitzeko eta Entitatearen barruan sinergiak sortzeko aktibo garrantzitsua da hori.

Berdintasunerako sarea martxan jartzeko eta azken urteetan LABORAL Kutxaren berdintasun-estrategian parte hartu duten pertsona guztiak aktibatzeko erronka jarri genion geure buruari. Sarea zertarako izango den zehaztu genuen, eta gidaritza-taldea jarri genuen martxan sareko kide jakin batzuekin, Estrella Montolíorekin landutako edukiak aprobetxatuz.

Lege-mailan izandako aldaketak eta berrikuntzak kontuan hartuta, aldatu egin dugu sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko kasuetarako LABORAL Kutxaren jarduteko protokoloa. Ildo beretik, infografia egokitu dugu, prozedura modu errazagoan jakinarazteko, eta sartutako berrikuntzen berri eman dugu Kontseilu Sozialean.

Emakunderen BaiSarea sarearen barruan beste erakunde eta kooperatiba batzuekin egiten dugun sare-lanaren erakusgarri, LABORAL Kutxaren jardunbide egoki batek aipamen berezia izan du. Gainera, berdintasunaren eremuan dugun esperientzia partekatu dugu inguruko kooperatibekin, hala nola Fagor Automationekin eta Danobatekin.

Oro har, esan dezakegu 2023rako diseinatutako plan operatiboaren betetze-maila handia izan dela, aurreikusitako ekintzen % 90 inguru osorik gauzatu baita. Eta garrantzitsuena hauxe da: estrategia sendotzeko urratsak eman ditugu eta etorkizunerako aukera berriak sortu ditugu.

Horrez gain, egindako ibilbideak 2024rako lana zehazteko balio izan digu; izan ere, geldialdia egiteko unea da, berdintasunaren diagnostikoa eguneratzeko, arrakala nagusiak detektatzeko eta jarduera-plan bat diseinatzeko. Plan hori ibilbide-orria izango da emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta laneko kultura inklusiboago eta berdinzaleago baten alde lan egiten eta pausoak ematen jarraitzeko.

Entitateak aintzat hartzen ditu *aniztasun*-politikei buruzko errekerimenduak. Hortaz, berdintasunari buruzko gidalerroetan eta araudian ezarritakoa betez, administrazio-organoetako kideen eta funtsezko eginkizunen titularren egokitasuna ebaluatzen du. Ildo horretan, profil akademikoa, profil profesionala, generoa, adina eta beste alderdi batzuk hartzen dira kontuan, Kontseilu Errektorerako hautagaiak hautatzeko politikan eta ebaluazio- eta egokitasun-prozesuetan.

Aipatzekoa da 2023ko abenduaren 31n gainditu egin dela ordezkaritzarik txikiena duen generorako ezarritako gutxieneko ehunekoa.

Desgaitasuna duten langileen enpleguari dagokionez, LABORAL Kutxan halako 24 lagun daude, eta beste 2 CLBSn; Seguros Lagun Aron, berriz, ez dago bat ere. Bestalde, LISMIa (Ezinduak Gizarteratzeko Legea) betetzen dugu, GUREAK INKLUSIO FUNDAZIOAri diruzko dohaintza bat emanez, desgaitasuna duten pertsonak laneratzeko eta haientzako enplegua sortzeko.

Generoaren ondorio ez den diskriminazioaren kontrako politikei dagokienez, jasangarritasun-politikak beren-beregi aipatzen ditu honako hauek: sexu-orientazioagatiko diskriminazioa eta amatasunarekin eta betebehar familiarrekin lotutakoak. Orobat, Zigor Kodea Betetzeari buruzko Politikan, konstituzioaren eskubideen eta askatasunen kontrako arrazoiengatiko diskriminazioa dago jasota.

3.2.6. Kontziliazioa

Kontziliazio-neurriak

Barne-araudiak familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko neurriak ditu jasota. Horri esker, langileek familiarekiko ezinbesteko betebeharrak bete ahal izango dituzte, berariazko baimen edo lizentzien bidez. Zenbait alderdi jasotzen dituzte: lan-ordutegia, lan ez-presentziala, ordaindutako eta ordaindu gabeko baimenak, Zerbitzu Zentraletako ordutegi-malgutasuna eta ordaindutako eta ordaindu gabeko baimenak hartzeko aukerak handitzea.

Lanaldi malgua

Zerbitzu Zentraletan (Egoitza Nagusian eta Lurralde Zuzendaritzetan) lan egiten duten pertsonak ordutegi malguko sistemara bil daitezke. 2019tik, kontziliazioa errazteko eta gurasotasun erantzunkidea sustatzeko, plantilla horrek ordutegi-malgutasuna du. Hala, hileko lanorduak zenbatzen dira, eguneko gutxienekoa 5,15 orduan finkatuta dago eta sarrera- eta irteera-ordutegia malgua da. Orobat, 12 urtez beherako seme-alabak edo mendeko pertsonak (adinagatik edo gaixotasunagatik) dituzten bazkideak beranduago sartu ahal izango dira lanera; beranduenez, 09:30ean. Horretarako, baina, eskaera egin beharko dute aldez aurretik, eta onartu egin beharko zaie.

Bestalde, gaur egun ez dago lan-deskonexioari buruzko politikarik abian.

Bestalde, 2022an lan malguari buruzko akordio berria jarri zen martxan. Horren arabera, Zerbitzu Zentraletako eta Lurralde Zuzendaritzetako plantillak lan malguko egun bat edo bi izango dituzte, haien bizilekuaren distantziaren arabera: egun bat, lantokitik 25 kilometro baino gutxiagora bizi badira, eta bi egun, lantokitik 25 kilometro baino gehiagora bizi badira. Sukurtsaletan, berriz, urtean 10 egunetan lan malgua egin ahal izango dute.

3.2.7. Ordainsariaren gestioa

LABORAL Kutxan, lanbide-kategoriaren arabera jasotzen da ordainsaria. Lanpostu guztiek dute kategoria bat eta ordainsari bat esleituta (lanpostu berak soldata bera du, gizona edo emakumea izan), eta lansarien hazkundea berdina da langile guztientzat. Halaber, ez dago adinarekin lotutako desberdintasunik, antzinatasun-bosturtekoen ondoriozkoa izan ezik.

Lagun Aron, langileak enpresaren jabe ez badira ere, gestioan eta enpresaren irabazietan parte hartzen dute. Honela egiten dute:

- Ordainketa aldakor indibidualaren bidez (unibertsala da).
- Ordainketa aldakor kolektiboaren bidez. Kontratu mugagabea duten langileei aplikatzen zaie (plantillaren % 97ri, gutxi gorabehera), langileek emaitzetan parte hartzeko aukera ematen duen sozietate bati baitaude beren borondatez atxikita.

Sustapen-indizea (egiturazko soldata-indizearen hobekuntza) % 31,21ekoa izan da 2023an (% 10,28koa 2022an).

LK-ko batez besteko lan-indizea	2022	2023
Emakumeak	2,25	2,28
Gizonak	2,48	2,48
Gizonen eta emakumeen arteko aldea	% 10,55	% 8,91

- *Batez besteko lan-indizea 2,38koa da. 2022-12-31n, hileko 3.361,3 € gordinen baliokidea da.

LK-ko batez besteko lan-indizea	2022		2023	
	G	E	G	E
Zuzendariak	4,57	4,21	4,18	4,01
Buruak	2,85	2,74	2,80	2,74
Teknikariak	2,33	2,20	2,34	2,26
Administrariak	2,07	1,99	1,83	1,87

LK-ko ordainsariak, adinaren arabera	2022		2023	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
30 urtera artekoak	31.426	29.652	31.545	31.179
31 eta 40 urte artekoak	41.958	38.724	50.052	45.309
41 eta 50 urte artekoak	49.912	44.520	57.300	52.140
51 eta 60 urte artekoak	55.581	47.884	63.282	55.147
60 urtetik gorakoak	51.288	48.855	57.968	56.306

CLBSko batez besteko lan-indizea	2022	2023
Emakumeak	-	2,01
Gizonak	-	2,5
Gizonen eta emakumeen arteko aldea	-	% 24,37

CLBSko batez besteko lan-indizea	2022		2023	
	G	E	G	E
Zuzendariak	*	*	*	*
Buruak	3,51	3,05	3,51	3,05
Teknikariak	*	*	*	*
Gestoreak	2,1	1,98	2,22	2

*Ez dago tarte horretako pertsonarik.

CLBSko ordainsariak, adinaren arabera	2022		2023	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
30 urtera artekoak	1,18	1,2	1,15	1,20
31 eta 40 urte artekoak	1,9	1,46	1,9	1,66
41 eta 50 urte artekoak	2,15	2,06	2,15	2,03
51 eta 60 urte artekoak	2,908	2,06	2,97	2,06
60 urtetik gorakoak	*	*	*	1,9

Lagun Aroko batez besteko soldata	2022	2023
Emakumeak	52.109	54.301
Gizonak	63.860	69.438
Gizonen eta emakumeen arteko aldea	% 22,55	% 27,88

Soldata, sexuaren eta kategoria profesionalaren arabera (mila €-kotan)	2022		2023	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Zuzendariak	106,02	84,58	113,45	92,45
Buruak	69,45	72,21	81,4	78,45
Teknikariak	58,79	55,4	63,39	57,72
Administrariak	46,98	40,4	40,18	41,42

-

LAGUN AROko ordainsaria, adinaren arabera	2022		2023	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
30 urtera artekoak	27.587	28.744	49.381	30.000
31 eta 40 urte artekoak	45.729	36.735	42.638	41.605
41 eta 50 urte artekoak	58.502	51.153	57.038	52.630
51 eta 60 urte artekoak	73.508	57.240	79.338	61.810
60 urtetik gorakoak	84.487	68.419	88.960	64.085

Ordainketa-mailei dagokienez:

Hasierako soldata LKn eta CLBSn	2022	2023
Bazkideen hasierako soldata minimoa eurotan / lan egindako orduak	16,22	17,14
Bazkideen hasierako soldata minimoa eurotan / lanbide arteko gutxieneko soldata*	% 1,94	% 1,9

(*) Lanbide arteko gutxieneko soldata estatuko administrazioak ezartzen du, urte bakoitzerako. Ez dago sexuaren araberako desberdintasunik hasierako soldata estandarraren eta tokiko gutxieneko soldataren arteko erlazioan; horregatik, ez dugu sexuaren arabera banakatutako daturik eman.

Lagun Aroko hasierako soldata	2022	2023
Hasierako soldata minimoa eurotan / lan egindako orduak	12,12	12,81
Hasierako soldata minimoa eurotan / lanbide arteko gutxieneko soldata	1,44	1,41

Jarraian, **soldaten dispertsioaren** ratioak emango ditugu. Horien arabera, soldaten arteko aldea oso txikia da, kooperatibek berezkoa duten elkartasunarekin koherentziaz:

	2022	2023
LKn ondoen ordaindutako langilearen ordainsari osoa / ordainsari oso medianoa**	4,52	4,32
LKn ondoen ordaindutako pertsonaren urteko ordainsariaren hazkundea / urteko ordainsariaren hazkunde medianoa	–% 3	2,59
CLBSn ondoen ordaindutako langilearen ordainsari osoa / ordainsari oso medianoa	2,24	2,09
CLBSn ondoen ordaindutako pertsonaren urteko ordainsariaren hazkundea / urteko ordainsariaren hazkunde medianoa	% 4	–% 3
Ondoen ordaindutako langilearen ordainsari osoa / **Lagun Aroko** ordainsari oso medianoa	2,11	2,11
Lagun Aron ondoen ordaindutako pertsonaren urteko ordainsariaren hazkundea / urteko ordainsariaren hazkunde medianoa	% 16	% 0,5

*LABORAL Kutxan, ordainsaria lanbide-kategoriaren arabera jasotzen da: lanpostu berak soldata bera du, gizona edo emakumea izan. Lansarien hazkundea berdina da langile guztientzat. 2021eko informazioa eguneratu egin da, kalkulu-akats bat antzeman baitzen.

** Datuaren Kalkuluan ez dira aintzat hartu aisialdian dauden pertsonak (aurre-erretiroa).

Ekitaldia ixtean, ekitaldi horretan lortutakoa aztertzen da, ordainketa aldakor indibidualarekin (OAIarekin) lotuta. Amaitutako ekitaldia helburu kuantitatiboen edo kualitatiboen arabera ebaluatzen da, kasua kasu. Ebaluazio hori bazkide guztiei egiten zaie. 549 bazkidek banakako helburuak izan dituzte 2023an (544k 2022an), eta gainerakoek lantaldeari lotutako helburuak.

Jarraian, ordainketa aldakorrak (indibidualak + kolektiboak) langileentzat ordainketa osoaren gainean izan duen eboluzioaren berri emango dugu:

	2022	2023
Ordainketa aldakorra / Ordainketa osoa (%-tan)	% 10,15	% 10,95

Kapital sozialari ordaindutakoa

Bazkideek kapital sozialera egindako ekarpenak urteko % 4,5eko interes-tasa gordinarekin ordaindu dira 2023an, nahitaezko ekarpenen kasuan eta borondatezkoen kasuan.

Kapital sozialari ordaindutakoa (mila eurokotan)	2022	2023
Kapitalerako interesetan ordaindutakoa guztira (enpresa elkartuei, bazkide langileei...)	31.640	36.064
Lan-bazkideek eta kolaboratzaileek jasotakoa guztira (1)	11.223	12.798

(1) LABORAL Kutxari egindako ekarpena erretiroa hartu ondoren Entitatean uzten duten lan-bazkideak dira bazkide kolaboratzaileak.

3.2.8. Laneko segurtasuna eta osasuna

Gestio-programa: 2023rako proposatutako ekintzak eta horien egoera	
1.	Arrisku psikosozialak ebaluatzeko metodologia berria ezartzea. Eginda
2.	Arrisku psikosozialen ebaluazioaren ondoriozko prebentzio-neurriak aplikatzea. Abian – Zentzua
3.	Arriskuen ebaluazioen plangintza eguneratzea. Zati bat eginda

4.	Ohiko jarduerari eustea, mediku-azterketetan, arriskuen ebaluazioetan, enpresa-jardueren koordinazioan eta enpresa osasungarrian (Zainduz). Eginda
Gestio-programa: 2024rako helburu eta konpromiso nagusiak	
1.	Laneko segurtasun- eta osasun-sistema Zentzuarekin lerrokatzea
2.	Aztergai diren sistemaren antolaketako aldaketak finkatzea
3.	Prestakuntza-beharren eta -betebeharren prozedura finkatzea

LABORAL Kutxak laneko segurtasuna eta osasuna (LSO) gestionatzeko sistema bat du; ISO 45001 araua betetzen du eta AENORek egiaztatu du. LABORAL Kutxa Osarten Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuko kidea da.

2023an, gestio-sistemaren lorpen nagusiak izan dira ISO 45001 ziurtagiriari eusteko kanpo-auditoretza gainditzea eta arrisku psikosozialak ebaluatzeko metodologia berria ezartzea. Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Politikak jasotako helburuak lortzeko, LSOko Gestio Planaren jarduerak planifikatzen dira urtero. Gestio Sistemaren barruan, prozedura hauek daude, besteak beste: arriskubideak identifikatu eta arriskuak ebaluatzekoak, istripuak ikertzekoak eta osasuna zaintzekoak.

Segurtasun eta Osasun Batzordea parekidea da, eta Pertsona eta Baliabideen Areako zuzendariak eta enpresako medikuak ere hartzen dute parte. Batzordeburua langileen ordezkarietako bat da (prebentzio-ordezkaria). Batzordeak 3 hiletik behin egiten du gutxienez bilera, eta bertan jorratutako guztia aktetan jasotzen da, geroago Giltzaneten (intranetean) pertsona guztien eskura jartzeko. Pertsona guztiak daude Batzorde horren jardueraren eraginpean.

Segidan, laneko segurtasunaren eta osasunaren kudeaketako adierazlerik nabarmenenak aurkeztuko ditugu xehetasunez:

Istripu-tasa	2022	2023
Langileen istripu-tasa	0	1,03
LK-ko, CLBSko eta LAko langileen istripu-kopurua	21	34
Hildako langileen kopurua	0	0
Lapurreta-kopurua	1	0

Istripuen maiztasun-indizean oinarrituta ateratzen da istripu-tasa, baina in itinere, hau da, lanaren eta bizilekuaren arteko joan-etorrietan gertatu direnak eta bajarik sortu ez dutenak kanpoan utzita. Helburua da lanpostuan gertatu eta larritasunik handiena izan dutenak bakarrik hartzea kontuan. Indize hori ateratzeko, lan egindako 1.000.000 ordutan gertatutako istripuak zenbatu dira. Sektorean ez dago kontabilizatutako gaixotasun profesionalik.

LSO sistemak lapurreta-arriskua ere hartzen du aintzat, LABORAL Kutxaren jardueraren ondoriozko arrisku berezien artean. Hortaz, lapurretetarako jarraibide-multzoa ezarri da, eta langile guztiei ezagutarazi zaie —intranetean argitaratu da—. Prebenitzeko nahiz esku hartzeko neurriak ezarri dira egoera horietarako. Era berean, kanpoko indarkeriaren aurrean jarduteko protokoloa dugu, gure langileen aurkako erasoak, mehatxuak edo irainak gertatzen direnean erabiltzeko. Egoera horiek lan-istripu gisa gestionatzen dira. Bi protokoloak 2023an eguneratu dira.

Urtero, larrialdi-simulakroak egiten dira Egoitza Nagusiaren eraikinetan. Halaber, lantoki guztiek larrialdi-planak dituzte, intranetean eskuragarri, edozeinek berari dagokiona ikus dezan. Ez da absentismoaren aldagaiei lotutako helbururik zehazten, aurreikuspenak baizik. Bai, ordea, tasa globalari dagokionez. Pertsonak hartzeko prozesuaren barruan, laneko segurtasunaren eta osasunaren alorreko prestakuntza-modulu bat dago. Sistemaren antolamendua azaltzen da bertan, bai eta arrisku nagusiak eta prebenitzeko portaerak ere.

2016. urtean, 2 orduko nahitaezko prestakuntza bat ezarri zen, Laneko Segurtasuneko eta Osasuneko langile guztientzat. Oinarrizko prestakuntza-modulu hori partaide berrientzako hasierako prestakuntzan sartu da harrezkero. Era berean, aldian behingo arriskuen ebaluazioan eta mediku-azterketetan, prestakuntza ematen da ergonomiaz, arrisku orokor zein berariazkoez eta ebakuazio-planez. Modulu hori 2023an berrikusi zen eta 2024aren hasieran jakinaraziko zaie langile guztiei. 2020an, larrialdiei buruzko ordubeteko prestakuntza eman zitzaien langile guztiei, nahitaezkoa hori ere.

Lagun Arok bere Gestio Sistema du, hain zuzen ere arriskuak identifikatu eta ebaluatzeko, istripuak ikertzeko eta osasuna zaintzeko LABORAL Kutxaren antzeko prozedurekin. Sistemak plantilla osoa estaltzen du, langileen ordezkariak biltzen dituen Segurtasuneko eta Osasuneko Batzorde Parekidearen bidez.

Segidan, taldeko absentismoari eta istripuei buruzko datuak emango ditugu.

Absentismo-orduak eta -tasa	2022	Gizonak	Emakumeak	2023	Gizonak	Emakumeak
Istripua eta gaixotasuna	129.534	40.034	89.500	112.011	24.428	87.583
Amatasuna	12.043	-	12.043	9.915	-	9.915
Aitatasuna	8.717	8.717	-	8.903	8.903	-
Gainerakoak (gaixorik dauden adingabeak zaintzea)	3.174	-	3.174	3.033	-	3.033
Absentismo-orduak guztira LKn	**153.467**	**48.751**	**104.717**	**133.861**	**29.193**	**104.668**
Absentismo-tasa LKn	4,45	2,89	5,88	3,66	2,19	4,07
Absentismo-tasa Lagun Aron	3,45	0,58	2,87	7,84	1,90	5,94
Absentismo-orduak guztira Lagun Aron	7.994	1.328	6.666	3.250	791	2.459
Absentismo-tasa CLBSn	7,99	2,46	10,23	7,29	4,65	8,43
Absentismo-orduak guztira CLBSn	19.128	-	-	16.251	2.945	13.306

Lan-istripuak	**2022**	**2023**
Istripuak	20	31
Istripuen maiztasuna (1)	3,26	2,73
Istripuen larritasuna (2)	0,18	0,13
Lan egindako ordu-kopurua LKn	2.758.916	2.925.716
Lan egindako ordu-kopurua CLBSn	228.642	218.578
Istripuak Lagun Aron (3)	1	3
Istripuen maiztasuna	3,57	0
Istripuen larritasuna	0,23	0
Lan egindako ordu-kopurua Lagun Aron	269.970	287.329

(1) Baja eragin duten istripuen kopurua * 1.000.000 / lan egindako orduak.
(2) Istripu bakoitzean galdutako orduak * 100 / lan egin beharreko ordu teorikoak.
(3) In itinere, bajarik gabe eta hildakorik gabe.

Istripurik gehienak in itinere dira, langileak lanera zihoazela gertatutakoak. Maiztasunari eta larritasunari buruzko datua ez dago sexuaren arabera bereizita. Gure jardueran ez da gaixotasun profesionalik aurreikusten talderako. Azpikontratatutakoen artean ez da istripurik gertatu.

Zainduz osasun-plana

2018tik, osasun-plan bat dago LABORAL Kutxa taldeko langileentzat. Zainduz du izena, eta plantillan osasuna, segurtasuna eta ongizatea sustatzea du helburu. Xede horrekin, pertsonengan, familiengan eta horiek bizi diren inguruan ohitura osasungarriak eta jasangarriak sustatzeko programak jartzen dira abian. Elikadura, jarduera fisikoa edota laneko osasuna hobetzeko moduak lantzen ditu, taldea osatzen duten pertsonen osasuna eta ongizate fisiko zein emozionala hobetzeko helburuarekin.

Aldi honetan, ZAINDUZ erreferentzia bihurtu da ongizatearen kulturari dagokionez, eta, poliki-poliki, osasun-jarrerak ari dira ezartzen Entitatearen arlo guztietan. 2023an 1.240 lagunek baino gehiagok hartu dute parte Zainduzen ekintzaren batean, behin gutxienez. Beraz, plantillaren erdiak baino gehiagok hartu du parte horrelako jardueretan. Hona hemen 2023an egin diren ekintza nagusiak:

- Ongizate emozionalari buruzko lantegi-zikloa:
  - Autoezagutza, autoestimua eta norbere burua onartzea.
  - Garatu zure erresilientzia, egoera zailetatik errekuperatzeko gaitasuna.
  - Ilusio txikien bultzada gure buruko osasuna suspertzeko. Zeintzuk dira psikologia positiboaren tresnak eta nola erabil ditzakegu egunerokoan?
- Loari buruzko lantegia.
- Batchcooking errezeten bideoak.
- Dieta antiinflamatorioari eta kolesterol-maila jaisteari buruzko bideokonferentzia.
- Errezeta tematikoen bideoak.
- Fruta, kafea hartzeko guneetan. Mundukide GKEari dohaintza eginez ordaintzen da fruta hori. Ekimenari esker, 2023an 1.000 euro helarazi zaizkio Mundukideri.
- Fisify:
  - Onlineko fisioterapiako aplikazioa.
  - Bideokonferentzia fisioterapeutarekin.
  - Luzaketak egiteko online saioak goizetan.
- LaboralBybike/walk programa: langileak lantokira oinez edo bizikletaz joan daitezen animatzeko pizgarri-programa.

3.2.9. Onura sozialen paketea

LABORAL Kutxak ekimen hauek jarri ditu abian, lankideek jasotzen dituzten onura sozialak hobetzeko asmoarekin:

Onura sozialak
Pertsona guztientzako **urteko topaketa- eta bizikidetza-eguna** (Elkarte eguna) ospatzea eta, Entitateak berak finantzatutako Lankide Klubaren bidez, kultura-, kirol-, gastronomia- eta aisia-jardueretan parte hartzea, lankideek lanalditik kanpo elkarren arteko harremanak sendotzeko.
Abantailak finantza-produktuetan (bazkideentzat): Aktiboa: ohiko etxebizitza erosteko mailegua, ohiko etxebizitza erosteko mailegu osagarria, ohiko etxebizitza erosteko LK-ko bazkideen maileguak «berritzeko» aukerari buruzko akordioa (tasa aldakorretik finkora igarota edo alderantziz); etxeko beste xede batzuetarako mailegua, dispON mailegua. Pasiboa: LK-ko bazkideen nomina-kontua. Banku-zerbitzuak: komisiorik eza, hobariak. Auto- eta etxe-aseguruak.
Beste onura batzuk: Nomina-aurrerakinak. Istripu-aseguru kolektiboa. Bizitzako / edozein arrazoiren ondoriozko heriotzako funtsa. Ibilgailuan izandako kalteen estaldura. Aparteko beharretarako laguntza – Bazkideen heriotzagatiko laguntzak. Ikasketa osagarrien eta euskara-ikasketen finantzaketa.

Zehazki, Entitateko lan-bazkideek onura sozial hauek dituzte:

Lankide Kluba

LABORAL Kutxak uste du lan-bazkideek elkarren arteko harremana sustatzen dutela, lanorduetatik kanpo kulturari, kirolari, turismoari eta abarri lotutako jarduerak partekatzen badituzte. Horregatik, Egoitza Nagusian nahiz lurraldeetako bakoitzean Lankide klubak sortzea erabaki du, aisialdiko jarduerak eginez pertsonen arteko harremanak sustatzeko helburu nagusiarekin.

2023an, kirolari, kulturari, gastronomiari, aisialdiari eta abarri lotutako 53 jarduera burutu dira, eta 34.644,7 €-ko aurrekontua bideratu da horietara.

Kapitalizatutako itzulkin kooperatiboak (pentsio-plan indibiduala)

LABORAL Kutxak emaitza erabilgarriaren % 12,5 banatzen du, urtero, lan-bazkideen artean, kooperatiba-itzulkin edo mozkinetako partaidetza gisa. Kopuru hori kapitalizatu egiten da, eta bazkideetako bakoitzak kapital sozialean daukan zatiari edo kuotari gehitzen zaio.

Kapital sozialeko partaidetza ezin da erabili, harik eta lan-bazkideak Entitateko lanari uzten dion arte. Hortaz, Entitateko lan-bizitza osoan eutsiko zaion pentsio-plan indibidual birtual moduko bat eratzen da. Sozietate-partaidetza horrek ordainketa bat (% 4,5ekoa 2022an eta % 7koa 2023an) jasotzen du urtean behin, kapitalerako interes moduan. Pertsona bakoitzaren itzulkin kooperatiboa haren ordainsari gordin osoaren arabera esleitzen da.

Lan-bazkideei esleitutako kooperatiba-itzulkina (mila eurokotan)	2022	2023
Urteko kopuru globala	14.131	17.871
Batez besteko kopurua bazkideko	7,5	d/e (1)

(1) Datua Batzar Nagusiaren ondoren egongo da eskuragarri.

Osasun-laguntzako sistema osagarri bat finantzatzeko kuoten estaldura

LABORAL Kutxak bere gain hartzen du, lan-bazkideen onerako, osasun-laguntzako sistema integral bat (Gizarte Segurantza publikoaren osagarria) finantzatzeko behar diren kuoten erdibanako ordainketa. MONDRAGON korporazioak sistema hori eskaintzen die bere bazkide partaideei.

3.3. Gizartearekiko harremanak

3.3.1. Gestio-ikuspegia

LABORAL Kutxa Euskal Herrian sortu zen, gizartea zerbitzatzeko konpromiso handia duen enpresa-talde baten barruan. Taldearen misioa da partaidetzazko elkarlan kooperatiboa sortzea, sozietateetako zuzeneko partaideentzat nahiz gizartearentzat aberastasuna eta ongizatea lortzeko.

Gizarte-laguntzak emateko irizpide eta mekanismoek berezitasun batzuk dituzte:

- LABORAL Kutxak, bere izaera juridikoagatik eta bokazio kooperatiboagatik, kooperatiben mundua sustatzera bideratzen du ekarpen solidarioen zati handi bat.
- Kooperatibaren organo instituzionalen ardura dira Heziketako eta Sustapeneko Funtsaren ataletako baten (Banaketa Orokorraren) kargura banatzen diren dirulaguntzak. Alabaina, Kontseilu Sozialak (hau da, Entitateko langileak ordezkatzen dituen organoak) ere hartzen du parte.
- Gainera, gizarte-lanen atal zehatz bat tokiko beharretarako (tokiko banaketarako) gordetzen du, eta bulegoen bitartez egiten du esleipena. Bulego horiek inguruko jardueretara (auzo-elkarteetara, inguruko ikastetxeetara, gizarte-ekintzako taldeetara, etorkinei laguntzeko zentroetara…) bideratzen dituzte laguntzak.



Heziketako eta Sustapeneko Funtsak (HSFak) helburu hauek ditu:

- Plantilla kooperatibismoaren printzipio eta balioetan trebatu eta heztea.
- Kooperatibismoa hedatzea eta kooperatiben arteko harremanak sustatzea.
- Gizartean kultura, lana eta laguntzak bultzatzea, bizi-kalitatea hobetzea eta gizarte-garapena eta ingurumena babesteko ekintzak sustatzea.

Kooperatiba arteko Funts Sozialak (KFSak) helburu hauek ditu, Mondragon Fundazioaren bidez:

- Enpresa-proiektuak eta kooperatiben hedapena bultzatzea.
- Besteak beste, zailtasunetan dauden MONDRAGONeko kooperatibei laguntzea eta I+G+b-ko edo prestakuntzako proiektuak sustatzea.

Gaztenpresa Fundazioa

Gaztenpresa Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da. LABORAL Kutxaren gizarte-jardunean dago sartuta, eta gure inguruan ekin nahi duten pertsonei laguntzea du helburu, ahalik eta arrakasta-aukerarik handienak izan eta enpleguaren sorreraren bidez aberastasuna sor dezaten.

LABORAL Kutxak eta Mondragon korporazioak, batetik, eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Lan Sailak —Lanbideren bidez—, bestetik, finantzatzen dute **Gaztenpresa Fundazioa**. 2023an, enpresak sortzeko ahalegin handia egin du, berriz ere, fundazioak.

Gaztenpresaren zereginetako bat Euskadin eta Nafarroan ekintzailetzaren kultura bultzatzea da. Horretarako, bere lantaldeek, boluntarioen laguntzarekin eta aliantzen bidez, gure inguruan ekin nahi duten pertsonei laguntzen diete, arrakasta lor dezaten.

Negozioa unean-unean zer egoeratan dagoen ere, ekintzaileak prestakuntza eta finantzaketa lortzeko aukera izango du, bai eta tutoreen laguntza, negozio-eredu egokia hautatzeko, eta hurrengo urratsetan lagunduko dioten aholkulari espezializatuen laguntza ere.

Ekintzaileak bidaia bat hasiko du, eta, horretan, arrakasta izateko probabilitateekin ekiteak zer dakarren ulertzen lagunduko zaio. Gainera, pertsonalki eta profesionalki haziko da, eta bere bizi-baldintzak hobetuko ditu. Halaber, ekintzailetzak Euskadin eta Nafarroan duen balioa eta egiten duen ekarpena nabarmentzen lagunduko du horrek, auzoak suspertu egingo dira, eta, azken batean, gure ingurunearen garapen jasangarria ahalbidetuko da, kalitatezko enplegua sortuz.

Horri esker, garapen jasangarrirako helburu (GJH) hauek lortzen lagundu nahi dugu[1]: 4. GJHa, Kalitatezko hezkuntza; 5. GJHa, Genero-berdintasuna; 8. GJHa, Lan duina eta hazkunde ekonomikoa; 10. GJHa, Desberdintasunak murriztea; 11. GJHa, Hiri eta erkidego jasangarriak; 12. GJHa, Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak, eta 17. GJHa, Helburuak lortzeko itunak.

Hortaz, lagundutako proiektuek, bideragarritasun-fasea gainditutakoan, 320 enpresa eta 634 lanpostu sorrarazi dituzte. EAEn eta Nafarroan du jarduera-eremua, eta proba pilotu bat egin da Sare Berrian. Hauxe izan da banaketa, eskualdeen arabera:

Gaztenpresaren proiektuak 2023an	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Sare Berria	**Guztira**
Bideragarriak izaki negozioa abiarazi dutenak	39	156	77	40	8	**320**

Behin enpresa abian jarrita, ekintzaileak zailtasun praktiko ugari izan ohi ditu, eta bakarrik sentitu ohi da horiei behar bezala aurre egiteko. Gaztenpresak enpresak finkatzeko ekintzak bideratu ohi ditu, ekintzaileei laguntzeko. Era berean, prestakuntza jarriko du haien eskura, gure web-mintegien bidez, baita laguntza ere, gure mentoring-programaren bidez.

Enpresak finkatzea	2022	2023
Lantegiak	55	70
Prestatutako pertsonak	492	397
Finkatze-bidean dauden enpresak	114	105
Mentoring-programa	61	59

Emaitzak inpaktu-mailan neurtuta, baliabide hauek jarri ditugu ekintzaileen eskura:

Bideratutako baliabideak	2022	2023
Tutore-kopurua	14	14
Aholkulari-kopurua	126	126
Esleitutako finantzaketa, milioi eurokotan	9.0	10.1

Inpaktu hau izan dugu:

Inpaktua negozioetan	2022	2023
Irekitako negozioak	314	320
5. urtean iraun dutenak	% 69	% 67
5. urtean iraun dutenak, Eustaten arabera	% 45	% 45
Gizarte- eta ingurumen-inpaktua izan duten negozioak	% 24	% 21
Sortutako merkataritza-enpresak	% 27	% 25
Merkataritza-enpresetatik kooperatibak direnak	% 11	% 22

Inpaktua pertsonengan	2022	2023
Batez besteko adina	39	39
Aholkatutako pertsonak	1.032	849
Ez irekitzeko gomendioa jasotzen duten pertsonak	% 13	% 12
Langabezian zeuden pertsonak	% 29	% 35
Emakumeen %-a	% 50	% 47
Prestatutako pertsonak	493	397

Inpaktua gizartean	2022	2023
Migratzaileek sortutako enpresen %-a	% 11	% 13
35 urtez beherakoek sortutako enpresen %-a	% 26	% 27
45 urtez gorakoek sortutako enpresen %-a	% 22	% 22
Probintzia-hiriburuetan kokatutako enpresen %-a	% 37	% 41
15.000 biztanletik gorako hirietan kokatutako enpresen %-a	% 35	% 33
15.000 biztanletik beherako hirietan kokatutako enpresen %-a	% 28	% 26
Sortutako enpresen batez besteko inbertsioa	87.528 €	101.070 €
Sortutako enpresen batez besteko mailegua	36.800 €	39.100 €

Zeharkako ekarpenak gizarteari

Zeharkako inpakturik nabarmenena aberastasuna eta enplegua (ahal dela kooperatiboa) sortu eta banatzea da, eta LABORAL Kutxak MONDRAGON Fundazioari egindako baliabide-ekarpenaren bidez gauzatzen da.

Gainera, LABORAL Kutxak ehunka babesletza- eta sustapen-ekintzaren bidez ere eragiten du gizartean, baliabide ekonomiko ugari bideratzen da ekintza horietara. 2023an ekintza ugari sustatu ditugu. Honako hauek, adibidez: Ikerketa Zerbitzuaren txostenak; Cáritas; Arabako, Bizkaiko, Nafarroako eta Gipuzkoako janari-bankuak; Arabako Gurutze Gorria; Alzheimerraren Nazioarteko Eguna; EITB Maratoia; Euskal Herriko Bertsozale Elkartea; Emakume Master Cup-a; Bihotz Urdina; Hirigintza Jasangarrirako Foroa; Berria hedabidea, eta abar.

Administrazio publikoekiko eta alderdi politikoekiko harremanak

LABORAL Kutxak Sektore publikoaren gestioari buruzko eskuliburuan zehaztuta duenez, Administrazio Publikoaren Gestioa bereizia eta integrala da, eta Enpresen Sareko Sektore Publikoaren Bulegoak koordinatu eta dinamizatzen du. Era berean, LABORAL Kutxako area

bakoitzak segmentu hori gestionatzeko duen erantzukizuna eta eginkizunak zehazten ditu agiriak, alegia segmentazioari, gestionatzeko sistematikari, informazio-sistemei, merkataritza-estrategiei eta arriskuaren gestioari lotutakoak.

Ildo beretik, LABORAL Kutxaren Arriskuen eskuliburuaren «Kreditu-arriskuaren politika, metodoak eta irizpideak» atalak «Sektore Publikoarekin ezarri beharreko arrisku-politika» jasotzen du 5. atalean. Enpresen esparruan, politika berezia zehaztu da, dituen lege- eta kontabilitate-berezitasunak kontuan hartuta. LABORAL Kutxak ez du finantzatzen nazioko edo nazioarteko elkarterik edo erakunderik, taula honetan adierazitako alderdi politikoentzako maileguak eta abalak izan ezik:

	2022	2023
Eusko Alkartasuna	83	78
EAJ	464	370
Kredituak (mila eurokotan)	547	448

3.3.2. Magnitude nagusiak: irabaziak gizartean banatzea

Gestio-ikuspegian azaldu dugunez, hauxe da LABORAL Kutxa Taldeak gizarteari egiten dion ekarpen nagusia: bere urteko irabazi banagarrien % 25 banatzea. 2023an, **32 milioi eta erdi euro** pasatxo izan dira. Hauxe izan da banaketa, kontu-sailen artean:

Kontzeptua (mila eurokotan)	Aplikazio-urteak	
	2022	2023
Enpresa kooperatiboak abian jartzeko eta finkatzeko elkartasunezko ekarpena (MONDRAGONen bidez)	17.174	21.446
Kooperatiba arteko Funts Soziala - KFS (emaitza banagarrien % 15)	**17.174**	**21.446**
Kooperatiben sustapena, MONDRAGONen bidez (HSFaren % 68)	6.526	7.785
Beste ekimen kooperatibo eta balio sozial batzuk	118	140
Ekintzailetza eta Enpresa- eta lan-prestakuntza (*Gaztenpresa Fundazioa*)	140	435
Kultura-jarduerak, oro har, eta bestelakoak	829	551
Euskararen eta euskal kulturaren sustapena	450	709
Laguntza-erakundeak eta garatzeko bidean dauden herrialdeetakoak	470	607
Nekazaritzako elikagaien sektorea	42	85
Kirol-jarduerak	-	643
Genero-berdintasuna eta Ahalduntzea	87	134
Ingurumena	24	122
Heziketako eta Sustapeneko Funtsa – HSF (emaitza banagarrien % 10)	**8.686**	**11.213**
KFS + HSF	**25.860**	**32.659**

3.3.3. Gizartearekiko elkarrizketak

Honako hauek dira gizartearekin erabiltzen ditugun elkarrizketa-bide nagusiak.

Interes-taldea: gizartea
2023an gauzatutako elkarrizketa-bideak:
▮ Gizarte- eta ingurumen-sustapena helburu duen Iraunkortasunaren aldeko Euskal Enpresen Elkarteko (Izaiteko) kide izatea.
▮ Ekintzaileen arteko gizarte-sarea, Gaztenpresa Fundazioaren bidez kezkak jaso eta lankidetza-ekimenak proposatzeko.
▮ Interneteko blog eta sare sozialetan presentzia duten komunitate birtualetan parte hartzea eta horiek dinamizatzea, harremanak sendotzeko eta ideia eta ekimenak biltzeko. ❖ Instagram: 10.400 jarraitzaile. ❖ Facebook: 22.000 jarraitzaile. ❖ Twitter: 8.634 jarraitzaile. ❖ Bloga: 780.654 irakurle.

- Online Bankaren erabiltzaileen iritziak eta itxaropenak antzemateko azterketa berezia. Horretarako, jarraipenak egiten ditu Interneteko tresnez, iritziez, foroez, sare sozialez eta adituen iruzkinez baliatuta.

- Hainbat erakunderekin lankidetzan sariak eskaintzea, adibidez: 2023ko Eusko Ikaskuntza – LABORAL Kutxa saria, Humanitate, Kultura, Arte eta Gizarte Zientzietakoa, Kirmen Uribe idazleak eta Beñat Garaiok lortu dute. Bestalde, 2023an, Guatemalako Osasun Inklusiboko Institutuak lortu du Elkartasunari emandako Nazioarteko Nafarroa Saria.
- LABORAL Kutxak jasangarritasunaren alorrean egiten dituen jardueren inguruko inkesta, enpresako, Banka Pertsonaleko, KIDE eta TOP segmentuetako eta PRO-mikroenpresetako bezeroei zuzendua, 2021eko Txostenaren laburpena bidali geniela aprobetxatuz.
- Aurkezpen publikoak. Deituta dauden foroetara —unibertsitateak, elkarrizketak, hitzaldiak— joaten dira LABORAL Kutxako ordezkariak, Entitatearen egiteko moduak eta gizartearekiko konpromisoa azaltzeko. Foro horiek, era berean, interes-taldeekiko elkarrizketak finkatzen laguntzen dute.

2023an, jasangarritasuna hainbat interes-talderen artean hedatzen jarraitu du LABORAL Kutxak. Hauek egin ditu, zehazki:

- Txosten hau jendearen eskura jarri du Entitatearen eta GRIren webguneetan.
- Jasangarritasunari buruzko txostena Entitatearen barnean ezagutarazi du, intranetaren (Giltzaneten) bidez.
- Mezu elektroniko bat igorri die 540.000tik gora bezerori, Txostenaren lerro nagusiak jasotzen dituen laburpena eskainiz eta bertsio osoa ere eskura jarriz. Harreman hori aprobetxatu dugu LABORAL Kutxaren EGEari buruzko iritzia eskatzeko.

3.3.4. LABORAL Kutxak babestutako ekimenak

Taula honetan, LABORAL Kutxak abian jarritako azken ekimenak ageri dira:

Izena	Helburua	Noiz
Izaite Iraunkortasunaren aldeko Euskal Enpresen Elkartearekin bat egitea	Enpresa-jasangarritasunaren inguruko esperientziak partekatu eta garapen jasangarriari buruzko prestakuntza eta hedapena sustatzea.	2006
Autocontrol elkartean sartzea	Merkataritza Komunikazioa Autorregulatzeko Elkartea.	2007
EFMAren europar foroak: SME Council, Operational Excellence Council, Espainiako Txikizkako Bankuko Erabakitzaileen Kluba	Europan nabarmentzen diren kutxa eta bankuen artean merkataritzaren eta gestioaren arloetako jardunbide egokiak trukatzea, EFMAren (banku eta aseguru-entitateen Europako elkartearen) bidez.	2010
Gizarte-ekonomiari laguntzeko hitzarmenak	Urteko hitzarmenak gizarte-ekonomiari lotutako elkarteekin: Euskadi (KONFEKOOP, ASLE), Nafarroa (ANEL), Asturias (ASATA), Salamanca (OWEN), Kantabria (ACEL), Leon (ULECOOP) eta, estatuan, CEPESekin.	2012
Akordioak Europako Inbertsio Funtsarekin (IEFrekin)	Mikroenpresak eta bertako lanpostuak sortu eta finkatzen laguntzeko akordioak: EaSI Mikrokredituak, EaSI Soziala eta EaSI Innovfin.	2013
Hitzarmenak enpresa-elkarteekin	Enpresaburuentzako eta ETE-etako kudeatzaileentzako prestakuntza-jardunaldiak eta lantegiak Bizkaian, SEArekin (Arabako enpresaburuekin) eta Arabako eta Gipuzkoako merkataritza-ganberekin.	2013
YBS-Youth Business Spain elkartearen tokiko bazkide eratzailea	Youth Business Internationalen, Gazte Ekintzaileei Laguntzeko Nazioarteko Sarean, parte hartzea.	2014
Hizkuntza-eskubideak zaintzeko hitzarmena Eusko Jaurlaritzarekin	Bezeroei eragiketa guztiak bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egiteko aukera bermatzea.	2015
Finantza-hezkuntzako ekimenetarako jardunbide egokien kodea	Finantzen alorreko hezkuntza-programak. CNMVrekin eta Espainiako Bankuarekin lankidetzan, eta jarduera komertzialetik bereizita.	2016
Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak	Etorkizuneko banku-sistema jasangarrirako esparrua. 6 printzipioekiko konpromisoa.	2019

Basque Ecodesign Center	Euskadiko lehentasunekin bat datozen proiektu berritzaileen garapena sustatzea, bi ikuspegitatik: lehiakortasuna hobetzea eta ingurumen-inpaktuak prebenitzea.	2022

Lagun Aro Aseguruak:

Lagun Aroren Jasangarritasun Txostenaren 69.etik 71.era bitarteko orrialdeetan aseguru-etxeak egindako ekintzak ezagutu daitezke.

Finantza-hezkuntza

LABORAL Kutxak badaki gurea bezalako erakundeen parte-hartzeak nabarmen aberasten dituela finantza-hezkuntzaren alorreko ekimenak, eta, ildo horretan, ekimenak egin ditu, oro har, arlo horretan.

Nabarmentzekoa da 2023an zehar hainbat ekimen garatu direla biztanleria-segmentu jakin batentzat, adinekoentzat, hain zuzen. Ordura arte, oso ekimen gutxi egin dira haientzat, eta ez modu egituratuan.

EGINDAKO JARDUERAK

1- Adinekoen segmentua

Aurrez aurreko prestakuntza-jarduerak egin dira kolektibo horrentzat; batetik, 4/2022 Legea betetzeko, eta, bestetik, **protokoloan** bankak adinekoekin dituen konpromiso soziala eta jasangarria sendotzeko hartutako konpromisoak betetzeko.

Orobat, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearekin lankidetza ezarri da, adinekoen inklusio finantzario eta digitala handitzeko materialak garatze aldera.

Hain zuzen, 5 jardunaldi antolatu ziren Arrasaten (2), Zarautzen, Tolosan eta Salamancan, hainbat gairi buruz: ekonomiaren gaurkotasuna eta aurreikuspenak, zibersegurtasuna, digitalizazioa eta iruzurren prebentzioa. Adinekoen elkarteen 305 lagunek hartu zuten parte.

2- Ikastetxeen bisitak – «Ekonomia? Nik kontrolatzen dut!»

Oso errotuta dagoen ekimen hori bigarren hezkuntzako ikastetxeei zuzenduta dago, eta ikasleen finantza-gaitasunak hobetzea du helburu.

Horretarako, ikasleak gure instalazioetara etortzen dira, eta hainbat alderdi azaltzen dizkiegu: aurreztea, xahutzea saihesteko moduak, finantza-erakundeen funtzioa, banku-produkturik errazenak eta onlineko segurtasun-jarraibideak, besteak beste. Orobat, ariketa praktikoak ere egiten dituzte: kutxazain automatikoak nola erabili eta Bizum bidez ordainketak nola egin. LABORAL Kutxako hezitzaileak arduratzen dira horretaz, ikastetxeko irakasleek gainbegiratuta, betiere.

2023an, 6 lantegi egin ziren Arrasateko egoitza nagusian, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde-egoitzetan, eta Tuterako bulegoan (Nafarroan), bai eta Seguros Lagun Aroren egoitza nagusian ere. Guztira, 213 ikaslek hartu zuten parte lantegietan.

3- Haurrentzako marrazki-lehiaketa

Ohi bezala, udako hilabeteetan, eta KKNBarekin lankidetzan, marrazki-lehiaketa bat antolatu zen 7 eta 11 urte bitarteko haurrentzat, finantza-hezkuntzan laguntzeko xedearekin.

KKNBra elkartutako kreditu-kooperatibetan aktibo dauden langileen seme-alabentzat da lehiaketa. Marrazkien gaia ***«Pertsona guztiek finantza-zerbitzuetarako sarbidea izatea»*** da. Seigarren edizioa zen, eta 19 neskatila-mutikok hartu zuten parte.

Jasotako sariak

Azken 3 urteotan, sari hauek jaso ditugu:

- 2023ko Bai sarea saria, Emakunderen berdintasunerako erakunde laguntzaileen sarearena.
- 2022ko Kirolaren Enpresa Saria Kirolgalan, Gipuzkoako kirolari egindako ekarpenagatik eta harekin izandako lankidetza eta konpromisoagatik.
- 2022ko Master Marketing saria (PesMes), 360 graduko komunikazio-kanpainengatik.
- Digitalizazio eta Adimen Artifizialeko Estatu Idazkaritzaren 2021eko enerTIC Awards saria, LABORAL Kutxak Smart Buildings kategorian garatutako energia-efizientziaren digitalizazioa proiektuari.

Lagun Arok, berriz, «EthSI®» (Ethical and Solidarity-Based Insurance) ziurtagiria berritu du 2022an —2 urteko iraupena du—. Zigilu hori erabiliz ziurtagiria eman zaie zenbait produktu espezifikori, hala nola bizitza-arriskuko aseguruei eta auto- eta etxe-aseguruei.

GESTIO ETIKOA
ETA SOLIDARIOA

Finantza Etikoen Behatokiak EthSI (Ethical and Solidarity Based Insurance) zigilua eman dio Seguros Lagun Arori, beraren gestio etikoa eta solidarioa aintzatesteko.

Aseguruen sektorean gardentasuna eskaintzeko eta aseguru etikoen garapena sustatzeko irizpide-multzo bat hartu izana saritzen da zigilu horren bidez.

Ebaluazio-batzorde independente baten bidez, arlo hauetako alderdiak balioesten ditu Behatokiak: komunitatearekiko eta lurraldearekiko erantzukizuna, erantzukizun ekonomikoa, inbertsio etikoak eta banku-jarduera etikoaren erabilera, ekitatea eta gardentasuna, ingurumen-erantzukizuna, laneko erantzukizuna, sozietate-egitura, gobernantza eta funtzionamendu demokratikoa

3.4. Ingurumenarekiko harremanak

3.4.1. Gestio-ikuspegia

2001az geroztik, Ingurumena Gestionatzeko Sistema (IGSa) du LABORAL Kutxak, ISO 14001 Arauarekin bat, Egoitza Nagusiko hiru eraikinetako jarduera guztietan. LABORAL Kutxak Zerbitzu Zentraletan gauzatzen dituen ingurumenaren alorreko jarduketarik gehienak gainerako lantokietara zabaltzen ditu, ziurtagiridun sistemaren barnean egon ez arren. 2022an, ingurumen-ziurtagiria berritu egin zen beste 3 urterako.

Ingurumena Gestionatzeko Sistema Ingurumen Batzordeak kudeatzen du, eta Aholkularitza Juridikoko, Barne Ikuskaritzako, Arriskuetako, Higiezinetako, Zerbitzu Orokorretako eta Plangintzako kideek osatzen dute; azken horretako ordezkariak egiten ditu koordinatzaile-lanak. Rioko Adierazpenaren zuhurtziazko printzipioa ezarriz, jarduerak izan litzakeen inpaktuak hartzen dira aintzat, ingurumenari kalterik ez egiteko. Finantzen eta aseguruen jarduerak ingurumenean dituen zuzeneko ondorioak (isurtzeak, kontsumoak edo hondakinak) ez dira bereziki garrantzitsuak; kreditu- eta inbertsio-jarduerak eragindakoak bai, ordea.

Seguros Lagun Arok LABORAL Kutxaren politika bera darabil ingurumenaren gestiori dagokionez, eta, beraz, helburu hau du: etengabe hobetzea ingurumen-portaeran, kutsadurari aurrea hartzen eta ingurumena babesten. Dena den, LABORAL Kutxaren bulego-sarea bezalaxe, ez da haren Ingurumena Gestionatzeko Sisteman sartzen.

Jardueraren izaeragatik, txikia da aseguru-entitateak eragindako zuzeneko ingurumen-inpaktua, eta haren gestioak BEGen isurtzeetan eta paper-kontsumoan jarri du arreta.

Ingurumenaren ikuspegitik, bulego-eredu fisiko berria ezartzeko plana da aipatzekoa. Eredu horren arabera, aire-girotzeko eta led-argiztapeneko instalazio berriak ezarri dira, presentzia detektatzeko sistema eta guzti, eta, ondorioz, jardueraren eragina hobetu da, energia-kontsumoa murriztearen bidez. Ildo beretik, Arrasateko Zerbitzu Zentraletako LK3 eraikinaren birgaitze integralari ekin zaio. Obra amaitutakoan, 2024aren hasieran, Breeam ingurumen-ziurtagiria lortzea da helburua.

Kontsumoei dagokienez, paperaren erabilera murrizteko proiektua abiarazi da. 2024. urtearen amaierarako paper-kontsumoa 2022koa baino % 50 txikiagoa izatea da helburua. Langile guztien ordainsari aldakorrari lotuko zaio helburu hori. Jardueraren eraginaren murrizketari ematen zaion garrantziaren seinale, 2023an murrizketa-helburu bat sartu da pertsona guztien ordainsari aldakorrean, hiru xederekin:

- Paperaren kontsumoa % 25 txikitzea.
- Energia-kontsumoa eta gure eragiketen karbono-aztarna % 5 txikitzea.

Nolanahi ere, 2023an ingurumenaren alorrean egindako aurrerapenik garrantzitsuenek ez dute zerikusirik jardueraren zuzeneko eraginarekin —kontsumoak, hondakinak eta isurtzeak—, baizik eta finantza-sistema ingurumenaren aldetik jasangarriagoa egitearekin. Txosten honetan esan denez, Europako Batasunak finantza-sistema erabili nahi du egungo eredu ekonomikoa iraunkorragoa bihurtzeko eragile gisa. Urtean zehar lan handia egin da araudi hori aplikatzeko eta erakundea jasangarritasunaren paradigma berri horretara egokitzeko. Hauek dira finantzaketa-jardueraren bidez ingurumenean eragina duten ekintzetako batzuk:

- ESG alorreko inbertsio-, finantzaketa- eta aseguru-politika onartzea. Baztertutako jarduera-sektoreak eta bereziki jarraitu beharrekoak ezartzen ditu politika horrek.
- Jasangarritasun-arriskuak integratzea. Bero-mapa bat egitea, jarduera-sektore guztiek dituzten zuzeneko eta trantsizioko klima-arriskuak zehazteko.
- III. zutabeari buruzko informazioa Zuhurtziazko Garrantziko Txostenean argitaratzea.
- Hipotekatutako higiezinen energia-kalifikazioari eta lotutako klima-arriskuei buruzko informazioa lortzeko modua hobetzea.
- ESG produktuen katalogoa garatzea.
- Greenwashingeko arriskuak zaintzea.
- Jasangarritasunaren aginte-taula diseinatzea.
- Hirugarren TCFD txostena egitea eta TNFDaren gomendioei jarraituz lehen txostena egitea.

AENORek urtero ikuskatzen du IGSa, Laneko Segurtasuneko eta Osasuneko ISO 45001 arauarekin batera. 2022an, ziurtagiria 3 urtez berritu zen, eta 2023ko jarraipen-auditoria adostasun-ezik gabe gainditu da.

IGSak bete behar duen ISO arauak dioenez, erakundeko eginkizun eta maila guztiek (goi-zuzendaritzaren gidaritzapean) duten konpromisoaren mende dago ingurumena gestionatzeko sistemaren arrakasta. Ildo horretatik:

- Goi-zuzendaritzak onartutako ingurumen-politika du LABORAL Kutxak, eta langile eta bezero guztiek dute eskura, webgune korporatiboan argitaratuta baitago.
- Urtean behin, plangintza egiten du, ingurumen-alderdiekin lotutako arriskuak eta aukerak zehazteko.
- Horietan oinarrituta, helburu batzuk finkatzen ditu, gero jarraipena egin eta ezagutarazteko, bai barruan bai kanpoan.
- Ingurumen-helburu horiek lortzeko ekintza egokiak ere antolatzen ditu, hauek zehaztuz: zer egingo den, zer baliabiderekin, nor izango den arduraduna eta zer adierazle erabiliko den horien burutzapena ebaluatzeko eta epeak bete diren egiaztatzeko.

3.4.2. Magnitude nagusiak eta bideratutako ekimenak

Hona hemen ingurumen-arriskuei aurrea hartzeko baliabideei buruzko datuak:

IGSari zuzenean egotzitako gastuak	2022	2023
IGSaren mantenua (1)	2.039	1.089
Hondakinen gestioa (2)	4.190	1.563
Ingurumen-sustapena	0	8.724
Neurketak (isurtzea)	578	599
Guztizkoa €-tan	**6.807**	**11.975**

(1) IZAITE eta legezko betekizunak.
(2) Papera eta olioa kentzea eta segurtasun-kontseilaria.

Ingurumen Batzordeak zuzenean gestionatzen ditu gastu horiek; ez dira kontuan hartu, ordea, departamentu zehatzek gestionatutako gastuak eta egindako inbertsioak. **Seguros Lagun Aro**k ez du helburu horretarako kontu-sail berezirik.

Zuhurtasun-printzipioari dagokionez, ingurumen-arriskuak eta -aukerak aztertzeko Ingurumena Gestionatzeko Sistema bat du LABORAL Kutxak, lehenago ere azaldu dugunez. Azterketa

horretan ez da antzeman produktu edo teknologiarik, jendearen edo ingurumenaren osasunarentzat arriskugarria izan daitekeela susmatzeko modukorik.

Era berean, ez da ikusi zuzeneko ingurumen-arriskuetarako hornidurak eta bermeak ezartzeko beharrik.

Ingurumen-arriskuen ebaluazioa

LABORAL Kutxak «Arriskuen Berrikuspenaren eta Gestioaren Kontrola» izeneko prozedura du ezarrita, Ingurumena Gestionatzeko Sistemaren barruan. Kreditu-inbertsioko eta sinadura-arriskuko eragiketa guztietan ingurumen-arriskuak ebaluatzeko eta kontrolatzeko eman behar diren urratsak finkatzen ditu, eta jarduera bakoitzari arrisku handia, ertaina edo txikia esleitzen dio. Altxortegia, balore-zorroa eta aktibo monetarioak, baina, kanpo utzi dira. Esleitutako arrisku-maila Handia bada, faktore hori ere kontuan hartzen da eragiketa positiboa edo negatiboa izan den baloratzeko.

Segmentua	Eragiketa-kopurua		Mila €-kotan		Handia		Ertaina		Txikia	
	2022	2023	2022	2023	2022	2023	2022	2023	2022	2023
Enpresak	764	800	1.185.698	1.404.020	27	40	123	99	519	661
Partikularrak	16	12	33.958	47.438	1	1	1	2	14	9
Autonomoak	1	2	150	1.775	-	-	-	-	1	2
Negozioak	40	42	62.652	46.395	-	-	4	4	36	38
Sustatzaileak	43	40	139.645	157.933	-	-	-	-	37	40
Erakundeak	133	109	443.788	468.455	8	6	35	31	66	72
Publikoa	22	18	567.104	552.495	-	-	-	-	21	18
Kreditua finantzatzea	14	7	8.001	5.620	-	-	-	-	1	7
Guztira	**1.033**	**1.030**	**2.440.996**	**2.684.131**	**36**	**47**	**163**	**136**	**695**	**847**

Enpresak hainbat produkzio-zentro baditu, arriskua horietako bakoitzean baloratzen da, eta ateratako arriskurik handiena esleitzen zaio enpresari. Azken 2 urteotan ez da eragiketa bat ere atzera bota, ingurumen-arriskuagatik.

Beste alde batetik, 4.2. Finantzaketa/Inbertsioa ESG irizpideekin atalean, kreditu-inbertsioan nahiz inbertsioen gestioan ingurumenaren ikuspuntutik egiten diren beste ingurumen-kontrol batzuk aipatzen dira.

Gardentasuna erregai fosilekiko esposizioan

Erregai fosilekiko esposizioa, 12-31n (mila €-kotan)	2022	2023
Eragiketa-kopurua*	48	45
Esposizioa, guztira	**5.176**	**7.813**

Ikus daiteke, beraz, LABORAL Kutxak esposizio txikia duela industria horietako klima-arriskuan.

Azaldu denez, txosten honekin batera, TCFD klima-txostena argitaratu da; LABORAL Kutxak klima-arriskuen inguruan duen egoera azaltzen du. Txostenak arlo horretan egin diren aurrerapenak jasotzen ditu, bai eta aurre egiteko dauden erronkak ere.

Kutsadura

Azken urteotan, inbertsio-ahalegin handia egin du LABORAL Kutxak, Arrasateko Zerbitzu Zentraletako 3 eraikinetako 2 goitik behera berritzeko. Hirugarrenaren berrikuntza 2024an amaitzea dago aurreikusita. Esku-hartzeen ondorioz, argiztapeneko, aire-girotzeko eta isolamenduko azken teknologiak ezarri ditu, eta, ondorioz, ingurumenaren alorreko sailkapen gorena (A) lortu du LK1 eraikinean. Nabarmentzekoa da bi teknologia berriztagarri (geotermia eta biomasa) erabili izana, eraikinen aire-girotzerako. Era berean, sare komertzialeko bulegoak berriztatzen dituenean, teknologia horiek ezartzen ditu, jardueraren inpaktua eta isurtzeak gutxitzeko asmoarekin. Azkenik, ahalegin etengabea ari da egiten, jarduera digitalizatzearren, hala bezerorekiko harremanetan nola barruko jardueran.

Ingurumen-programaren barruan urtero egiten duen ingurumen-ebaluazioan, zarata ez da alderdi nabarmentzat jo. Argi-kutsaduraren gaia, berriz, ez da aintzat hartu, finantzen jarduerak eragin txikia duelako horretan. Edonola ere, mekanismo batzuk ditugu ezarrita, gaueko ordu jakin batetik aurrera bulegoetako argizko errotuluak itzaltzeko.

Ekonomia zirkularra eta hondakinen prebentzioa eta gestioa

Ingurumenaren segurtasunari dagokionez, Zerbitzu Zentraletako eraikinek eta instalazioek larrialdi-plana dute, gorabeheraren bat gertatuz gero ingurumenari eragin liezazkiokeen kalteak identifikatu eta inpaktu hori ahalik eta txikiena izateko jokabidea ere aintzat hartzen duena. Bestalde, lantoki guztientzako larrialdi-planak ere badaude, nahiz eta bulego-sarean askoz txikiagoak izan larrialdiek ingurumenean sor ditzaketen arazoak.

Hondakinak egoki kudeatzen dira, ingurumen-ziurtapenaren barruan. Orobat, hondakinik garrantzitsuenak (birziklatzeko papera eta tonerra) modu zentralizatuan gestionatzen dira lantoki guztientzat. Segidan, gure jarduerari dagozkion nabarmenenak aipatuko ditugu:

		LABORAL Kutxa		Seguros LA	
Adierazlea	Unitatea	2022	2023	2022	2023
Kartoi- eta paper-hondakinak	Kiloak	129.780	78.420	3.420	820
Birziklatutako toner-kartutxoak	Kiloak	1.392	2.794	(1)	
Erabilitako landare-olioa	Litroak	560	560		

(1) Hondakin horiek ez dagozkio Lagun Arori.

Gure jarduera dela eta, ez da apenas elikagairik alferrik galtzen. Nolanahi ere, 2020an onlineko erreserba-sistema bat ezarri zen Zerbitzu Zentraletako jantokira sartzeko, egunero prestatzen diren janarien kopurua doitzeko.

Baliabideen erabilera jasangarria

Uraren kontsumoak garrantzi handirik ez badu ere finantza-erakundeetan, gure ingurumen-sisteman kontrolatu egiten dugu Zerbitzu Zentraletako kontsumoa, baina ez bulegoetakoa eta Lagun Arorena. Egoitza Nagusiko eraikinetan egin diren berrikuntzetan, hoditeria berritu da, hausturak gutxitu eta ura galtzea saihesteko. Lagun Aroren eta merkataritza-sarearen ur-kontsumoa komunetara mugatzen da; hortaz, ez da ez nabarmentzat ez gestionagarritzat jotzen. Egoitza Nagusian, berriz, bai, sukaldean eta ureztatzeko ere erabiltzen baita. Erabilitako ur guztia saretik hartzen da eta udalaren saneamendu-sarera isurtzen da. Urtean behin, isurtzen denaren kanpoko analisia egiten da, legezko mugen barruan dagoela egiaztatzeko.

Egoitza Nagusiko ur-kontsumoa (m^3-tan)	2022	2023
Ur-kontsumoa (1)	6.595*	5.850

(1) 2022ko datua zuzendu da, kontagailuaren matxuraren ondoren egindako doikuntzaren ondorioz.

Urtean behin, ingurumen-alderdien identifikazioa, erregistroa eta ebaluazioa egiten da ingurumen-programan, bakoitzari lotutako ingurumen-inpaktuak zehaztu eta bizi-zikloaren ikuspegitik duten garrantzia erabakitzeko. Horretarako, tamaina eta arriskua zehaztu eta garrantzi-maila lortzen da. Ondoren, ebaluazio horren arabera LABORAL Kutxaren (Zerbitzu Zentralen eta bulegoen) eta Lagun Aroren Ingurumena Gestionatzeko Programaren adierazle nagusiak direnak aurkeztuko ditugu.

Paperaren kontsumoa kilotan – LABORAL Kutxa+Lagun Aro	2022	2023
Publizitaterako papera	100.597	63.832
Bulegoko papera (gutunak, libretak, karpetak, folioak, gutun-azalak...)	214.647	205.250
Paperaren kontsumoa guztira*	315.244	269.082

*Kontsumitutako paperaren % 100 klororik gabeko paper ekologikoa izan da. Inprimagailuko paperak EU Ecolabel, FSC eta Rainforest Alliance ziurtapenak ditu. Erabilitako paper-moten ugaritasuna dela eta, ez da birziklatutakoaren %-a erregistratzen.

	LABORAL Kutxa / Lagun Aro	
Paperaren kontsumoa (kg-tan)	2022	2023
Publizitateko papera bezeroko	0,089	0,057
Bulegoko papera bezeroko	0,191	0,183
Kontsumoa guztira bezeroko	0,280	0,240
Paperaren kontsumo osoa pertsonako	142,77	117,40

Bezeroekiko jakinarazpenetan erabilitako papera murriztearren, bultzada handia ari gara ematen teknologia berriak eta posta elektroniko bidezko jakinarazpenak (Postamail) erabiltzeari eta bulego barruko eragiketen digitalizazioari. Ondorioz, apurka-apurka txikitzen ari da kontsumitutako paperaren eta tonerren kopurua. 2023-2024 Plan Estrategikoan, paperaren kontsumoa % 50 murrizteko helburua ezarri da.

Toner-kontsumoa aletan – LABORAL Kutxa+Lagun Aro	2022	2023
Toner-kartutxoen kontsumoa guztira	2.962	2.579
Kartutxo-kontsumoa pertsonako	1,34	1,13
Erabilitako tonerraren pisua kg-tan	2.089	1.820
Pertsonako erabilitako tonerraren pisua kg-tan	0,95	0,79

LABORAL Kutxaren jardueraren inpaktu zuzena (finantzarioa ez dena) mugatua da*. Elektrizitate-kontsumoa da garrantzitsuenetakoa. Arrasateko Zerbitzu Zentralekoa ISO 14001 ingurumen-ziurtapenaren barruan dago, eta aktiboki kudeatzen da:

	LABORAL Kutxa		Seguros LA	
Urtea/alea	2022	2023	2022	2023
Kontsumo elektrikoa urteko kWh-tan, Zerbitzu Zentralak	3.086.684	2.984.912	308.761	330.135
Kontsumo elektrikoa urteko kWh-tan, LK-N GUZTIRA	10.570.653	10.291.441		

*Zerbitzu Zentraletan kontsumitu eta Ingurumen Sisteman kontrolatu diren gasolioa eta propanoa ez dira materialtzat hartzen.

Kontsumo energetikoak:

Energia (Gj-etan) (LABORAL Kutxa osoa eta plantilla)	2022	2023**	Seguros LA 2022
Elektrizitatea	38.054	38.238	1.112
Gasolioa	26	14,4	0
Propanoa	0,30	0,39	0
A energia-kontsumoa	**38.081**	**38.252**	**1.112**
Energia-kontsumoa pertsonako	18,69	17,14	6,5
B kanpoko energia-kontsumoa (gasolina desplaz.)	**18.495**	**20.738**	**1.677**
Energia-intentsitatea*	27,77	26,43	16,30

*Energia-kontsumo osoa (A barrukoa eta B kanpokoa barne hartuta) zati langileen kopuru osoa.
**2023ko datuetan, LKren eta Seguros LAren energia-kontsumoa batera jaso da.

Azken urteotan, ahalegin handiak egin ditugu energia-efizientzia hobetzeko.

- Geotermia-instalazio bat jarri izana, Zerbitzu Zentraletan airea girotzeko.
- Biomasa-instalakuntza bat eraiki izana, biomasaren kaloria-beharrak osatzeko. Bi instalaziooi esker, guztiz kendu ahal izan da erregai fosilen bidezko klimatizazioa.
- Klimatizazioaren eta argiztapenaren efizientzia handitzeko berrikuntzak egin izana isolamenduetan (isurtze txikiko beiren bidez), instalazioetan (LED argien bidez) eta makinetan.

Elektrizitate berriztagarria sortzea

Azken urteotan, LABORAL Kutxak inbertsioak egin ditu energia berriztagarriko parkeetan, autohornikuntza elektrikoari begira. Ekian parke fotovoltaikoan parte hartzen hasi zen, eta, 2023an, beste bi parketan sartu da —horietako bat Mondragonen bertan—; bi parke horiek martxan jartzen direnean, autokontsumitutako energia elektrikoaren ehunekoa % 50 inguruko izango da.

Klima-aldaketa eta karbono-aztarna

2023-2024 Plan Estrategikoan, karbono-aztarna urtean % 5 murrizteko helburua ezarri zen. Bete egin da helburu hori; hain zuzen, % 10,1 murriztu da.

2022an, lantalde sektorial batean parte hartu zuen LABORAL Kutxak, karbono-aztarna hobeto kalkulatzeko. Finantza-erakunde gisa, garrantzizkoa da 3. irismenean beste elementu batzuk sartzea, bereziki inbertsio- eta finantzaketa-zorroekin lotutakoak. Lantaldearen jardunaren ondorioz, ezagutza teorikoa handitu eta beste kalkulu-tresna bat lortu dugu. Dena den, kalkulu-metodologia hori hobetu egin behar da oraindik. Kalkulua egiteko modu berriak badu gabezia bat, nagusiki: finantzatutako kontrako alderdi gehienei buruzko informaziorik eza. Hortaz, gaur egun, informazio publikoa eta hurbilketa sektorialak erabiltzen dira kalkulua egiteko. Hurrengo ekitaldietan zuzenduko da gabezia hori.

LABORAL Kutxa			2022	2023
BEGen isurtzeen laburpena				
Irismena	Id.	Jarduera-mota	t CO_2-bk	t CO_2-bk2
ISURTZEAK	A1.1	Iturri finkoak	24,85	30,75
1. irismena	A1.2	Iturri mugikorrak	0,00	0,00
	A1.3	Isurtze iheslariak	104,59	86,38
	A1	1. irismena – Guztira	129,43	117,13
ISURTZEAK	A2.1	Elektrizitate-kontsumoa	0,00	0,00
	A2	2. irismena – Guztira	0,00	0,00
ISURTZEAK	A3.1	Eskuratutako ondasunak eta zerbitzuak	443,00	402,37
3. irismena	A3.4	Uraren garraioa eta banaketa	542,01	84,25
	A3.5	Jardueran sortutako hondakinak	0,52	0,77
	A3.6	Negozio-bidaiak	805,54	888,64
	A3.7	Langileen joan-etorriak	1.670,16	1.735,04
	A3	3. irismena – Guztira	3.461,23	3.111,07
		Isurtzeak guztira	3.590,66	3.228,20

Datu hori lortzeko, HdC sectorial (Connecting Visions) kalkulagailua erabili dugu.
Hauek hartu ditugu kontuan:

- 1. irismenerako: gasolio- eta propano-kontsumoak eta gas hozgarriaren isurtzeak.
- 2. irismenerako: kontsumo elektriko osoa (Zerbitzu Zentralak, bulego-sarea eta lurralde-zuzendaritzetako eraikinak); 0 da, energia guztia iturri berriztagarrietatik datorrelako.
- 3. irismena: kontsumitutako uraren, paperaren eta tonerraren ondoriozko isurtzeak hartu ditugu kontuan. Barruko posta-zerbitzuaren eta biltegi-eskaeren ondoriozko isurtzeak ere bai. Papera, kartoia eta tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak (TEEHak) ere hondakintzat hartzen dira. Eta, azkenik, negozioengatiko joan-etorriak (kilometrajea, taxiak, bidaiak) eta etxetik lantokirako joan-etorriak.

Berotegi-efektuko gas-isurtzeen intentsitatea (CO_2-aren isurtze guztiak zati LK-ko langile-kopurua) 1,41ekoa izan da. 2022an, berriz, 1,64koa izan zen.

LABORAL Kutxak 2022an kalkulatu zuen lehen aldiz finantzatutako karbono-aztarna, bai kreditu-inbertsioaren aldetik, bai altxortegiko inbertsioen aldetik. 2023an, berriz kalkulatu da datua. Informazio guztia eskura izatea ezinezkoa denez, 2023ko ekitaldian kreditu-zorroaren eta altxortegiaren guztizkoaren % 76,55ekoa izango da irismena. Hona hemen zorro horien isurtzeei buruz lortutako datuak:

	2023			2022		
	t CO_2-ak	**t CO_2-en %-a**	**t CO_2/M€**	**t CO_2-ak**	**t CO_2-en %-a**	**t CO_2/M€**
Errenta finko publikoa	955.816	% 55,77	138,79	1.063.716	% 59,85	138,99
Merkataritza-zorroa	367.170	% 21,42	391,85	301.503	% 16,97	637,29
Administrazio publikoak	231.664	% 13,52	246,37	242.651	% 13,65	243,79
Hipotekak	105.305	% 6,14	10,64	169.295	% 9,53	14,22
Errenta aldakorra	43.409	% 2,53	135,46			
Errenta finko pribatua	10.559	% 0,62	105,84			
Guztira	**1.713.923**	**% 100,00**	**89,80**	**1.777.165**	**% 100,00**	**84,53**

LABORAL Kutxak 1.713.923 tCO_2-ko karbono-aztarna finantzatua izan du 2023an, eta horrek esan nahi du 90 tonakoa dela mailegatutako edo inbertitutako milioi euro bakoitzeko sortutako karbono-aztarna.



Errenta finkoak sortzen du karbono-aztarnarik handiena, aztarna osoaren % 55, hain zuzen ere. Ondoren, merkataritza-zorroa eta administrazio publikoei emandako maileguak daude, eta hipotekak, berriz, laugarren postuan daude. Errenta aldakorrak nahiz errenta finko pribatuak oso garrantzi txikia dute, LABORAL Kutxaren zorroan pisu eskasa baitute.

Inbertitutako milioi euro bakoitzeko isuritako tCO_2-ei erreparatuz gero, merkataritza-zorroa nabarmentzen da: 391,85 tCO_2 M € bakoitzeko. Ondoren, administrazio publikoei emandako maileguak daude: 246,37 tCO_2 M €-ko.

Aztarna 2022koarekin alderatzean, kontuan hartu behar da duela oso gutxi egindako kalkulua dela; hau da, doikuntzak egin beharko dira beharbada, eta, beraz, konparazioa ez da guztiz homogeneoa. Alde batetik, 2023ko kalkuluak beste bi tresna-mota hartu ditu barne, 2022an kontuan hartu ez zirenak, daturik ez zegoelako: errenta aldakorreko zorroa eta errenta finko pribatukoa. Orobat, gainerako zorroetako datuen kalitatea hobetu da pixkanaka. Hurbilketen ordez apurka-apurka datu errealak erabiltzea da helburua.



2023an, 63.242 tCO_2 gutxiago isuri dira. Isurtze txikiagoak izan dituzten zorroak errenta finko publikokoak, administrazio publikokoak eta hipoteketakoak dira. Lehenengo bietan, inbertsio-bolumen txikiagoak egin dira, eta horrek eragin du beherakada; dena dela M €-ko tCO_2-ei buruzko datua ez da aldatu bi kasuetan. Hipoteka-zorroari dagozkion isurtzeen murrizketaren kasuan, kalkulatzeko moduak ekarri du beherakada, ez baita aurreko ekitaldian erabili zen berbera; izan ere, aurten energia-ziurtagirien datu errealak erabili dira, ez zenbatetsiak.

Bestalde, merkataritza-zorroari dagokionez, M€-ko tCO_2-en kopurua txikitu arren, handitu egin dira guztizko isurtzeak. Hona hemen horren zergatia: 2023an CO_2-aren kalkulagailuan eragiketa gehiago sartu izana.

Azken urteotan LABORAL Kutxa ahalegin etengabea ari da egiten, klima-aldaketari aurre egin eta horren ondorioetara egokitzeko: inbertsioak, digitalizazioa, energia-efizientzia hobetzeko ekintzak… Hurrengo ekitaldiei begira, ahalegin horrekin eta arestian deskribatutako ekimenekin jarraitzeaz gain, ekintza-lerro hauek planteatu dira:

- Karbono-aztarnaren eta elektrizitate-kontsumoaren murrizketa plantillako ordainsari aldakorrean sartzea.
- Jarduera ekoizpen-eredu jasangarri bihurtzeko prozesua azkartzeko ekimenetan eta aliantzetan parte hartzea. Hona hemen zenbait adibide: Basque Ecodesign Center, Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak, talde sektorialak —KKNBren bidez— eta unibertsitateekiko lankidetzak.
- Jasangarritasunaren arloan eskuragarri dauden datuen kalitatea hobetzen jarraitzen dugu. Horiek zenbat eta hobeto eta sakonago landu, orduan eta hobeto ezagutuko ditugu

jardueraren eragina eta aurre egin beharreko klima-arriskuak, eta errazagoa izango da politika eta produktuak diseinatzea.

- Lehenago azaldu denez, jasangarritasuna funtsezko elementua da taldearen estrategian.

Biodibertsitatearen babesa

LABORAL Kutxaren zuzeneko jarduerak ez dio biodibertsitateari kalterik egiten, eta ez du eraginik babestutako guneetan. Hala ere, klima-aldaketaren kasuan bezala, finantza-jarduerak eragina izan dezake biodibertsitatean. Orobat, biodibertsitatearen galerak arriskuak areagotu ditzake LABORAL Kutxaren inbertsio-, finantzaketa- eta aseguru-jarduerarako. Hori dela eta, 2023an lehen txostena egin da Taskforce on Nature-related Financial Disclosures (TNFD) erakundearen gomendioei jarraituz, mendekotasunen, inpaktuen, arriskuen eta naturarekin lotutako aukeren bilakaerari buruz informatzeko, eta ildo horretan jardun ahal izateko. Txosten hori honekin batera doa, TCFD klima-txostenarekin batera.

3.5. Enpresa hornitzaileekiko harremanak

3.5.1. Gestio-ikuspegia

Gure jarduera finantzarioa denez eta oso lurralde-eremu zehatzean dugunez presentzia, azpikontratak eta hornitzaileak kudeatzearen arriskuak ez dira garrantzitsuegiak. Horren eraginez, gaur egun enpresa hornitzaileak ez dira oraindik jasangarritasun-irizpideen arabera aztertzen.

Halere, LABORAL Kutxak jakin badaki hornidura-katearen gestioa kontu garrantzitsua dela jasangarritasunaren alorrean, eta, horregatik, 2023an zenbait ekintza-lerro garatu ditu hornitzaileei begira.

EBAren Outsourcing Gida betetzen jarraitu dugu. Hornitzaileekin lan egiteak eta zerbitzuak kanpora ateratzeak dituen arrisku guztiak kudeatzea du helburu. 2021ean, **Zerbitzuak Eskuordetzeko Politika** eguneratzea onartu zen (kanporatze-politika ere deitua). Gainera, sekzio-mailako antolakuntza-unitate bat eratu zen, Hirugarrenen Gestioa izenekoa, eta hornitzaileen gestioa zentralizatzeaz eta gauzatzeaz arduratzen da, politika hori ezarri ahal izateko.

Nabarmendu behar da 2023an Kontseilu Errektoreak **LABORAL Kutxa Taldearen erosketa jasangarrien politika** onartu duela. Besteak beste, politika horrek erosketa-prozesua etengabe hobetzeko dinamika bat ezarri nahi du, jasangarritasun-printzipioetan oinarrituta, eta ESG irizpideak txertatu gure hornitzaileak hautatzeko erabakiak hartzerakoan.

2023an, Hirugarrenen Gestioa sekzioak enpresa hornitzaileak aztertzen jarraitu du. Ildo horretan, hornitzaileekin harremanetan jartzeko dauden tresnak eguneratu ditugu. Hauek dira horretarako dauden 3 tresnak:

- Kode etikoa. Hornitzaileek sinatu behar dute. Baten batek ez badu sinatzen, haren kode etikoa eskatuko zaio, LABORAL Kutxak egiazta dezan.
- Hornitzaile-eskaera. Hornitzaileak homologatzeko tresna bat da. Jasangarritasunari buruzko hiru atal espezifiko ditu.
- Zerbitzu-eskaera. Zerbitzu jakinetara dago bideratuta.

Hiru elementu horien bidez erantzuten zaio EBAren Gidari, eta kontrolatu eta kudeatzen dira hornitzaileek eragindako arriskuak. Izan ere, erantzun ondoren, dokumentuak Datuen Babesa, Segurtasuna, Aholkularitza Juridikoa eta Negozioaren Jarraitutasuna sailek aztertzen dituzte, horiek arduratzen baitira arriskurik ez dagoela egiaztatzeaz.

Galde-sorta horiek guztiak hornitzaile bakoitzari bidaltzen zaizkio zerbitzu berri bat kontratatu edo lehenengo bat berritzen den bakoitzean. Hornitzaile zaharrei ere bidaltzen zaizkie, zerbitzua berritzen ez bada ere, hornitzaile guztiei buruzko ahalik eta informazio gehien lortze aldera.

Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, enpresa-jarduerak koordinatzen ditugu sare komertzialeko bulegoetan lan egitera etortzen diren kontratekin.

Gure enpresa hornitzaileen ezaugarriak direla eta, ez dugu beharrezkotzat jo horiei auditoretzak egitea, ematen dizkiguten produktu nahiz zerbitzuen ezaugarriekin zerikusirik ez duten alderdietan, salbu eta informazioaren eta datuen informazioari dagokionean. Hori dela eta, gaur egun, enpresa hornitzaileei ez zaizkie ingurumen- eta gizarte-arloak ebaluatzen; dena den, txikitzat jotzen dira horien jardueraren inpaktuak. Zuhurtasun-printzipioari erantzunez, beste

eragile batzuk ere hartzen ditugu aintzat, tokikoez gain beste enpresa hornitzaile batzuk aukeratzerakoan: eskakizun teknikoak, ematen duten produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarriak eta prezioa. Era berean, LABORAL Kutxak lan- eta gizarte-legeria betetzeari ere erreparatzen dio, enpresa hornitzaileekin lotzen duen klausula baten bidez:

- Laneko araudia, Gizarte Segurantzakoa eta laneko segurtasunari eta osasunari buruzkoa betetzea.
- Ingurumenaren eta Laneko segurtasunaren eta osasunaren gestio-sistema ziurtagiridunek ere prozedura zehatz batzuk dituzte ezarrita, erosketak eta azpikontratazioak sistema bakoitzerako ezarritako baldintzak kontuan hartuta gestionatzeko.

Gure jarduera-eremuan, bi esparrutan soilik antzematen ditugu giza eskubideak ez betetzeari lotutako arriskuak: ustelkeria-arriskuetan eta gu hornitzen gaituzten enpresek bete egiten dituztela bermatzeko egiten dugun zeharkako esku-hartzean. Hurrengo ataletan garatuko ditugu bi alderdi horien alorrean egindako jarduketak.

3.5.2. Magnitude nagusiak

	2022	2023
Erosketa-bolumena (mila eurokotan)	158.817	197.725
Tokiko enpresei erositako ondasun eta zerbitzuen %-a (2)	% 96,3	% 95,1
Tokiko enpresa hornitzaileen %-a guztizkoarekiko	% 93,6	% 93,5
Barruko —ez inportatutako— erosketen %-a (1)	% 99,9	% 99,9

(1) 2023an, estatutik kanpoko 3 enpresa hornitzaile izan zituen LABORAL Kutxak: enpresa hornitzaile guztien % 0,53 eta eskuratutako ondasun eta zerbitzuen % 0,04. Horietatik, 1 Europar Batasunetik kanpoko herrialde batekoa da. Zenbatekoaren % 46,7 Euskal Herriko Saretik dator (EAEtik eta Nafarroatik).

(2) Tokikotzat hartzen ditugu gure bulego-sarea hedatuta dagoen probintzietakoren batean dutenak helbidea.

3.5.3. Hornitzaileekiko elkarrizketak

Enpresa hornitzaileekin jasangarritasunaren inguruan ditugun elkarrizketei dagokienez, 2021eko txostena egiteko galde-sorta bat bidali zitzaien 165 enpresa hornitzaileri. Gure instalazioetan jarduten duten langileekin lotura berezia zuten enpresak aukeratu genituen. Azpikontratatutako enpresak eta kanporatutako jarduerak egiten dituztenak hartzen zituzten barne. Materialtasun bikoitzaren azterketara begira —informazio ez-finantzarioari buruzko zuzentarau berrira (CSRDra) egokitu aurretik—, 2024an, enpresa hornitzaileei LABORAL Kutxaren inpaktu-materialtasunari buruz duten ikuspegia berriro kontsultatzea aurreikusten da.

Orobat, enpresa hornitzaileak kudeatzeko proiektuan, kanal bat (helbide elektroniko bat) gaitu da, gure enpresa hornitzaileek aukera izan dezaten gurekin harremanetan jarri eta zalantzak argitu edo salaketa nahiz kezka guztiak helarazteko.

Hornitzaileen esparruan, arreta berezia merezi du Lagun Aroren **bitartekaritza-kanalak**. Aseguru-etxeen ikuspegitik, bitartekaritza-kanala interes-talde garrantzitsua da negozioarentzat.

Gure bitartekariekin etengabekoa da elkarrizketa, bai bakoitzarekin banan-banan, bai taldekako bileren, inkesten edo antzekoen bidez. Haien iritzia eta adostasuna bilatzen ditugu, produktuak merkaturatzean edo aldatzean, besteak beste, merkatuaren inguruan dituzten ikuspegian eta esperientzian oinarrituta.

Gainera, konpainiarekin duten gogobetetasun-mailari buruz ere galdetzen diegu, bi urtez behingo azterlan baten bidez. Hartan, hainbat alderdi aztertzen dira, honako hauek, besteak

beste: Entitateak haien eskura jartzen dituen produktu eta zerbitzuekiko gogobetetze-maila, Entitateak haien jarduera garatzeko ematen dien laguntza, eskura dituzten baliabide teknikoak eta harremanetarako langileak, ematen dien informazioa, azken bezeroarentzako zerbitzua eta ezbeharren gestioarekiko gogobetetasuna.

Azterlan horren emaitza gisa, 2022an **% 86ko gogobetetasun orokorra** lortu zen (0tik 10era bitarteko eskalan, 7tik gorako balorazioak), eta **merkatuak, berriz, % 74koa**. Oso marjina handia da, eta oso egoera onean gaudela adierazten du.



Antzeko egoera lortzen dugu **Net Promotore Score (NPS)** leialtasun- eta gomendio-adierazleari erreparatzen badiogu; haren arabera, **Lagun Aro**k sustatzaile garbien **% 13** —sustatzaileen ehunekoari aurkakoena kenduz ateratzen den datua— lortzen du. **Merkatuak**, berriz, **–% 7** lortzen du, aurkako bezeroen ehunekoak sustatzaileena gainditzen baitu.

GURE BITARTEKARIEN AINTZATESPENA ETA PRESTAKUNTZA

«Bada beste modu bat» ikurritza LABORAL Kutxa Taldearen bereizgarria da, baita aseguru-konpainiena ere, aseguruak egiteko ere badelako beste modu bat. Eta bada bitartekotzarekin harremanak izateko beste modu bat.

Aurten ere, «bada beste modu bat» ikurritzaren pean, Lagun Arok Konbentzioa egin zuen bere bitartekaririk onenekin, San Mames estadioan. Konpainiaren datuen eta etorkizuneko proiektuen berri emateaz gain, luze jorratu zen baterako lana. Ekitaldia amaitzeko, Alex Txikonek hitzaldia eman zuen, Seguros Lagun Arok bitartekariekin duen espiritua indartu zuena; hots, talde-lana.

2023ko ekitaldian, inbertsio handia egin da bitartekaritza-kanal osorako, bitartekariari leialtasunaren eta marketin jarraituaren bidez bezeroa atxikitzen laguntzeko.

3.5.4. Ekitaldian hornitzaileen gestio arduratsurako garatutako ekimenak

Jasangarritasunari dagokionez, lehenik eta behin aipatu behar da arestian aipatutako hiru dokumentuetatik —enpresaren eta hornitzaileen arteko harremanari eusteko balio dutenak— bik jasangarritasunarekin lotutako kontuak dituztela. Alde batetik, Kode Etikoak erabateko zerikusia du jasangarritasunarekin. Beste batetik, Hornitzaile-eskaera dokumentuan, lotutako hiru atal daude: Gardentasuna eta Etika, Gizarte Erantzukizun Korporatiboa (GEK) eta Ziurtagiriak eta ingurumena.

Lehenago azaldu dugunez, Kontseilu Errektoreak LABORAL Kutxa Taldearen erosketa jasangarrien politika onartu du 2023an. Hauek dira politika horren helburu batzuk:

- ✓ Hornikuntza-katean ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-arloan aplikagarriak diren legezko baldintzak betetzen direla zaintzea.
- ✓ Hornikuntza-prozesuan gardentasuna eta informazio osoa eta zehatza bermatzea.
- ✓ Enpresa hornitzaileak hautatzeko prozesuan legezkotasunarekiko errespetua, osotasunarekiko konpromisoa, lehia, objektibotasuna, gardentasuna, balioaren sorrera, ustelkeriaren prebentzioa eta konfidentzialtasuna aintzat hartzen direla bermatzea.
- ✓ Enpresa hornitzaileen jarraipena egitea, jasangarritasunaren arloko konpromisoak betetzen ari direla ziurtatzeko.

Hornitzaileen alorreko beste ekintza-lerro bat laneko arriskuen prebentzioa da. 2021ean eragiketa berria ezarri zen sarbide-kontrolaren inguruan, inolako azpikontratarik ez dadin gure instalazioetan sartu, beharrezko dokumentazioa eguneratuta eduki barik. Era berean, gure bulegoetara sartzen diren azpikontraten kontrola nabarmen hobetu da.

Erosketa-prozedurak eskatzen duenez, enpresa hornitzaileek bere egin behar dute hornitzaileen kode etikoa. Kodea sinatuta, printzipio eta konpromiso batzuk hartzen dituzte beren gain: ingurumen-arlokoak, giza eskubideen eta berdintasunaren esparrukoak, kapitalak zuritzearekin eta ustelkeriaren aurkako borrokarekin lotutakoak eta datuen babesaren alorrekoak.
Enpresa hornitzaileen artean, 3 mota bereizten dira, jatorri geografikoaren arabera:

- Hurbileko enpresak. Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dutenak.
- Tokiko enpresak. Hurbilekoak izan gabe LABORAL Kutxak ezarpen fisikoa (bulegoa) duen probintzia batean dutenak egoitza.
- Gainerakoak.

4. TXOSTENARI BURUZKO INFORMAZIOA

Txostenaren profila

LABORAL Kutxak aurkezten duen hemeretzigarren Jasangarritasun Txostena da 2023koa, eta urte osoari egiten dio erreferentzia, finantza-informazioak bezala. Caja Laboralak 2005az geroztik kaleratzen zituen urtero EGEari buruzko txostenak.

LABORAL Kutxak asmoa du bere Jasangarritasun Txostena urtean behin kaleratzen jarraitzeko, GRIk zehaztutako erabakiei jarraikiz eta CSRD araudi berriarekin bat eginez. LABORAL Kutxaren 2023ko ekitaldiko Jasangarritasun Txostena GRIren adostasun-aukeraren arabera egin da. Identifikatutako alderdi materialei lotutako adierazle guztiei erantzun zaie.

Txosten honek 2018ko abenduaren 28ko 11/2018 Legeak, informazio ez-finantzarioari eta dibertsitateari buruzkoak, ezarritakoa betetzen du. Aintzat hartu du, halaber, Europako Batzordearen 2017/C 215/01 Jakinarazpena, Txosten ez-finantzarioak aurkezteari buruzko zuzentarauen ingurukoa.

Finantzen Arearen zuzendariak ematen dio oniritzia txostena egiaztatzeko eskaerari.

Talde bateratuari buruzkoa da, eta banku- eta aseguru-jarduerak hartzen ditu barne. Bi aseguru-konpainiei buruzko informazioa modu bateratuan aurkeztuko da. Gainerako sozietateei dagokienez, duten garrantzia eta jarduera direla eta, haien informazioa LABORAL Kutxaren informazioarekin batera dago; hala ere, zenbait kasutan, beharrezkoa izan daiteke informazioa bereizita ematea, alderdi espezifikoren baten ondorioz.

Horrez gain, LABORAL Kutxak jasangarritasunari buruzko informazio garrantzitsua biltzen du, honako hauen inguruan:

- Aktibo higiezinak gestionatzeko sozietateak. LABORAL Kutxak higiezinen negozioa gestionatzeko erabiltzen dituen sozietateak dira. Sozietate instrumentalak dira, eta, ondorioz, horiei buruzko datuak eta inpaktuak LABORAL Kutxako datu eta inpaktuen barruan sartzen dira.
- Caja Laboral Bancaseguros (CLBS). Bitartekari independentea da, % 100ean LABORAL Kutxaren partaidetzapekoa. Aseguru-jarduera LABORAL Kutxaren enpresa- eta merkataritza-estrategian barneratzea da bere izateko arrazoia. Bertako langileak inoren konturako langileak dira.

LABORAL Kutxak bere banaketa-sarea lagatzen dio CLBSri, aseguru-produktuetan bitartekari-lanak egin ditzan. LABORAL Kutxan txertatuta dagoenez, haren jardueraren adierazlerik gehienak LABORAL Kutxaren barruan daude. Adierazle independenteak dituzten esparruak txostenean zehar zerrendatu dira.

LABORAL Kutxa MONDRAGON korporazioko kidea da. MONDRAGON korporazioa 81 kooperatiba autonomo eta independentek osatzen dute, eta bakoitzak informazioa emateko modu propioa du.

GRI alderdien eta adierazleen norainokoa

Ezarritako estalduraren arabera, LABORAL Kutxaren 2023ko Jasangarritasun Txostenean ez dago GRIk ezarritako irismenerako mugarik, honako hauetan ez bada:

- Neurketa-sistemarik ez zegoelako estali ezin izan diren adierazleetan; horiek txostenean zehar eta GRI Adierazle Taulan identifikatu dira, eta aurreragoko edizioetan neurtzeko ahaleginak egingo dira.
- Finantza-entitate baten jardueran eta Entitatearen testuinguru ekonomikoan, politikoan eta sozialean eragin edo materialtasun txikia edo hutsa dutelako aplikatzen ez diren adierazleetan; horien mugak adierazle bakoitzean zehazten dira.

Zehaztu ditugun arrazoiak tarteko, adierazle batzuei buruz informaziorik eman ez bada ere, txostenean zehar aipatuko ditugu horiek guztiak.

2014ko Txostenetik aurrera, materialtasun-analisia ere egin izan da, jasangarritasunaren alorreko gairik garrantzitsuenak zehazteko. 2022tik, aurrera egin dugu analisi hori materialtasun bikoitzaren ikuspegitik egiteko bidean. Azterketa horren emaitzak 2. zatiko Materialtasun-analisia atalean daude deskribatuta.

Txostena egiaztatzearen inguruko politika

AENORek egiaztatu ditu Caja Laborala zenak 2005az geroztik prestatutako Jasangarritasun Txostenak. Erakunde egiaztatzaileak urte horietan guztietan bildutako ezagutza kontuan hartuta, etorkizunean egiaztatze-sistema horri eusteko asmoa du LABORAL Kutxak, Finantzen Arearen bidez, betiere araudi-eskakizun berriek horretarako aukera ematen badute.

Kontaktua

Sartu LABORAL Kutxaren *www.laboralkutxa.eus* webgune korporatiboan. Txostenak eta gertaera nabarmenak atalean, hauek daude eskura:

- Txosten ekonomikoa
- Urteko Kontu Indibidualak eta Bateratuak
- Gobernu Korporatiboaren Txostena
- Gardentasun-informazioa
- Zuhurtziazko Garrantziko Txostena
- Txosten klimatikoa - TCFD
- Jasangarritasun Txostena eta Informazio ez-finantzarioaren egoera-orria

Kontaktua atalean, iradokizunak, kexak, erreklamazioak, iritziak… helaraz daitezke. Txosten honekin zerikusia duten gainerako informazio eta gaietarako helbide elektronikoa hauxe da: *RSE@LABORALkutxa.com*

5. ERANSKINAK

5.1. GRI edukien aurkibidea

Erabilera-aitorpena	LABORAL Kutxak GRI estandarren arabera egin du txostena, 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitarteko epealdirako.
Erabilitako GRI 1	GRI 1: 2021eko oinarriak
GRI estandar sektorial aplikagarriak	Ez da aplikagarria

GRI ESTANDARRA / BESTE ITURRI BAT	EDUKIA	KOKAPENA	EZ-EGITEA			GRI ESTANDAR SEKTORIALAREN ERREFERENTZIA-ZK.
			EZ-EGITEAREN BALDINTZAK:	ARRAZOIA	AZALPENA	
Eduki orokorrak						
GRI 2: 2021eko eduki orokorrak	2-1. Antolamendu-xehetasunak	8. orrialdea (or.): 1.1. Taldearen aurkezpena				
	2-2. Jasangarritasun-txostenak egiten parte hartu duten erakundeak	9. or.: Partaidetzapeko enpresak				
	2-3. Txostenak helburu duen aldia, maiztasuna eta harremanetarako bidea	96. or.: Txostenaren profila				
	2-4. Informazio-berradierazpenak	Txostenean deskribatu dira aldaketak, halakorik egon bada.				
	2-5. Kanpo-egiaztapena	97. or.: Txostena egiaztatzearen inguruko politika 113. or.: AENORen egiaztapena				
	2-6. Jarduerak, balio-katea eta beste merkataritza-harreman batzuk	4. or.: Gutuna 8. or.: Taldearen aurkezpena 9. or.: Partaidetzapeko enpresak 10. or.: Egitura operatiboa 12. or.: Banaketa geografikoa 15. or.: Estrategia eta arriskuaren gestioa 38. or.: Gestio-ikuspegia eta Bezeroen magnitude nagusiak 91. or.: Enpresa hornitzaileekiko harremanak Ikusi www.laboralkutxa.eus webgunea				
	2-7. Plantilla	56. or.: Plantillaren magnitude nagusiak				
	2-8. Plantillan ez dauden langileak	60. or.: Plantillan ez dauden langileak				
	2-9. Gobernantzaren egitura eta osaera	10. or.: Egitura operatiboa 18. or.: Gobernu Korporatiboa Ikusi Gobernu Korporatiboaren Txostena				
	2-10. Gobernu-organo gorena (Kontseilu Errektorea) izendatzea eta hautatzea	Ikusi Gobernu Korporatiboaren Txostena				
	2-11. Kontseilu Errektoreko (KEko) lehendakaritza	Ikusi Gobernu Korporatiboaren Txostena				
	2-12. Kontseilu Errektorearen funtzioa inpaktuen gestioa gainbegiratzean	18. or.: Gobernu Korporatiboa 11. or.: Balioak, printzipioak, estandarrak eta jokabide-arauak Ikusi Gobernu Korporatiboaren Txostena 32. or.: Materialtasun-analisia				

	2-13. Erantzukizuna eskuordetzea inpaktuen gestioan	10. or.: Egitura operatiboa 18. or.: Gobernu Korporatiboa				
	2-14. KEaren funtzioa jasangarritasun-txostenak aurkeztean	18. or.: Gobernu Korporatiboa				
	2-15. Interes-gatazkak	18. or.: Gobernu Korporatiboa Ikusi Gobernu Korporatiboaren Txostena				
	2-16. Kezka larrien berri ematea	18. or.: Gobernu Korporatiboa 61. or.: Plantillarekiko elkarrizketak Kontseilu Errektoreari jasangarritasunari buruzko jardueren berri emateko aldizkako txostenean, jarduera esanguratsuak jaso ziren. Ez da jakinarazi kezka larririk.				
	2-17. KEaren ezagutza kolektiboak	23. or.: Gobernu-organoen garapena				
	2-18. KEaren jardunaren ebaluazioa	18. or.: Gobernu Korporatiboa Ikusi Gobernu Korporatiboaren Txostena				
	2-19. Ordainsari-politikak	24. or.: Gobernu-organoen ordainketa Ikusi Urteko Kontu Bateratuak, 27. or.				
	2-20. Ordainsaria zehazteko prozesua	68. or.: Ordainsariaren gestioa 24. or.: Gobernu-organoen ordainketa Ikusi Zuhurtziazko Garrantziko Txostena 18. or.: Gobernu Korporatiboa				
	2-21. Urteko guztiko konpentsazio-ratioa	68. or.: Ordainsariaren gestioa				
	2-12. Garapen jasangarriko estrategiari buruzko deklarazioa	4. or.: Gutuna				
	2-23. Konpromisoak eta politikak	15. or.: Estrategia eta arriskuaren gestioa 18. or.: Printzipioak eta gobernua 29. or.: Gestio-ikuspegia Gestio arduratsua Arriskuak, oro har, Kontseilu Errektoreko Arrisku Batzordean eta Arriskuarekiko Grinaren Esparruan gestionatzen dira, eta urtean behin Zuhurtziazko Garrantziko Informazioan ematen dira. Ingurumen-arriskuak ISO 14001:2015 ziurtagiria duen sisteman gestionatzen dira. Produktu berrien bezeroentzako arriskuak Produktuaren Batzordeak gestionatzen ditu 11. or.: Balioak, printzipioak, estandarrak eta jokabide-arauak TCFD txostena				
	2-24. Konpromisoak eta politikak gehitzea	18. or.: Printzipioak eta gobernua				
	2-25. Inpaktu negatiboak zuzentzeko prozesuak	42. or.: Bezeroarekiko gestio arduratsua				

		40. or.: Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua				
	2-26. Aholkua eskatzeko eta kezkak azaltzeko mekanismoak	24. or.: Ustelkeria eta eroskeria 40. or.: Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua				
	2-27. Legeak eta araudiak betetzea	Txostenak barne hartzen dituen ekitaldietan, isun eta zehapenen kostua 0 €-koa izan da. 41. or.: Zehapenak 40. or.: Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua 27. or.: Araudia Betearaztea				
	2-28. Elkarteei atxikitzea	79. or.: LABORAL Kutxak ontzat emandako ekimenak				
	2-29. Interes-taldeen parte-hartzerako ikuspegia	Interes-taldeak urtero hartzen dira kontuan, materialtasun-analisia egiten denean. 32. or.: Materialtasun-analisia 39. or.: Bezeroekiko elkarrizketak 61. or.: Plantillarekiko elkarrizketak 78. or.: Gizartearekiko elkarrizketak				
	2-30. Negoziazio kolektiboko akordioak	61. or.: Negoziazio kolektiboa				
Gai materialak						
GRI 3: Gai materialak 2021ean	3-1. Gai materialak zehazteko prozesua	96. or.: Txostenaren profila 32. or.: Materialtasun-analisia				
	3-2. Gai materialen zerrenda	32. or.: Materialtasun-analisia				
Datuen eta eragiketen pribatutasuna eta segurtasuna babestea.						
	3-3. Gai materialen gestioa	45. or.: Datuen eta eragiketen pribatutasuna eta segurtasuna babestea				
Zerbitzu-kalitatearen bikaintasuna: adeitasuna, zerbitzua azkar ematea, eragiketak erraz egin ahal izatea eta hutsegiteak ahalik eta gehien txikitzea.						
	3-3. Gai materialen gestioa	39. or.: Bezeroekiko elkarrizketak 42. or.: Bezeroarekiko gestio arduratsua eta zerbitzu-kalitatearen bikaintasuna				
Bezeroekiko gestio arduratsua: azalpen argiak eta gardenak, komisio orekatuak, gainzorpetzea saihestea eta ordaindu gabeko zorren kudeaketan malgutasunez jokatzea.						
	3-3. Gai materialen gestioa	42. or.: Bezeroarekiko gestio arduratsua eta zerbitzu-kalitatearen bikaintasuna				
LABORAL Kutxaren sendotasun finantzarioa, arriskuen gestioa eta likidezia indartzea.						
	3-3. Gai materialen gestioa	13. or.: Taldearen magnitude nagusiak 15. or.: Estrategia eta arriskuaren gestioa				
Ekonomia						
Jarduera ekonomikoa	201-1. Sortutako eta banatutako balio ekonomiko zuzena	13. or.: Magnitude nagusiak				
	201-2. Klima-aldaketak eragindako finantza-ondorioak eta erakundearen jarduerarentzako bestelako arrisku eta aukerak	84. or.: Gardentasuna erregai fosilekiko esposizioan 87. or.: Klima-aldaketa TCFD				
	201-3. Zehaztutako mozkin-planaren eta beste erretiro-plan batzuen betebeharrak	68. or.: Ordainsariaren gestioa 74. or.: Kapitalizatutako itzulkin kooperatiboak				
	201-4. Gobernuarengandik	15. or.: Dirulaguntzak				

	jasotako laguntza finantzarioa					
Merkatuko presentzia	202-1. Hasierako soldataren eta tokiko gutxieneko soldataren arteko erlazioa, sexuaren arabera	68. or.: Ordainsariaren gestioa				
	202-2. Tokiko komunitatean kontratatutako goi-mailako exekutiboen ehunekoa	18. or.: Gobernu Korporatiboa				
Zeharkako ekonomia-eraginak	203-1. Azpiegituretako eta babestutako zerbitzuetako inbertsioak	82. or.: Gestio-ikuspegia. Ingurumena 76. or.: Gaztenpresa 15. or.: Zergak eta tributuak				
	203-2. Zeharkako ondorio ekonomiko garrantzitsuak eta berorien irismena	77. or.: Zeharkako ekarpenak gizarteari				
Hornidura-jarduerak	204-1. Eragiketa garrantzitsuak egiten diren lekuetan tokiko enpresa hornitzaileekin egindako gastuaren ehunekoa	92. or.: Magnitude nagusiak. Hornitzaileak				
Ustelkeriaren aurkako borroka	205-1. Ustelkeriarekin lotutako arriskuak ebaluatu zaizkien zentroen ehunekoa eta kopuru osoa, eta antzemandako arriskuak	24. or.: Ustelkeria eta eroskeria				
	205-2. Ustelkeriaren aurkako borrokaren inguruan komunikatzeko eta gaitzeko politikak eta prozedurak	64. or.: Ustelkeriaren kontrako prozeduretako prestakuntza 23. or.: Gobernu-organoen garapena 24. or.: Ustelkeria eta eroskeria				
	205-3. Berretsitako kasuak eta hartutako neurriak	24. or.: Ustelkeria eta eroskeria 27. or.: Araudia Betearaztea				
Lehia desleiala	206-1. Lehia desleialarekin, monopolio-jarduerekin eta lehia librearen aurkako jarduerekin zerikusia duten akzio judizialak				Txostenak barne hartzen dituen ekitaldietan ez da erreklamazio edo akzio judizialik izan.	
Zerga-sistema	207-1. Zerga-ikuspegia	15. or.: Zerga-sistema				
	207-2. Gobernantza fiskala, kontrola eta arriskuen gestioa	15. or.: Zerga-sistema				
	207-3. Interes-taldeen parte-hartzea eta kezken gestioa zerga-kontuetan	15. or.: Zerga-sistema				
	207-4. Herrialdez herrialde txostenak aurkeztea	15. or.: Zergak eta tributuak				
Ingurumena						
Materialak	301-1. Erabilitako materialak, pisuaren edo bolumenaren arabera	85. or.: Baliabideen erabilera jasangarria				
	301-2. Erabilitako birziklatutako materialen ehunekoa	85. or.: Baliabideen erabilera jasangarria				
	301-3. Balio-bizitzaren amaieran berreskuratzen diren produktu salduen eta bilgarrien ehunekoa, produktuaren kategoriaren arabera			Ez dagokio	Finantza-produktuen alderdi materiala ez da garrantzitsua.	
Energia	302-1. Barneko energia-kontsumoa	87. or.: Energia-kontsumoa 87. or.: Klima-aldaketa				
	302-2. Kanpoko energia-kontsumoa	86. or.: Energia-kontsumoa				

		87. or.: Klima-aldaketa				
	302-3. Energia-intentsitatea	87. or.: Energia-kontsumoa 87. or.: Klima-aldaketa				
	302-4. Energia-kontsumoa murriztea	87. or.: Energia-kontsumoa 85. or.: Baliabideen erabilera jasangarria				
	302-5. Produktu eta zerbitzuen energia-eskakizuna murriztea	51. or.: Produktu eta zerbitzu ingurumenarekiko arduratsuak				
Ura eta efluenteak	303-1. Ura partekatutako baliabidetzat hartuz erabiltzea	85. or.: Baliabideen erabilera jasangarria				
	303-2. Ur-isurtzeekin lotutako inpaktuen gestioa					
	303-3. Ur-erauzketa					
	303-4. Ur-isurtzeak					
	303-5. Uraren kontsumoa					
Biodibertsitatea	304-1. Instalazio operatibo propioak, errentan hartutakoak nahiz gestionatutakoak, biodibertsitaterako balio handiko gune babestuetan (edo babestu gabeetan) dauden edo halako guneak ondoan edo bertan dituztenak			Ez dagokio	LABORAL Kutxaren finantza-jarduerak ez dio biodibertsitateari kalterik egiten, eta ez du eraginik babestutako guneetan.	
	304-2. Erakundearen jardueren, produktuen eta zerbitzuen ondorioz, babestutako guneetan edo babestu gabeko biodibertsitate handiko guneetan dauden inpakturik garrantzitsuenak	90. or.: Biodibertsitatearen babesa TNFD				
	304-3. Habitat babestuak edo onera ekarriak					
	304-4. Natura Babesteko Nazioarteko Batasunaren (NBNBren) Zerrenda Gorrian edo kontserbazioko zerrenda nazionaletan dauden eta habitatak jardueren eraginpean dituzten espezieen kopurua					
Jaulkipenak	305-1 / 305-2. Berotegi-efektuko gasen zuzeneko eta zeharkako isurtzeak guztira, pisuaren arabera	87. or.: Klima-aldaketa				
	305-3. Berotegi-efektuko gasen zeharkako beste isuri batzuk, pisuaren arabera	87. or.: Klima-aldaketa				
	305-4. Berotegi-efektuko gasen isurtzeen intentsitatea	87. or.: Klima-aldaketa				
	305-5. Berotegi-efektuko gasen isurtzeak murriztea	82. or.: Gestio-ikuspegia. Ingurumena 87. or.: Klima-aldaketa				
	305-6. Ozono-geruza agortzen duten substantzien isurtzeak			Ez dagokio	Ez da ozonoa agortzen duen substantziarik ekoizten, inportatzen edo esportatzen. Halako isuriak aire girotuko sistemen	
	305-7. NO, SO eta beste isuri atmosferiko garrantzitsu batzuk					

					emaitza dira, eta ez dira garrantzitsutzat jotzen.	
Hondakinak	306-1. Hondakinen sorrera eta hondakinekin lotutako inpaktu garrantzitsuak	LABORAL Kutxak ISO 14001 ingurumen-ziurtagiria du —urtean behin ematen da— eta hondakinak egoki gestionatzen direla bermatzen du. 36. or.: Ingurumen-arloko jardueraren adierazleak 85. or.: Ekonomia zirkularra eta hondakinen gestioa				
	306-2. Hondakinekin lotutako inpaktu garrantzitsuen gestioa					
	306-3. Sortutako hondakinak					
	306-4. Ezabatzekoak ez diren hondakinak					
	306-5. Ezabatzekoak diren hondakinak					
Hornitzaileen ingurumen-ebaluazioa	308-1. Ingurumen-irizpideen arabera aztertu ziren enpresa hornitzaile berrien ehunekoa	91. or.: Gestio-ikuspegia. Hornitzaileak p. 94. or.: Ekitaldian hornitzaileen gestio arduratsurako garatutako ekimenak				
	308-2. Hornikuntza-katean eragindako ingurumen-inpaktu negatibo garrantzitsuak, errealak eta potentzialak, eta horren inguruan hartutako neurriak					
GIZARTEA						
Enplegua	401-1. Enplegatuen kontratazio berriak eta langileen txandakatzea	56. or.: Plantillaren magnitude nagusiak				
	401-2. Lanaldi osoko langileei bai baina lanaldi partzialeko edo aldi baterako langileei eskaintzen ez zaizkien irabaziak	73. or.: Onura sozialen paketea				
	401-3. Gurasoen baimena	56. or.: Plantillaren magnitude nagusiak				
Langileen eta enpresaren arteko harremanak	402-1. Eragiketa-aldaketei buruzko gutxieneko abisu-epeak				Kooperatiban ez dago hitzarmen kolektiborik. Berariaz zehaztuta ez badago ere barne-araudian eta barneko lan-arauetan bazkideen lanpostu-aldaketaz abisatzeko eperik, Kontseilu Sozialetik pasatu behar dira antolamenduko aldaketak edo aldaketa operatiboak.	
Laneko osasuna eta segurtasuna	403-1. Laneko osasuna eta segurtasuna kudeatzeko sistema	70. or.: Laneko segurtasuna eta osasuna				
	403-2. Arriskuak identifikatzea, arriskuak ebaluatzea eta intzidenteak ikertzea	70. or.: Laneko segurtasuna eta osasuna				
	403-3. Laneko osasun-zerbitzuak	70. or.: Laneko segurtasuna eta osasuna				
	403-4. Langileen parte-hartzea, kontsultak eta komunikazioa laneko osasunaren eta segurtasunaren alorrean	70. or.: Laneko segurtasuna eta osasuna				

	403-5. Langileen prestakuntza laneko osasunaren eta segurtasunaren inguruan	70. or.: Laneko segurtasuna eta osasuna				
	403-6. Langileen osasuna sustatzea	72. or.: Zainduz osasun-plana				
	403-7. Merkataritza-harremanen bidez zuzeneko lotura duten langileen osasuneko eta segurtasuneko inpaktuak prebenitzea eta arintzea				Jarduera dela eta, merkataritza-harremanetan ez da inpaktu negatiborik detektatu	
	403-8. Laneko osasuna eta segurtasuna kudeatzeko sistemaren estaldura	70. or.: Laneko segurtasuna eta osasuna				
	403-9. Lan-istripuak eragindako lesioak	72. or.: Laneko istripuak				
	403-10. Laneko gaitzak eta gaixotasunak	70. or.: Laneko segurtasuna eta osasuna				
Prestakuntza eta hezkuntza	404-1. Langile bakoitzak urtean prestatzera bideratzen dituen lanorduak	63 or.: Etengabe prestatzeko programak				
	404-2. Gaitasunak gestionatzeko eta etengabe prestatzeko programak, langileen enplegagarritasuna handitzen eta lanbide-karreren amaiera bideratzen laguntzeko	63 or.: Etengabe prestatzeko programak 64. or.: Erretirora iritsi diren pertsonentzako prestakuntza				
	404-3. Lanari eta lanbide-garapenari buruzko aldizkako ebaluazioak jasotzen dituzten langileen ehunekoa	64-65. or.: Jardueraren kudeaketa – Bidean				
Aniztasuna eta aukera-berdintasuna	405-1. Gobernu-organo korporatiboen eta plantillaren osaera, sexuaren, adin-taldeen, gutxiengoetako partaidetzaren eta aniztasunaren inguruko bestelako adierazle batzuen arabera	56. or.: Plantillaren magnitude nagusiak 18. or.: Gobernu Korporatiboa				
	405-2. Gizonezkoen eta emakumezkoen oinarrizko soldaten arteko erlazioa, kategoria profesionalaren eta jarduera-kokapen garrantzitsuen arabera	68. or.: Ordainsariaren gestioa				
Diskriminaziori k eza	406-1. Diskriminazio-kasuen kopurua eta hartutako neurri zuzentzaileak				Txostenaren estaldura-epean ez da diskriminazioari lotutako inolako gorabeherarik izan.	
Elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiboa	407-1. Elkartzeko askatasuna eta hitzarmen kolektiboen babesa jasotzeko eskubidea urratuta edo mehatxupean egon daitezkeen zentro eta enpresa hornitzaile garrantzitsuak identifikatzea, eta eskubide horiek defendatzeko hartutako neurriak				Bai LABORAL Kutxak bai haren enpresa hornitzaile ia guztiek Espainiako estatuan jarduten dute. Horrek esan nahi du, legeak hala aginduta, giza eskubideak errespetatu behar dituztela, besteak beste: elkartzeko askatasuna eta hitzarmen	

					kolektiboei atxiki ahal izatea.	
Haurren lana	408-1. Haur-esplotazioa gertatzeko arriskudun jarduerak hornitzen dituzten zentroak eta enpresak identifikatzea, eta esplotazioa deuseztatzeko helburuz hartutako neurriak				Bai LABORAL Kutxak bai haren enpresa hornitzaile ia guztiek Espainiako estatuan jarduten dute soilik. Horrek esan nahi du, legeak hala aginduta, giza eskubideak errespetatu behar dituztela, besteak beste: haurrak ez esplotatzea.	
Bortxazko eta nahitaezko lana	409-1. Bortxazko lanak eragiteko arrisku handiko zentro eta enpresa hornitzaileak, eta era guztietako bortxazko lanak deuseztatzeko helburuz harturiko neurriak				Bai LABORAL Kutxak bai haren enpresa hornitzaile ia guztiek Espainiako estatuan jarduten dute soilik. Horrek esan nahi du, legeak hala aginduta, giza eskubideak errespetatu behar dituztela, besteak beste: bortxazko lanik ez egitea.	
Segurtasunaren alorreko jardunbidea	410-1. Entitatearen eragiketekin zerikusia duten giza eskubideen inguruko politikei eta prozedurei buruzko prestakuntza jaso duten segurtasuneko langileen ehunekoa				LABORAL Kutxak baimenduriko kanpo-enpresen bitartez kontratatzen ditu segurtasuneko langileak, eta horiek arduratzen dira langile guzti-guztiei lanposturako behar duten prestakuntza osoa emateaz.	
Herri indigenen eskubideak	411-1. Herri indigenen eskubideak urratu direneko kasuen kopurua, eta horien kontra hartutako neurriak				Adierazle hori ezin zaio Entitateari aplikatu, LABORAL Kutxaren jarduera-eremua Espainiara mugatzen delako.	
Tokiko komunitateak	413-1. Tokiko komunitateak parte hartzeko programekin eragiketak, inpaktu-ebaluazioa eta garapena	75. or.: Mozkinen banaketa 77. or.: Zeharkako ekarpenak gizarteari 32. or.: Materialtasun-analisia				
	413-2. Tokiko komunitateetan balizko edo benetako eragin negatibo nabarmenak izan dituzten eragiketa-zentroak				Ez da tokiko komunitateetan balizko edo benetako eragin negatiboa izan duen jarduerarik aurkitu.	
Hornitzaileen gizarte-ebaluazioa	414-1. Gizarte-irizpideen arabera aztertutako enpresa hornitzaile berrien ehunekoa				Enpresa hornitzaile eta azpikontratisten azterketarik ez da egin, gizarte-arloan. Izan ere, hasiera batean, ez da hauteman erosketa-kopuruarengatik, jarduerarengatik edo kokapenarengatik gizarte-arrisku nabarmena izan	
	414-2. Gizartearen alorreko balizko edo benetako eragin negatibo nabarmenak hornidura-katean, eta hartutako neurriak					

					dezakeen enpresa hornitzailerik.	
Politika publikoa	415-1. Politikako ekarpenen balioa, herrialdearen eta hartzailearen arabera	78. or.: Administrazio publikoekiko eta alderdi politikoekiko harremanak				
Bezeroen osasuna eta segurtasuna	416-1. Hobekuntzak egiteko asmoarekin osasunean eta segurtasunean duten eragina aztertu zaien produktu- eta zerbitzu-kategoria nabarmenen ehunekoa	41. or.: Bezeroekiko gestio arduratsua 47. or.: Produktu eta zerbitzu arduratsuak				
	416-2. Produktuek eta zerbitzuek bizi-zikloan zehar osasunean eta segurtasunean duten eraginaren alorreko arautegia edo borondatezko kodeak ez betetzeagatik sortutako intzidente guztien kopurua	42. or.: Zehapenak 40. or.: Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua				
Marketina eta etiketatzea	417-1. Produktuen eta zerbitzuen alorreko informazioaren eta etiketatzearen inguruan erakundeko prozedurek behar duten informazio-mota, eta produktu eta zerbitzu nabarmenak				LABORAL Kutxako produktu eta zerbitzu guztiak Espainiako Bankuaren eta CNMVren araudiaren mende daude, horiei buruzko informazioari eta merkaturatzeko erari dagokienez. Horrek prozedura horien gardentasuna bermatzen du. Era berean, bezeroa babesten duen MiFID arautegia (sailkapena, testa, informazioa…) aplikatzen da. 38. or.: Bezeroekiko harremanak	
	417-2. Produktu eta zerbitzuen informazioari nahiz etiketatzeari buruzko arauen eta borondatezko kodeen ez-betetzeak guztira	41. or.: Zehapenak 40. or.: Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua				
	417-3 Marketin-komunikazioei buruzko arauen eta borondatezko kodeen ez-betetzeak	41. or.: Zehapenak 40. or.: Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua 42. or.: Autokontrola				
Bezeroaren pribatutasuna	418-1. Bezeroen pribatutasuna urratzean eta datuen ihesean oinarritutako erreklamazioen kopurua	41. or.: Zehapenak 40. or.: Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua				

FS1	Negozio-lineei aplikatutako ingurumenaren eta gizartearen alorretako politikak deskribatzea	30-31. Konpromisoak eta lorpenak 78. Gaztenpresa Fundazioa 47. Produktu eta zerbitzu arduratsuak 85-86. Ingurumenaren gestio-ikuspegia
FS2	Negozio-lineetan aplikatzen diren eta deskribatu ditugun politiketako gizarte- eta ingurumen-arriskuak ebaluatu eta aukeratzeko prozedurak deskribatzea	66. Aniztasuna eta aukera-berdintasuna 47. Produktu eta zerbitzu arduratsuak 85. Ingurumenarekiko harremana
FS3	Bezeroek kontratu edo transakzioetan agertzen diren gizarte- eta ingurumen-baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko eta kontrolatzeko prozedurak deskribatzea	Gure jardueraren eremua eta finantzatutako proiektuak aintzat hartuta, ez dago gure bezeroak kontrolatzeko eta haien jarduerari segimendua egiteko sistemarik.
FS4	Langileek gizarte- eta ingurumen-politikak eta horiek gauzatzeko prozedurak negozio-lineetan aplikatzeko dituzten gaitasunak hobetzeko prozedura(k) deskribatzea	64. Etengabe prestatzeko programak
FS5	Bezeroekiko eta beste interes-talde batzuekiko harremanak deskribatzea, arriskuen eta aukeren alorrean	39. Bezeroekiko elkarrizketak 62. Plantillarekiko elkarrizketak 80. Gizartearekiko elkarrizketak
FS6	Negozio-linea bakoitzaren zorroaren ehunekoa, eskualdearen, tamainaren eta jarduera-sektorearen arabera xehatua	12. Bulegoen banaketa geografikoa 38. Bezeroen magnitude nagusiak
FS7	Negozio-linea bakoitzean gizarte-onura jakin bat lortzeko diseinatutako produktu eta zerbitzuen diru-balioa, gizarte-helburuen arabera xehatua	47. Produktu eta zerbitzu arduratsuak 49. ESG irizpidedun finantzaketa/inbertsioa
FS8	Negozio-linea bakoitzean ingurumen-onura jakin bat lortzeko diseinatutako produktu eta zerbitzuen diru-balioa, ingurumen-helburuen arabera xehatua	49. ESG irizpidedun finantzaketa/inbertsioa
FS9	Gizarte- eta ingurumen-arriskua kudeatzeko politiken eta prozeduren ezarpen-maila ebaluatzeko auditoretzen estaldura eta maiztasuna	71. Segurtasuna eta osasuna 85. Ingurumenaren gestio-ikuspegia TCFD
FS10	Erakundeak gizarte- eta ingurumen-gaietan harremanak izan dituen bere zorroko enpresen ehunekoa eta kopurua	39. Bezeroekiko elkarrizketak 49. ESG irizpidedun finantzaketa/inbertsioa
FS11	Gizarte- eta ingurumen-screening positiboari edo negatiboari lotutako aktiboen ehunekoa	49. ESG irizpidedun finantzaketa/inbertsioa 87. Ingurumen arriskuen ebaluazioa 47. Produktu eta zerbitzu arduratsuak TCFD
FS12	Gizarte- edo ingurumen-gaiei aplikatutako boto-politikak, erakunde informatzaileek horien gainean botoa emateko edo boto-aholkularitza eskaintzeko eskubidea dutenean	2024rako aurreikusita
FS13	Eremu hustuetan edo egoera ahulean dauden eremuetan finantza-zerbitzuetara heltzea, irismen-motaren arabera	52. Finantza-zerbitzuetarako irisgarritasuna. Udalerri txikiak
FS14	Elbarritasunak edo eragozpenak dituen jendearen irisgarritasuna hobetzeko ekimenak	52. Oztopo arkitektonikoak eta irisgarritasuna Irisgarritasun integrala
FS15	Produktu eta zerbitzu finantzarioak zuzentasunez diseinatu eta merkaturatzeko politikak	LABORAL Kutxak arautegi estu-estua betetzen du, produktuak diseinatu eta merkaturatzeko. Gainera, Jokabide Kodea ere badu. 41-43. Bezeroarekiko gestio arduratsua
FS16	Finantza-kultura hedatzeko ekimenak, onuradun-motaren arabera xehatuta	53-54. Finantza-kultura 82. Finantza-hezkuntza 78-79. Gaztenpresa fundazioa 79. Zeharkako ekarpenak gizarteari

5.2. Txostenaren edukia zehazteko prozesua

LABORAL Kutxak aitortzen du txosten hau GRI estandarren arabera egin dela. Halaxe erakusten dute AENORek egindako kanpo-egiaztapenaren emaitzek.

5.3. Jasangarritasun-informazioa zabaltzea (Taxonomiaren Erregelamendua)

Bere jarduerak ingurumenaren aldetik jasangarriak diren ekonomia-jarduerekin nola eta zenbateraino lotzen diren jakinarazten du LABORAL Kutxak, kreditu-erakundeentzako 2020/852 (EB) Erregelamenduaren (Taxonomiaren Erregelamenduaren) 8. artikuluko informazio kuantitatiboaren eskakizunak betez. 8. artikulu horren arabera, jarduera ekonomiko jasangarrien alorreko aktiboekin edo prozesuekin lotutako jardueren negozio-bolumenaren berri eman beharra dago, bai eta aktibo finkoetako inbertsioen eta gastu operatiboen («emaitzen funtsezko adierazleen») berri ere, ingurumenaren ikuspegitik.

Aktibo Berdeen Ratioa (GARa) aurkezteko, zenbait txantiloi erabili dira oinarri gisa; hain zuzen, 2021eko uztailaren 6an argitaratu zen Europako Batzordearen Erregelamendu Delegatuaren VI. eranskinean zehaztutakoak. Era berean, 2022ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitarteko eperako behar den informazioa bakarrik zabaldu da.

LABORAL Kutxak taxonomiarekin eta Aktibo Berdeen Ratioarekin (GARarekin) lotutako informazioa zabaltzen du, 2020/852 eta 2021/2178 Erregelamenduetan hobekien ulertzen duen moduan. 2021/2178 Erregelamenduaren 10. artikuluaren 4. atalean adierazten dira 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako dibulgazio-betebeharrak. Zehazki, V. eranskinean daude kreditu-erakundeen emaitzen funtsezko adierazleak, eta horixe dagokio LABORAL Kutxari. Era berean, 6. eranskinean adierazle horien txantiloiak aipatzen dira.

Guztira 21 txantiloi eman behar dira ezagutzera —esteka honetan dago horiei buruzko informazioa—. Txantiloi horietako gehienak capex eta negozio-bolumen gisa dibulgatu behar dira. Horietako 8 finantza-erakundeen balantzearen barruan dauden aktiboekin lotuta daude: 4 balantzetik kanpoko aktiboei dagozkie eta 9 energia nuklearrarekin edo gas naturalarekin lotutako jarduerei buruzko informazio espezifikoari.

Txantiloi horiek guztiek informazio-kopuru handia dute. Hala ere, hobeto ulertu ahal izateko, jarraian txantiloi horietako batzuk erakutsiko dira labur-labur, informazio garrantzitsuena soilik azalduz. Aipatzekoa da capex-ari eta negozio-bolumenari buruzko informazioa eman ohi dela txantiloietan; baina, laburpen honetan, capex-ari buruzko informazioa baino ez da erakutsiko.

Halaber, taxonomiak 6 ingurumen-helburu dituen arren (klima-aldaketa arintzea, klima-aldaketara egokitzea, kutsaduraren prebentzioa eta kontrola, ekonomia zirkularrerako trantsizioa, ur- eta itsas baliabideen jasangarritasuna eta babesa, eta biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta leheneratzea), laburbildutako txantiloietan klima-aldaketa arintzeko helburua baino ez da aipatuko. Hori horrela, klima-aldaketa arintzearen helburua lehenetsi da egokitzearen helburuaren aldean, eta gainerako helburuei buruzko daturik ez dago; izan ere, aurtengo ekitaldira arte, enpresek ez dituzte dibulgazio horiek egin, ez baitaude behartuta.

GAR 001a eta 003a

GAR 001 eta 003 ereduak txantiloi berean biltzen dira, informazio berari erreferentzia egiten diotelako: hautagarriak diren edo ingurumen-taxonomiarekin lerrokatuta dauden LABORAL Kutxaren aktiboei. Horien arteko aldea hau da: lehena zenbatekoetan ematen da; hirugarrena, berriz, ehunekoetan.

Klima-aldaketa arintzea	GAR 001a (mila €-kotan)	GAR 003a
LABORAL Kutxaren aktibo osoa	26.811.513	-
GARerako aktibo konputagarriak	17.966.053	% 100
Taxonomiarako aktibo hautagarriak	10.294.002	% 57,47
Taxonomiarekin lerrokaturiko aktiboak	665.110	% 3,71

2023-12-31n LABORAL Kutxak 26,81 MM€-tan baloraturiko aktiboak ditu. Halere, hainbat partida daude GARa kalkulatzeko konputagarriak ez direnak, hala nola jaulkipen subiranoak, banku zentralen aurreko esposizioak edo negoziazio-zorroa. Partida horiek 8,85 MM€-koak dira; beraz, GARerako aktibo konputagarriak 17,97 MM€-koak dira.

Aktibo konputagarri horien artean, hautagarriak eta lerrokatuak izan ezin diren hainbat aktibo daude. Aktibo horien artean daude informazio ez-finantzarioa ematera behartuta ez dauden erakundeak (gehienak enpresa txiki eta ertainak – ETEak), deribatuak eta ageriko edo eskudiruzko banku arteko maileguak. Partida horiek bolumen nabarmena dute LABORAL Kutxaren kasuan, zehazki 6,99 MM€-koa, balantzearen barruan ETE-entzako finantzaketak pisu handia baitu. Beraz, hautagarritzat hartzen diren aktiboak 10,29 MM€-an baloratuta daude.

Aktibo hautagarrietako 10,29 MM€-ak klima-aldaketa arintzeko dira. Kopuru hori GARerako aktibo konputagarrien % 57,47koa da; alabaina, hautagarriak izateko aukera duten aktiboak soilik kontuan hartzen badira, % 94koa. Aktibo hautagarri horien barruan, honako hauek daude:

- Hipoteka guztiak.
- Informazio ez-finantzarioa ematera behartuta dauden enpresa finantzatuen hautagarritasun-ratioa. Ratio hori informazioa lortzeko proiektu sektorial baten bidez lortu da, eta % 26,65ekoa da.

Azkenik, taxonomiarekin lerrokatutako aktiboak daude, ingurumenaren aldetik jasangarriak izateko hautaketa-irizpide teknikoak betetzen dituztenak, taxonomiaren arabera. LABORAL Kutxarentzat, aktibo horiek 0,67 MM€-koak dira, hau da, balantzearen % 3,71koak. Kopuru hori banakatzen badugu, honako hau ikus daiteke:

- Hipoteken % 5,89 lerrokatuta daude.
- Merkataritza-zorroari dagokion lerrokatze-ratioa % 13,22koa da.

Lerrokatze hori LABORAL Kutxak 2021/2139 Erregelamendu Delegatuaren 1. eranskineko 7.7 artikuluari buruz egindako interpretazioan oinarritzen da.

GAR 002a

GAR 002ak GAR 001aren partida batzuk banakatzen ditu. Zehazki, informazio ez-finantzarioa ematera behartuta dauden eta taxonomiarako hautagarriak diren erakundeak (enpresak, EJSNaren arabera) aipatzen ditu. Hauek dira LABORAL Kutxaren datuak:

Mitigación del cambio climático		
CNAEs	**Elegibles para taxonomía**	**Alineados con taxonomía**
2822 - Fabricación de maquinaria de elevación y manipulación	942.317	0
2841 - Fabricación de máquinas herramienta para trabajar el metal	79.132	0
3020 - Fabricación de locomotoras y material ferroviario	20.079.718	20.081.726
4120 - Construcción de edificios residenciales y no residenciales	469	0
4299 - Construcción de otros proyectos de ingeniería civil n.c.o.p.	1.630	1.630
4322 - Fontanería, instalaciones de sistemas de calefacción y aire acondicionado	4.384	0
4711 - Comercio al por menor en establecimientos no especializados, con predominio en productos alim	46.418.790	18.128.441
4931 - Transporte terrestre urbano y suburbano de pasajeros	348.017	0
8690 - Otras actividades sanitarias	1.355.542	0
9999 - NACEs no incluidos en Taxonomia	72.038.195	31.863.042
TOTAL	**141.268.194**	**70.074.839**

GAR 004a

Txantiloi hori, GAR 003a bezala, aktibo hautagarrien eta lerrokatuen ehunekoarekin lotuta dago. Halere, GAR 004ak, 2023-12-31ko aktibo guztiak kontuan hartu ordez, 2023ko ekitaldiari dagokion fluxua hartzen du kontuan.

Klima-aldaketa arintzea	Mila €-kotan	%-a
Aktiboen guztizko fluxua	4.726.114	-
GARerako aktibo konputagarrien fluxua	3.649.910	% 100
Aktibo hautagarrien fluxua	1.471.800	% 40,32
Aktibo lerrokatuen fluxua	109.398	% 3

2023an, LABORAL Kutxak 4,73 MM€-ko aktibo-fluxua izan du; horietatik, 3,65 MM€ GARerako konputagarriak izan dira, eta % 40,32 taxonomiarako hautagarriak. Aurrez aipatu bezala, hipoteken % 100 hautagarria da; informazio ez-finantzarioa ematera behartuta dauden enpresen artean, berriz, ratioa % 34koa da. Halere, gogoratu behar da informazio ez-finantzarioa ematera behartuta ez dauden enpresekin —gehienak ETEak— lotutako fluxu guztia ez dela hautagarria, nahiz eta konputagarria izan.

Irizpide teknikoak betetzen dituzten aktibo lerrokatuak % 3 dira. Horiek hipoteken % 5,63 dira, eta informazio ez-finantzarioa ematera behartuta dauden enpresen % 17,35. GAR 001 eta 003 txantiloietan bezala, proiektu sektorialeko irizpideak erabili dira merkataritza-zorrorako, eta 2021/2139 Erregelamendu Delegatuaren 1. eranskineko 7.7 artikuluari buruzko LABORAL Kutxaren interpretazioa hipoteka-zorrorako.

GAR 005a

Bi partidatako datuak behar dira bi GAR 005 txantiloietarako (hots, GAR 005.1 eta GAR 005.2 txantiloietarako). Alde batetik, finantza-bermeak, zeinentzat ezin izan baita informaziorik aurkitu. Beste aldetik, kudeatutako aktiboak, zeinentzat ingurumen- eta gizarte-ezaugarriak (8. artikulua) sustatzen dituzten inbertsio-funtsen fitxetan jasotako informazioa erabili baita. Caja Laboral Gestión GIIC SA da funts horien kudeatzailea.

Fitxa horietan jasotako datuekin, GAR 005.1 txantiloia —aktibo guztiei dagokiena— soilik osatu ahal izan da. Aitzitik, ez daude GAR 005.2 txantiloia —2023ko ekitaldiko aktibo-fluxuari dagokiona— osatzeko behar diren datuak.

Bestalde, inbertsio-funtsen fitxetako informazioa eta GAR txantiloietan eskatutakoa desberdinak direnez, dedukzio edo interpretazio batzuk egin behar izan dira:

- Inbertsio-funtsen fitxetan taxonomiarekiko lerrokatze-ehunekoa adierazten da, baina ez da zehazten zer helburuari dagokion. LABORAL Kutxak ondorioztatu duenez, klima-aldaketa arintzeko helburuari dagokio, horixe baita gaur egun ingurumen-helbururik ohikoena.
- Horrez gain, inbertsio-funtsen fitxetan ez dago hautagarritasun-ehunekoari buruzko informaziorik. Beraz, hautagarritasunerako zein lerrokatzerako ehuneko bera ezagutarazten du LABORAL Kutxak.

GAR 005.1a

Jasotako informazioaren arabera, % 0,39koa da LABORAL Kutxaren balantzetik kanpo sortutako aktiboen lerrokatze-ratioa. Hautagarritasun-ratioa ere % 0,39koa da.

Mitigación del cambio climático		
Miles de euros	**Garantías financieras**	**Activos gestionados**
Flujo total de activos		
Flujo de activos elegibles		
Flujo de activos alineados		

Energia nuklearraren eta gas naturalaren txantiloiak (NyG)

Gas naturalarekin eta energia nuklearrarekin zerikusia duten jarduerei buruzko berariazko informazioa argitaratu da aurten, lehen aldiz. Zehazki, 5 txantiloi argitaratu dira, kreditu-inbertsioaren zorroan energia nuklearrarekin eta gas naturalarekin zerikusia duen jardueraren bat dagoen zehazteko (NyG 001). Eta, jardueraren bat badago, ea saldo ez-hautagarriei (NyG 005), hautagarriei (NyG 004) edo lerrokatuei (NyG 002/003) dagokien.

LABORAL Kutxak ez du energia nuklearrarekin zerikusia duen jarduerarik bere kreditu-zorroan, baina baditu saldoak gas naturalarekin zerikusia duten bi jardueratan. Hauek dira, zehazki:

	Miles de euros
Construcción o explotación de instalaciones de generación de electricidad que producen electricidad a partir de combustibles fósiles gaseosos.	4.471.572
Construcción, renovación y explotación de instalaciones de generación combinada de calor/frío y electricidad que utilicen combustibles fósiles gaseosos.	48.746

Zenbateko horiek saldo hautagarri eta ez-lerrokatuei dagozkie oso-osorik.

5.4. AENORen egiaztapena

AENOR

VERIFICACIÓN DEL INFORME SOBRE SOSTENIBILIDAD

AENOR
INFORME DE SOSTENIBILIDAD VERIFICADO

VMS-2024/0003

AENOR ha verificado el Informe de Sostenibilidad de la organización

CAJA LABORAL POPULAR, COOP. DE CREDITO

concluyendo que el mismo se ha realizado conforme con los estándares de elaboración de informes GRI y proporciona una visión global de los impactos más significativos de la organización en la economía, el medio ambiente y las personas, incluidos los impactos que afectan a los derechos humanos, y de cómo los gestiona.

Título del informe:	Memoria de Sostenibilidad y Estado de Información no Financiera 2023
Periodo objeto del informe comprendido entre:	1 de enero al 31 de diciembre de 2023
Domicilio en:	PASEO JOSÉ Mª ARIZMENDIARRIETA, S/N. 20500 - MONDRAGON (GIPUZKOA)

Emisión:2024-03-04

Rafael GARCÍA MEIRO
CEO

AENOR CONFIA S.A.U.
Génova, 6. 28004 Madrid. España
Tel. 91 432 60 00.- www.aenor.com

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA MENDEKO SOZIETATEAK

URTEKO KONTU BATERATUAK ETA KUDEAKETA-TXOSTEN BATERATUA, 2023KO EKITALDIKOAK

Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreko kideek adierazi dute, batetik, urteko kontu bateratu hauek egiteko kontabilitate-printzipio aplikagarriak erabili direla eta Entitate Nagusiaren eta beraren mendeko sozietateen ondare bateratuaren, finantza-egoera bateratuaren eta emaitza bateratuen irudi fidela erakusten dutela, eta, bestetik, honekin batera doan kudeaketa-txostenak azterketa fidela egin diela Taldeak 2023ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian izan dituen bilakaerari eta emaitzei.

Ondorioz, Caja Laboral Popular Coop. de Créditoko (Entitate Nagusiko) Kontseilu Errektoreko kideek 2023ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagozkion Kudeaketa Txosten bateratua eta urteko kontu bateratuak formulatu dituzte, 2024ko martxoaren 1ean. Urteko kontu bateratuetan honako hauek sartzen dira: 2023ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko txosten bateratua, balantze bateratua, galdu-irabazien kontu bateratua, kontabilizatutako sarreren eta gastuen egoera-orri bateratua, ondare garbian gertatutako aldaketen egoera-orri bateratua eta diru-fluxuen egoera-orri bateratua. Ados daudela erakusteko, guztiek orri hau sinatu dute, eta Kontseilu Errektoreko idazkariak dokumentu horietako orri guztietan sinatu du, identifikatu ahal izateko.

Adolfo Plaza Izaguirre jauna (Presidentea)	Elena Zárraga Bilbao andrea (Presidenteordea)	Ricardo Pérez Aguado jauna (Idazkaria)
Beatriz Mauleón Sainz de Vicuña andrea (Kidea)	Iván Martén Uliarte jauna (Kidea)	Xabier Sagarna Arrizabalaga jauna (Kidea)
Iñigo López-Cano Fernández de Betoño jauna (Kidea)	Nagore Larrabeiti Libano andrea (Kidea)	María Esther Korta Errazkin andrea (Kidea) (*)
Juan José Álvarez Rubio jauna (Kidea)	Itziar Elgarresta Ibarrondo andrea (Kidea)	María Laura Rodríguez González andrea (Kidea)
Edorta Gil Sagarduy jauna (Kidea)	Aitor Soria Alonso jauna (Kidea)	

(*) María Esther Korta Errazkin andreak ez ditu 2023ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak sinatu, Kontseilu Errektorea egin zen egunean laneko bidaia batean zegoelako.